

EUSKERAZKO IDATZ-LANAK



EUSKERAZKO IDAZ-LANAK

BOST'GARREN LIBURUA

* * * *

*

-AURKI – BIDEA-

IDAZ-LANAREN ZERRENDA

ORRI-ALDEA

Zenbaki barik, lagun eta emaztearen argazkiak.

Aurki bidearen zenbakiak be, bealdeko eskoma aldean daukazela.

1...Euskalerrria edo Euskadi, berezko sorterrri edo Aberria da. Aurkezpena, Nortasuna ta Norkeria.....	1
2...Berezko Baita.....	2 - 3
3...Munduan, Euskalerrria eta Oarkuntza.....	3 - 4
4...Euskalerrria.....	5 - 6
5...Erria izateko lenengo oinkadak.....	6 - 7
6...Europaren askatasunezko Euskal zentzuzko izaera.....	7
7...Keltiarren edesti laburra.....	8
8...Etruskoen edesti laburra.....	8 - 9
9...Erromatarren edesti laburra.....	10 - 12
10...Godoen edesti laburra.....	12 - 14
11...Oarkuntza.....	14
12...Erdi Mendea.....	15
13...Eleiza katolikoan nausitasuna.....	15 - 17
14...Frantziko lurraldearen lenengo erregeak.....	17
15...Alemaniako lurraldearen lenengo erregeak.....	17 - 18
16...Erdi ugarte edo peninsula onen lurraldean lenengo erregeak...18 - 19	
17...Mauritarren sarrera Europako Sartalde onetan.....	20
18...Euskalerrriaren Ego-aldeko lurraldean, lenengo errege ta Jaunak.....	20
19...Akitania.....	20 - 21
20...Baskoniako dukat-errria.....	21 - 23
21...Karlo Magno, Mauritarrek,katoliko eleiza, eta Euskaldunak...23 - 24	
22...Euskalerrriko Ego-aldean, Mauritarrekin Nafarroako- erregetza ta Bizkaiko jaunaren sorkuntza.....	25
23...Nafarroako erregetzaren sorkuntza.....	25 - 28
24...Jimenotarren errege leiñutik.....	28 - 29
25...Nafartar errege leiñutik.....	29
26...Txanpainaiko errege leiñutik.....	29 - 30
27...Euskalerrrian, Bizkaiko jaunaren sorkuntza.....	31
28...Bizkaiko jaunaren sorkuntza.....	31 - 32
29...Bizkaian lenengo jauna.....	32

30...Bizkaiko Batzar Nagusiaren baldintzak Jaunarekin alkar aditzeko.....	33
31...Bizkaiko Batzar Nagusiak euren jabetasunean, jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintzazko agintaritzatik ?.....	34
32...Pase Forala zergaitik sortu zan ?.....	34 - 35
33...25n Jaunak, Isabel eta Fernando katolikuak.....	35 - 37
34...Sarrera.....	38 - 39
35...1.789 Frantziko iraultza.....	39 - 40
36...Euskalerrriaren arazoak, 1.789ko urtetik gaur arte.....	40
37...VIIIn Fernando.....	40 - 43
38...Onen ondorio labur bat.....	43 - 45
39...Karlidadako gudatearen zergatia.....	46 - 47
40...1.833an lenengo karlidadako gudaren asiera.....	47 - 48
41...1.833-1.839ko lenengo karlidadaren amaiera” 1.835ean Bagillaren 25ean, Zumalakarregi il zanetik, aria ostera artuta.....	48 - 53
42...Alde bietatik ibili ziran guda nagusi onein jaiotezko erri edo aberriaren Baitazko eritzian, eukitako ulermenaren ondorioak dira.....	54 - 57
43...1.833-1.876eko urte bitartean, karlidadaren guda.....	58
44...1.840-1.860ko bigarren gudaldia.....	58
45...1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerrriak bakearen orde, menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak.....	58 - 60
46...Euskal nortasunaren sorkuntzatik asita, 1'go karlidadako lan guzti onen ondorioa.....	60
47...Len: Lur, Aize, Ur, Zuaitz, Abere, ta gizartearen eskubideak...	60 - 61
48...Euskal nortasunezko demokrazia.....	61
49...Espainiar nortasunezko demokrazia.....	61 - 62
50...Osio gotzaiña eta I Rekaredo.....	62 - 63
51...I Rekaredo.....	63
52...Zelan ziurtu Toledoko batzarretik agetzen dirala gure kalte guztiak ?.....	63
53...Ziurtza.....	63 - 64
54...Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, jakin bear doguna.....	64 - 65
55...Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria.....	65 - 66
56...Euskaldunak.....	66
57...Euskaldunen bizitzazko osagarritasuna.....	67 - 69
58...Zer esan euskal gazteari ?.....	69
59...Zer egin ?.....	69 - 70
60...Galiziatik Txangolari.....	71
61...Aurkezpena.....	72 - 73
62...Oarpena.....	73 - 74


63...Keltiarrak.....	74 - 75
64...Munduan noz azten dira norkeriaren menpekotasun orreik ?.....	75 - 78
65...Adiñeko erakundeak aukeratu euskun ostaletxea.....	80
66...Beko ibaiak eta Sanxenxoko erria.....	80 - 84
67...Bidaiaren txango egunak.....	84 - 86
68...2.011'ko Bagilla'ren 10'ean.....	88 - 95
69...2.011'ko Bagilla'ren 11'n.....	96 - 98
70...2.011'ko Bagilla'ren 12'an.....	98-103
71...2.011'ko Bagilla'ren 13'an.....	104-109
72...2.011'ko Bagilla'ren 14'an.....	110-116
73...Kristobal Kolon, IVn Karlos Nafarroako erregearen semea izan zan ?.....	117-124
74...Euskerazaleak Alkartean, Euskal-Astea.....	125-128
75...Mundu onetako erri ta errigizarteak, eramankor itxaroten dogun "guzurraren utzegitea".....	129-135
76...Agur, Uriarte ta Euba'tar Ana.....	136-143
77...Agur, Aldekoa eta Atutxa'tar Jon Andoni.....	144-147
78...Frantzi'tik eleiz txango, Lisieux'eko Teresita'ren bizi-igaro bidetik.....	148.152
79...Eta Teresitaren idaz-lan bardifia.....	153-157
80...1.839-1.876'ko urte artean Karlistaren bigarren guda.....	158-261
81...Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen "semea izan ote zan ?.....	263-364
82..."Izadia Zaindu", Euskal toki-izenak munduan eta Euskal edestia.....	366-420
83...Euskerazaleak Alkartearen kide ta lagun batzuen argazkiak...	420-426

* * * *

*



*Ezker aldetik
Fernandez'tar Karmele
Arzelus'tar Amale
San Sebastian'tar Isabel
Olazar'tar Martin
San Sebastian'tar Maritxu
Atutxa'tar Paul
Barroeta'tar Lourdes
Uriarte ta Euba'tar Ana
Egurrola'tar Iñakik atera eban argazkia (Latxagaren omenaldian)*



Egurrola 'tar Iñaki
Olazar 'tar Martin
San Sebastian 'tar Jose Mari "Latxaga"
Latxaga 'tar Iñaki



*Ezker aldetik asita:
San Sebastian 'tar Maritxu
Fernandez 'tar Karmele
atzean Uriarte ta Euba 'tar Ana
aurrean Arzelus 'tar Amale
San Sebastian 'tar Isabel
San Sebastian 'tar Jose Mari "Latxaga"
Barroeta ta Gorritxo 'tar Lourdes
Egurrola 'tar Iñaki
Olazar 'tar Martin
erdian belauniko dauana Atutxa 'tar Paul
(Latxagari egin geuntson omenaldian)*




AMSTERDAM

*Atutxa ta Agirre'tar Paul
eta
Barroeta ta Gorritxo'tar Lourdes
.senar-emazteak*



EUSKERAZAINTZA EUSKERAREN ERRI AKADEMIAK GOGOZ ETA BIOTZEZ AGURTZEN DAU



GURTUBAI tar ALBERTO jauna
eta auxe adierazten dautso: Urril onen 19'an, 11 1/2'etan. Amorebieta'n
Larra'ko Lekaide-Etxearen inguruan Aita Santi Onaia Karmeldarrari
irudia ipifiri ta omenaldia egingo jakola eta ekintza orreitar eta ondoren izan-
go dan bazkarira dei egiten dautsugula. Ekiñaldi orretan gogoz izango zarala-
koan, artu egizu gure agurrik beroena.

OLAZAR'tar Martin
EUSKERAZAINTZA'ren Lendakariak

*Olazar'tar Martin
Legarreta'tar Manu
Gurtubai'tar Alberto (alkatea)
Latiegi'tar Bizente
Zubikarai'tar Augustin*


*Aita Santiri omenaldia Zornotzan - Larrako lekaidetxe ondoan
1996'an Urria'ren 19'an*



*Ezkerretik asita
Zubiri'tar Iñaki
Zubikarai eta Bedilauneta'tar Augustin
Olazar eta Uribe'tar Martin*



*Euskerazaintza'ren Batzarra Donostian
2005'an Azaroa'ren 26'an*



San Sebastian 'tar Jose Mari (Latxaga)

Orria 1998'ko Maiatzean

La Madeleingo ermita ondoan

An atzean beti edurtuta dagozan Ani, Iru-Erregen Maia eta Ori mendiak



Onaindia ta Baseta'tar Santi

"Aita Santi"

Bere gazte denboran



Atutxa ta Agirre'tar Paul

1998'ko Maiatzean

La Madeleingo ermita ondoan

An atzean beti edurtuta dagozan Ani, Iru-Erregen Maia eta Ori mendiak

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(I)

AURKEZPENA:

Mundu onen giza semearen artean antziñatik sartu giñan, nortasunezko eskubide eta norkerizko asmakuntzaren eztabaida bidez borroka latzetan, eta gaur oraindiño dan guztia batzangotu (1) gurean gabiz, Norkerizko diruaren serbitzura.

NORTASUNA, Jaungoikoak Gai-bizi onetara; Berak oiñarritutako ordezkko Legean eragille (2) lez bialtzen gaituenetik, Bereztasunaren legezko (3) antzokian sartzen gaitu, ordezkko arduratan ezartzen gaituelako, eta Lege ori danontzat bardiña izanda, iñork ez dauka eskubiderik beren naierara ezer egin edo asmatzeko.

Bizi onetan, egin bear doguzan gauza guztietan agertzen jakuz gai lege orrean argitasunezko xeetasunak, eta edozer gauza Bere Lege bidetik kanpo egiterakoan, dana amaitzen da azken gaizto edo utsegite baten, eztanda eginda.

Gure gizartearen lotsagizunezko arremonetan bardin sortzen da, bakoitzaren eskubideak euren neurrian ez badoguz on ordezkutzen, zorigaitz edo zoritxarreko atea zabaldu egiten doguzelako beti.

Orregaitik, nortasunezko izaera aipatzen dogunean, ez dogu aipatzen gizon emakumearen itxura bakarrik, baita Jaungoikoak gai bizi onetan bereztutako legea elburu dogula, bakoitzak bere gizabarne bizi bidetik egin bear dauazan gauzak, zentzun osoan edo urbiltasunean egiten dogunagaitik neurtzen dalako Nortasunaren baita (4).

NORKERIA, Jaungoikoak gai ludi oneri bereztuta ezarritako legearen guztiz aurkakoa da, oker edo norberkeriz arrokerizko sasijakintzan asmatzen doguzan gauza guztiak, lapurkeri utsean biurtzen diralako, Berak gai (5) osoari ipinitako legeari, eta bai beren gaiñean bizi garan guztiei.

Gaur, mundu onen bizitz osoari, txoriaren begiraldi bat emon ezkerro, edo daukaguzan argibideakaz jakintsu egonda, ez gara lotsatuko egiten dogunagaitik ?

Ezetz esan leike, goimaillako jakintzan artzen diran erabagiak, agintaritzari ta merkataritzazko diruari begira bideratzen dabezelako erabagi orreik, eta orren esan naia, norkeriaren morroitasunezko aldira eroan gure gaituela geienari, batzuk sasi-jainkotasunean bizi daitezen.

Jainkoaren Legea ortze dago baiña, eta nik, uste dot topo egin dogula berarekin.

(1)Batzangotu = globalizar. (2) Eragille edo kudeatzaile = gestorador. (3) Bereztasunaren Legea = Ley de esta Naturalizaciòn material, o el derecho de la misma en su compresiòn. (4) Nortasunaren baita = consciencia de la persona en la realizaciòn de sus actos. (5) Gai = materia de esta creaciòn.

BEREZKO "BAITA".

Jainkoaren Legeari begira, bizi onen milla urte askotako egilletasunaren edestiko etorkizunean artu genduan gure Arimetan daukagun Euskaldun Baita (2).

Menderatzaileak euren elburuak lortzeko, guzurragaz, zirriborrotu egin gura dauana. Ezinezkoa da baiña.

Gure bizi ekintzan noz konturatuko gara, azpiegituraren (3) egilletasunerako (4), gai bizi onek aukera azkoko ditekeen (5) lege edo oiñarri (6) bidez, aurkezten dauskuzan gai gauzakaz bakarrik balio bear garela ?.

Ba aldaukagu beste aukerarik ?.

Gaur asko dakigu egilletasunaren gora beran, gure jakintzazko arloan zeaztasunezko zertzelada asko daukaguzelako.

Eta gure ekintzaren aukerarako jakintza orreik, amaibakoa izanez gain, aukera bakoitzagan ditekeenak be, beste amaibako zabaltasun aurrean aurkezten gaitu.

Irazale edo Sortzaileak al gara ?.

Asmalarien aukera baiño besterik ez daukagu.

Gure antolakuntzazko eginkizuna orregaitik, gaiak zeaztasunezko bereizkuntzan aukeratu egiten dauskuenak oiturtzeko edo, gure jakintzazko agerbidean zeaztasunezko gauza orreik ezartzeko, euren izatasunezko nortasunean ezaugarritzko izenakaz antolatuta gorde egin bear doguz, bestela, olan ez balitz, gure egilletasunezko lana korapillotu edo ezinezkoa biurtuko litzake.

Mundu onetan, gaituta gagozan gizon emakumeen artean bardin sortzen da.

Gizaren bakardadezko zabaltasunean **JAINKOAREN LEGEARI** begira, eta euren leiñuzko sorkuntzan azturazko jakin bidean, gure artuemoneko zentzuak alan eskatzen daualako, baktxaren izenezko izatasunekaz bear dan antolakuntzan, legezko edo jatorritzko adierazpena emon geuntson bizitz oneri.

Besterik al geinke ?.

Eta munduko gizaren zentzua, nai ezberdintasunezko itxuran edo ta, ezberdintasunaren izenezko nortasunekin agertuta bardiñantzekoa bada, ori al da arrazoia, batzuen sasi norkerizko naikeriagaitik, sinismen guzti orreik eta izatasunezko nortasunak, batzangotasunaren sasi asmo orren bidez indarkeriz ezereztuteko ?.

Nora joan edo zer egiteko daukagu ainbeste estura edo larritasunagaz ?.

Mundu onetako gizasemeak beartuta gagoz, guztien adimendu edo ulermen bateko elburura eltzera, munduko lur au bakarra izanez gain, danon ardurazkoa dalako.

Baiña ez, mendeko sasi asmalari oiek esaten dabelako.

Gaituta gagozan gizaseme guztiak, sinismeneko ulermen orreitara eldu bear garalako baizik.

Noz ?.

(1) Batzangotasuna = globalizaciòn. (2) EUSKALDUN BAITA = conciencia vasca. (3) Azpiegitura = infraestructura, subestructura. "Infra" = debajo, "Estructura" = base de un edificio, o, cosa que queremos hacer. (4) Egilletasuna = gestiòn. (5) Ditekeen = posibilidad. (6) Oiñarri = premisa, base de lo que se puede inferir, o, hacer otra cosa.

Danon ulermeneko elburu orreitara eltzeko aokatuta gagozan lez, gure biziko ekintzak Beren Legeari begira, eta eskubidearen ordaiñak lots aundiko ekanduan ordezkatzeko, bere denbora bearke dabe. Gauza orreitan ariñeketeak ez daulako balio.

Eta gizaseme alabaren zor eskubideko joko izanda, ekanduzko ekin bidean, elburuzko ulermen orreitara eldu bear garalako.

JAINKOAREN legea bada, zergaitik edo zer billa sartzen gara Bere gauzatan ?.

Mundu onen bizitzako edesti aldiak belaunez belaun bardiñak dira, belaun aldiko gizaldi baktzaren arrazoizko antzezlarriak eragille lez, ez daukielako beste ardurarik, gai bizi onek orokor daukazan eskubideak, Jainkoaren ekanduzko legean lots eta ardura aundiz on ordezkatu baiño besterik ez.

Batzuk esaten dabe: "Zelan izango dira sorkuntzazko edo paleolitiko denborak gaurkoakaz bardiñak, areik abere antzeko bizitza baten bizi ba ziran ?".

Jainkoak ipinitako Lege bidetik len da gaur, agindu bakararra agertzen dalako ezeren aldakuntza barik.

Ala gaur, bizitzaren jarrai bidean azturazko jakintzan len baiño aurrerakuntza geiago lortu arren, len baiño geiago ote dakigu ?.

Dana dala, or dago JAUNGOIKOAREN legea eta gai oneri ordezkatu bear dautzaguzan zor eskubideak..

Beste aukerarik bai ?.

MUNDUAN.

Orregaitik mundu onetan, norkerizko asmakuntzan dabizen menperatzailleak eta guda indarragaz dabiltzan batzangotasunezko alegiñak, alperrezkoak biurtzen dira.

1) Maltzurrezko asmo orreik, gaur erabilten diran lez, zentzuzko bidetik kanpo guzurrezkoak izanda, sekula ezin dira egizkoak biurtu.

2) Jainkoaren legeakaz gure bizitza, naita amaibako aukerazkoa izan arren, arduraren zentzuzko bide estu baten sartuta, egitik guzurrera oinkada txiki bat baiño ez dago.

3) Eta bereztasun oneri begira, or baieztatu ziran benetan, gure izatasunezko arimaren baitak, guzurra eta egia zer dan ondo jakitera elduta.

JAINKOAREN gauza izan da, oldoztu al geinke, Lege orren aurka egin geinkela ?.

Bide ortatik alegintzen garenean, buruak apurtzen doguz bere aurka.

Mundu onetan, iñor ez dalako nor bere asmakisunezko legerik egiteko, Izadi oneri Jainkoa Berak ipini eutsozan legetik ez ba dira artzen.

Eta orregaitik, iñor ez da nor, iñoren ardurazko zor eskubideakaz, maltzurtasunez jokatzeko.

EUSKALERRIA.

Mundu oneri, euskalerrria da Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu zan jendekuntzazko demokratikoagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon dautsona.

Eta askatasunezko demokrasi orren sinismenekoa izanda, ez dau bear iñoren beartasunik danon ulermeneko elburura eldu daiten.

Iñoren izatasunezko nortasuna galdu barik baiña !

Euskalerrriak beste errigizarteak lez, sinismenaren nortasunezko euskereagaz daukazan legezko arrazoiak, berak azaldu bear dauzalako, erri ezberdiñen alkar ulermeneko antolabidera eltzen garanean.

Euskalerrria politikan, orregaitik da NORBAIT, edo NORTASUNEZKO eragillea bere zor eskubidearen ordezkartizan, eta iñork ez dauka eskubiderik bere ardurazko eragilletasunetik baztartuteko.

OARKUNTZA.

Euskalerrriko izaeraren eskubideko arrazoi au izango da, gure edesti ta European erabili diran politikak argituz, bost sei idazki laburretan "ZER" aldizkarian illero agertuko dodana.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Urtarrillaren 12an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(II)

EUSKALERRIA.

Euskaldunen erria beren demokrazizko nortasun aundiagaitik gaztea izan arren, antziñako alditan egin zan erria da.

“Wurm” deritxon azkeneko izotzaldia orain 50.000 urte urtzen asi zanean, gorengo paleolitikotik 20.000 urte inguru, ta Madaleniense ta Aziliense orain 14.000 urte bitartean, Homo Sapiens edo Kromañoi giza Afrikatik urtenda zabaldu zan Asia ta Europatik oiturazko eritzi bardiñ eta leen euskerazko izkuntz antzeko baten, eta leiñutan erritu eben lurralde guzti au, euren batzar nagusien antola bidez.

Leen euskerazko izkuntz antzeko baten zabaldu zirala, ez ote da izango lar esatea ?.

Ez !. Len Wilhelm Humboldt izkuntzalari aundiek, eta gaur ospe aundiko Theo Wennemann ele jakintzaren ospe aundiko maisua ta Peter Foster jenetikaren irakasle, eta ainbat aztertzaile arduradunek: Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan eunetik, irurogeita amabost Homo Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala, eta euren oiñarrizko izkuntza euskerea zala esaten dabelako.

Gure artean be badaukaguz ardura aundiz izandako eta gaur diran izkuntzalari aundiak, eta Felix Zubiaga ta Legarretak bere azterbideko “Origen y desarrollo del lenguaje” eta “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” liburutxoetan egiztatu egiten dauazanak azalduko dautsuedaz.

Lenengoan: “Munduko gizarteetan mintzoeraren jaiopera eta bere garapena edo azkeraren edestia azalkatzea, munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala argitu egiten dana, bere neurri guztietan”.

Eta Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu ta ipuin bezala adieraztea: “Edesti ta edesti aurre onena dala, gizatasunagaitik iñoz azaldu, esan, edo kontatu dana” euskal endaren jatorrizko edesti osoa argitzen daualako.

Bigarrean: “Izkin bateraiño aztertu egiten dauan izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza da, izkin bateraiño eltzea eredu nagusian, ozenezko (1) iturria argitzea dalako berbearen mintzo edo abots sorkuntzan”.

-“Eta euskerea al dalako izkin bakarreraño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak (2) esaten daben antzera, euskerea jatorriz ezagutzen ez dan izkuntza bat dala, mintzoeraren oguzpeneko (3) jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille”.

-“Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan izkuntz bakarra”.

-“Euskereak, inguruan daukazan oraingo mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia, nai ta eurak jatorrizkoak dirala esan.

(1) Ozenezko = sonoro. (2) Alderatzailleak = comparatistas. (3) Mintzoeraren oguzpeneko = pronunciación articulada.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiko itzaren alkartzezko antolakuntzan eta entzuteko abotsetan irarrita daukazelako”.

-“Zeruko (1) eredu nagusiaren antzezko (2) zuzentasunetan “Izadi iztia” (3) da, gizadiaren jakintzan “gogo iztia” (4) ta “giza iztia” (5) da, bai dirdaitesunezko gogarketa (6) gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan, eta “teologia” da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

-“Euskereak, sumerio izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan eta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit (7) ta Ejiptoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako”.

-“Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena (8) da, eta eredu nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren (9) trenbetasuna be bai, aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri aurreratua zota burutakizun barrien artu emonetan.

-“Lojika, izkuntz edo mintzoeragintza baten, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta arri aro barriko gizonen oldozmenean”.

-“Berbeak, esan/izaneko elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau zaletasunean”.

“Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten guztia, eta oroimenean atzerakadarik ez daiten egon, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebala ta, ele jakitunezko gorputz osoa ez dagoenagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean dagozelako”.

ERRIA IZATEKO LENENGO OINKADAK.

Goian ikusi dogu zelan Homo Sapiens edo Kromañoi giza zabaldu zala izotzaldia urtzen asi zanean, orduan ezagutzen zan Afrika, Asia ta Europako iru lurralde andietatik, eta Afrikatik urten ebenean, oiturazko jakintzan ta leen euskal izkuntz bardin antzeko baten zabaldu zirala.

Paleolitiko Neolitiko milla urte bitarteko aldietan lortu eben, gaur, “Atlantida” galdu zan jendekuntz demokratikoa esaten dana, leiñuzko lurraldearen antolamenduan euren batzar nagusiekaz Euskalerrian sortzen dan lez, gaurko egunerarte jatorriz etorri jakuna.

Ekialdeko leiñuak, Europa baiño 3.000 urte ariñautik lortu ebezan jendekuntzazko era berritze edo aurrerakuntzak, eta beragaz, lenengo idazkian aipatzen dodan lez: “Sargon edo beste menperatzaillegandik asita, nortasuna eta norkeriaren arteko borroka latzakin, leiñu, erlijio ta izkuntz asko ezereztu edo naastu egin ebazanak, nortasunezko izaeran atzerakada galantak eginda.

Maltzuratasunezko menperatzailetasun orren bidez leiñuak bake billa, Asia, Afrikan bertan ta Europako lurralderantza, ainbeste errialda (10) egin eben eta ikertzaileak mugatuta, indoeuropeoaren izenagaz esagutzen dira.

(1) Zeruko = divino. (2) Antzezko = analogias. (3) Izadi-iztia = cosmologia. (4) Gogo-iztia = tratado del alma psicológica. (5) Giza iztia = antropologia. (6) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (7) Ugarit = Siriaren itsas-ertzean antziñako iri edo uria. (8) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (9) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual. (10) Erri-alda = emigraciòn, o, exodo de un pueblo. Alderai = nòmada.

Persiarrek, Europako sartaldea be gura eben menderatu, baiña lenengo Greziaren antolamendu demokratikoa ezereztu bear, eta auek or geratu ebezan Medikas deritzon gudarekin.

Eta goian aipatutako aztertzaile jakintsu orreik ikertu ta gero dakie, euren bardin antzeko leiñuen oitura ta izkuntzak nastekatu arren, euren izkuntz barriko berbeak oiñarriz, lenengo edo asierako itz-otsak daukiezala, lur zabal orreitan geratzen diran toki izenaren antzera.

Izkuntzaren berbak eta toki izen itzak iraun dagien, errotu ta ondo sustraituta egon bear dira euren nortasunezko sinismenean, izkuntzan, oiñarrizko itz orretatik asi ziralako azturaz jakintasunezko argitasunera zabaltzen, eta naita izkuntzan, batzuen norkeri bidez naste askotan sartuta egon, itz oiek eta toki izenak milla urte askotako jabetasuna euki izan bear izan dabe oraindiño iraun dagien.

EUROPAREN ASKATASUNEZKO EUSKAL ZENTZUZKO IZAERA.

Paleolitiko-neolitiko bitartean, bakez bizi zan Europako sartaldea gorengo jendekuntz demokratiko onenean Jaungoikoaren sinismen antzeko baten, eta leiñu bakotzaren lurralde batzar nagusiko antolakuntzan euskalki izaeran. Atlant itsasotik, Europa erdian sakon sartu arte eta Eskozia ⁽¹⁾ edo Britaniatik Kadizeraiño, areik eta K.a. 2.000 urte inguru len aipatutako indoeuropeo edo keltiar leiñu alderraiak Ekialdetik agertu arte.

Or, agertzen da lenengoz Europa, euskerearen bereztasunezko sendi giro baten.

Aberria al izango ote zan ?.

Orduan ez zan ezagutzen eta gitxiago ulertu aberriko itzik, leiñuaren sendi giro bateko lurraldetan euren batzar nagusiekin laterrituta, eta baitaren neurri onenean ondo antolatuta, zor eskubideak demokrazizko askatasunean on ordezkatuta bizi baiño besterik ez.

Beste antolamendurik bear izanik ete eben ?.

Baiña, XVIIIIn gizaldean Europa norkerizko asmakizunez laterritu zan aberri barriakin baiño, eskubide geiagokoagaz bai beintzat.

Aiek: berezko landarearen antzera, Jainkoaren lege bereztutakoan nortasunez sendi giro baten, berez edo jatorriz aberri jaiok ziralako.

Auek: sasiainkotza billa eta alegin onek emoten dautseezan egarriagaz, Jainkoak bereztutako legearen aurka, norkeriz asmatuta lapurrezko aberriak diralako.

Europako mendebal onetan leiñu alderraien mogimendu ugariakaz, borroka asko egin eben euskal leiñuak ortik aurrera, ekialdeko leiñu alderrai geienak, menderatzale eritzia ekarten ebelako askatasunezko lurralde oneitara.

Eta orduan sortu zan borrokazko menderatzail zoraldia gitxi bazan, Etruskoak K.a. VIIIIn gizaldian ⁽²⁾ erromatar asmakuntza sortu eben, euren salerosketako maixutasun aundian, itsas ertzeko uriakaz euki ebazan arreman onak eta irasi egiten ebazan uriak babesteko.

(1) Piktoak euskaldunak ziran. (2) K.a. 753an.

KELTIARREN EDESTI LABURRA.

K.a. 2.000 urte inguru, Alemania erdigune lez artuta, Europako Ekialde guztian euren leiñuzko auzoetan laterrituta ezarri ziran.

Keltiarren lenengo aldakuntzak, 1.800-1.600 urte inguruetan, Britaniako ugarteetara egin eben lenengo erri aldakin asi ziran.

1.200-800 urte bitartean Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara, Loira ibai gaiñetik eta Britaniaren itsas bazterreko bitartean Frankoak kokatuta.

K.a. 900-500 urte bitartean, burdiñezko asieran ⁽¹⁾, Austriako Iparraldean Hallstatter ur geldi inguruan, Hallstartt ⁽²⁾ burdiñaren jendekuntzazko ⁽³⁾ tokian eta Alemaniaren Ego aldean Renaniako lurraldeetan kokatuta egon ziranean, Keltiarren giza Europaren Sarkaldetik zabaltzeko atondu edo prestatzen asi zan.

VI-In Mende artean, keltiarren Tene deritxon goimaillazko aldiari, keltiar leiñuak zabaldu ziran Europako lurralde guztietara.

Britanoak Inghaterrara joanda, Goibeloak bota ebezan.

Akitaniatik Iberiako erdi ugartera ⁽⁴⁾ aldatu ziran, keltiberiako errigizartea sortuta.

Keltiarrak indartsuak izan arren eta euren azturan naita asko ikusikoak izan, orduko menderatzailearen denboretan ez eben garrantzi aundirik euki.

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan edo ta neurri aundi baten askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen. Eta orduko denboratan, zalantza orreitan kokatuta egon ezkeror, erromatarren antzera, menderatzaile azkar ziranakaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europa guztian, berezko erritarteetan.

Euskalerriko lur zabaltasunari, ortik aurrera asi jakon murrizketa, bere lurraldea Frantziako Loira ibaitik, Iberia edo erdi ugarte onen erdi ingururaino ⁽⁵⁾, eta Atlant itsasotik Akitania osotzen ebanagaz mugatuta geratu zalako.

ETRUSKOEN EDESTI LABURRA.

Etruskoak Arno ta Tiber ibaien artean kokatuta, jakintza aundia euki arren ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Siria, Ejipto ta Griegoen jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen, eta euken arrokerian, maitasun geiago emoten eutsoen apainkeri ta opor aldeari, gudaren zaletasunari baiño.

Ikusi dogu K.a. VIIIIn gizaldian zelan irasi eben Erroma, eta VIIIn gizaldian euren zabalkuntza erabagita, orren gizaldi erditik onantza, eurak zuzendu eben Erroma gizaldi bateko agintaritzan.

Adriatiko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugarte menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen, eta VIIn gizaldian maldaberan sartu ziran erromatarren aurka asi ziranean.

(1) Ekialdetik ibilita eta Itiaren jendekuntzatik artuta, itzulkeran, eurak ekarri eben burdiñaren ezauntza. (2) Hallstatt = burdiñ aldiaren jendekuntzazko lekua, 2.000 ilobi baiño geiago aurkitu zan lekua eta gatzaren meaztegiak. (3) Jendekuntza = civilizaciòn. (4) Iberiako erdi ugartera = peninsula iberica. (5) Ni, uste osoan nago Kadizeraifio zala.

K.a. 509an, Griego, Samita ta Galoak alkatuta, Etruskoen erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K.a. IVn gizalditik onuntz, erromatarrengandik babestu egin bear izan eben, euren Uri nagusi guztiakaz geratu ziralako, eta 295ean eurengandik guztiz menderatuta, 90eko urtean erritarren gizarteko guda ostetik, 89an erromatar uritargo edo erritargoa artu bear izan eben.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Urtarrillaren 25ean.

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(III)

ERROMATARREN EDESTI LABURRA.

Mundu onetan ezagutzen ziran jendekuntzak eta lurrak batzangotzeko asmoak, baleiteke ariñagokoak izatea, baiña Asirian Tigris ibaiarru edo sakanean (1), K.a. 4.500 urtetik asita Ninibe uri nagusi lez izana, I Sargonek orain 4.025-4.010eko urte inguruetan menperatu ebanetik izatea.

Dana dala, ortik asi zan norkeriaren menperatzailetasunezko jendekuntz zikin ori.

Geroago, Persen errege Ziro (2) aundiak asita, I Dario (3) ta I Jerjesek (4) izan ziran Mundu onen eta orduko Europaren jendekuntza guztiak morroitasunean batzangotu gure ebenak. Eta jendekuntz (5) aundi bien arteko alkar aurkeztea (6) sortu zan.

Orduko Persak eta Griegoen jendekuntzak ekanduzko oituran, bata: menperatzaile gogoko oso osoan izan zalako; Eta bestea: azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenekoa izan zalako, begiz begiko aurkakoak (7) izan ziran.

Eta Greziatarren Demokraziari ezker, or geratu ziran leenengo aldiz Medikaseko guda ospetsuekin, Europa faziztak menperatzeko euki eben asmakuntzak.

Baiña, Etruskoak Italiako lurraldeetan Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egon ziranak, espartar guda antolamenduan erromatarrak sortu ebezan, eta oraingoan Europaren barnetik asten dira menperatzailetasunezko larri aldiak barriztuta.

Erromatarrak len zentzuz ondo bideratuta egon ziralakoan euren ustez, emen asmatu ebezan benetan, gaur oraindiño norkerizko eritzian dagozan zorigaiztoko batzangotasun gogo orreik, Munduko errigizarte guztiak, fazizta antolamendu barri onen mendean ondo zuzenduta egon gindezan.

Guda antolamendu ondoren, Latiña be sortu eben, norkeri orren mende batzangotuta izkuntz bakar orregaz bizi gindezan, gure gaurko egunerarte.

Erromatarrak, gudalari edo borrokalari aundiak izan ba ziran be, sekula ez ziran izan erri bat eskolatzeko gai.

Eta ibili ziran lurraldeetatik ikutu eben guztia batzangotu baiño, erritarrak auzotasunean euki eben elkartasunezko (8) batasunetik asita, milla zati geiagotan banandu ebezan (9), izkuntz ta senitasunean.

(1) Ibai arru edo sakana = foz, barranca, desfiladero, valle, o, cuenca del rio. (2) K.a. 560-529. (3) K.a. 521-486. (4) 519-465. (5) Jendakuntz = civilizacion. (6) Alkar aurkeztea = confrontación. (7) Begiz begikoak = diametralmente opuestos. (8) Elkartasuna = confederación, hermandad. (9) Alemania, Farntzia ta erdi ugarte onetan (peninsula iberica), izkuntza ta erri-maillan sortu zan antzera.

Geiago, K.a. 240garren urte inguruan norkeri bidez, euren maldaberazko arazoak asi ziranetik.

Denbora onetan, erromatar erritaren be maillako sendi aberats batzuk, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko eta euren diru zaletasunak gaintzeko, erri gurasoen (1) sendiakaz alkartu ziran.

Alkartasun orren ostean jaurkintasunezko lege guztiak euren eskuetan egonda, batzuen aberastasuna, andi mandikeria, apainkeria ta kirkilleriak (2) goraldtu ziran ezin beste, eta kaizartza sortu ebenean, berau goraldtu eben euki ebazan sasi jainkoen maillara.

Eta sasi legeekin berezko baserritarren antolakuntza ezereztu ondoren, menpetasunezko joputasun antolakuntzan (3), lur zabaleko etxagun aundiak agertu ziran.

Euren arbasoak goi maillako jakintzan lortu ebezan ekanduzko oiturak ortik aurrera, neurri audienean galduta.

Jesus gurutzatu ebenetik, Kristau ekanduzko erlijio indartsu ta guztiz ederra be sortu ta zabaldu zan, baiña dana alperrik, norkerizko eritzi zikin orren mendean geratu zan eta.

I Konstantino erromatarren kaizerrak ikusita, eurak maldabera audienean sartuta egon zirala, eta kristautasunaren sinismena orduko errigizarteetan indartsu ta zabalkuntz aundia artzen egoala oartzuz, beragaz bat egin gura eben, eurak orduan jaurkintzaren buruz euki ebezan zentzuak indartu eta irudizko eran, berritzeko naian.

K.o. 311n ta 313an Kristautasuna legeztu ta euren jaiak ospatzeko baimen guztiak emonda, I Silbestre Aita santuagaz alkartu zan, euki ebezan batzangotzeko asmakuntza orreik, bion artean lortzeko.

K.o. 325ean I Konstatino I Silbestre aita Santuagaz batera, Nizeako Eleiz batzar nagusia batzeko agindu eben, eta erromatar goitik berako araudian Kristautasunaren katolikotasuna sortu ta alderdikedetu ebenean, munduan norkeriz egin dan lapurkeri audiena egin zan, erromatar kaizertza eta dogmaren arauz Aita Santuaren uts ezintasuna, mendeko eritziak bear dauzan osagarritzko siniskai legeakaz ezarri ebelako, Jainkoak bereztuta ezarri Ebazan Lege guztiaren aurka.

Ortik aurrera, munduko errigizarteak kontrolpean batzangotzeko kaizar eta Aita Santuaren mende, bizitzeko bear doguzan on guztiaren kontrola dabe, gaur sortzen dan lez.

Eta ziñezkintza edo dogmatika bidez olan egin ebenetik, munduko norkeriaren merkantil edo diru zalekeriaren fazizmoari, ate guztiak zabaldu eutsezan, dogmaren arauz munduko gizartearen jakintsu geienak norkerira bideratuz, Jesusek, berezitasunaren buruz emon euskuzan aolku guztien gaiñetik.

Orregaitik ez gara arritu bear gaurko merkantilismo eta diruaren sasijainkotasunagaz, munduko errigizarte guztia mendeko asmakizun orren kontrolpean eukiaz, eurak jabetu ziralako tresneri guzti orrekin, eta eurekin arpel arri edo arri-zapaltzeko gailluakin (4) izan balitz bezela, gudu indarraren bidez, beti etorri dira Jainkoaren berezko legeak eta gizaren eskubideak zapaltzen, munduko gizon/emakume geienak bizitza onen samintasunezko aldi gogorrenera bideratuta, batzuk sasijainko lez irauñ egien.

Edestian zear, Jainkoak ipinitako legearen aurka egin diran borroka nagusi bakoitzaren ostean eta ikusita zelako sarraski edo odoljariozko triskantzak egin ziran damu, agintarien

(1) Erri gurasoen = patricios. (2) Kirkilleriak = fastuosidad, suntuosidad, lujo excesivo. (3) Joputasun antolakuntzan = organizaci3n de esclavismo. (4) Arpel-arri edo Arri-zapaltzeko gailluakin = apisonadora.

“baitak” zuritu edo garbitu naian, beti artu dira zentzunezko erabagi gogorrek gizartearen zor eskubideari begira.

Antza baiña, danak itxurazkoak izaten dira, urrengo egunean ostera itzultzen diralako norkeriaren lapurrezko bide zikiñ orreitar.

Eta guztiz arrigarria dana, ortik aurrera egiten daben guztia “Askatasunaren” izenean egiten dabela da.

Baiña, nundik nora askatasuna ta menpea guztiz aurkakoak izan da, batera eroan ?.

Almen ori, Jainkoaren almena da bakarrik. Berak bereztutako gai onetara, zor eskubidearen ordezkartzazko eragille lez bialtzen gaituelako.

Zelan nastatu Bere agindua, guk neurtuta daukaguzan almenakin ?. Gure ekintza bizitz onetan uste dot, beste gauza baterako dauela antolatuta.

Jainkoari begira, nire bizitzako gazte denboratik ona, beti entzun dot mundu onetan “pekatua” dala gauzarik txar edo okerreana, eta damu ori zuritu naian, edo ta nabarkeriz danak ikusi egien, ukabillagaz bularra joten dogu.

Baiña Jainkoaren beldurrik ote dogu ?. Antza, zeozer oker dago sermoigintza edo irakas aldi orreitan.

Jesusek, farisaukeriaren aurka borrokatu eban Bere indar guztiegaz. Gaur, eta andik ona, norekin gagoz ?.

Dana dala, 410ean Erroma saskildu ondoren, I Alarikogaz asita, godoak sartzen dira erromako kaizargotzaren jokoan, eta onekin katolikotasunaren eritziak sendotu ta aurrera egin eben, Erromako eleizari emon jakozan aolkularitzaren orokorrezko agintaritzagaz.

GODOEN EDESTE LABURRA.

Godoak artu eben Erromatarren ordezkotza, Europa kaizargo orreitan sendotzeko.

Oneik baiña, naita iru mendeko aundikerian ibili, ez eben euki denborarik Europa kaizargo mendean batzango baten ezartzeko, Mauritarrek jendekuntz aundikoak eta indartsuak, laster jabetu ziralako erdi ugarte (1) onegaz.

Euskalerruari begira, Godoen agintaritzaz lortzen eben errege guztiak “ET DOMUIT BASKONES” esan bearrean agertzen ziran, eta ortik egira, emendik eguzkira baiño alde geiago dago.

Eta aldarte orren bitartean emon jakon arnas apur bat Europari, erriak oiturazko legean, jaurkintzazko antolakuntzak al eben askatasunezko eritzi onenean ezartzeko.

Naita, katolikotasunaren alderdikertziko asmo eritziarekin, oster itzuli kaizargotzaren batzangotasunezko bide zikiñera, ikusiko dogun lez.

Godoak, Europa zuzendu edo jaurkitzeko, ostrogodo ta bisigodoaren izen bigaz banandu ziran, euren menperatasuna lortuta gero, kaizarrezko batzango baten ezartzeko.

Orregaitik, Godoetatik asita artu bear dogu, leen menperatzalleen asmakizunezko ari ori, Mundu, Europa eta batez be ikusi daigun, Euskalerraren Askatasunezko Demokrazia, zelan joan dan murrizten gaurko egunerarte, eta gaur be zelango naasteekin dabiz alegintzen Demokrazizko aztarnak aienatu daitezcan, euren sasi-jainkotasuna jarraituaz.

(1) Erdi ugarte = peninsula.

IIn Alarikogaz (1) asiko gara, jakin daigun zelan 506an argitaratu eban Mendebaleko bisigodo guztientzat, Romana Bisigotorun legearen laburpena (2).

Amalarikok (3) bere erregetzaren 531ko Orrillan, Toledoko IIn Eleiz Batzar nagusia bete eban.

Emendik aurrera emon jakon Toledoko kaizartzari, gaur oraindiño PPko Kospedalek euren gazteari esaten dautsen “Toledo imperial” edo ta “el imperio de Toledo por su destino en lo Universal”.

Jainkoaren agindua ote da baimen ori ?. Aita Santi ta Martin Olazarrek: “gordinkeri bortitza” esaten eutsen asmakizun orreri.

Justinianok (4) 553an Bijilio Aita Santuagaz batera, Konstantinoplako IIn Eleiz Batzar Nagusia bete eban eta Mendebal eta Ekialdeko kaizartza 527-565 urte bitarteetan eskuratu ba eban be, bere bizi denbora be ez eban iraun. Baiña betiko lortu eban garaipena, erromatarren legeak bildumatutea zan, gaurko menperatzaillezko legeak, bere oiñarrien gaiñean eraikita dagozelako.

Batera 551-567n urte bitartean, Atanajildo zan bisigodoen errege, eta Justiniano ekialdeko kaizarren laguntzagaz, Ajila bota eben erregetzatik, beren jaurkintza Toledon ezarrita.

Eta Justinianorekin egin eban bakezko itzarmenagaz, Betirako lurralde zati bat Bizanzioaren agindupean itzita, or jaio zan “Ispalis edo Spaniako izena” Bizanzioaren mende.

Bisigodoen urrengo errege Leobijildo Arrianoa (5), bere seme Ermenejildo katolikoa il ebanetik izan zan konturatu zana, Konstantinok 325an Nizeako Eleiz Batzar nagusian egin eban antzera, katolikotasunezko erlijio barik, gatz zala euren asmakuntzak bideratzea eta bere seme I Rekaredo limurtu edo eskuratu eban aldakuntza ori egin egian.

Rekaredok 587an Arrianismoa alboratuta, 589an Toledoko IIIIn Eleiz Batzar Nagusia bere agindupean batu eban, eta ortxe emoten jako ostera asiera mundu au errege ta katolikoek ekandu bakarrean batzangotzeko, erromatarrek euki ebezan leen asmakuntzak iraun egiezan.

Iruñako gotzaiña be birriten aipatzenda Toledoko batzar orreitan eta leenengoa, emen izan zan.

Oinkada aundi bat emonda, Ejikaren (6) erregetzara eltzen gara, onen agiduan XVn, XVIIn eta XVIIIn Eleiz Batzar Nagusiak bete ziralako.

Bitizaren (7) ostean, Rodrigo (8) jauna izango zan urrengo errege, Bitizaren seme Akilari (9), beren seme eta aditsu (10) batzuen laguntzarekin alkartuta, bera Akila baiño geiago zalakoan, erregetza lapurtu eutsolako, eta anai arteko guda sortu ondoren, Mauritarren sarrera erreztu ebala diño batzuk.

Edestiko arauz baiña: “Erregeak, Zeutako gobernari edo guda jaurleri Julian kondearen alaba Florinda (11) bortxatu egin ebalako”, onek gaztelua Mauritarren eskuetan itxi ebala diño, gero Bitizaren semeekin batera Mauritarrai lagunduta erdi ugarte oneitan sartu zitezten.

Dana dala, 711n Uztaillaren 19an Tariken Mauritar indarrak Guadaletoko ibai inguruan, Rodrigo jaunaren godo gudalozteak ezereztu ebezan.

(1) 484-507. (2) brebiario de Anniano, o código de la lex Romana Visigotorum. (3) 511-531. (4) 483-565 urte bitarteetan bizi zan. (5) 568-586. (6) 687-701. (7) 701-709. (8) ?- 711. (9) Bitizaren beste seme batzukin ?. (10) nobles. (11) la Caba.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbateko ibai inguruan egin zala borroka ori, eta kondairak Guadaletoko ibai inguruan.

Kadizeko lurraldean dagoz biak, leenengoa auzten mendietatik jaio eta beren urak Atlant itsasora botaten dabezanak, eta bigarrena Mugako Jerezen (1) ondotik joaten dana eta beren urak Kadizeko ur golkoan botaten dabena.

Ez ziran ezereztu, Konstantino (325) ta Rekaredok (589), Nizean sortu ta Toledotik katoliko aolkularitzan bideratu ebazan Godo Lege Bilduma orreik, 711n Pelayo jaunak (?), Erromatarren Godo sasilegedi "REX GRATIA DEI" guzti orreikaz Asturiasen kokatu zalako. Eta mauritarrai Kobadongako guda irabazi ondoren, ta menperatzailetasunaren kaizertza orregaz jabetuz, 718ko urtetik aurrera, jarraitasunean ipini ebazalako.

Pelayo, 737ko urtean il zan eta urrengo errege, bere suin I Alfonso katolikua izanda, or asten da ostera be katolikotasunezko menperatzaile ari ori indarra artzen.

Frantzia eta Espainak ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolku aginduan bideratuta euki ebezan aldiko erregeak, ez eben iñungo errukirik euki, Jaungoikoak Bereztutako Legearen aurka, berezko ta sinismen aundiko kristau erri zintzoak sarraskitzen, naita errien iltzailleak (2) izan.

Kristautasunaren ekandua eta katolikotasunarena, nundik elkartu leikez ?.

Nik uste dot, txinpartak ateraten dabezela, edestian eta gaur sortzen dan lez.

Gure ARIMAK ez dira gizatzen mundu onetara morroi izateko, Nor izateko baizik.

Eta egunen baten danok batzangotzen bagara, danon borondatezko sinistek uclermen batera elduta alan eskatzen daualako izango da.

OARKUNTZA.

Erromatarrak eta Godoak, berezko izkuntzatan eta erriekin egin ebazan naaspillatuzko triskantza ostetik, orain sartzen gara gure edestiaren aldi barrira, ikusi daigun zelan ez zan okerrezko asmakuntzarik alderatu eta gitxiago erabagi zuzenik artu, berezkoak diran erriak gero ta gudu indar geiagorekin gagozan laterrietan menderatu arte.

(1) Jerez de la Frontera. (2) Erri-iltzailleak = genocidas.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Urtarrillaren 31n.

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(IV)

ERDI MENDEA.

Sarrera txiki bat egin bear dautsagu erdi mende oneri, emen sortu ta sendotu ziralako Europako jaupide barriak, gaurko egunerarte etorri jakuzan erregetzazko antola barriekin.

Erdi mendea esaten jako: 476an Godoak Erromatarren Mendebaleko kaizertza ezereztu ebenetik, Turkoak 1.453an, Konstatinopla menperatu eben arteko aldiari.

Edo ta erromatarrek suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola (1), irarritzeko papera (2), bolbora edo lerrautsa (3), itsas orratza (4), itsas ontzien oial mugikorraren asmaketak lortuta, Amerikaren agerketa ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas billaketararte.

Bai, pizkunde (5) edo ta Eleizak Luterotar Martinekin asita euki ebazan berrikuntzazko (6) arazo aldiak deritson arte.

Erdi-mendeko Lenengo zati oneitan, erri edo leiñuzko sendi bakotzak, euren batzar nagusi bidez arnasa apur bat euki ebelako, lurralde bakotzaren jaurkintzazko antolamendu baten ezartzeko, areik eta mauritarrak VIII gizaldietan sartu eutzien urduritasunetik askatu arte.

Eta zelan eleiza katolikuak errege guztien gaiñetik, izan zan aolkularitzazko agintari nagusia.

Bigarren zatian ikusi daiguzan gaur arteko eguneraiño, zér gertatu dan gure gaurko lur, aize, ur eta gizaren nortasunezko askatasunaren eskubideakaz, ainbeste zentzungabeko nastetasunagaz agertu gindezan.

ELEIZA KATOLIKOAREN NAUSITASUNA.

Europako sartaldean, erromatarren kaizar agintaritzza Vn gizaldian godoak ezereztu, eta ekialdeko kaizartzza 1.453ko urtean Turkoak menperatuta, European besteen gai-ezean mundua betiko erromatar asmakizunean batzangotu ta katoliko alderdikidetzeko, Aita Santua bere ezuskortasun edo uts ezintasunezko siniskai izaera bidetik agertu zan buru, errege ta danon gaiñetik. Errigizarteak alkarganatu (7) ta jendekuntzatzeko (8) aolkularitzazko aginte nagusian.

Eta 325ean Nizeako eleiz batzarrean, norkerizko lapurkeriz asmatu zan katolikotasunaren aberrizko alderdikeri orren arau zentzuan iraun dauen Europako edesti guztia, iru baldintza oneikaz gaurko egunerarte:

(1) Irarkola = imprenta. (2) Irarritzeko papera = papel para imprimir. (3) Lerrautsa = polvora. (4) Itsas-orratza = brujula. (5) Pizkunde = renacimiento. (6) Berrikuntzazko = reforma. (7) Alkarganatu = mancomunar, coordinar, asociar, aliar, agrupar, (con)federar. (8) Jendekuntzatzeko = acción de civilizar, zibilizar.

-Aurrerakuntzazko Greziaren jakituria.

-Menperatzailetasunezko erromatar legeak.

-Eta munduko giza Katoliko aberkoi batzangotzeko asmotan, alderdikeri orreitan ezartzen diran arauak.

Nork ulertuko leike, Greziaren askatasun eta demokrazizko jakituriak nastekatu leitekezala, mendeko katoliko ta erromatar lege orreikaz, naita azpikaritzazko itxuran etorri arren ?.

Berezko baitaren ekanduan ulertu ezin diran nastetasun orreik izan dira beti, daukaguzan arazoaren oiñarrizko sorburuak, Europa ta munduan ez gindezan konpondu.

Katoliko, erromatar, edo edozein menpeko lege guztiak, euren batzangotzeko asmakizunak lortzeko, bizitzarako bear doguzan arau ta mozkin guztiaren kontrola bear dabe.

Mudu fisiko onetan guztiok konturatu bear gara, menpeko norkerian asmatzen doguzan guzur ta lapurtza orreik lortu gure naian, berak daukazan legearen aurka, dirua eta lege arauen almenak eskutik beti oratuta doiezala, eta elkartuta joan daitezcan naita ez, guzurrakin elikatu bear dirala, bata ez daukenak, bestearen gabetasunean agertzen dalako.

Diru ta lege arauak argi da, errigizartearen jabetasunezko eragiletasunean demokrazizko arduran jokatzeko, danoen zor eskubideko tresneriak izan bear dirala. Ala bizitz au, batzuenak bakarrik da ?.

Sekula baiña ez da gertatu ori, norkeriaren batzangotasunezko asmo orreik beti garaipendu diralako, eta Jainkoak ipinitako legearen aurka irauten dogulako, beren ondorioz beti agertu jakuz okerrezko sei gauza txarrentarikoak:

-Jainkoak Ludi oneri bereztuta ipini eutsozan lege guztitik kanpo ibiliz, beti norkerizko lapurketan eta borrokan etorri garela.

-Gaiak orekatuta daukazan legeak, eta gure gaitutako arimak nortasunduta daukazan eskubideak, edestian zear beti, zirriborrotuta ekartea.

-Dirua, indarra ta bizitzeko bear doguzan treneri guztiak, esku bakarretan egotea.

-Aberri lez, gudu indarraren keiñu gogorraz, eta beste aberritar batzuekin nastuta atxilotu lez, guztiz urduri egotea.

-Maltzurrezko aize beltz barru orren idarretik urten ezinik, nor beren baitan bizi eziña.

-Bakez bizi eziña.

Eta konturatzeko zelango aginte nagusia izango zan Aita Santuak euki ebena, oartu besterik baiño ez daukagu, Europako erregeen artean guda indar geiago eukiten ebanari, berak izendatzen ebezala erromako kaizarrak,

Erregearen iraspeneko araudiaren jabetasuna beren erabakitasunean egon dalako beti gaur arte.

Nizeako eleiz batzar nagusian, Europa eta gero mundu osoa katoliko erlijioan batzeko artu ziran erabagi orreik.

Eta nai eta batzangotasunezko katoliko asmakizun orreik sortu ziranetik iru gizaldi geroago, Afrika ta Europagaz Islanakin lenengo banaketa aundia euki arren, eta gero Europan bertan ainbeste banaketa euki, erri ta errigizartearen berezko eskubidearen gaiñetik etorri dira gaurko egunerarte, ezer aldatu barik.

Mauritarrak agertu ziranean jendekuntz bien artean sortu zan larritasunagaz, arnas bitarte bat agertu zan berezko erritarrentzat, eta euren jaurkintzarako sortu ta aukeratu ebezan jaun erregeak.

Txeberatuta geratu ziran baiña, eta zelango sare arteko baldintzakin irasita geratu ziran ziurtatzeko, leiñu edo erri errege jaun bakotzari, euren kondairako aurkezpen labur bat eginda ulertuko dogu.

FRANTZIKO LURRALDEAREN LENENGO ERREGETZAK.

Frantziko lurraldea gaurko egunean, ekialdeko iparraldean Beljika, Luxenburgo ta Alemania. Ekialdean Alemania, Suiza ta Italia. Egoaldean lurrrarteko itsasoa, Espania ta Bizkaiko itsas golkoagaitik mugatuta dago.

Frantziako lurraldeetan, naita irudizko errege oitura ori ariñautik etorri, Keltiar leiñuak izan ziran Kristoren aurretik, euren jaurkintzarako erregeak ipini ebezanak.

K.a. VIIn gizaldian Keltiarrak menpetu eben galiako lurraldea, lurrrarteko itsasoa, Alpes, Rin ibaia, Atlant itsasoa eta Auñamendi kateagaz mugatuta egoana, eta erromatarrek Alpes andiko lurraldeak esaten eutsoenai Zezarrek K.a. 58-51ko urtetan menperatuta, iru erri aldetan banandu ebana: Akitania, Keltika eta Beljika.

Keltiar franko leiñuak iparraldeko Loira ibaitik britaniako itsas ertzerañño kokatu ziran, eta Klodobeo erregeak 481-511ko urte bitartean Merobinjioaren errege leiñua sortu ta euren alpertasun bidez maldaberan sartuta, mauritarren Europako zabalkuntzari, euren etxe zain Karlos Martelek, Tours eta Poitiersen aurka urtenda 732ko urtean geratu ebazan, Europako katolikotasuna euren galzoritik askatuz.

Beren seme Pipino Laburrak, IIIIn Txilderiko merobinjio erregea bota eban agintaritzatik eta 751eko urtean Karolinjioaren errege leiñua irasi eban.

Karlomagno bere semea izan zan urrengo errege, eta Lonbardo ta Sajoitarrak menperatu ondoren, IIIIn Leon Aita santuak 800 urteko gabonetan Erromara deituta, Iparraldeko Itsasotik Ebro ibairaño, eta mendebaleko Atlant Itsasotik ekialdean Txekoslobakiako Boemiaraiño Erromatar kaisalerri sakratuaren Inperator edo Augusto Kaizar Jaun, Erromako San Pedroren eleizan koroatu eban.

Karlomagno 814an il zanetik, karolinjitarren kaizertza ezeretuten asi zan, eta Berduneko itun edo egiunetik kaizertza iru zatitan bananduta agertu ondoren, Karlos Buru Soillak aginduten eban zatitik urtengo eban, gaur ezagutzen dogun Frantziko lurraldea itxuratzen asiko zana.

ALEMANIAKO LURRALDEAREN LENENGO ERREGEAK.

Alemaniko lurraldean Keltiarren leiñu zarrenak Teutoiak eta Zinbriok izan ziran, eta K.a. 102-101eko urte inguruan, Kaio Mario erromatar gudal nagusiagaitik azpiratuta,

aleman, franko, lonbardo, bisigodo ta ostrogodoak Rin, Elba ibaiak eta Italiako iparraldeko lurraldeetan kokatuta geratu ziran.

Karlomagnok kaizartza aundi bat antolatu eban, K.o. 814an il zanean baiña, bere iru bir seme edo billobaren artean banaduta geratu zan.

Feudo Jaun anaien arteko borroka bidetik makal agertuta, indarrez normando, eslabo eta majiarestarrak sartu jakiezan.

K.o. 962an lurralde erreitan I Oton aundia errege zala, XIIIn Juan Aita Santuak, Europaren erdi alde, Italiako lurraldearen iru zatitik bi eta Frantziaren ekialdeko erromatar kaizar sakratua izendatu ondoren, kaizar eta Aita Santuaren zein aginte geiago euki ebenagaitik asarratuta, 963an Otonek, XIIIn Juan Aita santua bere jaraulkitik kendu eban, eta VIIIn Leon Aita Santua ezarri.

ERDI UGARTE EDO PENINSULA ONEN LURRALDEAN, LEENENGO ERREGEAK.

Neanderthal eta gero Kromañon euskaldunak izan ziran erdi ugarte onetan lenengoz bizi ziranak.

Gero ekialdetik etorritako kamita leiñu (?) edo iberotarrak sartu ziran egoaldetik.

Eta denbora gitxi barru iparraldeko Auñamendi mendikate artetik keltarrak sartu ziran, bien artean Keltiberiaren erria osotuta.

Erdi ugarte edo peninsula onen egoaldean Euskal leiñuak aienatu ziran ?.

Neure zalantzak daukadaz. Euskerazaintzako batzar baten Bizente Latiegik aurkeztu ebalako ikertzaille gazte batzuk aurkituta, arrian idatzitako esaera batzuk, keltiar izkuntzan baiño, euskeraz irakurten ziranak.

Euskaldunak keltiar menpean bizi ete giñan ?.

Ez dot uste, euren giza barrenean askatasunaren eritzikoak ziralako.

K.a. XIIIn gizaldean fenizioak etorri ziran, Kadizen, Gadirreko saltokia irasita (1), gero Malaka (2), Hispali (3) eta abar.

K.a. VIIn gizaldian Griegoak agertu ziran, eta auk be Emporion (4), Rhode (5), Dianion (6), eta abar saltokiko uriak irasita.

Laster asi ziran borrokan feniziarraikin, eta K.a. 530ean kartangokoak fenizitarrai laguntzen etorrita lurralde aundiakin jabetu ziran, baiña K.a. IIIIn gizaldian guztiz kanporatu ebezan erdi ugarteko lurraldeetatik.

K.a. 238an Amilkar Barka kartangotarra etorri zan ostera, eta Afrikako iparraldean erromatarrengaitik Zamako borrokan il eta euren indarrak azpiratuta kanporatu ebazan.

Amilkar Barkari emoten jako Barzinoren (7) sorraldia.

Amilkar Barkaren suin Asdrubal eta bere seme Anibalek ostera agertuta, Tajo ibai ta Ebroraiñoko lurraldeekin jabetu ziran, eta auk Saguntoko uria ezereztu ebenean asiera emon jakon K.a. 218-202ko urte bitartean bigarren Guda Punikari erromatarren aurka, eta onek jabetu eta kartagotarrak kanporatuta, asi zan erromatarren menpeko aldia.

(1) Gadir = Kadiz, Europakko lenengo uria dala esaten jako. (2) Malaka = Malaga. (3) Hispali = Sevilla. (4) Emporion = Ampurias. (5) Rhode = Rosas. (6) Dianion = Denia. (7) Barzino = Barcelona.

Erromatarrek erdi ugarte onen iparraldetik euskaldunak menperatzen ibili ta ikusi ondoren Euskalerrriaren lurraldeko leiñu gizarteak zelango gogortasunagaz aurre egiten eutsen.

Eta Euskal leiñuak be oartuta, bide orretatik iraun ezkeru euren euskal senditasunaren izaera galzorian ipinten ebala, erromatarrak euren indar nagusiekin ez zirala geratuko euren garaipena lortu arte, erromatarren gudalozteetan lerrokatu ziran. Euren zintzotasunagaitik ardura aundiko aginteak artuta Kaizarren zaintza inguruan.

Ez zan gertatu bardiña kantabro ta Asturiasekoakin, ta azpiratuta geratu ziran guztiz K.a. 19n urtean.

Eta erromatarren azpikaritzan, latin eta euskeraren bitartean sortu ziran Asturiasen bable, Burgos, Araba eta kantabria bitartean gaztelera, Ebro ibaiaren egoaldeko ibarreak eta Aragoiko iparralde bitartean gaur katalan esaten jakien latin kumeak, Europaren iparraldeko lurretan bardin sortu zan antzera.

K.o. 409an Auñamendiko mendi kateetatik Suebo, Bandalo ta Alanoak sartuta, erromatar agintariek bisigodoai eskatu eutsoen laguntza, eta auek Ataulfo ta bere ondorengoak izan ziranagaitik Sueboak azpiratuta, Bandalo ta Alanoak bota ebezan, eta 477an erromako jaurkintzaren jabetasunagaz egin ziran, askeneko erromatar kaizerra bere errege aulkitik bota ebenean.

Bisigodoek Frantziko lurraldeetan agintaritzan galduten joanda, Leobijildo Toledon kokatu eben bere jaurkintzaren errege aulkia, eta lurrarteko itsas jaurkintzan Bizanziok euki eban agintaritzari egoaldeko lur geienak kenduta eta Sueboak azpiratuta, arrianismo erlijioa gura eben ezarri, eta naita bere seme Ermenejilo katolikoa il arren, ez eben lortu erlijiozko batasunik, areik eta bere seme I Rekaredok 589an Toledoko eleiz batzarrean lortu arte.

711n mauritarrak agertu ziran eta bisigodoak azpiratuz ta 1.492rarte erdi ugarte au euren agindupean egonda, 718an Kobadongako borroka ostetik Pelayok, Asturiaseko Kangas de Onisen sortuko eban aldi berriko lenengo erregetza, gero I Alfonsorekin iraungo ebana.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n, Zezeilla edo Otsaillaren 7an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(V)

MAURITARREN SARRERA EUROPAKO SARTALDE ONETAN.

Mauritarrak 711ko urtean Europara sartu ziranetik, godoak aienatu ziran len aipatu dogun lez, eta euren asmakizuna garaitzeko, antolamenduzko guda indar aundiekin asi ziran, baiña ikusi dogun lez, Poitiersera elduta Marteltar Karlosek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon, eta XIn gizaldian berakadan asita, 1.492an Granada-n egindako menperatasunezko itunerarte iraun eben, 781eko urtetan, gure artean egonda.

Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

EUSKALERRIKO LURRALDEAN LENENGO ERREGE TA JAUNAK.

Mauritarrak agertuta, godoak aienatu ziran erdi ugarte onetan, Frantziko lurraldeetan izan ezik, eta menpeko asmakizunetan irauntasunezko eten aldi bat agertuta, iparraldean Frankoakin eta egoaldean Leon-Asturiaseko erregeakaz sortu jakuzan eztabaidakaz, gure arbasoak bereala konturatu ziran jaurkintzazko antolamendu bat bear ebela euskal lurra beren senditasunezko izatasunean babesteko, eta prestuten asi ziran euren batzar nagusien antola bidetik.

AKITANIA.

Erromatarrak euren politikaren antolamendurako, Frantziko Galia esaten eutsenari, lau lurraldeetan banandu eben. Akitania, banaketa orren zati bat da.

Bere lurraldea, Loira ibaitik, Zebenes mendi kateak, Auñamendiak eta Gaskuña edo Bizkaiko itsas-golkoagaitik mugatuta dagoena da.

Bisigodoak, 418ko urte ingurutik egon ziran zabaldua Akitaniako lurraldeetan ⁽¹⁾ alkar zaletasun antzeko baten.

476an erromatar kaizar sakratua menderatu eben godoak, naita Dalmazian ⁽²⁾ Nepotetar Juliogaz 480ko urterarte iraun, eta 477an euren kaizertza zabaldu naian, erdi ugarte onetara etorri ziran.

486an frankoak Klodobeo-ren ⁽³⁾ agindutara, Siagrio Godo-aren jabetasunean egon ziran Loira ibaitik gorako galiaren iparraldeko lurraldeak menderatu ebazan, eta Siagrio bere burua babestu naian Tolosara joanda, IIn Alarikok bidean arrapatuta Klodobeori eskuratu eutson, eta onek il ondoren, Frantziko lurralde guztian bisigodoak eta frankoak auzo lez geratu ziran jabe.

(1) Nebenpopulania ta Akitania sekundan. (2) Dalmazia = Yugoslavia. (3) Klodobeo 481-511 urte bitartean frankoen erregea izan zana, bere emazte Klotildek, katolikotasunera aldatu ebana.

507an Klodobeok, Gundebaldo borgoñarragaz alkartuta, Boille, Poitiers ondoan egindako borroka nagusian irabazi eutsen In Alarikori, berau bertan ilda, eta 508an Teodoriko ostrogodoa, Gundebaldori Narbonan egindako borroka irabazita, frankoak eta ostrogodoak geratu ziran garaille.

Euskaldunak borroka orren bidez, Akitania ⁽¹⁾ ta Nobenpopulanian auñamendietaraiño lurraldearen jabetasuna galdu eben, frankoak eta gero ostrogodoagaitik menperatuta geratu zanean.

Ostrogodoak erromatarren antzera, euren norkerizko guda indarrarekin, lurralde guztietatik ibili ziran berezko erritarren legeak kontuan artu gabe, erritarrak euren borroketan peoi lez ibilteko ta zergak ordaintzeko baiño besterik ez ebalako gura.

574ko urtetik asita, Nafarroa, Aragoi eta Kataluñako euskaldunak lenengo, eta Bizkaitar, Arabar eta Kiputzak gero, Auñamendi kateetatik zabalduz zirikitu ta oztu egiten eutsen godoai, euren gorde tokietara ostera joanda.

Eta 582an Bisigodoak erdi ugarte onen euskal lur batzuk menperatzen asi ziranean, iparraldeko euskaldun asko alkartu jakiezan godoari aurre egiteko.

Astrobaldok dukea ibili zan euskaldunak menperatu naian, eta eziñean, 587ren ostetik erabagi batera eldu ziran, Euskal bizitza aurrera bakez eroateko: “euskaldunek zergak ordainduko ebezala, batera baiña, bizi ziran lurraldeetan, euskal-legeekaz jaurrituko ebela”.

602an Austriako In Teudoberto eta borgoñako In Teodorikok, euskaldunaren aurka joan ziran, eta beartu ebazan eurak agindutako kondea on artu egien.

BASKONIAKO DUKAT-ERRIA.

Or agertuko zan lenengoz bere gorteagaz euskal askatasunaren Bazkoniako-Dukerria, merobinjoren erregetzatik aginduta.

Genial galo-erromatarra izan zan lenengo dukea 602-626ko urtetan, eta aukera barri bat agertu jakien iparraldeko euskaldunai, euskal nortasunaren izaerazko oituran bizitzeko.

626an Genial kondea il zanean, euskaldunak matxinatu ziran bere ondorengo Aighina zanaren aurka.

629an baiña, I Dagoberto agertu zanean, frankoaren agintaritzak sendotu zan lurralde guztian.

635ean frankotarren agintaritzari euskaldunak aurka egin eutsen denboraldi baten, eta 638an I Dagoberto il zanean, ondorengo ziran errege fardelakaz, frankotarra ezereztu jakien Augustoren mugatara itzultzea, Eurikoren erreinua ostera osatzeko.

Euskal erritarrak feudoan eta geien gotzaintegian finkatu ziran bitartean, Bazkoniako dukerria indartzen joan zan, eta denbora gitxian euskal-dukerriko agintaritzaren erabagiak, orduko frankotarren errege alperraren gainetik jaurkitzen ebezan.

Eginkizun oneik, Akitaniako andimandien eta euskal erritarren artean, ezin obetoko ulermenean ezarrita egon ziran, eta euskaldunentzak laster emongo ebazan emaitza onak.

Ebrinok, Frankoaren erregetzazko etxe-zaiñak eta gorteko denbora onen larri aldian, Felixeri emon eutsozan Euskalerriko Uri guztien nausitasuna Auñamendirarte.

(1) Akitaniako Dukerria, kontuan euki bear da Ebroraiño zala.

Felix-ek baiña, frankotarren alde jokatu barik, Baskoniako Dukerriaren alde jokatu eban, euskaldunen politika indartzeko.

Eta gero ikusiko dogun lez, Felix-en ondorengoa Lupus ⁽¹⁾ izango zanak aurreratuko ebazan eginkizun oneik, frankotarren aurka zuzen borrokatu ta Wanba bisigodo erregearen aurka, Septimaniako ⁽²⁾ iraultzari lagunduta.

Gauzak olan zirala, 660-670eko urte artean Toulouseko erreñu zarra bizkortzen asi zan, eta Akitaniako Felix dukearen ondorengoa I Otsoa edo Lupus ⁽³⁾ izango zan Baskonia Dukerriko jaurkintzaren buru 670-710eko urte bitartean.

Ondoren eta 710-735eko urte bitartean, Eudon Aundia izango zan Baskoniako Dukerriaren agintaria.

711ko urtean, Muzaren mauritarrak Tarik-en agindutara erdi-ugarte onetan Kadiz-etik sartuta, Rodrigo bisigodoaren gudaloztea ezereztu eben, eta 714ko urtean Saldubara ⁽⁴⁾ eldu ta menperatu eben.

Salduba ta Logroño arteko eremu zabal baten buruzagi nagusia izan zan Kasio, eta bere ondorengo lez, ibar orreitan kokatuta geratu ziran kasiotarrak.

Kasio kondea, bisigodotarren errege leiñukoa zan, eta 714an bere lurraldearen aginteari eustearren musulman biurtuta, kalifaren serbitzura aldatu zan, ortik artuko eben Banu-Kasiren ⁽⁵⁾ izena, eta garrantzi aundikoa izango zan nafartarren erregetza sortzeko.

718an Akitaniako lurraldea, Eudon Aundiaren jabetasunean egonda, euskal eragipena iparraldetik Loira ibairaiño, Ego-aldetik Ebroraiño, eta mendebaleko kantabrietatik, Añamendiren eki-aldeko Jirona-Lleidako Aran ibarrerarte laterrituta geratu zan ⁽⁶⁾.

Orduko denboretan Eudon-en printze-erri au, Galia guztiko eredu lez geratu zan, Austrasia ⁽⁷⁾ ta Neustria-ren ⁽⁸⁾ arteko borrokatan, antolatzaile edo artekariaren ⁽⁹⁾ lanak al egiteko bakarra izan zalako.

Eudon-i askatasunaren eragipenezko ekintza orreik, eskerron ⁽¹⁰⁾, onespeneko ⁽¹¹⁾, ta erregearen ⁽¹²⁾ izena balio eutsozan.

671-tik-781-era Baskonia-ko Dukerria, franko-en agintzatik aske bizi zan, eta bera izan zan lenengoz, euskaldun guztiak politikaren jabetasunean alkartu ebazanak.

Euskaltasuna eta Euskerea sendotu ziran. Batera baiña, beste zoritxarreko gauza sortu jakon gure izkuntzari.

Euskerea sendotu bazan gitxi erromatartuta egon ziran euskaldunen artean, geien erromartuta egon ziranen artean "Gaskon" latin-kume agertu zan, ortik aurrera gaskoien erritarrak agertuz.

Gero, gizaldiak aurrera doiazela Gaskoi izkuntza zabaltzen joan zan, Euskerea neurri bardiñean gitxituz. Eta XII-XIII In gizalditik aurrera Aran-eko ibarreraiño.

Dana dala, Baskonia-ko Dukerria Frantzian, zabaltasun aundia artzen joan zan eta bere lurraldea, gaur Gaskuña-lez ezagutzen dan lurraldea osotzen eban.

(1) Lupus = Otsoa. (2) Septimaniako lurraldea = Erromatarrak Rodano ibaia, Añamendiak eta itsasoaren bitartean dagoan lurraldeari esaten eutsen. Eta Frankoak, Garona ta Rodano ibai artean eta Añamendi ta Zebenez mendikateen arteko lurraldeari Galia gotikaren izenagaz esaten eutsen. (3) Lupus edo Otso oneik, Aragoiko Iaka edo Jakakoak ziran. (4) Salduba edo Zalduba = antiguo nombre vasco de Zaragoza. (5) Banu Kasi = baleiteke euskaldunak izatea. (6) Dentro del estado franco, el estado vasco. (7) Austrasia-ko lurraldea = Klodobeo-k eraiki eban ekialdeko erregetza, eta Frantzia-ren eki alde, Alemania-ko mendebal eta Olandako lurraldeakaz osotzen zan. (8) Neustria-ren lurraldea = Merobijioaren denboran sotu zan erregearen lurraldea, eta ipar-mendebaleko Loira ibai, Mosa ibai, ta Bretañaiko lurraldeakaz osotzen zana. (9) Antolatzaile edo Artekari = arbitro. (10) Eskerron = gratitud, reconocimiento. (11) Onespenea = aprecio, buena acogida, aplauso. (12) Regnun = reino.

Akitania-rentzat keiñadura gogorra izan zan mauritarrena, erdi-ugarte onen lurralde guztiagaz jabetu ziralako.

KARLO MAGNO, MAURITARRAK, KATOLIKO ELEIZA ETA EUSKALDUNAK.

720an Mauritarrek Auñamendietatik igarota, Toulous-ari eraso eutsoen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, Abinessa, erdi-ugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra zanaren alabeagaz ezkondu zan. Abd-el-Raman-ek baiña, Abinessa baztartuta eta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauz-en ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero Tours-era joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

732an Karlos Martel-ek, Eudes-eri laguntzen joan zan, eta Abd-al Raman Poitiers-en geratuta, Auñamendiak betiko aldatuazo eutsoen ostera.

Eudon Aundiak, iñolako nagusitasunik ez eban on artzen frankotarren aldetik, eta 735ean Karlos Martel Euskalerrian sartu ta Eudon il eban. Eudon-en urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, eta onek, zintzotasunezko ziñ-itza ⁽¹⁾ emon bear izan eutsen frankotarrak.

741ean Karlos Martel il zanean, euskaldunak alperrik asi ziran frankotarrak euki eben agintaritzaren aurka, 768an euskal Dukaterrian Unaldo-ren urrengo Waifre ⁽²⁾ zanak aurre egin eutsoelako, III In Pipino Martel-en semeak il eban.

Martel-en seme III In Pipino laburra, Karlo Magnoren aita eta orain Frankotarren erregeak, II In Otsoa-ri, Akitaniako euskal jabetasuna ta askatasunaren truke, berak euskaldunen artean aukeratzen ebazan esku aundiko zaldunak beragaz baituran ⁽³⁾ lez eroatea beartu eutson, eta bera baituta eroatea izan zan, II In Otso edo Lupo-k I Eudon-en askeneko semeak Frankotarrari ordaindu bear izan eutsena, Akitaniaren askatasunagaitik.

Jatorriz ziran erregetzazko leiñu bi onen artean, politika arloan nor geiago izateko leian, Akitaniakoa: I Eudon, I Unaldo, Waifre eta II In Unaldo. Eta karolinjiotarrena: Karlos Martel, Pipino laburra, eta Karlo Magno izan ziran.

760-768 urte artean III In Pipino laburrak erabagiko eban nor-geiagotasun ori, 9 urte luzetan araubideko gudaldia eroan ebenagaz, garaille urten ebalako.

Euskaldunak eta Frankoak, kidetasunean jokatzen eban geienetan, baiña oneik menpeko asmakuntzazkoak ziran lez, beti asarratzen ziran, erabagiak euskaldunen aurka joaten ziran.

Frankotarrak, mauritarrak dirala ta, artu-emon aundia euki eben Baskoniako Dukerriagaz, Karlo Magnok, ardura aundia euki ebalako mauritarrak bere erreñutik kanpo egon zitezen.

Bide batez Baskonian bizi zan, sarri izaten ziran euskaldunen matxinadak geratzeko.

Eta bitartez, erdi-ugarte onen iparraldeko Emir-ekin lan edo gudarako kidetu egiten zan, auek Kordobako Kalifaren aurka matxinatzen ziran.

778an Karlo Magnoren gudalozte aundia, Roland bere zaldun bioztoi aipagarrien agindutara, Salduba mauritarrengandik askatzera joan zan, eta eziñean Iruñatik etxerantza aldatu zanean, Iruña erraustu eban.

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de fidelidad. (2) Waifre = Wafarius. (3) Baituran = rehen.

Eta 778an Dagonillaren 15ean, Karlo Magnoren gudalozteak Auñamendietatik aldatzen doiezala, euskaldunak Orreagan itxaroten euki ebazan, eta ikaragarritzko zarraskintza egin eutsen, Roland bera be bertan ilda.

Gero, 1.090ean Roland-en abestiagaz betikotu egingo zana. Frantziko elerti lanen artean aundienetarikoa da.

Karlo Magno, Euskaldunak askotan matxinatzen ziralako arduratuta, Asturias-eko II In Alfonso nasgabea ⁽¹⁾ esaten eutsoen erregeagaz alkartu zan, baiña onek ego aldeko mauritarrakaz bere premitasunak euki ebazan lez, ez eutson laguntzarik emon.

Katolikotasunezko eleizak berezko errigizartearen eskubideak kontuan artu gabe, alegin asko egin ebazan Frantziako erregetzan batzangotu zitezen lurralde ta erritar orreik, eta neurri orreitan ugaritu ziren euskaldunen matxinadak Akitaniako lurraldetan.

Aita Santu guztiak katoliko joko orretan sartuta, beti ibili ziran euren arteko errege indartsuena aukeratzan, kaizar sakratuaren inperatore edo agintari izendatzeko.

Danak baiña azken gaiztoa euki dabe, lenengoetatik mendeko bide okerretan sartzen ziralako, berezko erri ta erritarrak kontuan ez eukitearren.

Karlo Magno 800 urteko Gabonetan, Erromako Pedro Santuaren eleizan III In Leon Aita Santuak, erromatar kaizar sakratuaren Augusto-kaizerra izendatu ebenetik itzuli zanean, Akitaniako euskaldunak matxinatuta egon ziran.

814an Karlo Magno il zanean, I Pipino Akitaniako erregeak ⁽²⁾ bialduta, agertzen da III In Pipinok 30 urte ariñago baitua ⁽³⁾ izan zana, Santxo Otsoa, II In Otsoa-ren semea.

Euskaldunak nobenpopulania zarrean ⁽⁴⁾, Santxo Otsoa-k zuzenduta egon ziran. Gero, bere seme nagusia Aznar Santso, eta au I Pipinok il ebenean, 836an bere anai Santxo Mitarrak artu eban jaurkintzaren ardura.

Santxo Mitarra, Nafarroa eta Aragoi-ko goi aldean ibili zan bere aitagaz, guda ta politikako zeregiñetan trebetasun aundiak lortuta.

838an I Pipinok, Santxo Mitarra-ri borrokara beartu eutson, eta onek Garona ibaiaren eskuma aldera indarrez eroanda Pipino-ren gudalozteak, ezereztu ebazan.

Karlo Magno-ren nagusikeritik 68 urte geroago, Euskaldunak ostera jabetu ziran euren lurralde osoakaz.

Franko-aren errege I Luis errukitsuak ⁽⁵⁾, Santxo Mitarra-ren jaurkintza baieztu eban, 840an bera il zanean baiña, Frantziako kaizertza bere iru semeen artean banandu eban, eta mendebaleko lurraldea Akitaniagaz batera, Karlos buru-soil-en ⁽⁶⁾ ardurapean geratu zan.

Euskalerra, naita gero murriztuta geratu, beti danik izanda Euskaldunen Aberria.

(1) Nasgabea = el casto. (2) 803-838, Luis errukitsuaren (el piadoso) bigarren semea, Akitaniako errege izendatu eben, bere anai Lotarioren menpean, au, kaizar izenaren ondorengoa zalako. (3) Baitua = rehen. (4) Novempopulania = Galia erromatarak 17 lurraldeetan banandutako bat, Aquitania lurraldeko geien osotzen ebana. (5) I Luis errukitsua = el piadoso, o, Ludovico Pio 778-840. (6) Karlos buru-soil = karlos el calvo, 823-877.

Atutxa-tar Paul

Zornotzan, 2.011n Zezeilla-ren 15ean

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(VI)

EUSKALERRIAREN EGO-ALDEAN MAURITARREKIN NAFARROA-KO ERREGETZA TA BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA.

Erromatarren aurretik, Godotarren denbora ostetik, eta bai arrezkeroztik be, Akitania ta Nafarroako edestiak bardiñak izan dira, gure erria edo euskal lurraldeko gizarte guztia, beti alkartzen zalako Auñamendikateko babesean, izkuntz, sinismen ta oitura batekoak izanaz.

Ori izan ote zan, orduan ulertzen zan euskal erresuma edo batzangotasuna, gaur “Aberria”ren izenagaz ezetuten doguna ?.

Arrigarria da gaur euskaldunak espainolaren aotik entzun bear doguzenak, adibidez: “Aber-zaletasunezkoak garella” diñoenean.

Gu ez gara “Aber-zaleak”, gu Euskaldunak gara, mundu onek Jainkoagandik daukan bereztasunezko legean jaioak garelako.

Euskaldunai orregaitik ez jaku ipini bear, espainol berekoi maltzurak euren guzurrezko “Nacional Katolicismoa” egi biurtu naian, aurretik ipinten gaituen “uste”aren (1) galderazko berba ori bezela, eta euroi benetan egokitzen jakien “uste”zko berba ori ostondu, nortasunezko itxuran agertu naian.

Ez dira konturatuten, aurretiko ezaupideak mundu fisiko onetan, ezin dirala nor beren naikerira aldatu, Izadi onek daukazan legeak alda-ezin edo kendu-eziñezkoak izan da ?.

Euren izatasunean, norkerien asmoak baiño besterik ez daukie, eta Euskaldunak izaeran “Nortasunezko Jaiotasuna”.

Norkerizko lanean dabizen alegiñak dira ekintza orreik: “Egiari, guzurra dala esan, eta guzur utsari, benetako egia dala”.

Gaurko bizitzari, txoriaren begirakada bat emonda, ez da gaur sortzen dana ?.

NAFARROAKO ERREGETZAREN SORKUNTZA:

Goian ikusi dogu, 800garren urtean, III Leon Aita-Santua-k Karlomagnori deituta, au Erroma-ra joan zala eta bertan, Iparraldeko itsasotik, Garellano-ibai (2) Ebro-ko ibairañ, eta Mendebaleko Atlant-Itsasotik Ekialdearen Boemia-rañoko Erromatar Kaisal-Erri Sakratuaren Inperator edo Augusto-Kaizar-Jaun Erromako San Pedro Eleizan koroatu ebal.

Emen, kaizartzazko lengo ariari irauntasuna osteria emonda, erromatar Kaisal-Erriaren agindupean batu gindezan.

Euskaldunak baiña, erromatar kaisal-erri orrek esaten dauan lez, Karlomagnoren menpean egon ote giñan ?.

(1) Uste = presunción. (2)en Garigliano o río Liri en el centro de Italia.

III Leon Aita-Santu ta Karlomagnoaren irudimenean bai, baiña egia non ?.

Guzti au, baleiteke Kristautasunaren zabalkuntza katolikotasun alderdikeritik finkatu edo gogortasunean babesteko izatea.

Zergaitik naspildu baiña gudu-indarrak, JAINKOANGAN euki bear dogun sinismenagaz ?.

Argi dago, Kaizar eta Aita Santuaren aginpean batzangotuta egon gindezan, Jainkoak ipini ebazan berezko lege ta errigizarte guztien gaiñetik ezarri zirala norkerizko asmakuntz orreik.

Euskalerriko Auñamendiak bere zilbor edo erdi-toki-lez, beti izan dira Euskaldunentzat babes leku ederrenetarikoak.

Baiña gaurko edestian sartu gintzazanetik, gizaren eginkizunezko trebetasunak soiltzen (1) joanda, bearrezkoa agertu jakun oraintsungo antolakuntza barri baten kokatzea.

Aukera orreik VIII-IXn gizaldi bitartetan agertu jakuzan, 778an Karlo Magnoaren gudalozteak, bere zaldun bioztoi (2) Roland aipagarrien agindutara, Salduba (3) Mauritar Soliman ibn-al-Arabi-ren menpetasunetik askatzera joanda eta eziñean Iruña-tik etxerantza aldatu zanean, Napar Uria erraustu ebenean lenengoz.

778ko Dagonilla-ren 15ean Karlomagno-ren gudalozteak Auñamendietatik zear igarotzen egon ziranean, Euskaldunak ostonduta, Orreagan itxaron eutsoen eta ikaragarritzko zarraskintza egin eben gudalozte orreitan, Roland bera be ilda.

Eta 814an Karlomagno il ostean, bere seme Ludobiko Pio-k 824an, Euskaldunak ezereztu ebazanak, ostera bialdu ebezelako beren gudalozteak Nafartarren aurka.

Aldi onetan kontuan artu bear dogu, 714an Kalifa-ren zerbitzura aldatu zan Akitania-ko Kasio kondea, ortik aurrera Euskal sendi au, Banu-Qasi-ren izenagaz ezagututa, euren laguntzagaz 824an, Nafarroako Jimenez ta Arista-tar iñigo lenengo Nafar erregea izendatu gendulako, 852an bera il zan arte iraun ebana.

Lenago baiña, aldi areitan Nafar erregetza sortzerazko irudiaren argitan kokatu degun, azterka begitu bear doguz orduko Europa ta euskalgizarteetan baldinpekotuta egon ziran aukereak.

Alde batetik, “Griego-en jakintzan, Erroma-tar Kaizar-Legedian eta Katoliko Sakratuaren” dogma arauzko baldintzatan ezarri bear genduzalako nai-ta ez gure Jaun-Erregezko antolamendu barri orren oñarriak.

Beste aldetik, Europa-ko errege-erregiñaren ezkontza bidez, sasijainkotasunezko senidetasunak sortu ziran, eta norkerizko feudo-legeak txuntxur-antzeko agintaritzan askatasunezko demokraziaren aurka ezin besterarte gogortuta, Nafarroako erregetzari asieratik, eriotzera bideratuko jakon.

Eta baldintza bi oneik Munduko gizarte guztia oldozmen ta agindu bakar baten batzangotuta ezartzeko, azpiko bardintasun lege onegaz lotuta dagoz, **Jainkoa eta Gizartearen artean, Kaizar eta Aita Santuaren solaskide bakarrekin.**

Baldintza orreik ez ziran edozer gauza izan, norkeriaren sorburuzko asmakuntzari, neurri aundiko ateak zabaldu eutsezalako: “Griego-en jakitza ta Euskalerraren berezkitasunezko oitura demokraziak zekula ezin diralako ezkondu, Erroma-tar Kaizar Katoliko Sakratuaren menperatzaille legediakaz”.

(1) Soiltzen = simplificar. (2) Bioztoi = resuelto, valiente. (3) Salduba = Zaragoza-ren antziñako euskal izena.

Gu, Jainkoa-ren Berezko Lege demokratikoetan beti lez iraun bear dogu.

Leen, Paleolitiko Neolitikoan egin zan antzera, betiko ta berezko lege orreitan jarraituta, munduan egin bear diran alegiñak demokratikoak izanez gain, giza eta erri-gizartearen eskubideen berdintasunezko lege-bidetik eroan bear diralako (1).

Bigarren: “Bide-ori baztertu egiten badogu, Euskaldunak Mundu oneri milla-urte askotan, azturazko bizi-jakintzan emon geuntsozan ulermen aundiko adierazpen argitsuak galtzen dira eta beragaz, gure maitasunezko Euskalerra onen Izatasuna.

Eta irugarrenean: norkeriaren asmakizunezko menperatzailleak, Jainkoaren zuzen bidera berrezkuratu, eta egitarau (2) inguru baten, askatasunezko Nortasunik galdu gabe danok alkartu.

Mundu fisiko oneitan gure ekintzak, Jainkoa-ren Legeagandik mugatzen asita dagoz, eta borroka orreitan aurrera egin ezkeru “ekaiztsuzko laiño-baltzak odei-jole, urrean ikusten dira”.

Iruña-ko IIn Garzea-tar Iñigez 870-882 urte bitartean errege izan zanaren Ximena alabea, IIIIn Alfonso Aundia (3) Asturias eta Leoneko erregeagaz ezkondu zalako, Banu Qasi-ren senditik urrunduta, euren gana urbildu ziran, ortik beste okerreko ziri sakon-bat sartuta Nafar erregetzari Nortasunezko osasunean (4). Eta beste alaba-bat, izenez Oneka deitzen zana Aragoi-ko Aznar Galindo-rekin.

Mauritarrak Begi-bakarra ta kristauak Monakoa deitzen eutsoen I Fortun 882-905n urte bitartean errege izango zanaren alaba Oneka, Abd Alah mauritarrekin ezkondu eban.

IIn Santxo “Abarka” 970-994ko urte bitartean errege izango zanak, Mauritarrak ezin irabazi eta alaba bat Almanzor-ekin ezkondu eban, bai bera be bigarrenez Urraka Fernandez-ekin, Fernan Gonzalez Gaztela-ko kondearen alabea zana gaza bakearen truke.

Bere seme IIn Gartzia Santxez-ek 994-999 urte bitartean errege izango zana eta Dardarti edo Ikaratia deritxon alaba, Asturias-Leon-go Vn Alfonso-gaz (5) ezkondu eban”.

Dana dala, zelan ezkondu menperatzailletasunezko feudoan antolatuta egon ziran Franko ta Asturias ta Leon-eko erregetzak, kaizar astuntasunezko izen orreik emoten eutsen punpeziagaz (6), Foru edo Lege-Zarraren ardurazko ordezkartizan eta askatasunezko demokrazian oituratuta sortu zan Euskal-Nafar erregetzarekin ?.

Dana dala bide orretaik, Europa-ko erregetza guztia senidetuta geratu zan.

Eta euskaldunak Norkerizko sare-arte edo txebera orreitan sartuta geratu giñan, beste gauzarik egin ezinik.

Antzerki edo ta gertakizunezko lazgarri orreitan iraungo dau Nafartar-erregetzaren edestia 1.512an Fernando katolikuak Nafar-erregetzaren Ego-aldea menpetu arte eta geroago, gudu-indar keiñaduran edo kontrolpean gaurko egunerarte.

Europa-n, berez askatasunaren oiturazkoak ziran erregetzak eta Nafarroa-ko erreñua batez be, etsai asko euki ebezan katoliko asmatu zan eritzi orren aldetik, orduko denboratik asi-ta, berezko Erri-gizarteari iñoz ez dautsielako aukerarik emon, berezitasunezko jarraipenean itzarmen bidetik batzangotu egiezan.

(1) Derechos Universales Humanos. (2) Alkartu gaitzean egitarau inguru baten = proyecto comun. (3) Magno, 838-812. (4) Kontuan artu bear dogu, erdi-ugarte onen Iparralde guztian laterritutako erri-gizarteak, Euskera-ren senetik berba egiten ebela, nai-ta izkuntzan naastuten asi. (5) 994-1.027. (6) Punpeziagaz = solemnidad.

Eta Jainkoak bereztu Ebazan legeak, gure askatasunezko zor eskubidearen eginkizunetan egiaren aukerazko baldintzak izan dagiezan, norkeriaren zaleak jabetuta, Nafarroako errege batzuekaz sortu ziran gauza zeatz batzuk argituko dautsuedaz, ikusi daigun, maltzur eta naspiltasunezko jokoakin norarte aldatu gure dabezan, gure baitan irarrita dagozan Jainkoaren legeak.

Euren buruetan erabili edo pentsatuko eben, erritarrak ez zirala konturatuko, berezko lege aldetik ez ebelakoan ezer jakingo.

Baiña zelan konturatu ez, Jainkoaren borondatez, gure baitan beti egon ba dira irarrita ?.

Beste gauza bat izan zan, esku baten Jainkoaren izena ta inperua meatxuka erabiliz, eta bestean kurutzea ezpata izan balitz bezala keiñaduran erabilia danak beldur edo kikilduta euki ondoren, eurak euren buruai sinist-araziz egia dala erritarren jakintzan utsun ori dagoela.

Baiña ortik egira, emendik Eguzkira baiño alde aundiagoa dago.

JIMENOTARREN ERREGE LEIÑUTIK.

III In Antso Gartzeiz **Aundia**, 965-1.035 urte bitartean bizi zan.

999an, beren aita II In Antso Gartzeiz 994an il da ondorengo izateagaitik, Nafarroako erregetza eta Aragoiko konderria artu eban.

1.018-1.035 urte bitartean Sobrarbe-Ribagorzako konderria artu eban.

1.029-1.035 urte bitartean eta Antso Gaztelako kondearen alabeagaz ezkondu zan bidetik, Gaztela-ko konderria.

Eta Leon-go III In Bermudo erregearenak izan ziran, Gaztela-ko Zea ta Pisuerga ibai bitarteko lurraldeak bereganatu ebazan, eta Leon-en sartuta, beren burua Kaizar-Sakratua izendatu eban, dirua atarata idazpuru orregaz.

Iberia-ko peninsula onetan, III In Antso Gartzeiz errege nagusi edo aundienetariko bat lez ezagutu zan.

III In Antso Gartzeiz il aurretik, bere agintaritzazko lurraldeak, bere lau semeen artean banandu ebazan:

-Nafarroako erreinua, Gartzeiz-eri.

-Gaztelako konderria ta Leon-go zati aundi bat, Fernando-ri.

-Aragoi-ko konderria, bere sasiko-seme ta nagusiena izan zan I Ramiro-ri.

-Eta Sobrarbe ta Ribagorza-ko lurak, Gonzalo-ri.

Txarto eginez gain, ez eban susmatu Gaztela ta Aragoi-ko konderriak, anaien arteko bikaizkeri bidetik eurak be errege izendatuko zirela, eta berezko tronkalaren nortasunetik, katolikotasunaren alderdikerizko batzangoasunera aldatuta, Nafarroa-ko erregetzari, etsai indartsu bi geiago agertu jakozan.

Noren aolkularitzapean egon ziran Europa ta Nafar erregeak ?.

Eibarko karmeldarren etxean Euskerazaintzako batzar baten egon giñela, Oñatibia-tar Dunixi-ri bere “txarto oldoztu zaitez” itaunari, nik “asmatuko dozu” erantzun neutson, eta berak: ez !!, “labur geratzen zara” esan eustan.

Zezer-etik ona, Erroma-ko kaizar sakratu ta fazizta guztien atzalburua euren garaipenak lortzeko, beti izan da: “Veni Vidi Vici”.

Eta berezkotasunean edo jarraipenean azturazko oituran iraspendu egiten diran Nafarroako askatasunaren aberrizko erregetzak bezala, katolikotasuna asmatu eta alderditu zanetik eurentzat zekula ez diralako izan zuzentasunezko iraspenak, arazoak gutxitu barik, atzalburu orregaz aundiagotuten beti aleginduko dira.

Antzezko ⁽¹⁾ lanean egindako “Latiña” be izan zan tresnarik garrantzitsuena asmakizun orreik aurrera eroateko, berezko eta bidezko izkuntzaren aurka.

Eta eleiztarrak euren aundikotasunean danoen gaiñetik agintzen ebalako, latiña jakintzaren ibilgaillua eginda, Nafarroako erregetzan sekula ez zan idatzi agiri bat euskeraz.

NAFAR-TAR ERREGE LEIÑUTIK.

VIn Antso Gartzeiz **Jakintsua** 1.150-1.194ko urte bitartean bizi zan.

Nafarroako leiñuaren erregeak Euskal-Nortasunaren aldeko abertzale sutsuak izan ziran eta VIn Santxo jakintsua, Euskal errege artean baleiteke lenengoa izan konturatu zana, eleiza edo katolikotasunezko ingurutik Euskal izkuntza bastertu egiten ebal.

Beste adierazpenik ez daukatelako aurkitzen, beartuta agertuko bear izan eban, danon aurrean Euskerea-ri ots indartsuenagaz latiñezko “Lingua Nabarrorun” itzakaz lau aixetara aldarrikatzea.

Goian esan doten txeberazko arrazoiaren bidez: “Latiñez eta Latiñez ez bazan izaten sasi izkuntzan edo latiñ-kumean idazten ziran jaurkintzaren agiri guztiak”.

Nafar erreñuak, ba-eukan beste etsai aundi bat, edo ez ziran ondo konpontzen beintzat, IIIIn Zelestino Aita-Santuagaz.

1.194an Jorrailla-ren 13ko Aita Santuaren berun idazki edo bulda-n, VIn Santxo Jakintsua ⁽²⁾ erregeari, Nafartarren “DUKE” izenagaz idazten dautsolako, “REX GRAZIA DEI” euren eritziaren aldeko erregeari idazten eutsen orde.

Eta bardin bere seme VIIIn Santxo Azkarra edo Indartsuari 1.196an Martiaren 27ko buldan, naita euroi moruen aurka, ainbeste lagundu eutsena izan.

Edestilari aldetik iñork esan ez arren, jakin eben orduan be nortasun ta norkeriaren eritiziko borrokan ibili zirala.

Egira zelan urten baiña, eritiziko guzur ori goitik berako agintaritzan dogmakin araututa euki eben txeberazko sare orretatik, jakintsu geienak norkeri orren alde bete betean kokatuta egon ba ziran ?

TXANPAÑA-KO ERREGE-LEIÑUTIK.

1.234-1.253 urte biartean Nafarroa-ko I Teobaldo “Bertsolaria” eta Txapaña-ko IVn errege izango zana izendatuko dogu, gauza asko geratzen diralako agirian.

Nafarroa-ko I Teobaldo “Bertsolaria”gaz ⁽³⁾ asten da Txanpaiña-ko errege leiñua. VIIIn Santxo “Indartsua”ren loba izan zana.

(1) Antzezko lanean eginda = idioma construido artificialmente. (2) 1.128 inguruan jaiotako, 1.150-1.194ko urte bitartean errege zala izan zan arte. (3) 1.234-1.353 urte bitartean errege.

Nafarroa-ko Blanka eta III In Teobaldo kondearen semea, Brie ta Txanpaina-ko kondearen izenagaz.

VII In Santxo Indartsuaren azken borondatea, Nafarroa-ko erregetza, Aragoi-ko I Jaime-ren eskuetan iztea zan Teobaldo ez ebalako begi-onean artzen.

Nafartarrak baiña, gogo orreik kontuan euki-gabe, Santxo il zanean illabete geroago Teobaldo-ri deitu eutsoen eta Iruña-ko Gotzain-Eleizan Foruak zinduz-gain Frantzia-ren gorteko oituran igortzi (1) eben.

1.238an Lur-Santua-ren gurutzeko-gudaldia bideratu eban, eta Tauro mendian, betiko ospagarritasuna lortuta, 1.240an itzuli zan.

1.246an, Ximenez ta Gazolaz-tar Pedro katoliko sutsu gotzainarekin Foruen gora-beran euki ebezan estabaidakin, onek zalantzan ipinten eban Nafar-erregetza.

Aita-Santuak baiña, lege berezi bat agertuta: "Bere baimenik gabe, inork ezin ebala Teobaldo eleizatik kanporatu" esan eban.

Zer gerta leikean Gurutzeko gudan ez balitz ibili ?.

Laugarren gizaldian Nizea-ko eleiz batzarrean erabagi zan bidetik be, erri bateko erregeak eskomunikatuta geratzen ba ziran katolikotasunaren alderdiko erispenetik, eleizaren aldetik (2) Europa-ko edozein printze edo errege baimenduta geratzen zan printzerri orreitan sartu eta eskomunikatuak euren errege aulkitik kanpora botateko.

Aita Santu ta Europa-ko errege katolikoarentzat, zer ziran giza ta berezko errigizarteak ?.

Ba, maltzurrezko ta norberkerizko lege orreik izan ziran Fernando katolikuak eta II Julio Aita Santuak 1.512an erabili ebazanak Nafarroa-ren berezko erregeak euren errege aulkietatik kanpora botateko.

Baten batek esango daust, nungo Jainkoaren legeak ziran orreik ?.

Eta Nafarroa-ko euskaldunak ortik aurrera, gudu-indarraren keñaduran eta kontrolpean eroan bear izan eben euren nortasunetan apaldura ori, karlistadako gudak asi ziran arte.

I Teobaldo sarri ibili zan Txanpaina ta Nafarroa-ren arteko bidaiak egiten, eta 1.253an Garagarrilla-ren 8an Txanpaina-ko itzulker a baten il zan.

(1) Igortzi = ungi. (2) Europa-n, bera izan zan agintari nagusia.

Atutxa-tar Paul

Zornotzan 2.011n Epaila-ren 8an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(VII)

Eleiza katolikoaren agintaritzak, Frantzia, Gaztela ta Aragoi-ko erregetzak, maltzur ta guzurrezko alegin asko egin eben Nafarroa-ko erregetza ezereztutea lortu arte.

Lortu eben baiña, Nafartarren euskal-nortasuna makurtu edo ezereztutea ?.

Ez !!.

Orain, guazen ikustera zer gertatu zan Bizkaiko Jauntzagaz, jakin daigun zer eta zergaitik egon ziran aldakuntz ezbaridiñak, Nafartarren erregetza 1.512ko urteraiño, eta Bizkaia bere Jauntzaren jabetasunean 1.876ko karlistadaren borroka amaituarte iraun egien.

EUSKALERRIAN BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA:

Gure Euskalerriko Batzar-Nagusiak, euren Berezko-Legearen antolamenduan ⁽¹⁾ zaldikatuta etorten ziran askatasunezko Batzar-Demokratikoen jabetunak ziran.

Baiña, erlijioz ta jaurkintzan Europa-ren katolikotasunezko ezarpena ikusita, Bizkaitarrak Nafartarrak lez beartuta agertu ziran beste aukerazko antolakuntza bat sortzea, eta Europa-ren erri-artean erri-lez bizitzeko, errege jauntza-ren antolamenduan ezartzea erabagi zan.

Ez zan egon beste aukerarik, eta nai-ta, errege-jaun antolamendu ori beti, Batzar Nagusiaren agindupean ezarri: “Griego-en jakintzan, Erromatar Kaizar-Legedian eta Kristau Katoliko Sakratuaren” antolamenduzko baldintzatan ezarri bear genduzan nai-ta nai-ez gure antolamendu barri orreik.

Nafartar erregetzan sortu zan antzera, zelan ezkondu baiña: “Griego-en jakitza, Euskalerraren berezko askatasunaren oitura eta Kristautasunaren Demokrazizko aolkularitza”, “Erromatar Kaizar-Katoliko Sakratuaren menperatzaille legediakaz ?”.

BIZKAIKO JAUNTZAREN SORKUNTZA:

838tik 882ko urte bitartean Asturias ta Leon-eko errege IIIIn Alfonso ⁽²⁾, borrokalari sutsu eta aundi edo magnoren izen goitikoagaz ezagutua, beren lurraldeak Mauritarren eskuetatik Duero ibaiaren beko-alderarte berrezkuratuta, eta bere jabetasunaren zabalkuntza andiagotu naian, ekialdeko erriak mendean artzeko prestatzen asi zan.

Araba-tik asi zan IIIIn Alfonso, eta Arabarrak euren jaun Elion-egaz asarratuta egon ziralako, IIIIn Alfonso-k Elion kondea arrapatuta, Araba, borroka barik eskuratu eban.

Gero Bizkaia menperatzera etorri zan. Gaur baiño askoz aundiagoa izan zana, Sartaldetik asita Kastro-Urdiales eta Mena-ko ibarrak bizkaitarrak ziran; Sortaldetik,

(1) JAINKOA ta LEGE-ZARRAK. (2) III'n Alfonso 838-912'n urte bitartean bizi zana.

Deba errekek ureztatu egiten dauzan lurrak; eta Eguerdi edo Ego-aldetik Aramaiona eta Ayala-ko ibarrak.

Bizkaitarrak aurre egin eutsoelako, Alfonso-k beren bigarren seme Ordoño-ri deitu eutson, eta guda-indar askogaz Orduña-Amurrio ta Luxaondo-ko ⁽¹⁾ bidetik, Bizkaia-ra sartu zan.

Bizkaia-k, Durango-ko Jaun Eztegiz-tar Santxo-ren agindupean ipini ebazan guda indarrak, eta onek, Ordoño-ren gudaosteari Padura-raiño sartzan itxita, bertan birrindu ebazan Alfonsok ekarten ebazan gudaostez indartsu orreik.

Bizkaitarrak, bizirik geratzen ziranai atzetik erasota, auek Ayala-ko Gorobel menditik goiko mendietara igon ebanean, jakin ebelako Euskaldunak Bizkaia-ren Luxaondo-ko errian dagon "Malato" zuaitz mugatik ez zirala joango euren atzetik, "A SALVO SOMOS" esan eben, eta orregaitik esaten jako lurralde orreri "Tierra Salvada".

Padura-ko erriari ortik aurrera ARRIGORRIAGA esaten jako, borroka orretan inguruko lur ta arri guztiak odolez margoztuta geratu ziralako.

Ordoño, borroka orreitan il zan, eta beren gorpua Arrigorriaga-ko eleizaren sarreran illobiratuta dago.

Eztegiz-tar Santxo be bertan il zan, eta beren gorpua Durango-ko Tabira-n San Pedro-ko eleizan illobiratuta dago.

Borroka au, 888an San Andres jaia ospatzen dan egunean Azaroko 30ean egin zan, eta ortik aurrera orregaitik, Bizkai-ko Askatasunaren itxurapenez artuta dago Ander deunaren kurutzia.

BIZKAIA-ren LEENENGO JAUNA:

Durango-ko Jauna eta Nafarroa-ko erregearen ordezkia izan zana Eztegiz-tar Santxo il da, Bizkaitarrak euren Batzar-Nagusien lege-jaurkintzan babesteko eta antolabideak epaitzeko bearkuntzan agertuta, guda-buru ta epailea aukeratzeko prestatzen asi ziran.

Busturia-ko gazte bat borroka orreitan egin-ebenagaitik aukeratu eben.

Abizenaz **Lope** euki ebana, eta bere amaren bidetik Eskozia-ko erregearen bir-seme edo billoba zana.

Eztegiz-tar Santxo-ren alabeagaz eskondu zan. Eta bera izan zan Bizkaia-ren leenengo Jauna, **Jaun Zuria**-ren izenagaz ⁽²⁾ ezagutu, eta 909an il zana.

Or sortu zan Bizkaitarren jauntza, Gipuzkoa ta Araba-gaz batera Nafarroa-ko erreinuagaz elkargo baten, 1.224garren urterarte iraun ebana.

Eta ez espainatarrak esaten daben lez **Bizkaitarren Askatasuna**, Euskal-Askatasuna, bere izkuntza beste antzizinaukoa dalako.

Espainola-k ez dabe esaten Bizkaitarrak ez giñela iñoz laterritu ?. Or, nun dagoen berezkotasunaren Estadu edo Laterria.

(1) Luxaondo = Luyando. (2) 888.

BIZKAI-ko BATZAR NAGUSIA-ren BALDINTZAK, JAUNA-kin ELKAR ADITZEKO:

Bizkaitar Batzar-Nagusien artekari lanak egin egiazan, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak: a) Gudal-buru izateko, b) Zuzenbidearen buru-nagusia izateko, eta d) Bizkaia-ko errigizartearen ondorezko lur zabalak zaintzeko.

Eta Jauna-ren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain aalmen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, Bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia ⁽¹⁾, itzalgarritasunean ⁽²⁾ ezarri egian emoten eutselako.

Orregaitik, "Erabakitasunean, Egilletasunean eta Lege-egilletasunetik apur-bat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra Errian egoala erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar-Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan.

Beren gauzatarako izaten zanean eta **Gudarako gizonen laguntza bear ebenean**, gure Batzarra beartuta geratu zalako bere guda-taldea gure-mutillakaz osotutea, beren gauzatarako izaten zanean, aurretik ordaintzeko beartuta.

Gure jauntza Gaztelako erregeen eskuetan geratu zan ezkeroztik aurrera, Euskaldunak baldintza orren erruz, beti ibili gara borrokan gure artean.

Zergaitik ?.

Europa-ko edestian, joko bi izan diralako batera etorri diranak, eta beti sortu diran arazoak Europa-renak izan dira danak, ez berezko errigizartearenak, onen arazoak beti izan diralako Europa-ren batzangotasunezko asmakuntza bidetik

Eta Euskaldunak ez giñelako konturatu, Europak Aita Santuaren aolkularitzagaz, kaizar sakratu baten agindupean batzangotzeko borrokan ibili giñan.

Or ikusten da, Europa-ko aolkulari nagusiaren maltzur jokoak, berezko errigizarteari sekula ez eutsolako esan zelako jokoetan ibili zan.

Eta joko orren guzurra, apaiz, lekaide-lekaime eta erromako eleizak daukan goitik berako agintaritzaren lan bitartez agertzen dan gezurtapenetik, gaur errez ikusi leiken gauza da.

Apaiz lekaide-lekaimeak euren errikoakin, beti egon diralako Jesus-en esanakaz Jainkoa-ri begira, eta apaiz-buru ⁽³⁾ ta gotzaiña maillatik gora, mundua katolikotzeko asmatu zan batzangotasunari begira.

Euki dogun sakonezko sinismenean, nor konturatu eleiz agintariak sasi-jainkotasunezko jokoan ibiliko ziranik ?.

Or daukagu Jainkoaren beste froga bat, Bere Legearen agerbidez, gure baitak argitan kokatzen dirala, eta ez dauskuela bakez izten, bere senean kokatu arte.

Orregaitik Gaztelako erregeak, Bizkaiko jaun lez euren gauzatan ibilita, euskaldunak borrokatzen giñan gure artean.

Eta geien Aragoiko ta Nafar errege IIn Juan eta bere seme Fernando katolikoagaz, auek orduko Aita Santuakaz batera, egi guztien muga gaiñetik, guzurrezko jokoan ibili ziralako.

(1) antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad. (3) Apaiz-buru = Abad, o, superior de una colegiata.

Bizkai-ko Batzar Nagusiak Euren Jabetasunean, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintzako agintaritzatik ?:

Batzarrak, almen guztia euken Jaunak kentzeko, ziñez ez ba-ebezan artzen Batzarraren agindutako baldintzak, eta edo ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba-ebezan eukiten.

Bizkai-ko Batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauntza ipinteko eta kentzeko.

PASE FORALA ZERGAITIK SORTU ZAN ?:

Gure ordezeko batzar-kideak antziñatik konturatu ziran, euki genduzan Jaun-errege Gaztelar orreik azpikeriz, Iribilduak iraspenduten asi ziranean, Euskalerrria kolonizetan ibili zirala, eta geiago, gure jauntza 1.379an Gaztela-ko I Juan ⁽¹⁾ erregearen eskuetan jausi zanetik.

Gure ordezkariak orregaitik, **Arazo Barrieri, Neurri Barriekaz** aurre egiten arduratu bear zirala konturatu ziran, eta antziñatik lege-atal lez euki eben **Pase Forala** sortu eben.

1.406an Gaztela-ko III Enrike **Gaxoa** ⁽²⁾ il zanean, gure jauntza, urte-bi bete-barik euki eban IV Juan-en ⁽³⁾ eskuetan jausi zan, eta Katalina ta Fernando beren aita-amaren ordezekoak egiten egon zirala, gure Lege-Biltzarkideak beartu ebazan gure Foru-ai ziñ egien.

Eta Juan berak be, ziñ egin bear eutson adiñekoa biurtu zanean.

Baiña denboraldi oneitan Gaztela-ko erregeak **“Pase Foral”**a kendu gurean ibilita, Bizkaitarrak asarratu ziran, eta Jaunak, arrazoa eukiela ikusi ondoren, 1.452an Uztailla-ren 21ean Gernika-ko zuaitz-pean egingo zan batzarrean, Bizkaitarrak euki ebezan oiturazko eta aukerazko-legeak idatzi egiezala esan eban:

“Que cualquier carta que el Señor de Vizkaia diere contra Fuero de Vizcaya, fuere obedecida y no cumplida”.

Eta alan idatzi zan Errigoitiko Santa Maria Eleiz-barrutian, Foruko leenengo liburuan.

1.526an gure legegilleak, kontu aundiagoa euki eben Foruak berriztu ziranean: **“PASE FORALA”**ren gora-beran, gure Bizkai-ko Jaunaren ulermenak ez egian zalantzarik euki.

Eta alan diño barriztutako Forua-k bere XIgarren legezko I izen-buruan. **Otro si dijeron: “Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, oser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizcaya, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida”.**

Bizkaitarrek, euren lege-gintzaren iraspenak era orreitan oiñarritzen ebezalako, mende-gabetasunaren jazarraldiak aurrera eroateko eskubide osoagaz agertu ziran.

(1) Juan I de Castilla (1.358-1.390). (2) Gaxoa = Enrike III (1.378-1.406) el doliente. (3) Juan II de Castilla (1.405-1.454).

Beste aldetik, Isabel eta Fernando katolikoak gure Foruekaz egin ebena ikusi bear dogu, ortik aurrera Austriatar guztiakin egin zanaren adierazpena dalako, eta gure Foru-Jauntzagaz 1.876ko urterarte irauteko.

25gn. JAUNAK, ISABEL ta FERNANDO KATOLIKUAK:

1.469an Urrilla-ren 9an, Gaztela-ko I Isabel ⁽¹⁾ eta Aragoi-ko II Fernando ⁽²⁾ Balladolid-en ezkondu ziran.

1.473an Irailla-ren 15ean Bizkaitarrek, Gaztela-ko I Isabel eta Aragoi-ko II Fernando-ri, eskutitz bat bialdu eutsen esanez: **IV Enrrike-ren zintzotasunetik kanpo egon zirala, ezer ez ebalako jakin gura, eurei emoneko itzagaz, maltzurtasunezko jokoan ibiltezan gizonarekin.**

Eta euren zintzotasunera aldatzen zirala egiztatzeko: **Lenago danak ilko zirala, eta bizirik geratzen ziranak lur onetatik alde egingo ebela, euren agindupetik kanpo geratu baiño len,** esanda.

1.473an Urrilla-ren 14an, IV Enrrike il orduko, I Isabel-ek Bizkaitarrai eskutitz-bat bialdu eutsen, Bizkai-ko Foru-Legearen askatasunak baieztatzen ebanak.

1.474an Abendua-ren 11n il zan IV Enrrike, I Isabel-en ugaz-neba.

1.474an Abendua-ren 12an, IV Enrrike-ren il-otoizketak egin ziran.

Eta 1.474ko Abendua-ren 13an, Fernando Aragoi-en egoala eta Isabel Segobia-ra joanda, gortearen aginduz ⁽³⁾, bertan izendatu eben Gaztela-ko erregiña.

1.475ean Portugal eta Frantzia-ren aurka egin ebezan borroketan, an egon ziran Bizkaitarrak beti lez, Isabel ta Fernando-ri laguntzen.

1.475ean Irailla-ren 20an Burgos-etik Fernando-k, irain-ordeko ⁽⁴⁾ agiri bat bialdu eutsen Bizkaitarrai, IV Enrrike-k **Judaseko** ⁽⁵⁾ izenagaz zelakotu ebalako. Emen, ez ete dogu Franko gogoratu bear ?.

Eta emendik aurrera Fernando ta Isabel-ek, bialtzen ebezan eskutitz, agiri, norberaren agiri, lege berezietan, eta albalaeko ⁽⁶⁾ idazkiaren buruetan: **“Muy Noble è Muy Leal Condado”** ipini egiazala agindu eben. Ori ta geiagoren merezimenduak daukiezelako Bizkaitarrak.

Fernando-k au esanda urrengo egunean, Bilbao-ko Iribildua: **“Muy Noble y Muy Leal”** izendatu eban.

1.475an Uztailla-ren 7an, errege katolikoak Tordesillas-etik agindu eben, Bizkaitarrak euren erritik-kanpoko serbitzura joan bear izan ebenean, eurak Foruak agintzen eban lez egin bear ebela, au da, **erritik urten orduko soldatak ordaindu.**

1.475an Uztailla-ren 27an Toedesillas-etik, errege katolikoak beste agindu bat emonda: **Bizkaia ta Enkarterriko mariñelak, ez egiezala euren serbitzuak lurrean egitera beartu, Foru-Legeak debekatu egiten ebalako.**

1.476an Uztailla-ren 20an Fernando Bilbo-ra etorri zan Foruai ziñez itz-emoteko Isabel-en ordeaz, eta Bilbao-ko atean ziñ eginda, Larrabetzu-ko San Emeterio ta Zeledon ziñ-egiteko Eleiza-ra joan ziran.

(1) Gaztela-ko I Isabel 1.451-1.504. (2) Aragoi-ko II Fernando 1.452-1.516. (3) Ekintza orregaz, zarratu egiten ebalako Aragoi'ko II Fernando eta Juana "La Beltraneja"ren eztaibadak Gaztela'ko erregetzaren eskubiderako. II Fernando bera be, Gaztela'ko erregetzaren odoletik etorten zalako, eta Aragoi'en neskak, debekatuta euki ebalako erregetzara igoten. (4) Irañi-ordeko eskutitza = carta de desagravio. (5) Judas'eko izena = traidores. (6) Albalaeko = cédulas reales.

Eta 1.476ko Uztailla-ren 30ean Gernika-ra elduta, Bizkaitarrak, Antigua-ko Santa Mariaren eleizan egon ziralara, Fueroak ziñ egiazala eskatu eutsoen, eta Fernando-k orretarako etorri zala erantzun ondoren, erregiñagaitik-be ziñ egiten ebalara, Bizkaitarrak berari emon dautseen laguntzagaitik ezkerdun dalako, eta sekula ez eutsela ertsitu edo estutuko eta gitxiago Fueroak autsi, ezereztu edo oinkatuko esan eutsen.

Bizkaitarrak orren ostean, umajea oiturazkoa zan-lez, Fernando, Gernika-ko Zuaiztepean dagon arrizko alkian ezarrira, beren eskuak muinkatu ebezan.

Eta askenez, Bermio-n ziñ egin eban.

1.476an Irailla-ren 25ean, Fernando-k agindu eban, Bizkaitarrak ezin dirala baitu edo atxilotu, errikoen artean eukiten ebazan ordaindubako zorrak gaitik.

-Euskal-Berbea, egiaren aintzakotzat euki ebalako ?. Gaur eta beti, Orejatar Martzeliño-k bardin esan dau-.

1.474ko Abendua-ren 13an Isabel katolikea erregiña izendatu orduko euki eban lenengo alaba, Isabel izendatu ebana, eta Portugal-eko erregeagaz ezkondata 1.498an il zana.

Bigarrena mutilla izan zan, Juan-en izena ipini eutsoena, eta 1.497an Urrilla-ren 4an il zana.

Irugarrena Juana izan zan **Zoroo** deitzen jakona, Alemania-ko Kaizarren seme Felipe **Ederragaz** ezkondata.

Laugarrena, Maria, Isabel bere aizta il zanean, Portugal-eko errege bere koñatua zanagaz ezkondu ebana.

Eta bostgarrena Katalina, Ingalterra-ko Printze Arturo-gaz ezkondu zana, eta alargunduta, onen anai VIII Errike-gaz ezkondu zana.

1.483an Irailla-ren 5ean, Isabel-be Bilbo-ra etorri zan, eta Tenderia-ko ateetan Fueroai ziñ emon eutsen.

1.483ko Irailla-ren 8an Isabel, Portugaleta-ra joanda, Otxoa ta Ortiz de Montellano etxean, ostera Fueroak zindu ebazan.

1.483ko Irailla-ren 16an Larrabetzu-ko San Emeterio ta Zeledonoren eleizan ziñ ebezan Fueroak. Eta Irailla-ren 17an Euskaldunentzat Saindua dan Gernika-ko Zuaiztepean.

I Isabel Durango-ra joan zan, eta bertan Tabira, Durango, Elorrio eta Ermu-ko Iribilduaren Foru Legeari be ziñ emon eutsezan, eta erriaren bost-giltzak artuta, Durango-ko Santa Maria Eleizan amaitu eban ziñ egiteari.

Emendik aurrera eta nai-ta 1.526ko idatzitako Foru-Lege barriaren II gaiak alan eskatu, Bizkai-ra ez zan etorri Gaztela-ko erregerik ziñ egitera, goian esandoten lez, eskutitz-bidez bete egiten ziralako oiturazko arau orreik, gero Bizkaitarrak Gernika-ko Batzarrean irakurrita baiezten zana.

1.504an Azaroa-ren 26an, 53 urte euki ebazala Medina del Kanpo-n il zan Isabel. Eta Bizkaia-n bere eriotzaren elizkariak eginda, Gernika-n Juana eta Felipe-ren jauntza baieztu zan.

Taket-arteko ondorio labur-bat.

Isabel-en Andre-Jauntzan ikusten dogu, nai-ta denbora borrokatsuak izan, itzarmen bidez bata bestearen beartasunean, gure Foru-Legeak indartu egin ziralara, Bizkaitarrak eta erregeak zentzun andiko leialtasunean jokatu ebelako.

Denbora iltzaille oneitan, Euskaldunak itzarmenekoak beti-lez izan ziran, eta ikusi dogun lez, Gaztelar erregeak euren larritasunagaitik, Bizkaitarren arremanakaz lotsa aundia euki bear ebela, oartuta egon ziralara. Lurretik euren leialtasun-bidez laguntza aundia euki ebala eta ez gitxiago mariñel eta itsas-ontzi egilletasunean oso trebeak izan ziralako.

Emendik aurrera baiña, bolbora edo lerrauts-gintzaren ⁽¹⁾ obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoi-gintzagaz, Gaztelar erregeak gero ta indar geiagoagaz arrotuten asi-ta, eta bide batez

325ean Nizea-tik asmatuta etorten zan azpikerizko dogma-arauen mendekotasun orregaz, itzarmeneko ekandutik urruntzen joan ziran, edo ardura gitxiago eukiten bai beintzat.

Gaztelar gorteakoak maltzur-zitalkeri gogorrean asita, itzarmenaren zentzunezko aztarnak naastuten asi ziralako, nai-ta Euskaldunakaz oraindiño eta gero ikusiko dogun lez Austriatar guztiakin VII In Fernando-rarte, emoneko ziñ-itzak lotsa aundian zaindu.

Emendik, Frantzia-n egin zan 1.789ko Iraultzara eltzen gara, eta ikusten dogun lez euskaldunak zazpi luraldetan murriztuta geratu giñan, baiña Nortasunaren Askatasunetik ezer galdu barik, Euskaldunen Aberria Euskadi dalako.

Eta emendik aurrera ikusten dogu, Europa-n nortzuk eta zeri asi ziran “**Nazioa**”ren izena aitutzen eta zer gure eben espainolak “**Nacional katolicismo**” orregaz.

(1) Lerrauts-gintzaren = fabricaciòn de la polvora.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.011n Epailla'ren 15'ean

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(VIII)

SARRERA.

Euskalerrriak bere zabaltasunezko lur aundietatik gaur daukan neurriraiño murriztuta agertu arren, euskal sinismenaren nortasunezko jabetasunean ezer ez ebala galdu, argi ikusten dogun gauza da, oraiñarteko edesti kondaira onetan.

Euskalerrriko Iparraldea, Nafar erregetza lez irauten eban.

Euskalerrriko Ego aldean, Araba ta Gipuzkoa nortasunezko jabetzan, gaztelatarrakaz euki eben itzarmenean aurrera egiten eban.

Nafarroa 1.512an naita Fernando katolikoaren gudamenpe geratu, eta erregeakaz euki genduzan itzarmen bidez anai artean beti borrokan ibili arren, bere nortasun osoan irauten ebala ikusten dogu.

Eta Bizkaia bere Foruen nortasunezko jabetasunean errege katolikoakin, indartuta urten ebalako, gero I Karlosetik aurrera, Austriatar gustiekin ikusten dana da.

1.506an Espainako gortearen jabetzazko eritzian, garrantzi aundiko gauza bat sortu zan, emen kontu aundiagaz argitu bear doguna.

Gaztelako gorteetan Euskaldunai, ez eutsien sartzen itzi, berba auek esanda: *“Porque (eran o) son gentes de estado separado”*.

Esan orreik eurak bakarrik adierazten dabe, Euskaldunek egiten ebezan itzarmenak, aukeratu egiten ebazan Jaun erregeekin egiten ebala. Eta gure jauntza aldi orretan espainiar erregearen eskuetan egon arren, erregearen pertsunagaz egiten zala itzarmena, espainiaren eragipenetik kanpo.

Jaun erregearen borroka ugari orreik artezean baiña, Euskal Izatasunaren aurka ez zirala izan esateko, korapillo ori zelan lokabetu edo askatu ?

Borroka guzti orrein zentzuak, erregeek euren norckerizko nagusitasunean asmatzen ebezan eskubideetatik agertzen ziran, eta euskaldunek jaun erregeekin egiten genduzan itzarmen bidez, beti lotuta agertzen giñelako bata edo bestearen alde, geienetan anai artean borrokan ibili giñan.

Nizean, mundua katoliko eritzian batzangotzeko artu zan erabagitik, Aita Santuak euren ondorengotasunean, kaizar sakratuaren domiña aundia ipinten eban dindilizka erregeen buru gaiñetan, indartsuenak bideratu egiezan orotasunean batzangotasunezko asmakizun orreik.

Orduko European orregaitik, borroka orreik ez ziran joaten zuzenean berezko erri edo Euskalerrriaren aurka bezela, katolikotasunezko legedi arauetan sinistuzo ta euren borroka zearbidez (1), gura ebalako euskaldunak eta berezko errigizarteak euren txeberazko sare orretan arrapatu.

Mundu onetan baiña, kontu aundiagaz bereiztu bear doguz, zeintzuk diran gizonaren

(1) Zearka, zearbidez = indirectamente.

asmakizunak eta Jainkoaren Legeak.

Europar naita batzangoaren asmakizunean lur zabalak eta semealaba asko katoliko sare orretan arrapatuta geratu, beste erdiak fazizta erlijio orren bidez lelotuta egon arren, eta oraindiño berezko erriaren eskubideko legeakaz ezer erabagitu barik, eltzen gara XVIIIIn gizalde onetara.

Eta oraiñarteko batu zale asmakuntzazkoak, euren elburuak amarrukeri orrekaz ez badabe lortu, XVIII gizaldi onen askeneko aldian artzen dira zuzenezko erabagiak, gudu indarraren laguntzagaz lortzeko.

1.789an Frantziko Iraultza.

Frantzian, nun edo nundik erabagitura agindu zan, iraultza ori egitea ?.

Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzazko oinkada barri bat emon bear jakon: *Diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lantegi gintzak*, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebezalako.

Europar baiña, nortzuk egon ziran entrabalotuta ardura orrekaz ?.

Merkantilismo ta Katoliko asmakuntzaren indarrean, kaizartzako agintaritzan txuntxur antzeko lerrokadan arduratuta egon ziranak zalantza barik.

Frantziko erritarrak orregaitik, eziñ ziran izan iraultza ori egin ebenak, euren eskuetan ezer eukinez gain, naikoa euki ebelako txuntxur antolan agintari guzti oiek elikatzen, eta euren sendiak aurrera ataraten.

Katolikotasunean ondo babestuta, erdi maillako jauntxoak izango ote ziran, larregiko bizibide ona euki ebenak gauza orrein arduratan sartzeko ?.

Ondo jakin ebenak, goian lenengo maillan egon ziran arduradunak izan ziran, zer bear zan aurrerako oinkada orreik emoteko, bizitzeko bear genduzan mozkin guztien kontrola euren eskuetan egon zalako.

Edestiko aldi onetan orregaitik ikusten da argitasun guztiagaz, gure biziaren erabilitasuna zentzuz aurrera eroateko, Jainkoak mundu oneri erperatuta ipini eutsozan Legeditik lege atalak artu barik, katolikotasunezko kaizartzan batzangotzeko erabagitu ziran norkerizko legeak artu zirala.

Eta lege orreik menpekotasunezkoak ziranez, gudu indarra artean eroaten eben, eta orrela ikusiko doguz aldi onetatik aurrera, artuten diran erabagi guztiak.

Orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Errigizarteak daukazan eskubideak.

Mundu eta Europaren Jendekuntzan alango aurrerazko oinkada bat emon ezkerro, bera osotzen dauan ordezeko egille guztiekin, neurri bardiñean, aurrera egin bear ebalako.

Ez ziran neurri orreik kontuan artu, Europako aolkulari nagusiaren baimenagaz mendeko ate guzti orreik zabaldua, merkataria liberalismoaren jaurkintzazko asmoan ekarten eban guda indarrezko bizkortasunagaz, eskubide guztien gaiñetik ezarri zalako.

Eta Europar ortik gaur arte artu diran erabagi guztiak, menpeko sasilege era orreitan ikusiko doguz, nortasunezko errigizarte ezberdiñak batera bizitzen beartuta laterritutako lurraldeetan.

Menperatzailleak, norkerizko **“Nacional Katolicismo”** orretan bizi gindezan gura dabe.

Guk baiña, gure baitaren argiak eragipenduta, Jainkoaren Legean nortasunduta bizi gura dogu, eta or ulertzen dira mundu onen edestian askeneko 2.000 urteko borrokaldi latzak.

EUSKALERRIAREN ARAZOAK, 1.789ko URTETIK GAUR ARTE.

II In Karlos “*lilluratua*”⁽¹⁾ ondorengo barik il zanean amaitu zan Austriatar Hasburgoko leiñua, eta Espainako jaurkintza, bere arrebaren Maria Teresa Frantziko errege XIVn Luisegaz⁽²⁾ ezkondata egon zanaren birseme, Borboi leiñuko Anjoutar Vn Felipe eskuetan itzi eban.

Vn Felipe Frantziko jaurkintzaren gortekoa izanda, goitik berako batzangomende eritzikoa zan, eta 1.700-1.714 urte arteko ondorengo guda sortuta, Aragoi ta Katalunya Austriako Karlosen alde egon ziralako, “*Nueva Planta*”ren legea aterata, eukezan Foruak ezereztu ebazan.

Kataluñak, 1.977ko Iraillan askatasunezko eskukotasun⁽³⁾ antzeko bat lortu eban espainiarren jaurpidean.

Euskaldunak eta Bizkaitarrak batez be, jakin eben laster agertuko zala onantza, eta alan sortu zan, mugak Gaztelako lurraldetik Bizkaiko itsasoraiño aldatu gura ebazanean portuen merkataritzazko zerga ordaiñak, gure erriarentzat bearrezkoak eta gaiñera gureak izanda, ordaiñ orreik eurak artu gura ebazalako.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, Vn Felipek ezereztu ebezan agindutako lege orreik, eta mugak ostera joan ziran beren lekuetara, Foruak beti lez geratuta.

Arik eta 1.839ko Urrillaren 29an Karlistadako gudaindar bidez Esparterok Gazteizetik, Foru Legeak ezereztu arte.

VII In Fernando.

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, IVn Karlosek erregetza, bere seme VII In Fernandoren eskuetan itzi egian.

1.808an Jorraillaren 15ean VII In Fernando, Napoleonegaz Baionan alkartzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808an Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitañak edo gudal buruzagiak kendu egiezala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arreman onak, ostera bere onera ekarteko.

1.808an Jorraillaren 17an VII In Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.808ko Lorailaren 6an Napoleonek, IVn Karlos eta VII In Fernando Balenzaiko gazteluan atxilotuta eukazala, gortearen ekintzazko antzeko bat egin eban, bere anai Napoleon eta Bonapartetar Jose Espainako errege aulkian ezartzeko.

Napoleon eta Bonapartetar Josek, Bizkaiko Urkijotar Mariano Luis, bere ordezkot ministrua, eta Mazarredotar Jose Domingo gudaontziren ministrua izendatu ebazan, eta

(1) Lilluratua = el hechizado. (2) XIVn Luis = rey “SOL”. (3) Askatasunezko eskukotasuna Espainaren jaurpidean = autonomia bajo el imperio de la constitución Española.

Mazarredotar Jose Domingo Bizkaiko Batzar Nagusietan buru zala, Bonapartetar Josek, itz eman eban Bizkaiko jaun lez.

Napoleonentzat baiña, gauzak ortik aurrera okertzen asi jakozan, eta a ta guzti, Napoleonek Euskal Nortasuna onartu ta be, berak Europako Laterri guztiak lez, Euskal izaera Frantzez biurtu gura eban.

Frantzezak IVn gizalditik asi ta, beti ekarri dabelako azpian batu zaletasunean marratuta meneko eritzi ori, eta asmo oiekaz, Munduko Kaizar baten agindupean elburutu gindezan.

Bizkaiko gizartea matxinatu ondoren, VIIIn Fernandok ezereztu ebezan Euskalerra eta Bizkaiarentzat batez be menpeko lege orreik.

Baiña leen espainiar gudataldeakaz eta gero Frantzesarenakaz ia bost urtetan, iru bider orren aldizkan ainbeste nekaldi ekarri ondoren, beste garrantzizko gauza bat sortuko zan: **“Batzuk Frantzez zale eta beste batzuk espain zale egin zirala**, Euskal gizartearen Baita naspillatuta, gero Espainol jaurpideekin eta karlistadaren guda bidetik, geiago naastuko zana.

1.810ean Iraillaren 24an, guda nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoa egiten egon zirala sortu eben **“espainiarren jaurgo barria”** (1), eurak aitu edo gura eben Espainol guztientzako ezarri bear zala ta, Euskal Lege, Nortasun eta Berezko erri lez euki genduzan eskubideko askatasunak kontuan artu barik.

Gudalburu nagusiak une oneitan euki eben guda indarragaz arrotuta, erregearen gaiñetik kokatu ziran, jaurgo barri ori, danez gain ezarri gurean.

Baiña begitu zer agertzen da emen: **“espainiar guda nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela”**.

Gudal nagusi areik, zelan egin ebazan gauza orreik, erregearen gaiñetik eurak ez ba ziran iñor, lege barri orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, European nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori, azpiko aolku orrekaz, laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezzen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik European aolkulari nagusi ta bakarra 1.685 urtetan.

Mendizabalek(2) orregaitik, Kadizen egoan espainiar guda gorte edo guda yaurlari (3) agindupean sortu zan konstituzioaren legezko jaurgo barri ori, Bizkaian ipini gura eban, Euskalerraientzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainiarren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz alegindu zan.

Espainiarren gizarte guztia emendik aurrera alderdikidetu egingo zan, espainiar konstituzioaren alde edo jaurgo barriagaz aurrera egin gura ebenak, eta lengo antzera, erregearen al osokerizko agintaritza gura eben artean.

1.812an Urrillaren 17an indar eta maltzurkerizko auteskundean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainiarren jaurpidezko agiri orreik izenpetzeko.

Eta 1.812an Azaroaren 1erako antolatu zan, espainiarren jaurgo agiri barri orreik,

(1) espainiarren jaurgo-barria = creaciòn de la nueva constituciòn Española. (2) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa. (3) Guda yaurlaria = gobierno militar.

Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñeztu zitezen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812an Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskalerrriaren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako Espainar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala, Euskalerra ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartuta.

1.812an Abenduaren 31n, ostera sartzen dira prantzez gudalozteak.

Eta 1.813an Bagillaren illa erdian, ostera urtetan dabe Prantzez gudalozteak Bilbotik.

1.813an Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudalozte menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, Espainaren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñatzaille esaten, *espainiar ordezkari gaitik iñork ez egiela txarto berbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezen.*

Eta orretarako, espainiar eleiz guztietan, urte guztietako Epaillaren 19an “Te Deun” abestu egiela agindu zan, espainiarren jaurgo zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.813an Azaroaren 11n, Napoleonen gudalozteak porrokaldi gogorra artuta, Napoleonek Balanzaien elkargo bidez ziñatu bear izan eban VIIIn Fernandoren askatasuna, bere erregetzazko aulkian ezarri egian.

1.814an Epaillaren 13an VIIIn Fernando, Frantziaren lurraldeko Balenzay erritik urten eben erdi ugarte edo peninsula ontara.

1.814an Loraillaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik, espainiarren jaurgo zale gudu ordezkariak Kadizetik keiñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure Foru Legeak ostera ezarri ziran betiko eredutasunean.

1.814an Urrillaren 15ean VIIIn Fernandok, ostera baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

Eta, 1.814an Abenduaren 14an Nafarroari beste agindu batekin, bere erregetzazko eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.819ko urtean IVn Karlos, VIIIn Fernandoren aita, Napoleonen atxilotasunetik aske geratuta, peninsulara itzuli barik, Erroman bizi zan, bertan il zan arte.

1.820ko urtean, ostera azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorrak.

Guzur, maltzur eta indarrezko bidetik Euskal gizartearen *Arrazoizko Baita* lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketa bidean, Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegira bideratuko dauana.

1.823ko urtean VIIIn. Fernandok, gudalburu jaurgozaleak beartuta Espainako jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutson.

1.823an Jorraillaren 2an, Prantziako errege XVIIIIn Luisen gudalozteak, Angulemako dukearen agintean Baionatik agindu eban: *“Peninsulara aldatuko zala VIIIn Fernandoren laguntzan, bere erregetzaren absolutismo edo alosokerizko jaurkintza lortu egian”.*

1.830ean VIIIn Fernandok, **Salikako** legea ezereztu eban, bere alaba Isabel errege aulkian ezarri zedin.

Eta Espainaren ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrriarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean VIIen Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristinak artu eben orde z espainiar jaurkintza, arik eta euren alaba IIn Isabel erregetzazko adiñetara eldu arte.

1.833an Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurgo barriaren agindua.

1.833ko Urrillan sortu zan espainiar erregetzaren ondoriozko guda, karlisten aldetik, VIIen Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro bideratuta.

ONEN ONDORIO LABUR BAT.

Espainako IIn Isabel eta Karlosen anai arteko ondoriozko guda orreik, euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkiagaz zer ikusirik, ondorio ori aitzaki bat baiño besterik ez zalako izan.

Aldi onetan egon ziran eztaibadak askoz sakonagoak izan ziran, batzango eta merkataritzaren asmoak, erregeen erispeneko goi aldetik ibili ziralako.

Nun egon zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusia ?.

Europar aolkuz, nork euki eban agintaritzaren indar nagusia ?.

Erregeari gudal nagusiak gaiñean ipini jakozan antzera, berari diru zaleak gaiñean ipini ote jakozan ?.

Ala, katolikotasunaren eritzian danok batzangotzeko, alan egitea gura eban, aolkularitzan aginten eban Erromako sorraldi orrek ?.

Emen, esango dodazanetik salbuespen aundi bat egin bear dogu, berezko errietan Euskalerrian lez, eskertu ezin doguzan Gotzaiorde, Apaiz, Lekaide, Lekaime Abertzale demokratiko asko izan zirenak eta gaur diranak daukaguz, euren jakiturizko laguntzarik gabe, Euskalerrian izatasuna gaur, ezereztuta egongo litzakelako.

Kaizar batzangotasun asmo orrek, errikoi izatasunean naste asko sortzen dauelako, eritzi bien arteko ezberdintasunagaitik berba egiten gagoz emen:

Bata, bereiz edo izatasunezko errietan euren **Baitan, Jesusen** itxarokorrezko ekanduan mezu demokratikoak zabaltzen dabezan Gotzaiorde, Apaiz, Lekaide, Lekaime errikoiak.

Eta bestea, danon gaiñetik Erromako katolikotasun agindu gurean, munduaren edestiko berezkitasunean lortu ziran oiturazko izatasun ta ekandu demokratikoak, Norkerizko batzangotasunaren egarrian ezereztu naiagaitik.

Son como ovejas, esaten dabela sarritan entzuten dogu.

Bai ?.

Eritzi orregaz, **nungo kontuetan** artzen dira **Jainko Egilleak** ipini euskuzan **Legeak** ?.

2.000 urte daroaguz batzangotasunezko borroka latz orrekin, dan guztia batu baiño, milla zati geiagotan apurtzen dauazan, erri, izkuntz ta ekanduzko oiturak.

Ez ete da naikoa ?.

Antza ez, begitu bestela gaur zer egiten dan Euskal gotzaiekin, naita Euskaldunak izanda gure Euskeraren Nortasunezko izatasunean egokitu ez zitezen.

Ta Euskaldunak izan da be, norkerizko kaizar edo katolikotasunaren batzangotasunezko eritzian gizon egiñak bialdu, ia Euskaldunok espainiar biurtzen ba gaituen.

Idaz lan onen aria ostera artuta gero ikusiko dogun lez, Aita Santu, gotzai ta apaiz katoliko aolkulari asko lenengo karlistadaren alde ibilita, liberalak garaipentzen asi

ziranean, gauza orreik eurakaz ez ba ziran etorten ostondutako itxuran, liberalaren aldera guztiz aldatu ziran.

Ondore, Europako edestitik etorten ziran mendeko asmo ta fazizta eritziakin alkartu ziran.

Nik emen, naita batzango zaleak izkutuan ekarri arren, sasikatolikotasunaren eten bako azpi joko maltzur aundi bat ikusten dot, ainbeste urtetan berezkotasunaren aurka egin ta egiten dabezan gauzak, ezin diralako ostondu.

Erromako sasikatolikotasuna baiña, ez ete da konturatuko, laugarren gizaldeen erabagi zan kaizarrezko batzango asmoa, faziztaren eragille nagusiena izan da, gatz egiten jakula siñistea maltzurrezko jokabide ori ?.

Bizi onetan gaiñera, milla urte askoren eginkizunezko jokabidetik eta **azter bideko antolakuntzan ulermenduta, argitasun guztiagaz agertzen ba jakuz baitaren emaitzak.**

Aztu ete jakie, **Jainkoari** begira bizi onen **zor eskubideak** ordezkatzeko, ardatzezko eragille arduradunak, **itzal aundiko ekandu ta maitasunak dirala?**

Dana dala, orren arrazoiaren esan naia, **Europar egon diran borroka latz guztiak, kaizar mendeko batzangotasunaren asmo zaar orren elburugaitik izan dira**, batzuk norkerizko lilluragarritasunean bizi daitezen.

Eta orregaitik, bizitzako panpiñaren ariak euren naiera erabilita, ez Karlistadarenak, ez Europako edestian egin diran amaibako borrokak daukie beste adierazpenik.

Oso susmagarrizkoa da, gaur errigizarteetan diruagaz sortzen dana. Nork antolatzen dauz sare arteko txebera orreik ?.

Ala, erabillitasunaren biziko zabaldegian daukaguzan Norkerizko arauak, **Jainkoaren Legeak** aurkezten dauskuzan eskualdi guztiekaz topo egin dabela ta, guzur geiagorik ez dalako sartzen ote da ?.

Lenengo susmoa baztatu barik, Nik uste dot, azkeneko arrazoi au dala errukari, bizitza onek, beren legeak daukazalako.

Orregaitik, giza ta berezko errigizartearen eskubideari begituta nik egiten dodan itauna: gai bizi onetan, Jainkoari begira lortutako baitaren ekanduzko ulermenak “Kamaleoien margo edo kolore beste arpegi eukiko ote dabe ?”.

Danok dakigu, gaiaren atal edo zatitxo guztiak aurkezten dauskuezan almenak, eta Bere Legearen bidez eurakaz ardurazko ekintzan egin geinkezan itaunak, amaibakoak direla.

Baiña ez lapurkerizko bidetik, gaitasun onen **baitak** eskatzen dauskun zentzunezko elburuekin baiño.

Bestela, edestiak erakusten dauskun lez, dan guztia: “borroka, eztanda, oiñaze, negarra, samiña eta ezbearretan biurtzen jaku”.

Orregaitik, gure bizitzako ekintza guztiak elburu bardin bategaz, Jainkoaren ezin besteko Lege bidetik, bealdetik gora jasotzen dira.

Baiña, Legeak bere azpia marratuta daukanagaz, **“ekanduzko lotsagizunean, zor eskubidearen ordezkoko ekintzak, danoren ardurazko baitagaz bardinduta”**, bizitzaren orekazko bakeak argitu gengizan.

Egiztapen ederra bizitzak emoten dauskuna da, eta adierazpen aundiena, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez bialtzen gaituenaren bidetik agertzen jakuna.

Baiña, zelango eragilletasunetan gabiltz ?.

Norkeriaren asmakuntzazko alegiñaren bidez: “amarruti (1), maltzur, okerrak eta biurritzko eragilleak izanda?”.

Berezko arrazoiakin begitu ezkerro, ezin lei sinistu antzoki onetan egiten gagozenarekin, eta geiago, gaur daukagun jakintzarekin ezin leikelako ulertu, “gaia, giza ta errigizartearen eskubideakaz egiten dana”.

Euskaldunak, orregaitik begitu bear doguz edestiko atal oneik, begitu bear diran **berezko** begiakaz.

Ikusi daigun zelan: “*Orain 2.763 urtetik gaur arte, Euskalerrriaren arazoak bardiñak dirala. Ez Frantzia eta Espainagaz, berea bakarrik dalako, Europarena dalako baizik*”.

Gaurko egun oneitan, Kataluniako Sitgesen batu dira mundu onen jakintsu aundi ei diranak, eta artu dabezan erabagietatik bat, gizaren eskubideak, daukaguzan laterritzko arauetan zaindu bear dirala da.

Gizaren eskubideak nondik nora zaindu, **errigizartearenak** ez ba dira zaintzen?.

Zelako jakintsuak dira, ezer argitzeko **gai** ez diranak?.

Europarentzat, diru, agintaritza eta lege bardiñak gure dabez ezarri: “**Ordezkaritza**” menpeko jaurkintzan, daukaguzan “**Laterrietan**” ekanduz, ezin dabezanak zaindu.

Eta garrantzizko gauzeetatik, aundienak aztu?.

Edo ta Giza ta Errigizartearen Nortasunakin ezer ez egiteko, lan edo idaz maiaren gorde lekuan sartu?.

Euskaldunak arlo onetan, **ziur ta zuurtasun aundiz** jokatu bear dogu, iñozokerietan ibili barik, bizitzan, Euskalerrriaren Nortasunezko Demokrazi lez irauteko.

Gure Euskal Arbasoak milla urte askotako edesti luzean, ainbeste eramankizunagaz eutsi dautso daukagun Demokrazizko Nortasunari.

Gu izango ete gara, **Jainkoari eskaiñi bear dautzagun altxor aundi orren ondatzailleak?**

Bete daiguzan patxadaz eta lelokeri barik gure **bizitzaren euskal ordezko eginkizunak, mundu onen gizarte on guztiakin osagarritzkoak izanda.**

Eta, Jainkoak aginduko Bereztasunaren Legeak ondo ordezkatuta, munduko errigizarteak aurrerantzean be: “Jakin dagien, Euskal Aberritasunezko Jendekuntzagaz, adierazpen ederrenetariko bat emon jakola, gaitutako bizitz oneri”.

Euskalerrriaren kondaira onetan oraiñarte ikusi dogu, Euskadiri iñork ez dautsola beren nortasunetik ezer kendu, nai guda indarrarekin menperatuta euki arren.

(1)Amarruti = marrullero, socarròn, astuto, solapado, taimado.

Atutxa'tar paul

Zornotza'n 2.011'n Epaillaren 22'an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(IX)

KARLISTADAKO GUDATEAREN ZERGAITIA.

1.713an Lorailaren 10ean Vn Felipek, emakumezkoak erregetzaren ondorego jarraipenetik kanpo izten eban Salikako legea agertu eban.

1.789an IVn Karlosek ezereztu eban Salikako lege ori, nai ta aldarrikatu barik geratu.

VIIIn Fernando lengo iru ezkontzatik ondorengo barik egonda, Napoleseko Maria Kristinagaz laugarrenez ezkondu zanean, aurdun geratu zan au.

Eta 1.830an Epaillaren 31n VIIIn Fernandok bere alaba IIn Isabel izango zana sei illabete jaio aurretik, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713an Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztuteko onartuta, emakumezkoai ortik aurrera baimena emon eutsen, erregetzazko aulkian ezarri zitezzen.

Karlos Maria Isidro izan zan VIIIn Fernando bere anaiaren ondorengoa ia onen erregetzazko denbora guztian, arik eta VIIIn Fernandok lege ori aldarrikatuarte.

1.830ean Urrillaren 10ean jaio zan IIn Isabel.

1.832ko Iraillan VIIIn Fernando San Ildefonsoko eguras etxean oso gaisorik egon zanean, bizkor ibili ziran Karlos Maria Isidroren aldekoak Espainako agintaritzaz artzeko.

Eta nai ta uts egin arren, Kalomardetar Frantzizko Espainako ministruak Fernandoren eskutik lortu eban izenpetzea, Karlos bere anaiari izendatzen eban erregetzazko agiria.

1.832an Urrillaren 1ean baiña, Fernando osteraz bizkortu zanean, Kalomardetar Frantzizko ministrua eta euren alde egon ziran agintariak jaurkintzatik kenduta, ezereztu eban sinatu ebana, eta gauzak osteraz joan ziran Isabelen alde.

1.833ko Epaillan Karlos Maria Isidrok, bere anaia VIIIn Fernando ez ebalaz euki nagusitasunik, 1.713ko Lorailaren 10ean Vn Felipek ezarri eban *Ley Sàlica* ori ezereztuteko esaten eban, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako, eta bere loba IIn Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalako on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833an Iraillaren 29an il zan VIIIn Fernando, eta Karlos Maria Isidro bere anaiak, IIn Isabel bere lobaren Asturiaseko erregin gai izatea ez eban on artu, eta egun orreitan IIn Isabel erregiña izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago.

Eta Karlosek orduan, Abarkatar Joakin orokorrezko ministrua izendatuta, espainiar gudalozte eta gudar nagusiaren laguntza eskatu eban.

Gudar nagusien artean ez eban euki aipameneko laguntasunik, nai ta Portugaleko errege I Migelen onespena euki.

1.833an Urrillako illean, Espaina ta Euskalerrriaren Egoaldeko leku askotan agertu ziran Vn Karlos erregetzaren aldeko garrantzi gitxi euki eben matxintasunak, Bizkaia, Araba,

Nafarroa eta Logroño izan ezik. Balio ez ebena, Uri orreik luzaro karlistaren kontrolpean eukiteko.

Eta, 1.833an Urrillaren 6rarte ezin da esan borrokak edo karlistadako gudak asi ziranik, arik eta Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama gudal nagusiak Karlos Maria Isidro, Vn Karlosen izenarekin errege izendatuarte.

1.833an lenengo Karlistadako gudaren asiera:

Atal onetan, adierazgarriko gauzak baiño ez dodaz aipatuko, bestela lar luzeegi egingo jakuz idazlan onen kondairak.

1.833an Urrillaren 1ean eldu zan Euskalerrira VIIen Fernando il zanaren barria, eta Donosti ta Iruñako Uri nagusiak geratu ziran II Isabelen alde, espainiar gudalozte indartsuak euki ebezelako gudaltegiratuta.

1.833an Urrillaren 3an, Gazteiz eta Bilbaoko Uriak gudu indar gitzi euki ebezalako Karlosen alde geratu ziran, eta Orbe ta Eliotar Jose Maria Baldespinako markesak, Bilboko matxinatuak eta Aldundiko batzar kideak bideratu ebazanakaz, Mota zuzendaria eta Aldundiko Uhagon ordezkaiak baitu edo atxilotu ebazan.

Bilbo izan zan Vn Karlosen ikurra leen goraldtu ebana.

1.833an Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian Ladron de Zegamatar Santos gudal nagusiak, Karlos Maria Isidro izendatu eban errege, Vn Karlosen izenarekin.

Eta ori sortu zanean esan leike, gudari asiera emon jakola.

1.833an Azaroaren 14an Zumalakarregi, Nafarroako karlistaren gudal nagusi izendatu eban, baldintza onen eskaera bidez: "*Nafarroako erregetzaren Foru ta Legeak zaindu egiazan*".

1.833an Azaroaren 15ean Lizarran, Nafarroako erreñuaren jaurlaritzta irasita geratu zan.

1.833an Abenduaren 7an Etxarri Aranatzen, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Aldundiak be onartu eban Zumalakarregitar Tomasen gudal nagusitasuna.

1.834an Urtarrillaren 27an, Kastañon gudal nagusiak, euskaldunak: "Gizatxarrak"lez (1) zelakotu ebazan.

Zumalakarregik emendik aurrera, zaldun gudak edo sasi gudako guduxkak (2), amaibakoak ugaritzen asi zan, Liberalaren gudalozteentzat oso galbidetsu edo arriskukoak ibilbideak biurtuz, eta ortik aurrera emon jakon asiera benetako borrokari.

1.834an espainiarrek, Zumalakarregiren aurka ezin ebelako ezer egin, ta ainbeste astiñaldi artuta bildur, Ingalaterra, Frantzia eta Portugalegaz egin eban laukoteko baltzu bidez laguntza eskatuz, Europako errege liberalaren aldetik laguntza aundiak artuko ebazan Euskalerra ta Katalunia galtzeko bidean eukezalako.

Orregaitik ikusten da argi emen, Europaren arazo gogorra izan zala.

Europako liberalak, Berezko Errigizartearen gaiñetik mende eritzi orren buruz gaur lez, zelako batasunak lortzen ebazan argi ukusten ziralako.

(1) Gizatxar = hombre malo, canalla, bribon. (2) Sasi-guda edo guduxkak = guerra de guerrillas.

1.834an Uztaillaren 12an Zumalakarregitar Tomasek Baztaneko Elizondon, Vn Karlosegaz batzartuta, Euskal Lege edo Foruak ziñeztuazo eutson, eta onek onartu eban Zumalakarregik eskatzen eutsona, Vn Karlosek Zumalakarregiri, bere gudalozteen aintzindari (1) nagusi izendatuta.

1.835ean Bagillaren 8an espainiarren gobernuak, Frantzia ta Inglaterrari eskatu eutsen, egin eben egiunegaz arduratu zitezela, Euskalerrian eurak bakarrik karlisten aurka, ezin ebalako ezer egin.

1.835ean Bagillaren 15ean Zumalakarregi Bilbo inguruan egonda, ikusi gura ebazan Mirasol kondeak Uriari egin eutsozan arresizko sendokuntzak (2), eta Begoñako Eleiz Nagusiaren atzealdeko eskuñean dauan lenengo etxean bigarren solairura igonda, balkoitik begira egoala, Iturriagako orma baten ingurutik, berreun metruko bitarte egoan lekutik, belaun azpian tiro bategaz zauritu eben.

Bilbaoko gudari liberalak 800 edo 1.000 metru inguruko bitartea eukiko ebazan Zumalakarregi egoan lekuraiño, eta nai ta iñork jakin ez arren, baleiteke bere taldeko batek saldukeri bidez izatea tiro ori jaurtin eutsona.

1.835ean Bagillaren 17an, Zumalakarregi Zegamara joanda, Gerediaga, Gelos, Beloki, Hurgess inglesa sendagilleakaz, eta Telleriatar Franzizko "**Petrikillo**" esaten eutsoen sasi sendagilleagaitik sendatzeko ardurapean egon zan.

1.835ean Bagillaren 19an Inglaterrako jaurkintzak Espainako gorteari erantzuteko, Lanzy Ewanseri agindu eutson britaniako lejiño bat antolatu egian.

1.835ean Bagillaren 25ean il zan Zumalakarregitar Tomas, liberal gudal nagusien poztasun aundienagaz.

1.833-1.839ko LENENGO KARLISTADAREN AMAIERA.

1. 1.835ean Bagillaren 25ean Zumalakarregi il zanetik, edestiaren aria osterartuta.

Vn Karlosek Zumalakarregi il zanetik, Gonzalez ta Morenotar Bizente izendatu eban Euskalerriko gudal buru nagusi lez.

1.835ean Uztaillaren 16an, Erriberriko merindadean Arga ibaiaren ezker aldean dauan Mendigorriko erriaren Egoaldean, ararte ezagutu zan aundienetariko borroka egin zan.

Fernandez de Kordobatar Luis liberalaren agindupean egon ziran 36.000 gudariak, astindu gogorra emonda, Gonzalez ta Morenotar Bizenteren 18.000 gudari karlistai, VII In Karlos bera be estukuntza aundiekin iges eginda.

Zumalakarregiren eriotzetik asi eta borroka onen ostetik geiago, Vn karlosen gudaloztea banatzen asita, Karlistak maldaberan asi ziran.

Karlosen gortekoek, Gonzalez ta Morenotar Bizente gura eben gudaloztearen agintari, eta gudariak, Eraso edo Maroto gudal nagusiak.

Eta Aurrerantzean, sortutako naste onen bidetik amaituko zan Euskal Foru Legearen borroka.

(1) Bere gudalozteen aintzindari nagusi = jefe supremo de los ejércitos karlistas. (2) Arrezizko sendokuntzak = fortificación de la ciudad.

Bai ta edozein gauza guztiaren gaiñetik, Euskal luraren babesa eta Euskal gudariak euren lurretatik ez urtetea.

Ortik aurrera karlisten ekintzak beste Euskal arazo barik, euren espainiar erara aldatu ziran **“Antziñatar Alderdia”**ren izen barria artuta (**Comuniòn Tradicionalista**).

Eta Euskal gudarien biotzak nai ta guda gogorak emendik aurrera euki, galduta ibili ziran, areik eta 1.839an Dagonillaren 31ko ondamenara eldu arte.

1.836an Dagonillaren 13an Madrilleko eguras etxean sarjento gudariak matxinatuta egin ebezan alegiñagaitik, Maria Kristinak bildurrez, ostera aldarrikatzen dau 1.812an Kadizen ezarri zan konstituzioa.

Ekintza onegaz, Euskaldunen Aldudiko Foru agintaritzak ezereztu eta euren jaurgo barriaren konstituziozko legeak ezarri ebezan.

1.838ko urtean Marotok, oraindiño euki eban debekatuta itzultzea, baiña Gerge gudal nagusiaren utsegite ta gudaloztearen agintaritzan sortu ziran banaketaren bidetik, Vn Karlosek Marotori deitzea erabagi eban.

1.838an Lorailaren 21ean karlisten matxintasunak Oñate ta Andoainera zabaltzen dira, gudal alkarte ta gobernuko **“ojalateruen”** aurka.

Emen gauza bat argitu bear dogu, Vn Karlosen gobernuko gotzain eta ministruak, **“ojalateruek”** zirala esaten eutsenai, ez eutsen emoten garrantzi aundirik, gudariak egiten eben lanari, euren eritzian JAINKOAK emongo eutsezelako guda orren garaipenak. Bai ?

Maroto ta Esparterok, artu emon onak euki ebezan Amerikaren kolonizaziozko gudatan alkar ibili ziralako. Eta alde bietan salerosle ibilten zan Borgotako mandazai Etzaidetar Martin alde batetik, eta Bilboko ingles guda itsasontziren abialekuan egon ziran Hay eta Wilson gudal nagusien bitartez bestetik, asi ziran Maroto ta Esparteroren guda amaitzeko alkar izketak.

Iñok ez eban igarri Marotok erabilten eban azpiko joko ori, Karlosek gudaloztearen agintaritza emon eutson orduan, karlista gudalozteak ezin obeto era berritu ebazalako, gudariak len euki eben indar ta kementasunera aldatuta.

Muñagorrik bere bizi kondairan esan dogun lez, bigarren alegiñetan asiko zan emen.

Alperrik baiña, espainiarak bera baiño saltzaille obiagoa aurkeztu ebelako.

Espainiarrentzat, Abinareta izan zan benetako gizon saltzaillea, **“Forubako Bakea”** eskeintzen eutselako euri, eta len bere azpi jokoa aipatu barik geratu dan lez, salatari onek Baionatik erabilten ebazan: ***Donostiko Udaletxearen idazkari izan zan Alzatetar Lorentzo, Gipuzkoako lurraldean politikako buru Amilibiatar Eustasio, Ernaniko Alkate Goikoetxeatar Inazio, karlistaren lurraldean bizi zan Arizmenditar Mariano eta olako agintea euki eben judas edo saltzaillezko Euskal gizonak***, espainiarrai bere ixil jokoan judasen mezu orreik emoteko.

1.839ko urte onetan Maroto ariñago ez bazan asi, Isabelen gudal nagusiakaz asten da berba egiten.

1.839ko Urtarrillatik, Vn Karlos erregearen gudaltegian Tejeiro gudal nagusiaren aldekoak ziranak, eta Maroto zaleen artean asten dira, gero ta biziago izango ziran eztabaidak, Marotoren alde egon ziranak Isabelen gudal nagusiekin alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839an Urtarrillaren 15ean Marotok, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipini eban Garzia ta Orejontar Jose bidez, Esparteroren bigarrenagaz berba egiten dau, alkar izketa orreitan urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita.

Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin Esparterogaz, artu emon andi ta ugariak eukiko ebazan.

1.839ko Otsailan Maroto beren gudalozteagaz Tolosara joan da, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralakoan, Gartzia ta Sanzta Pablo gudal nagusia eta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban.

Uriz eta Karmona Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste gudal nagusiekaz alkartu zitezen eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839an Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok antolatzen asi ziran 1.839ko egiunearen alkarrizketak.

1.839an Otsaillaren 17an Maroto Lizarran sartu zan bere gudalozteakaz eta gaba orretan, Garzia gudal karlista nagusia arrapau eban Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra eta Uriz intendentziako arduradun karlista gudal nagusiak, Esparterogaz bere izketaldi orrein aurkakoak ziralako eta gudalozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz, bostak tiroz ilteko agindua emon eban.

Marotok, Vn Karloseri bere maltzurrezko jokoa ostonduteko, ez eutson esan ezer ilketa orreik egiten joan zala.

Bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori jakin ebalako agirian geratuko zala, eta gudal nagusiak aske itxiz gain, bere lagun aundia zan Esparterogaz espainiarren alde saldukeriz ibili ziran egiten bakezko alegiñak utsean geratuta, bere bizia be dangilizka geratzen zalako.

Orregaitik eta Vn Karlosen bigunkeriaren aurrean jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezereen epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

1.839an Otsaillaren 18an Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona Karlosen gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta liseko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergè, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedicán este piadoso recuerdo los tradicionalistas de Navarra. R.I. P."

1.839an Otsaillaren 20an Marotok eskutitz bat bialdu eutson Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak beren erara oartu egiezan.

1.839an Otsaillaren 21ean, Vn Karlosek, azpisuge edo saltzaille bat zala asarre salatuta, Maroto kendu eban bere agintaritzatik.

Maroto Baiña, egoeraren nausia zan eta Vn Karlos ez zan gauza izan Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839an Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez osteraz izendatzen dau Maroto gudaloztearen gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran gudal nagusiak Frantzira erbesteratu ebazan.

Ortik aurrera, zalantzak gogortzen asita.

1.839an Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosen aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora bera ezer aitatu barik.

1.839an Epaillaren 3an Marotok, osteraz salatzen dauz erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, bertan be eukezan bere aurka asita egon ziranak.

Gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zan.

1.839an Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaian Karrantzako ibarrean eukezan aurkako mugatik alde egin eben.

1.839an Loraillaren 22an Marotok, antolaketak egiten asi zan, Frantziako gobernuek gudalozte bien artean artekaritzazko ardurak artu egiazan, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesen billa asi zan, eta Uztaillaren 20an Lord Hayekin lortu eban artekaritza ori.

Argi dago emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek bere gudalozteetan naita indar aundia eukela ikusita eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebalako bere barnean.

1.839an Bagillaren 28an Luis Felipek erregearen izenean, Soult Frantzez mariskala ipini eban artekari lez, Karlos eta bere emazte Beirako Dukea espainiar erregetzari ukatuta, eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, Espainako kondea ta Kabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Beste txatal bat be euki eban agiri onek, Maria Kristina erbesteratuz, IIn Isabelen alaba, VIIIn Karlosen seme nagusiagaz ezkondu espainiarren errege izan zitezen, eta Euskalerriko Foru Legeak 1.830n urte arte orduko euki ebazan jabetasunean beti lez itxi, gudari karlistai euren maillakin espainiar gudalozteetan lerrokatzeko almena emoten ebana.

Elkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez eben euki aurrerakuntzarik, Espartero eta espainiar gortekoak Euskalerraren menpetasun atzean ibili ziralako.

Eta eskubidearen egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik alan gertatu zan, indarkeriaren keiñuagaz eta guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerrria menperatu ebalako.

Gaurko Euskaldunak, “gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori da”, Europaren aurpegian egia aurkeztuta argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi gura ba dogu.

1.839an Uztaillaren 20an Marotok, Diego de Leon karlista gudal nagusiak Ellioten ituna apurtu ebalakoan aitzakiarekin, Kantauriko itsas inguruak zaintzen ebazan Lord Hay itsas untziren kapitaiñagaz berba egiten dau, gudalozte bien artean Inglesaren bitartekoa billa ibili zalako.

1.839an Uztaillaren 20an Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen dau, karlistai atzeratuazota.

1.839an Uztaillaren 29an sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko elkarrizketa, onek Marotoren adierazpenak Esparterori aurkeztuta.

Esparterok on artu ebazan Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok espainiar jaurkintzan aurkeztu ta gero: “espainiarren gortekoak, Karlosen gudalozteak Isabelen ama Kristinaren aginpean geratzen ba ziran esaten dabela” erantzun da.

Alkarrizketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziran, eta Bera, Lezaka ta Urdaxen Marotoren aurka matxinatu ziran.

1.839an Dagonillaren 19an Vn Karlos bera be salduta, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dau.

1.839an Dagonillaren 22an Espartero Durangon sartzen da eta alkarizketak azten dira alde bietako guda nagusien artean.

1.839an Dagonillaren 24an Maroto, liberalaren guda nagusi Zabalagaz alkartzen da, Esparterorekin berba egin gura ebala ta, eta Marotok bere guda nagusiekaz berba eginda Vn Karloseri esan eutson zelako asmoak euki ebazan.

1.839an Dagonillaren 25ean, Elgetan erri agintari eta guda nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai lenengo gazteleraz eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko berba egin ebanean, Marotok gudariai keifua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkerro Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839an Dagonillaren 26an Abadiñoako San Antolin baselizaren izketaldian euki eben lenengo ikuste (?) Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura Marotok baiño.

Agiri onen zentzuak, Foruen baieztatzea, ta Espainaren aberriko legeakaz adoztasunean etorten ba ziran: "*Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia*" esan gura eban.

1.839an Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta Marotok, parkamena eskatu eutson Vn Karloseri, eta guda loztearen prestakuntza agindu eban kristino guda loztearen aurka joateko.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari taldearen guda nagusiak ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan gudaren amaiera.

1.839an Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimenikgabe de la Torretar Simon guda nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839an Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839an Dagonillaren 31n Bergaran alkartzen dira Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebala eskeintzagaz.

Baitzezko berba orrekaz, gure "*Foru Lege*" edo "*Lege Zarrak*" Espainako gortekoaren naikerizko borondatean geratu ziran eta Espartero bera izan zan lenengoa, bere espateagaz Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839an Iraillaren 3an Bizkaiko Aldundia, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zan, Aretxabala guda nagusiaz Foruaren gora beran berba egiteko,

1.839an Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoako errian errendatu edo etsaimendu zan, Bergarako egiune onartuta.

1.839an Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egiten dau, sasi gudan

ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezten, garaitzaille guda nagusi ⁽¹⁾ “Garaipenaren Dukea” ⁽²⁾, espainiarren jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen arteko ordezkioak, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839an Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dau, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Arabatar eta Napar gudariekin Auñamendiko mugatik Frantzira aldatu zan.

1.839an Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, Gebararen gaztelua errendatu edo etsaimendu zanean, amaitu zan Euskalerra ta karlistaren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

(1) Garaitzaille guda nagusi = invicto general. (2) Espartero.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.011'n Epaila'ren 29'an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(X)

ALDE BIETATIK IBILI ZIRAN GUDAL NAGUSI ONEIN, JAIOTZEZKO ERRI edo ABERRIAREN « BAITAZKO ERITZIAN » EUKITAKO ULERMENAREN ONDORIOAK DIRA.

Karlista guda onen edestiko zeaztasunak ikusita, eta berezko errigizartearen ulermenak sikologiko arloaren azterbidetik ikertu ezker, nastetasunezko arrazoi edo eritzi bidetik, oldozmen asko dira “Nortasunaren ulermeneko Baitan” eretxitu ta gero, okerreko asmakuntzan agertzen diranak.

Edo ta arrazoi orren sorburua ikertuz, norkeriaren sasi jainko aldekoak guzurraren eragiñetasunean berezko erritarren “Baitak” nastuta, munduko giza seme alaba guztiak *Nortasunik gabe*, yopu batzango eritzian egindako aberri barrietan ardi talde lez ezarri gindezan, edesti guztiko alegin gogorretan dabizela, zeatz ikusten dogu.

Kontuan artu bear dogu, menderatzailetasunezko ulermen ori eritzi lez artzen badogu, sasi jainko mende zale indartsuen eskuetan geratzen gerala, eta beti ibiliko giñake *Aberriak* aldatzen, sasi jainko mende zale bakotzak, sasi jainkotasunezko norkerian daukien ikurraren ametsa bete egin gura dabelako.

Mundu onen bizitza on bideratzeko, baleiteke asmakuntz orre in artean, batzuk borondate onagaz egiten dabizela. *Baiña, Jaungoikuak Izadi oneri bereztuta ipini eutsoezan legearen aurka ?*.

Norkerizko okerkuntza orreik ain indartzu agertu orduko, munduko giza seme alabaren “baitak” ulermenduta egon ziran ainbeste milla urte ariñago, daukagun gaiezko bizitza ez dala lur onetan irauteko, eta nai ta naiez, zor eskubidearen neurrizko epe labur bat bakarrik daukiela.

Orduan, zergaitik onartu ez bereztasunezko Legeek agintzen deuskuna, jakinda aberetasunezko Gizan, Lur, Aize ta Uraren ordezkio eskubideetan erperatuta daukaguzala ?.

Europar, norkeriaren sasi jainkotasunezko guzur au, erromatarren kaizar ametsagandik datorrena da, eta berak maldaberan ekarten eban guzurra, K.o. laugarren gizaldian, Kristau sinismen erlijio ederra katoliko alderdikidetuz ta erromatarren kaizartzagaz biak norkerizko legean baieztu ebenetik, guzurrezko lokartzartetan urten ezinik sartuta gagoz gaur egunean be.

Napoleon eta Karlistadako gudak sortuta, zeintzuk izan ziran gudan ibili ziran gaztearen ulermeneko baldintzak, Euskal ta Gaztelar edo espainiar gazteak gudal nagusitasunera elduta, ainbat ezberdintasunaren ustezko eritzietan agertu zitezen ?:

a).-*Norkeriaren maltzuratasuna garaipentzeko alegiñez, karlista guda orreitara eldu orduko, amaitu ezin dan odoljariozko gudan ekarri dogu edesti guztia, gizaren ulermeneko ikuspegia ongaizkatuz (1), gorritz margoztu egin ebana.*

Orren esanaia, eskubidearen egia ta mendetasunezko guzurraren artean, borroka ugari ta latzak ekarri doguzela da, eritzi bi orreik zorro baten sartuta egon ezkerro, amaibako eztanda utsa baiño besterik ez daualako sortzen.

b).-*Yopuzko kolonigille denborak izanda ta Frantziko iraultzaren bidetik, berezko errien nortasunezko eskubideak ezereztuteko erabagi gogorrak artu ondoren, Europako guda bi nagusi orreik ez ziran izan besterik, opil gozo baten amaieran, gaiñean ipiniten jakon ginda antzera, Europan indarrez, joputasunezko mendetasuna ezarri, danok norkerizko erabagiaren agindupean bizi gindezan.*

Egia da, Munduan egin diran borroka nagusiaren ostean, damu aundiak egon direla eritzi bien aldetik, egin diran sarraskiak ain gogorrak izanda, danak billurtuta, nor guztien "baitak" garbaitasuna eskatzen dauskuelako, eta atsekabetasunean errudun sendituta, Giza ta Gaiaren eskubideak eskatu doguz beti.

Antza baiña, borroka guzti orreik ez dabe erabakitzen eta gitxiago argitzen ezer !!, atsekabetasun oiek aienatu edo suntsitu egiten diranean, goialdeko batzuk edestitik datorren menpeko asmakizunaren ariari ebatzen dautselako, eta danak diru ta on biziaren lilluratasunezko eragipen bidetik, ostera joaten garalako norkerizko ekintzatarara.

Danak jakin bear geunke baiña, **"NORKERIA, LAPURRAREN BIZITZA DALA"**.

d).-*Inguru begi zabal ori begien aurrean eukinda, baten batek esango daust, zer egingo leuke orduko nekazari gazte batek, bere onbeartasunean naita naiez Napoleonen aurkako borrokan lerrokatuta eta au amaituta bere ogibidea lortzeko dagoenean edo lortu ondoren ?.*

Erabagi oneri zentzun apurbat emotearren, gure orduko gizarte osoa kontuan artu bear dogu, norkeriaren menperatzailleagaitik indarrez kontrolatuta egonez gain, eurak egi lez aurkezten dauskuzan guzurrezko arrazoen eragipenakaz nortasunean naastuz, gizartearen antolamendurako gaur lez bananduta agertzen giñela, jakintsu, gidari, maisu, lege gizon, emakumeetan, erlijioaren gotzai, apaiz lekaide lekaima artetan eta gizarte mailletan.

Geiago izan giñan eta gara, bealdekoak garela esaten dauskuenai JAINKO ZALE mailla guztietan, baiña goikoak norkeriaren maltzurkeri bidez guda tresneritik asita, bear dogun on guztia kontrolatzen dabe eta bizitz onetan oraiñarte, gaiak aurkeztu egiten dauskun diteken (2) guztiena kontrola daukenak, norkeriz jokatzeko sasi irabazte osoa eukiten dau.

Guzti au ikusita, Euskaldun gudal nagusi bi aurkeztuko dotzuedaz, ikusteko, eurak zelan erantzun eutsoen JAINKO seme lez euken BAITARI.

a).-Zumalakarregi ta Imaztar Tomas izan zan bat: Onek ez eban euki bildurrik, JAINKOA ta Euskal Aberriko egiaren alde jokatuta, jakin ebalako zer jokutzen zan an, eta borrokara eldu orduko irabazle urtetan eban, bere guda talde osoa *Nortasunduta* joaten zalako borrokara, naita etsai gudalozteak aundiagoak izan.

(1) Ongaiatzatuz = mezclar lo bueno con lo malo. (2) Diteken guztia = todas las posibilidades.

b).-Bestea, Espoz ta Illundai ta Minatar Franzizko, lenengo Napoleonen aurkako aldian, garaipenduta urten eban ia borroka guztietatik, Euskaldunakaz Eusko Nortasunaren sinismenean borrokatzen ebalako.

Beste gauza bat agertu jakon, bere Aberriko Nortasunaren aurka, atzerritar maltzurrekin borrokatzen ebanean.

Len, bialtzen ebazan gudalozte aundi orrein gudariak, borrokan ibili ziran atzerritar lurraldea ezagutu ez gain, ez ziralako euren Nortasunaren egizko lurraldeak babesten ibili, eta gudaloztearen agintariak egi lez esaten eutsezanak, gudariek ikusten ebenagaz geinetariko **baitan** ez ziralako egokitzen, ardura gitxigaz borrokatzen ziran.

Bigarren, Espozek bere ogibidea aurrera eroatearren, jakinda atzerritarrakaz bere anaiaren aurkako borrokan ibili zala, bere **baitaren** lotsak minduta, espainiar gorteari Nafarroan borrokatu barik, Akoruñara borrokatzen bialdu egiela eskatu ebenean.

A ta guzti, Espainako agintaritzak, Espoz ostera ekarri eban Euskalerrira, eurak ez ziralako gai izan Euskaldunak menperatzeko.

Eta atzerritarrakaz bere anaiaren aurka borrokatu zanean, nai ta Jauregi Artzaia esaten eutsoena ta beste Euskaldun batzuk lagun euki, emen zikindu ebazan ararte irabaziko ospe guztiak, bere ulermeneko **baitan** aitu ezinik asarratuta, Lekarozeko erritarrak bosgarrenka berezitu ta tiros ilda erria erre, ta Karrera karlista gudal nagusiaren **ama** tiros ildako astokeriak egin ebalako.

Egia da JAINKOAREN LEGEAK etsai asko ta aundiak daukazala, eta borroka orretan norkerizko zaleak euren egizko arrazoiakaz sortzen dabezan naste borrasteko lege bidetik, bizirik irauteko edo ta ogibidearen billa, ez gara arritu bear gazte batzuen alde bat edo bestean jokatzegaz, beartuta egiten ebalako.

Borrokan ibiltzen ziranean, alde batek edo besteak gazte gudariak arrapau egiten ebazanean, baktzari euren arerio taldetan ipinten ebazan borrokalari.

Euren egoera ori, saltzailleak izan ziralako zan ?

Eta orregaitik, gizaki txarrak izaten ziran euren buruak il ez ebelako egiten ?

Kontuan artu bear dogu, bizitza ez dala geuria, eta gure ARIMAK mundu onetan eragilletasunezko arduran daukien gai jantzi au, eskubidearen ordezkioak betetako dala.

Azalpen orregaz beren jabetza, argi geratuta ez dala geurea eta debekatuta daukagula, beragaz ilkizun orreik egitea.

Gure Batzarraren jabetasunezko denboratan askatasunean bizi bagiñan be, norkerizko maltzurtasunari alboratu ezinean eta Euskalerriko Ego aldean gure jabetzak espainiar erregearen eskuetan ustegabez geratu ziranetik, berarekin egiune bidetik egiten genduzan itzarmen orreikaz, Jaun/errege bikoteko naste orretan, Euskaldunak beti ibili gara anai arteko borrokan.

-Orregaitik ez gara arritu bear, gizonak norkeriz edo ogi bidez beartuta bizirik irauteko, alango aldaketak egiten dabezenean.

Eta gitxiago apentza edo asperkunde lez artu, basakerietan ez gindezan ibili.

-Bizitz onetan gaur ikusten dogun lez, euskaldun guztien nortasunezko egokitasunak ez dira bardiñak..

Gure azkeneko 2.000 urte edestiko ibilkeran, euskalerrri lez daukaguzan eskubidearen etsaiak, guda indar eta guzurrezko arrazoi maltzurraz, euren zauriak egin dabezelako gure nortasunezko gorpuan.

-Ortxe dago gure sinisbidearen arrazoizko lana, gure euskal gorputzan nortasunezko zauriak sendatzeko.

-Eta etsaiaren guzurrezko lege bidetik gaur alderdikerietan banatuta aurkitzen ba gara be, euskal nortasunaren egia ipini bear dogu « **elburu** » danon ulermenetan, naste edo okerrezko zauri orreik osasundu daitezcan.

-Ni baiño euskal nortasun aundiagoko zarragoari, askotan entzun dautsiet esaten : « **egiak askatuko zaitue** » eta berba orreik, euren berezko esanean artu bear doguzenak dira.

-Zumalakarregigaz ikusi dogun lez, euskaldunak, sinesmeneko elburu bidez alkartuko ba giñan, laster lortuko geunke euskadiren askatasuna.

Euskaldun bakoitzak bere neurrizko ulermenean, maite dogulako gure izatasunezko euskalerrria.

-Gaiak, aurkezten dauskuzan bere aukereak, norkeizko indar aundienean ibilita be, ez daukalako indar eta zer egiñik, gure ARIMAREN arrazoi ta maitasunaren sinismeneko indarraren aurka.

-Mundu onetan, **Jaungoikuak nortasundutako legearen aurka**, ez dau aurkakorik, eta gitxiago eragille on lez, euskal ardurak maitasunezko zentzunean erabilten badoguz.

-Geiago : bizi garan gizaldi au, zor eskubideko ardurean sartuta gagozan guzurrezko lokatz onetatik urteteko, eta amiltegiaren aurrean aurrera ezin eginean kokatuta geratu garelako, naita naiez, gaia, giza eta errien eskubideak berrezkuratzeko denborak eldu direla esangura dabe, bizi bidearen "**OREKAK**" guztiz alde baten okertuta, amiltegi begira ipini doguzelako.

-Gizaren eragilletasunezko arduran beartuta, norkeiaren zentzun bako lapurkeritik urten bearrean aurkitzen gara, eta orren itzulpena : « **nortasunaren zentzun aundiko aldian kokatuta gagozela** » esan nai dau.

-**Euskalduntasunak, nortasunezko jabetasunik ez daukala esaten dabe espainiarrak.**

Bai ?.

Atzean edo kikilduta geratuko ote gara ?.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.011'n Epailla'ren 31'n

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(XI)

1.833-1.876eko urte bitartean, karlistadaren gudak.

Iru izan ziran karlistadako borrokak, 1goa: 1.833-1.840ko urte bitartean.

2garrena: 1.849-1.860ko urte bitartekoa, edestilariak guda ez zana esaten dautsoenari.

3garrena: 1.872-1.876ko urte bitarteko gudakaz amaiera emonda.

Eta, nai ta Frankogaz 1.936-1.939ko urte bitartean milloi bat gizaseme ildako beste borroka latz bat euki arren, laurak menperatzailezko gudak izan da, ez dira izan gai, arrazoiaren erabagitasunean gaurko egunerarte ezer argitzeko, lenengoko aukera bardiñean aurkezten garalako.

Iruetatik, lenengoa izan zan gogor eta odoltsuena, zazpi urteko borroka onetan 200.000 giza seme gaiñetik il ziralako.

Karlos Maria Isidro, VIIIn Fernando erregearen anaien alde izan zan leenengo matxinada au, Vn Karlosen izenagaz goraldtu ebena.

Espaniar gudalozteak euren lurraldeetan, laster geratu eben matxintasun ori, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Aragon, Katalunya eta Balentziako erkidesetasunetan izan ezik.

Eta gertakizun ori alan izanda, arrazoi ori izan zan errudun, borroka gorri orreik, erdi ugarteko Iparralde onetan izan zitezen geien eta gogorrenak.

1.840-1.860ko bigarren gudaldia.

Kabrera gudal nagusiak bideratuta, katalanak izan ziran Karlosen ikurra aurrera eroan ebena 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

1.839ko Urrillan Euskalerrria gudariz beteta itxi ondoren, Espartero 44.000 gudarikin Zaldubara joan zan, bere gudalategia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839an Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako “Foru Legeak” bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: “*Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia*”.

Eta beren bigarren idazkunean, “*Foruak, Espainiatar erreñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta*” esaten ebana.

1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerrriak bakearen orde, menpeko legeekin ordaindu bear ebezanak.

1.840an Urrillaren 12an Esparterok, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, espainitar jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Legearen zauriak zabaltzen asiko dira.

1.840an Abenduaren 15ean Espainaren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Añamendietara aldatzen dauz.

1.841ean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure **“Foru Pasaia”** ⁽¹⁾, ezereztuten dau, espainiatarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841ean Jorraillaren 23an ostera berrezkuratzen doguz Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak, Nafarroan oraindiño, 1.836an kendu eutsezan Foru Legeak berrezkuratu barik.

Espainiarren gortekoak gauza guzti oneik, 1.839an Urrillaren 25ean itzarmendu eta sinatu zan egiuneko baldintzaren gaiñetik egin ebezan, euren norkerian menperatasunezko lotsabakokeri aundia ondo erakutsita.

1.841ean Dagonillaren 16an Espainiako jaurkintzak Nafarroako Aldundiaren baimenagaz, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezerezen jaramonik egin barik, lotsagarritzko **“Ley Paccionada”** ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak Esparteroren aurka, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen, Muñagorri be ilda, bere goiko kondairan esan doten lez, eta Espartero garaipenduta, beronek ez eban galdu aurkeztu jakon aukera ori **1.841ean Urrillaren 29an gure “Foru Legeak”** ezereztuteko.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gudalozteetan guda buru nagusi lez, eta Marotoren Etxeko Kondea izendatu eben.

Marotoren saldukeria eta Esparteroren maltzurkeriak, asieratik argi ikusten diranak dira.

1.842ko urtean, 1.810-1.813 urteetan agertu ta legeztu zan konstituzio edo jaurgo barria “aurrerakoia” zala esaten jakonari, aldatu edo eraberritu zan.

1.842an Uztaillaren 1ean Julian de Lunak, Euskalerriko gizarte ta lurak beti danik espainiarrak izan ba ziran lez, gure Foruaren legeko jarduntasuna barragarritu gurean ibili zan, euskal oligarka batzuen onerako ta espainako anai arrebakaz borrokan ibilteko baiño bakarrik ez ebela balio ta abar.

1.843ko Bagillan Esparteroren aurkako matxintasun bat sortzen da, Euskalerrian Foruen berrezkuntzarako asko esan gura ebana, Esparteroren legeak ezereztuten ba ziran, baiña dana alper biurtu zan.

1.843an Urrillaren 10ean II In Isabelek 13 urte bete ebazan, eta 14 urte baiño len adifñetan nagusi lez aldarrikatuta, Azaroaren 10ean konstituzioari ziñ eginda, asi zan bere erregiñezko aginduetan.

1.843an Abenduaren 1ean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak Foruen jabetasuna ostera berrezkurtzeko alkartuta, II In Isabeleri ezkutuzko meatxuan idatzitako eskutitz bat bialtzea erabagi eben espainiar jaurkintzan aurkezteko euren jazarraldia, eta erantzun ona ezan leike euki ebala, 1.843an Uztaillaren 4an ostera berrezkuratzen dalako Foruen araudia neurri aundi baten.

1.844an Epaillaren 20an Jiron eta Ezpeletatar Franzizko Jabier Ahumadako dukea ta Nafar guda nagusien alegiñagaitik, guardi zibillaren taldea sortarazi zan, eta Iruñian dauka oroikarria: “Navarra al duque de Ahumada” esaten dauana.

1.844ko Lorailan, Narbaeztar Ramon Maria izendatzen dabe espainiarren jaurlaritzako

(1) Foru Pasaia = pase foral.

lendakari, eta gure gogoetan okerkeri geiagoen itxaropena irudituz gain, ortik aurrera asi zan, espainiarren burudunezko amarkada esaten dautseenari.

1.844an Uztaillaren 4an espainiar jaurkintzaren erregetzazko agindu bategaz, ostera lengoratu egiten dira Foruen lege batzuk.

Argi ikusten da aldi onetan, gure ForuLegeak espainiatarren apetaldi ta naikerian ibili zirala, espainitar gobernukoak menpeko legeen zentzuak ez ebelako jakin zelan ezarri.

Antza, eurei be aditasun edo begirune aundia emoten eutsen, maltzur ta guzur galantakin ibiltzen ebalako menpeko lege orreik.

Euskal nortasunaren sorkuntzatik asita, 1go karlistadako lan guzti onen Ondorioa.

Orduko denboretan kokatzeko, eta txoriak euren goiko zerutik ikusten daben antzera, nik uste dot alango begiraldi bat emon bear dautsagula Europako antzerki zabal oneri, giza ta errigizarte artean zer gertatzen zan eta zelan jokatzeko eben berezko ekandu edo oituraren arauzko antolamenduakaz ikusi ondoren, jakin daigun zer gertatzen zan denbora aietan.

Len: Lur, Aize, Ur, Zuaitz, Landara, Abere ta Gizakiaren Eskubideak.

Gure arbasoen amaibako eragipidetik ikasi genduan zer egin, gaiak bere izaerazko ezberdintasunaren ataltxo alkartasunean ta zabaltasunean aurkezten dauzkuzan almen guztiekaz.

Jainkoari begira, bizitzaren egipidezko arlo zabal guztirako danok ordezkartzaren arduradunak eginda gagozela, eta Beren Legeak bizi garan guztiei bakez irauteko, oituraren edo ekanduzko orekak baiño besterik ez dabela eskatzen jakinda, bizitzaren edestiko denbora guztiak bardiñak dirala erakutsi euskuen.

Gai legearen antolakutzak eskatuta, asieratik asi gintzazan gure baitan atonduten gauza guztien almenak, eta gizarteko egipidearen ekanduzko arloan konturatu, gai gizatutako mundu onetan, zor eskubidearen ekanduzko ordezkartzak dirala ikurrezko elburuak.

Jainkoaren bizitz oneri, adierazpen ederragoagaz egiztatu edo erantzun al geinke ?.

Nik ez dot uste, Jainkoak Berak daukalako lege orren baldintzakaz oiñarriz edo erperatuta gaiaren zentzua, gure baitan konturatu gaitezten.

IVn gizalditik ona baiña, batzuegandik norberia legeztu zan, eta danok gure baitaren arrazoizko argibidez dakigu "norkeria" lapurtza baiño besterik ez dala.

Eta Europaren edesti bidez, ainbat menperatzailletasunezko arau berrizte eta lege orrekin barriztearen aurkako aldi gogorragaz sartzen gara, XVIIIn gizaldi onetako gizarte lanetan erlijioaren itsutasunezko sinismenagaz batera.

Trebetasunezko ertilan ederretan, apain jariozko ordezpenetik (1), zillar edo argi ta garbitasunen erinketako (2) aldira aldatu giñan, aurrerakuntza aundiak eginda.

Baita, XVn gizaldian Europaren gizartea ekanduzko bakera bideratzeko izan bear ziran, ***sutauts edo lerrauts, itsas orratz, irarkolana eta ontzi oialetarako aurrerakuntza aundiak***, danak, etortezan norberizko asmo orren serbitzuan ezarrita, ez eben balio sasi

(1) Erti lan ederretan, apain-jariozko ordezpenetik = dela representaci3n cargadamente oscura "Rococo" de las bellas artes. (2) Zillarraren erinketako aldira = tiempos de la luz y el refinamiento en las bellas artes "Plateresco".

jainkotasuna indartu ta borrokak gogortzeko baiño besterik, berezko arrazoia naste aundiagoetan sartuta.

Eta *Nortasun ta Norkeriaren arteko* eztabaida odoltsu orrekin, eltzen gara XVIII, XIX, ta XXgarren gizaldi oneitara.

Euskal nortasunezko demokrazia.

Euskaldunak, Jainkoak mundu onetan oiñarrituta daukazan legeari ordezkari arduradun lez, euren ekin bideko oituran ikasten ebezan guztiak ondo ulermenduta, sinismenduko arloan kokatzen ebela ikusten dogu, ordezko ardura ortan euskal izatasuna, askatasunezko demokrazian nortasunduteko.

Orrela eldu zan daukagun askatasunezko demokrazi eder onetara, eta ez da urriñ joan bear euskal eredu edo jarraibidezko gizon emakume orreik nortzuk ziran jakiteko, gure aita amagandik asita, amaitzen dagoan gure aurreko gizadiagaz Euskalerrria beterik egon dalako.

Arrituta geratzen nintzan: Aurre ta Apraiztar Balendin agurtza edo errosarioa otoi egin eta euskeraren aldeko ardurea erakusten ebanean.

Aita Santi Onaindiaren amaibako alegiñak, Jainkoa, euskerea ta Euskalerrriaren alde.

Arizmendiarrrietatar Jose Mari apaiza, bere txirrindu zaarrakin alde batetik bestera doiela, egin ebazan alegiñak lantegiko lanbazkunak ta Eroski izenagaz ainbat erostetxe sortzeko, Euskalerrria bere askatasun eta demokrazizko senean iraun egien.

Zubikaraitar Augustin, Olazartar Martin, Oñatibitar Manu, Dunixi ta Jon, Azurtzatar Jose Joakin, Arrindatar Anes, Paulin, Zubiri anaiak, San Sebastiantar Joxe Mari (Latxaga), Latiegitar Bizente, Aita Lino, Agirretar Jose Antonio, Ajuriagerratar Juan, Landaburu eta amaibako abar.

Bizitz onetatik Jainkoarengana eltzeko, ondo baiño obeto ulertu eben, gure arduraren ordezko jokua Bere Legearen baldintzakaz zuzendu bear dogun bide bat baiño besterik ez dala, eta eskubidearen ordezko ardura orretan emon ebezan euren alegiñ guztiak.

Ez eben begituten atzera, egindako okerrak zeintzuk ziran jakiteko baiño, eta aurrera emoten ebezan zentzun aundiko pausoak, demokraziaren askatasunezko legean ondo neurtutako pausoak izaten ziran.

Orregaitik ez gara arritu bear Euskalerrriaren sinismenarekin, euskal ekanduzko zentzua bereztasunean ondo neurtuta eginda dagolako.

Gu gara bizitza on ulertu bear dogunak, ardurazko zentzun ortatik okertu ez gaitezen, Jainkoaren Legezko bide ori, gauzaren aurrerabidezko itxurak naita eran eta aukeretan barrikuntzaren ikusmenean agertuta be, beti bardiña dalako.

Espaniar nortasunezko demokrazia.

Erromatarren katoliko kaizar asmakuntzatic datorrena da, eta oraindiño lortu barik daukie lez, norkerizko edo nortasun bakoa.

Bere edestiari begiraldi labur edo zeatz bat egin ezkerro, laster konturatuko gara, batzuen norkerizko ameskeri uts bat baiño besterik ez dala.

I Konstantino konturatu zan erromatar kaizartza maldabera gogorrean sartuta egoala, eta bide orretatik iraun ezkerro, ezin zirala lortu euren jaiotasunezko baldintzak, mundu osoa euren kaizartzazko agindupean batuta iraun egian.

Eta I Konstantino, erromatarrak ararte egin ebazan aginduzko alegiñ guztiak galdu ez zitezen, I Silbestre Aita Santuagaz berbetan asita, Kristau sinismena euren kaizartzagaz lotzea erabagi eben, latinezko izkuntzagaz kaizar eta Aita Santuaren agindupean, mundu guztiko batzangotasun orreik lortu naian.

Norkeriaren katoliko izenagaz alderdikidetu eben kristautasuna, eta or egin jakon munduko gizasemeen ekanduzko zentzuari, egin dan lapurketarik aundiena.

Ortik aurrera, Jainkoaren seme ta erri guztiaren borondateak zentzuz batu barik urrundu egin ziralako, erlijiotik asita banaketak nun nai sortu ziran, eta nortasunaren zentzutik kanpo norkeriaren bidea artu zalako, gizaren alkartasunezko zentzuak erakarri baiño, eritiziz iñoz ezin diran alkartuko urrunera bideratu ziran.

Batzangotasunezko asmo orreik lortu naian, gero ta erabagizko alegin gogorrakoak artu ziran, eta Europa ta munduaren aurpegia edestian odolez gorriturik, gaur, 2.000 urtetan zarrapastaka (1) ibili ta gero ikusten dogu, alegin guzti orreik okerrekoak izan direla.

Menpeko baldintza orreik, abiadan ipini ziranetik jakin degun agintaritzaz non dagoen, ordezkari berezko zentzu ta denboran bete barik, beti aurreratu dira ondorengoak ezartzen, eta erabagi orregaz ordezkarien eskubideak lapurtzen diran lez, erlijiotik asita bizitzeko bear doguzan eskuarteko guztiak norkerizko lapurtzan erabilten doguz.

Aberastasunaren billa ?

Mundu onetan eta Jaungoikuaren Legean baiña, non aurkintzen da aberastasuna: ***“Gaian, ala Izatasunean ?”***. Ankak aurreruntz daroaguzela eroaten gaituenean: ***Gaia emen geratzen da.***

Eta len munduko gizaseme alabai indarrezko alegiñakin asto biurtzen ibili ba ziran, euren nortasunetik kanpo gaur lez atara naian alegiñez dabizelako, euren berezko baitak ez dautselako izten alango astokeririk egiten, gaur menpera zale orreik asto biurtu dira, euki daben eta daukien errakuntza ez dabelako ontzat artzen.

-Espainiarrak baiña, Europaren gauza izan da, ze ikustekorik daukie gauza onekin ?

-Dana:

Osio gotzaiña eta I Rekaredo.

K.o. 325an Nizean egin zan Eleiz Batzarrean I Silbestre Aita Santua ez zalako egon, Osio Kordobako gotzaiña, Bito, ta Bizente apaizakin lagunduta joan ziran orde, eta ez alabear edo ustegabe (2).

257 ? Kordoban jaio zan eta 357an Panoniako lurraldean Sirmio urian il, Kodobako gotzai izango zan Osio jaun au.

Dagonil edo Agorrillaren 27an ospatzen dau Greziako eleizak Santu lez Osioren eguna.

I Konstantinoren aolkulari lez, Osioren zeregin aundienetariko bat, I Konstantinoren Kristau eritizitik, arrianismoaren adierazpena baztartzea zan, mundu zabaleko kristau erlijioa, elkarte katoliko baten biurtu edo ta alderdikidetzeko.

(1) Zarrapastaka = atropelladamente. (2) Alabear edo ustegabe = por casualidad.

Bertan baieztu ta arro irakatsi zan Zezareako Eusebiok katolikotasunentzat idatzi eban siñezteko Kredoan.

Garbi ikusten da, katolikotasunaren asmakuntza ez zala I Konstantinoren gogamenetik sortutakoa, Kristau eleiz gizonena baiño, eta katolikotasuna bera izan bazan be ezarri ebanak, orduko eleiz gizonen adierazpeneko erabagitik etorrena zan.

I Rekaredo:

Ekialdeko kaizartza 1.453ko urterarte iraun ba eben be, K.o. 410eko urtean Erroma saskildu ondoren, Alarikogaz godoak sartzen dira Erromatar Mendebaleko kaizar jokoan.

Atanajildoren ostetik, Leobijildo izan zan Godoen urrengo errege 586ko urterarte.

Leobijildo, Ermenejildo Santua ta I Rekaredoren aita izan zan, eta Leobijildok bere seme Ermenejildo il eban katolikotasunetik aldenduta arrianismoa ez ebalako besarkatzen.

Eta leobijildo konturatuta, espataren indarragaz bakarrik kaizartgotza ezin zala zaindu ta gitxiago garaipendu, I Konstantinoren bidea artuta, bere seme I Rekaredo errege zala alegindu eban katolikotasuna besarkatu egian kaizartzagaz garaipentzeko.

587an I Rekaredok Arrianismoa baztartuz eta katolikotasunezko eritzia besarkatuta, 589an Toledoko Eleiz Batzar Nagusia bere agindupean batu eban, eta ortxe emon jakon indarra ostera be katolikotasunaren norkerizko eritziari, Europa ta munduko errigizartearen nortasunezko demokrazien egarriari ainbeste kalte egiten dautsenak.

Zelan ziurtu Toledoko batzarretik agertzen dirala gure kalte guztiak ?.

VI, VIIIn gizaldietatik aurrera Europa osoak onartu eban Eleiza ta Aita Santuen nagusitasuna aolkularitzazko lanetan, eta ortik aurrera gero ta indarkeri geiagoagaz etorri gara Greziaren demokrazizko jakintza eta goitik berako agintaritzan datozen Erromako legeak, katolikotasun zentzuan ezkondu ezinik.

Ziurtza.

Badagoz Espainiren edestiari buruz, betikoa izan balitz bezela eta gaiñera garaipenaren guzur aundiko zentzuan idatzitako liburu asko.

Nik Aguraineko Klaretiarren liburutegitik baimenagaz artuta, aurrean daukaten liburutik artuko doaz bear dodazan zeaztasunak: D. VICTOR GEBHARDT-k idatzita eta 1.863an irarritako "Historia General de España y de Sus Indias" VIIn atalean eta 1.013ko orrialdean esaten dauanakaz ziurtzeko.

-“Espainiarrak katolikotasuna, aberri lez egiztatu egiten dabe”.

1.-Biktorrek, espainiarren izaerazko egiaren buruz espainiar biozkada azaldukeran, aberri katoliko lez aurkezten dausku.

2.-Biktorrek, Laterritasuna ⁽¹⁾ jaun txarra ⁽²⁾ dala espainiarentzat, espainiarrak esaten dabela adierazpenduten dausku.

Laterriak, irunsi egiten dabezelako eurak daukiezan aberri katolikoek eskualdiak ⁽³⁾.

3.-Espainiarrak gaiñera minduta geratzen dirala Biktorrek esaten dau, Laterriak ziurtasunaren eza aurkezten dautsielako eurak katolikotasunezko aberkidetasunean daukien asmotan.

Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:

a) Europa, katolikotasunean batzangotzeko asmakuntza IVn gizalditik abidan ipini ebenetik XIXn gizarteraño, naita indarkeri asko ibili, utsegille urten ebala.

Berezko lege eta asmatzen ziran menpeko legeakaz sortzen zan naste gogor orretan batu baiño, zati geiagotan banatzen ebazalako.

Eta bereztasunean sortutako izkuntzezko errigizarteak, indarkeri bidetik agertu ziran zentzunbako izkuntz ta mendeko erri barrien ondotik beti alde egiten ibiliko dirala, euren bereztutako baitaren zentzu kanpotik ez diralako onartzen ainbeste guzur ta okerkerizko lege edo arrazoi txepel.

b) XVIIIIn gizaldean Europaren katolikotasunezko batzagotasuna porrot eginda gero, menpeko asmakuntz ori aienatu edo ezereztu ez egien, mundu osoko batzagotasuna alboratuta lurralde txikerragoetan joan zirala Europa batzangotzen.

1.789an ori lortzeko, Frantzia iraultzatu ebela beste lurraldeetara zabaldu naitan maltzur indarrezko alegiñ orreik.

Eta orduko jaun erregeak epaiketazko lanak ordezkatu egiezan, itzarmeneko itunean antolamenduta egon ziran nortasunezko erriakaz, auek gudu indar gogorakaz menperatu ebezala, espainiar, frantziar, engelandar, alemandar, eta abar, laterritutako lur mendeekin, katoliko ta merkataritzan batzangotzeko asmakizun orreik aurrera eroateko.

Lenengoari erantzunda:

-“Katoliko” itza nundik nora da aberri baten adierazle. Ala mundu onetan, ankaaz gora bizi leike?.

Izadi onetan AITAREN ondorengotasuna, asmatutako edozein itz barriekin mugatu leikena ote da?.

Berezko erri ta izkuntzakaz lendik daukaguz naste ta banaketa gitzi eginda, oraiñ izkuntzaren iztegiakaz azteko.

Laterriak, aberriak ote dira?.

Espainiar faziztak, “**Nacional Catolicismo del Estado Español**” edo “**Estado Catoliko Nacional Espainol**” esaten dabe ao zabalagaz.

Eta esaera ori, aberritasunaren adierazpena ote da?.

Esaera ori, 1.789ko urte ezkerotik, 1.810, 1.813 urte bitartean Kadizeko gorteetan, espainiarren izenean gudal nagusiak, Europako merkantil liberalaren kidetasunean asmatu

(1) Laterria = Estado. (2) Jauntzar = dèspota, tirano. (3) Eskualdi edo Esku-artekoak = Bienes, recursos, medios de subsistencia.

ebezan jaurgoren lege barri edo aurrekoiezeko zala esaten eutsien sorturiko konstituzio barritik eta 1.823an VIIIn Fernando indarrez siñatzen beartu ebenetik ona da.

Eta esaera ta asmo orreik ez daukielako erritarren baimenik, adiñezko lengotasunaren ezean aurkezten ba dira, zer dira eurentzat aberriko senditasunean millaka urteak daukiezan izkuntz ta erriak ?.

Berezkotasunean jaio diran erriakaz olan ibili ezkerro, ez da gogoratzekoa berezko eritarren gizon/emakumeakaz merkatuen dabizela ?.

Berezkotasunean nortasundutako izkuntz ta erri, eta jaurgo edo konstituziozko aberri barri onen arteko bitartea, nortasuna eta norkerien artean dauan bitarte lakoa da.

Bigarrenari:

-Espainiarren aberria asmatzen dabizenak, laterritasuna eurentzat jauntxarra dala esaten dabela, adierazten deuzku Bitorrek.

Laterritasunak irunsi egiten dabezelako eurak daukien aberri katolikuaren eskualdiak.

-Mundu fisiko onetan, sagarrak meloiak ote dira ?.

-Iztegira begituta "laterritasuna": Gizaki edo gauza baten ezarpen edo jarkera esangura dau, bere izaera egin leiken edozein aldaketara lotuta dagoena.

Eta adieraztutako itz muga orrek, zer ikuste dauka jaioterri edo Aitaren ondoregotik datorren aberritasunagaz ?.

Argi dago, **laterritasunak** ez daukala ezer ikusirik **aberritasunagaz**.

Irugarrenari:

-Espainiarrek katolikotasunaren aberritasunean daukiezan asmotan, minduta geratzen dirala esaten dabe, laterritasunak ziurtzaren eza aurkezten dautsielako.

-Orduan, umeak edozer gauzagaitik asarratzen diranean egiten jakien antzera, gozokitxo bat emon bear ote jakie ?.

-Laterritasunak Aberritasunarekin ez badauka ezer ikusirik, espainiarrak zergaitik eskatu edo naastuteko eskatzen dabe: "sua", lerrauts edo bolboragaz alkartzea bezala dana, euren esangureko mugaketan oso ezberdin diran itz bi orreik ?.

-Edestiaren ainbeste norkerizko nasteekin, zentzuan ganorabakotu ote dira ?.

-Nik badaukat lagun bat, amamari iletargia eskatzen eutsona.

Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria.

Espainiarrak antza, daukien "aberritasunezko katolikotasun" ori, nai erromatar katoliko asmakuntzatik etorri, PPko alderdiaren Kospedal andreak euren gazteai ta telebistan oraindiño esaten dauan lez, eurak badaukiela uri edo toki sakratu bat, aaztu bear ez dabena: "Toledoko Kaizertza" edo "Kaizertzazko Toledo elburu lez". Laster ikusiko doguna.

Toledo, erromatarrengandik izan zan ardurazko Uria bere inguruko erritxoen artean.

Garrantzi aundikoa baiña, Leobijildok Bisigodo erregetzaren Uri Nagusi lez izendatu ebenetik aurrera, eta 589an I Rekaredok IIIIn Eleiz Batzar Nagusia ospatu ebenean, Toledo erreinu lez izendatuta geratu zanean.

Bere erritik, edestian aldatu diran jendekuntz guztiak itzi dabez euren etxagintz lanak.

Orregaitik da Uri bat etxe bikain askogaz beteta dagoena. Munduan baleiteke alango beste Uririk ez egotea.

Bisigodoak, ainbat Eleiz Batzar Nagusi ospatu ebazan Uri orreitan, 932ko urtean IIIIn Abderramamek menperatuarte, eta 1.085ean VIIn Alfonsorengaitik askatuta, iraun ebena bere nagusitasunean.

17 izan dira Toledon ospatu ziran Eleiz Batzar Nagusiak, erromatar deboratik 400 eta 527ko urtetan espainiar aberritasunezko eleizarenak bakarrik izanda, eta 589an irugarrena ospatu zanetik aurrera garrantzi aundiagokoak.

1.520, 1.522 urte bitartean Toledo izan zan erkidegoaren gudak ⁽¹⁾ bideratu ebezanak I Karlosen aurka.

I Karlosek arrezkeroztik, Toledo ia bere bizi guztian euki eban espainiar kaizartzaren Uri nagusi lez, eta bere maldabera, espainiarren gorteak Madrillera aldatu ziranean asi zan.

Orregaitik, ez da arritzekoa gaur be, kaizargo ori naita arberatutako ⁽²⁾ itxuran egon arren, Toledon egotea, edesti bidez fazizta orreik zuzendu barik ekarten dabezan maltzurrezko guzur orreik, oraindiño indarra emoten dautsoelako.

Euskaldunak.

Euskaldunak edesti guztitik oraiñarte, zazpi lurraldeetan murriztuta geratu bagara be, iñork ez daukue izaeraren nortasunetik ezer kendu, eta gitziago eskubidearen jabetzatik, euren eskuetan ez dagolako alango almenik.

Eta naita Frantzitar eta espainiarrak euren lurraldeak dirala esan arren, or erdian daukie Euskalerra bere eskubideak aldarrikatuz gain, bere jabetasunagaz lotsazko begirunea eukitea eskatzen dauana.

Laster izango dana, giza bizitza amiltegiaren ertz edo leze bazterrean kokatu egin ondoren, gure mundu onetako eginkizunak beartuta agertzen dira aldaketa sakonak egitera, ertz edo leze bazter orretatik urruntzeko.

Eta **“bereztasun”** orretara itzultzeagaz, gai gizaren eskubideetara itzultzea esan gura dauan lez, or berrezkuratzen doguz ostera berezko eskubideak, urrengo XIIIn idaz lan onetan ikusiko dogun lez.

(1) Erkidegoen gudak = gerra de la comuidades, o, de los comuneros. (2) Arberatutako = agusanizado.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.011'n Orrilla'ren 2'an

EUSKALERRIA EDO EUSKADI

“BEREZKO SORTERRI EDO ABERRIA DA”

(XII)

EUSKALDUNEN BIZITZAZKO OSAGARRITASUNA⁽¹⁾.

Euskalerrriaren arbasoak, Paleolitiko Neolitikorarte eta aldi orreitan, lortu eben Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoa ez zan txantxetakoa izan.

Beragaz, bakezko bizi era bat sortuz gain, euren arteko kidekotasun andi bat lortu eben, irauntasunezko denboraldi aietan, zor eskubidearen ardurazko eginkizunen egilletasunak oituratzen, kideetasunaren emaitzak emon eutsezelako agerpide guztietan.

Eta gure bizitzaren bearrezko ekintzaren emaitzak agerpide orreik emoten ba dabez, bakezko ondorio orreik esaten dabe, Jainkoak Bereztutako Lege bidetik goazela bakez eta zentzun andiko osagarritasunaren ulermenean.

Sinismeneko jakintzaren mailla andi orreitara eldu ziran gure arbaso maitagarriak, Euskalerrriak bere edesti guztian ainbeste erasoari aurka egin ta gero, gaurko egunean guk daukagun sinismenarekin agertu gindezan.

Eta ori ez da lortzen, siniste orren milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

A ta guzti baiña, menperatzailletasunezko kaizar arrano andi orreik, euren etenbako lan bitartez, euskal gazteen sinismenetan euren maltzurrezko zalantzak sartzen dabez.

Daukien menpetasunezko andikeritik, egi lez eta lillurazko itxuran botaten dabezan guzurak gure gazteen oarkuntzan ezartzen diralako, areik eta maltzurrezko arraoi orreik euren itaunketa eta barneko azterkuntzagaz garbitu arte.

Karlista ta Frankoren guda ostetik, maltzur, guzur ta larderizko denborak izan dira, gazteak, euren norkerizko ulermenean ezarri zitezen, eta euren asarre bidez, sarritan entzun dodaz esaten, **“ezer egin dabe gure aurrekoak ?”**.

Nik, badakit gure gazteen berba orreik, daukien ezinkorrezko larritasun aldetik urtetan dautsezela, arrazoizko egiagaz egiten dan ainbeste maltzur nastezko bidetik, gagozan jakintasunezko denboratan ezin dabelako ulertu, bizitzazko arlo guztietan eurei gertatzen jakiezanakaz.

Orregaitik eta goian esan dodan lez, txori begiraldi bategaz aurkeztuko dautsuet, Euskalerrriaren edozein erriko antzerkian zer gertatzen zan, karlistaren guda bidetik.

Bai ta, karlista guda ostean liberal faziztarekin, eta geroago Frankoren faziztak garaipendu ziranean, Euskalerrriko gizartea zelan geratu zan euren oinpean iñorako urten bide barik morroilpe.

Begitu daiguzan ba, karlistaren idaz lanean azalkatu dodazan borrokarekin, mendi baten albo bietatik zelan doiezan millaka liberalaren lantadun zaldunak eta oiñezko gudariak

(1) “Euskaldunaren osagarritasuna” =complementariedad de los vascos.

euren izkillu ta kañoiezko tresneriekin, mendi orren aurrean egon zan erritxoan karlistak arrapatzeko.

Eta karlistek iges egin ebelako edo an ez ziralako aurkitzen, erriko agintari, apaiza ta maisua erritarrakaz plazaratu, eta iltzeko keññada edo meatxuen galdeketakaz ez ba ebezan eurak jakin gura ebenetik ezer lortzen, erritarren arteko amar edo bostetik, gizon edo emakume bat artuta tiroz ilten ebazan danon aurrean.

Eta zelan gizon edo emakume baten batetik bildur bidez, zeozer jakiten ebenean eta eurentzat garrantzizko gauza izaten zanean, erritar geienari abere ta diru guztiak kenduta, erriak erre egiten ebazala, erritarrak txirotasun aundienean itxita.

Bai mendien basa oiana be erre, liberalak basarteetatik aldatzen doiezala, karlisten susmor aurkitzen ziranean.

Karlistaren idaz lanean aipatzen dot, zelan Karl Ferdinand Henningsenek liberalaren aldeko Inglesak, denbora onetan esaten ebala, *“In Isabelen gudalozteak Nafarroaren errietatik ibilterakoan, argi ikusten zirala euren zarraskiko asperkeriak”*.

Gure Euskalerriko errietan, orduko gizaseme emakumearen artean: *“bildur, ogibide, jende mea, edo ta nortasunaren eritzizko izaeran ainbat naste egon zalako”*, sinismeneko eritziaren arloetan naste aundiak egon ziran liberal edo karlisten alde bietan, eta geienak abertzaleak izaten ba ziran be, salaketaren bildur aundiak egon ziran, liberalaren zigorrez gain, Zumalakarregik berak be ainbat eriopeko zigorrak aginduten ebazalako, euren aurkako zelatan ibilten ziranai.

Eta oraiñarteko guda guztien ostetan ?.

Gaur bizi garan geienak dakigu 1.936, 1.939ko urte artean, Frankok, berezko lege guztien gaiñetik egin eban basakerizko guda ostean, zelan geratu giñan morroilpe ezer ezin eginik.

Eta zeozer egiterakoan, zelan apurtzen genduzan buruak, gogorkerizko guda indar orren aurka.

Guda orreitan alde bietako gazteen ilketaz gain eta negargarrizko ingurubegi ori ikusita, *“norkerisko asmakuntzalarien biotzetan ez dabe sendituko damu andi edo ta Jainkoaren bildurrik ?”*.

Nik uste dok, politika ta erlijioaren jakintzazko goiko maillatik asita *“norkeri edo sasi jainkotasunaren lapurrezko eritzian bizi gure dabela”* eta orregaitik ez gara arritu bear, gugaitik esaten dabenean: **“Ardi antzekoak dira”**⁽¹⁾.

Pozik baiña beste alde batetik, *“norkerian arautatuko legeak, Jainkoaren legeakaz topo egin dabelako”*, eta aurkako borroka nagusi orrekaz aurrera egin ezinik, *“arrazoizko alkar izketaren aldira agertu gara, gure bizitzak Jainkoak gai oneri ezarri Eutsozan Berezko Legeetan kokatzeko”*.

Lan aztuna aurrera begira daukaguna.

Itxarokorra baiña, Jainkoak bizitz oneitara eragille lez danori bialduta, eta zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko aukera garbiak daukagun lez eukinda: *“Gure bizitzaren amaieran, Jainkoaren aurrean benetako gizon emakume lez aurkeztu gindezan”*, munduko gizaren *“baitak”* poztasun aundienetan kokatuz gain, gai mundu onen jaurkintza, beste

(1) Ardi antzekoak dira = “Son como ovejas”.

zentzu oneko argitasun baten sartuko geunke, bearrezkoa dan, arrazoiaren ordezeko ardura bidetik.

Zer esan Euskaldun gazteari ?.

Ikusi dogun edesti onegaz, gazteari lenengo esan:

a) *Gure ariñauko aita ama, apaiz lekaide lekaimeak, ta agintaritzazko ordezkariak, naikoa egin ebela, guri Euskalerra eder au, berak gaur daukan demokraziaren askatasunezko sinismen aundian aurkeztuteagaz.*

b) *Ekanduaren gora bera Jainkoaren Lege lez, denbora edo aldi guztiak bardiñak izan da, eta Lege orren ordezkariak bakarrik eskatzen dauskuelako danon Baitari. Beren betiko legea, zuen bizitzazko belaur aldian jatorriz agertuta, zuen ardurazko txanda dala, berezko lege berezi orreik, oraingo eragille lez ordezkatzea.*

d) *Izkillu ta lerkain barik, norkezikko gizon maltzuraren atomozko guda tresnak, Jainkoaren Legeakaz topo egin da beartuta, gaurko edo betiko norkeiaren asmo bidetik urten egin bear dogulako, eta begirune aundiz Berezko Legeak berrezkuratuta, Gai-mundu onek oiñarrituta daukazan Legeakaz, eragille on lez, gizaren eskubideak zuzendu.*

Zer egin ?.

a) *Gure Euskalerra osoan leen, Euskereak emoten dauskun nortasunaren sinismena osatu ta indartu.*

Eta Arana ta Goiri'tar Sabinok eskatzen eban antzera, jakintzaren arloak sakon ikasita, bizitzarako bear doguzan arlo guztietako lantegi ta antolatutako elkarteetan sartuta, gizarteko toki bat bera esanda be, ez daitela euskeratu barik geratu, erriaren osasuna sendatzeko.

b) *Gure arbasoen eragipenetik, bizitz oneri ainbeste milla urtetan Jainkoak oiñarritutako Legeari begira, al eben adierazpen ederrenariko bat emonda: "Gure Lege Zaar eta gizazko eskubidearen alde, gaur gure Baitan daukagun askatasunaren demokrazizko egarrin, jakintzazko egibideak artu, Jainkoa eta gure Aiton Amonakaz daukaguzan zor aundiak ordezkatzeko, bide bakar eta egitsuena dalako.*

d) *Iñoz baiño sinismen aundiagorekin, mundu zabalean eta European batez be argitu ta erakutsi, gure ardurazko eragilletasuna zuzen ta garbienetarikoa dala, konturatu daitezen, alango IZAR bat ezin dala alboratu, Europa ta Mundua gaur, alango erri kudeatzaille on egarri dalako.*

e) *Eta gaur alderdikedetuta aurkezten bagara be, eta garai onen arrazoizko nasteagaitik, sasi edo ezjakintzak bideratzen gaituen gorroto, bekaizkeri, burukoikeri eta*

norkerizko arrokeriak baztartuta, "Nortasunezko zentzun aundiz beti, gure Euskal Iparrezko Elburua artu bear dogu", goian esan doguzan guztiak ordezkatu gura badoguz.

Euskaldunak Ipar lez, kontuan euki bear dogu, Espainol kolonigille eritzizko menperatzaillak, Toledoko kaizar irudian daukien lapurkerizko guda indarragaz eta munduko gizaren eskubide guztien gaiñetik, euren norkeria ezarri gure dabela gure Euskalerrian, eta len bait len, orko estualditik urten bearra daukagu, Jaungoikoa ta Munduko gizari eskeintzea gura ba doguz, Euskerea bidez, Askatasunezko-Demokrazian lortu genduzan zentzunezko jakintz aundiak.

Euskalerria oso zaarra da, bai gaztea be, eta nik badakit, Euskalerraren oraingo seme-alabak gai dirala, euren ordezeko ardura orreik alai ta sinismen aundiagaz beteko dabezala, eta benetan diñotsuet, zuen belaun aldiaren unetxo dala Euskalerraren Askatasunezko agertunea.

Ikusi dogun lez, Euskal izaera osagarritasunezkoa dala, bere Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoak, ez dausolako beste biderik aurkezten, eta gitziago maltzurrezko norkeriakin ibilten, EUSKEREAA, euskaldunai emoten dauskun Izatezko Nortasuna, gure arbasoen oituratutako lan bikaiñaren bidez jaungoikuaren legeari begira zentzunezko eta zorroztasunezko egi aundiz eginda dagoelako.

Euskal gizarte guztiari esan: "Aitzaki ta maltzurrezko alderdikeri barik, edo ta naita alderdiekaz jokatu bear, EUSKALERRIA edo EUSKADIren ELBURUAGAZ jokatu bear dogula, JAINKOA eta ABERRIARI zor dautsezelako gure izatasunezko NORTASUNAK.

ARANA ETA GOIRITAR SABINO KONTURATU ZAN **ETA ORREGAITIK ALDARRIKATU EBAN:**

"EUSKALERRIA edo EUSKADI"
"EUSKALDUNEN ABERRIA DALA"


Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Urrillaren 21ean.

Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

????n. zenbakia • ?????? ????



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Galizia aldetik txangolari



Galizia aldetik txangolari (1)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN

AURKEZPENA:

Aurten, Lourdes eta nik ez gendun itxaropenik, alango txangorik egingo genduanik, gure izenak adiñeko erakuntzez ez ziralako agertu.

Baiña, baten baten utsuneagaitik itxaroten gengozenai deitu euskuelako, alan joan giñan Galiziara aste bateko txago au egitera.

Bertan alegintsu, ikusikoagaz batera liburuaren bila ibili nintzan, ango barriak idaz lan onetan zuei, al dodan argitasun guztiagaz adierazteko.

Bide batez, Galiziatar guraso eta semealaben artean bear ez dabezan menperatasunezko gauza barragarrri batzukaz be oartu nintzan, eta gauza guzti orreik argitasunean adierazteko daukadazan gogoak izango dira errudun, idazlan au luzatu egingo dabenak.

Merezi dau idaz lan au irakurtea, euren askatasunezko izaeran demokratikoak izanda, ez dabelako merezi, goitik zaiñ eta keiñatzaille daukien PPko arrano fazizta aundi orrek, erlijioagaz nastean ipinten dau tsiezan mendeko espainiar mugak, ibiltan dabezan guzur ta maltzurrezko baldintza orreikaz, illundu egiten dabelako, euren arbasogandik datorren aberriko erria, atzerriko erritarrak ezagutu dagien.

Bildur barik esan leike, PPkoen kaizarrezko lur edo mugabarru bat⁽¹⁾ dala, nik entzun eta ikusi nebanez.

Milla erataraz egin leikez menperatasunezko ekin-tza orreik, onek baiña, menpeko lenengo erabagiak izanda ankea gaiñean ipinten danean lez, zapaltzailleentzat erreztasun aundikoak eta pozoiz geiegian eukiten dabenak diralako, kaltegarrienak izaten dira oiñarrizko zentzuak debekatzen dabezenean.

Eta gaurko demokrazizko egunetan orrek gauzak ez dira sortzen, erri bateko jakintsu mailla ondo bizi gurean, norkerizko liberal mendekerira bideratu eta alderdikidetuta dagoenean baiña, norkeri orreitan artzen diran erabagiak diralako.

Atzerriko erritarrak txangolari lez edo beste era batera euren erria ezagutzen joaten diranean, bear dabezan adierazpen edo liburuxkaren iturriak utsik aurkitzen dabezenean usaindu edo susmatu egiten dabez joko orreik.

Onenbesteko alperrak izango ote dira galiziar oneik ?. Ikusitakoagaz, nor bere baitan artzen dan lenengo zirrara edo erasotik⁽²⁾ egiten dan lenengo itauna izaten da mundu fisiko oneitan zentzuzkoena, ekintzak, utsunezkoak izanda be, beti eukiten dabela euren erpe edo sorburua⁽³⁾.

Beste joko bat, ikusten ez dan bildurrezko joko bat da. Euren gizarte eta dirugintzaren kontrola zelako elkartearan antondukez eroaten daben jakin gure ezkerro, laster ikusten dan gauza dalako.

(1) Lur-barru edo muga-barru = coto. (2) Lenengo zirrara edo erasotik = primera impresiòn. (3) erpe edo sorburua = causa.

Eta beren ondorengo ikerkuntzagaz, argi ikusten jakie, senitartearen funts edo lur zabalekoa dala⁽¹⁾, eroaten daben menpeko joko ori, euren eskubitar kontrolpeko eritziaren kanpotik dabiltzanai, isillik edo ixilpeko meatxuan eroaten daben langabeziko kontrolagaz.

Nik azaldu dodan lenengo adierazpenaren zentzuetik artuta, ezetza artu neban liburuxka orreirin billa joan nintzan liburutegui guztietan, eta Adiñeko antolatzaileak ipinten daben gidari Adela gandik asita, danari esan neutsen alperrak zirala, Aitaren etxea atzerritarren artean esagutzera emoteko ez ebelako tresnik ez zaletasunarik euki.

Beti baiña agertzen da itxaropen edo ta argitasunaren izpi bat, eta au Sanxenxon portu noboko liburutegi baten aurkitu neban.

Neskatilla arek, ez eban euki nik eskatzen neban, guztiz arduratu zan baiña nik gura nebanagaz, eta berbea emon eustan, andik aurrera, erri guztien adierazpeneko liburu orreitzaz arduratuko zala.

OARPENA:

Orregaitik asiko gara euren erri sorkuntzatik, jakin daigun, euren askatasunezko demokraziaren izaerazko baitan daukien neurria eukiteko, bereztasuneko ekintzan egineko erri izatetik dakartela, euren ainbateko neba arrebaren baitan gaur nastuta egon arren, alan erakusten dabelako.



Euskerazale eta Euskerazaintzan kide eta neure lagun andia dan Egurrola ta Madariagatar Iñakik esaten eustan:

-Zu Paul, baiña "auteskudetan zergaitik emoten dautsoez PPkoai euren bozka edo autesmenak?"

-Iñaki, konturatu bear gara: "Ainbat gizaldi mendeko antolamenduan egonda", nortasunaren baitako ulermenean ainbat galiziar naastuta dagozela.

Eta berezko arrazoiaren zentzunean guztiz aokatu ezinik egonda, egoera larri orreikaz fazizta maltzurak baliatzen dira.

Euren nortasunezko eta norkeriaren arrazoizko naste orreitan, askatasunezko demokraziaren antolakuntzan bizitzeko bear dabezan almen guztiak, maltzurrezko joko orreikaz fazizten almenak erreztu egiten dira, euria egiten dauanean arrantzaleak lokaztutako erreKaren ur loietako arraintzan egiten daben lez.



(1) Senitartearen funts-zabal edo lur-zabalekoa dala = latifundios kontrolados por familias afines politicamente.



Ikusiko dozu baiña, zelako lasterketa artuko dabezan demokrazizko bideetan, euren nortasunetan daukien buruko gaixotasunagaz konturatzen diranean.

Ala, guri ez jaku sortzen, egiaren arrazoizko gaixotasun ori neurri aundi baten ?.

Ikusi daigun, nundik norako bidetik agertu ziran gure artera, Europa onetan.

KELTIARRAK:

Europar daukaguzan laterri kolonigille, edo ta agintari menperatzailezalearen beldur, edestilariak ainbeste gora berako edo nastezko lan bidez, bereziki idatzi ta lauko baten sartuta, Asiatik alderrai etorri ziran keltiarrak, indoeuropeoak ziralara esaten dabe, nik baiña edesti ori beste era batera esango dautsuet.

Europa ta Asiako gezaltzea asi zanetik, Omo Sapiens Afrikatik asi zan zabaltzen lur guzti orreitarra, euken osotasunezko oitura bakar eta "len ereduko euskerean".

Len ereduko euskerean dala esaten dot, Europako jakintsuak ainbat iker lan bidetik egiztuta gero, euren emaitzak alan esaten dabelako.

Eta bigarren, toki izen eta euren izkuntz zarretan, asierazko euskal itzak diralako ondo jabetuta daukiezanak, ur, aize, lur, arpe eta abarreko itzak lez, inguruaren loturazko esan gureakaz.

Itz orreik asierazko itzetik ondo oiñarrituta euki bear izan eben, ondo jabetuta dagozelako munduko izkuntz zar guztietan, bestela indar ori ez ba eben euki, zelako indar edo jabetasunagaz irauñ ?.

Nik, Adelari bidai zuzentzaille galiziarra busean berbetan egon zanean, "Irimia" "Arbe" eta alako euskal berbak entzun neutzozan, eta berari euren itzulpena eskatuta, "IRI" itza, arrizko aldapatik jausten dan ura zala esan eustan.

Guk "URI" edo "IRI" erri nagusiaren izen lez esaten dogun berbea da, eta bein baten Olazartar Martinekin berba egiten egonda, berak emon eustan itz orren itzulpe berori Arabako Urizarraren⁽¹⁾ adibi-deagaz argituta, gure artean zalantzazkoa dana.

Begitu ba nun argitu leikezan, guk gure zentzunezko zuzentasunetik erdi galduta daukaguzan sorrerazko itzaren esangurak.

(1) *Urizaarra = Peñacerrada.*

Paleolitiko Neolitiko bitartean, esagutzen zan mundu onen gizasemeak Afrikatik urtenda, egin eben zabaltasunean, euken oitura bardiñegaz erabili edo ta aztertu bear izan ebezan arrazoi guztiakaz, askatasunezko demokraziaren ekanduzko orekak egokitu ebezan jendekuntza eder baten, eta leiñu guztiak mugatu ebezan lurraldeekin, auzune antzeko baten bizi ziran, Afrika, Ekialdeko Asian, eta Europako Mendebal onetan.

Gure Paleolitiko Neolitiko arbasoak, euren gizarteko arloaren zorreskubideko ordezkariak, nortasunezko ekanduan ezartzeko, beste norkerizko antolamendurik bear ote eben ?.

Europar, erromatar menperatzaileak batzagotzen asi eta dan guztia milla zatitan apurtu ondoren, Grezia, Euskalerrria, Eskozia, Irlanda, Alemaniako landerrak eta abar, geratu dira auzotasunezko antola orren aitorgille lez.

Eta gaurko munduaren giza itzarmen edo egiune bidez, alan iraun bear izan eban gaurko egunetan be, giza semearen eskubideak orekan eta bakez ordezkatzeko.

Merkantilismoaren menperatzaile batzango zaleak edestitik zear baiña, eta kaizar lez, aberastasunaren billa daukiezan amorratuzko egarriak asetzeko, gizarte edo ta erriarteko arremantetan zentzunez bizitzaren ordezkarietzarako egin bear doguzan egiune edo itzarmenak baiño aurretik, arrazoi guztiak zapaltzen joan dira beti, eta XVIIIIn gizaldean guda indarrez aleginduta, zemaika⁽¹⁾, gizakiak Jainkoarengandik berez daukaguzan eskubidearen gaiñean ipini ziran.



Munduaren nortasunezko jendeak, erabagi gogor bat artu bear leuke, gizaren arremanak zor eskubideko ekanduan ezartzeko, danon arteko bakeak lortu gura eskero.

Munduan noz azten dira norkeriaren menpekotasun orreik ?.

Norkerizko sasijainkotasun ori antziñatik datorrela ziurtzeko, Ekialdearen Asia Txiker ta Aundiaren lurraldeko jendekuntzak, Europakoak baiño 3.000 urte aurreratuago egon zirala aurkeztu bear dogu, zelan nortasunaren askatasunezko egoeratik, norkeriaren menperatasunetara aldatu zirala ikusteko.



(1) Zemaika = amenazando, o, amenazadoramente.



Edestiko aldi onetan azten dira norkeriaren bide maltzurak. Asia Txikerraren ingurutik auzotasunezko lurraldeetan, egitezko jakintzan jendekuntz aundia artu ondoren bakez kokatuta, baten batek norkeriaren aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsozanean.

Ala eurak izan ote ziran lenengoetatik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?

Dana dala, Semdarren erri zarretik, K.a. 4.000 urte inguru, Mesopotamiaren Egoaldean sortutakoa da, eta K.a. 2.600-2.300 urte inguruetan, Sargon agertu ta Akkadeko kaiztetzaren sortzaillea izan gurean, bereala asi zan Sumerioak menperatu gurean.

I Sargonek 2.025-2.010eko urte artean, Asiriatik asita sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Keltiarrak askatasunezko demokrotak izanda, ez eben alango menpetasunik on artu, eta menperatzail egoeratzar orretatik alde egin gurean alde-rraiezko bidetik, Alemaniaraño eldu ziran.

Eta keltiarrak K.a. 2.000n urtetan, Alemaniaren erditik Europa guztira zabaldu ziran.

XVIII-XVIgarrengo gizaldietan, Frantziaren Mendebaleko Iparraldera eta Ingalaterrako ugarteetara, eta XII-VIII-ko gizaldi artean erdi ugarte edo peninsula onetara.

Iberiako erdi ugarte edo peninsula onetan, Keltiarrak euskalduneri gañean mendeko lez kokatuta egon zirala batzuk esaten dabe.

Ez dira egiak baiña esan orreik, erromatarren gudazko zabalkuntzan gure artean bakez aienatu ziralako.

K.a. 753an baiña, Etruskoen antolaketa bidez Sabino eta Iszeresak alkartuta,

erromatar gudaindarrezko sorraldia agertu eben latifnezko izkuntz ta guzti, eta onen zabaltasunean keltiarrak aienatu ziran, Eskozia, Irlanda, Portugal, eta Galizian izan ezik.

Gailleguak, orregaitik dira sortzezko erri zar baten giza semealabak, euren baitan gu lez, Paleolitiko Neolitikoaren askatasun demokratikozko jendekuntzaren aitorgilleak diralako.

PPkoak esaten daben lez, espainiarrak ote dira ?

Zer ote da Espaina ?

Galleguak euren nortasuna daukie, espainiarrak ez daukiena, euren mendeko sasi eritzia asmakuntzazkoa izanez gain, ez daukolako zentzurik.



Laterria, Aberria da ?

Katolikotasuna be, Aberria ote da ?.

Nun dagoz katoliko eta laterriaren gurasoak ?.

Erromako aita santua ote da ?.

Laterriena bai, edestian euren aolkuz eginda dagozelako batzangotasunezko laterri orreik, baiña Jainkoaren semearena bai ?.

Noz argituko doguz ainbeste naste, bein eta betiko argitasunera agertu gaitezen?.

Ez dago eskubiderik, bereztasunean jaiotako aberriko erriak, euren norkerizko legeakaz menperatuta egotea, batzuen sasi asmakeriagaitik.

Edesti guztian okerra izan dana, faziztek ezeren erruki barik, odoljariozko guda indarrean ekarri dabena.

Aberria, aitalen alditik datorren nortasunezko senditasuna da, eta ez dira gure aragiak ekarten dabean merezimenduak, gu "Arimak" izan da, Jaungoikoaren gauza garelako, eta or ezin dau bere legeakaz

iñork eskurik sartu, Jainkoak ipini dauzan legeak bete baiño.

Oldozmenak, ez dira gure buruetan zuzen eta zentzunezko eran sekula auznartuko, gaia sasijainko lez gurtzen badogu.

Argi ta erosoak dira Jainkoaren lege orreik, danak bardiñeko zentzuan eginda, lege bardiñ orreikaz lotuta gagozelako gaiezko Ludi onetan.

Eta mundu oneri, beste berezko errien antzera, euskaldunak ta keltiarrak gure eragilletasunaren oiturazko bidetik emon geuntsozan adierazpenakaz, lortu ba genduzan guri izaeran emoten daukun nortasunezko izkuntzak, iñor ez da nor gure baitaren zentzutik atara eta beste gauza bat garala esateko.

Gaur, 2.011n Bagillaren 28an baiña, mundu onen berezko legeditik, gaiñezko beste garrantzizko gauza bat ikusten dogu, nik telebistatik ardura guztiagaz ikusi dotena espainiarren Lege Biltzarretik emonda, laterri ta askatasunaren lurraldeko diru,



lan eta gizartearen egoera argitasunera aurkeztera-koan. “Negargarria dala”.

Munduko diruketaren gaitzaldi gogor oneri botaten dautsiez erru guztiak, baiña ez dira konturatzaren porrot edo zoritxarrezko egonaldi ori zergaitik sortzen dan.

Jainkoak danontzat ipinitako eskubide bardiñaren legera urreratu egiterakoan, bizitz onetara jaioten garan antzerkilari edo jokalari guztiak, zor eskubideko arloan nortasunezko ardura bardiñak eukitegaitik, eta lege orreikaz erantzun bearrezko ardura bardiñak daukaguzela jakinda, joku orretan ezin dira sartu, eta gitxiago balio, batzuen edo askoren norke-
rizarriko jokoak.

Ez dira konturatzen, gure gaurko eragilletasunera-ko, ez dala egokia daukagun antolakuntzaren araukuntzazko era, antziñako erromatar godoaren oiñarrizkoa izanez gain, menperatzaillaren alde-
koi edo jarratzaill dalako.

Orregaitik konturatu bear gara eta onartu: “Mundu fisiko onetan Demokrazia elduta be, askatasunezko joko orreitan lenengo maillakuak izateko, gero ta egizko arrazoi geiagorekin jokatu bear dala, eta jokalari guztien eskubideari erantzuteko ardura bardiñeko orekan” jokatu ezik “porrota bermetuta dagoela”.

Menpe joku irautasunean, berezko erri iltzailletasunaren ekintza orreikaz mundu oneri, zentzunezko ekintzan emoneko adierazpen ederrenetarikoa galtzen dira, eta gauza orreik atzerantza egiten dabezan jokoak izanez gain, badakigu norke-
riz bizi diranak gure dabela, eurak zeruko Jangoikoangan ez dabelako sinesten, sasijainko gaia, aragikeriz-
ko⁽¹⁾ likiskeria⁽²⁾ gurtzea gure dabelako.


Guk sinistu ezin geinken ainbat milloi urte daukaz Izadi⁽³⁾ onek, eta guzti ori jakinda, oraiñ asiko gara sasijainkoarenak egiten ?.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n Bagillaren 29an

(1) Aragikeria = carnalidad, lujuria, lascivia, fornicación. (2) Likiskeria = deshonestidad, suciedad, porqueria, lujuria.

(3) Izadi = Universo.





Galizia aldetik txangolari (2)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN

ASTE ONETAN, GALIZIATIK ZEAR TXANGOLARI IBILTEKO, ADIÑEKO ERAKUNDEAK AUKERATU EUSKUN OSTALETXEA.

2.000ko urtean Urtarrillaren 21ean, Galiziako Batzordearen lendakaria izan zan Iribarnetar Fraga, eta Gaztela Mantxako Batzordearen lendakaria zan Bono ta Martineztar Jose Antoniok, zabaldu eben Sanxenxoko erri politan lenengoz lau izarrezko goi-maillakin, I Karlos Silgar ostaletxea, gaurko denboratarako ederto atonduta dagoen ostatu ederra.

Ostatuaren Silgar izena, bealdean dauan ondartzatza ederraren izenetik artzen dau.

Logelak, argitasun andi, garbi, eta ikuspide ederraz daukaz, bere oge zabaletan lasaitasun guztiagaz atsegintasun ederrenean lo egiteko.

Jantoki zabala eta ondo apainduta, guri egun guztietako gosari, bazkal afariak, jateko plater ta maitresneri desberdiñekaz atara egiten euskuna. Eta baten batek geiago gura ba eben, serbitzariak gure inguruan egoten ziran prest, gure genduna oster emoteko.

Bai, baten batek ataraten euskuna osagilleagaitik debekatuta eukiten ba eben, beste janari bat ekarteko prest egoten ziran.

Bikain egon giñan zainduta ostaletxe orretan euren aldetik.

BEKO IBAIAK eta SANXENXOKO ERRIA.

Galiziaren Beko Ibaiak, peninsula onen Iparaldeko mendebalean kokatuta dagoz, Pontebedra ta A Koruñako lurraldearen bitartean, edo ta La Guardian dauan Miño ibaitik Portugaleko mugaraiño, eurak daukiezan edertasun guztiegaz.

Adela gure gidariak esaten eban: esan leike "Jainkoak atsedean billa, bere besoak ipini ebazala itsasadarrezko sarrera eder orreik egiteko.

Izpazter edo itsasertz orreitan lau dira daukazan itsasoko sarrerak:

- Korkubioneko ibaia edo itsasadar⁽¹⁾, Fisterrako lurmuturra daukena, eta Sallaseko ibaiaren urak artzen dauenak.

- Muros eta Noiako ibaia edo kresal obai⁽²⁾, Tambre ibaiaren urak artzen dabela.

- Arousako ibaia edo ugalde, Ullaren ibaiko urak artzen dauela.

- Pontebedrako ibai edo abai⁽³⁾, Lerez ibaiaren urak artzen dauanak.

(1) Itsasadar = ria. (2) Kresal obai = ria. (3) Ibai edo abai = ria.

-Eta Bigoko ibai edo itxasadarra, sarreran Ziesko ugarte ederrak daukezanak zain, eta San Simonen kolko antzeko erdian San Simon ugarte. Ospe andiko Sanpayoren zubia, bertan borroka andia egon zalako Napoleonek eroan ebazan gudaloztearen aurka.

Aberastasun aundia daukie lau itsasadar orreitan.

Sanxenxoko erria:

Sanxenxoko erria, Benturerako mendi egaletik itsasoaren ertz edo ondartzara beratzen dan 42'3Km²ko zabalkundean kokatuta dago, eta bere garrantzizko auzotasunak, Billalonga eta Portonobo dira.

17.377 biztanle daukaz, 2.008an Iraillaren 7an egin zan biztanle lerrotik artuta, udan, oporretako jendearekin 100.000ra eltzen dirala.

XXn gizaldian euki dauz erri lez bere aldaketa guztiak, portuen egokitasunagaz, etxeak, zugazti ta lore baratzak, kale egalak ta ibilteko leku ederrak askeneko 30 urte onetan geien, erria eurentzat eta txangolarientzat atsengintsu eginda. Bere erri biztanleak Galiziaren erri guztienak baiño geiago ugaritu dira.

Galiziak daukan oiana gurelangoa da, eta lurrak emoten dautsoezan obariak be bai, baiña erdi ugarte edo peninsula onen Ipar Mendebal orrek beste Atlantargi zuriago bat dauka, lur eta itsasoari edertasun berezi bat emoten dautsona.

Sanxenxoko erritarren ogibidea, baratz, itsasoko kolkoetan daukiezan aizlau⁽¹⁾, arrantza, eta txangolarien etorkera geien da.

Jauntxo, lurraren jabedunak, diruzaleak, edo ta ameriketatik aberastuta etorri ta Ibar zabaletan egiten ebazan pazo edo arrizko jauretxe ederrak be badaukiez, geienak ondo zaintzen diranak, eta XIV gizalditik leen jaiotzaren ondorengoan datozenak.

Sanxenxo, orreoz beterik dago antziñako etxe inguruetan, eta ederrena Martinez ta Rodrigetzar Inaziorena da.

Albariño ardo zuria da bikain edo ardo ona daukiena, otz eta urteko egintzan edo bigarrenekoan geien luzetuta edaten dana.

Sanxenxoko erritarrak badaukie, 1.878an jaiio eta 1.927an Santiagon il zan Piñeiro gizandia be, erriari bere egazkiñagaz izen andia emon eutsona.

Itsasbazterreko erri polita izanez gain, antziñakoa da, Ptolomeok K.o. II n gizaldian⁽²⁾ aipatzen dauena.

(1) Aizlau = batea, bandeja. (2) Ptolomeo = 100-178 d.K.





A Lanzadako itsasmutur txikian dauan antziñako gaztelua, bir eraiki zan mauritarrengandik babes-teko, eta K.a. 1.000 urte inguru an egon zan Fenizioaren arri lantegi zar bategaz be baliotu ziran.

XVIIIIn gizaldian bizi zan Kornide gaillegu jakitunak esaten dau, orko gazteluaren inguruan, Lambriaka izenagaz erritxo edo leiñu auzo bat egon zala, Ponponio Melak⁽³⁾ bere idazlanetan aipatzen dauan lez, Fenizioak kokatu ta keltiarrak joan orduko, euskaldun ziranak.

Euskaldunak zirala esaten dot, orduko erdi ugarte au euskalduna izan zalako, gaurko jenetista ta iker-tzail edo aztertzaile jakintsuak esaten dauan lez.

Olan izan bear izan eben, erromarratarrak gudaren erasoka agertu ziranean keltiarrak gure artean aienatu ziralako, eta Galizian euskaldunak eurekin.

Auek len esan dogun lez, Ekialdetik etorrita, naiz jakintzan euskaldunak baiño aurreratuago egon arren, bardin antzekoak izan ziran demokraziz-

ko askatasun zentzuan, eta erri biak, erromatarren odoljariozko gudaren erasoan aienatzeko arriskuan egonda, ondo konpondu ziran.

Or, ez litzake egon bear iñoren zalantzazko arritasunik.

Arritasunezko gauza bat ikusten dogu emen baiña, edestilari maltzurak, euskaldunak sekula bizi ez ba ziran lez, edo keltiarrak ariñago agertu daitezcan, oraiñarte mundu onen berezko errien aurkakoak diran fazizta irabazleen alde kokatuta, aurkitzen diran Paleolitikoaren arri landuen arrastuekaz, zalantzan ipinten dabela keltiarrak ariñagokoak ez ba ziran izan.

Euren izkuntzan ta arrietan be badaukiez gauza geiago, "Iri" "Ar" eta abarreko euskal itz, ta ilobiko atz edo arrastotik daukiezanak, zutik ipinitako "antas" edo "orcas"eko arri andiak, "dolmenak", "tumuloak", "kromletx" eta abar.

(3) Pomponio Mela, idazle ta lur-jale Ibero-latinoa = Igo gizaldian bizikoa.

Dana dala, Pontebedra, Bigo, eta Arousako itxasadar orreitan Beko Paleolitikoaren aldiaren euskaldunek egiten ebazan antzeko, edo ta eurak egineko ainbat aurpegi bietatik landutako arriak aurkitu dabaz.

A Lanzadako itxas bazterrean, Paleolitikoaren aldiko arri landuak aurkitu ziran, Frantziako Saint Atxeulen⁽¹⁾ euskaldunak eginda aurkitu ziranen bardiñ antzekoak, eta Pontebedrako erakus tokian, Galiziako Nantesen aurkituta goiko Paleolitikoan⁽²⁾ ziratu edo dirdirazitako⁽³⁾ arri landuak erakusten dira.

Eta A Lanzadako itsasmutur orretan eurak mauritarrengandik babesteko eraiki eben gaztelua, gaur barriztu edo barriz eraiki eben ondoan, jausita dagon Ama Birjiñaren basiliza, erdiaroko denboratan Konpostelako Santiagoren mitrazkoa izan, edo ta apezpinkuntzaren gaztelua izan zana be erakusten dabe.

Galziarrak, tupiki edo borontzezko eta burdiñezko gauza asko daukiez, Ekialdetik eurak ekarri ebelako gauza bi orrein aziera edo jendekuntza⁽⁴⁾.

Kastro, leiñuaren gudatzabolak edo gudar etxauntza asko dagoz Sanxenxoko errian: A Lanzadako Oteiro das Lapasen, Nantesekoa, Seixomilekoa 149m. daukazenak goi aldean, Adinakoa Faromendian, Dorronekoa, Paxariñasen Elmo, eta Portonobokoa, Portonoboren berriztasunezko zabalkeran ezereztu zana.



Sanxenxoren Noallako auzotasunean eta fenizioak eginda XVIIIIn gizaldiraiño eldu zana, gatzaren garrantzi andiko meaztegia⁽⁵⁾ be euki eben, arraiñak idortu edo legortuta gero gatza emonda, Erdiko itsaso edo Lurrarteko itsasoaren itsas baztarretan saltzen ebezanak, Adalak erakutsi euskun, eta Sanxenxo orregaitik izan zala jende askoren erria esan euskun.

Sanxenxoren garrantzi andiko edestia baiña, XIIIn gizalditik asten da, Gelmirez

gongotzai edo artxapezpikua bere feudojauntzutasunagaz, batzuetan Urraka erregiñaren alde eta beste batzuetan aurka ibiltzen zana, jauntxuen alderdikeri jokua zelan izaten zen beti kontuan artuta.



(1) Saint-Achel = achelense. (2) K.a. 35.000-10.000 urte. (3) Arri ziratu edo dirdirazitako = piedra pulimentada. (4) Aziera edo jendekuntza = civilización, o, conocimiento en la labor de esos dos metales. (5) Gero Arousa-ko ugartearen be egin ebena.



Argi dago, keltiar edo gallegoak, euren adierazpen ederra emon dautsela bizitz oneri.

Gaur baiña, edestiko bizi luzearen ikasbidetik euren baitaren sinismena nortasunean oiñarrituta, eta askatasunaren demokrazizko giza eskubidean ikasitakoakin erperatuta egonda, ainbatetik basne edo zorne⁽¹⁾ antzeko bat sartu jakiela galiziar askori ikusten dogu.

Santiagoren guzurrezko asmamenaren naste orreitan eta ainbeste menpeko ekintzagaz gogaituta beste urten biderik ez dabelako ikusten, esan lei nortasunezko baitari ekanduzko zentzuan jaramon egin barik diruagaz maitemindu dirala, eta gogaitasun orreitan, PPko agintearen eragipenezko eritzian ostonduta ibiliaz, Franko fazizta "Nacional Katolicismo"aren menpetasunezko liberaltasun orren illunpean dagoz.

Ez dabe gureko galiziarrek argira urten nai ?

Eta euren Biltzarrean ikusten dan gauza argia da, PPkoak 9 autatukoakaz danok baiño geiago daukala, B.N.Gk 4, P.S. 3, eta askatasun bidetik dabi zenak ezarleku 1 bakarrik daukielako.

BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagilla-*re*n 9-an:

Goizeko 7retan urten gendun Zorrontzatic Lourdes, ni, eta Maite bigarren alabak berebilla eroaten ebala Bilbaoko termibusera joateko, eta an Rias Baixas Adiñeko antolakuntzaren berebil busera igonda, Galiziara joateko.

Busaren gidariari Tito izenagaz deitzeko esan euskuen, eta bidaiaren zuzendari edo gidariari Adela.


Bien aldetik, ez gendun euki zentzun andiko arrera edo arreman onak baiño, eta Adelaren aldetik, bidai guztian egin ebazan adierazpen zeatz bidetik, Galziaren edertasuna argitasun andiagaz aurkeztu euskun.

Ez gendun bear geiago, Galzatic txango au atsegiñezko zorionean egiteko.

Bidean, gaurko legeekin berebilbusen gidariak egin bear ebazan ordubiko geraldialk egin genduzan:

Bata, 10k ogei gitxiagoetan Burgoseko Arias Serrano bideko ostatuan geratuta, eta garbigelara joanda

(1) Basne edo zorne = *podre, pus.*



gorputzaren bearkuntzak egin, ogi tartekoak eta akita artuta 10etan busera igoteko.

Lourdes eta ni, ogi-tartekoak jaten egon giñela kontutatu gintzazan, argazkiak atarateko gaillua etxean itzi gendula, eta busera igon gendunean Mari Lourdes alabari deituta, Lourdesek urrengo egunean argazki gaillua oterera bialtzeko arduratu eban.

Bigarrena 12etan, bideko Kastro Gonzalo 2garren zenbakiko ostalean ordu erdian geratuta.


Emendik aurrera Gaztelatik bidean goazela, arrigarrizko gauza bat ikusi gendun, tximist indarra garraiatzeko bidean ikusi genduzan zutoin guztien gaiñean, amiamoko edo zigofiaren abiak egon zira-la, bakotza bere kumeagaz gurazoai itxaroten.

1 1/2etan Puebla de Sanabriara eldu giñan, Hotel Meleirosen: baba zuri, arteki edo zerra⁽¹⁾, eta sagar edo laranjarekin bazkaltzeko.

2 1/2etan busera igon gendun eta Sanxenxoko bidea artuta, Ourensen, Ribadabiako gazolindegira 4rak eta 1/4renetan elduta, gorputzaren egin bear genduzenak egin eta 4 1/2ak ziranean busean egon giñan ostera Sanxenxora joateko.

6 1/2etan eldu giñan zortzi egun zoragarrietan gure etxea izango zan Sanxenxoko I Karlos Silgar lau izarrezko arrotzetxera, eta giltzak artu ta gelalara joanda, eroan genduzan jantziak euren lekuetan apaindu ta garastailu⁽²⁾ azpian kokatu apur bat uragaz turrustatu gorputza ozkirrutzeko, 7 1/2-etan kaleratu giñan ondartzaren ingurutik Sanxenxoko erria ikusteko gabeko 9rakarte, afaltzeko ordua izan zen arte.

(1) Arteki edo zerra = filete empanado. (2) Garastailu = rociador, ducha,



Lourdes eta ni, azken eldu giñan ostaleko jan tokira, eta leku bi utzik egon zan maian ezarri giñan.

Mai polita osotzen gendun, Adela ta Alfonso, Pedro ta Nati, Jesus ta Eba, Felix ta Karmen, eta Lourdes ta nigaz, janarietan gure solas aldiko berbaldiak, garrantzi andiko zentzunetik txantxako berbaldira aldatzen ziran ezeren eragospen gabe, eta zortzi egun onen maikidearen adiskidego egokitasuna oreka gozotsu baten iraun eban.

Bardin sortu zan beste maikideakaz, kalera eta busera urten gendunean gure artu emon onak nabarrituta.


Apal edo afaritzeko, plater bete ur-zorri edo kiskira aundi, edo ta marizkira txikiak⁽³⁾, atara euskuezan olio ta berakatzakaz erregosita, ortuari mota askogaz egindako salda edo zopa, arraiña erregosita Bruselaseko azakin, eta budiña⁽⁴⁾, janariari laguntzeko, gura gendun ribeiro ardo zuri ta uragaz.


Solaseko mintzaldi ederrean afaldu ondoren, ogera joan gintzazan 11k ¹/₄ren gitxiagotan.

Atutxa-tar Paul

Zornotza-n 2.011-n Bagilla-ren 30-ean

(3) Ur-zorri edo kizkira andi edo ta marizkira txikiak = (camarones) quisquillas grandes, o, gambas pequeñas. (4) Budin = flan





Galizia aldetik txangolari (3)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN

BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagillaren 10.

Goizeko 7retan jagi giñan, gure gorputzak atondu-ta 8rak eta ¼renetan gosaria artu ta berebilbusera igoteko.

9retan urten gendun Pontebedrako lurraldean Baionara joateko.

Inguru polit au busetik ikusten joan giñela, Adela gidariak esan euskun: Jainkoak besoak ipini ebazala eskuak zabalik, Galizia-ren Mendebaleko Itxasbater orreitan, kresal obai eder orreik agertu zitezten.

Monrreal mendia ingurutzen dauan orma edo ta arresi orren bealdean dagon, A. Ramallosako erri-txoan, erdiaroan egindako zubi ta Ladeirako ondartzatik sartzen da Baionako Uri⁽¹⁾ eder orretan.

Ondartzak.

Baionak: La Ladeira, Bardeira, Kontxeira, Ribeira eta Santa Mariaren ondartza ederrak daukaz, geienetan ikur urdiñagaz egoten diranak.

Mendiak.

-A. Groba mendia, bere goialdean 634m. daukanak, eta bere mendirakoi edo basati lurraldetan, ainbat basazaldi daukanak, eurakaz urtero egiten dabezan "kurro" edo "rapas das bestas"eko jai ederrak ospatuta.

Mendiko ikusmen zabal ortatik, Baionako golko⁽²⁾ ta Bigoko ugalde edo kresal obaiaren⁽³⁾ sarreran Zieseko ugarte bi ederrak ikusten dira.

-Beratsuago San Roke mendia dago, 1.910ean erri-tarren diruakaz bere goi aldean eta sekulako begiratoki ederrenean Palazios etxegilleak zuzenduta, Arkaitzeko Ama Birjiña egin eben arrantzaleak zaindu egien.

Arkaitzeko Ama Birjiñaren jai orretan, ainbat sardiña eder erreta zabaltzen dabe ospakizun orretara joaten diranen artean.

-Eta Do Boi mendia, Monterreal edo Monrrealeko izena daukana.

XIn gizaldian egiten asita daukan gaztelu ederra, 3 km. inguruko orma sendo bategaz esi edo ingurututa dago

(1) Uri = villa, ciudad. (2) Golko = ensenada. (3) Ugalde edo kresal-obaia = ria.

Edestia.

-Baiona, K.a. 140 urtean Etoliako Diomenes, naita ariñagotik erri edo leiñu izan arren, erri lez irasi zan, erromatarrak bertan kokatu zitezzen.

Eta Bere edestiko bizitzan: Stuziana, Abobriga, Balzagia, eta Erizanaren izenak euki ba dituz, Baionaren askeneko izen au, Urraka erregiñaren seme eta Gaztela ta Leoneko errege VIIIn Alfonsok ipini eutsen.

-1.201ean Gaztela Leoneko IXn Alfonso erregeak emon eutsozan erri izateko eskubideak⁽¹⁾.

-1.370ean Portugaleko errege I Fernando sartzen da Do Boi mendi orren gaztelu ederrean, bere errege aulkia bertan ezarrita, areik eta gaztelarrak ostera sartu ta berrezkuratu arte.

-1.474an Alvarez de Sotomayortar Pedro Kamiñako kondea "Pedro Madruga" ren izenagaz ezagutu zanak, artu eban zoritxarrez Monrrealeko gaztelu ori, bere babesle egon ziran geienai samak ebagita.

- Do Boi mendia da Baionako edestiaren erdigune, eta 1.497an errege katolikoak emon eutsen Montreal edo Monrrealeko izena, XIIn gizaldian eraikiten asi eta 3 Kilometruko orma sendo bategaz inguratuta egin eben gaztelu ederragaitik.




Gaztelu eder orretan gaur, txangolaritzaren espainiar aberrizko konde Gondomar ostaletxea⁽²⁾, eta erritarteko iate edo yate-aren biltoki ederra dago⁽³⁾.-


-1.493an Epailaren 1ean, Baionako portua izan zan lenengoa jakiten, Kolon-ek zelan argitan jarri eban Amerika, Alonso ta Pinzontar Martin "Pinta" itxas ontziagaz Baionako portuan sartu zalako lenengoz Ameriketatik itzuli zanean.

-1.974an jarri eben egun ori jai lez, eta andik gaur arte, urte guztietan ospatzen dabe Erdi Aroko jai itxuran, zaamiolari edo zarrabetariak⁽⁴⁾ eta xiribikalariak⁽⁵⁾ xirolarru edo zorro soiñu ta tanboliñak jotzen, orduko eder zaleak egiten ebazan tresneriak saltzen, orekari⁽⁶⁾, inkaminari⁽⁷⁾ ta abar.

Zapatuko arratsaldean Pinzon bera agertu zan eran antzeztuta, eta ospakizunaren amaieran, urrezko domiñakaz sarituta, erri aldaren jakintzagaitik ardura-

(1) Erri izateko eskubideak = *concesion de carta puebla*. (2) Txangolaritzaren espainiar aberrizko konde Gondomar ostaletxea = *parador nacional de turismo konde Gondomar*. (3) Erritarteko itsas ontzi eder edo yatearen elkartea = *club internacional de yates*. (4) Zarrabetariak = *gaiteros*. (5) xiribikalariak = *tanborreros, atabaleros*. (6) Orekari = *equilibrista*. (7) Inkaminari = *prestidigitador*.





tu diran pertsuna edo elkargoak, Baionako erriagaz anaituta dagozan Mugako Palos, Granadako Santa Fe, eta Pornikeko Udalaren ordezkariakaz agintezko egintzan.

Baionako errian ospatzen diran jaiak.

- Urte guztiko astelenetan ospatzen daberen Sabari-seko azoka jai.
- Mougaseko kurro, basa zaldiekaz egiten daberen festa, ostean mendi jai eder bat ospatuta.
- Andra Mari Martxoko arrantzaleen jai eguna, "ez-patadantza"ren jantzakin ospatzen daberen eguna.
- Pontebedrako lurralde guztietatik joanda, antziñatik urte guztietako Iraillan ospatzen dabe Kosme ta Damian anaiaren jai.

Oroikarriak.

-Bere oroikarrietatik, XIIIen gizaldi erdian erromantikotik gotikoren aldaketara egineko lekaimearen

ikastetxeke eleiza bera, eta barruan daukazan arkupe ta bere gainean argibae edo leio borobil ederrarekin.

- Santa Liberataren otoiz tokia, aldare buruan beren bizitzaren aldiak, izaerazko irudi ederretan itxuraturuta dagozenak.
- XVn gizaldi azkenetan edo XVIen asieran eginda, erromatarren arbidetako arkaitz baten gainean eta Uriaren sarreran Irukoitz Deunaren gurutze gotiko ederra.
- Dominika lekaimetxean eleizaren aldare buruan arranditsu⁽¹⁾ daukan erretaula ederra.
- Espainiar jatzintzazko arlokoak aginduta, Kastrotar Pedoren enparantzan tupiki edo borontzezko irudian dagon Pinta itsas ontziaz oroigailua.
- Eta gaur eguneko lan bikaiña itsas bazterrean El-duayeneko ibilguneagaz egin dabena.

Sukaldaritza.

-Oso aberatsak diara itsas-mozkiñetan, euren azitegiko itsas lanarekin otarrain, muskuilu, ostra,

(1) Arranditsu = ostentativo.

ondartzazko txirlategi, irmiarma edo paitela⁽²⁾, txangurru⁽³⁾, nekora, itsasbei, abakondo⁽⁴⁾, izkira⁽⁵⁾, ur-zorri⁽⁶⁾, ondarrota⁽⁷⁾, itsaspiru edo lanperna⁽⁸⁾ eta abar, gozo ta ugari jaten diranak eurak kanporatu egiten dabezan errietan ta Galizi osoan.

-Arraiñetan be oso aberatsak dira, miiarrain edo itsasmii⁽⁹⁾, xardiñak, lupiñak eta errebolloak⁽¹⁰⁾ dira daukiezanak itsasoan eta itsasoko azitokietan ugari, eguneroko txango janari, arraiñak-arramarrilletan erre⁽¹¹⁾ jaiak alai ospatzeko, eta erritik kanpo ainbat saldu egiten dabezanakin.

-Eta mai azkenak gozotzeko, Dominika lekameek euren lekaretxean bakarrik eskuz egiten dabezan "gomendioak" "encomiendas" XVIⁿ arau⁽¹²⁾ bategaz.

Baionako erri zoragarri au ikusita, La Guardia erri polita ikustera joan giñan, gero bere Santa Teklako mendira joateko.

Arrigarrizko tokia au be.

341m daukaz goi aldian eta La Guardia erri ta berak daukan eleiz nagusiaren Ego Mendebalean kokatuta dago.

Antziñatik dago bere mendi gaiñean toleztasuneko baseleiza bat Tekla Santuari eskañita, erromatarrak K.o. 46ko urtean "Ikoniun'eko Asauria"⁽¹⁾ odol aitortzan edo martiri il ebelako.

Tradizio edo erriaren aojakintzak diño, bakarti edo eremutarrak⁽²⁾ siñezgaitzeko eleiz edo jauretxe gaiñean eginda dagoela.

Eta bere arkeologu kondarrezko lorratz edo arrasto lez VIIⁿ VIIIⁿ gizaldiko germaniar gizon antzeko arrillobiak, zapelak⁽³⁾, gurutzak eta abar.

Gaur eraikita dauan baseliza XVIⁿ gizaldikoa da, eta daukazan edapen edo zabalpenak, geroagoko aldi ezberdiñetan eginda dagozenak dira.



(2) Irmiarma edo paitela = centolla. (3) Txangurru = centollo. (4) Abakondo = bogabante. (5) Izkira = camaron pequeño, quisquilla. (6) Ur-zorri = camaron, quisquilla. (7) ondarrota = quisquillon grande. (8) Itsas-piru edo lanperna = percebe. (9) Mii-arrain edo itsas-mii = lenguado. (10) Errebollo = rodaballo. (11) Arramarrilletan = parrillas. (12) Arau = fórmula. (1) Ikoniun'eko-Asauria'n = en Asia Menor. (2) Bakarti edo eremutarrak = anacoretas, ermitaños. (3) Zapel-ak = capiteles.



Baseleiza au, beren aldare barroko, margoztutako olak, erliki, zizel irudi eta abar, mendi orren gainean dagozan O Fatxo ta San Franzizko mendi zorrotz bitartean kokatuta dago.

Azkeneko mutur orren San Franzizkoren tokizen⁽⁴⁾ ori eukitea, Prantzizkotarrak XIVn gizaldian eta gero be, A Insua ormaz esitako ugartean euki eben lekaretxe edo lekaima eleizaren oroimenean dauka, Miño ibaiak bere urak botaten dauazan lekuan. Ibaiarte ori egiten dan tokia gaur, Portugesa da.

Beste O Fatxo mendi mutur orrek baseleizagaz be, bere eragipena dauka, bere itz sorkuntza latinezko Fax, cix'etik datorrena eta argi edo dorre argi, su, sutzar, zuzi, eskuzuzi, edo galizieraz fatxoeira esangura dauana.



Bertan oroigailu bakan⁽⁵⁾ bat dago, ormako margooial bat 5metruetan gorantza joaten dan erlaxe⁽⁶⁾ andi baten antzera eta txuntzur antzeko oroikarri txiki baten Kristo Erregeari eskeiñitako gurutzea, gizaldiaren aldaketa gogoratzeko.

Euskaldunen oitura lez, Galiziarren aojakintzak esaten dau, antziñako alditan mendi oien goialdean sua egiten zal a, goitik ikusita agertzen ziran lur edo itsas aldetik edozein arrisku gogorretik erritarrak oartzeko.

Edo ta geienetan itxas argi lez, mariñel edo itsas gizonak portura bideratzeko.



Dana dala, erriko oroigailu edo ikur bi orreik, Santa Teklako mendiagaz ondo lotuta dagoz.

1.913an mendiaren goi aldera joateko egiten egon ziran bidean; agertu jakien keltiar erritxo bat, gaur garbi ta ondo zainduta erakusten dabena.

Lau alditan ibili dira Santa Teklako mendi ondarrak argira atarateko:

1a) 1.914-1.923ko urtetan, Kalbo Santzeztar Inazioaren agindupean.

2a) 1.928-1.933ko urtetan Merjelina ta Lunatar Kayetanoren agindupean.


3a) 1.952-1.972ko urtetan Fernandez ta Rodrigestartar Manuelen agindupean.

4a) 1.983an egin ziran azkeneko atzurketak, Peña ta Santostar Manuelen agindupean.

Adelak, 1.940an agertu zala esan eban, mendiaren goi aldean ikusi gendun Keltiarren erri ederrenetarikoa bat.



(4) Tokizen = topónimo. (5) Bakan = raro. (6) Erlaxe = almena, o cada uno de los prismas que coronan los muros de las antiguas fortalezas.



1.953ko urtetik onantza, Santa Teklako mendi goi aldean dagon museo edo erakus toki ederrean erakusten dabez, inguru orreitako aldi ezberdinetan ondalan egin ziran aitzurraldietan agertutakoak.

Oraindiño geiena argira atara barik dagozela esan euskun Adalak, gerorako itzi ebelako.

Santa Teklako mendian ospatzen diran jaiak.


“O boto” da garrantzi andiko bat, eta 1.335etik Jasokundearen urrengo astelenetan urtero gizonak bakarrik ospatzen dabena, Ama Birjiniari agindu edo eskeiniitako itzak, ura ta ogia bakarrik janda bete egiten daben eguna, orduko urtearen agorraldi gogorak gogoratzen.

Iraillaren 23an Santa Teklaren omenez ospatzen dabe bigarren jai eguna, lenengo gurutze bidea, Meza nagusi, predikaldi, eleiz bira, eta azkenez Santa Teklari eurak eskaintzen dautsoezan itsas ta lur mozkiñak.

Eta Abenduaren 26an “San Esteboren Xubileoa”.

1.913ko urtetik onantza ospatzen dira jai guzti oneik “Pro Monte”ko erkide batek asmatuta.

12 1/2etan urten gendun Sanxenxorantza, eta bidean goazela La Guarditik urten barik, XVn gizaldian egindako San Lorenzo de Salcidosen eleis nagusia, 1.576ko urtean Torkemadatar Diegok egineko Santa Mariaren eleiza, XIXn gizaldiko Santa Isabel de Camposancos-en eleiza, eta 1.558ko urtean Beneditarren lekaimentzat Korrea Ozores eta Sotomayortar Albarok egindako eleiz ederra, gaur ostaletxe biurtute dagoena eta abar.



2 eta 1/4renetan eldu giñan gure ostaletxera, eta muskuilluak⁽¹⁾, dilista edo txilistak⁽²⁾, oilasko, eta maillukien musa mai azken lez janda gelara joan gintzazan.

4 1/2etan urten gendun barrero Pontebedrara joateko, eta bertan gagozela eleizak eta daukan erakus toki ederra ikustera joan gintzazan.

Pontebedrak, Pontebedrako ibai edo abai, Lerez ibaiaren urak artzen dauen izena artzen dau, "Boa Vila" bere uri nagusi lez daukala.

Antziñako lurraldea da, eta beti euki edo eroan eban garrantzi andiko sal erosketaren itxasoketak XVIIIn gizalderarte. Eta gaur ondo eginda daukazan gauza ederragaitik, Pontebedra atsegiñezko Uria da.

1.936ko Frankoren guda ostetik, egur lantegi bat errekatik gorantza eta berantza kizkingai edo zerulosako lantegi bat, biak ibai uragaz oso kutsarazle ziranak eraiki ziran.

Erriko berezkitasunaren arduradunak kutsa erazle lantegi orrean aurka erasota, lenengo lantegia zarratu eben eta bigarrenari 2.018rarteko epea ipini eutsoen zarratzeko.

Eleiza asko daukaz ondo landutako arriagaz eginda, Santa Mariaren Eleiz Nagusi bezela bere arrandizko eleiz aurre ederrakin, XII-XIV gizaldekoko San Franzizko eta Santa Klara gotiko itxuran eginda eta San Bartolome guztiz barroko itxurazkoa.

Erri erdian, burni olaren enparantza dago eta bere ondoan Erromeseko Ama Birjiñaren Santutegia, XIV eta XVn gizaldiko Santo Domingo eleizaren ondamenak edo beragandik geratzen diren ormak, eta daukan erakus toki ederra.

Erakus toki eder orreitan, bitxi eder eta gure edestiarren aurreko tresneriak, aldiko eta gaurko margoagaitik asita, Ribalta, Ribera, Zurbaran, Murillo, Beronese, Lukas Jordan, Tiepoloren margoziak, eta galiziarren trebetasunezko lanak, itsas untzien ainbat gelarekin, itxasontzi baten kapitaiñaren gelan amaituta.


Pontebedrako alde zaarra, baleiteke ederrena izatea Konpostelako Santiagoren ostetik.


-Gailleguen nortasunezko izatasunaren aurka jotzen dabenak, IIIn Felipek esaten ebana agertzen dabe espainieraz margoztuta agertu daiten lurralde guzti ori. Bere esanetan: "eukezan erreñuaren giltza izan bazan lez" gaur "Galiziaren Txangolari giltzak dirala" esaten dabelako.

7retan amaitu gendun erakus tokiaren erakusketak, eta 9retan joan giñan gure ostaletxearen jan gelara, arrain zuku, zopa, edo salda, arteki edo zerra lodi bat patata prijidu, kipula eta piperrakin afaltzera, gaiñean opil gozo baten zati eder bat janda eta atsegitasunezko solazketa bidez, 10etan irripar ogera joateko.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Uztaillaren 14an





Galizia aldetik txangolari (4)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN



BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagillaren 11.

7retan jagi giñan 8rak eta 20 minutu ziranean gosaria artu ta 9retan busera igonda Konpostelako Santiagoren Eleiz Nagusia eta Konpostelako erri inguruak ikustera joateko.

10 1/2etan eldu giñan Konpostelara, eta Santiagoren Eleiz nagusiaren aurrean asi jakun Adela Adiñeko gidariak, bertoko andre gidari bat eskubidedun lez aurkezten, berak erakutsi ta adierazpendu egiezan Konpostelan ikusi bear genduzenak.

Santiago Apostolua.

Nor izan zan Santiago apostolua ?.

Nik daukadan iztegian esaten dau: Zebedeoren semea zala, eta San Juan ebanjelariaren anaia.

Erdi ugarte edo peninsula onetara etorri ta Jesusek irakatsi euskuzenak zabaldu edo aldarrikatu ebazala, eta Zaragozan⁽¹⁾ egoala, zutarri⁽²⁾ baten gaiñean Ama Birjiña bizi zala agertu ei jakola.

Santiago Jerusalemenera ostera itzulita, 44garren urtean I Erodes Agripak arrapatu ta atxilotu ondoren lepoa moztu utsola, eta beren gorputzeko ondatkiñak Konpostelako Santiagon dagozela.

(1) Zaragoza = Orduko denboratan "SALDUBA"ren euakal izena euki ebena. (2) Zutarri = pilar de piedra.

Eta 2.011an Uztailaren 25an gure egutegi takoak dakarrena. Uste dot gure Olazartar Martin apaizak, eleizako kondairatetik artuta idatzitakoa dala, eta auxe esaten dausku:

"Galileako arrantzaleen artean Jesusek Beragaz ibilteko aukeratu ebezanetariko bat Santiago dogu".

Barru beroa zalako edo, Jesusek Berak ipini eutson trumoiaren Semea izena, Juan bere anaiagaz batera.

Bero aldi baten, Samaritarrak Jesuseri ostaturik emon gura izan ez eutsoenean, euren aurka Zerutik sua jatsitea eskatu ebalako ezarri eutson izen ori.

Santiago izan zan bere fedeagaitik lenengo odola isuri eban apostolua, Apostoluaren egiñak deritxon San Lukasen liburuak diñoanez.

Antziñako edesti zarrak diñoanez, Espainara etorri ei zan, Konpostelara, lurraren azken mugara, eta Zaragozan Andra Maria agertu ei jakon oraindiño mundu onetan bizi zala.

Edesti guzti au gaur ez daukie egitzat kondairazaleak, baiña eundaka urteetan Konpostelako eleiza ibiltarien elburu lez dogu.

Nik Konpostelan erosi neban, Konpostelako Santiagoren liburutik: "Còdice Calixtino. Libro V. Capitulo III"tik artuta dagoena, kondairan asieran esaten dauana aurkeztuko dautsuet.

Konpostelan ez zan egon ezer eta gitxiago Santiago ezagutu, arik eta IXn gizaldian beren izena katolikotasunezko erlijioaren bidetik, zabaltasunezko ospe aundia artu arte.

Konpostelako edestiak esaten dauan lez, "Iria Flavia"ko Teodomiro gotzaiñak Pelayo eremutar edo bakartiarrengandik jakin ebala, zelan urbilleko basarte baten gaba askotan, izugarri edo ikusgarritzko gauzak sortzen zirala, eta aingeru bat be agertu zala inguru orreitan.

Teodomiro bere jakin-miñean, bertora joan zan eta sartuaz batera Zeruko argiak ikusten joan zala, sasi arteko inguru baten arnabar edo arbiziko illobi⁽¹⁾ bat aurkitu eban.

Aingeruak izango ote ziran, Jerusalemetik arnabarrezko illobi ori, aizetik Konpostelara eroango ebenak orduko denboretan ?.

Dana dala, Teodomiro gotzaiña bereala joan zan, orduan Asturias eta Leoneko errege izan zan II In Alfonsogana⁽²⁾ esaten zer ikusi eban, eta Alfonso poztasun andi baten, an inguruan egon zan eleiza birreskuratu ta edertuta, ararte Iria-ko gotzaiña izan zana Konpostelara aldatu eban.





Ortik aurrera ipui edo ta elezarrak ugaritu ziran zabaltasunezko eztanda aundi bat lez, eta Europa guztitik asi ziran Santiagorako bide barriak zabaltzen, arik eta Eleiz Nagusi ori bir-eraiki zanetik aurrera, bere goi maillako ospe aundiena XIIIn gizaldian lortu arte, Europako errege ta katolikotasunaren erlijioak mauritarren aurka egin ebezan alegiñekaz gurutz gudaren zabalkundezko aldarriketa bidetik.


Gaur be ortxe dabil jendea, baiña erlijiozko berotasun barik, dakigulako danok ipuin bat baiño besterik ez dala, katolikotasunaren ingurukoak izan ezik.

Nik, taldean ikusten ta entzuten giñeazela gidariak esaten ebana, liburutegi bat ikusi neban eta aurrean daukadan liburua erosten nengoela, taldekoak galdu jatazan, eta aurkitu nebazanean gidariak ordu beteko epea emon euskun, errian zear gure izan genduna egiteko.

Lourdesez eta nik, alaba, suin ta Josu billobarentzat txibiskeri⁽³⁾ batzuk erosita, edandegi batera sartu giñan, eta ondo egositako olagarroaren platerkada jan gendun

(1) Arnabar edo arbiziko illobia = sepultura, o, tumba marmorea.
 (2) In Alfonso 791-842 urte bitartean bizi zana. (3) Txibiskeria = chucheria, recuerdos sencillos.





Ordu bata zanean igon gendun berebil busera Sanxenxoko ostaletxera joan eta 2etan bazkaltzeko.

3 1/2etan bazkaria amaituta igon gendun gelara, eta arratsalde osoa aske itzi euskun lez, Sanxenxo erri ta Silgarreko ondartzatik ibili giñan ikusle, 8 1/2etan ostaletxera joan eta lagunakaz alkartuta, 9retan afaltzera joateko.

Gabeko 11tan ostaletxearen beko gela andi baten, eresi edo soiñua euki gendun zeozer artuta gure ebenak jantzan egiteko, eta geienak ordubatakarte egonarren, gu 12etan joan gintzazan gelara lo egiteko.

2.011n Bagillaren 12an.

7retan jagi giñan, 8 1/2etan gosaria artu eta 9rak eta 1/4renetan berebil busera igoteko.

Gaurko ibilbidean, Portugalen aldeko muga barruan dagon "Valença do Minho" erri politorren gazteluan, eurak eskeintzen dabezan eredu zko oroigailuak erosteko.

Eta erri ortatik itzultzen goazela, Galiziaren aldeko mugan dagoen Tui erri polita ikusteko.

Ori izan zan Adiñeko egitarauak esaten euskuna baiña Tuin geratu gintzazan, Adela gidariak obeto ikusten ebalako alderantziz egitea.

Tuy erriaren edestia.

Tuy, Pontebdrako lurradearen erri polit bat da, 66 Km karratuetan eta 13.452 biztanlekin inguru⁽¹⁾, Portugalen "Valença do Minho" erriaren mugako beste aldean, Miño ibaiak itsasoratu egiten dauazan beren uraren eskumaldeko mendi txiker baten gaiñean kokatuta dagoena, bere XI-XIIIin gazteluzko eleiza nagusiarekin, eta beste eleiza batzuek az barroko ta klasiko edo jator-tasunezko era barrian eraikita dagozanarekin.

Edestiko kondairak esaten dauan lez, Tui, Troyako gudan antzezlarri nagusi izan zan Diomenesek eraiki eban bere aita Tideoren omenez, eta orregaitik izen lez aldikadatan esaten eutsiela Tide, Tade, Tude, Tuda, azkenean Tuirekin geratu arte.

(1) 1.980ko urtearen baiña ariñago egin zan azkeneko autarki-errolakoan.

K.a. VIII-VIIIn gizalditik dator keltiar kastro guda-letxearen jendekuntza, beren ordezkoi irudi andiena Aloia mendian agertu diranakaz.

Erromatar edestilariak Tude ta Gaztelu Tide-gaz aipatuten dabe, Aloia mendian Grobio keltiar leiñuaren Uri nagusi lez aipatzen dabenean, gero Louro ibaiaren ondoan Buenabentura auzunera aldatu ziranak eta azkenez daukan lekuan kokatuta.

Tui-ren edestia sendoa izan da, K.a. 137an Dezimo Junio Brutok bere gudu indarrakaz lurralde orreik erromatar itxuratuten asi zanetik, Antonioren XIXn ibilbidea be izan zalako, "Brakara Augustatik asi ta, Lukus Augusti ta Brigantiuneraño.

K.o. IVn gizaldian Sueboak sartu ziranean, Tui erregetzaren Uri nagusi lez aipatzen dabe Rekiamundogaz, eta Vn gizaldian erromatarren aldiandian gotzaindegi ta Witiza bisigodo erregearen gortea be izan zan Monterreal edo Pazos de Reis-eko gazteluan. Biak egiten eben urrezko dirua.

721ko urtean, mauritarrak sartu ziran Tuin indarrez, arik eta 740ko urtean I Alfonsok berrezkuratuarte.

Normandoak be sartu ziran indarrez, 844ko urtean I Ordoñok bota arte, eta onek erria gizarte geiagorekin indartu eban.





IIIn Ordoñok gogortu edo sendotu eban erria

Tui daukan lekuan kokatuta egoteagaitik, erromatar, bisigodo, norbegiar, arabiar, frantzes eta portugalekoentzat leku eziñ obeagoa izan zan euren lapurrezko sarraldiak egiteko, arik eta 1.071ean D. Garzia errege ta bere emazte Urraka erregeñiak euren jar leku lez berreskuratu edo egokitu arte.

Bere Urizar guztia oroikarri bat da, eta daukan gauza ederrenetarikoetatik, 1.120ko urtean eraikiten asi ziran gaztelutako eleiz nagusia eta 1132ean bedeinkatuta gaur arte beren lanakaz lotuta etorri dana da.

1.170ean IIIn Fernando erregeak, San Bartolomen-go auzotasunean egon zan Tui Uri nagusia, len bere lekua izaneko gaurko lekura aldatu eban, berton egon ziralako gotzaindegi, eleiz jendearen jarleku ta eleiz nagusia, erria inguratzen ebazan ormak sendotuta portugaldarren aurka, eta baimena emonda jende geiagoagaz indartzeko.





Gaztelu Eleiz ori, ederra da daukan erromatar⁽¹⁾ eta mako edo uztai zorrotzeko⁽²⁾ itxuran eginda aurre aldeagaz, bertan apaindura ederrenean zizelkatuko Santu ta igarlariak edertasun guztiagaz aurkeztuta, Galizia guztian ederrena dana.

XVn gizaldian, zerga arau edo ordarauak batzeko agindu ebazan Murostar Diego gotzaiñak, Tui-ren portuko mugialdi andian, portu ta salerosle biltoki ederra zalako denbora areitan, eta ainbat lagunarte ezbardifiñak euki ebazanetik, judu erkidego bat batzartoki bigaz be euki eban, eta erritik Konpostelako Santiagoren Eleiz Nagusira joateko, berezko bidea be izan zan.

1.640an Portugalegaz borrokan ibili zanean, Uria inguratu egiten ebazan ormak aldatu ta egokitu ziran, orduko borrokaren aurkako babesak eskatzen eban lez, eta 1.664an Galiziako erreñuaren batzar nagusiak egin ziran bertan.

1.755eko urtean Lisboako lurrikara gogorrean, bere Gaztelu Eleiz nagusia erroiztu edo oldartzeko⁽³⁾ arrisku gogorrean egon zan, eta gogortu egin bear izan eben zutik iraun egian.

Bere barrua ondo edertuta daukie, XIV gizaldian otoiz toki nagusia egin ebenagaz, Koruan arlanduan⁽⁴⁾ egin ebena, eleiz nagusiaren lan ederrenetarikoa bat dana, eta XIVn gizaldian Ama Birjiñaren irudia jarritako umetxoagaz, etxandre lez esagutzen danagaz.

XVn gizaldian Santa Katalinaren otoiz tokia egin zan, XVIn gizaldian San

Telmoren otoiz tokia, XIIIn gizaldian bera il zan etxe gaiñean 1.769an asi ta 1.803ko urte bitartean egindako bere aldare buru ederragaz, beste erlikien artean Gonzalez eta Telmotar Pedrorenak daukanak eta abar.

Beste gauza ederren artean daukiena, XVIIIn gizaldiko Santo Domingo, San Bartolome, eta San Franzizkoren eleizazko lekaretxeak, XVIIIn gizaldiko Klarisaren lekaimetxea, Uriaren laguntzaille lez daukien San Telmoren otoiz tokia, Errukizko etxearen otoiz tokia, Udaletxeko enparantzan eta Eleiz Nagusiaren ondoan dagon eleiz-barrutiaren edestiko liburu ta agiriaren gorderakus tokia⁽¹⁾, eta mugan San Telmoren aberriko ostaletxea.

(1) Erromatar = estilo romanico. (2) Mako edo ustai zorrotzeko itxuran = estilo ojival. (3) Erroiztu edo oldartu = derrumbarse. (4) Arlandua = piedra sillar, o, de silleria. (1) Eleiz barrutiren edestiko liburu ta agiriaren gorde leku ta erakus tokia = museo archivero historico diocesano.



Tuin bertan be badaukie beste erriarteko gertakizun entzutetsu andi bat be, txalupakaz egiten dabena "Miño ibaiaren beraldia".

Tui, kokatuta dagon lekuagaitik, garrantzizko erria izan da Galiziaren edestian, eta orregaitik izan zan erregetzazko 7 lurraldearen Uri nagusizko garrantzi aldian, andienetariko bat, 1.833ean egin zan gaur daukien antolaketararte.

1.809ko urtean, Napoleonen gudal nagusi Soult mariskalak, kalte andiak egin cutsozan erriari, euren gudaltegi nagusi lez aukeratu ebanean.

Jendea Portugalera eroateko portuko txalupen lan andia, XXn gizaldiko azken aldian erriarteko zubia egin zan arte iraun eban, eta Santo Domingon kokatuta egon ziran salerosteko erosgai mozkiñak 1.940garren urterarte.

Bere auzotasunezko Udalaren barruan Aloia mendia bere San Julian basiliza be badaukie bereztasunez azitako zugazti ederrakaz eta 1.968ko urtearen

eskeroztik aberriko onaurki lez⁽²⁾ artuta dago, bertan ospatuta Atsekabezko⁽³⁾ Ama Birjiña eta San Julianen eleiz txango edo jaialdiak.

Oso polita da Tui-ko erria, eta geiago itxasoak emoten dautson edertasunagaz.

Gero oso polita dan "Valença do Minho"ko errira joan giñan erosketa batzuk egitera eta berebilbusera ordu batak lauren gitxiagotan igonda, gure ostaletxera joan giñan bazkaltzera,

4 1/2etan artu gendun busa ostera Pontebedrako lurraldean Poioko lekaidetxea ikusteko.

Poioko lekaidetxea.

Poioko erriak 33Km karratu daukaz eta 10.302 biztanle⁽⁴⁾.

Pontebedratik 4 km.ra kokatuta dago, arrian ondo landutako beneditinotarren San Juan lekaretxea⁽⁵⁾, 1.890eko urtearen eskeroztik merzedario edo me-

(2) Aberriko onaurki lez artuta = reconocido de interes nacional. (3) Atsekabe, estuasun, edo estutasunezko Ama Birjiña = Virgen de las angustias. (4) 1.980ko urtean baiño ariñago egin zan azkeneko autarki erroldakoan. (5) Eskorialaren beste esango neuke nik.



sedetako lekaideak bizi dirala, nobizioetxe, kultur edo erriajakintza, otoitz, eta ostaletxearen serbitzuko irabazian bizi diranak.

Kondairak, VIIIn gizaldian Bragako San Frutosok egin ebala lekaidetxe au esaten dau, gero ainbeste gizaldietan edertuten joan dana gaur arte, eta Santuaren azurrak Santiagoko Eleiz Nagusian gorde zirala gero Konpostelaren Santiagoko Kiroga ta Palazios kardinalak Portugalen dagon Bragako eleiz nagusira eroanda.

Gure denborako 940ko urtearen agirietan aipatzen ei da Poioko lekaretxea, eta iñork ez daki zelango itxura euki eban VIIIn gizaldian. Dakiena da, Xn gizaldian Fromariko beneditar ? apaizburuak barriz eraiki ebala, benediktinoak Xgarreneko gizaldiaren asieran asi ziralako zabaltzen, eta 942an lekaretxe orretan beneditarrak ondo antonduta egon ziralako berton.

Xn gizaldi orretan Europa osoan, danoren gogetan erabilten zan mundu onek milla urte bete egiten ebanean amaituko zala, eta, danak ikaratuta egon ziralako, orregaitik ainbesteko arremian estuak ezberdintasunezko lekaide ta gizartearen artean

XVI-XVIIko gizaldietan bere goi maillazko ospetasun edo ta ospekundetza Galiziako lekaretxeen artean lortu eban.

Bere liburutegian, 600 larrukizko agiririak eta 80.000 liburu baiño geiago dagoz, eta 1.978ko urtearen eskeroztik Pontebdrako lurraldearen Aldundiak lagunduta, "Erandoki edo mosaiku eskola ta ormagille edo argin eskola"ko jardueran irauten dau.

Eleiz ederra dauka, bere aurre alde arlandu ederean eginda, eta dorre bi barroko itxuran alboetan

inguraturik, gorpu bi aurkezten dauskuna, doriko bata eta korintio bestea, etxe guztia galleguen gaztelu edo jauretxearen antzerakoan.

Eta bere barruan, Santo Kristoren aldare burua, Balbanerako Ama Birjiñaren zizelututako irudiagaz, Santa Trasmunda bisigotikaren arrillobia, berau Kordobako espexetik aizeetatik zear aldatu zana bertoraiño, eta XVIIn gizaldian eginda, eleizbirak egiteko daukan kalistro⁽¹⁾ edo zimitorio⁽²⁾ ederra.

Bragako San Frutoso au 665eko urtean Jorraillaren 16an Montelinoseko lekaidetxean il zan, eta bere ikasle San Balerio, 695eko urtean Otsaillaren 25ean Monteseke San Pedoren lekaidetxean.

Bosterdietan urten gendun Poiotik Konbarroseko erritxora joateko.

1.973an Konbarroseko erria, edestiaren antzez edo artezko esparru lez⁽³⁾ izendatu eben, eta argiñaren erria izanez gain, ainbeste pelikula egin dira erri orretan.

Agudeloko San Martiñoren erromatar eleiza, eta beranduko gotikoan egindako Kurro parroki politak daukoz.


Itxasbazterreko erri polita da eta kale guztiak biltzen diran lekuetan ondo landutako eleiz-gurutz ederrak eta 30 azitegi edo gari ta artoak gorde egiten diran zeñ etxetxu antzeko ederrauak⁽⁴⁾ daukoz.

Zortzirak lauren gitxiagoetan urten gendun Kobarrosen erri politatik, 9retan gure ostaletxean irriparezko solaskerian afaltzeko, eta 11etan gelara lo egitera joateko.

Atutxatar Paul

Zornotzan 2.011n Uztailaren 30ean

(1) Kalistro = atrio, claustro, corredor, pòrtico. (2) Zimitoria = claustro de la iglesia. (3) Edestiaren antzez edo artezko esparru = recinto històrico artistico. (4) Azitegi, edo ta gari ta artoak gordetan diren lekuak = hòrreos.





Galizia aldetik txangolari (5)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN

BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagillaren 13an.

7retan jagi giñan, garbitu ta gosaria artuta 9retan berebilbusera igonda Bigoko Uria ikusteko.

Bigoko ugaldea, beste iru kresal obaiaren Egoaldean dago, Bigoko Uriak ortik artuta beren izena.

Bigo, itxasora begira bizi da, beren salerosle, arrantzale eta Atlantik-aruntzko edo Atlantik-andiko portuagaz.

Bigoko ugalde⁽¹⁾ onek, Arosako kresal obaiarena⁽²⁾ baiño txikerragoa da, urak baiña, askoz sakonagoak, sarrera Zies mitozko ta berezko zuaizpe lez adierazpenduta dagozan ugarteagaitik zainduta, eta bere itxasbazterrak, ondardi ta erri-poli askorekin edertuta.

Daukazan erriak Baiona ur-golko erri izenetik asita, Nigran, Kangas, eta Moaña.

Eta ur-bazter⁽³⁾ biak urbiltzen diran Rande itsas-estuan oroigailu bat dago, Olandar ta Ingelesaren aurkako itxas borrokan urperatu ziran 28 espainar itxasontzi andiagaitik, eroaten eben urre, zillarra eta balio andiko gurrakaz olandar eta Ingelesari ez

emotearren. Gaur zubi andi ta eder bategaz alkar-tzen dira urbazter biak.

Azkenean ostera zabaltzen da ualdeko itxasori San Simonen ur-golkoa sortuta, eta bere erdian kokatuta dago San Simonen ugarte.

Ortik aurrerako itxasbazterretik Billaboa, Sanparyoren erdimendeko zubia Napoleonen aurkako borrokan ospe andia artu ebana, Arkade ostra maxkur-zaleen langaiakaz, Souto Nagusia bere erdiaroko gazteluagaz, eta Redondelako Uria dagoz.

Bigok, 109 Km.karratuak daukaz eta 1.996ko autarki erroldan 286.774 biztanle zenbakituta, Pontebedrako lurraldearen Udala da, ta Tui Uriaren gotzai barrutikoa.

Erdi ugarte edo peninsula onek daukazan arrantzaileen porturik garrantzizkoena da, eta munduaren portu maillan seigarrena, arrain ezbaridiñak latontziratzekeo lantegi geien daukozenak, ikas maillan arlo geienetako ikastetxeak Santiagoko ikastetxe nagusiaren menpean, eta Kastroko mendi gaiñean dauan gazteluaren

zainpean dago eta Galiziako erri guztietatik, bera da geien zabaldu ta ugaritu dana.

(1)Ugalde = ria. (2) Kresal-obai = ria. (3) Ur-bazter = ribera.

Gaztelu au, birritan erasotu eban Drake itxas lasterkariak, bata 1.585an eta bestea 1.589an.

1.702an, eta oraindiño espainiarrak ondoriozko guda gogorrean egon zirala, Bigoko erri aurrean borrokatu ziran "franko espainola ta anglo olandar" guda ontzitaldeak, eta anglo olandarrak garaille urten ebelako, espainiarrak itxasperatu egin ebazan euren 40 ontzi andietatik 28 ontzi, urre gorri eta zillarrezko trozkoak⁽¹⁾ eroaten ebezanak, anglo olandarrai ez emotearren.

Gaur egun eta erriaren zabalkundea andia izan dalako, len albo baten egon zan Kastroko mendia, gaur Bigoko Uriaren erdian kokatuta dago.

Espainar enparantzatik Bigoko Uriaren barrura sartu gintzazanean, Olbeirak egindako zaldiaren oroikarri ederra aurrena ikusi genduna, izan zan.


Badaukaz beste berezko ikustoki ta ikusi leikezan gauza ederrak be, "Monte do Castro" beren kokamenagaitik antziñean keltiar bizi lekua, eta gero gudatarako ibili zan mendia, Uri zarrean "Mercado da Pedra", zuzentzaille edo aitzindariaren mendia beren Edurrezko Ama Birjiñaren baselizagaz, eta Madroaren mendia bere Galizian bakarra dan abere-baratz⁽²⁾ edo ta lizetegiagaz⁽³⁾.


Bere Uriaren serbitzuko ibilbide artean, erriarteko egazkin zelaia dauka, tren edo tximist gurdiaren amaierazko geltokia be bai, eta berebil edo autobidearen sare andi ta zabala Portugalegaz, Ourense, eta Gaztelaren goizabalagaz arremonduteko, eta ordaindu bear dan berebilbide ederra Pontebedra, Konpostelako Santiago, ta A Koruñako lurraldeakaz urreratuteko.

Bigoko lurraldearen zabaltasunean gaur daukazan, itxas ontziren lantegi, arraiñ ta aragia zezinatzeke, ale edo sagar-ale ta ortuariak iraun egiteko edo ta iraun dagien lantegiak, labe ta burniolakaz, "Pescanova" edo ta "Citroen"eko⁽⁴⁾ lantegi andiak bezala, arro iraun leike esaten, diru edo emonkortasunezko arloan, bera dala Galiziako su-gurdia⁽⁵⁾.

Merkataritzazko gauza guzti orreik agertzen dabe nabaritasun guztiagaz, aurrera begituta baiña "ze itxaropen dauka Nortasunbako erri batek?". Euren artean eneban ikusten Keltiar edo ta Galiziar "Arimarik".

(1) Trozkoak = lingotes. (2) Abel-baratz = zoolögiko. (3) Iize-tegiagaz = jardin zoolögiko. (4) Zitroenek berak eta bere lantegi laguntzailleakaz, 15.000 langille baiño geiago daukaz. (5) Galiziaren su-gurdia = la locomotora de Galicia.





Galiziarrek gaur, ez dabe lan egiten Nortasunaren elburuakin, diruaren elburuaz baiño, eta arlo orreitan PPkoak Santiagoren⁽⁶⁾ espainiar maltzurrezko ikurragaz eta oraindiñokarren Kangaseko gotzain eleizan edo ta lekaidearen ikastetxe ederrean burdiñez eginda lotsa barik idatzita erakusten daben oroikarriakaz “Jose Antonio Primo de Ribera”ren⁽⁷⁾ falanjista izendegiakaz diralako garaille. Noz arte?.

Edestia.

Bigok, badauka bere bizitzaren izaerazko edestia, eta gogorra gañera, orain nire eskuetan ez daukadan. Orduko denboratan baiña, Baiona izendatu eben erregearen

ezarleku lez, eta ardurazko ordezkotzan beti geratu zan bigarren, arik eta XVIIIIn gizaldian itzaz ontzi andiagoak egiten asi, eta itxasozko ur sakonagoak eskatzen asi ziran arte.

Orregaitik esaten dabe, berak daukan edestia, XIX-ko gizaldiaren asieratik gaur artekoa dala.

Kanbados.

Bigo ikusita egun erdirantza urbiltzen gagozela, Adela gidariak Kanbados bere errira eroan ginduzan, Sanxenxoko Udalaren lurraldean, Albariño ardoa egiten daben “Pedreiraseko Ardantegi”ra, eta guri aurkeztuta orren ardolantegi edo ta kupeldegizateko euki eban antolamenduaren tresnagintza erakutsiko euskuna, prest geratu giñan ardo lantegi orrek euki ebazan aurrera bideakaz oartzeko.

Al gendun adikune guztiagaz entzun geuntzan ardolantegi orren antolagintza buruz aurkeztu euskun guztia, eta goiko gela batera igoteko agindu euskunean, mai andi baten atara euskuezan, eurak egiten ebazan iru ardo mota ezbaridiñak Albariñotik asita, gazta apur bategaz dastatu edo txestatzeko.

Pozik eta gozo artu genduzan adierazpendu eta atara euskuzan jan edariak, eta baten batek gura ba ebezan etxera eroan iru motaren ardo ezberdiñ areik, bertan eta iru bonbillentzat⁽¹⁾ eginda, ondo apaindutako kartoizko ontzietan saltzen ebezan.

(6) *Santiago cierra España ?*. (7) *Kangas-eko eleiz-ikastetxean = en la monumental colegiata y concatedral de Cangas*. (1) *Bonbil, botaxa, lamera = botella*.

Gure ibilaldiko lurraldeetan, mastegi asko eraifi eta lantzen dabizela euren ardoak egiteko ikusi genduzan, eta lan orreikaz erakusten dabe, itxaropen andiak daukiezala, egiten dabezan ardoakaz.

Eta arro egoteko be bada eurak esaten daben lez: "XIIIn gizalditik Salnes ibarreko lurak maatsakin landuten dira, eta mastegi orreik dira munduko ardo zuriaren artean oneneitariko bat emoten dauna, Kanbados Albariño ardozuri orren Uri nagusi daukala".

Busera igon gendun gure ostaletxera joateko, eta bazkaldu ta gelan lo apur bat eginda ondoren, 4 1/2etan urten gendun Kanbadoseko ingurueta joateko.

Kanbados, Pontebedrako lurraldearen Udala eta Konpostelako Santiagoren gotzai barrutia da, eta Arousako ugaldeari begira bere 23Km. karratukaz 11.321 biztanle daukaz 1.980ko urtearen baiño ariñauko autarki errolatik artuta.

Kanbadossek badauka beren kondaira Adalak esan euskun lez, eta kontu au esan eban.

"Deabruak, Jesusi tentaldira eroan ebenean esan eutson: Belauniko gur egiten ba nozu / ikusten dozun guztia emongo dautzut, Konbados, Fefiñans, eta Santo Tome izan ezik".


Fefiñansek daukan garrantzi andiko enparantza, eta San Benitoren Eleiza ederrak ikustera joan giñan.





8rak eta laurenetan igon gendun belbilbusera ostaletxera joateko, eta afaldu ondoren, gelatara joan gintzazan lo egiteko.

2.011n Bagillaren 14an.

Egun orretan denbora geiago euki gendun lo egiteko, busaren ordua amarrak lauren gitxiagotan izan zalako.

Berebilbusean Tojako ugarte eta Ogrobe erdi ugarteak ikustera joan giñela, Meko erria? aldatzen





goiezala Adelak esan euskun, abade txar bat il egin ebela erri orretan, eta erritarrak eriotz orregaitik iñor ez egian errudun egin, erritar guztiak agertu zirala errudun, eta iñor zigortu bage geratu zala eriotz ori.

Ogrobeko erdi ugartearen zubitik, bere osasungarriko urakaz ainbeste ur-etxe eukiteagaitik antziñatik ezagutzen dan Tojako ugartera joan giñan.

Ospe aundiko ugarteia izan bear izan zan ugarte ori, ondo apaindutako ainbat ur-etxe bata bestea baiño politagoak diranak dagozelako ugarte orretan.

Iru ostaletxe nagusiak daukaz, bost izar daukazan "Tojako Ostaletxe Andia", beren jabetasunezko portu, igeritegi ta golf-era jolasteko zelaiarekin. Lau izar daukan "Lousoko Bizi-Ostaletxea", eta "Bizitzeko Ur-Etxe Ostala".

Batzartzeko eta Erakus toki lez etxe andi bat dauka, ezbardifñezko azokak, ta erri eta erriarteko erakuspenak egiteko.

Ur-Etxe guztiak inguratzen dauan basalde ederbat be dauka, eta bicira mazkor azalakaz ondo apainduta daukan eleizea.

Tojako ugarteia, izen ezbardifñekaz deitzen eutsoen antziñatik: "Osagarrizko Ugarteia", "Atsegiñezko Ugarteia", eta "Usai Gozodunezko Ugarteia".

Niretzat, berba gozo larregi ekanduzko arloetan zuzentasunezkoak izateko.

Diruaren aipamenekotan, zeozer entzun neutson Adelari, inguru areitan Aberats asko egon zirala edo ta alako bat, mundu osoako aberats aundiena be bai, baiña eneban jaramon andirik egin, oartuta egon nintzalako, parabisu edo atsegiñezko baratz orren ostean zelako maltzur jokoa eroaten dabezan eskuñ zale politikariak.

Galiziar edo Kelta demokratikoak noz konturatuko dira, euren nortasunezko ordezkartzaren zentzugaz jokatzen dabizela ezeren lotsa barik, Santiagoren ikurra siniskai edo siñis-egi lez euren elburu ipinita ?.

Santiagogaz lilluratu edo ta illundu egiten dautsoe galiziarrai, Jaungoikoak mundu oneri ipini eutson legeen agiritasun edo ikusgaitasuna, eta elitzake izan bear alan, Keltak edo ta galiziarrek, askatasu-



nezko demokrazian neurri andiak lortu ebezalako euren gizarteetan, Omo Sapiensek arrazoiaren ordezkio joku bizitzan asi bear izan ebenetik.

11 1/2etan amaitu gendun Tojako ugarteia ikusten, eta O Grobeko erdi Ugarte edo peninsularen portura aldatu gintzazan busekin, bertan 3n zenbakiagaz egon zan Pelegrin itsas ontzira igonda, Arousako kresal-obai edo ugalde eder orreitan, ur gaiñean ipinita daukiezan mazkelo⁽¹⁾ andietara joateko, gazte batek eskegita daukiezan sokak atara gindezan, guk bieira, muskillo edo muskulu, eta maskortegi edo ostraren azkuntzak ikusi dagiguzen.

Mazkelo edo batea guzti orreik ikusi ondoren, itsas ontzi orretan, ur-laño⁽¹⁾ edo ur-ats´ean egosita, aibat bider eta asetu arte atara euskuezan muskulu gozo orreik Ribero ardoagaz jan edateko.

Toja ugarteia eta O Grobe erdi ugarte zoragarri orreik agurtuta, ostaletxerantza joan giñan bazkaltzera, eta mai inguruko solasaldi alai ta gozo baten bazkaldu gendun, bide batez arratsaldea aske euki gendun lez, zer edo nora joateko antolak egiten.

Porto Nobo ikustera joan giñan arratsaldean, bide batez arraiñezko azokan eurak egiten dabeguzan norgeiagoko arrain saltzaroak ikusteko, eta bere ingurutik zer egoan ikusi ta zeozer artuta ango kafetegi baten Sanxenxoko ostaletxera joan giñan afaltzera.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n Agorrillaren 9an

(1) Mazkelo = bandejas grandes de madera. (1) Ur-laño, edo ur-ats´ean egosita = cocidos al vapor.



Galizia aldetik txangolari (6)

2.011n Bagillaren 9tik 2.011n Bagillarem 16ra ADIÑEKOAKIN

BIDAIAREN TXANGO EGUNAK.

2.011n Bagillaren 15an.

7retan jagi giñan 9 eta 1/4renetan belbilbusera igon eta A Koruñara joateko.

A Koruña.

Galiziako lurraldea da bere 7.876 Km karratukaz eta 1.042.880 biztanle, 1.980ko urtearen baiño ariñagoko autarki erroldatik artuta daukaz.

Iparraldetik, Kantauriko itsasoa, Egoaldetik Pontebedra, Mendebaletik Atlant itxasoa, eta Ekialdetik Lugoko lurraldeak mugatzen dabela kokatuta dago.

Kantauriko aldean bere itsas bazterrak aldakorrek dira, izpaster malkartsu⁽¹⁾ ondartzakaz aldizkatuta, bere: "Bakeiro, Ortigeira, eta Kantauri ta Atlant itxaso bitartean Zedeirako ugalde edo kresal obaiakaz.

Eta Atlant itxaso aldetik daukazan kresal obai ederrakin zabaldua: "Ferrol, Ares eta Betanzos, Koruña, Kamarifñas, Lires, Korkubion, eta Muros eta Noiako ugalde edo kresal obaiakaz.

Daukazan lurradar aipatuena: Finistere, Billano, eta Estaka de Bares dira.

Kantauriko aldetik daukazan errekak: Sor ibaia, Lugoko lurraldeagaz muga egiten dauana, eta Mera ibaia bere urak Ortigeirako ugaldean botaten dauala.

Atlat-itxas aldeko errekak: "Ulla ibaia", Pontebedrako lurraldeagaz muga egin eta Arosako ugaldean urak botaten dauzanak, "Tanbre ibaia", Muros eta Noyako ugaldeak egiten dauzanak, "Eume ibaia", beren urak Aresko ugaldean botaten dauzenak, "Allones ibaia", bere urak Lajeko ugaldera botaten dauzanak, "Mandeo ibaia eta bere ibai-adar Mendo", urak Betanzoseko ugaldean bota egiten dauzenak, eta "Jubia ibaia", urak Ferroleko ugaldera botaten dauzenak.

Bere berezko garrantzidun lurraldeak: "Las Mariñas" "Bergantinos ta Noyako ibarrak", eta "Padroneko arana" dira.

Aberastasun andia dauka oianetan: Aretx, Astigar edo Aritz zuri⁽²⁾, Leizar, Urki, Gaztaiñondo, Piñuekin eta abar.

Garrantzi andiko bei ta abel-azkera, peninsula edo erdi ugarte onetan andiena dana, txarri, zaldi eta abar.

(1) Malkartsu = lleno de cuestras, costanero, fragoso, escarpado. (2) Astigar edo Aritz zuri = arce.

Eraiten dabezan zitu, bii edo aleak: Arto, Gari, Zekale edo Zikirio⁽¹⁾, eta gauza gitxi Garagar eta Olo-tan.

Ortuaritan, gure lurraldean lantzen dogun antzera lanzen dabe, azkeneko denbora onetan ezker-aiena⁽²⁾ ereiten dabela.

Wolframio, ziraida edo eztaifü, zur-ikatz guneak⁽³⁾, ta abar bere lurretatik ataraten dabez.

Ferroleko ontzigintza, eta arrantzan egiteko daukien itxas ontzi taldea erdi ugarte onen andiena da, euren goi maillako itxas ontziekaz Irlandako "Gran Sol"era, Terranoba, ta Afrikako itxas bazterretatik ibiltzen dira, eta be maillako itxas ontziekin aberatsak dira, sardiñak, maxkur, xangurro, otarrai, eta abarrekin.

Daukien garrantziko langintza, ontziratzeko lantegietan da, altxa-arrainak⁽⁴⁾ edo ta ezbardintasunezko arrain motak euren bereiztasunean gordeta iraun dagien.


Zurezko lanean, janari langintzan, Paitar, Kamañaseko errian eio-txiri edo erra-zirizko⁽⁵⁾ lanetan, arria lantzen eta lantegizko trebetasunean daukien jakituria, urberoakaz egiten dabezan dirubideak, metalezko urakin egiten daben zabaltasun andiko salketa, eta abar.

A Koruñako lurraldearen Erri Auzitegia, bere eskubideko lur mugatuan dago, eta Betanzos, Karballo, Korkubion, A Koruña, Ferrol⁽⁶⁾, Noya eta Santiagoren auzi-barrutietan bananduta dago.

Eleizaren aginteko atonduan, Konpostelako Santiagoren gotzai barrutira geien, eta Mondoñedo, Ferrol, eta Lugokoakaz.

Gudari legez, 8n gudu lurraldean sartuta dago, eta itsasoz Ferroleko lurralde edo esku aldeari lotuta dago.

Eta irakasletzan, Konpostelako Santiagoren Ikastetxe Nagusiagaz lotuta.



(1) Zekale edo Zikirio = centeno. (2) Otso-aien edo Ezker-aien = lupulo. (3) Zur-ikatz-guneak = yacimientos de lignito. (4) Altxa-arrainak = laterio de pescados en conserva. (5) Eio-txiri edo erra-ziri = bolillos de encaje, o, encaje de bolillos. (6) "Ferrol del Caudillo" izenarekin iraungo ete dau ?



Edestia.

Bertan erosita daukadazan liburu guztiak, Keltiar edo galiziarren edestia, espainiarren edestia izan baltz legez kontatu edo esaten dabe, eta edesti orren egia olan azalduta egon ezker, guzurraren arrazoitik egira dauan aldea geratzen jako egia izateko.

Gauzak olan dirala ta, Galiziako erritarrak, lan andia daukie gaur norkerituta daukien nortasuna oster, Jainkoaren legebidez edestiko bizi ekintzan eta aurrerantzean bere legean bizitzeko baitan oituratuz, Askatasunezko Eskubidearen Zentzu Demokratiko zeaztasunetan lortu ebezan goiko mailak berrezkuratzeko.

Erdi ugarte onen lurraldetan lez, Mendebaleko baztar orreitan Ibero edo euskaldunak bizi zirantetik, jendekuntz batzuk aldatu dira lurralde orretatik, Elbiñas eta beste batzuen gaztelu edo gudal-etxearen arrastoak esaten daben lez.

Keltiarrak etorri ziran gero, eta Fenizio ta griegoen ostean erromatarrak agertu ziran, geroago Suebo, bi-

sigodo ta mauritarrak denbora gitxian, eta askeneko txanda IVn gizaldian asmatutako katoliko batzangotasunetik, XVIIIn gizalditik ona, Europa osoan guda indarrez "nacional catolicismo"an laterritu jakuna.

Europa guztian lez eta gure antzera, ez daukie lan erreza, Jainkoaren Legez bizitzak eskatzen dauskun nortasunezko ordezkotza, askatasunaren demokrazizko legean oster berrezkuratzeko, norkerizko katolikotasun fazizta arrano baltz ori, Europa guztiaren gaiñean, guda keifiatzaille daukagulako zain.

A ta guzti, ni itzarokor edo uste onekoa naz, badakitelako, European daukaguzan laterriak ezin dirala sekula eraendu, jaurri, gidatu, edo ta zuzendu, bere barruan daukazan berezko erri ta erritarren nortasunak ez badabe jokutzen itzaltasunezko ordezkotzan, "norberaren ordezko arduratik kanpo, ezin dalako ezer zuzendu".

"Gizartearen eta iñoren arremonak ezin diralako aurrera bakez eroan edo ta konpondu, menpeko aginduan".

“Baten batek gogoan erabiliko leuke, berezko ardurak kentzen dauskunak, berak beteko dabezala ardura orreik?”.

“Alan izan ezkerro, nortasunezkoak, menpeko agintaritzan egin bear ete dabez, eurei kendutako ordezeko ardura orreik?”.

Asierazko oiñarri txarra, munduko gizaren etorkizuna bakez bideratu gure bada.

“Ala, ez dira naikoak, edestiko bizi ekintzan daroguzan odol jariozko 2.000 urte oneik?”.

Orregaitik “Giza-Eskubidearen Elburu orreitara” itzuli bear gara oster, amiltegiko bideak alboratu gure badoguz, bestela eta gure nai ez, aurrean daukaguz eriotzezko txebera orreik.

IVn gizaldian katolikotasunezko alderdi ori asmauta, eta batzangotzeko asmakizun orreik aurrera eroateko, danok bizitzeko bear doguzan tresneri, borondate, mozkin, itzaltasuna, eskubide eta ordezeko ardura guztiak bear dabez euren eskuetan, eta

batzuen eskuetan bakarrik geratu ezkerro, Europa ta mundua jaurkitzeko bear diran almen guztiak, bertan daukaguz adibide orren emaitzak.

A Koruñako txangoa.

Bertoko gidariak ipini euskun A Koruñaren ikuste au egiteko, eta XIIIn gizaldian egindako Santiagoren eleizatik asita, San Karlosen lorategia, Sir John Moore Elbiñan egin zan borrokako gizandiaren illobia, Santo Domingoren eleiza, XII XIIIko gizaldian egindako Santa Mariaren lekaimetxea, San Antonen jauretze edo gaztelua, Barbarasen enparantza, eta Maria Pitaren enparantza ikusi ondoren, A Peneirako ostaletxera joan giñan bazkaltzen.

Arratsaldean, Finisterreko lur muturrera joan giñan, daukan itxas argiaren dorre ederra, Mileniuneko arri-xut edo obeliskoa, lorategi ederra bere irudigintzakin, eta San Pedroren menditik A Koruñako Uria ikuspegizko leku ederratik ikusteko.





Erkules dorrearen edesti laburra.

Antziñakoetatik, Erkulesen dorreko itxasargia da bakarra itsas ontziak portura bideratzeko oraindiño dabillena.

I gizaldian eraiki eben erromatarrek, gaurkoa baiño zabalagoa izan zana, bere 14m lauko bardiñaren albo bakoitzean eukinda, eta 41m ta 1/2 goiko al-dian, kanpo aldea aldapa bategaz inguratuta, itxasargiaren suak bear ebazan egurrak igoteko.

Edestian zear, aldaketa batzuk euki dauz argidorre onek, garrantzi andienekua baiña, Gianninitar Eus-takio injineru edo maisuak Saabedra ta Kornidetar Josegaitik aolkatuta 1.788an geratzen ziran erro-matar ormari berriz estalita, gaur lau aldeko aurpe-gietan daukazan arrilanduekaz egin eutsona zan.

Eta kanpo aldetik, egurra igoteko euki eban aldapa gogoratzeko, ingurubil arrilanduan egin eutson ge-rrikoagaz itxuratu eban.

Geroago, su-argi edo tximist-udare⁽¹⁾ babestuteko goian daukan burdiñezko buruagaz estalpetu zan, eta latinez idatzita daukan ezartzea⁽²⁾ babestu, etxe-txiki bategaz egin eban, eta beren oinpea sendotu ta edertzeko, arri landuan egin zan.

Gaurko argidorre orrek, lauki bardiñekoa da bere albo bakotzak 11'40m, goi aldean 59m, eta itxasoa-ren neurririk goi alderaiño 120m daukezala.

Eta 2.009ko urtetik onantza, "Munduko Gizatasu-naren Aitagandikoa" izendatuta dago.

Erkuleseko dorrearen edestiko kondaira.

1.270ean Leon eta Gaztelako errege Xn Alfonso jakintsuak zeaztu eban, ao-jakintzan etorten zan kondairatik artuta, II In Alfonsok Santiagoren kon-dairakin egin eban bezala IXn gizaldian.

Tajo eta Dueroko ibai arteko lurak errege lez eta keñatzaille jaurritzen eban Jerion deitzen zan gi-zandi bat egon zala esaten dau kontu orrek.

Erkules jakitun, Jerionek zelan jaurkintzen ebazan berre erritarrak, aurka urten eutson, eta iru egunean borrokan ibili ta Erkulesek irabazi, lepoa moztu eutson eta burua lurperatuta, bere gaiñean ikusten dogun dorrea eraiki eban.

(1)Argi-baso edo udare = bombilla. (2) Ezartzea = inscripcion.



Dorrearen inguruan Uri bat jaso eban eta berarekin maitemindu zalako, Kruniaren izena ipini eutson, bera izan zalako an sartu zan lenengo andrea.

Erkulesek andik alde egin ebenean, bere osaba Espanek eraikiten asi eban argidorrea amaitu eban, eta sekula ez zan itzaldu su-krisaillu bategaz edertu eban, bide batez ispillu andi bat ipinita itxaslasterkariak etorten ziranean ikusteko.

Egon zan denbora ederragaz, ondo baiño obeto ikusi genduzan ago inguruak eta belbilbusera igonda Sanxenxorantza joan giñan gure ostaletxean azkeneko galiziar afari gozoa jateko, eta txanpaneko ardoarekin topa egiteko.

Afal ostean, beko solairura eroan ginduzan, bertan "Keimada" gintza guri eskaintzeko, eta sekula eneban ikusi "Orujo edo maats-lapa"ri


sua emonda, gizon edo gazte arek egin euskun agerketa.

Keimadako paitarra artu, dantza apur bat egin, eta barre batzuk eginda, ogera joan gintzazan, urrengo egunean, au da, "Bagillaren 16an" 9rak eta 1/4rene-tan belbilbusera igonda etxera itzultzeko.

Txangolarizko bidai ederrak egiten doguzenak dira, Foru Aldundiak emoten daukun laguntzari esker, eta geiago eskertu bear da, aukera oneik atonduten dabezanai, gure bizitzaren askeneko aldi auker bidai oneikaz, alaitu ta buruz argitu egiten garelako.

Milla esker, bidai onekin arduratu egiten dira guztiei.

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.011n Dagonillaren 11n.



“KRISTOBAL KOLON”, “NAFARROAKO IVn KARLOS ERREGEAREN SEMEA IZAN ZAN?”

SARRERA:

Orain, zergaitik ekarten ote dogu ikusi leiken argitara Nafarroako IVn Karlosen bizitza eta Kolondar Kristobalen bizitza, “bere seme” lez ?:

- a) -Gure Euskal Nafarkide Lordatar Trini, asarre, samindu edo erresuminduta ⁽¹⁾ dagoelako espainiar edestilariak, Euskalerra edo ta Nafarroaren edestiagaz egiten dabezan ostonketaren alegiñakaz.
- Niretzat egiten daben ostonketa au ez da lenengoa, San Millan de la Kogollako lekairtxearen gela illun baten ikusita daukazelako ainbat Nafar errege ta erregiñaren illobi eder, Errioxako euren lekuetatik kenduta, an iñork ez egiezan ikusi barik egon dagiezan.
 - Danok dakigu, 1.789an Frantziko iraultzaren bidetik, eta bere ondorioz 1.812ko urtean Kadizeko gortetatik espainiar eskubitarrak Europako liberalaren laguntzagaz peninsula onetan, “katolikotasuna” aberri lez ezarri gure dabela, berezko erri ta errigizartekoak daukaguzan eskubide guztien gaiñetik.
 - Eta milla urte askotako bereztasunean bizi garan Euskera bidez Euskaldunduta, aditz mugan Euskalerra edo ta Euskadiko Aberri lez bezela erdi ugarte onen mapatik, xabarrotu, ezabatu, aienatu edo ta ezereztu gure dabezela.
 - Eta zelan betidanik gizarteko antolakuntza lez Demokrazizko askatasunean daukaguzan Batzarrak, orain 1.200 urte, zelan beartuta aukeratu bear genduzan Jaun erregeen irudiak epaikari demokratiko lez, ez dabezela argitu gure nai, euren norkerizko asmakuntzan danontzat ezarri gure daben “Nacional Katolicismoaren” guzurra, berez, danok ikusi genuken argitan geratu leikelako.
 - Naita, erakusten dabena, guzur aundienetariko bat izanda, ez dautse ardura andirik emoten, zaldikatuta dagozan katolikotasunezko sasijainkotasun orrek, guzti ori parkatzen dautsoelako.
 - Espainiarren katolikotasunari, badakit bost ajola arduratzen jakiela, bestearen eskubideak, Frankok egin ebanagaz, argi erakusten dabelako.
 - Baiña, Erromatar katolikotasunaren norkeri orrek, non galdu ote dauz danok “baita” lez oiñarrituta daukaguzan Jaungoiko Egillearen sinismenak ?.
 - Argi dago, nortasunaren lorratz edo arrasto orreik, 325eko urtean Nizeatik norkerizko sasijauntasunean asi ziranean galdu ebezala.
- b) Ordua da, gure Izkuntzalari, Edestilari, Giza-Iztilari, Gizarteko-Iztilari⁽²⁾ eta Euskalerriko gorpuaren bizitza antolatzeko bear direzan beste arloetako Jakintz Maixuak argi aldarrikatu egien:

(1) Asarre, Samindu edo erresuminduta = irritada, escandalizada. (2) Giza-Iztilari, Gizarteko-Iztilari = antropologo, sociologo.

“EUSKALERRI MAITAGARRI ONEK, GAI-MUNDU ONEN GIZARTEKO BIZITZARI ADIERAZPEN EDERRENETARIKOA EMONDAKUA DANA, MUNDU ONEN IZAR BAT IZANEZ GAIÑ, ESKUBIDE OSOKO ERRI, TA ABERRI ANDI BAT DALA, GAUR BE BERE BARNEKO IZATEAREN DIRDAIAGAZ, INGURUA, BEREN ASKATASUNAREN DEMOKRAZIZKO AITORTZAILLETASUNAGAZ ARGITZEN DAUALAKO”.

Oarketa txiki bat:

Apur bat luzeegi urtengo daust idaz lan au, emen zerrenda baten antzera esan bear dodazanak, Nafarroa, Gaztela, Aragoi eta Frantziko gorte artean, euren lurraldeko jabetasunetan, eta euren artean euki eben guzur, eriotza ta maltzuratasunezko jokoetan agertu gura dodazelako.

Erregeak euki eben senidetasuna, zelako usteltasunera eldu ziran senidetasunezko “Ekanduaren” arlo orreitan.

Eta Nortasunaren legez egin bear ebezan antolabidezko lanak, gero ta norkeri aundiagoetan jausi ziran, aolkulari baten batek al-osokerizko sasijauntasunera bideratu ebazalako, kaizarren menperatasunetara eldu zitezten.

Bai, eta zelako baimenakin ibili ziran, bata bestearen aurka sinistu ezin diran ilketak egiten.

NAFARROAKO EDESTIAREN ZATI BAT.

III In Karlosen bizi kondaira laburra:

Nafarroako II In Karlos Txarra esaten eutsiena, eta Frantziako II In Juan ona esaten eutsoen alaba, Juanaren semea izan zan.

1.361ean Uztaillaren 22an Ybelineseko lurraldean, Mantesekeo Urian jaio zan gure III In karlos au.

Baloisekeo IV Feliperen emaztea Blanka alargun egon zala, eta bere izeko-amona zanaren zainpean egonda iru urte eukezala, ziñezpean izendatu eben Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

1.366ko urtean joan zan lenengoz Nafarroara.

Eta 1.367ko urtean, berak zortzi urte eukezala, ordezkoa egin eben bere aitaren ostan.

1.373ko urtean eta Aita Santuaren ustego edo erabagiagaitik, Trastamaratar II In Enrike anai iltzaillearen alaba Leonorregaz antolatu eutsoen ezkontza

1.374ko urtean, bere aitak Montpelierren euki eban jauntza joan zan ikustera.

1.375ean Loraillaren 27an, Leonorregaz ezkontzen da Gaztelaren Soriako Urian.

1.376ko urtean Soriatik urtenda, bere aita ikustera joan zan.

1.378ko urtean, Nafarroa Gaztelarrakaz gudan egonda, bere osaba Frantziko errege Vn Karlosek atxilotu eban, eta lau urtetan egon zan atxilo orreitan, arik eta guda ori amaitu ta bere osaba Vn Karlos il zan arte.

1.379ko urtean IIn Karlos Nafarroako erregeak, Brionesen sinatu bear izan eban, Gaztelar eta frantzezak aurkeztu eutsoen elkargo edo ongundearen agiria, berentzat lotzagarrizkoa zana, kendu eutsoezan diru eta lurragaitik.

1.379ko urtean Gaztelako errege IIn Enrike il zan eta bere ondorengo lez I Juan egin eben errege.

IIIn Karlosen emaztea kontuan euki bear dogu I Juanen arreba zala eta orren arremanagaz koñatuak zirala IIIIn Karlos eta I Juan.

1.382ko Abenduan IIIIn Karlos, Nafarroara joan zan, bere lengusu VIn Karlosek Frantziko erregeak, bere osaba eta onen aita Vn Karlosegaz egin eben guda orreitan kendu eutsozan lurraldeak itzulita gero.

Ata guzti, etxera eldu zanean, IIn Karlos bere aita, oso gaiso, makal ta saminduta aurkitu eban Gaztelako IIn Enrike eta Frantziako Vn karlosegaz egin bear izan eban egiunearen gora beran, Nafarroako erregetzaren lurraldeak eta erria txiro edo beartsu itzi ebazalako.

1.383ko Urtarrillan Gaztelara joan zan bere emaztea ikustera, eta beragaz egonda gero Santiagora joan zan erromes.

1.383an, bere koñatu I Juaneri lagundu eutson Jijoneko ingurutasunean, eta Irailla eta Urrillako illetan lortu eban Brioneseko egiune edo elkargoaren bir-azterketa bat egitea, Urrillako 19an El Espinalen epaitu zana, berak lurralde eta diruarenaldetik ostera gauza asko berrezkuratuta.

1.383an Azaroaren 10ean, Juana bere lenengo alabea jaio zan.

1.384ko Urtarrillan, Gaztelako erregeari laguntzen, Portugaleko gudara joan zan Nafar gualosteakaz 9 illabete iraun ebana.

1.384an Otsailaren 16an Koinbrari, eta Jorraillaren 14tik Iraillaren 30eraíño, Lisboari egineko ingurutasunezko erasoetan egon zan.

Eta guda orreitan egoala, Maria bere bigarren alaba jaio zan, Soriatik Nafarroara joanda ikusten zelan egon ziran bere etxeko gauzak, ostera itzulita Gaztelan kokatzeko.

1.385ko urtean, bere irugarren alaba Blanka jaio zan, urteak igarota Nafarroako I Blanka erregiña izango zana, eta batera Dn Franzes de Billaespesa artu eban bere serbitzuan.

1.385ean Epaillaren 20an VIn Karlos Frantziko errege eta bere lengusua, kendu egiten dautsoz Auñamendiko mugatik gora eukezan lurraldeak. Uztaillan ostera joaten da Portugaleko gudara.

1.386an Urtarrillaren 16an Portugaleko guda izten dau, Lizarran egin ziran itun edo elkargoetara joateko. Eta Epaillaren erdian ostera joaten da Portugaleko gudara.

1.386ko urte onetan bere sasiko seme Lanzelot jaio zan.

1.387ko urtean asieran Baladolizeko lurraldearen Peñafieleko Urian egoala, bere aita IIn karlos il zala jakin eban, eta bereala joan zan Nafarroarantza.

1.387an Urtarrillaren 21ean naparrak erregetzaren aulkian ezarri eben.

1.388an bere koñatu Gaztelako errege I Juanek, Asturiaseko printzerria sortu eben, bere seme Enrike Lankasterko Katalinagaz ezkondu zalako omenez, andik aurrera Asturias, Leon eta Gaztelako erreinu orren errege aulkian ezartzeko, bearrezkoa zalako izenburu ori.

1.390ean Otsaillaren 13an III In Karlos Nafarroako errege koroatu eben apainkeri ta anditasu guztiagaz Nafarroako gizon andi guztien artean.

Bere emazte, II In Enrike anai iltzaillearen alaba Leonor erregiñak baiña, atsekabe edo larritasun andietan bizi zalako, ez eban gure Nafar gortera joatea, ango osagilleak bera pozoitu gure ebalakoan, eta Gaztelako errege I Juanegaz berba eginda lortu eban alaba bi Nafarroako gortera eroatea.

1.390an Urrillaren 9an il zan Gaztelako errege I Juan III In Karlosen koñatua, eta Juanen semea gaztea zan lez, Gaztela-Leon eta Asturiaseko erreinu ori alderdikierizko guda baten biurtu zan.

III In Karlosen emaztea borroka orretan ibili zan, eta Roako beren bizi lekua, azpikerizko toki baten biurtu zan.

1.394an Bagillaren 21eko eguna baiño ariñago, III In Karlosek bere loba Gaztelako III In Enrikeri baimena eskatu eutson bere emazte Leonor erregiña Nafarroara eroateko, eta III In Enrikek, berari laguntza emoten ba eutson bere erreñua alderdikierietatik askatzeko erantzunda.

III In Enrikek Roa inguratu eta atxilotu eban Leonor erregiña arik eta berak antolakuntzak egiñ arte Leonor Nafarroara bialtzeko.

1.394an Abenduaren 7an, gero Nafarroako erregiña izango zan I D^a Blankaren izenagaz, 9 urte eukezala, Nafarroako gortera joa zan.

1.394ko urtean jaio zan III In Karlosek euki eben bigarren sasisemea D. Godofre.

1.395ko Epaillan Nafarroako III In Karlosek, Gaztelako III In Enrikeri ziñez itz emon ondoren, berak Leonor erregiñari ez eutsola kalterik egingo atxilotasunegaz, ez zauri edo ez eta il egingo ebenik, joan ziran Leonor eta alaba bi Nafarroako gortera.

Eta Jorraillan danak joan ziran Ujuera erromes.

1.395an Azaroaren 6an Leonor erregiñak len bera pozoitzeko euki ebezan bildurretatik aske geratu zala eta, bere senar III In Karlos ipini eban berak Gaztelako lurraldeetan euki ebazan jabetzak edo ondasunaren arduradun.

1.396ko urtean Lizarran jaio zan Isabel alabea.

1.397ko urte onetan jaio zan lenengo legezko semea, Karlosen izenagaz ezagutu zana, beren biziko epe laburrean.

1.409ko Urtean Nafarroako Blanka alargun geratu zan, bere Siziliako Martin senar gazteagandik.

1.413an Uztaillaren askenetan il zan, Nafarroako erregetzaren erregiña izateko zan Juana, eta I Blanka ipini eben ondorengo lez.

1.415eko urtean il zan Trastamaratar Leonor III In Karlosen emaztea.

1.416an Urrillaren 28an ziñezko itza artu eutsoen nafartar gortekoak erregetzaren ondorengo lez.

1.419an Abenduaren 5ean emon ziran Blankaren ezkontz-itunak, gero Aragoiko erregetzan II In Juan izenagaz ezagutuko zanarekin.

1.420an Bagillako illean ezkondu ziran Nafarroako I Blank eta Aragoik II In Juan.

1.421ean Lorailaren 28an Peñafielen jaio zan Bianako Printzea IVn Karlos.

1.422ko Bagillan joan zan Blanka Nafarroako gortera, 1.421ean Lorailaren 29an jaiota euken bere seme IVn Karlosekin.

1.423an Urtarrillaren 20an, III In Karlosek Bianako Printzerria sortu eban bere billoba IVn Karlosentzat, Biana, Biasteri, Sonsierrako San Bizente, Agilar, Genebilla, Kabredo, San Pedro ta La Poblazionek euki ebezan gazteluak, eta Kanpezuko auzo ta erregetzaren Billak, Toro, Marañon, Ferrera eta Buradonek euki ebazan gazteluaren jabetasunagaz.

Iru gauza euki bear dira emen kontuan Bianako Printzerri onen sorraldia ulertzeko:

1.-Nafarroako Gortea, Frantziko gortera begitzen ebala geiago, Gaztelakoari begitu baiño, alde andia egon zalako, jakintza, arte ederrean eta bizi-moduetan.

2.-1.388ko urtean, bere koiñatu Gaztelako I Juanek irasi ebala Asturiaseko Printzerria bere seme Enrike Lankasterreko Katalinagaz ezkondu zanean, andik aurrera izenburu orregaz joan zitezzen Gaztelako erregetzara igoten ebezan printzeak.

3.-Bere I Blanka alabagaz ezkondata egon zan Aragoiko II In Juan ondo ezetzen ebala.

4.-Nafarroako erregetza, beste erregetzaren neurri bardiñean kokatzeko, errege ta Aita Santuak eskatzen eben neurrian kokatu bear zala.

A ta guzti, II In Juan onegaz asten da Nafartar erreñuaren menpetasunezko bidea.

1.425ean Iraillaren 8an il zan gure III In Karlos "Entzutetsu" ez izenarekin esagutu zan errege au, eta 15 seme alaba euki ebazan.

Legezkoak: Juana, Maria, Blanka, Beatriz, Isabel, Karlos, eta Luis.

Legez kanpokoak: Lanzelot, Godofre, Juana, eta bigarren Juana, Franzez eta Juan.

Errege adikor edo ta atsegintsu onek, eder zale ta arte ederraren babeslea zan al eben guztian.

Kontu aundian euki bear doguna, IVn Karlosezenera eltzen garanean.

IVn Karlos.

Bianako Printzea eta Gandiako Duke au, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko II In Juanen semea zan, eta Aitaren aldetik Fernando katolikoaren anaia.

1.421ean Lorailaren 29an Gaztelako Peñafiel errian jaio zan.

1.422ean Bagillaren 11n bere aitite III In Karlosek, Oliten batzartuta egon zan gorteari aurkeztu eutson umea, errege lez artu egien bere ama I Blanka il ostean.

Nafarroako erregetzaren jabetza garrantzi andiko iru aldetik egokitzen jakon IVn Karloseri:

a) .-Lenengoa, bere aitite III In Karlosen aldetik.

b) .-Bigarren, Bere aititek legeztu ebana, bere alaba I Blanka il ezkerro, Aragoiko II In Juanegaz ezkontz-itunean ipini ebazan baldintzakin.

- d) .-1.439an I Blanka Nefarroako erregiñak idatzita itxi ebazan azken naietan.
- e) .-Eta azken Orokorrezko Foruak esaten ebana.

1.441an Loraillaren illean Santa M^a de la Nieban il zan Nafarroako I Blanka.

Eta IVn Karlos lar ona izan zalako, askeneko baldintza onegaz sartu eben anka kokoteraiño, bere aita IIn Juanek egiten eutson premiagaitik, ez zalako izan gai, beren burua errege lez aldarrikatzeke.

Gitxiago bere aita IIn Juanek, D. Fradike Gaztelako amiralaren alaba Enrikeztar Juanagaz ezkondu zanean Nafarroako Gorteari ezer esan barik, IIn Juan eskubidez Nafarroako erregetzatik kanpo geratu zalako.

IVn Karlosen atzerritasuna.

1.450-1.451eko urtetan IVn Karlos azarratuta Nafarroatik Gipuzkoara iges egiten dau, eta 1.448ko urtearen ezkeroztik alargunduta, Armendaritztar Mariagaz asten da, bien bitartez bere aita IIn Juan Gaztela aldetik borrokan ibiltzen zala.

Aita semearen arteko kirrimirria.

1.451ko urte onetan IIn Juanek, naita bere semeagaz adiskidetu, ez eben euki borondaterik Nafarroako erregetza izteke.

Eta ordurako Nafarroa alderdikierietan bananduta egon zan, IIn Juanen alde Agramonteko jauna Nafarroako Pedro, eta Peraltako Pierres gaztea, agramontes izenagaz.

Eta IVn Karlosen alde Beaumont-tar Juan eta Luis Leriñeko kondea, benafarroako Luxetarren laguntzagaz beamontesen izenarekin, nunai agertzen ziran borrokak alderdi bi oneik eraginda, Nafarroaren egoera larritasunezkoa biurtuz.

1.451an Iraillaren 7an agertu zan alderdi bi onen arpegi ikustea gudako zelaian, IVn Karlosek laguntza eskatu eutsolako Gaztelako erregetzaren ondorengoa Enrike zanari, eta onek beren gudalozteakaz Lizarrara joanda, itzarmen edo ongunde batera eldu zan IIn Juanekin.

Aragoiko IIn Juan biurra zan bere gogamenetan, eta bera Nafarroako erregetzatik botateko errege-seme bi orreik bere aurka alkartu zirala gogoratu ondoren, bere emazte Enrikeztar Juana ta IVn Karlosen ugazama edo ama-ordea bialdu eban Nafarroara gobernari edo erki-jaurleri bezala, bera bitartean laguntzaren billa joanda.

1.451-1.453 urte bitartean Nafarroako anai-guda ta IVn Karlosen atxilotasuna.

IIn Juan indar geiagorekin agertu zan, eta Aibarren garaipenduta, IVn Karlos atxilotu eban, eta Nafarroa bananduta geratu zan jaurkintz arloan, alde batetik Karlosen aldekoak, eta bestetik, IIn Juanen emaztea Enrikeztar Juanak egiten ebana.

1.452an Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IIn Juanen emazteak, Fernando semea euki eban Aragoiko lurraldearen Sos erritxoan, aitaren aldetik IVn Karlosen anaia zana, eta gero katoliko lez izendatuko ebena.

1.453an Lorailaren 20an, IVn karlosek, Tafalla, Tudela, Mallen eta Monrroiko espetxetan ibilita, beren azkenai edo ordenua idatzi eban bere alaba Juanaren alde.

1.453an Loraillaren 23an IIn Juan Aragoiko beren ordezkariagaitik premiatuta, Nafarroako borrokaldiak narda emoten eutsolako, IVn Karlos askatasunezko zelatan itxi eban aske Zaragozatik urten ez egiteko baldintzagaz.

IIn Juanek askatasun orren ziurtasuna eukiteko, Beaumont-tar Luis Leringo Konde ta beren semeak baitu ebazan.

1.455-1.456ko urte bitartean IVn Karlos Nafarroan.

1.454an Urrillaren 8an IIn Juanentzat gauzak ez zirala joaten ondo ta Bakeak ziñatu bear ebazan gaztelatarraz, eta bere ardura guztia Nafarroan ipini eban, 1.455an IVn Karlos Beaumontesen buru zala, ostera asi zalako leian.

IIn Juanek oraingoan ez zan ibili txantxetan eta bere seme IVn Karlos ta alaba Blanka Karlosen aldekoa zalako, biari kendu etsoezan ondorengotasuna, naita berak legez, iñor ez izan alango gauzarik egiteko, ondorengotasunori Leonor bere alaba txikerrari emonda, Fernando katoliko anai ordearen maitagarri zana, eta Foixeko Gaztonekin ezkondata egon zana.

1.456ko urtean Foixeko Gaztonek Iparraldetik erasotu eban Nafarroa eta IIn Juanek egoaldetik.

1.456-1.459ko urte bitartean IVn Karlosen Italiako atzerritasuna.

1.456ko urtean IVn Karlosek iges egiten dau Frantzira, andik Erromara joanda, eta askenez Napolesera, bere osaba Aragoiko Vn Alfonso "Biotz Aundi" ez izenagaz esaten eutsoen, bere kutun gortean bizi izateko.

1.457an urte Loraillean, Nafarroa zatikatuta etsai-erasoan iraute eban, gorte batzuk IVn Karlos aldarrikatzen eta beste bazuk Leonor, bien bitartean Napoleseko errege Aragoiko Vn Alfonso, bakeak egin gurean bere anai IIn Juan eta bere loba IVn Karlosen artean.

IVn Karlos bien bitartean, 1.444tik ezin eban bakezko bizitza eroaten asi zala, Baka-tar Brianda-ren ezkon-bideak aztuta, beste Italiar neska bategaz asten da, Aristotelesen lana itzuli eban eta beren jakintzaren bidez dirdaikor nabaritu zan Europaren ospatsuenetariko gorte orreitan.

1.458an Bagillaren 27an, Aragoiko Vn Alfonso il zan, aita (IIn Juan) semearen (IVn Karlos) arteko alde antolabidezko epaiketak amaitzeko egon zirala, eta Napoleseko erregetza bere anai IIn Juanen eskuetan geratu zan, Kataluña, Balentzia, Mallorca, Zerdefña ta Siziliagaz batera.

Napoleseko gortekoak IVn Karlos gure eben errege, baiña onek ezetza emon ostean Siziliara aldatu zan, emen be eskeintza bardiña eginda.

IVn Karlos Siziliaren ugardean egon zala, parkamena eskatu eutson bere aita IIn Juaneri, ordurako Kataluña ta Aragoiko Foruai zifi eginda egon zala, eta onek baimena emon eutson Mallorkan bizi izateko baldintzagaz.

1.459an IVn Karlosek ostera eskatzen dautso parkamena IIn Juaneri, Mallorkako ugartera joanda.

Eta emen Mallorkan egoala asten da, guk argitu gure dogun “Kolon”en edesti au IVn Karlosen seme lez.

IVn Karlos Mallorkan egon zanean, seme bat euki ebalako “Kolon” txori baten Katalan abizena (Kolunbus) euki eban ebraitar sendi baten alaba Margaritagaz, 1.460ko Bagillan Felanitx errian.

Kristobal Kolonen urtea.

Lordatar Trinik esaten dauan lez, aurten da Kolonen urtea eta bera gogoratzen aipamen txiki bat egiteko eskatu euskun, gero urte beteko ikerlan baten, beren Nafar printzetasunezko senitasuna argitzeko.

Eta emoneko itza olan betetako geratu gintzazan EUSKERAZAINZAREN aldizkarian argitaratzeko.

Euskaldunentzat, merezi dau Nafarroako edesti zati au jakitea, ez Euskaldunak zeozer izateko edo bestien aurrean zeozegaz aurkezteko dana arrapatu gurean gabizelako. Ez !!

Gure edestia ostondu ezin nai dabizenai esateko, “Gure edestia, Gai-mundu onen gizartearen edestia dala, eta baleiteke euren baiño Zentzun aundiagokoa”.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.011'n Azilla'ren 15ean.

“EUSKERAZALEEN ELKARTEAN”

“EUSKAL-ASTE”

AURKEZPENA.

Barroeta ta Amorrortutar Klaudiok aurkeztu euskun 2.011ko Euskal Aste au bertso onekin:

Pozik ikusten doguz
gure mendi ederrak.
Pozik, euren barruan
diran iturriak.
Alangoxeak doguz
Euskadiko lurrak,
zuaitz eta uregaz
edertzen diranak,
“gu gara, kantaturik,
altxor euskaldunak”.

-Orretiko ondare edo altxorak dira
Alkarte Euskerazaleak
bere batzarkide ta bazkideekin
urtearen zear egiten dauzan billerak,
argitaratzen ditun aldizkariak,
antolatzen dauazan Euskal ikastaroak,
eta aste oso betean zear eskeintzen dauzan
itzaldiak.

Izlarieri, aldez aurretik, biyoakiez
nire zorion ta txaloak.

Sarrera.

Antziñatik eta eten bako jarraikitasunean ospatzen dogu Euskerazaleak Alkarte taldekoak garenak, “Euskal Aste” au 2.011an Azaroaren 21etik 25era arratsaldeko 7retatik zortziretara, ordu bateko epe labur baten.

21eko astelenean, Atutxatar Paulori egokitu jakon bere itzaldian II n karlistada adierazpentzea, eta aldatu egin eban:

a).- **“1.789ko Frantziaren iraulketa ta beren osteko karlistaren guda, jarraian 1.914-1.918ko urte bitarean Munduko lenengo guda nagusia, ta bigarren munduko guda nagusiaren sarrera zana, Frankoren katolikotasunezko guda sakratua,edo eta Munduko bigarren sarraskitzaille guda, zeozer erabagi ba ebenagaitik”** itanduten ebena.

b).- Adierazpen orren azkeneko erantzunean, iritzi, oiuzko edo ta deadarrezko itz oneikaz amaitzeko: **Mundu onen erri ta errigizarteak eramankor “Guzurraren Utsegitea” itxaroten dogula.**

22ko asteartean, Urangatar Erikari egokitu jakon **“Aragoi ta Euskerea”**ren arteko arremanak adieraztea, ezin eban etorri baiña, eta Uriartetar Anak azaldu ta argitu ebazan Erikak esangure ebana zati baten beintzat, danoren artean liburutzeko beste paper orrietan idatzitako argibideakaz.

23ko eguastenean, Barroetatar Klaudiori egokitu jakon Bilbaoko kirolak adieraztea, eta Mirabilla auzunean dagozan kirol ta igeri lekuaren antolakuntzak adierazpendu euskuzan, jakintsu batek adierazpentzen dauan eran, ango atonduak azkeneko zeaztasunetaraiño argituta.

24ko eguenean, Larreatar Anjeleri egokitu jakon **“Bizkaiko Baserriaren”** zentzuzko edestia adierazpentzea, eta benetan diñotsuet, baten batek obeto be egin leikela, mundu onetan egin bear doguzenak erindu leikezelako (1), baiña nai ona izan arren gatz egingo jakola besteen baten bateri, Baserriaren edesti gora beragokoak, alango sendimenduzko adierazpen ederrago bategaz argitzea.

Euskerearen Berezkotasuna zer ote da ?.

Euskaldunak emen uste dot daukagula arazo andienetariko bat, edo ta ainbaten oiturazko aria apurtu egin jakulako, ez gara konturatuten **EUSKERA** zer dan, zelan sortu zan, edo ta zelango baldintzakin osotu zan bere izatezko nortasunean, ain barneko jakitun ederratik, daukan jakiturizko baretasunean, zentzuzko itxura ederrenean agertzeko.

Gure artean uste dot, naita beste batzuk eginda gero, baten batzuk euren gogoan oldozten dabela, **Euskerea bezala**, mundu onetako gauza andiak egiten diranean, betiko dirala, eta naita edozer gauza eginda be, eurak bakarrik doiezela osakuntza osoan.

Ez dira konturatzen, gure gai-giza bizitz au, epe laburrean belaunez-belaunekoa dala, eta belaun-aldi bakotzaren ardurazkoa dala, berari agertzen jakozan legezko eskubidearen egin bearrezko ardurak, oitura onenean ordezkatzea.

(1) Erindu = obeagotu, biribildu, bikaindu.

Asken baten ortxe dago arrazoi andiena, beragaz egin degun, egiten doguzan astakeriak ezerezegaz oartu gabe, edo ta egiten doguzenak zergaitik egiten doguzan, aurrera begira ezer ez balitz gertatuko.

Jakintsuak baiña, zergaitik izten dabe gauza orreik sortu daitezen ?.

Gure Euskalerrri onetan, lenago baten batzuk esaten eben: **“Entzun ta Ixil baietzko biribil”**.

Geienetan ixilik geratu egiteagaitik, zauri ederrak izaten doguz gure Euskal gorputz onetan.

Nik uste dot baiña, gure Euskal gorputz onek be, bere galgak bear dabezala ibili biziaren bideko gauzak larritasunezko egoeran, edo ta arrisku egoeran sartzen diranean, bestela menpekotasunetik aske geratu gurean daukaguzan zaurien gain, edozein gauzagaitik zauri geiagotan sartu ?.

Adi egon, ta ez itxi norberen ardurak, urrengo datozenak konpondu dagiezala, **“GURE EUSKERAZKO GORPUTZ AU, OREKAN IRAUN DAGIEN”**.

Larreatar Anjelek Baserriko adieazpena amaituta, gure itaun erantzukerako denbora apur bat emon euskun, eta “leioaren” aditzera eldu giñanean “bentana”ren esangura geratu zan euskerako adierazpenik gabe, eta Anjelek esan eban, batzuetan orrotzaren itzak be sartzen dirala gure izkuntzan eta...

Gauza orreik baiña, bere esangura daukie jakintzaren arloan:

a).-Arrazoizko leen maillan gure Euskerearen sorreragaz ez garelako oartzen, edo ta gure arbasoai zergaitik Euskerea sortzea beartu jakien alde batetik.

b).-Eta bere ondorioz bestetik, aztu jakula edo ta ez garela konturatzen, Euskerea gure bizitzazko ekintzaren arduraren, zor eskubidetan artu emoneko erabilitasunetan **“EKANDUAREN”** adierazpeneko tresneria dala.

Eta gure azturazko bide orreitan tresnerien almenak, edestitik etengabeko aldakuntza daukien lez, Euskereak be aldaketa orrekin aurrera egin bear dau, aldi bereko egokitasunean ezarrita.

Zergaitik.

Gure Euskerea, Bereztasunaren adierazpena izanda, gure bizitzaren aurrera bidean egin bear doguzan gauzakin, almenezko tresnerien egokitasunagaz, iru gauza barri emoten dauzalako:

a) .-Zertarako dan.

b) .-Gaiak emoten dauskun aukereagaz, zelako gauzakaz eginda dagoen.

d) .-Ona edo txarra izaten bada gure osasunarentzat.

e) .-Eta gizartean lez, itzak osagarriak izan ezkerro, Jaungoikoak gai au bereztasundutako legearekin adoztasunean egiten ba dogun a la ez.

EKANDU orretan neurtzen diralako gure zor-eskubideko ordezkartzaren legezko erabagiak.

Gure ardurazko zor-eskubidearen egin bearrak olan ordezkatu ezinik, beste gauza bi agertzen dabezalako: “Ardurabako alpertasuna” alde batetik, eta mundu fisiko au utsungabekoa izanda, uts orreik arrotzaren esaerakaz betetan direla.

Eta askenean aipatu dogun arrotz-esabidearen ezarpen orreri, menperatasundutea esaten jako ?.

Ez !!.

Gaur egunean eta beti, munduko errigizartearen legezko eginkizunean bearrezko ekintza bidetik, utsunezko zabaldegirik ez dabelako izaterik, eta utsun orreitan gitxiago legeen on artzerik, utsunezko arrotz bete orreik Nortasunaren alperkerian sortzen dira.

Jaungoikoak ez dauku bialtzen Berak bereztasundutako gai onetara lo egiten, zor-eskubideren ordezkartzak ezarri ginduzan arduragaz, baitazko ulermenean zentzuz betetan baiño.

Eta beste gauzarik egin ezinean, gauza orreik dira ordezkatu bear doguzenak, ta ondo gaiñera.

Orduan, bere gaztelerazko izkuntzan be aize ta argiaren tokiko zentzua daukenak “*Ventana*”⁽¹⁾ arrotz itza, zergaitik gure esanetatik alboratu ez ?.

Leia-toki, edo ta gure babes-erasorako dorreak moztu eta baserri biurtu ziranean, zabaldu jakiezan etxearen arnas edo ta argitzeko tokiak direnai, ez dautzaguz esaten itz ber berorrekin, orregaz osatuten doguzelako “Leio” itzetik urten eziñak.

Leia/o-tokiak, dorretxearen ormatan euki ebezan zabaldutako estuguneak ziran, etxe edo dorrea erasoteko inguratzen ebezan etsaiari, babesean dardai edo ta geziak botateko tokiak ziralako.

Eta baserriko etxeari aize ta argia emoteko zabaldu jakiezan zurezko “Arnas edo ta Argi-tokiak”, bide batez kortan pillatu egiten ziran abelgorri, asto, ardi gorotz edo euren sats-ongarriaren irakitzeko bidetik agertzen ziran lurrun ta usai txarretik etxea askatzeko:

“*Leia-toki edo Leioaren*” esangura ezagututa, zergaitik ipini ez “*Arnaz-Ate*” edo ta “*Argi-Ate*”aren itz berba orreik ?.

(1) Ventana = gaztelarrak, etxeetan, argia ta aizeak sartu zitezen lau aldeko ormatan zabaldua daukiezan “*ate*” txikerrari esaten dautsoe.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.011'n Azilla'ren 28'an

Mundu onetako erri ta errigizarteak eramankor itxaroten dogun “guzurraren utsegitea”

1.789ko Frantziaren iraulketa ta beren osteko Karlista gudak zeozer erabagi eben ?

Bilbaon 2.011n Azillaren 21ean
Euskerazale Alkartearen etxeko “Euskal Astea”

Sarrera.

Teori asko ibili dira mundu au bideratzeko askeneko 2.000 urte onetan, beti baiña norkeriaren maltzuratasuna garaipenduta.

Zergaitik.

Gure antolamenduzko eragilletasunetan, nortasunez edo ta norkerian ibiltzeko, Gai Mundu onek daukazan lilluraren atsegiñazko almenak, bardiñak diralako.

Ardurazko orekan zaintzea da baiña, Gai Mundu onen legeak erakusten dauskuna, gure eragilletasunean, bizitz au jakindegun zelango baldintzakaz orekatu bear dogun.

Baldintza orreik nun agertzen ote dira ?.

a).- Gaiak eten barik, beragaz asten garenean gure baterakoi eginkizunetan bear doguzan gauzatarako, aurkezten dauskunagaz.

b).- Gure arrazoizko gizartearen bardintasunean.

Lenengoa da Jaungoikuaren arduazkoa, eta bereztasun onek orregaitik daukaz alderdi gabeko lege orreik irarrita bere izaeraren sustraian.

Eta bigarrena da gure erantzukizunezkoa, arrazoiaaren antolazko arduran, gure zor eskubidearen eginkizunak orekazko ondorengoak emon egiezan.

Argi erakusten dausku Izadi onek nor dan Egillea, gure almenak asmakuntzazko egilletasunean geratzen diralako.

Sekula aztu barik, Berak Gaian eta gure Baitan irarritz sustartuta daukazan legezko baldintzakaz izan bear dirala gure bearrezkoak diran asmakuntzazko eragilletasunak, bestela txinpartak eta ezbeurrak non nai agertzen dira.

Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu gendun jakitea, bizitzaren eragilletasunak gure baitan oituratuz oiñarritu egin genduzelako, biderako zelakoak izan bear ziran, gure ekintzan eroan bear genduzan baldintzak, bakezko askatasun demokratiko baten ezarrita, iraun egiezan gure gai izatasunezko ibilkunde auek.

Eta Jesusek Ekialdetik agertuta, an ibili ziran menperatasunezko borrokak ikusi ondoren berriz esan be, zelako baldintzakaz jokatu bear gendun gai-sorraldi onetan.

Guda indarrak baiña, euren lilluratasunak daukiez merkantilista batzangomende zaleentzat antza, eta ez jakien beste oldozmen edo burutaldirik agertu, gizarteetan

Jesusen aolkularitzazko mezu ederrak artzen eben zabaltasuna, gudu indar orregaz alkartu ta alderdikidetu sasikatolikotasunezko izenean.

Eta emen ikusten dogun gauza barregarriena, au da:

Guk Paleolitiko Neolitiko bitarteko bizi luzean ondo oituratuta ikasi genduzenak, eta Jesusek ostera guk gogoratu genduzen, argi ta garbi esanda, **“Jainkoaren erdiko edo alderdigabeko legeak”, “guk Norkeriz asmatutako sasi alderdikerizko batzango legeekin”, Jaungoikuaren legeakaz, guztiz aurkakoak direnak, sare arteko txebera baten batera, ezin dirala sartu !!.**

Mundu edo Europaren edestian 2.000 urtetan ekarri doguzelako aurkako eritzi bi orreik, sare arteko txebera orreitan sartuta, odoljariozko borroka, gaitzaldi ta txinparta ugarigaz zorro barru orreitan ikusten dogula.

Ainbat konponketarako lege alegiñak egin dira gure arteko bakeak lortu ginduzen, baiña danak alperrik, legearen ogitarteko orretan norkeria sartzen dogulako beti.

A ta guzti, ortze dagoz beti ta betiko Jainkoaren legeak, eta eurei esker guk egiten doguzan gauzaren emaitzak:

a) .-Gure antolakuntzarako ibiltan doguzanean nortasunaren alderdigabeko lege bide orreik, ondo neurtutako ekanduzko bakeak agertzen jakuz.

b) .-Edo ta norkeriaren alderdikeri bidetik, maltzur ta guzurrezko ondorio ugari.

Eta Ludi onetan emaitza orreik dira “legezkoak”, Jainkoak mundu fisiko au sortu ebenetik.

Gaur iñoz baiño obeto ikusten doguz emaitza orren arrazoiak, mundu onen gizartea gero ta demokrazizko zentzuan aurrerago goiazanean, ez gaitez batzango menperatzaillen norkerizko burukoikeri gauzatan sartu, eurak batzangotasunaren izenean amarrukeriz lortuta daukezan diru iturriak zarratzen dauskuez, mundu onen gizartea estukuntza larri baten kokatuta, gaur sortzen jakun antzera.

Eta edesti onen maltzur zentzua artu degun, edo ta guzur ori zelan agertu dan olan gure egunerarte, 1.789ko urtetik asita gaurko egunerarte aztertxobat emongo dautzagu.

EDESTI LABUR BAT.

Europako gizarteak ekarten eban kaizar ta erlijioaren estutasunezko kontrolpetik ezin askatuz batera, ekintzaren arloetan gero ta trebetasunezko almenak ugaritzen joan ziran, gaiari bere banaketaren bidez sortzen jakon antzera, banaketaren bakotzean aukerazko eritzi barri bi sortuta, kaizar ta katolikotasunean batzangotzeko alderdikeriari, gauzak zalantzazko edo ezbaiezkoak biurtuz.

Orrarte, ezin eben kaizar eta sasikatoliko alderdikeriaren agindupe baten Europa edo ta orduan ezagutzen zan mundua batzangotu, norkerizko batzangoaren indar alegiñak egiten ebazanean, erlijio, erri, izkuntzak eta bizitza bera milla zatitan apurtu edo ta birrindu egiten ebelako.

Eta gizaren ulermenean ta baita lan-ekintzazko aldetik almenak ugarituz joan ziralako, Europako gizartearen askatasunezko bakearen egarriari, beste aukerazko

aldi barri baten ezarri bear jakon, eta begitu zer oldoztu eben XVIIIn gizaldean, Europa bakezteko.

ERREGEAK.

Erregetzazko sorraldiaren antolakuntza, epaikari, bitarteko edo ta ebazle izateko sortarazi zan.

Eta nai eleizaren kaizar agintaritzagaz batera aunditasunezko eritzian kokatuta geratu gurean ibili, beti egon ziran lotuta erri ezberdiñakaz egin bear ebezan egiune edo itzarmenagaz, beste gizon/emakumearen antzera, gizon/emakume oiek jainkoak ez ziralako izan alde batetik eta bestetik, mundu onetan beartuta gagozelako ordezeko baldintza orreikaz zeozer egiterakoan.

1.789an FRANTZIKO IRAULTZA.

Frantzian saio bat egin zan guda bidez, beartuta artu bear ziran aurrerakuntzakaz batera:

a) .- Mundu osoko batzangotasuna lortu ezinean, Europako lurraldetan, bakez ala ondo zirikatuta bizi ziran izatasunezko nortasunak aienatzeko, errege edo ta jaunakaz itzarmenduta egon ziran nortasunezko erri orrein lurraldeak laterritu, norkeriz irasitako aberri barrietan biurtzeko.

Adibidez, espainiar, frantziar, alaman eta abar, gero, eurak izan zitezen erriak.

b) .- Kaizar agintaritzaz lurralde orreitan ezarrita, katolikotasunezko aolkularitza errege guztien gaiñetik beartu, latiña jakintzaren ibilgailu lez egokituta.

Zer agertzen da baiña, ezarritako araubide onen ondorioz ?.

Naita Europaren katolikotasun batzangotasuna, gudateko kaizartza baten menperatu arren, Jainkoak gai oneri bereztasundutako legearen aurrean, asmatutako araubide orreik maltzur ta lapurrezko araubide lez agertzen dira, eta norberkeri orreik zirikituz laster agertu zan Napoleonekin, nor-geiago izan lapur andiena leiaketa orreitan.

1.914-1.918ko urte bitartean, beste saio barregarri bat egin zan Europa onetan, eta naita ikaragarritzko odoljarioaren ondamena egin, ez ebelako buruzagi ausarturik aurkitu, ezerezean geratu zan, munduko bigarren gudan alangoko zoro bat agertu arte, 1.932an Hitlerregaz sortu zan bezela.

Gaur, sasikatoliko, merkantilkeri, diru zalekeri eta laterrikeriaren batzangotasunak, porrot galanta egin dabe ikusten dogun lez.

Ez ote dira gai izango, bear dan bereztasunezko legebidera osteraz itzultzen ?.

Ba, olan izaten bada, gureak eginda dagoz.

Espainiarren ondorengo gudaren Aurkezpena.

Espainako IIIn Isabel eta Karlosen anai arteko ondoriozko guda orreik, garrantzirik euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkiagaz zer ikusirik, ondorio ori aitzaki bat baiño besterik ez zalako izan.

Arazoaren erpeak, oso sakonagoak izan ziran.

Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzazko oinkada barri bat emon bear jakon: *Diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lantegi gintzak*, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebezalako.

Orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Errigizarteak daukazan eskubideak, Mundu eta Europaren Jendekuntzan alango aurrerazko oinkada bat emon ezker, bera osotzen dauan ordezeko egille guztiakin, neurri bardiñean, aurrera egin bear ebelako.

Batzango zale merkantilistaren asmakuntzan baiña, almen barri guzti orreik ikusi ondoren, norberekerizko gordinkeriak lilluratuta, aberastasunaren atsegiñezko tokian ezartzeko, aurrean aurkezten zirenak ez eben ikusten ikusi bear ziran ekanduzko begiekin.

Eta ez ziran “Ekanduzko” neurri orreik kontuan artu, liberalismoaren jaurkintz asmoak ekarten eban guda indarrezko bizkortasunagaz, gai eta errigizarteak eukezan eskubide guztien gaiñetik ezarri zalako.

Nun egon zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusia ?.

Argi da, indarkerizko batzangomende zale orreik, izan leikezan gauza barri orrein gogamenagaz lilluratuta, lapurretan joan zirala.

Mundu onetan denboraz, maltzurtasunaren lapur jokoak garaipenduta gaur ikusten dan lez.

Euskalerraren arazoak karlistaren gudetara eldu orduko.

VIIIn Fernando.

1.808an Epaillaren 19an Asturiaseko printzearen alderdia gogor eginda lortu eban, IVn Karlosek erregetza bere seme VIIIn Fernandoren eskuetan itzi egian.

1.808an Jorraillaren 15ean VIIIn Fernando, Napoleonegaz Baionan alkartzeko Gazteizen egoala, Bizkaitarrek gure Lege Foruak ziñez izenpetzeko, Gernikara joateko eskatu eutsoen.

Eta 1.808an Jorraillaren 15eko egun berean, Bizkaitar beste talde bat be aurreratu jakon, indarrez ipinita eukezan portuko kapitañak edo gudal buruzagiak kendu egiezala, Bizkaitarrak bere jaunagaz euki ebazan arreman onak, ostera bere onera ekarteko.

1.808an Jorraillaren 17an VIIIn Fernandok, euki genduzan Foru Lege guztiak baieztuz, gauza biak onartu ebazan, eta agindu ebazan bear ziran aldaketak egiezala, Bizkaitarrak euren egokitasunezko askatasunean jarraitu egien.

1.810ean Iraillaren 24an, gudal nagusiak, Kadizeko gorteetan erregearen ordezkoa egiten egon zirala sortu eben “*espainiar jaurgo barria*”, eurak aitu edo gura eben espainiar guztientzako ezarri bear zala ta, Euskal Lege, Nortasun eta Berezko erri lez euki genduzan eskubideko askatasunak kontuan artu barik.

Gudalburu nagusiak emen, guda indarragaz arrotuta eta erregearen gaiñetik kokatuta, irasitako jaurgo barri ori, danez gain ezarri gura eben.

Baiña begitu zer agertzen da emen: **“*espainiar gudal nagusiak erregearen irudia buru lez euki gura ebenak, euren agindupean edo sortu eben konstituziozko jaurgo barri orren legepean beartuta ezarri ebela*”**.

Gudal nagusi arek, zelan egin ebazan gauza areik, erregearen gaiñetik eurak ez ba ziran iñor lege orreik egin eta gitxiago ezartzeko ?.

Orregaitik, European nortzuk euki eben agintaritzazko indar nagusi ori, azpiko aolku orrekaz laterritasunen kaizartzazko batzangotasun orreik ezarri zitezen ?.

Danok dakigu, diru zalekeri aldekoakaz batera, Erromako katolikotasunak zer gura eban Europa ta Mundu guztirako, bera izan zalako erregearen gaiñetik European aolkulari nagusi ta bakarra 1.685 urtetan.

Erregeari, gudal nagusiak gaiñean ipini jakozan antzera baiña, berari diruaren zaletasunezkoak gaiñean ipini ote jakozan ?.

Mendizabalek⁽¹⁾ orregaitik, Kadizen egoan espainaren gudal-gorte edo guda yaurlari ⁽²⁾ agindupean sortu zan konstituzioaren legezko jaurgo barri ori, Bizkaian ipini gura eban, Euskalerrarentzako Zeruaren oneitariko atsegin sari bat lez, espainaren beste lurralde bat geiago izan edin, eta orretaz alegindu zan.

1.812an Urrillaren 17an indar eta maltzurkerizko auteskudean aukeratu ziran euren aldeko euskal ordezkariai, Kadizen egoan guda yaurlariaren aurrean aurkeztu zitezela agindu eutsen, espainiar jaurpidearen agiri orreik izenpetzeko.

Eta 1.812an Azaroaren 1erako antolatu zan, espainiarren jaurgo agiri barri orreik, Bizkaiaren Udal guztiko erritarren aurrean irakurri eta gero ziñ zitezen.

Bizkaitarrak narda askorekin egin ebena.

1.812an Abenduaren 13an jaurgo orreri ziñ egin ondoren, Euskalerraren iru lurraldeko Udal guztiari agindu eutsen, 1.813n urte guztirako espainiar eritziko ordezkariak aukeratu egiezala, Euskalerra ta Bizkaiko gizartea, oiñaze ta nekaldi aundi baten sartuta. **(*Onak bai legeak, Jainkoaren izenean espainiarrak ibiltzen ebezan alderdigabeko legeak ez ?*)**

1.813an Bagillaren 21ean, Arthur Wellesley Wellington dukeak Gazteizen, Napoleonen gudaloztea menperatzen dau, eta Napoleonen guda taldeak ortik aurrera, Frantzira aldatzen dira betiko.

1.813an Uztaillaren 21ean, Espainaren lurralde guztiko gotzaiñak asi ziran keiñatzaille esaten, ***espainiar ordezkari gaitik iñork ez egiela txarto barbarik egin, zuzen edo ostonduz, iraulketaren eritziak sartu ez zitezen.***

Eta orretarako, Espainako eleiz guztietan, urte guztietako Epailaren 19an “Te Deum” abestu egiela agindu zan, Espainako jaurgo zaleak ekarten eben askatasun omenez.

1.814an Epailaren 13an VIIIn Fernando, Frantziaren lurraldeko Balenzay erritik urten eben Madrillerantza.

1.814an Loraillaren 4an VIIIn Fernandok Balentziatik espainiar jaurgo zale gudu ordezkariak Kadizetik keiñuz agindu ebezan lege guztiak, ezereztu ebazan, eta gure

(1) Mendizabalen izen-abizenak = Juan Alvarez Mendez izan ziran, 1.790an Kadizen jaiokoa judutar sendi baten. (2) Guda yaurlaria = gobierno militar.

Foru Legeak osteraz ezarri ziran betiko erredutasunean.

1.814an Urrillaren 15ean VIIen Fernandok, osteraz baieztatzen dauz Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Foru Lege guztiak, Bagillaren 27ko eskutitzan egin ebanez.

Eta, 1.814an Abenduaren 14an Nafarroari beste agindu batekin, bere erregetzazko eskubideak berrezkuratu eutsozan.

1.820ko urtean, osteraz azten dira gure Foruen aurkako eraso aldi gogorak.

Guzur, maltzur eta indarrezko bidetik Euskal gizartearen *Arrazoizko Baita* lokaztu egingo dauana, eta urtearen aldaketako bidean Euskal Nortasuna ezereztasunezko amiltegira bideratuko dauana.

1.823ko urtean VIIen. Fernandok, gudalburu jaurozaleak beartuta Espainako jaurogo barriari zifnezko itza emon bear eutson.

1.830ean VIIen Fernandok, **Salikako** legea ezereztu eban, bere alaba Isabel errege aulkian ezarri zedin. Eta espainiar ondorengo guda sortuta, gure Euskalerrarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazan, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

1.833an Iraillaren 29ko arratsaldean VIIen Fernando il zan, eta bere emazte Maria Kristinak artu eben ordeiz Espainako jaurokintza, arik eta euren alaba IIen Isabel erregetzazko adiñetara eldu arte.

1.833ko Urrillan sortu zan espainiarren artean, erregetzaren ondoriozko guda, karlisten aldetik, VIIen Fernandoren anaia Karlos Maria Isidro bideratuta.

1.833an Azaroaren 30ean, erregetzaren jaurogo edo konstituzio barriaren agindua.

Euskaldunentzat zer izan ziran karlistaren gudaketak ?.

Europar, merkantilista eta Erromako kaizar sasikatoliko aolkulari nagusiaren bidetik, erabagituta geratu zan berezko errigizartearen eskubide gaiñetik, menpeko indarraren legez, edo ta edozein eratako gobernuekin daukaguzan laterrietan aberri barritu egin bear ziralako munduko lurralde guztiak.

Gu ez giñan konturatu menpeko arau barri orrekin, asmakizun orren sortzailleak Jainkoaren aipamenagaz: "Bereztasunezko legearen aurpegiakaz mozorrotuta etorten ziralako", gure baitaren ulermenetan urriñ geratuta, menpeko batzango asmo maltzur orreik ekarten eben guzurragaz, euki gendun sinismena ain sendoa izan zalako.

Guk ikusten genduna, gure Foruak babestu egin bear genduzela, eta Kadizen agertu ziran gudal batzango zaleen eragipenetik alde egin bear gendula len bait len.

Orregaitik itzarmendu gintzazan Vn Karlosekin.

Zer gertatu jaku euskaldunai gaur egunerarte ?.

Erromatar sasikatolikotasunaren batzangotasunezko erabagi gogor orreik, berezko erri ta gizartearen eskubide guztien gaiñetik aurrera eroan direla, aberats zale merkataritza ta gudal indarraren laguntzagaz.

Bestela begitu zenbat borroka euki doguzan lenengo karlistadaren ostetik gaur arte:

2) .-1.872, 1.876ko urte bitartean, bigarren karlistadarekin.

3) .-Munduko lurraldeak kolonizatu gurean.

4) .-Mundu onetan, Jainkoak bereztutako legearen aldekoak garenok geiago garelako eta errigizartearen eskubideko legeak berrezkuratzen joaten garanean demokrazi zabal baten agertzen garelako, beti atara dabez borroka latzak, mundu onetan danoentzat izan bear diran arrazoizko lege orreik ezereztuteko.

Olan euki genduzan ondoriozko lenengo gudak, erdi ugarte edo peninsula onetan.

Eta menperatasun orreik ziurtzeko, Franko faziztaren sasikatolikotasun sakratuzko guda, bai bigarren munduko guda, damu egokiduan kokatu euskuna, baiña dana alperrik urrengo egunean, ezer ez gertatu bazan lez, Erromako kaizar katolikotasuna ezereen damu barik aurrera egiten daualako bere asto buru gogorragaz.

Zeinda baiña, gaurko Euskaldunen itzaropenezko egoera ?.

Fazizta batzango zale orreik be, billur edo lotsatuta ukatu egiten dabezala alango odoljariozko gudak.

Baiña, bigarren munduko guda ostetik alango gudarik geiago ez egiteko erabagia artu ondoren, menperatzail lege artean oraindiño gagozan lez, goian aipatu dodazan mamuak agertzen dira naita nai ez, iturburuzko lege orreiñ aukerean, aurkezten diralako.

Orregaitik, Gai Bereztasundutako bizitz oneri, Jaungoikoak oiñarritu eutsozan legeak oratu eta ostera berezko eragilletasunetan gure borondateak ezarri bear doguz, bizitz onekin aurrera gure badogu egin.

Zergaitik ?.

Jaungoikoak Bereztuta, oiñarritutako legearen aurka, norkeriz asmatuta egiten doguzan sorburuzko legeak, lapur ta maltzurrak izaten ba dira, guk naiez ta, guzur ta maltzurrezko emaitzak artzen doguz, bereztasundutako Ludi fisiko onen legea dalako.

Zein da gaurko euskaldunaren egin bearra ?.

Gaur aurkezten garan borrokabako antzoki onetan, Bereztasundutako bizi onek daukazan legeak ulermendu.

Eta eskubi ta ezkeraren alperreko alderdikerietan ibili barik, naita eurekaz lanean egin bear badogu be:

Gure Euskal Berezko Baitaren eragipenean “Euskadi edo ta Euskalerrriaren Aberri elburua erdian daukagula lan egin”, Jaungoikuak bereztutako legeakaz jokatuta, zor eskubide orrekin ordezkartz “JOKUAN” osotzen diralako ezker ta eskubiko alderdiak daukiezan zentzuzko ezak.

“Egiak askatuko zaitue, entzun dot nik sarri”.


Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.011'n Azilla'ren 10'ean.


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZER

380n. zenbakia • 2012 martxoa



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org



Anaren oroimenez

Zergaitik diñoe Everest zirkua billakatzen ari dala?

Urteroko Batzar Nagusia





“AGUR, URIARTE
ta EUBA'tar ANA!!”

Montorra auzunea, Garai baserria, Anaren jaio-etxea

AURKEZPENA:

1.948an Iraila'ren 11n Zornotzako errian, Montorrako auzunean erre egin zan Garai baserrian jaio zan gure Euskal Nortasunezko Euskerazale Uriarte ta Euba'tar Ana agurgarri au.

Beren lenengo ikasketaren urratsak, Montorrako auzunean egon zan erriko eskolan emon ebazan.

7 urte euki ebazanean, Zornotzara beratu zan, eta Karmeldar lekaimeak daukien ikastetxean sartuta, bertan egon zan beren bigarren maillako ikasketak amaitu arte.

Bere aditze edo ulermenean, ez zan naikoa karmeldar lekaimearen ikastetxean ikasi ebenakaz, berak beren baitan ulertzen eban ogi bidearen lanetan ezartzeko, eta lasterrezko idazketak⁽¹⁾, ta kondularitzaren⁽²⁾ ikasbideko arloekin Bilbaora joanda arduratu zan, bide batez ingelez izkuntza be ikasten asita.

1.964ko urtean 15 urte eukezala, Bilbaoko Edesaren lantegian asi zan lan egiten, eta bertan bete ebazan beren lenengo urte-baterdiko lanak.

(1) laster-idazketak = taquigrafia. (2) kondugintza edo kondularitza = contabilidad empresarial.

1.965 eko Azaroan 17 urte eukezala, Zornotzaren "Forjas de Amorebieta"ko burni-lantegian sartu zan lan egitera, eta bertan egon zan 1.967ko Urtarrillararte.

1.967an berak "Forjas de Amorebieta"ko lantegian bear egin baiño zeozer geigo gure eban, eta Ingalaterrara joan zan "au-pair"⁽³⁾ edo ume-zain sari ordeztan, Bilbaon asi ebazan ingeles izkuntzaren ikasketak ulermenezko zentzuan ezartzeko, eta bide batez erretasuna emon, mintzo-egikuntzari.

Ingalaterran egoala, Paris be ikusi bear ebela ta, alan egin eban itzuraldi edo ta iges-aldi labur baten.

1.968an Eibarren egiten egon zan Arantzazuren kateko ostal-etxean lan egiteko euki eban ille biko elkargo bat eskuan, ostal-etxe ori zoritxarrez baiña, amaituten egon zanean jausi zan, eta ezereztu jakon ostatu arloetan egiten joan zan lan-saioa.

1.970eko Urrillan, Zornotzako karmeldar lekajime ikastetxean asi zan ingeles irakasle, eta bertan bete ebazan urte bi.

1.971ko urtean, karmeldarren ikastetxeko irakas lanaren urte bi orren bitartean, Zornotza'ko As-tobiza ta Zamalloa'tar Juanekin ezkondu zan, eta euskal kabi eder bat osotzeko bidean, urte barru orreitan Aitor semea euki eban, 1.973ko Urrillan Igor, 1.974ko Abenduan Amaia, eta 1.979ko Bagillan Jokin.

1.976aren urte orduko, karmeldar lekaidearen Karmeloko ikastetxean asi zan ostera andereño lez, eta bertan egon zan 1.985eko urterarte.

1.985eko urtetik 1.992ko urterarte, Zornotzako Andra Mari ikastolan egin eban lan andereño lez. Eta Urte orrean bitartean, Zornotzako Mendibil'tar Gregorio.

Kalean ipini eban Ikas-gela bat, ingeles, lantokiko kondu-liburuak, eta lanerako naikide⁽¹⁾ edo leikideari prestakuntzazko ikasketak emoteko. Geroago, bere seme/alabak be euren ikastetxetan ondo atondu edo adelatuta, irakatsi orreik emon ebezan, euren amak ipinitako ikastoki gela orreitan.



Ez zan geldirik geratu billakuntzazko antolagailluak⁽²⁾ agertu ziranean, eta ikas-gela ori antolagailluz bete eban, emoten ebazan ikasketak antolagaillu orrean bidez emoteko, eta ainbat Zornotza eta kanpoko gazte artu dabez irakaspen orreik, bera il dan arte.

Zekula ez eban euki ezetz lan egiteko, eta gitxiago ikastera urbiltzen jakozenai ezetz bategaz edo ta arrokeriz artzeko, bere izaeran danak artzen ebazalako "Zer beardozu" eskeintzaren berba adoretzuzko⁽³⁾ itaunagaz.

Jende guztia, nai zarra edo ta gazte izan arren, danak artzen ebazan begirunez edo lotsakortasun aundienean, gazteari beti aukera emonda euren nortasunezko askatasunean agertu egiezen.

Ona emen gaur, gure gazteak nun daukien eredu bikaiñ bat, euren izatasunaren gertuetarako ikas bidetik, bizitzan zor-eskubidearen ordeztan lan ekin-tzak egin bear dabez ekanuzko mailla andian, Jainkoa ta euskalerritari buruz egin bear dabez alegiñ onenean eskeintzeko.

NIREKIN ALKARTZEA:

Euskerazaintza'n eta Euskerazale'en elkarteetan Ana'rekin kidetasunezko arremen sakonak euki orduko, Zornontzako erriaren senditasunezkoak izanda edo ta auzotasunezkoak izan da, ondo esagutu nebazan beren etxeokak, batez be bere aita

(3) Frantzez izkuntzan, "au-pair" = ume zain esangura dau. (1) Lan naikiderako = oposiciones pa los puestos de trabajo. (2) Billakuntzazko antolagailluak = aparatos ordenadore de, o para la informacion. (3) Adoretzuzko berbea = palabra de animo, o, animoso. (4) Bigiran = tertulia.

Uriarte´tar Pedro, nire osaba Agirre´tar Gergorio´kin euki eban adiskidatasun sendo bidetik, sarritan alkar ikusi ta bigiran⁽⁴⁾ egoten giñelako.

Bai bere ama Euba´tar Puri ta Uriarte´tar Juan Pedro beren neba.

Eta bai 1.965´eko urtetan “Zornotzako Forjasen” Ana beragaz alkar lan egiten gendunetik be, naita beragaz nik ezeren artu emonik euki gabe, bera luma langille ta ni burdiñaren arloko langintza ezberdiñetan ibili giñelako.

Ni Lourdesegaz ezkondata eta gure alabak, Ana eta bere senar Juanenak baiño zaarragoak izan, eta mailla ezberdiñetan ibili arren, ikastolan batera ibili genduzan gure seme-alabak, ikastolaren arduratan eta gurasoen zeregiñakaz batera.

Baiña nire Euskerazale ta Euskerazaintzako idazlanak antolagailluarekin erreztutako alegiñean asi arte, eneban benetako Ana ezagutu, ikasteko eta euki nebazan arazotik askatzeko beti prest egon zalako, eta ainbat mesede egin euskun Olazar´tar Martin eta niri arlo orretan, gure Euskeraren aldeko erakundeetan kide izan orduko.

EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEAK ELKARTEAREN KIDE:

Beragaz antolagailluaren inguruan sarri ta denbora asko emoten gendun, eta bera Zornotzako euskal alaba arduradun lez, Euskalerra ta Euskal-sendia- ren menpeko giroagaitik minduta, bere “BARNEKO-BAITA”n, ardura andietan sartuta egonda,

Euskerazaleak eta euskerazaintzan egiten gendun lanagaitik, zirikigarritzko itaun sakonak egiten eus- tazan

-Beste gauza batzuen artean nigaz solas-aldiko berbaldietan egoten zanean, berak, ezkertari eritzikoa zala esaten eustan.

-Nik alderantziz, gure Euskalerra ez zala egon bear ezker-eskubi alderdikorik, esaten neutson.

-Gure Euskalerra maitagarri onetan bere barneko Jendekuntzan, “Askatasunezko Demokrasiaren Jabeduna izan ezker” ez dagoelako Nortasunaren izatasunezko errikoitasun orreitan zentzunezko lekuri iñungo alderdikierientzat, bere seme/alaba guztiak batera lan egin bear dabelako euren buru edo eta euskal elburuari begira, gorputz bat dalako.

-Euskaldun guztiak “Askatasunezko Erria izateko Elburuagaz”, iñori ta iñora begitu barik alkar bateratuta lan egin bear dogu, gure arbasoaren ondorengotik, bereztasunean egiturazko gizon/emakume itxura ona ekarriz gaiñ, barnetik jazteko, Askatasunezko Demokrasiaren Oitura Ederrak emon dauskuelako.

Eta ezker eskubitar alderdikierizko lokatz orretan sartuta egoten bagara, espainiar ta Europaren mendeko batzangotzaille alegin bidetik sartzen dauskuelako da, ortik agertzen jakuzelako daukaguzan menperatasunezko arazo baragarri orreik.

Solasbide ortatik, ainbat adierazpeneko alkar izketa eder euki genduzan aldikada baten Ana´k eta ni´k, antolagailluaren gora beran, beragana itaunka joan bear izaten nebanean.



GURE ANA KEMENTSUAREN EUSKAL- ARDURA SAKONAK.

Antolagalluaren gora beran beragana joan bear izan neban egun baten.

- Ana'k: Pablo, zelango lana egiten dozue erakunde lez Euskerazaintza ta Euskerazalearen eginkizunetan?.

- Nik: Illero batzartzen gara Kolon de Larreategin 14n zenbakiko 2n solairuan.

Euskerazaleak Alkartean emoten diran euskerazko ikasketak aurrera eroateko.

Illeroko "ZER" aldizkaria argitaratzeko bear daunagaz arduratzeko.

Euskal Astean emoten diran itzaldiak antolatzeko.

Egutegi-Takoa argitaratzeko bear dauazan lanagaz arduratu.

Euskerazaintza Euskeraren erri akademiko erakunde lez, sei illabeteko epean agertzen doguzan Bizkaieraz idatzitako aldizkari bien lanakaz arduratzeko.

Diru arloan laguntzazko eskaerak bear dabezan ardurazko antolaketak egin, eta Olazar ta Uribe'tar Martin apaizaren zuzendaritzapean erabagi, eta abar.

Kontuan euki bear dozu, aldizkari ta Egutegi-Tako orreik bakarrik idazten dirala bizkaieraz gure Euskalerriko lurralde oneitan.

- Urrengo egun baten Ana'k: Zu Pablo, eta lan guzti orreik aldizkari orreitan bakarrik itzi barik, zergaitik ez ote dozue interneten sartzen?.

- Nik: Zulako batzarkide bat euki ezkerro bai. Etorriko zifñake?.

Eta Martin'eri be antolagailluagaz euki ebazan jakinezko utsunetan aolkularitzan eta konponketetan ainbat bider laguntzen egonda, alango baten gure euskerea erabiltearen Euskerazale ta Euskerazaintza erakundeekin kidetu zan.

2.004ko Urtarrillan agertzen da Ana gure batzarreko agirietan.

Eta Jokin bere semea, ariñautik ama'ri lagunduten ibilita, 2.008an Uztaila'ren 10ean oizko batzarrean, eta maikide lez 2.009an Epailla'ren 26ko agirietan.

Gero, Donostin barik, Bilbon ipini zalako batzarlekua eta Murua'tar Joxe Mari ta Arzelus'tar Amale adifñetan sartuz, Joxe Mari'rentzat arazo andiko biurtuta berak zeatz eta ardura andiz eroaten ebezan Euskerazaintza erakundearen garrantzi andiko diru kontu ta lan orreik Jaurlaritzan aurkezteko, bertan itzi bear izanda, Ana arduratu zan lan guzti orrekin.

(1) Zurztasunean = orfandad



Ortik aurrera bere seme/alabaren laguntasunagaz, ikaragarritzko lanak egin euskuzan Ana'k interneteko arloetan.

- Euskerazaleak Alkartearen aldetik interneten:

- Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Zubikarai'tar Augustin, Latiegi'tar Bizentek egin ebazan "Denbora Zarretako Euskal-Eleizaren Edestia"ren kondairazko bederatzi liburu ta abar, Elbire Zipitria, Zubiri'tar Iñaki, Josu Peña, Olazar'tar Martin, Paulin Solozabal, Joseba Iker Laka Goenaga, Ikas Iztegia, Zer aldizkariaren ale guztiak, eta urteroko Egutegi-Takoa.

- Euskerazaintzaren aldizkari guztiak interneten sartuz gain:

- Kardaberaz bilduma osoa, Arrindatar Anastasio, "LATXAGA" San Sebastia'tar Jose Marik egin euskun euskerazko lan guztiak, "UMANDI" Urrestarazu'tar Andoni'ren Asmo iztegia, Gabirel Manteola'ren lanak amaitu barik geratu arren, Ana'ren seme/alabak bitartez amaitzeko itxaropenean gertzen garan, "200.000tik gora" ikusle daukazan Ana'k interneten egineko ikaragarritzko lan bikaiñ onetan.

Zelan beteko ote dogu, Ana'k itxi dauskun utsune?.

A ta guzti badakit nik, ANA'k, JAINKOA'ren ZERUTIK gure zurztasunean⁽¹⁾ lagundu be egingo dauskula, "EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALE"aren egin bearrak aurrera eroan dagiguzan.

Ainbat zor dautzagu Ana'ri Euskerazale ta Euskerazaintzakoak erakunde lez, eta EUSKALERRIAK ABERRI LEZ batez be.

"AGUR!!"

"EGUN AUNDIRARTE"

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2012'an Urtarrilla'ren 29'an

“AGUR, URIARTE ta EUBA'tar ANA!!”

AURKEZPENA:

1.948an Irailla'ren 11n Zornotzako errian, Montorrako auzunean erre egin zan Garai baserrian jaio zan gure Euskal Nortasunezko Euskerazale Uriarte ta Euba'tar Ana agurgarri au.

Beren lenengo ikasketaren urratsak, Montorrako auzunean egon zan erriko eskolan emon ebazan.

7 urte euki ebazanean, Zornotzara beratu zan, eta Karmeldar lekaimeak daukien ikastetxean sartuta, bertan egon zan beren bigarren maillako ikasketak amaitu arte.

Bere aditze edo ulermenean, ez zan naikoa karmeldar lekaimearen ikastetxean ikasi ebenakaz, berak beren baitan ulertzen eban ogi bidearen lanetan ezartzeko, eta lasterrezko idazketak (1), ta kondularitzaren (2) ikasbideko arloakin Bilbaora joanda arduratu zan, bide batez ingelez izkuntza be ikasten asita.

1.964ko urtean 15 urte eukezala, Bilbaoko Edesaren lantegian asi zan lan egiten, eta bertan bete ebazan beren lenengo urte-baterdiko lanak.

1.965 eko Azaroan 17 urte eukezala, Zornotzaren “Forjas de Amorebieta”ko burni-lantegian sartu zan lan egitera, eta bertan egon zan 1.967ko Urtarrillararte.

1.967an berak “Forjas de Amorebieta”ko lantegian bear egin baiño zeozer geigo gure eban, eta Ingalaterrara joan zan “au-pair”(3) edo ume-zain sari orde, Bilbaon asi ebazan ingeles izkuntzaren ikasketak ulermenezko zentzuan ezartzeko, eta bide batez erreztasuna emon, mintzo-egikuntzari.

Ingalaterran egoala, Paris be ikusi bear ebela ta, alan egin eban itzur-aldi edo ta iges-aldi labur baten.

1.968an Eibarren egiten egon zan Arantzazuren kateko ostal-etxean lan egiteko euki eban ille biko elkargo bat eskuan, ostal-etxe ori zoritxarrez baiña, amaituten egon zanean jausi zan, eta ezereztu jakon ostatu arloetan egiten joan zan lan-saioa.

1.970eko Urrillan, Zornotzako karmeldar lekaime ikastetxean asi zan ingeles irakasle, eta bertan bete ebazan urte bi.

1.971ko urtean, karmeldarren ikastetxeko irakas lanaren urte bi orren bitartean, Zornotza'ko Astobiza ta Zamalloa'tar Juanekin ezkondu zan, eta euskal kabi eder bat osotzeko bidean, urte barru orreitan Aitor semea euki eban, 1.973ko Urrillan Igor, 1.974ko Abenduan Amaia, eta 1.979ko Bagillan Jokin.

1.976aren urte orduko, karmeldar lekaidearen Karmeloko ikastetxean asi zan ostera andereño lez, eta bertan egon zan 1.985eko urterarte.

1.985eko urtetik 1.992ko urterarte, Zornotzako Andra Mari ikastolan egin eban lan andereño lez. Eta Urte orrein bitartean, Zornotzako Mendibil'tar Gregorio

(1) laster-idazketak = taquigrafia. (2) kondugintza edo kondularitza = contabilidad empresarial. (3) Frantzez izkuntzan, “au-pair” = ume zain esangura dau.

Kalean ipini eban Ikas-gela bat, ingeles, lantokiko kondu-liburuak, eta lanerako naikide (1) edo leikideari prestakuntzazko ikasketak emoteko. Geroago, bere seme/alabak be euren ikastetetan ondo atondu edo adelatuta, irakatsi orreik emon ebezan, euren amak ipinitako ikastoki gela orreitan.

Ez zan geldirik geratu billakuntzazko antolagailluak (2) agertu ziranean, eta ikas-gela ori antolagailluz bete eban, emoten ebazan ikasketak antolagaillu orrein bidez emoteko, eta ainbat Zornotza eta kanpoko gazte artu dabez irakaspen orreik, bera il dan arte.

Zekula ez eban euki ezetzik lan egiteko, eta gitxiago ikastera urbiltzen jakozenai ezetz bategaz edo ta arrokeriz artzeko, bere izaeran danak artzen ebazalako **“Zer beardozu”** eskeintzaren berba adoretsuzko (3) itaunagaz.

Jende guztia, nai zarra edo ta gazte izan arren, danak artzen ebazan begirunez edo lotsakortasun aundienean, gazteari beti aukera emonda euren nortasunezko askatasunean agertu egiezen.

Ona emen gaur, gure gazteak nun daukien eredu bikaiñ bat, euren izatasunaren gertuetarako ikas bidetik, bizitzan zor-eskubidearen ordezeko lan ekintzak egin bear dabezan ekanduzko mailla andian, Jainkoa ta euskalerrriari buruz egin bear dabezan alegiñ onenean eskeintzeko.

NIREKIN ALKARTZEA:

Euskerazaintza'n eta Euskerazale'en elkarteetan Ana'rekin kidetasunezko arremen sakonak euki orduko, Zornontzako erriaren senditasunezkoak izanda edo ta auzotasunezkoak izan da, ondo esagutu nebazan beren etxeoak, batez be bere aita Uriarte'tar Pedro, nire osaba Agirre'tar Gergorio'kin euki eban adiskidatasun sendo bidetik, sarritan alkar ikusi ta bigiran (4) egoten giñelako.

Bai bere ama Euba'tar Puri ta Uriarte'tar Juan Pedro beren neba.

Eta bai 1.965'eko urtetan “Zornotzako Forjasen” Ana beragaz alkar lan egiten gendunetik be, naita beragaz nik ezeren artu emonik euki gabe, bera luma langille ta ni burdiñaren arloko langintza ezberdiñetan ibili giñelako.

Ni Lourdesegaz ezkondata eta gure alabak, Ana eta bere senar Juanenak baiño zaarragoak izan, eta mailla ezberdiñetan ibili arren, ikastolan batera ibili genduzan gure seme-alabak, ikastolaren arduratan eta gurasoen zeregiñakaz batera.

Baiña nire Euskerazale ta Euskerazaintzazko idaz-lanak antolagailluarekin erreztutako alegiñean asi arte, eneban benetako Ana ezagutu, ikasteko eta euki nebazan arazotik askatzeko beti prest egon zalako, eta ainbat mesede egin euskun Olazar'tar Martin eta niri arlo orretan, gure Euskeraren aldeko erakundeetan kide izan orduko.

EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEAK ELKARTEAREN KIDE:

(1) Lan naikiderako = oposiciones pa los puestos de trabajo. (2) Billakuntzazko antolagailluak = aparatos ordenadoreen de, o para la información. (3) Adoretsuzko berbea = palabra de ánimo, o, animoso. (4) Bigiran = tertulia.

Beragaz antolagailluaren inguruan sarri ta denbora asko emoten gendun, eta bera Zornotzako euskal alaba arduradun lez, Euskalerrri ta Euskal-sendiaren menpeko giroagaitik minduta, bere "BARNEKO-BAITA"n, ardura andietan sartuta egonda, Euskerazaleak eta euskerazaintzan egiten gendun lanagaitik, zirikigarritzko itaun sakonak egiten eustazan

-Beste gauza batzuen artean nigaz solas-aldiko berbaldietan egoten zanean, berak, ezkerti eritzikoa zala esaten eustan.

-Nik alderantziz, gure Euskalerrrian ez zala egon bear ezker-eskubi alderdikorik, esaten neutson.

-Gure Euskalerrri maitagarri onetan bere barneko Jendekuntzan, "Askatasunezko Demokraziaren Jabeduna izan ezker" ez dagoelako Nortasunaren izatasunezko errikoitasun orreitan zentzunezko lekurik iñungo alderdikorientzat, bere seme/alaba guztiak batera lan egin bear dabelako euren buru edo eta euskal elburuari begira, gorputz bat dalako.

-Euskaldun guztiak "Askatasunezko Erria izateko Elburuagaz", iñori ta iñora begitu barik alkar bateratuta lan egin bear dogu, gure arbasoaren ondorengotik, bereztasunean egiturazko gizon/emakume itxura ona ekarriz gaiñ, barnetik jazteko, Askatasunezko Demokraziaren Oitura Ederrak emon dauskuelako.

Eta ezker eskubitar alderdikerrizko lokatz orretan sartuta egoten bagara, espainiar ta Europaren mendeko batzangotzaille alegin bidetik sartzan dauskuelako da, ortik agertzen jakuzelako daukaguzan menperatasunezko arazo baragarri orreik.

Solasbide ortatik, ainbat adierazpeneko alkar izketa eder euki genduzan aldikada baten Ana'k eta ni'k, antolagailluaren gora beran, beragana itaunka joan bear izaten nebanean.

GURE ANA KEMENTSUAREN EUSKAL-ARDURA SAKONAK.

Antolagailluaren gora beran beragana joan bear izan neban egun baten.

-Ana'k: Pablo, zelango lana egiten dozue erakunde lez Euskerazaintza ta Euskerazalearen eginkizunetan ?.

-Nik: Illero batzartzen gara Kolon de Larreategin 14n zenbakiko 2n solairuan.

Euskerazaleak Alkartean emoten diran euskerazko ikasketak aurrera eroateko.

Illeroko "ZER" aldizkaria argitaratzeko bear daunagaz arduratzeko.

Euskal Astean emoten diran itzaldiak antolatzeko.

Egutegi-Takoa argitaratzeko bear dauazan lanagaz arduratu.

Euskerazaintza Euskeraren erri akademiko erakunde lez, sei illabeteko epean agertzen doguzan Bizkaieraz idatzitako aldizkari bien lanakaz arduratzeko.

Diru arloan laguntzazko eskaerak bear dabezan ardurazko antolaketak egin, eta Olazar ta Uribe'tar Martin apaizaren zuzendaritzapean erabagi, eta abar.

Kontuan euki bear dozu, aldizkari ta Egutegi-Tako orreik bakarrik idazten dirala bizkaieraz gure Euskalerrriko lurralde oneitan.

-Urrengo egun baten Ana'k: Zu Pablo, eta lan guzti orreik aldizkari orreitan bakarrik itzi barik, zergaitik ez ote dozue interneten sartzen ?.

-Nik: Zulako batzarkide bat euki ezkeru bai. Etorriko zifake ?.

Eta Martin'eri be antolagailluagaz euki ebazan jakinezko utsunetan aolkularitzan eta konponketetan ainbat bider laguntzen egonda, alango baten gure euskerea erabiltearen Euskerazale ta Euskerazaintza erakundeekin kidedu zan.

2.004ko Urtarrillan agertzen da Ana gure batzarreko agirietan.

Eta Jokin bere semea, ariñautik ama'ri lagunduten ibilita, 2.008an Uztailla'ren 10ean oizko batzarrean, eta maikide lez 2.009an Epailla'ren 26ko agirietan.

Gero, Donostin barik, Bilbon ipini zalako batzar-lekua eta Murua'tar Joxe Mari ta Arzelus'tar Amale adiñetan sartuz, Joxe Mari'rentzat arazo andiko biurtuta berak zeatz eta ardura andiz eroaten ebezan Euskerazaintza erakundearen garrantzi andiko diru kontu ta lan orreik Jaurlaritzan aurkezteko, bertan itzi bear izanda, Ana arduratu zan lan guzti orrekin.

Ortik aurrera bere seme/alabaren laguntasunagaz, ikaragarrizko lanak egin euskuzan Ana'k interneteko arloetan.

-Euskerazaleak Alkartearen aldetik interneten:

-Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Zubikarai'tar Augustin, Latiegi'tar Bizentek egin ebazan **“Denbora Zarretako Euskal-Eleizaren Edestia”**ren kondairazko bederatzi liburu ta abar, Elbire Zipitria, Zubiri'tar Iñaki, Josu Peña, Olazar'tar Martin, Paulin Solozabal, Joseba Iker Laka Goenaga, Ikas Iztegia, Zer aldizkariaren ale guztiak, eta urteroko Egutegi-Takoa.

-Euskerazaintzaren aldizkari guztiak interneten sartuz gain:

-Kardaberaz bilduma osoa, Arrindatar Anastasio, **“LATXAGA”** San Sebastia'tar Jose Marik egin euskun euskerazko lan guztiak, **“UMANDI”** Urrestarazu'tar Andoni'ren Asmo iztegia, Gabirel Manterola'ren lanak amaitu barik geratu arren, Ana'ren seme/alabak bitartez amaitzeko itxaropenean geratzen garan, “200.000tik gora” ikusle daukazan Ana'k interneten egineko ikaragarrizko lan bikaiñ onetan.

Zelan beteko ote dogu, Ana'k itxi daukun utsune ?.

A ta guzti badakit nik, **ANA'k, JAINKOA'ren ZERUTIK** gure zurztasunean ⁽¹⁾ lagundu be egingo daukula, **“EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALE”**aren egin bearrak aurrera eroan dagiguzan.

Ainbat zor dautzagu Ana'ri Euskerazale ta Euskerazaintzakoak erakunde lez, eta **EUSKALERRIAK ABERRI LEZ** batez be.

“AGUR!!”

“EGUN AUNDIRARTE”

(1) Zurztasunean = orfandad.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2012'an Urtarrilla'ren 29'an

“AGUR, OTAZUA TA ASUA ‘TAR BENITO”

2.012an Otsaillaren 21ean Urdulizeko errian 94 urte eukezala.

Bere aita E.A.J'ren aldetik Urdulizeko alkatea izan zan, beren euskal sinismenetik artuta, ain sendo erperatuta euki ebazan Euskal Nortasunaren izaerazko zaletasunak.

Bere gaztetasunezko ikasketak, salerosketa eta diru eragillearen arloetarako atondu ebazan.

Zaletasun andia euki eban futbolagaitik, Getxoko futbol taldeagaz jokatuta Nando ta Larraurigaz batera erdiko zelaiaren jokalaria lez.

Guda agertu zanean atxilotu eben, eta iru urte ibili bear izan eban ezbaridiñeko espetxeetatik, eta bai espetxeratutako itsas ontzi baten be.

Orren artean eta Frankoren galentzazko ⁽¹⁾ agindupean, zigorrezko lantegi-batalloi talde baten bideak egiten.

Algortako janarien elkarteko saltegi edo denda baten menpeko langille lez lan egin eban, eta ortik Zornotzako errira joan zan zurtegi edo egur-lantegi baten, diru arduradun lez lan egiteko.

Algortako Barzelo'tar Marigaz ezkondata, seme bat euki eben.

Bere maitasunezko zaletasun artean bat, zuaitz-landarak lurreratzea zan eta igalidunak geien, ainbat ordu emoten ebazalako eurak zaintzen.

Zuaitzen artean bere kutuna zetan esanipez, Gernikan daukagun Zuaitz-Sakratua zala, eta beren ezkur fruituak artu ta bere baserrian landatuz, gaur zuaitz ederrak dira.

Bestea bere maitasunezko Bilbaoko Athleti zan, len esan dogu lez zaletasun andia euki ebalako futbolagaitik, eta Indautxuko futbol bazkunean be egon zan jokalarien taldeari irakatsi ta trebetzen arduradun lez.

Ardura andiko gizon ona izan zan, eta sekula ez eben ikasi geldirik egoten edo ta alperkeriz bere askatasunezko denborak emoten, alde ortatik gazte ta umeentzako euskal ipuin sariketarik antolatuta.

Euskerazaleak Alkartearen kide eta bere izenean euskerearen ikaskintza emoten ebana Alkartearen etxean, Saleros-Batza'ren aretoan, eta baita Errekaldeko Batzokian.

Euskeraz idatzitako ainbat ipuiñ liburuak daukaz:

-“AZERIA ta TXAKURRA”.

-“NIRE TXINDORTXUA ta LUKAS BASA-TXAKURRAREN ZORIGAITZAK”.

-“Aaa ZE AMES ZORAGARRIA !”.

-“ANTONIO TRUEBAREN IPUÑAK”.

-“ANTXONEKOA”. Eta beste batzuk.

Liburuak bere zarpeletik ordaintzen ebezanetik gain, beste batzuk Errekaldeko Lagun Arteko Kultur Taldearen bidez Bilbaoko Udalaren diru laguntzagaz ordaintzen ziran.

Eneban nik bera ezagutu, beragandik daukadazan aipamen guztiak, Olazar eta Uribetar Martin, Egurrolatar Iñaki eta Fernandeztar Karmelek esanak bakarrik euki dodazelako.

Olazartar Martinek, begiramen andian euki eban Otazuatar Benito, neuri sarritan

(1) Galentzazko agindupean = mandatos impositores de escarmiento.

aipatzen eustelako eta bai beren ipuiñak emon, gure Egutegi-Takoan argitaratzeko.

Dana dala, eta bera adiñ askokoa izanda gu ezagutu ez arren, “ZER” aldizkarian agertu bear dan gizona da, bere euskal zintzo biziaren arlo andi bateko ardurak, Jaungoikoagan, Euskerea, ta Euskerazaleak Alkarteko zeregiñaren serbitzura ipini ebazalako.

Nik ez zindudan ezagutu baiña, zure euskal bizitzaren eskeintzagaitik EUSKO JELTZALE ABERKIDE LEZ AGURTZEN ZAITUT.

“AGUR !!”

“EGUN AUNDIRARTE”

Atutxatar Paul
Zornotzan 2.012an Epaillaren 20an

Arzelus eta Arrieta'tar Amale omendu eben Donosti'ko Koldo Mitxelena'ren Aretoan

“Irratian lenengo emakume esale eta antzezleri lez”

Aurkezpena.

Arzelus ta Arrieta'tar Amale, Arzelus'tar Ander (“Luzear”) eta Arrieta'tar Amalek euren ezkontza bidetik sortu eben euskal sendiko kabi ederrean 1.924n urtean jaio zan.

1.928an lau urte eukezala bere aitak besoetan artu ta Donostiko antzoki baten aurkeztu eban, bere lenengo oguzpenean ⁽¹⁾ “Ni naiz sudurmotz berritsu bat” buruz ozentzeko ⁽²⁾, eta Euskal Irratiren lenengo emakume esatari biurtu zan.

Gero 1.932an Epaillaren 16an zortzi urte egin-barri euki ebezanetik aitagaz Donostiko Batu edo Union-Irratiko ozengailuetatik ⁽³⁾, Ander aitak bakar (Neskamearen marmarrak) eta alkarrizketetan aots gozoz mintzatzeko idazten ebazanak ibili ziran, Amalek jolas bat lez egiten ebazanak.

Urrezko denborak ziran aiek Euskerearen zabaltasunerako, geiago, Arzelus'tar Ander (“Luzear”) eta Zubimendi'tar Joseba'lako euskal arduradun zintzoak eukin ezkeru.

1.934an espainiar errrepublikako jaurkintzak debekatu ebazan euskerazko emanaldi orreik eta naita antzez lanetan ainbat lan egin arren guda amaitu arte, ez zan geiago irratiko aots gailluaren aurrean ipini.

Guda oste latza izan zala esaten dau Amalek, Frankok aginduten ebazan zigorragaitik, beren aita Burgos eta Madrilleko espetxeetatik bost urte'terdi ibili ondoren eta etxera etorri zanean, Frankoren zigor bidetik 200 edo 300 kilometruetan Erdi Ugarte onetatik erbestertzeko agindua artuta, bera ez ebalako kikiltzen atzerritarren erasoak, Frantzira aldatu zan eta isilpeko Euskal Irratia ipini eban lanean.

Amalek esaten dau, euren aita sekula ez zala egon geldirik Euskadi eta Euskerearen aldeko ekintzan, eta ardura andiko lanetan gaiñera, Euskaldunak Nortasunaren Izatasuna babesten egon giñelako, eta bere gizontasunezko sasoi onenean, indar guztiegaz bizitz osoa Euskalerrinari eskeintzen egoala Baionan gaisotuta, 1.949an Dagonillaren 27an 51 urte eukezala il zan, eta eskerrak Muñoa sendiari, Donostira illobirutzen ekartea lortu ebala, ez ixtilurik bage, esaten dau Amale'k.

Amale, 1.948'an Azaroa'ren 27'an Zinkunegi'tar Joseba sendagille ta gizon aundiaren seme bategaz, Andoni'rekin ain zuzen ezkondu zan, eta bederatzi seme-alaba euki arren, ez zan kikilduten ta Zipitria'tar Elbira andereño aundiagaz ixilpeko ikastolak antolatu eta ume, gazte ta nagusiekin asi ziran jota ke Euskerea irakasten euren etxeetan.

1.970ko urtean ikastolak baimendu ziran arte ekin eutson irakasten eta ostean elduen irakaskintzan jarraitu eban urte batzuetan.

1.979ko urtean Kardaberazen bidetik sortu zan EUSKERAZAINTZA-EUSKERAREN

(1) Oguzpenean = recitaciòn, declamaciòn. (2) Buruz ozentzeko = recitar de memoria. (3) Ozengailua = altavoz.

ERRI-AKADEMIA, eta andik aurrera ezagutu neban nik Arzelus'tar Amale, lenengo illeroko 15ero ta gero asken larunbatetan alkartzen giñelako egiten genduzan batzarretan nai Tolosan, Eibar, Deban eta azkeneko denbora onetan Bilbon.

Orain il jakun Uriarte ta Euba'tar Ana'k txantxetan itanduten eutson: "Amale baiña, zure adiñetan eta egiten dauan denboreagaz Donostitik ona?"

-Amale'k: "ez daukat, sakel au artu ta etorri baiño besterik".

Ondorioa.

Euskerazaintza erakundearen aldetik aitzaki edo garbituzko alegiñak zuzentzeko, leen egin bear doguna, Euskal Irratiak egin eutson omenaldian ez giñelako egon, parkamenak eskatu.

Oso pozik joango gintzazan Barroeta'tar Klaudio lendakari lez, Egurrola'tar Iñaki, ni edo ta Fernandez'tar Karmele, egun orretan ondo lotuta ez bagiñan egon Euskerazaleak Alkartearen zeregiñekaz.

Eta zurituzko berba oneik esanda ausartuko naz esaten, Ander ta Amale Euskal sendi ta gizon-emakume'lakoari, ez jakiela bakarrik omenaldi auk egin bear, naita egitea bearrezkoa izan Euskalerriko giza-seme-alabek eredutzat artu dagiezan.

Ardura aundian artuta ZINE'ra eroan baizik, gaur egunetik aurrerako gazteen belaun aldiak eredu lez bear dabezelako, goitik ta inguru guztietatik daukaguzan euskal etsaizko arrano lapur andi orreik euskerea ezereztuteko alegiñekin, geiago egiteko eta :

EUSKEREAK, BERE BETIKO LEKUA EUKI DAGIAN JAINKOAREN ZERBITSU AUNDIENEAN, BERA DALAKO PALEOLITIKO-NEOLITIKO ALDI ARTEAN LORTU ZAN DEMOKRAZI EDERRAREN AITORLE.

ZORION BEROENAK, ARZELUS ta ARRIETA'tar AMALE

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.012'an Epailla'ren 23'an

“AGUR, ALDEKOA ta ATUTXA´tar”

“JON ANDONI !!”

ARTEA:

Bizkaian, Arratiko erri txikerra eta polita da bere 12´41 kilometru karratuarekin eta 785 biztanle gitxi gora beran.

Igorretik urrean eta Arratiko ertzean, Iparraldetik Arantzazu, Ekialdetik Dima, Zeanuri ta Areatza, Egoaldetik Orozko eta mendebaletik Zeberio´ko erri mugakideakaz inguratuta, Arratiko erreka nagusi eta mendi barrenaren osasungarrizko usai gozoan, euskal zentzuzko senidetasunean alai bizi dan erri bat da.

Nekazaritza, abelzaintza ta zurgintzak dira beren bizirako ogiaren iturriak, nai eta gure Aldekoa ta Atutxa´tar Jon Andoni lez, gazteak inguruko errietara urten bear, gaurko jendekuntzazko bizitzak eskatzen dauan neurrian bizi izateko.

Bere edestian, Arratiarren merindadeko eleiz-aurre batzarrekoa zan, eta erdi mendeko aldiaren alderditarren borrokatan, Ganboatarren alde jokutzen ebana.

Eta azkeneko borrokan, 1.937´an ekaiñaren 16an Franko faziztaren gudalozte indarrek Ego-Euskalerra guztia lez, espainiar oinpean jarri eben.

Jon´en bizi kondaira.

1.933´an Epaila´ren 30´ean jaio zan Artea´ko erritxuan, Erriko Enparantzaren 42´n zenbakian, ez dakit eurak egin ba eben, bere emazte Juanita´gaz bizi izan diran etxea, baiña lenago berton egon zan etxe zarrean jaio zan.

Beren ikas bidea, Igorreko marianistetan asi zan, Deriko abade ikastetxean urte bi, eta Bilbaon salerosketaren ikasketakaz osotu eban.

Ikasketaren ostean eta 17 urte eukezala, Roke ta Zulueta´k sortu eben xeetasunezko makiñak egiteko langintzan edo tresnagintzan sartu zan bere ogibidearen arduran, eta bere zeregiña banaketaren idaz-gelan, diru kontuetan eta langintzazko antolamentuetan bete ebazan.

Begikoa izan zan beren gaiñeko agintarien artean eta maitatua langilleen aldetik.

Alango xeetasunezko makiñak egiteko edo tresnagintzazko lantegian lan eginda, bizitzazko ikasketak osotzerakoan, neurri orreikaz alegiñ onenean jokatu ezkeru artzen dan xeetasunezko trebetasuna, nai norberen izaerazko zentzuan, erritar, lagun, senitasun eta bizitzaren ordezkio bideetatik ibiltzeko, zentzuzko xeetasun andietan egokitzen dabe norbera, eta alakoa izan zala egiten ebazan gauza guztietan, esaten dau bere emazte Juanitak.

1.951an Otsaillaren 4ko domekan euskal seme abertzale bezela eta gure izatezko oiturak iraun dagiezen alegiñean, Arratian Etxebarria'tar Jabierren zuzendaritzapean eta Aita Jose Domingo karmeldarren aolkularitzapean sortu zan abeslari taldeagaz egon zan, Santa Agedaren bezperan lenengoz urten ebenetik Bizkaiko errietatik abestuten.

Niri, Jon Andoni'ren seme Jonek, urrutizkiñeko mobilkorraren internetetik erakutsi eustan argazkian, abestalde guztia "Laitoki"ren jende-belbil edo belbil-busaren aurrean dago atarata, berrogei berrogeita amar bat inguru, sasoiko Arratiar zar-gazteekin.

1.954ko urtean 21 urte eukezala joan zan Jon soldauzkara eta 23 urtegaz etxeratu zan.

1.958an Ekaiñaren 12an ezkondu zan Barroeta ta Amorrortu'tar Juanitagaz, eta seme bi euki zituzen, Iñaki eta Jon.

Eta 1.999ko urtean zar-sarian sartuta, aurrera begira beren bizitzazko denborea, sendi, erreka arraintzan, mendiko eizan, perretxiko, "Gure Inguruko Sisak" elkarteagaz, eta lagunekaz tabernan mus eta tutearen kartetako joku artean banandu eban maitetasunezko zentzu andiz denbora guztia.

Emen bearrezko aipatzea da, Jon Andonik euki eban lagun aundienetariko bat edo ta andiena zana ez bazan izan, Juanita'ren esanetan, euren senitarteko lez aipatzen ebalako.

Ernanitik Zornotzara etorritako Erdozia ta Artetxe sendiaren seme nagusiena Jon izan zan gazte au, guk erriko lagun artean geien "Ernani" ez izenagaz esagutu genduana, eta ziurtasun guztiagaz ia esango neuke, Zornotzan Jon'en izenagaz iñork ez ebalako ezagutu beren biziko lagun miñak Gorostizatar Juan Luis edo ta Kortabitartetar Jose luis langoak izan ezik.

Au be, bere gaztetasun ta gizontasunean nortasunezko pertsona edo benetako lagun ona ta trebea izan zan, Zornotzako Forjas eta gero eurak sortu eben Tolsan forjaseko elkartearen, lantegi bi orreitan lan egin ebena, eta Artea'ko alaba Abasolotar Pilarregaz ezkondu zanetik, Igorretik joanda Arteako sarreraren ezker aldean lenengo dauan eta 13n zenbakia daukan emaztearen baserrian bizi ziran.

Emen kontuan artu bear da Juanita'ren lengusua Jose Luis Dañobeitia be, Jon bien lagun andi bat izanez gain, edozetarako beti prest euki ebelako.

Aldekoatar Jon eta Erdoziatar Jon biak erreka arraintza ta eiztaritzaren kanpotik mendizaletasun andikoak izanda askotan joaten ziran euren lagun ta emazteakaz Orozko, Gorbeira, Altube, Urbasa, Nafarroa ta Euskalerritik kanpo, Leon, Burgos, Soria, Santander eta abar, perretxikoaren billa, sendi baten txango edo ibillaldi bat lez.

1.998ko urte inguruan lagun biak ain trebeak izanda, eta euren senide, lagunaren artean eta ardandegi edo ta edaritegietan mus eta tute kartetako joku bitartez errian perretxiko zaletasunaren zabalkuntza ain bizi sortuta euki eban lez, elkarte bat sortzea asmatu eben.

Eta Juanitak, Jon Aldekoaren emazteak erakutsi eustan 1.999an Dagonillako illean "GURE INGURUKO SISAK" elkartearen BBK diru-etxeko aurrezkigutuna lenengo diruakaz zabaldu ebena.

Elkarteak, inguruko erri askotako kideak euki dauz 300 erkide euki arte, eta Jon ata guzti ez zan geldirik geratzen, 10 euro urteroko sari ordainagaitik ezagun guztiari eskeintzen eutselako SISA elkartearen agiria, kidetu zitezten.

Ez ziran edozein gauzagaitik kikiltzen eta lan asko euki arren, beste gauza batzuen artean, Domu Santuaren egunean egiten eben perretxikoaren erakusketa aundia BBK, Udala eta al eben laguntzagaz.

Perretxiko erakusketaren jai eder orreitan, eurak asmatutako perretxikoaren saldea be banatzen eben bertora joaten ziran guztiari, eta Juanitak esaten dau, ondo ezkututa daukiela saldagintza orren eginkizuna, beren atsegin edo lilluratasunekin jende geiago aurreratu dagian, perretxikoaren erakusketako jai orretara.

Gure bizitza baiña, Jaungoikoaren eskuetan dagoen lez, Berak esaten dausku nozarteraiño iraun bear dogun gai-bizi oneitan, eta 2.007an Bagillaren 30ean Erdozia ta Artetxetar Jon il zan min-biziaren gaixotasunagaz, eta Aldekoa ta Atutxatar Jon bere lagun andiena, GURE INGURUTAKO SISAREN elkartegaz gaurko egunerarte iraun arren, uts aundia eukin ebela esaten dau Juanitak Erdoziatar Jonen gabetasunagaz.

Nirekin artu emona.

Nik eneban ezagutzen, arik eta egun baten Barroetatar Klaudiok nire adizkideak, bere arrebaren etxera joan bear gendula esan arte.

Gogoratzen naz, Jon eta Juanitaren etxe aurrean egon giñela, eta Klaudiok eurakaz berba egin ondoren, nirekin berba egin ebela mendi ta perretxikoaren gora beran, eta berba orreik izan ziran nigaz euki eban artu emon bakarra.

2.011n Loraila'ren 18an, Aldekoa ta Atutxatar Jonek, gure alkarrizketatik denbora gitxi barru, etxetik ziza perretxikoaren billa bere berebillean urten da, ez daki iñork zelan, errepidearen alboko aldapa batetik jausi zan, buru barruan larri zauritu ta ertzaiñak elikotero baten Kurutzetako gaisotegira eroan eben.

Kurtzetetik Gorlizeko gaisotegira eroan eben, eta luzaroan Jonen egoaldian ez zalako aurreraldirik agertzen, Klaudiok bere arrebari laguntzearren niri esan eustan ia zapatu baten Gorlizeko gaxo-etxera eroango nebazan. Andik aurrera ia zapatu guztietan eroan da adiskidetasunezko sendotasunetan sartu nintzan.

Il orduko aurreko zapatuan Jon ikusten egon giñela, Juanita negarrez asi jakun, berak eta guk be ikusten gendulako Jonen arnas artzeak larritasunean sartuta egon zirala. Eta guk usten genduana gertatu zan.

2.011'an 78 urte betetzeko eukezala Epaila'ren 13'an il zan Jon Andoni, Gorliz'eko gaisotegiaren 239'n gelan.

**JUANITA BARROETAK,
biotza lerturik,
olantxe diño, xamur,
begiak bustirik:**

**-YON ANDONI, laztana,
senar maite-miña,
ostondu zara, ixil,**

**sortuz biotz-miña.
¡Lagun eidazu, goitik,
gozatuz samiña !**

KLAUDIOK
Bilbon, 2.012an-Jorrailaren 5'ean

Ainbat zor dautza Arteako erriak Aldekoa'tar Jon eta "GURE INGURUKO SISAK" elkarte alai eta adiskidetasunean zuzendu ta aurrera eroan dabenai, 300 erkidetatik ez daiten agertu baten bat, perretxikoaren zaletasunezko bide ingurutik erria alaitasunezko kidetasunean oraiñarte lez aurrera iraun dagien.

Ni benetan poztuko nintzake eta Arteako erria batez be.

"AGUR !!"
"EGUN AUNDIRARTE"

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.012'an Jorrailla'ren 5'ean

FRANTZITIK ELEIZ-TXANGO

LISIEUX'eko TERESITA'ren BIZI-IGAROBIDETIK

2.012'ko Bagilla'ren 18'tik-25'eraño

SARRERA.

Zornotzan badagoz andra taldeak oraindiño, Karmengo amaren zaletasunean karmeldar lekaideak zirikituta, alango eleiz-txangoak egiteko prest agertzen diranak.

Eta nik benetan diñotsuet, ez dodala sekula osteraldi oberik egin, eurak antolatuta egin dodazenakin baiño.

Txikitatik eurekin oituratuta egoteagaitik ?.

Ala, Teodoro, Luki, Eliseo, Olea, Arostegi, Felipe eta neure bizitzan ezagutu dodazan karmeldar on guztiak, 1.979'ko urtetik 1.996'ko urtera Onaindia'tar Aita Santi'gaz il zan arte ibilita euki nabelako maisu ta lagun miñagaz, alango lillura antzeko baten sartuta ?.

Ez, karmeldarrak daukien jakintasunezko maisutasunagaz eta Zornotzako errigizartekoen artean euskal sinismeneko oituran ondo egokituta egonda, beti jakin dabe Kristau Aitorrera eta Karmengo Amabirjiñaren zaletasunak gure errian zentzu ederrenean eta gozotasunez ezartzen, zentzun aundiko artu emon orreikaz, karmeldar eta Zornotzako erritarrak senideko giro eder baten bizita.

Len eta beti Zornotzako seme-alabak, bat eginda gagoz karmeldarrekin eta eurak gurekin be bai, baiña Frankoren gurutzada eta bigarren munduko guda ostetik, Mundu, Europa, ta espainiarren agintari guztiak nai 1.948'ko Abenduaren 10'ean O.N.U'ko batzarrean onartuta, Munduko Errigizartearen Eskubideak sinatu arren, euren artean ez ziralako konpontzen, ariñautik ibilten eben kolonigille edo menperatasunezko bideekin iraun eben.

Eta menpekotasunezko "Nacional Katolicismo" zikin ori katolikotasun asmakuntzazko eran aurrera eroan dabelako, bere eragipeneko indarragaz, gure artean beti agertzen dira ezjakiñak, Euskalerrikoak garela aztu, edo ta bildurrez menperatzaill guzurtiak esaten dautsezenak ontzat artzen dabezanak, konturatu barik, Izadi onetako gizaki, erri ta gauza guztiak euren Nortasunezko izenak daukiezela, orekazko ardurean bizi gindezan.

Orregaitik, ni eta nire erria ez dira espainiarrak: "Sagarra" "Madaria" ez dan lez.

Europa ta munduko Santutegi oneik, Kristau baiño katolikotasunaren eragipenerako eginda, eta euren aldi-bateko aunditasunean danok batzangotzeko bitartekoak izateko egin ziran lez, guda indarra bakarrik geratzen jakien ibiltea, Europaren berezko errigizarteari euskaldunai bezela guzurrezko asmo orretan menperatzeko, eta XIXn gizaldian sortu ta gaur daukaguzan laterritasunari lotuta ipini euskun etenbako guda keiñatu baten, eta guzurrezko aberritasunari emoten dautsoen indarragaz euren zabalkunderako, bere eragipenaren bidez,

espainitarren izena asi zan gure artean agertzen, gure taldekoak espainiarrak izan bagiñan bezela, eta ni aurka agertu nintzanelako, argitzaillearenak egin bear izan nebazan batzuekaz.

Batera, balekite beste baten batek aginduta (?), nezkatilla bat ostondutako zirikitu batzukin neugana tentalari etortea, nik XIVn Luis "Eguzki" esaten eutsoenari buruz, Nafarroako errege lez zer jakin nebana itanduten, eta berari errege-izenetan okerrezko zeaztasunak emonda, alegiñ orregaz ia bera bialdu ebena agertzen bazan, baiña iñor agertu ezean ziur nago, neskea zeaztasun orrein zuzentasunak, bere etxera eltzen zanean begituko ebezala.

Andra batek, zer da espainiar laterritasuna ?, Aberria ez ote da ?, itadu eustan:

-Espainiar laterritasunak ez dauka iñongo aberritasunik, Frantziko iraultzaren ostetik Europako erregearen eragipeneko lurraldeak, katolikotasun aolku ta merkantilistak guda nagusien indarkeriagaz alkartuta, berezko erriak laterri oneitan menperatu ebezalako, euki ebezan berezko erri, errege, jaun ta guzti, gizartearen ta ezeren eskubideari begitu barik, mundu eta Europa onetan euren asmakuntzazko diru antolaketak egokitzeko.

Eta gero, Europako errigizartearen eskubideak bere lekuetan ezartzeko.

-Orreik dira gaur, European daukaguzan baragarritzko laterri oneik, eta daroagun bidetik sekula ez diranak atonduko, diruaren antolaketatik asi barik, errigizartearen eskubidetik asi bear diralako atondu bear diran oiñarrizko egokitasun orreik, diru kontuko zor-eskubidearen ardurak bere zentzuzko lekuetan ezartzen diranean konpondu egiten diralako, eta sekula ez alderantziz.

Dirua ez da elementu bizi bat, eta tresneri bat bakarrik izanda JAINKO seme/alabaren ordezkariak arduraz egokitzeko, neurri orretan jokatu bear dogu beragaz, berari gure norkeri erruz, beste aurrez aurreko aitzindaritasun emon bage.

-Laterriak, itxaropen onekuak dirala esaten neutsien nik, euren zeregiñean daukien esangurea, aldakorrezko denbora baten itzulpena dalako. Baiña noiz-arte ?.

Daroagun bidetik sekula bez, lotsa, arduradunezko lekuetatik kenduta, lapurtza agertzen dalako nun-nai, gaur sortzen jakun lez, eta goiko jakintsu orreik balekite lokatz orretan ondo egotea, euren buruetatik dirua baiño ez dabelako ikusten.

Beste batzuk: "Espainia beren edestiagaitik erria ez ote da ?.

-Espainiar, Frantzia, Alemania, Italia eta abarreko laterriak bereztutako bizi onetan, ez dira gure arrazoizko baitan zentzuzko aberriak lez agertzen direnak, JAINKOAK Izadi oneri bereztu eutsozan legeakaz, gure barneari begitu ezkerro, agertu be ez diralako egiten, eta gitxiago gurasoen aitortasunetik kanpo asmatuta eginda dagozanean.

-Guk ez daukagu iñungo almenik beraren legeak norkeriz erabilteko, eta oker edo itxura txarragaz agertzen jaku egiten dogun guztia, Lege orrein kanpo egiten doguzenak.

-Gauza guzti orreik 325ean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusian egokitu ziran, mundu osoa katolikotasunean batzangotzeko asmakuntzatic datozelako.

-Alegin asko egin dabez menperatzailleak, European eta munduko errigizarteetan olango gauzak edo ta bereztasunari begira Jainkoaren Legez kanpokoak izan zitezen, euren sasijainkotasunaren urre gorritzko-txekor gaiñean bizi naian, gaurko egunerarte ikur lez

ekarri dabelako, baiña ikusi bearko doguz emendik aurrera, gaur billakuntza arloan daukaguzan argibidearen erreztasunakaz, zelan konpontzen diran, bizitzaren eskubideko eragilletasunean bear diran ordezkarietzako tresneri guzti orreik euren eskuetan eukiteko.

-Ala, gure jaiotzatik JAINKOARENGANA joan arte, menperatzailleak dauken gudal indarren keiñaduragaz bizi bear ote dogu beti ?.

-Eta emen ikusten da argi, bizi onen zeazkizunak zeozergaitik ardurazko gauza guztietan, euren ordearen egokitasunezko lekuetan ezartzea dala, Jainkoaren aginduz danak bardiñ eta arduradunezko eragilleak jaiota bizitzan bakez iraun dagigun, bearrezkoak diralako zor-eskubideko ordezkarietzak euren ordaiñ lekuetan neurritz kokatuta.

-Baiña, Jainkoak bereztuta ipini euskun legezko bide ori, lanezko izen madarikatua izan balitz bezala laidoztuta daukagun lez, edozein erako erreztasunetara joaten gara, eta ariñ ikusi be egiten dogun gauza guztietan, orekak galtzeko, zelango erreztasunak dagoezan.

-Euskaldunak beti lez, Jainkoaren zor-eskubidearen ardurazko bide orreititik jokatu bear dogu eten barik, Euskalerrriaren bizitzan Nortasunezko Orekak iraun dagiezan.

Erromez-aldi onen idazpuru, berebil-busaren elkarte ta autolaria, kide, antolatzaille ta gidaria.

Erromez-txango onen Idazpurua:

Lisieux´eko Teresita Santuaren atz edo urrats bidean Frantziko lurraldeetatik.

Bel-bil busaren etxe edo ta bus´aren elkarte ta autolaria:

Karrasko busaren elkarteko Jose Manuel autolaria izan zan, itxura oneko bus oneitan zentzunezko zeaztasun eta trebetasun aundiz ibili ginduzena Frantziko lurraldeetatik zear, bidaiaren amaieran gure aldetik, merezimendu guztiagaz agurtuta.

Bidai onen bide-lagunak:

Euskalerrriaren Ego aldeko lau lurraldeetatik etorritakoak izan giñen erromes-txango aldi onen lagunak.

Zornotzatik.-

Dañobeitia´tar Mari Karmen.
Ugarte ta Erzilla´tar Itxaropena.
Barroeta ta Gorritxo´tar Lourdes.
Atutxa eta Agirre´tar Paulo.
Zearreta ta Barrena´tar Madalen.
Arana´tar Begoña.
Flores´tar Samuel (Iraillan karmeldar apaiztu egingo dana).
Sagarna´tar Jabier.
Aldazabal´tar Teresita.
Gomez de Segura´tar Rosa Maria.
Gonzalez eta Arrejula´tar Maria Pilar.

Bilbao´tik.-

De Pablo´tar Maribel.
Gutierrez´tar Konsuelo.
Pagaegi´tar Feli.
Egurrola ta Gandiaga´tar Pedro Mari.
Diez eta Albarran´tar Ana Mari.
Morales´tar Jesus.
De Kebedo´tar Ester.
Barreda´tar Asunzion Isabel.
Ortiz de Pinedo´tar Begoña.
Kastro eta Fuentes´tar Maria Teresa.

Gazteiz´etik.-

Zuazua´tar Damaso (karmeldarra).
Barghese (India´ko karmeldarra).
Ephraim (Afrika´ko karmeldarra).
Remijius (Indonesia´ko karmeldarra).
Lawrenze (Indonesia´ko karmeldarra).
Lopez del Korral´tar Mari Sol.
Rukandio´tar Karmina.
Korres´tar Margarita.
Fernandez´tar Maria Teresa.
Angulo´tar Bizitazion (Ikerkunde).
Uriarte´tar Luzia.
Perez de Arriluzea´tar Mari Karmen.
Perez de Arriluzea´tar Mari Kruz.
Rasines´tar Jose Luis.
Iñiguez de Eredia´tar Txelo.
Antepara´tar Luis.
Muñoa´tar Mari Jose.
Landazabal´tar Itxaropena (Esperanza).
Perez de Landazabal´tar Fermin.
Martinez de la Fuente ta Bera´tar Jose Franzizko.

55 eleiz-txagolari izan giñan guztiz.

Donosti´tik.-

Lapeira´tar Maria Luisa.
Lazkano´tar Pilar.
Lasa´tar Maria Jesus.
Lasa´tar Begoña.
Plaza´tar Teresa.
Elizalde´tar Maria Jesus.
Jauregi ta Askasibar´tar Koruko Maria.

Iruñatik.-

Elizalde´tar Nati.
Azparren´tar Maria Errosario.
Arraiza´tar Marina.
Garzia´tar Josefina.
Kañedo´tar Teresa.
Aniz´tar Emilio.

Bidaiaren antolatzaile ta gidaria:

Zuazua´tar Damaso izan gendun bidai onen antolatzaile ta gidaria, eta ondo baiño obeto ikusi gendun bere maixutza, zeaztasunezko erromes-txango onen zentzunean ez ebalako ezer aaztu eta gitxiago ezer oker egin, gauza guztiak ondo ta aldi berean egin ziralako.

Bidai onen egun eta ikusitako erriak:

Bagilla´ren 18´an Gazteiz, Bilbao, Zornotzan ta Donostin erromes-txangoa osotzen gendun lagunak batuta, Burdeos´en bazkaldu ondoren Eleiz Nagusian San Simon Stok´en illobia ikusita, Tours´era joan giñan.

Bagilla´ren 19´an, Tours, Alenzon, Semille, Sees eta Lisieux.

Bagilla´ren 20´ko egunean, Lisieux´ean egon giñan, karmeldar lekaidearen eleizan Meza santua entzun, Lisieux´eko ikusgarritzko basilika edo eleiz-nagusia, illerri, Los Buissnnets, San Pedro´ren eleiz nagusia eta Santa Teresita´ren aitak nun egiten eban arraintzan ikusteko.

Bagilla´ren 21´ean, Lisieux´etik urtenda, Bayeux´eko eleiz nagusian Leonia´ren illobia ikusi, erri orretan bazkaldu ta arratsaldean Honfleur´en Teresita´k ikusi eban Santutegia eta Deaubille-Troubille itsasondoko errietara joaten zan bere uda-tokiak ikusita, Lisieux´eko ostaletxera osterata joateko.

Bagillaren 22'an Bersalles'era joan giñan, berak daukazan lorategi ederrak ikusi ta bazkaldu ondoren Paris'era joanda, arratsaldean askatasun osoz uria ikusteko.

Bagilla'ren 23'an Montmartre'ko eleiza ta elizpeko illobiak ikusita, Garaipeneko Notre Dam eleiz nagusia ikustera joan giñan Teresitaren oroipenak gogoratuz, eta bazkaldu ostean bertako gidari bategaz, Paris osoa ikusi gendun.

Eta orren ostean askatasunezko denborea euki gendun lez, Damaso Futuroskop ikustera joateko alegindu zan, baiña ez zalako jende naikorik egon, bertan itzi genduzen ikuskizun eder orreik bete barik.

Bagilla'ren 24'an Txartres'era joan gintzazan bere eleiz nagusia ikusteko eta bazkaldu ondoren Poitiers'era joateko, berton afaldu eta lo egiteko.

Eta Bagilla'ren 25'ean Poitiers'eko karmeldarren lekaidetxean mezea entzunda, osterantzuzi giñan bakotza beren etxera.

Bidaiaren ordain-saria : ondo neurtutako 700 eurokoa izan zan, guk egin gendun bidea ta ibili gintzazan ostatu garbi ta patxada edo itxura onetatik, ordain diru orregaz egiteko gauzak ondo neurtuta egon bear diralako.

Janariekin be ondo ibili giñan naita batzuk, ollaskoaren kukurrukuak egiten asita egon, janari guztietako plater edo jatekoan ollaskoaren okelak izan ziralako ia izar bakarrak gatz-ozpiñ ugarirekin.

Ondorio lez.

Esan bear dot :

Lisieux'eko karmeldar lekaidearen eleizan, Basilika edo Eleiz Nagusiaren abad edo Apaiz-buru zanari aurkeztu euskunean espainiar lez, berak zeaztuz, zer izan giñen edo nortzuk giñela itandu ebenean eta euskaldunen erantzuna artu arte, espainiar izena ugari ibili zala gure artean, eta ararte entzun genduzan Meza Santu guztietan euskerarik ez bazan agertu, andik aurrera geiago izan zala Euskerea, erromes bide au amaitu arte.

Eta bakoitzaren errietara eldu giñanean, danon arteko agurra benetan diñot, anai arteko agurra izan zala, erromes bidai oneri, arraultz-opil edo gozo-opil baten gaiñean ginda ipintea lez izan balitz bezala.

Oar txiki bat.

Zornotzako andre, barrero uste dot alkar-bat egiten dabizela, karmeldarrak zelan zirikatatu, datorren urtean Erroma'ra joan al-izateko.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.012'an Uztailla'ren 7'an

FRANTZITIK ELEIZ-TXANGO

LISIEUX'eko TERESITA'ren BIZI-IGAROBIDETIK

2.012'ko Bagilla'ren 18'tik-25'eraño

SARRERA.

Zornotzan badagoz andra taldeak oraindiño, Karmengo amaren zaletasunean karmeldar lekaideak zirikituta, alango eleiz-txangoak egiteko prest agertzen diranak.

Eta nik benetan diñotsuet, ez dodala sekula osteraldi oberik egin, eurak antolatuta egin dodazenak baiño.

Txikitatik eurekin oituratuta egoteagaitik ?

Ala, Teodoro, Luki, Eliseo, Olea, Arostegi, Felipe eta neure bizitzan ezagutu dodazan karmeldar on guztiak, 1.979'ko urtetik 1.996'ko urtera Onaindia'tar Aita Santi'gaz il zan arte ibilita euki nabelako maisu ta lagun miñagaz, alango lillura antzeko baten sartuta ?

Ez, karmeldarrak daukien jakintasunezko maisutasunagaz eta Zornotzako errigizartekoen artean euskal sinismeneko oituran ondo egokituta egonda, beti jakin dabe Kristau Aitorrera eta Karmengo Amabirjiñaren zaletasunak gure errian zentzu ederrenean eta gozotasunez ezartzen, zentzun aundiko artu emon orreikaz, karmeldar eta Zornotzako erritarrak senideko giro eder baten bizitzea.

Len eta beti Zornotzako seme-alabak, bat eginda gagoz karmeldarrekin eta eurak gurekin be bai, baiña Frankoren gurutzada eta bigarren munduko guda ostetik, Mundu, Europa, ta espainiarren agintari guztiak 1.948'ko Abenduaren 10'ean O.N.U'ko batzarrean onartuta, munduko Errigizartearen Eskubideak sinatu arren, euren artean ez ziralako konpontzen, ariñautik ibilten eben kolonigille edo menperatasunezko bideekin iraun eben.

Eta menpekotasunezko "Nacional Catolicismo" zikin ori katolikotasun asmakuntzazko eran aurrera eroan dabelako, bere eragipeneko indarragaz, gure artean beti agertzen dira ezjakiñak, Euskalerrikoak garela aztu, edo ta bildurrez menperatzaill guzurtiak ontzat artzen dabezanak, konturatu barik, izadi onetako gizaki, erri ta gauza guztiak euren nortasunezko izenak daukiezela, orekazko ardurean bizi gaitezen.

Orregaitik, ni eta nire erria ez dira espainiarrak: "Sagarra" "Madaria" ez dan lez.

Europa ta munduko santutegi oneik, Kristau baiño katolikotasunaren eragipenerako eginda, eta euren aldi-bateko aunditasunean danok batzangotzeko bitartekoak izateko egin ziran lez, guda indarra bakarrik geratzen jakien ibiltea, Europaren berezko errigizarteari euskaldunai bezela guzurrezko asmo orretan menperatzeko, eta XIXn gizaldian sortu ta gaur daukaguzan laterritasunari lotuta ipini euskun etenbako guda keiñatu baten, eta guzurrezko aberritasunari emoten dautsoen indarragaz euren zabalkunderako, bere eragipenaren bidez,

espainitarren izena asi zan gure artean agertzen, gure taldekoak espainiarrak izan bagin bezela, eta ni aurka agertu nintzanelako, argitzaillearenak egin bear izan nebazan batzuekaz.

Batera, balekite beste baten batek aginduta (?), nezkatilla bat ostondutako zirikitu batzuekin neugana tentalari etortea, nik XIVn Luis "Eguzki" esaten eutsoenari buruz, Nafarroako errege lez zer jakin nebana itanduten, eta berari errege-izenetan okerrezko zeaztasunak emonda, alegiñ orregaz ia bera bialdu ebena agertzen bazan, baiña iñor agertu ezean ziur nago, neskea zeaztasun orreïn zuzentasunak, bere etxera eltzen zanean begituko ebazala.

Andra batek, zer da espainiar laterritasuna ?, Aberria ez ote da ?, itadu eustan:

-Espainiar laterritasunak ez dauka iñongo aberritasunik, Frantziko iraultzaren ostetik Europako erregearen eragipeneko lurraldeak, katolikotasun aolku ta merkantilistak guda nagusien indarkeriagaz alkartuta, berezko erriak laterri oneitan menperatu ebezalako, euki ebezan berezko erri, errege, jaun ta guzti, gizartearen ta ezeren eskubideari begitu barik, mundu eta Europa onetan euren asmakuntzazko diru antolaketak egokitzeko.

Eta gero, Europako errigizartearen eskubideak bere lekuetan ezartzeko.

-Orreik dira gaur, European daukaguzan barragarritzko laterri oneik, eta daroagun bidetik sekula ez diranak atonduko, diruaren antolaketatik asi barik, errigizartearen eskubidetik asi bear diralako atondu bear diran oiñarrizko egokitasun orreik, diru kontuko zor-eskubidearen ardurak bere zentzuzko lekuetan ezartzen diranean konpondu egiten diralako, eta sekula ez alderantziz.

Dirua ez da elementu bizi bat, eta tresneri bat bakarrik izanda JAINKO seme/alabaren ordezkariak arduraz egokitzeko, neurri orretan jokatu bear dogu beragaz, berari gure norkeri erruz, beste aurrez aurreko aitzindaritasun emon bage.

-Laterriak, itxaropen onekuak dirala esaten neutsien nik, euren zeregiñean daukien esangurea, aldakorrezko denbora baten itzulpena dalako. Baiña noiz-arte ?.

Daroagun bidetik sekula bez, lotsa, arduradunezko lekuetatik kenduta, lapurtza agertzen dalako nun-nai, gaur sortzen jakun lez, eta goiko jakintsu orreik balekite lokatz orretan ondo egotea, euren buruetatik dirua baiño ez dabelako ikusten.

Beste batzuk: "Espainia beren edestiagaitik erria ez ote da ?.

-Espainiar, Frantzia, Alemania, Italia eta abarreko laterriak bereztutako bizi onetan, ez dira gure arrazoizko baitan zentzuzko aberriak lez agertzen direnak, JAINKOAK Izadi oneri bereztu eutsozan legeakaz, gure barneari begitu ezker, agertu be ez diralako egiten, eta gitxiago gurasoen aitortasunetik kanpo asmatuta eginda dagozanean.

-Guk ez daukagu iñungo almenik Jainkoaren legeak norkeriz erabilteko, eta oker edo itxura txarragaz agertzen jaku egiten dogun guztia, Lege orreïn kanpo egiten doguzenak.

-Gauza guzti orreik 325ean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusian egokitu ziran, mundu osoa katolikotasunean batzangotzeko asmakuntzatik datozelako.

-Alegin asko egin dabez menperatzailleak, European eta munduko errigizarteetan olango gauzak edo ta bereztasunari begira Jainkoaren Legez kanpokoak izan zitezen, euren sasi-jainkotasunaren urre gorritzko-txekor gaiñean bizi naian, gaurko egunerarte ikur lez

ekarri dabelako, baiña ikusi bearco doguz emendik aurrera, gaur billakuntza arloan daukaguzan argibidearen erreztasunakaz, zelan konpontzen diran, bizitzaren eskubideko eragilletasunean bear diran ordezkartzazko tresneri guzti orreik euren eskuetan eukiteko.

-Ala, gure jaiotzatik JAINKOARENGANA joan arte, menperatzailleak dauken gudal indarren keiñaduragaz bizi bear ote dogu beti ?.

-Eta emen ikusten da argi, bizi onen zeazkizunak zeozergaitik ardurazko gauza guztietan, euren ordearen egokitasunezko lekuetan ezartzea dala, Jainkoaren aginduz danak bardiñ eta arduradunezko eragilleak jaiota bizitzan bakez iraun dagigun, bearrezkoak diralako zor-eskubideko ordezkartzak euren ordaiñ lekuetan neurritz kokatuta.

-Baiña, Jainkoak bereztuta ipini euskun legezko bide ori, lanezko izen madarikatua izan balitz bezala laidoztuta daukagun lez, edozein erako erreztasunetara joaten gara, eta ariñ ikusi be egiten dogun gauza guztietan, orekak galtzeko, zelango erreztasunak dagoezan.

-Euskaldunak beti lez, Jainkoaren zor-eskubidearen ardurazko bide orreitatik jokatu bear dogu eten barik, Euskalerrriaren bizitzan Nortasunezko Orekak iraun dagiezan.

Erromez-aldi onen idazpuru, berebil-busaren elkartea ta autolaria, kide, antolatzaile ta gidaria.

Erromez-txango onen Idazpurua:

Lisieux'eko Teresita Santuaren atz edo urrats bidean Frantziko lurraldeetatik.

Bel-bil busaren etxe edo ta bus'aren elkarte ta autolaria:

Karrasko busaren elkarteko Jose Manuel autolaria izan zan, itxura oneko bus oneitan zentzunezko zeaztasun eta trebetasun aundiz ibili ginduzena Frantziko lurraldeetatik zear, bidaiaren amaieran gure aldetik, merezimendu guztiagaz agurtuta.

Bidai onen bide-lagunak:

Euskalerrriaren Ego aldeko lau lurraldeetatik etorritakoak izan giñen erromes-txango aldi onen lagunak.

Zornotzatik.-

Dañobeitia'tar Mari Karmen.
Ugarte ta Erzilla'tar Itxaropena.
Barroeta ta Gorritxo'tar Lourdes.
Atutxa eta Agirre'tar Paulo.
Zearreta ta Barrena'tar Madalen.
Arana'tar Begoña.
Flores'tar Samuel (Irailan karmeldar apaiztu egingo dana).
Sagarna'tar Jabier.
Aldazabal'tar Teresita.
Gomez de Segura'tar Rosa Maria.
Gonzalez eta Arrejula'tar Maria Pilar.

Bilbao'tik.-

De Pablo'tar Maribel.
Gutierrez'tar Konsuelo.
Pagaegi'tar Feli.
Egurrola ta Gandiaga'tar Pedro Mari.
Diez eta Albarran'tar Ana Mari.
Morales'tar Jesus.
De Kebedo'tar Ester.
Barreda'tar Asunzion Isabel.
Ortiz de Pinedo'tar Begoña.
Kastro eta Fuentes'tar Maria Teresa.

Gazteiz'etik.-

Zuazua'tar Damaso (karmeldarra).
Barghese (India'ko karmeldarra).
Ephraim (Afrika'ko karmeldarra).
Remijius (Indonesia'ko karmeldarra).
Lawrenze (Indonesia'ko karmeldarra).
Lopez del Korral'tar Mari Sol.
Rukandio'tar Karmina.
Korres'tar Margarita.
Fernandez'tar Maria Teresa.
Angulo'tar Bizitazion (Ikerkunde).
Uriarte'tar Luzia.
Perez de Arriluzea'tar Mari Karmen.
Perez de Arriluzea'tar Mari Kruz.
Rasines'tar Jose Luis.
Iñiguez de Eredia'tar Txelo.
Antepara'tar Luis.
Muñoa'tar Mari Jose.
Landazabal'tar Itxaropena (Esperanza).
Perez de Landazabal'tar Fermin.
Martinez de la Fuente ta Bera'tar Jose Franzizko.

55 eleiz-txagolari izan giñan guztiz.

Bidaiaren antolatzaile ta gidaria:

Zuazua'tar Damaso izan gendun bidai onen antolatzaile ta gidaria, eta ondo baiño obeto ikusi gendun bere maixutza, zeaztasunezko erromes-txango onen zentzunean ez ebalako ezer aaztu eta gitxiago ezer oker egin, gauza guztiak ondo ta aldi berean egin ziralako.

Bidai onen egun eta ikusitako erriak:

Bagilla'ren 18'an Gazteiz, Bilbao, Zornotzan ta Donostin erromes-txangoa osotzen gendun lagunak batuta, Burdeos'en bazkaldu ondoren Eleiz Nagusian San Simon Stok'en illobia ikusita, Tours'era joan giñan.

Bagilla'ren 19'an, Tours, Alenzon, Semille, Sees eta Lisieux.

Bagilla'ren 20'ko egunean, Lisieux'ean egon giñan, karmeldar lekaidearen eleizan Meza santua entzun, Lisieux'eko ikusgarrizko basilika edo eleiz-nagusia, illerri, Los Buissnrets, San Pedro'ren eleiz nagusia eta Santa Teresita'ren aitak nun egiten eban arraintzan ikusteko.

Bagilla'ren 21'ean, Lisieux'etik urtenda, Bayeux'eko eleiz nagusian Leonia'ren illobia ikusi, erri orretan bazkaldu ta arratsaldean Honfleur'en Teresita'k ikusi eban Santutegia eta Deaubille-Troubille itsasondoko errietara joaten zan bere uda-tokiak ikusita, Lisieux'eko ostaletxera osterata joateko.

Donosti'tik.-

Lapeira'tar Maria Luisa.
Lazkano'tar Pilar.
Lasa'tar Maria Jesus.
Lasa'tar Begoña.
Plaza'tar Teresa.
Elizalde'tar Maria Jesus.
Jauregi ta Askasibar'tar Koruko Maria.

Iruñatik.-

Elizalde'tar Nati.
Azparren'tar Maria Errosario.
Arraiza'tar Marina.
Garzia'tar Josefina.
Kañedo'tar Teresa.
Aniz'tar Emilio.

Bagillaren 22'an Bersalles'era joan giñan, berak daukazan lorategi ederrak ikusi ta bazkaldu ondoren Paris'era joanda, arratsaldean askatasun osoz uria ikusteko.

Bagilla'ren 23'an Montmartre'ko eleiza ta elizpeko illobiak ikusita, Garaipeneko Notre Dam eleiz nagusia ikustera joan giñan Teresitaren oroipenak gogoratzuz, eta bazkaldu ostean bertako gidari bategaz, Paris osoa ikusi gendun.

Eta orren ostean askatasunezko denborea euki gendun lez, Damaso Futuroskop ikustera joateko alegindu zan, baiña ez zalako jende naikorik egon, bertan itzi genduzen ikuskizun eder orreik bete barik.

Bagilla'ren 24'an Txartres'era joan gintzazan bere eleiz nagusia ikusteko eta bazkaldu ondoren Poitiers'era joateko, berton afaldu eta lo egiteko.

Eta Bagilla'ren 25'ean Poitiers'eko karmeldarren lekaidetxean mezea entzunda, ostera itzuli giñan bakotza beren etxera.

Bidaiaren ordain-saria : ondo neurtutako 700 eurokoa izan zan, guk egin gendun bidea ta ibili gintzazan ostatu garbi ta patxada edo itxura onetatik, ordain diru orregaz egiteko gauzak ondo neurtuta egon bear diralako.

Janariekin be ondo ibili giñan naita batzuk, ollaskoaren kukurrukuak egiten asita egon, janari guztietako plater edo jatekoan ollaskoaren okelak izan ziralako ia izar bakarrak gatz-ozpiñ ugarirekin.

Ondorio lez.

Esan bear dot :

Lisieux'eko karmeldar lekaidearen eleizan, Basilika edo Eleiz Nagusiaren abad edo Apaiz-buru zanari aurkeztu euskunean espainiar lez, berak zeaztuz, zer izan giñen edo nortzuk giñela itandu ebenean eta euskaldunen erantzuna artu arte, espainiar izena ugari ibili zala gure artean, eta ararte entzun genduzan Meza Santu guztietan euskerarik ez bazan agertu, andik aurrera geiago izan zala euskerea, erromes bide au amaitu arte.


Eta bakoitzaren errietara eldu giñanean, danon arteko agurra benetan diñot, anai arteko agurra izan zala, erromes bidai oneri, arraultz-opil edo gozo-opil baten gaiñean ginda ipintea lez izan balitz bezala.

Oar txiki bat.

Zornotzako andre, barriro uste dot alkar-bat egiten dabizela, karmeldarrak zelan zirikatatu, datorren urtean Erroma'ra joan al-izateko.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.012'an Uztailla'ren 7'an



Euskeraren erri akademia / Academia popular de la lengua vasca
L'academie populaire de la langue basque

Euskerazaintza

LXIX Zenbakia • 2012. urtea-1

III. Karlistada

1839-1876



Euskerazaintza

Euskeraren erri akademia
Academia popular de la lengua vasca
Lacademie populaire de la langue basque

Euskerazaintza

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen duteneztat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: "Len",

oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak "laguntzaille" taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke "urtero" 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: 0182-1296-00-0201538669

KUTXA: 2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a
eskuma

48001 - BILBAO

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartean Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

aurkibidea

Atarikoa	7
Lortuak eta lortzekoak	11

II.- KARLISTADAKO GUDA EUSKALERRIAN 1839-1876

1.- Zatia.

Oarkuntza	13
Aurkezpena	13
1.839an Marotoren saldukeria	14
1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerrriak "Bakearen ordez", menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak	16
Lau urte onein ondorioa	17
Espainiarren edestiko liburuetatik artutakoa	18
Liburuaren XXIV-XXV txataletatik asita:	19
Denbora orreitan espainiarrak: "aberri lez egiztatu egiten dabe katolikotasuna"	20
Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:	20
Lenengo azalpenari erantzunda:	21
Bigarren azalpenari erantzunda:	22
Irugarren azalpenari erantzunda:	22
Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria	22
Euskaldunak	23

2.- Zatia.

Edestiaren aria berrezkuratuta. 1.844-1.860 urte bitartean edestilariak esaten dautsoen II n guda karlista	25
--	----

3. Zatia.

Karlista alderdiaren era berritze edo antola barria.....	30
Oarpena:	34
Ostera edestiaren aria artuta:	34
VIIIn Karlos errege-nai onen bizi kondaira.	39
Saboyatar I Amadeo, Aostako dukearen bizi kondaira laburra.....	40

4. Zatia.

1.872ko matxintasuna.	41
Dorronsorotar Migelen bizi kondaira laburra:.....	44
Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira:.....	44
Lizarraga ta Eskiroztar Antonioren bizi kondaira.	49
Dorregarai eta Domingeatar Antonioren bizi kondaira laburra:.....	51
Gudako aria ostera artuta.	52
Ondorio labur bat.	55

5. Zatia.

Gudako aria ostera berrezkuratuta.....	57
Ondorengo oarkizun txiki bat.....	59
Oarpen txiker bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun:	60
Karlistaren arteko gertaera oneik: Antonio Piralaren "Historia contemporànea" liburuko bigarren atalean 1.843tik XIIIn Alfonren eriotzararte, 10., 11., 12., 13. eta 14garren orrialdetan aurkituko dozuez.....	62
Ondorengo oarpen labur bat.....	67
1.874ko urtean agertutako aldizkariak:	68
Emen argi agertzen da ze garrantzidunak izan zan Bilboko Uri ta beren inguruko erriak.	68
Gogora ekarteko oar txiki bat.	68
Eta emen beste geraldari bat egin bear da, itaun au gogora ekarteko:	68
1.874ko Zati onen oarpena.....	73
Kataluniako ekitaldietan:.....	76
Euskalerriko ekitaldietan:.....	77
Onen oarpen laburra.	81

Onen oar laburra.....	81
Arabaren galduera.....	86
Ekintza onen oartxo bat:	90
Karlistadaren bigarren edo irugarren go gudaren amaiera.....	91
Menperatzailearen aldia amaitu ote da ?.....	97
ZERGAITIK AITA ?:.....	97
En mi opiniòn duerme el fuego bajo la ceniza”	98

6. Zatia.

Lan guztiaren ondorioa.	101
Erantzunak.	101
1) Nortasunaren zentzuzko izatasuna:	102
2) Nortasunaren izatasunezko ABERRIAK, eta Norkeriz asmatutako aberriak:	102
Aberriak ote dira baiña, Norkerizko asmokin gizarte ezberdintasunakaz sortzen diran batzagotasunak ?:	102
EUSKALDUNTASUNAREN NORTASUNEZKO ABERRIA:	103
NORKERI BITARTEZ SORTUTAKO ABERRIAK.....	103
Bibliografia	105

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak “laguntzaile” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: 0182-1296-00-0201538669

KUTXA: 2101-0200-46-0006681589

Atarikoa 2012

Iru aitatu daitezke gertakizun kaltegarrien artean: **Suteak, Uriolak eta Itxas asarreak.**

Suteak. Basoak, basarriak, dendak, lantegiak... sugartuz, erre ta kiskali daitezke austerre biurtzeraño.

Uriolak. Gogoratu Bilbaon, Tolosan, Donostin gertatutakoak. Toki orreitan egozan kale, denda, etxepe ta mota guztietako tresnak lokaztu, zikindu ta ondatu ziran.

Itxas-asarreak. Ikus itxasoan sortzen diran olatu andiek zelan zapuzten, iraultzen eta ondoratzen dituzten itxasontziak, bai eta kaltetu ondartzak, inguruetan diran biztanleak ito ta desagertuaziz. Aspaldi ez tala, India aldean, Sunami deritzon itxas asarreak kalte sekulakoak egin ebazan.

Iru gertakizun orreitan asiera xume ta apalak izan oi dira: txingarra dala, poxpolo ixitua edo zigarro mutur itzali gabea... ur tantak lenengo, saparradak geroago, ur jasad... uin edo olatu apalak baña denbora joan ala, arian arian aundituz, ugarituz, indartuz... menderatu eziña gerta leike.

Gizaki edestian be, antzeko gertakizunak ikusi oi doguz. Alaxen gertatu jakun joan zan amazortzigarren gizaldian gure Euskalerrian, Karlistada gudateagaz.

Espainiako erregetzan, errege izateko legeari buruz, iritxi ez bardiñak ta eztabaida ta iztilluak kaleratu ziran alkar izketetan, egunerokoetan, zaleen ta aurkakoen artean, sekulako asarre, burruka, ezin ikusi, ilketa ta anai arteko gudate ankerra ekarriaz.

Gudate au 1836tik 1876arte burrukatu zan, Euskalerrian Karlistada izenagaz ezagututen doguna.

Gudaldi orren edestia ederto be ederto azaldatuten deusku Paulo Atutxak idazle bizkor ta aspergaitza dogunak.

E

Ona emen, laburbiluz, aurkestute deuskuzan ATALBURU edo ZATIAK.

I-ATALBURUA (ZATIA)

Oarkuntza. Kontuan izan Sortzailleak Jaungoikoak, nortasuna emoten deusola bakotxari ta gizakiari be sena edo zantzu ezabatu eziña ipinten deusola barruan.

Aurkezpena. Gogoratuten dira, lerro zeatzen bidez, Karlistadako bertaera batzuk: iraun eban epea, gidaketa orren errudunak, egitada orren zergaitiak, idazleari lagundutako Edestiaren liburu egilleen izenak, edestiaren mami ta edukia, gudatearen ondorioak eta abar.

II-ATALBURUA (ZATIA).

Esparru onetan bear dan zeatzsubez aitaturen dira, 1840tik 1860arteko gudaldiko ekintzak.

III.ATALBURUA (ZATIA).

1860tik 1867arte iraun eban iztilluan zer ikusia euki eben jokabide ta izenak agertuten dira. Esate baterako Braganzako Maria-Teresa, gudalburu Prim, Serrano, Topete Juan Bautista. Bai eta edesti barruan sartu bear dan VII Karlos Erregegaia eta Saboyatar Amadeo, Aostako Dukearen kondaira laburra.

IV-ATALBURUA (ZATIA).

1872 matxinaldia ta orren errudunen izen eta bizitzak: Dorronsorotar Mikel, Santa Krutz abadea, ta Dorregaray Dominguerenak.

V-ATALBURUA (ZATIA).

Gudaren ariari daragoio idazleak, oarpen batzuk tartekatuz. Baita 1874ko urtean kaleratu ziran aldizkari batzuen aipamena egiten dau. Eztabaidako ekitaldiak non, zelan ta noiz arte jokatu ziran erakusten dau: batzutan Kataluña aldean, beste batzuetan Euskalerriko lurraldean. Onako onein barriek be aitatuten dauz: Araban galduaz amaitu zala guda, Arana ta Goiritar Koldobika ta Sabinoren galderak, eta euren aita Santiago ta gudarien esanak.

Gudatearen ondorioak azalduz burutzen dau Karlistadaren edestia Atutxatar edestilariak.

VI-BIBLIOGRAFIA.

Irakurlearen begietan ipinten ditu Karlistadari buruz eskuartean euki dauzen edesti iturriak eta idalarien izenak.

E

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzalle" taldera sartuko ditugu.

Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA 0182-1296-00-0201538669

KUTXA 2101-0200-46-0006681589

Lortuak eta lortzekoak (2.011)

Aurreko urteetako batzarretan izan dogun oitureari jarraituz, gaurko nire berbalditxu au gauza bi adierazteko izango da: Joan dan urtean zer egin dogun eta urrengoan zer egin bear dogun.

Bi milla ta amabigarren urtean gagoz. Epaillak ogeitabeeratzi daukozala.

Urtero lez, gure lanen aleak batuteko garaia eldu jaku. Begiradatxu bat egingo dautsogu batutako orreri.

Lenengo ta bein, egin doguna ikusi eta gero zer-zelan jokatu geinken aurrerantzean.

Beti be gauzak ondo egotetik, obetu gurean.

LORTUAK:

1.- Euskerazaleak Alkarteak daukan etxean illeroko Batzarretan osotu dogu alkar lana geuk geure eralkietatik erdiak ordainduz.

Euskerazaleak-Alkartean gugaz egon diranak betiko antzera doaz.

Atutxatar Paulok bete dau Batzarreko idazkari lana gure agiritegian zaintzen da.

2.- Urtean bitan argitaratzen dogu EUSKERAZAINTZA aldizkaria eta aurten be alantxe egin dogu. Gai sakon eta naiko luzeakaz osotuta.

Gauza bat esan bear dogu. Ezin dogula luzatu Aldizkaria 100 orrialdetik gora. Arrazoi bigaitik: Bidalgoa askoz garestiago litzakelako batetik, eta bestetik ez lizakela sartuko daukoguzan eskutitz-azaletan.

Alan da be esan bear 100 orrialde gitxitzat joten dogula. Zer egin geinke ba ? Korreo garestigoa izenpetu ala irugarren aldizkari bat atara urtero ? Erantzuna irakurleen eskuetan geratzen da.

3º.- Interneteko lana be aitau bear dogu. www.euskerazaintza.org. Lan bikaiña zalantza barik.

Or agertzen doguz EUSKERAZAINTZAREN aldizkari guztiak.

Kardaberaz'en bilduma, Arrinda'tar Anes'en idazkiak eta liburuak

ⓔ

San Sebastian ta Zubillagatar Jose Marik (Latxaga) idatzi dauzan liburuak eta Umandiren Asmo-Iztegia iztegitan sartuta daukaguz, eta 2.011 'n Gabirel idaz-lanak sartu doguz.

Bilbaoko Foru Aldundiari diru laguntza eskatuaz.

Eta Euskera zaleak Alkartearen izenean, idazle askoren liburu ta idazkiak sartuta daukoguz. Esate baterako: Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Augustin Zubikarai, Bizente Latiegi, Iñaki Zubiri, Martin Olazar, Paulin Solozabal, eta a.

Lan aundia da emen egiten dana. Aldundiaren laguntza be oso ona da.

Sartu doguzan idazkiak sartu doguzelako, mundu guztian lenengoak gara arlo onetan.

LORTZEKOAK:

- 1º.- Euskerazaintza Aldizkaria ateraten jarraituko dogu besterik esan ezean. Urtea bi edo irutan.
- 2º.- EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean illero, jagokun illearen eguenean, batzarrak egiten jarraituko dogu.
Batzar agirien ardurea Atutxtar Paulok daroa.
- 3º.- INTERNETEKO lanakaz be jarraituko dogu.
- 4º.- Gure Batzarra, ontzat dago artuta Eusko Jaurlaritzan.

LENDAKARIA
Barroetatar Klaudio

IDAZKARIA
Atutxa ta Agirretar Paul

Karlistadako gudak

Euskalerrian

1.840-1.872

1. Zatia.

Ⓔ

Oarkuntza.

Karlistadako bigarren borroka onetan sartu orduko, 1.833-1.839ko urte bitartean egin zan lenengo borrokaren amaierazko zeatzasunak aurkeztuko dodaz, edestiko idazlan onen arian, orañarteko baldintza onekin irauteko:

Bakoitzaren nortasuna kontu aundian eukinda.

Jainkoaren Lege bidetik argi geratu daiten: Euskalerriak izatasunezko zentzuan, ez daukala beste baitazko aberririk, Euskereagaz EUSKADIK emoten dautsona baiño.

d) Jaungoikoak mundu onen bizitza etenbako iraunkortasunean elikatzeko, oiñarrituz edo bereztuta ipini eutsozan Legeakaz emoten dauzan gauza guztiak, berezizko "nortasunean" emoten dauzala, konturatu gindezen.

e) Eta mundu onetan ez dagoela beste baliozko legerik, Jainkoak asieratik ipini eutsezan Legeak baiño, bizitza onetan eurak bakarrik dagozelako alminduta, daukan nortasunezko izatasuna, amaibako iraunkortasunean zaintzeko.

Aurkezpena.

1.833-1.839ko urte bitarteko karlistadaren guda onetan, gauza bi ikusten doguz, bata: Euskalerriko babesa Zumalakarregirekin, euskaldunen eskuetan egon zan

bitartean, konstituzionalismoko batzango zaleak ez zirala izan gai, euskal indarra eta borondateak menperatzeko.

Bestea: Europa sasikatolikotasun fazizta eritzian ezartzeko, guda ta merkantilerizko batzangotasunaren aldekoak, gudarako alegiñean izkillatuakaz ondo antolatuta, espainiar konstituzio barri orren batu zaleak, nai ta ez irabazi bear ebela, agintari nagusi orreik alan erabagituta euki ebelako Europa guztiarentzat.

Eta jakin degun Europako liberalkeriaren erabagi orren aurrean ez ebala balio ezerk, kontuan euki bear da, eurak euki ebezala erlijioaren ekanduzko aolkularitzatik asita, gudarako bear ziran jende, diru, denbora, ta tresneriaren almen guztiak.

Ez da arritzekoa ba, gaur gizaren zorreskubideakaz sortzen dana, gizartearen arteko artu emon onak asieratik, norkeriaren bidetik eroateko erabagitu ba zan.

Arritzekoena da, gauza guzti oneik len eta gaur, Jainkoaren izenean egiten zirala.

Guzurrezko asmo orreik aurrera eroateko bear diran legeak, Jainkoak Berak berezta ta oiñarritu euskuzan lege guztien aurkakoak diralako.

Eta norkeriaren bidetik asmatu ziran batzangotasunezko eritzi oneik izango dira beti, Jainkoaren Legez kanpo eta denbora guztietako aurrerakuntzaren aukeran mozorrotuta agertuko jakuzenak, menpetasunezko sasi-alegin orreik eta betiko era barrietan gaur lez, gaiñean daukaguzelako.

1.839an Marotoren saldukeria.

Gure karlistadako gudaren aria ostera artzeko, eta 1.849-1.860 urte arteko guda antzeko oneri zentzu apur bat emoteko, 1.839ko Dagonillaren 25ean Marotoren aldetik egin zan saldukeri zikiñetik artuta asiko gara.

1.839an Dagonillaren 25ean, Elgetan-erri agintari eta guda nagusiekaz egin zan batzarrean egon zan Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariak lenengo gaztele-raz eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko berba egin ebanean, Marotok gudariak keiñua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi ziran aldarrikatzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkerro Lekunberrirantza iges egin eban.

1.839an Dagonillaren 26an Abadiñoko San Antolin baselizaren izketaldian euki eben lenengo ikustea Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez eban siñatu gura Marotok izan ezik.

Gure Forugaitik agiri orren zentzua: "*Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia*" esan gura eban.

1.839an Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta, Marotok parkame-
na eskatu eutson Vn Karloseri, eta damuaren itxurak emonaz, guda loztearen presta-
kuntza agindu eban kristino guda loztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari taldearen guda nagusiak ez eban onartu agindu ori, eta or erabagi zan gudaren amaiera.

1.839an Dagonillaren 28an Marotok, iñoren laguntza edo baimen barik de la Torretar Simon guda nagusiarena izan ezik, ontzat artu eban Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839an Dagonillaren 30ean Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu eban.

1.839ko Dagonillaren 31n alkartzen dira Maroto ta Espartero Bergarako errian, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezan gaztelar bost bata- lloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Esparterok bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebazala eskeintzagaz.

Baietzezko berba orrekaz, gure "Foru Lege" edo "Lege Zarrak" espainiar gortekoan naikerizko borondatean geratu ziran eta Espartero bera izan zan lenengoa, bere espatea atarata Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839an Iraillaren 3an Bizkaiko Foru Aldundia, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zan, Aretxabala liberalaren guda nagusiakin, Foruaren gora beran berba egiteko,

1.839an Iraillaren 4an, Dalloko apaiza bere gudariakaz, Poblaziñoko errian erren- datu edo etsaimendu zan, Bergarako egiunea onartuta.

1.839an Iraillaren 10ean, Nafarroako Aldundiak deiezko aldarrikapen bat egiten dau, sasigudan ibili ziran taldeak geratu, aienatu, edo ezereztu zitezzen, garaitzaille guda nagusi⁽¹⁾ "Garaitpenaren Dukea"⁽²⁾, espainiarren jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen agintari artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo ta eraberritzeko.

1.839an Iraillaren 14an Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka iztea erabagitzen dau, eta Dantxarineatik oraindiño leial eukezan Arabar eta Napartar gudariekin Añamendiko mugatik Frantzira aldatu zan.

1.839an Iraillaren 25ean Arabako lurraldean, Gebaratarren gaztelua Bergaran egin zan egiuneagaz babestuta etsaimendu zanean, amaitu zan Euskalerrian karlista- ren alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxeetara joanda.

Eta Katalanak izan ziran Vn Karlosen ikurra aurrera eroan ebena 1.839ko Dago- nillatik 1.840ko Bagillararte guda sutsu baten.

1.839ko Urrillan Euskalerrria gudariz beteta itxi ondoren, Espartero 44.000 guda- rikin Zaldubara joan zan, bere gudaletgia Mas de las Matasen ezarrita.

1.839an Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira eraberritutako "Foru Legeak", bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: "*Sin perjuicio de la unidad constitucio- nal de la monarquia*".

Eta beren bigarren idazkunean, gure "Foruak, Espainako erreñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta" esaten ebana.

1.840ko Bagillan, Balmasedako alegiñak porrot egin eben orduan, Kataluñako guda gogorrak be amaitu ziran.

(1) Garaitzaille guda nagusi = invicto general. (2) Espartero.

1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerrriak “Bakearen orde”, menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak.

1.840an “El Vascongado” izparrangia agertu zan, bere aldizkarizko lana “politico eta mercantil” arloetan azalkatzeko.

1.840an Urrillaren 12an Esparterok, 1.810-1.813an Kadizen guda nagusiak sortarazi eben aurrerakoiezko konstituzioaren buruzagi biurtu gurean, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, Espainako jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Legearen zauriak zabaltzen asiko dira.

1.840an Abenduaren 15ean Espainaren bitarteko agindu batek, Euskalerrriko mugak Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841ten urterako eleizak: 1.835ean Mendizabal eta Madozek asi eben “esku illentan” esan jakonai edo ta eleizako ondasunaren salgai ipinteko askatasunak⁽¹⁾, apurtuta euki ebazan diruaren kontrolezko antolaketa guztiak, eta eleiztarrak euren ordaintarako euki eben jabetza edo eskubidetik, espainiarren gobernu menpe edo eskuetarara aldatu ziran euki ebazan ondasun edo aberaskiak, eta eleiztarren eleizkizunezko⁽²⁾ ordaintetarak.

1.841ean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure “Foru Pasaia”⁽³⁾, ezereztuten dau, espainiarren gobernuko erabagi ta agindupean ipinita.

1.841ean Jorrellaren 23an ostera ezartzen dira, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eta espainiarrak egiten ebazan aldakuntza guzti oneik, 1.839an Urrillaren 25eko legeak lurralde bakotzaren arduradunakaz alkartuta egin bear zirala esaten ebana, kontuan artu barik egiten ebazan.

1.841ean Dagonillaren 16an espainiarren jaurkintzak Nafarroako Aldundiaren baimen edo ta laguntzagaz, Nafarroan lotsagarrizko “Ley Paccionada” ezarri eban, 1.839an Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezereen jaramonik egin barik.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarrak Esparteroren aurka jokatu-tarren, O’Donnellen matxintasunari lagundu cutsoen.

Eta Espartero garaipenduta, beronek ez eban galdu aurkeztu jakon aukera eder ori 1.841ean Urrillaren 29an gure “Foru Legeak” ezereztuteko, Bergaran ziñatu ebani jaramon egin barik.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, espainiar gudalozteetan guda buru nagusi lez, eta Maroto-Etxeko kondea izendatu eben.

Marotoren saldukeria eta Esparteroren maltzurkeriak, asieratik argi ikusten diranak dira.

1.842ko urtean 1.810-1.813 urteetan agertuta legeztu zan konstituzio edo jaurgo barria, “aurrerakoa” esaten jakonari aldatu edo ta eraberritu zan, menpekotasunaren arloa erindu edo argituta.

1.842an Uztaillaren 1ean Julian de Luna, Euskalerrriko gizarte ta lurak beti danik espainiarrak izan ba ziran lez, gure Foruaren legezko jarduntasuna barregarritu gurean ibili zan, euskal oligarka batzuen onerako ta espainako anai arrebakaz borrokan baka-rik ibilteko balio ebala esanda, ta abar.

(1) Ondasunaren askatasunagaz = *desamortización*. (2) Eleiztarren eleizkizunak = *culto y clero*. (3) Foru Pasaia = *Pase Foral*.

1.842an Irailaren 11n, Espartero "Garaipeneko Dukeak", berak gure Foruak babestu egingo ebazala esan arren, bere ezpatea atarata, gure euskal legearen buruak moztu ebazan, eta ekintza orregaz, gure goi maillako ikastetxearen zeregiñak, bigarren maillara beratu ebazan.

1.843ko Bagillan Foruen gora berako leian ibilita, Esparteroren aurkako matxintasuna sortu zan, eta Euskalerrian ia Esparteroren eritzizko lege orreik ezereztuten ba ziran itxaropentsu agertuta, Foru legeen berrezkuratzeko lanetan asko esan gura ebalako.

Guztiak alper biurtu jakuzan, espainiar geienak 1.812ko menpearen legezko erizietan, adoz egon ziralako.

1.843an Urrillaren 10ean II In Isabelek 13 urte bete ebazanean, eta 14 urte baiño len adiñetan nagusi lez aldarrikatuta, Azaroaren 10ean konstituzioari zifi eginda asi zan bere erregiñezko antolamenduaren epaiketetan.

1.843an Abenduaren 1ean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak bat eginda gure Foru legeak berrezkuratzeko alegiñean, espainiarren gorteko jaurkintzan aurkeztu eben jazarraldiekin, II In Isabeleri ezkutuzko meatxuan idatzitako eskutitz bat bialtzea erabagi eben, eta erantzun ona esan leike euki ebala, 1.843an Uztaillaren 4an ostera berrezkuratu egiten dalako Foruaren araudia neurri aundi baten.

1.844an Epaillaren 20an Jiron eta Ezpeletatar Franzizko Jabier Ahumadako dukea ta Nafartar guda nagusien alegiñagaitik, guardi zibillaren taldea sortarazi zan, eta Iruñan dauka oroikarria: "Navarra al duque de Ahumada" esaten dauana.

1.844ko Loraillan Narbaeztar Ramon Maria izendatzen dabe espainiar jaurlariko lendakari, eta ortik aurrera asi zan espainiarren gortean burudunezko amarkada esaten jakonari ?.

Lapurretan egiteko izan ezik, iñoz euki ote dabe, zentzunezko gauza bat egiteko bururik ?.

1.844an Uztaillaren 4an espainiar jaurkintzaren erregetzazko agindu bategaz, ostera lengoratu egiten dira Foruen lege batzuk.

Argi ikusten da aldi onetan, gure Foru Legeak espainiarren apetaldi ta naikerian ibili zirala, espainiar gobernuoak menpeko legeen zentzu orreik ez ebelako jakin zelan ezarri.

Antza, eurei be begirune andia emoten eutsen, maltzur ta guzurrezko arrazoi galantakin ibiltea, euskal nortasunaren izatasunezko oituran daukaguzan legearen aurka.

Lau urte onein ondorioa.

1.839an Urrillaren 25ean saldukeri barragarri baten guda amaituta gero, Madrilleko gobernutik Euskalerrira bialdu ebezan gure Foru Legeak eraberrituta, bere txatal baten: "sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia" esaten ebana, eta beste idazkunean: "Foruak, Espainako erreñuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta".

XVI In gizaldean esaten eben: "Los vascos no entran en la cámara de nuestro gobierno porque son jentes de otro estado".

XIXn gizaldean baiña, euskaldunak euren gauza edo euren jabetasunezkoak izan bagiñan bezela artzen gaituez, ezereen begirune barik.

Argi ikusten dogu, euren norkerizko legeak, Jainkoaren lege bezela sinistuta euki ebezala denbora orreitan, eta siniste orreik katolikotasun eragipenetik bakarrik agertu leikezala indartuta, Erroma katolikoagaz bat eginda egon ziralako asieratik asmo zikin orreitan.

1.840an Urrillaren 12an guda amaitu zanean Esparterok, Maria Kristina bere alabaren errege ordegotzatik kendu ebanean, liberal eritzizko guda nagusiak ezarri ebazan jaurgu barriaren menpeko legeen jaurkintzagaz bera agintari bezela arduratzeko, eta ortik aurrera gure jabetasunezko Foru Legeak, alde batetik bestera ibili ziran, jantzan ibili ba ziran bezela.

Esparterok ondo baiño obeto jakin eban, Euskalerrian guda indar bidez lortu ebezan garaipenak, ez ebela euki baliozko legetasunik, alan ta guzti baiña, aurrera egin eban ezereen adeitasun barik, Euskalerria euren jabetasunezkoa izan balitz bezela.

Orregaitik ikusten doguz, gure jabetasunezko erabagian artutako Foru Pasaiaren legea ezereztuten, Nafarroako Aldundiaren baimenagaz ley paccionada ezartzen, gure Foru Legearen euskal zentzuak ezereztuten eta abar.

Baiña gure euskal bereztasunezko oituran sorturiko legeak, euren norkerian menpeztail asmatutako legearen aurkakoak diran bezela, daukien maltzurrezko guda indar guztiagaz eta sasikatoliko ikurra elburu daroiela, IVn gizalditik dabiz Euskalerria kolonizatu gurean.

Orregaitik gure oiturazko legearen gorputzan egiten dabezan gogo ta indar guztiekin, epai, ebaiketa edo moztaldiak, euren legearekin ordezkatu gure dabez.

Ez dira konturatuten baiña, Jainkoak bereztutako gai-mundu onetan bizi gindezan, eta jantzi bezela daukagun aragizko gorputz au, gure ARIMAREN moztasuna dala, eta almen ta indar guztiagaz oldozmenduta gaiñera, berak bizitzan jan eta lan egiteko bear dauazan gauzak, tresneri ta mozkin biurtu egiezan.

Beste gauza bat, izateko daukagun Arimea bere arrazoizko Baitaren almenakin da, Jaungoikuak beartuta, zapaltzen dogun gaiari kudeatu edo ta eragille bezela antolakuntzak edo zuzemenak egiteko izanda, bizi onetarako ipini euskun lanezko baldintz bakarra, "bear bearrezko zor-eskubidearen ordezkako ardurak orekan bete ta zaintzea da".

Euskaldunak eta Europan bizi diran berezko erriak gure demokrazizko izakereagaitik, ondo dakigun gauza da.

Europa ta espainiar menperatzail batzango zaletasunezko abertzale katolikuak elduko ote dira mailla orreitera ?.

Leia ori, eurak konturatuarte izango da zalantzarik gabe.

Espainiarren edestiko liburuetatik artutakoa.

Badagoz espainiar edestiari buruz, betikoa izan balitz legez eta gaiñera garaipenaren guzur aundiko zentzuan idatzitako liburu asko.

Gauza guzti oneik ziurtatzeko, baiña, nik Aguraineko Klaretiarren liburutegitik baimenagaz artuta, aurrean daukaten liburutik artuko doaz bear dodazan zeatzasunak: D. VICTOR GEBHARDTk idatzita eta 1.863an irarritako "Historia General

de España y de Sus Indias" VIIn atalean eta 1.013ko orrialdean asita esaten dauanakaz ziurtzeko.

Biktorren liburu au, oso argi ta ondo zeaztuta dagon liburu da espainiarren edesti ta izaeraren gora beran.

Bereztasun arloaren zabaleko Legeak, norkerian asmatutako legeakaz parean ezartzen doguzanean, oldozmen edo ta itzaren mugak, aukera argi ta garbiak emoten dauskue, espainiarren siniskera aberri lez, uste okerra dala adierazteko.

Liburuaren XXIV-XXV txataletatik asita:

– **1.134ko orrialdera:** IVn gizalditik asi ziralako, euskaldun, Katalan, galiziar eta menperatzeko gure ebazan errigizartearen lurak, espainitarren zaku edo zorro bardiñean sartzen, alan izan balitz bezala.

– **1.277 orrialdera:** Apostoluengandiko, katoliko, eta erromatar erlijioa izango dala betirako egizko erlijio bakarra.

– **1.294 orrialdera:** Naita erregea, 1.812an Kadizen aldarrikatu zan konstituzio edo jaurgo barriaren legepean ipini, Erromatar katolikotasun agintari maillan, aundienetarikoa zala beren arrerazko zuketan⁽¹⁾ adierazten dau.

– **1.312 orrialdera:** zelan 1.810-1.813 urteko bitartetik aurrera asten dira Late-
rritasun itzagaz berba egiten.

Itz barri orregaz argi ikusten da, eurok be ez ebela jakin batzangotasunezko merkataritz eta katoliko asmo orren jaurkintzari zelan deitu edo esan: Aberri, nazio, laterri, katoliko aberri edo ta abar.

– **1.320 orrialdera:** Arbasoen, aitalen erri, sorterri edo "patria" ta "patria catòlica" ren izenagaz asten dira berba egiten.

Berba orreik gizaren edestian, erri batèn len-guraso sorkuntzatik edo arbasoen belaun aldian etorten diranak dira, eta itz orreik norkeriz mugatuta, edestia eurena bakarrik izan balitz bezala aurkezten dabe.

Geiagorik bear ote dabe, edo ta noz asetuko dira, "**maltzurrezko fazizta lapur-
rrak**" edo ta asmatutako "**sasijainko kaizar**" orreik, bereztasunezko aztura bidearen oituran ondo ipinitako izenagaz geratzeko ?.

Ez dira asmamen orreik txarrenak: euren norkerian inork ez dabezan ulertzen sasi legeak, Jainkoaren berezko Legeakaz sortzen dabezan txinpartakin gure dabez nastu, eta orretarako gudaindar laguntzagaz baliatzen dira, naita odoljariozko zarraski baten izanda be aurrera gure dabelako egin.

Gudal nagusiek erregearen gaitetik ezarrita, legezko arloari egizko itxura apur bat emon gurean, erregea gura dabe izan daitela gizarteko maillan, nagusienaren itxurak egin dagizan, eta okerrezko utsaldiak lenego ministrui leporatu.

– **1.364 orrialdera:** IXn Pio Aita Santuak IIn Isabelekin ospatutako eleiz egiune edo itunean, katoliko erlijioagaz nastu egiten da dan guztia, eta ez edozelan, Jainkoa-

(1)Zuketan = tratando de usted.

ren izenean egiten dabelako, argi ikusi dagigun, espainiarrak katolikotasun aberkide-tasunagaz daukien itsukeria.

Naste guzti au ikusita arritu egiten gara, Frankok Giputz ta Bizkaitarrai judas edo saltzaillearen izen gaiztoagaz zigortzea ?.

Denbora orreitan espainiarrak: “aberri lez egiztatu egiten dabe katolikotasuna”.

1.-Biktorrek, espainiar izaeraren egiari buruz, oneik euren berezko biozkada azaldukeran, aberri katoliko lez aurkezten dausku.

2.-Espainiarrak, Laterritasunaren adi-muga⁽¹⁾, guztiz jauntzarra⁽²⁾ dala esaten dabela, Bittorrek adierazpenduten dausku.

Laterritasunak iruntsi egiten dabezelako eurak daukiezan aberri katolikuaren eskualdia⁽³⁾.

3.- Biktorrek gaiñera, espainiarrak minduta geratzen dirala esaten dau, Laterritasunak euri, ezaren edo ukapeneko⁽⁴⁾ ziurtza aurkezten dautseelako daukien katolikotasunaren aberkidetasunezko asmoetan.

Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:

a) Europa, Asia eta Afrika, katolikotasunean batzangotzeko asmakuntza IVn gizalditik abiadan ipini ebenetik XIXn gizarteraiño, naita indarkeri asko ibili, azken -gaizto edo ta porrokatuta urten ebal.

– Berezko lege eta asmatzen ziran menpeko legeakaz sortzen zan naste gogor orreitan batu baiño, zati geiagotan banatzen ebalako erri ta izkuntzak.

Bizitzaren bereztasunezko ekintzatik sortutako izkuntzezko efrigizarteak: erromatarren basakerizko borroka bidetik menperatuta, ainbat latin kume edo ta zentzunbako izkuntz agertu ziralako.

– Jainkoaren Legeetatik alda eziñean, eta daukiezan asmoak beteteko, beti ibiliko dira, Erroma ta katolikotasunaren norkerizko menpekotasunakaz errietan sortu ziran nasteakaz baliatzeko.

Gure zuzentasunezko ekintzagaz, euren zentzuzko lekuetan ezarri bear doguzanak, Jainkoari begira eta bereztasunezko ekintzan sortuta daukaguzan izaerazko nor-tasunakin aurrera egin gura badogu.

Gauzak, berezko legeetan baieztu bear direzan zentzu kanpotik, ez diralako onar-tzen ainbeste okerkerizko lege, edo ta naikerizko arrazoi txepel, maltzurkerizko eran eginda, guzurrezkoak eta lapurrak diralako.

b) XVIIIIn gizalderarte Europa edo ta Ludi au katolikotasunduteko asmakun-tzaren batzagosuna porrot eginda gero, erromatar menpeko asmakuntz ori aienatu

(1) Laterrria = Estado. (2) Jauntzar = dèspota, tirano. (3) Eskualdi edo Esku-arteak = Bienes, recursos, medios de subsistencia. (4) Ezaren edo ukapen = acciòn o efecto de negaciòn.

edo ezereztu ez egien, mundu osoko batzagosuna alboratuta, gaur daukaguzan l-territutako lurralde txikerretan joan ziran Europa batzangotzen, gizaren nortasuna ta izatasunaren eskubideari iñoz begitu barik.

Eta 1.789an ori lortzeko, katolikoaren aolkularitzagaz fazizta indarrak batuta, Frantzia iraultzatu eben, beste lurraldetara zabaldu egiezan batzangotasunaren indarrezko alegiñ orreik.

d) Eta orduko errietan epaiketaren lanak egiezan, jaun ta erregearen antolamenduzko egiunepean edo itzarmenduta egon ba ziran be errien nortasunak.

– Sasi katoliko espainiar, frantziar, engelendar eta alemandar faziztak gudu indarrean muñduko lurrak kolonizazio ekintzan menperatu ebezan antzera, Europa kolonizaziozko laterri orreitan menperatu eben, errigizarteak sasikatoliko ta merkataritzan batzangotzeko araudipean aurrera eroateko, bereztasuneko erri ta erri orrein nortasunezko eskubideak zapalduta, sasi-asmakizun orren zalegarrikerian nortasunduteko.

Orreik dira gaur egun Europaren Nortasunetik kanpo daukaguzan arauak⁽¹⁾, ezer aldatu barik.

Lenengo azalpenari erantzunda:

“Katoliko” itza nundik nora da berezko erri edo ta aberri baten adierazle. Ala mundu onetan, ankaz gora ibili geinke?.

Izadi onetan, AITAREN ondorengotasuna, asmatutako edozein itz barriekin mugatu leikena ote da ?.

Berezko erri ta izkuntzakaz lendik daukaguz naste ta banakuntza naiko eginda, orañ izkuntzaren iztegiakaz azteko.

Laterriak, aberriak ote dira ?.

Espainiar faziztak, “**Nacional catolicismo del estado Español**” edo “**estado catolico nacional español**” euren gurutzada santuaren bidetik esaten dabe ao zabalagaz.

Eta esaera ori, aberritasunaren adierazpena ote da ?.

Esaera ori, 1.789ko urte ezkerotik, 1.810-1.813 urte bitartean espainiarren ize-
nean jaurgo barri edo aurrerakoiezko zala esaten eutsien sorturiko konstituzio barri-
tik, eta 1.823an VIIen Fernandori konstituzio ori indarrez siñatzen beartu ebenetik
ona da.

Eta esaera ta asmo orreik adifnezko lengotasunaren ezean aurkezten ba dituez, zer
dira eurentzat aberriko senditasunean millaka urteak daukiezan izkuntz ta erriak ?.

Berezkotasunezko bizi ekintzan eraikita, edo ta sorturiko izkuntzagaz nortasun-
dutako errigizarteak, eta asmakuntzan sorturiko aurrerakoiezkoak zirala esaten eu-
tsoen jaurgo edo konstituziozko erri edo ta aberri maltzur barri orrein arteko bitartea,
Nortasuna eta norkerien artean dauan bitarte lakoa da.

(1) *Arauak = conjunto de leyes, o, sistema de gobierno.*

Bigarren azalpenari erantzunda:

– Espainiarrak, laterritasuna eurentzat jauntxarra dala esaten dabe. Laterritasunak irunsi egiten dabelako eurak daukiezan aberri katolikuaren eskualdiak.

Mundu fisiko onetan, sagarrak meloiak ote dira ?.

“Laterritasunaren” itza iztegia begituta: Gizaki edo gauza baten ezarpen edo jar-kera esangura dau, beren izaera egin leiken edozein aldaketara lotuta dagoelako.

Eta adimuga orrek zer ikuste ete dauka, jaioterri edo ta Aitareen ondorengotik etorten diranakaz ?.

Argi dago, **laterritasunak** ez daukala ezer ikusirik **aberritasunagaz**.

Irugarren azalpenari erantzunda:

– Espainiarrak, minduta geratzen dirala esaten dau Bitorrek. Eurak, katolikotasunezko aberritasunean daukien asmoari, Laterritasunak, ziurtzaren eza aurkezten dautseelako.

– Orduan, umeak edozer gauzagaitik asarratzen diranean egiten jakien antzera, “**piruli**” edo gozokitxo bat emon bear ote jakie ?.

– Laterritasunak Aberriarekin ez badauka ezer ikusirik, espainiarrek zergaitik eskatzen dabe: “sua”, lerrauts edo bolboragaz alkartzea lez bezala dana, euren esangureko mugaketan oso ezberdin diran itz bi orreik esangura baten alkartzea ?.

– Mundu onen goimaillako jakintsuenak, edestian ainbeste norkerizko nasteekin, Baitazko zentzuan ganorabakotu ote dira ?.

– Nik badaukat lagun bat, amamari iletargia eskatzen eutsona.

Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria.

Espainiarrak antza, daukien “aberritasunezko katolikotasun” ori, naiz ta erromatar katoliko asmakuntzatik etorri, PPko alderdiaren Kospedaltar andreak euren gazteai ta telebistan esaten dauan lez, **eurak badaukiela uri edo toki sakratu bat, aztu bear ez dabena: “Toledoko Kaizartza” edo “Kaizertzazko Toledo”**.

– **Toledo**, erromatarrengandik izan zan ardurazko Uria, bere inguruko erritxoan artean.

– **Garrantzi aundikoa baiña**, Leobijildok Bisigodo erregetzaren Uri Nagusi lez izendatu ebanetik aurrera, eta 589an I Rekaedok IIIIn Eleiz Batzar Nagusia ospatu ebanean, Toledo erreñu lez izendatuta geratu zanetik.

– **Bere erritik**, edestian aldatu diran jendekuntz guztiak itzi dabez euren etxegintz lanak.

– **Orregaitik da** etxe bikain askogaz beteta dagoen Uria. Eta baleiteke, beste alango Uririk munduan ez egotea.

– **Bisigodoak**, ainbat Eleiz Batzar Nagusi ospatu ebezan Uri orreitan, 932ko urtean IIIIn Abderramamek menperatuarte. Eta 1.085ean VIIn Alfonsok moruengandik askatu eban denboretatik iraun ebana bere nagusitasunean.

– **17 izan ziran Toledon ospatu ziran Eleiz Batzar Nagusiak**, erromatar deboratik 400 eta 527ko urtetan espainiar aberritasunezko eleizarenak bakarrik izanda, eta 589ko urtearen irugarrenetik aurrera, garrantzi aundiagokoak.

– **1.520-1.522 urte bitartean, Toledo izan zan I Karlosen aurka**, erkidegoaren gudak⁽¹⁾ bideratu ebazanak.

– **Eta I Karlosek arrezkeroztik**, Toledo ia bere bizi guztian euki eban espainiar kaizartzaren Uri nagusi lez. Eta bere maldabera, espainiar gorteakoak Madrillera aldatu ziranean asi zan.

– **Orregaitik**, naita arberatutako⁽²⁾ izatasunean egon arren, ez zan arritzekoa izan bear iñorentzat, espainiarrek asmatutako batzango menpe irudi ori, Toledon eukitea gaur be euren kaizargo irudi lez.

Espainiarrak edesti bidez zuzendu barik ekarten dabezan ainbat maltzurrezko guzur lodiai, oraindiño menperatzaille fazitzaren artean indar guztia emoten dautsoelako.


Euskaldunak.

Euskaldunak edesti guztitik oraiñarte, zazpi lurraldeetan murriztuta geratu bagara be, iñork ez dauskue izaeraren nortasunetik ezer kendu, eta gitxiago eskubidearen jabetzatik, euren eskuetan ez dagolako alango almenik.


Eta naita frantziar eta espainiarrak euren lurraldeak dirala esan arren, or erdian daukie Euskalerrria, bere eskubideak aldarrikatuz gain, bere jabetasunagaz begirunea eukitea eskatzen dauana. Euskalerrria eskubidearen jabeduna dalako, euren naiaren aurka.

Laster izango dana, giza bizitza amiltegiaren ertz edo ta leze bazterrean kokatu egin ondoren, gure mundu onetako eginkizunak beartuta agertzen dira aldaketa sakonak egitera, ertz edo leze bazter orretatik urruntzeko.

Eta **“bereztasun”** orretara itzultzeagaz, gai-gizaren eskubideetara itzultzea esan gura dauan lez, adi egonda, or berrezkuratzen ba-doguzan ostera gure berezko eskubideak.



(1)Erkidegoen gudak = gerra de la comuidades, o, de los comuneros. (2) Arberatutako = agusanizado.



2.- Zatia.

Edestiaren aria berrezkuratuta. 1.844-1.860 urte bitartean edestilariak esaten dautsoen IIIn guda karlista.

Eta 1.845eko urte onetan asten da bigarren guda esaten eutsoenari, guda bat baiño ainbat basa guduxkako borrokaldiak izan ziranai.

Kataluñan egin ziran geien, lenengo txandan Kabrera ta Griñotar Ramon, eta bigarren ekitaldian, Tristany Ros de Eroles, Borjes eta Billela buru izan zirela, euki ebezan 70.000 gudariakaz, liberalaren gudalozte andiaren aurka.

1.845an Urtarrillaren 1ean espainiar Konstituzio edo jaurgo barria antolatu zan.

1.845eko urtean Vn Karlos Maria Isidrok, bere seme Borbon eta Braganzatar Karlos Luis⁽¹⁾ Montemolineko kondearen eskuetan itzi ebazan bere erregetzazko eskubide guztiak, onek VIIn Karlosen izena artuta.

1.845-1.849 urte bitartean, VIIn Karlos Luis onek, IIIn isabel bere lengusiñagaz egon ziran ezkontzeko asmoak 1.846an apurtu ondoren, Kabrera ta Griñotar Ramon karlista guda nagusiagaz matxinatzen da Kataluñan.

1.846ko Iraillan karlistak itxaropentzu, Kataluñan matxinatzen dira matinersen guda⁽²⁾ izendatu ebenagaz.

1.846an Iraillaren 14an VIIn Karlosek, Euskaldunak matxinatu zitezen alegindu zan, baiña ez eban artu erantzunik.

1.846an Urrillaren 10ean IIIn Isabel, bere lengusu Asis eta Borbon ta Borbontar Franzizkogaz ezkontzen da, eta euki ebezan 11 semealabatik, lau bakarrik eldu ziran euren ezkontzeko adiñetara: Isabel, XIIIn Alfonso, Maria de la Paz, eta Eulalia.

1.848ko urtean Bartzelona Mataroko trenbidea zabaldu zan.

1.848ko Bagillan, Kabrera guda nagusia Kataluñan sartzen da eta guda bizkortu eban.

1.848an Uztaillaren 2an Alzaatar J.J.ek, euskaldunak matxinatzeko alegiñetan etorri zanari, mikelete eta guardi zibillek arrapatu eben, eta len karlista ta orain jaurgo edo konstituzioaren alde egon zan Urbiztondo guda nagusiak aginduta, Uztaillaren 3an tiroz il eben.

1.848-1.849 urte oneitan, ainbat alegiñ egin eben euskaldunak gudarako antolatuten, baiña eziñean geratu jakiezan alegiñ orreik, eta Billalonga ta Urbiztondo espainiarren guda nagusiak izan ziran gudaloztearen antolaketa bardiñ orreitan ibilita, odol askoko fusilamendu ta itsas osteko erbestaraldiekaz, ezereztu ebezanak matxintasun orreik.

(1) 1.818-an Madrillen jaioa eta 1.861an Urtarrilla-ren 13-an Broussè-n il. VIIn Karlos-en izenagaz esagutu zana. (2) Matiners-en guda = guerra de los madrugadores.

1.849an Jorraillaren 7an Urbiztondok, Euskalerruari ezarri eutsozan guda legeak amaitutzat emon ebazan. Eta ia batera, Kataluñako matinersen guda amaïtu zan.

1.851ko urtean Bilbon, Eustakio ta Delmatar Juanek "Iurac Bat" aldizkari politikua sortu edo irasi eben.

1.852an Otsaillaren 2an Madrillen Atotxako eleizan IIn Isabelek, bere jαιο bariiko alabea aurkeztu eutson Ama Birjiñari, eta urteeran 63 urteko Merinotar Manuel Martin apaiza bere aurrean belaunikotuta ezker eskuegaz agiri bat erakutsita, eskoiagaz aizto batekin zauritu eban IIn Isabel, eta atxilotu ondoren, Otsaillaren 7an ukamendian urkatzeko garroteagaz il eben.

Merino apaiz onek, ez eukan ezer ikusirik Merinotar Jeronimo apaiz basa gerlariagaz.

1.853an Bilbon "El Avisador Bilbaino" izparrangia agertu zan, Bilbaoko etorki-zunagaz arduratzeko.

1.853an espainitarren erregetzazko agindu batekin, ostera itzultzen dira Euskalerriko Udaletxetara 1.841eko urtean baiño ariñago euki ebezan legeak.

1.855ean emaitza txarrak emon ebazan Madoztar Paskualen azkeneko "ondasunaren askatasunagaz"⁽¹⁾: laterriaren zorrak ez ebalako garbitu, Udaletxeak ondatu edo lurreratu, eta nekazarien itxaropenezko erriko lurrak andikien eskuetara aldatu ebalako.

1.855eko urtean aldarrikatu zan burnibide edo trenbideak egiteko legea. Eta urte berean egin ziran antolaketak, trenbide ori, Madrilletik Irunera egiteko.

1.855ean Bagillaren 3an, trenbidea Gazteizera eroateko gogoratu ziran, azkenean baiña Ebroko Mirandara eroanda.

1.855ean Bilbon, "El Boletín del Comercio" ren izparrangia agertu zan.

1.855ean Epaillaren 10ean Triesten il zan Borbontar Karlos Maria Isidro, Molinako kondea, Vn Kalos izenakin ezagutu zana.

1.856ko urtean, "espainiar diru etxea" sortu zan, San Fernando diru etxearen orde.

1.856an Bilbaon, "El Liberal Vizcaino" izparrangia agertu zan, bere ostean "Diario de Anuncios" agertuta, gaiezko⁽²⁾ ta ekanduzko arloetan arduratuko zana.

1.859ko urtean egin zan Tudela-Bilboko trenbidea.

1.859ko urtean ainbat alegiñ egiten dira atzerritik karlistaren gudal nagusiak matxinatu zitezen, eta 1.860ko urterako epetu zan erabagi au.

1.860ko urtearen asieran Bilbok 20.000 biztanle euki ebazan, eta amarkada ori amaitu orduko 28.000.

1.860an Boluetan, Santa Anaren burdiñolan, 2 eta 3garren labak eraikiten dira.

1.860ko Otsaillan Eliok, naita alperriko lanak egin karlista zarrak ostera mantxinatu zitezen, 1.860ko Epaillan Urangatar Koronela izendatu eban Nafarroako gudal nagusi lez.

1.860ko Jorraillan VIIn Karlosek, porrot aundia euki eban **San Karlos de la Ràpidako** legorreratzean⁽³⁾, eta espetxeratu eben.

(1) Ondasunaren askatasuna = *desamortización*. (2) Gaiezko = *cosas materiales* (3) Legorreratzean = *desembarcar*.

Eta 1.860an Jorraillaren 23an VIⁿ Karlos Montemolineko Konde oneri, espainiar gortekoak, espainiar erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiai uko egitea galazo eutsoen.

1.860ko Loraillaren 22an, "Euskalduna" aldizkariko 62ⁿ zenbakia agertu zan.

1.860an Uztaillaren 7ko erregearen agindu batek, Euskalerriko Foru Aldundi-koak batzartu zitezen, guda-jaurliaren baimena bear ebela esaten eban.


1.861ean Urtarrillaren 13an Austriako Broussèn il zan izurri gaixotasunagaz VIⁿ Karlosen izenagaz ezagutu zan Borbon eta Braganzatar Karlos Luis.

Ekintza onegaz, bere anai Juanek liberal eritzikoa agertuta, euren aldetik espainiar erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiak bertan itzi ondoren, karlistaren itxaropen guztiak pikutara joan ziran, karlistaren eskubide guztiak noraezeko bide barik itzita.

Emen amaitu zan, edestilari batzuk esaten daben karlistaren bigarren guda eginzana.

E





3. Zatia.

1.861ean Iraillaren 15ean Braganzatar Maria Teresa Beirako errege alabeak, bere seme Juaneri eskatu eutsonean: "Bere liberaltasunean karlistarekin ez ebalako jakin gura ezer", bere biloba VIIen Karlosen eskuetan itzi egiezala beren erregetzako eskubi-deak, Juanek euki ebezan beste semeakaz eztabaida gogorrek sortuta.

Eta emen asi ziran karlistak ostera, bidea aurkitzen.

1.862an Dagonillaren 25ean jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, Sabino Aranaren baiño iru urte zarroa izan zana, eta abertzaletasunaren arloan Sabinori begiak zabaldu eutsonean.

1.864an Dagonillaren 7an espainiar gorteko Santzez Silbaren bidez, zalantzan ipinten dabez alegin gogorrean gure "Foruen Legeak".

1.864an Iraillaren 29an Unamunotar Migel jaiotzen da Txakur kalean, gaur 16-garren zenbakia altzetan dan lekuan.

1.864an Vn Karlosen emaztea zan Braganzako Maria Teresa Beirako errege alabea arduratuko zan karlistak ostera bideratzen, eta bere illobaso edo biloba Borbon eta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VIIen Karlos izenarekin ezagutuko zana izendatu eban ondorengo karlisten agintaritzan.

1.865ean Urtarrillaren 1ean, Nobia Salzedo ta Kastañostar Pedro il zan Bilbaon.

1.865ean Urtarrillaren 25-26eguneko bitartean, Aranatar Santiago ta Goiritar Paskualaren zortzigarrena eta euki eben askeneko semea izan zanak, gabeko 12ak eta 25 minutuetan jaiotzen asi zan.

Eta San Sabinoren jaia ospatzen zan lez Sabino ipini eutsoen lenengo izen lez, baiña 26ko egunaren lenengo minutuetan izan zan lez bizitzara agertu zanean, San Polikarporen eguna izanda, Polikarpo bigarren izen lez. Gaba orretan bere anai Koldobika gaisorik, il zorian egon zan.

Sabino, Abandoko eleiz aldean Ibañez kaleko 10n zenbakian 1.857an bere aitak egiteko agindua emon eban etxean jaio zan, Arana ta Goiritar sendia etxe ortara, 1.863ko urtean bizitzen joanda.

Arana ta Goiritar Sabino jaio zan, gaur "SABIN ETXEA" dauan Ibañez de Bilbaoren kaleko lekuan, aranatakk euki eben etxe ederrean.

Kontuan artu bear da, Sabinoren aita Arana ta Ansotegitar Santiagok, Ripan, La Salben Allende Salazarrai alokatuteko lurretan, eta Zorrozan euki ebazala iru itxasontziren lantegi eder.

Arana eta Ansotegitar Santiago, Bizkaiko itsas ontziren egille andiena zan, ta bere aita ta anai Andresekin, euren biziko denbora ezberdinetan Gernikako Batzar nagusiaren ordezkariak be izan ziran, Abandoko alkatetza Gernikako Batzar Nagusiaren ordezkari lez lotuta egon ziralako.

Abandok, Gernikako Batzarraren ogeita amalau ezar lekuakin lotuta euki eban bere Udaleko alkatetza.

E

Arana ta Goiri'tar Koldobika eta Sabino seme txikerraren abertzaletasunezko bizi kondaira ulertu daigun, sendiko laugarren alaba Paulina zanaren esanetatik labur artuko dogu:

– “Arana ta Goiri'tar Santiago ta Goiri'tar Paskuala'ren etxeko abertzaletasuna, oso sakona zan, Euskal Nortasun andiko ta sinismendun zintzoak izan zirelako”.

– “Karlisteren matxintasunerako, asko lagundu eban nire aita Santiago'k”.

– “Denbora gitxi barruan, itzi eban itxas-ontzi egiteari”.

– “Uribarri gudal nagusia, bere etxean euki eban ostonduta”.

– “Aita, Ingalaterrara joan zan zu-izkilluak erostera, eta bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu ebazan, karlista gudari gazteak izkilluz prestuteko”.

– “Zelan zabaldu zan gu atzerrira joanda egon giñela, etxetik urten barik egon giñelako, eta urtetan bagenuen, egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendula goizean, lenengo Meza Santuetan otoitz egitera”.

– Aita, Abandoko alkatea izan zan, eta Gernikako batzarretan eskubidedun bertatik”.

Sabinorentzat ikusten dan lez, etxean abertzaletasunezko giroan euki eban arnasa obeagoa ezin izan, eta or berentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau ta nai abertzale lez.

Denbora oneitan Kantabroak, euskaldun eta bizkaitarrak senditzen ziran.

1.865ean “Euskalduna” aldizkaria “K” itzarekin agertzen da.

Karlista alderdiaren era berritze edo antola barria.

1.866an Prin eta Prast-tar Juan espainiar gudal nagusia matxinatu zan, eta 66 mailla ezberdiñeko gudari tiroz il ebazan.

1.866an Bilbaon, iraurri, saltzarri edo karebaltza⁽¹⁾ etxegintzan, oikuntza lez ezarri zan.

1.868an Epaillaren 16an Bizkaian amarkadako metrika, neurkintza lez ezartzen da. Eta urte berean espainiarrak, diru arloetan pesetea sortzen dabe “Erdi Ugarte au, espainiar aberriaren batasunezko irudi lez agertu dagien alegiñetan”.

1.868an Uztaillaren 7an, politikako gauzak txarto joan ziran II In Isabelentzat, eta beren aldeko gobernutik eskutitz bat artzen dau, bere sendiagaz Frantziara atzerriratu zedin.

1.868an Uztaillaren 24an Kabreratar Ramon gaisorik egon zalako, VII In Karlosek, onen Ingalaterrako etxean batzartu zan beste karlista gudal nagusiekin, eta Kabrerak bertan, ez eutson bere erregetza ontzat artu, areik eta ondorengo gauzak ondo egiñarte, eta batzar orreitan itzi ebazan beren karlista ardurak, euken gaixotasunagaz ezin ebalako ainbeste ardurazko lan andiagaz aurrera egin.

Batzar au izan zan VII In Karlosek egin ebana lenengo aldiz, karlistaren errege lez.

1.868an Iraillaren 17an, Zaragoza gudal itsas ontzian, Kadizeko urgolkora urreratu ziran Prim, Serrano, eta Topete ta Karballotar Juan Bautista liberalaren gudal nagusiak, eta II In Isabel errege aulkitik kendu gura eban iraultzazko agiri bat idatzi

(1) Iraurri, saltzarri, edo ta karebaltza = cemento. Eta burnidun saltzarri = cemento armado.

eben, eurak 1.810-1.813ko urtetan Kadizeko jaurgo barriaren arauak argitaratu ziranakaz espainiarren jaurkintza zuzentzeko, Iraillaren 19an aldarrikatu ebena.

1.868an Iraillaren 18an Prim ta Prast' tar Juan, Serrano ta Domingeztar Franzizko, eta Topetetar Juan Bautistaren iraulketa bidez, IIn Isabel bere erregetzazko ezar lekutik kendu eta Frantziara erbesteratuazo ondoren, karlistek, parebako aukerea ikusi eben euren eskubideak ostera berrezkuratzeko, eta prestakuntza orrekaz asi ziran arduratzen.

Espainiarren gobernu aldarrikapen auengandik indartu baiño makaldu egin zan, naiz konstituzio barriaren sendotasunean, eta bai aberri edo nazifio lez.

Demokraziaren jokuan emon gura eban askatasunezko itxuran, ez ebelako euki ifungo almenik, menpetasunezko katoliko txebera ori ostonduteko.

Espainiar aldekoak aldi oneitan, politikaren eritzizko naste andiagotan asi ziran sartzen, adibidez: aurrerakoiezko jaurgo barriaren kide orreik ezker eskuin alderditan banatzen asi ziralako.

Eta ezker aldekoak errepublikako gobernu baten eritzira aldatzen asita, Saboyatar Amadeoren erregetza sakastatu edo zilgardatu⁽¹⁾ egingo eben, erregetzazko jaurkintzarik ostera ez egian ezarri.

Euskaldunok, itxaropen andiegaz besarkatu genduzan, nai errepublikako eritziak eta bai gizartekeri edo sozialismuaren arrazoiak, bide ortatik gure erriaren askatasuna ikusten gendulako.

Eta erri lez lilluratuta, mogimendu orreik Giza ta Erri-eskubidera bideratu ginduelakoan ez gintzazan konturatu, egikera orreik Europako liberal merkantilismu ta katolikosunaren eritzizko batzangoan egokitzeke mogimenduak zirela, eurak be ez ebelako jakin, ain guzur andi orreik, "Egi" zelan biurtu.

Gitxiago, erkaldar edo errepublikanu ta errigizarte-zale edo sozialistak, erri ta gizaren eskubideko aldekoak zirela esaten ebelako, nortasungabeko espainiarren batzango zaleak izango zirala, gure Euskalerriko gizarteetan, nortasunezko arrazoiaren eritzizko zentzuak, zoritxarreko naspiltasun geiagotan sartuta.

Euskaldunok egi lez baituta daukaguzan askatasun demokratikoak zentzun bide-tik, eta beste errikoak espainiarrak bezela oldozmen bardiñean ezarrita dagozelakoan, sarritan gertatu jakuz alango anka sartzeak, euskal zentzuzko gizarte eritzian naaste sakonetan sartzen gaituena, eta larregi kosta egiten jakuzenak zuzentzen.

Gure euskal gogoetan ez gendulako ulertzen eta gitxiago sinistu, Jainkoaren ize-nean, katoliko, bai sozialista edo ta errepublikano seme demokratikoak, ibiliko zirala alango maltzur, guzur, lapurti ta menperatzailetasunezko jokuan.

Jainkoak bizitz oneri oiñarritutako legediak, bere semealabak bereztasunezko oituraren azi ta ezitako jokabidez bete bear dabez, nortasunezko baitan zentzunezko ulermenaren ezaubide on baten ezarri daitezen.

Oso ezbaridiñak dira baiña, Jainkoaren Legeari kanpotik, gizonaren norkerizko gogo legean bakandu ta aukeratuta, baitu gure diran sasiarrazoiak, mundu onetako faziztek, dirua ta agintaritzta sasi-jainkotzazko maillan ipini ebezanetik, Jainkoak bereztutako legeak, ez dabezelako ikusi nai.

(1) Sakastatu, edo zilgardatu = echar a perder, malograr chapucear, deteriorar, estropear.

**Ez dodaz nire gogoan oraindiño aiztuten, abertzale zar batek gure aske-
neko gudagaitik esaten eustena: "Ez gogoratu Paulo, borroka au sozia-
listak edo ta errepublikanoak irabazi ba eben, gure erriaren askatasuna
ortik agertuko zala".**

Ondoren, gu menperatzeko asmoa euki ebelako, gaur ikusten dan lez.

1.868an Iraillaren 19an Lekeition arrapatu eban II In Isabeleri, ospagarri⁽¹⁾ izena-
gaz deitu eutsoen mantxintasun orreri.

1.868an Iraillaren 28an, Kordobatik 11 kilometrura egon zan Alkoleako zubian,
liberalak irabazi eutsen gobernuko gudalozteai, eta 29an II In Isabelek Frantzira atze-
rriatu bear izan eban.

1.868an Iraillaren 30ean II In Isabel Frantziko atzerritasunera urten ebenetik,
1.904rarte edo beren eriotzararte iraungo eben atzerritasun orrek.

1.868an Urrillaren 3an, Borbon ta Braganzatar Juan Parisen egon zan egun orrei-
tan, eta jakinda bere seme VII In Karlos an egoala be, beragana urbildu zan, jakiteko
gogoak euki ebazalako bere semea ainbeste urtetan ikusi barik, zelako itxura euki
eban eta errege gai lez, egin ebazan aurrerabideak.

Arrituta geratu zan Borbontar Juan, bere semean ikusi ebazanean alango
gorpuzkeraren itxurak, askatasunezko ausardian euken zentzutasunezko buru-
bide ta kemenagaz, eta bertan emon eutsoezan erregetzaren eskubide guztiak,
ararte bera liberalaren eritzizkoa izatearren, ainbeste bider ukatu edo ezeztu
eutsolako.

1.868an Urrillaren 8an espainiarrak bitarteko gobernu bat antolatzen dabe.

1.868an Urrillaren 10ean Kuban Zespedestar Karlos Manuel matxinatu zan
espainiaren aurka "YARA" erri izenaren irrintziagaz, 1.878an Otsaillaren 10erañio
iraun ebena.

1.868ko Urrillan espainiarren politikako nasteak, eta Kuba matxinatu egin zala
ikusi ondoren, karlistaren alderdia bizkortu ta atonduten asten da, bere barnetik al-
derdi bi sortuta: bata lege zalea, Aparisi, Gijarro ta Nozedaltar Kandidok bideratzen
ebena; eta bestea, espainiarren artean geientsuak guda zale sutsu ta barkagaitzez-
koak⁽²⁾ ziranak.

Araban: "El Escudo Catòlico" eta "La Buena Causa"ren aldizkariak sortzen dira.

Nafarroan: "La Voz de España"ren aldizkaria.

Gipuzkoan: "Boina Blanca" aldizkaria. Len Bilboko "Euskalduna" eta Gazteizen
"Seminario Vasco Navarro" egon ziran aldizkariakin ezarri ziranak.

1.868an Urrillaren 22an VII In Karlosek, Europakoerrege guztiak deitzen dautse
esaten, bera prest egoala espainiarren jaurkintza aurrera eroateko, eta askatasun guz-
tiagaz aukeratutako orokorrezko gorreakaz, garrantzi aundiko lege ori betirako eza-
rrita.

Inguruko denbora onetan espainiar gortekoak guda nagusiakaz batera, Borboiak
bota gure ebazan erregetzatik, eurekaz ezin ebalako 1.810-1.812ko urte bitartean Ka-
dizen irasi ebazan batzangotasunaren menpeko legeak ezarri, eta leen Montpensiertar

(1) Ospagarri = La "Gliriosa" deitu eutsoena. (2) barkagaitzezkoak = Imperdonables.

Felipe Louis Orleanseko dukea, Potugaleko errege I Fernando, ta Esparterotar Baldomero garaipeneko dukearen atzean ibili ziran espainiar errege izan zedin.

1.869an Epaillaren 22an Ranzes espainiar ministrua Prusiako erregearengana joan zan bere urte beteratzean zorionduteko eta Bismarktar Otto Eduard Leopold kondea ta Prusiako ministru izan zanagaz egonda, onek lenengoz esan eutsen, espainiar errege ezar aulkian Hohenzollerntar Leopoldo printzea ezarri bear ebela.

1.869an Loraillaren 1ean Tafallan, liberal eta karlistaren arteko eztabaida gogor bidez, borrokan asteko prest agertu ziran.

1.869an Bagillaren 1ean karlistak, ariñauko urtean Kabrerazen aolku bidez Londreseko batzarrean erabagita, espainiar orokorrezko araudi batzarrrak aukeratzeko auteskundetan egon ziran, gero Bagillaren 6ra aldatu ziranak.

Orokorrezko auteskunde orretan, Euskalerrriaren lau lurraldeko ordezkarri geinak, karlistek irabazi eben.

Espainiarren lurraldeetan ez zan gertatu bardiñ, eta II In Isabelekin ministrua izandako Nozedalek Epailleko antolamenduetan zeozer lortu eban gitxiengo taldeakaz, baiña bide ori ez zalako izan VII In Karloseri espainiarren erregetzan ezarriko ebena, gudazaleak ostera asi ziran prestatzen.

1.869an Bagillaren 30ean VII In Karlosek, Kataluña, Balentzia ta Aragoiko karlistai argi ezarri eutsen, beren gogoak menpeko batzangotasunaren aurkakoak zirala, idatzitako agirian azalpendu ebenagaz.

1.869ko urte inguru oneitan, alegiñ asko egin eben espainiarrak, gure euskal jabetzatik suntsitu edo aienatu egin zitezen, berezitasunezko ardurapetik egokitzen jakuzenak.

Eta esan ori egiztatzeko, Urte onetan espainiarren gortekoak, zergak askatasunezko aldaketa osoan ibili zitezen⁽¹⁾ atara ebazan legeak, 1.868an Epaillaren 14an ezarrita euki ebezan oñarrizko legeak alkartu ziranean, gure meaztegiak ia betiko geratu jakiezan atzerritarai.

Figeroa ta Ballestertar Laureano ministruak, Erdi Ugarte onen meatzezko ondusun aberatsak eskaiñi eutsezanean atzerritar merkantilistari, auek, espainiar gortekoak 1.836,

1.855, eta 1.856ko agindu ebezan legeakaz erriaren lurak salgai ipini ebazanarekin batera, euskal jabetzatik ondasun guztiak kenduz gaiñ, lapurketaren leiazko arifieketa baten asi ziran, zeñek ariñago ustu, egon ziran burdiñezko meaztegi guztiak ainbeste atzerritar elkarte barri sortarazita.

Edozein motako menperatzailleak daukien diru-zalekeriagaz, egundo ez dira izan gai ezer sortarazteko, eta euren bete ezinean, beti joan dira guda-indarrekin gauza guztiak lapurtzera, gure euskal lurak saldu ta euki genduzan mea-gunezko aberastasanak lapurtu egin eban lez.

Mundu onen aberastasuna baiña, ez dago bereztutako gai onetan, gaia Jainkoaren aginduz beti egongo dalako egon bear dauan lekuan.

Gure gaitutako arimak dira aberastu bear doguzenak, bizitzeko bear dabezan gauzak, gaiak orokorrezko aukerean eskeintzen dauskun almenarekin, mundu onetan egin bear doguzan gauzak, demokraziaren ekanduzko askatasunean bete daiguzan.

(1) Zergak askatasunezko aldaketa osoan ibili zitezen = aranceles librecambistas.

Nor ote da FAZIZTA, mundu onetan ?.

Oarpena:

Emendik aurrera, Antonio Piralak idatzitako liburuetatik: **“Historia contemporánea” segunda parte de la guerra civil española , anales desde 1.843 hasta el fallecimiento de Alfonso XII, eta Labairuk idatzitako “Bizkaiaren Orokorrezko Edestitik” artuko dodaz, geien bear dodazan zeaztasunak.**

Bigarren atalean, 297ko orrialdetik aurrera, eta Auñamendiko enziklopeditik, artuko dodaz Euskalerriko guda au argitzeko bear dodazan osagarritzko zeaztasunak, Euskalerriko karlistadaren edestiko kondaira au, al dodan zentzu aundienean ezartzeko.

Ostera edestiaren aria artuta:

1.869an Uztaillaren 14an, Berlingo diru etxeko buru batek, eskutitz bat idatzi eutsen Serrano espainiar ministru ta gudal nagusiari esaten, Hohenzollerntar Leopoldo printzea izan zala egokiena espainiar errege aulkian ezartzeko.

1.869ko urte berean Prim gudal nagusia, Antonia errege alabagaz ezkondata egon zan Hohenzollerntar Leopoldo aleman printzearengana joan zan erregetzaren eskeintza egiten, Zorrillak asken baten baiña, dana ezereztu eban, bear zan denbora baiño ariñago ezagutzeraz emon ebalako errege barria izango zanaren izena.

1.869an Urrillaren 4an II In Isabelek Frantziatik, erregetzazko arduratik kanpo egonda, Lersundi gudal nagusiari eskutitz baten bidez eskatzen dautso, bakeztu ta menderatu egiezala itxasoz andiko kolonien matxintasunak.

1.869ko urtearen denborak, oso naas denborak izan ziran, Kolonietako askatasunaren alegiñagaitik.

Bestetik, espainiarren gobernuan sortu ziran eztabaidakaz, batzango edo ta aurrerakoi liberalak, eta errepublikano edo demokrazizko zaleen arteko atonderan, errepublikano eta liberal, edo ta progresista eta unionistas taldeetan bananduta geratu ziran.

– Karlistaren antolakuntzazko zirikitazun gogorraz, liberal eta errepublikanoen artean zentzuzko gobernu bat atondu ezinik ibili ziran.

– Eta eleizak, liburu ta apain gauzatan euki ebezan aberastasunak, liburutegi ta erakus tokietan gorde gurean, eta abar.

1.869ko urtean errepublikanoen artean sortu zan barritasuna: Errepublikaren alde egon zan taldeen banaketa bidetik, sozialismu edo gizartearen antolakuntzazko talde barria sortzeko, leenengo oinkadak emon ziran.

Europa guztian bardin antzekoa izan zan egoera larri au, ain gogorraz izan zirala-ko aginduten ebezanak menperatzaillan aldetik.

1.869an Urrillaren 4an Kabreratar Ramonek naita oso gaisorik egon arren, baietza emon eutsen VII In Karloseri, onek antolatzaillazko gauzaren erabagietan gudaloztearen orokorrezko agintaritzaz emon eta bere besteko neurri maillara igongo ebanen.

1.869an Azaroaren 7an Ingalaterrako Wentworth erritxotik Kabreratar Ramonek ostera baiestutzen dautso VIIIn Karloseri, onek arduratu gura eutson agintaritzagaz.

1.869an Azaroaren 29an Iruñian liberalak, karlistaren matxinadako azpi joko bat ezereztuten dabe, eta orokorrezko guda nagusien kapitaiñak Allendezalazartar Josek, bere aldarrikapenean esaten dautse erritarrai: "karlistak, Foruaren gora beran esaten ebezanak, kontu bat baiño ez zala, Foruak ez ziralako egon zemauntzatuta"⁽¹⁾.

1.869ko urte inguru onetan, VIIIn Karlosten benetako laguntzaille andiena, Biainako Nabarro ta Billosladatar Franzizko euskalzale sutsua izan zan.

1.869-1.870 urte onetan IXn Pio Aita Santuak, Batikanoko lenengo Eleiz Batzarra egin eban, siniskai edo ta oituraren gora beran berba egiten ebenean, Aita Santuaren "uts ezintasuna"⁽²⁾ adierazteko.

1.870ean Urtarrillaren 16an Madrillen, asteroko aldizkari bat sortu eben iru euskal lurralde eta Nafartarrai eskaiñita, "El Pais Vasco Nabarro" esan eutsoena.

1.870eko Otsaillan Kabrera karlista guda nagusiak VIIIn Karloseri, euren artean egon ziran eztabadagaitik, guda agintaritzaren uztziera aurkeztu eutson.

1.870ean Jorriallaren 18an, VIIIn Karlosek Kabreraren ezetza artu ebanean, Suizako Bebey errian karlistaren orokorrezko batzarra egin eban eta bera arduratu zan alderdiaren zuzendaritzagaz.

1.870ean Epaillaren 31n Kabreratar Ramon Morellako kondeak Wentworth erritik oso nekatuta, euki eban gaisotasun ta egiten eban atsedebako lanagaitik alde batetik.

– Bestetik, karlista guda nagusien artean ez zalako egon bekaizkeria eta zelataritza baiño, Madrillen oartu zitezzen euren artean gertatzen zanagaz.

– Eta gudaletzearen antolakuntzarako diru arloetan bear zan iturririk ez zalako agertzen inñundik.

– Kabrerak, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutson VIIIn Karloseri, eta onek, Suizako Bebey erritxoan karlistak batzar nagusian batuta artu eban karlisten agintaritzazko nagusitasuna.

1.870ean Loraillaren 9an, Ebroko Mirandan karlistaren matxintasunezko talde bat sortzen egoala jakin eben liberalek, eta auk Uztzaillaren askenean Oskabarte⁽³⁾ ta Aroko erasoarekin atxilotuta geratu ziran karlistak, ez ebezan askatu arik eta Dagonillaren 16an parkamena agertu zan arte.

1.870ean Loraillaren 13an Madoztar Paskualek, eskutitz bat bialdu eutson Esparterotar Baldomero guda nagusi ta garaipenaren dukeari, espainiarren errege izan zedin.

1.870ean Loraillaren 20an, Esparterotar Baldomerok beste eskutitz bategaz erantzunda, beragaz ez zitezela gogoratu geiago, adin asko eukinez gain oso gaisorik egoalako.

– Eta beste eskutitz bategaz aolku au emonda, Aostako I Amedeotar Saboyako dukea eta Italiako printzea artu eguela, espainiar erregetzaren aulkirako.

(1) *Zemaitu, larderiatu, meatxatu, ukabillea jaso = amenazar. Zemauntzatuta = amenazados.*

(2) *Uts ezintasuna = infalibilidad del papa. (3) Oskabarte = Nombre primitivo de Santo Domingo de la Calzada en euskera.*

1.870ean Bagillaren 25ean II In Isabelek, bere seme XII In Alfonsoren eskuetan izaten dauz espainitarren erregetzazko eskubide guztiak.

1.870ean Uztaillaren 13an Bilbaon, "Bizkaiko Goi Ikastetxe Katolikoa" sortarazten da.

1.870ean Iraillaren 1ean espaiar gobernuak gudaren egokiasuna aldarrikatzen dau.

1.870ean Iraillaren 5ean Rada ta Diazta Eustakio karlista nagusiak, Erdi Ugarte onen karlista guztiei matxinatzeko agindua emon eutsen.

1.870ean Iraillaren 4an Aldundiko ertzainak adierazten dabe, antziñ zaletasunezkoak edo tradizionalistak eta liberalaren artean, gero ta amurratuagoak izan zirela euren arteko erasoak indar gitxirekin bakezteko.

1.870eko Irailla ta Urrillan, espainiar jaurkintzazkoak Prim buru zala, Hohenzollerntar Leopoldo alemana, "Hispano Prusiano" egiunearen billa ibili ziran bidez aukeratu gura eben espainiarren errege lez.

– Eta denbora orretan, Ingalaterran ikasten egoala 16 urte euki eban Genobako dukea, Esparterotar Baldomero, eta Saboyatar Amadeo Aostako dukearen artean, ibili ziran aukeratzen nor izango espainiarren errege.

1.870ean Urrillaren 10ean, on artu eban I Saboyako Amadeok espainiarren errege izatea.

1.870ean Urrillaren 19an, 16 urte Ingalaterran ikasten egon zan Jenobako dukearen billa be ibili ziran, baiña ezerezean geratu ziran egin ebezan egipide guztiak.

1.870ean Urrillaren 31n eldu zan espainiarren gortera, I Amadeok zelan on artu eban espainiarren errege izatearen barria.

1.870ean Azaroaren 3an Prim eta Prastar Juan espainiarren gobernuko lenengo ministruak jaurlariko arduradunai jakin arazi eutsoen, bera zelan eukela erregea espainiar erregetzaren aulkirako.

1.870ean Azaroaren 16an autespenak egon ziran espainiar gortean errege aukeratzeko, eta I Amadeok 191 autarki artu ebazan, Montpensierrek 27, Esparterok 8, Borbontar Alfonsok 2, ta 60 arduradun autatuta Errepublikako elkartearen jaurkintza bategaitik.

Eta 1.870ean Azaroaren 16an Esparterok espainiar errege izateari emon eutson ezetzatik, Saboyako Amadeo aukeratu eben espainiarren errege lez, eta espainiarrak II In Isabel eta karlistai aurkezten eutsezan konponketari ezetza emon ondoren, karlistak aurka egiteko prestatzen asi ziran.

1.870ean Azaroaren 19an espainiarren gortekoak, I Saboyatar Amadeo, Aostako dukea aukeratu eben errege lez.

Emen argi ikusten dogu, orduko Europaren liberalak euki eben burubidea⁽¹⁾, Europako lurralde guztietan leterritasunaren menperatasunezko batzango orreik ezartzea zala, Europako liberal arteko laguntzan, diru ta gudarako bear ziran indarrak, erabagi orren serbitzura euki ebazalako.

Europa osoko laterritasunetan, batzangotasunaren norkerizko zoraldi bar-diña izanda, espainiar liberalaren laterritasunezko asmoak eraginda, erdi ugar-

(1) *Burubidea = decision, resolucìon.*

te onen batzangotasunezko jaurgoaren⁽¹⁾ jaurkintza⁽²⁾ zelango ikuskizunagaz aurkezten eban begitu bear dogu, sartu ziran kakanasteetan ikusteko:

– “Norberkerizko geikeriagaz atzerriko erriak kolonizetan eta bide batez ostuteko asmoan joan ziran lurretatik asita, lur aiek zaintzeko bear eben gudarako tresneri eta gudari gazteakaz, ostutako urre guztiak baiño geiago balio izan eben, azken baten atzerriko erritar orreik, zorigaitz edo ondore txarrakin menpean eukiteko”.

– “Legezko erregiña atzerriratuta eukinez gain, ondoriozko guda karlistarekin, eta

gudal nagusiak ezarri gura eben batzangotasunezko jaurgo barri orren erasoakaz, Europatik erregea aurkitzen asi ziran, peninsula au liberal aberri katoliko orretan jaurkitzeko”.

– “Euskalerrri eta Kataluñaren lurraldeak euren ametsezko kaizargo barruan euki gure, euskaldunak eta katalanak kontuan artu barik”.

– “Espainiarren jaurkintza batzuen gogoetan erki gobernu⁽³⁾ baten biurtu gurean Euskalerrri, Kaaluña eta Galiziaren nortasunezko eskubideak ostonduteko.

– “1.839an Iraillaren 25ean, espainiarren gudal nagusiak Bergaran azpikerizko besarkada zikiñagaz Euskal Nortasunezko Izatasunari egin utsoen lez.

– “Eta aundiena, euren erritarrai, mundu onetan esan leikezan guzur aundienakaz bakezko itxuraz gaiñ, gudu indarka liberalaren “Nacional katolicismo”ko eritzietan ezarri gura”.

Gaur be irauten dauana, katoliko ta merkantilkeriaren batzangotasunean mundu au bideratzeko ameskeriak or daukiezelako bizi bizirik.

Orregaitik, guzur utsaren adierazpeneko aldarriketan, eta gudalozte indarragaz, eragozpidetuta daukiez peninsula onen lurraldean bizi diran, euskaldun, katalan, eta galiziararak, euren Nortasunezko izatasunean daukiezan eskubideko arrazoiak zapalduta.

Zer geiago jakin edo ta ikusi gura dogu, gaur 172 urte geroago Europa ta Mundu osoan aiek batu zaleen antolamenduzko erabagi txarrak artu ziran bidetik katietuta agertzen garanean, antolakuntza orreik goitik bera “diru zaleentzat eginda egonez gaiñ, sasi-katoliko jainkotasunaren serbitzura” eginda dagozelako.

Antolakuntza orreik ikusita, ez gara arritu bear gaur diru arloetan zer sortzen danagaitik, kopuru guztia esku gitxitan geratzen bada be, norkerizko asmakuntza orreikeuren sasi-erako legeen arrazoikaz, lan bikaiñean erantzunda beteta agertzen diralako.

(1) Jaurgoaren = modo de gobierno. (2) Jaurkintza = gobierno, acción de gobernar. (3) Erki gobernua = sistema de gobierno político que aspira a dividir el estado en cantones o regiones con cierta independencia.

Bereztasundutako mundu FISIKO onetan, EGIÑAK, EGILLEA DAUKIELAKO LEN, sortzen dira gauza oneik.

Sekula ez da sortuko maltzurrezko guzurrik, aurretiko oiñarriak egizkoak izaten ba dira, "EGIAK, EGIA BAKARRIK EKARRI LEIKELAKO".

ZER EGIN ?. Berezko Errigizartearen Eskubideak, ardura andiagoagaz elkarteko lanean ordezkatu, Jainkoak gu Gai-Ludi onetara bereztuta bialtzen gaituneko, zor dautzagun egia dalako.

1.870ean Abenduaren 3an Prim guda nagusi ta espainiar gobernuko leen ministroak emon ebazan lenengo pausoak Saboyako Amadeo dukea espainiar erregetzan ezartzeko.

1.870ean Abenduaren 4an Italiako gortekoak, on artu eben I Amadeo espainiar errege aulkian ezartzea.

1.870ean Abenduaren 27an Martinez Pedragosa, eta Angulotar Jose Paulek beste batzuen laguntzarekin, Prim eta Pratstar Juan guda nagusiaren aurka egin eben tenutzko aztakeriagaz, Prim oso txarto zaurituta, lupuak jota itzi eben, eta 30ean gabeko 9etan il zan, I Amadeo erregea Kartajenako itxas portura eldu zan egunean.

Espainiarren jaurkintza urte oneitan, zoroetxe bat baiño besterik ez zan izan.

1.870ean Abenduaren 30ean eldu zan Kartajenara Saboyatar I Amadeo Aostako dukea, eta egun berean gaueko 9etan il zan Prim eta Prast-tar Juan espainiar guda nagusia.

1.871n Urrillaren 2an eldu zan Madrillera Saboyatar I Amadeo, espainiar erregetzako zuzendaritza artzeko.

Eta espainiarren politikazko eztabaida oneitan, Saboyatar I Amadeo aukeratuta euren erregea izan zedin, II In Isabel eta beren loba Borbon ta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VII In Karlos izenagaz ezagutuko zana aurkari agertu ziran, eta jaramonik ez eutsielako egiten, VII In Karlosek guda indarrezko jazarraldian urten eban, bere Borbon leinuaren erregezko eskubideak barriz ezarri gurean.

1.870, 1.871ko urte oneitan, karlistak matxinatzeko alegiñetan ibili ziran beti, baiña antolamenduzko gorputzan beti agertzen ziran zeozeren utsaldi baten.

1.871ko urte onetan, Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiritar Sabinoren aita, beren itsas ontziko lantegia zaintzen ebazan yagole etxetxoan, Uribarritar Franzizko karlistaren guda nagusia euki eban ostonduta, guda azten zanean bere guda taldeakaz arduratzeko.

Sabino, Errepublikako eskoletan asi zan bere lenengo ikasketarekin.

1.871ko urtean karlistak euren gobernurako egin ebezan auteskundetan:

Nobia de Salzedotar Alejo, Aranatar Santiago, Oruetar Juan E., Garrotar Jose, Basozabaltar Juan, Ingunzatar Tomas, eta Praderatar Gregorio Aranatar Santiagoren garazkideagaz⁽¹⁾ batera, guda izkillu edo guda tresnaren eta erri-babesaren batzar nagusiko kideak izendatu ebezan.

Eta jazar edo etsaitasun orreitan 1.872an asten da karlistaren bigarren guda.

(1) Garazkideagaz = accionista, cointeresado.

VII In Karlos errege-nai onen bizi kondaira.

Vn Karlosen birseme, Madrilleko duke eta Dikastilloko kondea VII In Karlos au: 1.848an Epaillaren 30ean, len Austria antziñeko Lenbatx, gaur Yugoslabiako Liubliana Uri zorionsuan jaio zan.

Beren gurasoak: Borbon ta Braganzatar Juan, eta Ekialdeko Austriatar Beatrizen semea izan zan.

1.859an: Italiako gudaitegi baten lerrokatu zan kañodun taldeko kapitain ordezeko edo teniente maillagaz.

1.864an, Bere aita Juanek: naita espainiarren erregetzari uzkundea egin arren, bere amama Beirako erregearen alabea izan zanak, 1.864an agiri bat argitaratu eban bere billobaren alde, "Carta a los españoles", Juan bere aitak 1.868rarte ez ebena onartu.

1.867an Otsaillaren 4an: Biena inguruko Frohsdrffeko Urian, Borbon ta Parmatar Margarita Parmako dukearen alabeagaz ezkondu zan.

1.868an Iraillaren 7an Grazt Urian, bere lenengo alaba "Blanca de Castilla" jaio jakon.

1.868an Urrillaren 3an bere aitak III In Juanek liberal eritzikoa izan zalako ta karlistaren leiñuzko eskubideak ukatzen ebazalako, askenean VII In Karlosen eskuetan itzi ebazan, espainiarren errege izateko euki ebezan eskubide guztiak.

1.869an Bagillaren 3an, 1.868an espainiarren gizarteko gudatik⁽¹⁾ berentzat onura atara gurean, karlistaren aldeko agiri bat aldarrikatu edo zabaldu eban, denbora onetan berak Madrilleko dukearen izena artuta.

1.870ean Jorrailaren 18an, VI In Karlos bere osabaren karlista eskubidea eskuratu ta, karlistaren gobernuko zuzendaritza artu eban.

1.870ean Bagillaren 27an Suizako Bebey urian, bere bigarren seme III In Jaime jaio zan, bere aitak euki ebazan eskubidearen ondorengoia izanda.

1.871n Uztaillaren 28an Jinebran, bere irugarren alaba Elbira jaio zan.

1.872an Loraillaren 2an, Auñamendiak igaro ta Larruneko Egoaldean "Txapatar Karlos" en baserrian lo eginda, Beratik sartu zan garaitsuki Nafarroara, sasigudan ibili ziran 1.500 gudari txarto izkillotutako taldearen zuzendaritza berak eroateko.

1.874an Epaillaren 21ean Frantziako Pau Urian, bere laugarren alaba Beatriz jaio zan.

1.876an Otsaillaren 27an, gudako ekintzan alfonsinoak menperatuta, ostera igaro bear izan ebazan Auñamendiak, Frantziko lurraldeetara iges egiteko.

1.876an Bagillaren 29an Frantziako Pau Urian, bere bostgarren alaba Alizia jaio zan.

1.880an, espainiarrak euren zentzuzko jaurogoa lortu ebenean alde batetik, ta besetik Kanobasen politikagaz apur apurka, bere politikaren oiñarrizko zentzuan azpiratuten edo menderatuta geratzen asi zalako, VII In Karlos frantzitik be alde egin bear izan eban.

1.893an Urtarrillaren 21ean, Biaregion il jakon bere emazte Margarita.

(1) Espainiarren gizarteko guda oneri, la "GLORIOSA" esan eutsoen.

1.894an Jorailaren 28an Pragan, Rohaneko Urian bigarrenez, M^a Bertagaz ezkondu zan.

1.900ko urtean, oster alegintzen da Badalonan beste iraultzaren ekintza bategaz.

1.909an Uztaillaren 18an, Italiako Barese urian il zan VIIIn Karlos, 61 urte euki ebala.

Beren erregetzako naikundeak, bere seme Borbon eta Parmatar IIIIn Jaime Txalbeteko dukeak eskuratuta.

Saboyatar I Amadeo, Aostako dukearen bizi kondaira laburra.

1.845ean Lorailaren 30ean Turinen jaio zan, Aostako duke Saboyatar I Amadeo printze au.

Italiako IIIn Bitor Manuel eta bere emazte Austriako Raniero artxidukearen alaba, Maria Adelaida Franzizkaren semea izan zan.


1.867ko urtean, 20 urte euki eban del Pozo de la Zisternatar Maria Bictoria printzeagaz ezkondu zan.

1.870ean Abenduaren 4an espainiar gortekoak aukeratu eben errege lez.

1.872an Uztaillaren 18an gabaz bere emazteagaz doiala, bera ilteko eraso gogor bat euki eben Madrilleko Arenal kalean.

1.873an Otsaillaren 14an espainiarren gobernuan asko euki ebazan aurka, eta bertan itzi eban espainiar errege izateari.

1.890ean il zan Saboyatar I Amadeo.



4. Zatia.

1.872ko matxintasuna.

1.872an Jorraillaren 2an egin ziran auteskundetan, espainiar jaurlaritzaren gobernuko ministruak euren norkeriaren maltzur naikeriagaz liberalaren alde geiegi ibili ebena, euskaldunak ostera arteगतu ziran, eta ixil jokoaren sasigudak antolatzen asi ziran.

Ez zan arritzekoa euskaldunen asarrea, auteskunde orreitan ministruaren maltzurrezko eragintasunagaitik, ainbat ilda egon ziran gizonak bozka edo autarkia emon ebalako.

Espainiar gorte orreri, "Lazaroen" gorteko izena ipini eutsoen.

Euskaldunak ariñautik jakin eben ministru orreik, norkerizko maltzurkeriaren jokoagaz zer gura eben, 79 ordezkariatik 10 edo 12 bakarrik joan ziralako.

Karlistak, ille orretan amaitu ebezan matxintasunaren prestakuntzak.

1.872an Jorraillaren 8an VIIIn Karlosen idazkari Arjonatar Emiliok, oldoztu edo asmatu ebazan matxinadaren arauzko aginduak emon ebazan:

a) Jerona, Figeras, Seoko Urjel, eta Iruñako gualtegieta orokorrezko matxintasuna.

b) Denbora bardin orreitan, Bilbao erasotu.

d) Euskalerriko lau lurralde eta Kataluñako lau lurraldearen orokorrezko matxintasuna.

e) Donosti inguratuko erasoan ezarri.

Eta Euskalerrriaren lurraldeko agintaritzan Nafarroa be kontuan artuta, Diaz de Radatar Eustakio, gual nugasitasunezko arduran ipini.

1.872ko urtean Arana ta Goiritar Sabino 7 urte euki ebala, Errepublikako etxean egon ziran Abandoko Udalaren mutil neskaren eskoletako batean asi ebazan bere ikasketak.

1.872an Jorraillaren 15ean VIIIn Karlosek Jinebratik, Nafarroa, Aragoi, eta Kataluñaren mugako agintaritzan egon zan Diaz de Rada gual nagusiari agindu au emon eutson, Jorraillaren 21eko egunean, espainiar lurralde guztian matxinatu zitezela aldarrikapen onegaz: "Abajo el Extranjero", "Viva España" eta "Dios, Patria y Rey" karlistaren ikurragaz.

1.872an Jorraillaren 21ean espainiar liberalak be gudaren aldarrikapena sortu eben.

1.872an Jorraillaren 21ean Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiriar Sabinoren aita izan zanak, aurregunean sendia agurtuta eta iges egiten atzerrira joan bear izan bazan lez, lenengo Sukarrieta eta gero Mundakara joan zan ostonduten, lurralde ori jakinda, Goiriena Josu lagun apaiza euskal abertzalea eta berak aginduten eban taldearen gaitik kontrolatuta egoala.

1.872an Jorraillaren 21erako gertatu zan matxintasuna baiño ariñago, VIIIn Karlosek Europako kantzillergokoari mezu au bialtzea: “berak ezin ebala norkerizko guzur, maltzur, eta legegabekeri geiago onartu, auteskundeetan egiz aukeratuak ziranak, gorteko aulkietan ezarri zitezen”.

1.872an Jorraillaren 21eko egun orreitan Radatar Eustakio karlistaren guda nagusia Beratik sartu zan Nafarroara.

Ollotar Nikolas matxinada onetan indartsuena izango zanak, Etxaurin eunbat gazte batu ebazan, VIIIn Karlos errege lez aldarrikatuta.

Karasatar Fulgenziok, Nafarroako Iguzkitzaren ibarrean eta Jurramendi mendien ondoan dagoeneko Morentin errian, bardiñ egiten dau 1.000 gazteekin.

Nafarroako matxinada osotzeko ibili ziranen artean, Zunzarren, Perula ta Miranda izan ziran.

Bizkaian: Abadiño, Arratia, Markina, Gernika, Bilbao, Enkarterria, Mungia, Berriatua, eta Ondarroan, askeneko erri au Udaleko alkatearen aginduan egon zana, matxinatuta egon ziran erriko gazteakaz eta gero jende geiagorekin indar orreik andiagotuta, Bizkaia izan zan lau euskal lurraldetatik, Euskal Foru edo “Lege Zaarraren” sinismenakin bere baitan ardura aundienean agertu zana.

Begitu bestela, zelango alegiñakin ibili ziran dirua euki eben Bizkaitarrak, Sabino Aranaren aita Aranatar Santiago bezala, bere itsas ontziak VIIIn Karlosen agindutara ipiniz gain, bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu izkilluak erosteko, eta gaiñera tresneri orreik arduratu ekarten, karlistaren gazteak izkilluz tresnatzeko.

Araban: Kareagatar Ezekiel, Kalle, eta Martinez de Belasko, Aldundiko miñoiak eta bidekariakin batera, euki eben tresneri guztiakaz aldatu ziran karlisten aldera.

Gipuzkoako Ataunen: Rekondo matxinatuen buru zanak, 800 gizon inguru battegaz osotu eban gudu talde bat. Dorrnsorotar Migel politikari karlista eta Santa kurtz'tar Manuel apaiza artean zirala.

Ordizian: Ayastuyren agintaritzan eta Zaldibia ta Lazkaoko apaizakaz lagun zala, 400 gizonetzko talde bat atondu zan.

Azpeitian: Amilibiaren taldea, Izarraitz menditik asi zan sasigudan 500 gizonekin.

Eta Saboiatar Amadeo, espainiar errege barria izan zanagaz, bakean egon ba ziran peninsula onen lurraldeak Kataluñakoak izan ezik, karlistek espainiar lurraldeentzako atondu eban egitarauari ez eutsolako iñork jaramon eginik izan zan.

Karlistak egin eben egitarauzko burupidetik, ez ziralako matxinatu agindu ziran Aragon, Balentzia, Guadalajara, Kuenka eta Andaluziaren gudaitegiak, txinparta makal batzukaz izan ezik.

Baiña alderantziz Fernandez ta Almagrotar Meltxorrek esan eban lez, Foru Legezko errien erritarrak emon ebela garrantzizko erantzun aundi ta ederrena karlistaren alde, euren askatasunezko Foru Legeak ardura andiz berrezkuratu gura ebezalako.

1.872an Jorraillaren 22an Basosabalek, gudaren lenengo borroka euki eban Urkiolan bere 30 guardia zibillaren taldeagaz liberalaren aurka, astintasun ederra artuta.

1.872an Jorraillaren 22an Bilbaon: Laguntzaillearen guda talde bat antolatzen da, lenengo edo 1.832, 1.839ren artean egin zan zazpi urteko gudaren gizonakin.

1.872an Jorraillaren 23 ta 24ko egunetan, karlista gazteen lenengo garaipenean, Gueñeseko Kuebillasen taldeak, 23 erriko-mutillak⁽¹⁾ menperatu ebazan.

Nafarroan Lizarra ta Tafallako erri aldetik joanda, Abarzuzako erritxoan batuta egon ziran 2.500 gudariak, Amadeo erregearen gudaolozteari, Arizalararte atzeratuazo eutsoen.

Askenean, VIIIn Karlosek garaipenak lortzeko euki eban artegatasunean, beragaz batera gudariak izkilluakaz tresnatzeko amaiezko ezean aurkezten zan lez, baldintza orreik izango ziran lardazkatu edo lorrindu egingo ebezanak, karlistak Nafarroako lurraldeetan lortzen ebazan garaipen txiki orreik, bai eta ondoren Euskalerrri osoan.

1.872an Jorraillaren 27an, Diaz de Radatar Eustakio karlistaren guda nagusiak kontuan eukiten ebalako VIIIn Karlosen egoera, eskutitz bat idatzi eutsen Auñamendiak ez egiazan igarotu peninsulan sartzeko.

1.872an Loraillaren 1erako Uribarritar Franzizko karlistaren guda nagusiak, denbora gitxian, 400 guda mutilleko 7 talde sort arazi ebazan, Gernikan egon ziranak, Gudarako Aldundia irasteko.

1.872an Loraillaren 1ean, Diaz de Rada berak, Mendebaleko Auñamendietatik beren gudaolozteakaz begira ibiltzen da ikusten, ia VIIIn Karlosek Auñamendiak igaro leikezan.

1.872an Loraillaren 1ean VIIIn Karlosek baiña: Auñamendiak igaro ta Larruneko Ego aldean "Txapatar Karlos" en baserrian lo egin eban.

1.872an Loraillaren 2an, Beratik sartu zan VIIIn Karlos garaitsuki Nafarroara, sasigudan ibili ziran 1.500 gudari txarto izkillotutako taldearen zuzendaritza bere agindupean artzeko, eta agiri bat zabaldu eban euskal eta espainiar jendeari esaten, bera euren artean egoala borroka ori irabazteko.

Eta 1.872an Loraillaen 2an asten dira espainiar liberal gudaolozteak, Lesaka, Artikutza, eta Labaieneko mendietatik, karlistaren aurka erasotzen.

1.872an Loraillaren 4an Morionesen liberal guda indarrak, ustekabean arrapatu ebazan karlisten gudariak guztiz nekatuta, izkillu ta araubide barik, Orokieta eta bere inguruetan edozein modutara ibili ziranak. VIIIn Karlos bera be, larritasun aundiagaz iges egin bear izanda Ultzamatik Kinto Realera igarotzeko, eta Loraillaren 5ean Franziko lurraldean sartzeko.

Borroka onetan, 700 gudari karlistatik gora atxilotu, 38 il eta 49 itsas osterata atzeritu ondoren, espainiar liberalaren Gortekoak Moriones guda nagusiari jeneralaren ordezkotako eta Orokieta markes izenagaz dotore jantzi eben.

Nafarroako matxinadaren lenengo porrota, eta bereala Arabakoa gertatu zanean, Karasa ta Perula liberal guda nagusiak Aranako San Bizenteraiño sartu ziran.

Eta zentzun orretan porrokatu edo azken gaizto orretan amaitu zan Nafarroan lenengo matxintasuna. Ortik denbora gitxi barru, Arabako lurraldean Perusa ta Karasa karlista guda nagusiak Aranako San Bizenteraiño sartu ziran.

Eta izendun aundiak izan ziralako, Dorronsorotar Migel, Santa Kurtz apaiza, Lizarragatar Antonio, eta Dorregararen bizi kondairak aurkeztuko dautsuedaz.

(1) Erriko-mutillak = guardia civil.

Dorronsorotar Migelen bizi kondaira laburra:

Ataunen 1.812ko urtean jaio zan Gipuzkoako euskal politikari karlista entzutetsu au, eta Oñatin bete ebazan bere zuzenbiderako ikasketak.

1.854-56-62-64-ko urteetan izan zan Gipuzkoako Aldundiaren ordezkaria.

1.873ko urtean Oiartzunen, itzaldi aipagarria emon eutsen gipuztarrai.

1.862ko urtean "San Martin de la Ascension con Martin Loinaz" en liburua argitaratu eban.

1.896ko urtean, Amunabarro Beasaingo semearen liburua.

Eta berea da, "Lo que fueron los reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los fueros de Gipuzkoa" izeneko idazlana.

Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira:

1.842an Epaillaren 23an jaio zan Santa Kurtz eta Loiditar Manuel Inazio apaiza, Gipuzkoako Leizaran ibaiaren ondoan dauan Elduayen errixkako sendi apal baten.

Oso gazte zala umezurtz geratuta, bere osaba Sasiain eta Santa Kurtztar Patxi lekaideak artu eban bere ardurapean, lenengo latin eta Gizatasunaren ikasketak berak emonda.

Gazteizeko apaizgaitegian sartu zan gero, eta ikasketaren azteraldietan azter-agiri aundienak ataraten ebazan ikasgai guztietan.

1.866an apaiztu zan, eta urte bi geroago, Tolosaren urbil dagoan Errialdeko parrokian ipini eben zuzendari.

Denbora orreik, bigarrenko karlistadaren antolakuntzazko denborak ziran, eta berak ez eban ostondu karlisten aldekoa zala, karlista gudariak izkillutzeko, berak izkilluaren mugausteko lanetan ibilita⁽¹⁾.

1.870eko neguan edo udazkenean, bera Errialden goizetik Meza Santua emoten egoala agertu jakozan espainiarren gudariak atxilotzen, eta Meza Santua amaitu ebanean, gudari orreik maitakortasun edo begiramen⁽²⁾ aundienean artu ondoren, eurekaz joan baiño len gosari txiki bat artzea eskatu eutsen, eta gudariak kanpoko atean ezarrita itxaroten egon ziran bitartean, berak gosalduta barik, bere abade jantziak erantzi, baserritarrenak jantzi, eta eleizgelako leiotik iges egin eban .

1.872ko urtean, berak 30 urte euki ebala asi zan basa gerlariko lanetan.

– Lenengo, Gipuzkoako karlista gudarien kapellau. Eta alango borroka baten, karlista guda indar orreik porrot eginda Segura erritik alde eginda, iges egiten egon ziranean mendi barrenetik, Santa Kurtz apaizak, liberalen gudu indarrak zirikatzen ibili zan Segurako erria oster berrezkuratzeko.

– Karlisten guda nagusiak, zentzugabekeri bat lez artzen ebazan Santa Kurtz apaizak egiten ebanak.

– Ekaiñan baiña, bera saminduta egoan espainiarrak bere arreba il ebelako⁽³⁾ eta Azkoitiko odol aitorle edo martirien tokian 24 karlista gudari gazte ta bioztsuakin topo eginda, ta eurak bideratzeko eskatu eutsonean, asi zan talde orren buru zala, basa gudan.

(1) Mugausteko lanetan = trabajo de contrabandista. (2) Maitakortasun, begiramen = amabilidad, deferencia. (3) Beren borroka zaletasuna, liberalak beren arreba tiros il ebelako saminduta izan zala? Ez da egia ori, ariñautik arduratuta egon zalako.

– Ille bi beranduago, beren belarrira eldu zan, Arrasateko bidetik gudal jarraigo luze bat, izkillu, eurentzako tiroiñak, eta aldean eroateko larruzko tiroin ontziz betarik joan zala.

– Sarearte edo zelata bat antolatuta, gudal jarraigo aberats ori, oso osoan arrapatu eben, eta bereala ostondu ziran mendietatik Aramaxora lepoan eroanda, laguntzen joan ziran liberal gudariak agertu baiño len.

– Izkilluak aztertzen ibili ziranean baiña, izkillu batek tiro eginda gazte bateri eskuan zauritu eutson, eta Santa Kurtz berak zauritua baserri ezagun batera eroanda osagille batek sendatu egian, oster a itzultzen egoala liberal gudari batzuekazo topo eginda atxilotu eben.

– Aramayonako Udalaren espetxean sartu eben ainbat salaketakaz leporatuta, urrengo goizean tiroz iltzeko asmoz, baiña egotzi edo motxalak ainbat bider botateko alegiñean txarto egoala itxura aundiak emonda, gabaz botaka egin eban batean balkoiaren sapailotik beren lepoko estalkia lotuta, urrengo botaka egin ebenean eskegita egoan lepo estalkitik beratu ta igez egin eban, eta bertoko errekan guztiz sartuta agoa eta sudurra ezin ezik arnasa artzeko, bere billa joan ziran guariak ez eben aurkitu.

– Denborak aurrera doazela, lenengo ekitaldearen porrotari begituta, karlistak oster a gura eben galdu ebezanak berrezkuratu, eta Zornotza edo Amorebietako elkargo edo egiunegaz amaitu zan.

1.872an Loraillaren 24an siñatu zan egiune au, VIIIn Karlos eta karlistaren gudal nagusiakaz Santa Kurtz apaiza artean egoala, eta auek ez ebelako sinatu gura antolatu zan elkargoa, Aldundiko ordezkariak bakarrik sinatu eben.

1.872an Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen Gipuzkoako lurraldean.

– Santa Kurtzen irudi ingurua, ospe ta surmur aundiko entzuer a asi zan artzen, bere taldeagaz liberalaren aurka, iñork igerri barik, ostondu, agertu, iges eta sasigudan lortu ta egiten ebazanak, danentzat gauargi, zomorro edo ta kilimarroen gauzak izatèn ziralako.

– Eta berak ikusten ebenean bere taldeko mutillak atsedean bat bear ebela, uste osoko errietara eroaten ebazan, jan eta geldialdi orregaz mutillaren buruak argitu ta indartu eitezen.

– Bere soiñeko jantziak, txamarra ta barneko motx⁽¹⁾ baltzak, berna erdiko urdinabar praka illunak, zangozorro edo galtzerdi motz abarketakin, saman zapia eta buruan txapela baltzagaz ibiltan zan.

– Sekula tiro bat ez ebala jaurti esaten dabe, naita berak 500 edo 600 guda mutillaren aginduan ibili.

– Beren izkillu bakarrak, makilla bat, ibiltzeko asko laguntzen eutsona, apaizaren otoi egiteko liburua, eta berak agintzen ebazan mutillak beragaitik euki eben sinismena ta arritasun itsuak ziran.

– Berak antolatutako gudaren erestalde guztia, txistua ta tanboliña izan ziran, errietan sartzen ziranean eta mendietatik ibiltan ziranean, berak atsegintasunean euki eban Oriamendiko abestiaren doiñuagaz alai ibilteko.

(1) *Barneko motx = chaleco.*

– Berak, basagerlari lez ibili zan bederatzii illabete inguruetan, oge baten sekula ez eban lorik egin, bere gorputza beti longaiña edo jantzigaiñekoagaz bilduta, zelaian lo egiten eban, eta askotan jarleku baten ezarrira arri astun bat eskuetan eukiten ebalá, loak artzen ebenean eta arria eskuetatik zelaira jausi, itzartu egian.

– Bere zuzentasuna lar gogorra zan, ez eban edaten ardorik, ez eta kebelarrik erre, taldean ezin zan ernegurik egin, ez berba txarrik esan, eta errietara joaten ziranean, bere gazteak ezin eben neskatillakaz jantzan eta gitxiago txantxetan ibili.

1.873ko Loraillaren lenengo egunetan, karlistaren gudalozteak atonduta egon ziran borrokan asteko.

– Eraul, Udabe, Beramendi, eta beste mendi inguruetakó lenengo borrokak karlistaren aldekoak izanda, 1.873ko Uztaillaren erdirako, bideak zabalik egon ziran VIIIn Karlosek Dantzarineatik Nafarroan sartu zedin.

– Santa Kurtz apaizak guda onen bere gora berako lenengo ekiñaldiagaz, liberal etsaien artean bildur apur bat sartuta, karlistaren arteko adore, kemena eta biotzaren berotasunak biztuta ekiteko alegiñ andiak egin ebazan.

– Bere bare aldi ta ekiñaldiko ausartasunak, euki eban bildurreza bezela, arrigarrikoak izan ziran.

– Zeaztasunezko salatari sare zabala ta bizkorra antolatuta euki eban, bere argibideakaz gudaloztearen izkutuko mugialdian eraso gogorrak egiteko, eta liberalaren txeberetatik iges egiteko.

– Santa Kurtz apaiza, bere borondate guztiagaz borrokatzen ibili zan, karlistaren aldeko borrokabide orretatik, Euskal Foru ta Erljioaren babes alde ebillela ziñesten ebalako, eta bere gudariak beti esan eben: “eurei sekula ez eutsela itzi VIIIn Karlos izena goralduten, “Erljioa eta Fuegoaren” aipamenetik kanpo.

– 1.873an Urtarrillaren 14an Gipuzkoako liberal Aldundiaren orokorrezko arduraduna izan zan Agirretar Maximo Manuelek; Santa Kurtz apaiza ezin ebalako arrapatu, Tolosan agindu baten bidez, 10.000 pesta agindu edo eskeiñi ebazan ilda edo ta bizirik arrapatuta beragana eroaten ebanai, Azpeitiatik bide batez, Iturriotzar Lojendioren batallói taldeko 40 mikelete Bidaniara, eta beste erdia Aiara bialduta, Santa Kurtz apaiza arrapatzeko.

– 1.873an Urtarrillaren 19an, Santa Kurtz apaizaren ekintzari esker sartu zan Frantzitik Gipuzkoara Lizarragatar Antonio Gipuzkoako guda nagusia, eta onek azken gaizto baten urtetan ebalako euki ebazan borroka geienetietatik, karlistaren aldeko gudari eta erritar guztiak esaten eben Santa Kurtz guda agintari nagusia izan bear zala, ta Lizarraga apaiz.

– 1.873ko Epaillan Lizarragatar Antoniok, Santa Kurtzek egiten ebazan guztiagaitik ondamu, eziñ ikusi; iñartsi edo ta bekaitz, matxino lez salatu eban, eta tiroso ilteko agindua emon eban topetan zan lekuan.

Lizarraga guda nagusiak, agindu orregaz karlista gudariak artegatu ebazan ezin beste, bide batez liberalak bizkortuta, eta egoera orretan aurrera begira, aukerazko biderik ezin eban egokiro zuzendu.

– 1.873an Epaillaren 12an Ezkurun bordan, karlista gudal nagusiak batzartu ziran, biak adizkidetzeko elkar izketetan asita, ondoren Santa Kurtz apaiza Lizarragaren agindupean ipinita.

Lizarragak baiña, ez eban ezereztu Santa Kurtzen aurka ariñago agindu eben zigorra, eta 1.873an Loraillaren 11n euki eben lengo arazo bardiñetara itzuli ziran biak.

– 1.873an Bagillaren 3an Santa Kurtzek, Endarlazako bidean egon zan mikeletearen gudalategia artzen dau eta bide batez egon zan zubia ezereztu.

Mikeleten gudalategi orrek, Iruneko karlistaren agindupean egon zan, eta euki eban aginduzko lana, karlistaren gaulana edo zamaritzazko⁽¹⁾ ekintzak ezereztutea zan, bide batez Nafarroakin artu emoneko bidea zabalik eukiteko.

– 1.873an Bagillaren 7an Santa Kurtz bere erlijiozko ustean espainiar lurralde osotik, bide galduko emakumeak kanporatu egin bear zirala agindu gogor bat aldarrikatu eban.

– Erdi Ugarte edo peninsula onen lurralde osoan, bai eta Ingalaterra ta Frantzian be euki eban oiartzun andia Santa Kurtzek Endarlazako gudalategian egin ebanagaz, eta Lizarraga gudal nagusia bekaitz⁽²⁾ salatari agertu zan, apaizak egiten ebazan erioztzeko epaiekaz, VIIIn Karloseri esanda.

– VIIIn Karlosek ez eban artzen ezertako zigorrik Santa Kurtzen aurka, eta Lizarragak bere agintaritzazko ardura uztea aurkeztu eutson Karloseri, onek onartu ez eutsona.

– Lizarragak, Santa Kurtzeri egiten eutsozan zalataren aurka, Xabalok, Santa Kurtzek euki eban ertzai baltzaren kide ta bere uste osoko laguntzaille izan zanak esaten eban: “Zelatarik iltzen genduzela ? Bearkoa !! Bestela danok garbituko ginduzan ?”.

“Ezin gendun atsendenik artu, gudalozte ta mikeleteak denbora guztian atzetik euki genduzelako, zelata orren emaitzak liberal gudal nagusieri emoteko, eta bearrezkoa biurtu jakun zentzaldi⁽³⁾ orreik artzea”.

1.873an Uztaillaren 9an, Baldespinoko Markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, Ermuko semea ta karlistaren gudal nagusia joan zan bere gudari taldeagaz Santa Kurtz apaizaren billa, bere guda indarraren agintaritza eta eukezan guda tresneriak emon eiotsezan.

Eta Santa Kurtzek, etsaien bekaizkeriko eragipenak oiartzunezko indar andia artu eban lez, bere gudaloztearen agintaritza, ta euki ebazan kañoien tresneria emon bear izan ebazan, eta bera Frantzira atzerriratu, VIIIn Karlosek egin eutson zemankuntzagaz⁽⁴⁾.

– A ta guzti, beren aurkako zalakuntzaz gain, jente askok gizandi lez eta maitasun andian euki eban Santa Kurtz abadea, eta beste gauzen artean, beren taldean ibilitako gizonak karlista agintariak tiros ilten ebazalako, ostera aldatzen da Ego-Euskalerrira.

– Santa Kurtz muga aldatuta, izkutuki, Lizarraga gudal nagusiaren agintaritzan egon ziran Gipuzko taldearen karlista gudariak matxinatzen alegintzen da, eta lortu be lenengo gudari taldea bere agindupean geratzea, bai eta 2^a, 3^a, eta 5n gudari taldekoak.

– Guda indar onekaz saiatzen da Lizarragaren aurka joateko.

(1) Zamari, patari, mugausle = contrabandista. Gau-lan, mug-auste, zimardika = contrabando. (2) Bekaitz = envidioso. (3) Zentzaldi = escarmiento. (4) Zemakuntza = amenaza.

– Lizarraga aurrean euki ebanean baiña, onek bere gudariak euskeraz berba batzuk esanda geldirik geratu ziran, eta Lizarragak aukera orren egoerean, bere leialtasuneko gudariak bialdu ebazan Santa Kurtzek euki ebazan agintariak arrapatzeko, eta bere aurrean egon ziranai banan banan lerrotuta joateko agindu ta euki ebezan guda izkilluak orma ondoan itxiaz eutsezan.

– Santa Kurtz apaiza ori ikusi ondoren arrituta, lenengo taldearen gudariak eta beste gogoko taldeak artuta Zeztoara joan zan, mendi bidez ostera itzultzean mugako mendiak igarotzeko.

– 1.873ko Abenduan amaitu ebazan Santa Kurtz apaizak basako gudak azkeneko atzerritasunezko bidea artuta.

– 1.874ko Iraillan, Frantziaren Iparraldean Lilleko erritxoan Josulagunaren lekaretxean zokoratu zan, eta andik egin ebazan egipide guztiak bere apaiz bizitzan ostera jarraitzeko.

– 1.875ean Bagillaren 9an emon eban ostera bere lenengo Meza Santua guda ostean.

– 1.876ko Urtarrillan Londresera joan zan eta karmeldarren lekaretxean bizi zan.

– Bertan egonda, VIIIn Karlos agertu jakon bigarren guda karlista galdu ondoren eta espainiar erregetzan XIIIn Alfonso izan zala errege, eta berak emoneko Meza Santuan Karlos eta eroan ebazan guda nagusiak Jauna artu ondoren, biok barriketan egon zirala Karlosek esan eutson: “Badakit nire onenetariko morroi bat izan zarela”. Eta Santa Kurtzen erantzuna: “Ba orain, ez dauka zuzenbiderik”.

– Jamaikara joan zan Josulagunaren babespean eta bertan egin ebazan 15 urte.

– 1.891ren urteko askenetan; Kolonbiako Pasto Urian, Josulagunak euki eben mixio errira joan zan, eta erri txiki bat irasi eben gure Iñaki Deunaren izenagaz Pasto Uriaren 6, 7 leko⁽¹⁾ edo 39 kilometru ingurura egon zan lurretan.

– Pastoko umiari eskola emoten ebanerako, oso ospatsu zan ezitako loro berrixu antzeko txori bat euki eban, umeak berbetan asten ziranean, mokoakin buruan pikokatu egiten ebazanak izildu zitezten.

– Eta errira joaten zanean, turuta bategaz oartzten ebazan erritarrak, Meza Santua eta errosario edo agurtza otoiztera joaten zanean.

– Turuta orren ekintza espainiar errege XIIIn Alfonsoren belarrietara be eldu zan, eta turuta bat bialdu eutson, Santa Kurtz il da gero eldu zana.

– Eta Santa Kurtzek bere azkeneko basa gudaldia, Matatar Jose Felix galbidetsu matxinzaleak bere taldeagaz Tukesereseko errira eraso egiten joan zanean egin eban.

Tukeserres erriko agintariak ez eben ezer euki matxinatu orrei aurka egiteko, eta Santa Kurtzek angoo nagusiari, bide ondoan egon ziran zuaitzak bota eta bidean zabaldu egiezala agindu eutsonean, Matatar matxinzale gogor orrek, txebera txar bat zalakoan bertan itzi eban erri orren erasotzeari.

Amerikako mixiñoetan Aita Loidi lez ezagutzen eben danak, bere amaren abizenagaz aurkezten zalako, eta iñork ez eben jakin ia bere eriotzerarte, buru-ukazale⁽²⁾, umil ta apaiz ixil ura izango zanik, leku guztietan aipatzen eben euskal basa gerlari andia.

(1) Leko = legua. = equivalente a 5.572'7 m. (2) Buru-ukazale = abnegado.

Urte askotan ibili zan eskatzen Josulagunaren lekaidetzan sartzeko, eta lortu eban bera il baño lau urte ariñago.

Bera, irasitako San Inazio errian egon zanean, larritasun andian gaisotu zan, eta erritar batzuk anda edo bideko oe baten ipini eben Pastoko Urira eroateko, baiña mendiko leku txarrenetik joan ziranean azken arnasa emon eban, 1.926an Dagonillaren 10ean 84 urte eukazanean.

Lizarraga ta Eskiroztar Antonioren bizi kondaira.

1.817an Urtarrillaren 22an Iruñan jaio zan.

1.833an Abenduaren 27an, karlistaren guda loztean lerrokatzen da oiñezko gudari lez.

1.834ko lenengo illetan, karlistak Amezkoako ibarrean liberal gudariai izkilluak kendu eutsezanean, Orbaizetako erria artu ta beste borroka batzuetan be egonda, bigarren lerro buru lez izendatu eben.

1.834an Bagillaren 18an, Gunillako karlistaren garaipenean be egon zan, bertan zauritu ta lenengo lerro buru⁽¹⁾ lez izendatu eban.

1.834an Uztaillaren 31an Artezan, zauritu eben eta bigarren sarjentu lez izendatu eban.

1.835ean Urtarrillaren 13an lenengo sarjentu karlista lez izendatu ondoren, Maeztuko ingurutasunean, Arkijas eta Larragako zubien borroketan, Zigako inguratzean, Etxarri Aranazen inguratzeko garaipenean, Arroniz, Billafranka, Bilbao inguratu ebenean, eta beste borroka batzuetan ibili zan.

1.835ean Iraillaren 2an teniente ordezeko izendatzen dabe.

1.836ko urtea, Garzia karlista guda nagusiaren guda loztean borrokatu eban, erasoko ekintza guztietan egonda.

1.837an Lorailaren 24an, Ueskako ekitaldean egin ebanagaitik teniente maillakoa izendatzen dabe, eta urtea amaitzeko geratzen ziran illeak Barbastro eta Gisonako borroketan egonda, ta askeneko erri onetan larri zauritu bazan be, Abenduan Torrezi-lla artzeko ibili ziranen artean be egon zan.

1.838ko urtean, Abarisketan⁽²⁾, Allo, Dikastillo, Biurrun, Arroniz, eta Belaskoaineko borrokatan ibili zan.

1.839ko urtean, Ramales eta Guardamino, Arratia, eta Arabako Billarrealen borroketan egon zan, Bergarako egiunean teniente lez egonda.

1.840-1.842ko urteetan, Aragoi ta Kataluña bekoaldean, abere tresnerien arduradun lez ibili zan.

1.843an, Tarragonako elkarreak egin eben matxintasunagaz alkartu zan, eta Bagillan, ango lurraldea lapurrengandik garbitzeko agindu eutsoen.

1.843an Iraillaren 17an, batuzaleen aurka ibili zanean, isekatu⁽³⁾ ebezan sare artekoa antolatu eutsenai.

1.843an Urrillaren 6an, Eskoda liberal taldeari irabazi eutson, orren ekiñagaitik zingola⁽⁴⁾ ezarri ta kapitan maillakoa izendatu eben.

1.844an Jorraillaren 7an, Madrillera aldatuta, Gobernuak teniente maillan baieztatu eban.

(1) *Lenengo Lerro buru = cabo primero en la milicia.* (2) *Abarisketa = carrascal.* (3) *Isekatu = burlarse.* (4) *Zingolatu = condecorar.*

1.847, 1.848ko urtetan Maestrazgo ta Kataluñan ibili zan montemolinistaren aurka, eta onen ekintzagaitik, lenengo maillako San Fernandoren gurutzeagaz zingolatu eben.

1.853ko urtean, San Ermenejildoren gurutzerako urte bateko diru kopurua ordaindu eutsoen, II In Isabelek alaba bat euki ebalako, eta zarrenetariko lerrotik kon-tuan artuta kapitaiñezko maillara igon eban.

1.854ko Jorraillan, gudari ordaingoz Sebillara aldatu zan, eta bertan komandate agintari maillara igon eben, Urrillan Asturiasen, oiñezko gudarien agintaritzan ipinita.

1.855ean Malagan gudari ordain egon zan.

1.856an, Granadan sortu eben Antekeraseko eiztarien talde barrira bialdu eben.

1.857ko Abenduan, Zeutara bialdu eben, eta bertan egoala San Ermenejildoren urte biko soldata ordaindu eutsoen, XII In Alfonso errege izango zana jaio zalako.

1.861ean, espainiar gortekoak komandate agintarizko maillan baieztu eben.

1.862ko Lorailatik Iraillararte, Arapileseko eiztarien taldean egon zan agintari lez.

1.866an Madrillen egonda, Prim gudal nagusia arrapetako, Tajo ibaiaren ekintzatan be egon zan Etxaguen agindutara.

1.866an Bagillaren 22an, Madrillen sortu zan matxintasuna bakezten bialdu eban, eta koronel ordezeko maillara igon eben.

Bertan ordezeko lez geratuta, Urrillan Murtziara bialdu eben, eta andik ostera Madrillera bialdu eben Arapiles guda taldea zuzentzeko.

1.867an Kataluñara bialdu eben, Lerida ta Tarragonan matxinatu ziranai erasotzeko, emen ostera be, zingolatuta bigarren maillako gurutzeagaz.

1.868an Iraillaren 29ko aldarriketagitik, koronel maillara igon eben, eta Urrillaren 23an espainiar gorteko aginduarekin, Iruñara aldatu eben ordezeko lez.

1.868an, bera baiño gudal agintari nagusien alkarrizketa bat entzun ebalako, bada ez bako 24 orduren atxilotasuna euki eben gudaltegiaren zain gelan.

Emendik aurrera bere izatasun ta sinismenak karlistaren aldekoak zirala uste ebalako, Madrilleko alkartasuneko batzarrera aurreratu zan, eta Karlosek Logroño lurraldearen agintari nagusi lez izendatu eban, Uri nagusi ori matxinatzeko agindua-gaz.

Ez eben lortu matxintasun ori, eta Euskalerrira etorri zan bere idazkari Perez ta Najeratar Juan eta Rokes laguntzailleakaz.

Karasaren taldean sartuta, Abalos eta Urbasaren mendikateetako ekintzatan egon zan, eta Bagillaren amaieran basa gudarien talde orreik ezereztuta Frantzira aldatu zan.

1.873an Urtarrillaren 1ean Irun eta Frantziko Euskalerritik aldatu zan, erdi ugar-te edo peninsula onen Iparraldeko Euskalerrira, Imaz eta Perez Najeratar Juanen laguntzagaz, ille orren 6an Dorregaraik karlistaren gudal nagusiak agindu eutson lez, trenbidearen aurkako aldarrikapena zabalduz.

1.873-74ko urteetan, Gipuzkoako gudal agintari nagusia izan zan.

1.874ko urtean Aragoi eta Kataluñako gudar agintari nagusia izanda, Martinez Kanposek Seo de Urgeleri gogorrezko ingurutasuna egin eutsonean, liberalak garai-pena lortu eben, eta Lizarraga bera atxilotuta geratu zan.

1.875an karlistak guda galduta, Karloseri lagundu eutson erbesteratzera.

1.877ko urtean, Erroman il zan gure Lizarraga ta Eskiroztar Antonio.

Dorregarai eta Domingearatar Antonioren bizi kondaira laburra:

1.823an Uztaillaren 11ko urtean Zeutan jaio zan Dorregarai ta Domingearatar Antonio.

1.835eko urtean, Vn Karlosen gudozteetan lerrokatu zan oiñezko gudari lez eta Gebara ta Arlabaneko borrokaren ostean teniente ordezkoa egin eben.

1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukeri ostean, espainiar gudozteetan lerrokatu zan euken tenientearen ordezkoi maillagaz.

1.840an espainiar gudozteak Kastellote ta Morella menperatu ebezanean egon zan, baita Kataluñan, Bergako gazteluak ta lenengo ondorengoaren borrokak amaitzeko egin ziran ekintza guztietan.

1.843ko urtean, Seoane espainiar gudar nagusiaren gudoztean egon zan Torrejon de Ardoz bakeztu ebenean, eta Abenduko illean teniente maillakoa egin eben.

1.845ean, egiztu eben teniente mailla orretan.

1.849, 1.853ko urtetan Madril eta Donostian egon zan gudar agintari lez.

1.854an espainiar gudar nagusiak zabaldu eben aldarrikapenagaz alkartu zan, eta O'Donnell agindutara Bikalbaroko erasoan lenengo eta Sebilla ta Madriletik ibilita, lenengo kapitana, eta gero komandante gudar agintari egin eben, Madrillen geratuta bere ordezkoi serbitzuan.

1.856an Uztaillako matxintasunean egin ebanagaitik, lenengo maillako San Fernando zingola emon eutsoen, Murziako gudozteetara aldatuta.

1.858an Uztaillaren 1ean, Dorregarai, Euskalerriko lurraldean VIn Karlos Montemolin kondearen aurka, guda amaituarke ibili zalako, espainiar gudar nagusiak kapitaiñezko maillara igon eben, eta Murtzian egoala, itxasontzietan egonda Melillara eroan eben ango lurraldeak bakezten.

1.858an Dagonillaren 25ean, bere taldeko 34 gudari eta atxilotuta egon ziran beste 20 gudariekin urten eben moruen zelaietara, eta lortu be, moruen karabo⁽¹⁾ bat eta gordetegi baten eukezan lergailluak arrapatzea.

1.858an Iraillaren 5ean Zeballostar Franzizkoren agindutara, moruen zelai bertara urten da, lortu eben euken kañoi bat kentzea.

1.859an Urtarrillaren 13an Malagara aldatu eben ostera, Bagillan Alkantara eiztariren taldera aldatuta, eta beragaz Afrikako gudan egonda, infernuko mendi bitarte eta angherako sarbide estuko ekintzatan be egon zan, iru marrauzko eraso⁽²⁾ gogorrek eginda moruek igesean ipinteko.

(1) Karabo = moruak itasontzi txiker bateri esaten dautsoe, baita eizako txakur bateri, eta autillo deitzen jakon arrapakoi edo lapur txoriari. (2) Marrauzko iru eraso gogorrek eginda = tres cargas durisimas a la bayoneta.

– Bertan, lepo giblean zaurituta, ekintza orren gaitik ordezko komandate lez arduratu eban.

– Kastillejoseko borrokan, ta inguruetan egin ziran beste ekitaldietan be egon zan, eta bere gudu taldea itxi barik, atxilotutako gudarien taldeko agintaritza eskatu eban.

– Ille bi barru, Lasaussaye guda nagusiaren agindutara, zelaiko laguntzaille lez egon zan.

– Eta 1.860an Epailaren 10, 11ko egunetan egin ebanagaitik koronel ordezko mailla emon eutsoen.

– Wad-Raseko borrokatan egonda egin ebanagaitik jeneral ordezko izendatu eban, eta ostean, Madrillen egon zan guda agintarien ordez.

1.862ko urtean, Santiagoren soñeko ordenaren saria emon eutsoen, eta orren ostean bigarrenez zelaiko laguntzaille izanetik, bere taldera joanda.

1.866ko urtean, Asturiaseko taldera aldatu eban, eta urte orren Jorraillean, atzeriko guda lozteetara, koronel ordezko guda maillakin.

1.868ko urtean, denbora guzti au Lersundiren agindutara egonda, Frantzira aldatu zan, eta bertan VIIIn Karlosegaz egonda, onek bere zelaiko laguntzaille lez izendatu eban, eta Radika edo Diaz de Radarekin Eskodako borrokan uts galata egin ondoren, Frantzira aldatu zan.

1.971n Urtarrillaren 2an ostonduta egon zan lekuan VIIIn Karlosek deituta, Barentziako erreñuaren guda agintari nagusia egin eban eta Uri ortara joanda, egon ziran arrizkuko arazoari aurre egin ostean, ainbat denboran ostonduta egon bear izan eban.

Espainiar karlista guda nagusia izan zan, 1.836-1.839, 1.872-1.876 karlisten gudan.

1.874an Karlistaren guda nagusia izan zan, eta Muru mendi edo Abarzuzako borrokan, danon gainetik nabarmendu zan. Borroka orretan il zan espainiar Kontxa guda nagusia.

1.876an guda amaitu zanean VIIIn Karloseri lagundu eutson Ingalaterrara, eta orren ostean beragandik inork ez daki ezer.

1.882ko urtean Zalduban⁽¹⁾ il zan, Dorregarai ta Domingertar Antonio.

Gudako aria ostera artuta.

1.872an Lorailaren 7ko egun onetan Uribarritar Franzizkok, Zeberion euki eban bere guda ltegia ezarrita, eta liberal guda loztearen talde bateri aurre eginda, ia Bilboko atektaraino eroan ebezan erasoka, ortik Mañarirantza joan da.

1.872an Lorailaren 7an karlistek, Orokietan artu eban astiñ alditik iru egun barru, bizkaitar karlistek liberalak bota ebezan Arrigorriagatik, Bilboko Uria babesten joatea beartuazota, Arratia ta Bilboko karlista taldearen eraso bidez.

Eraso orren ostean karlistek, Billaron ipinten dabe guda ltegi nagusia, eta ikusita Gipuzkoako luraldeetan ez zala piztuten guda, guda ltegi ori Gipuzkoara eroatea asmatzen dabe.

(1) Zalduba = Zaragoza'k, paleolitikotik ekarten eban euskarazko izena.

Arabako lurraldean, De Belaskotar Martinez karlistaren gudal nagusiak, Nazarrera bideratzen dauz bere mutillak gero Bizkaira joateko, lurralde orreitan jokatzeko zalako gudaren geroko bizia.

Eta alan izan zan, Serrano liberal gudal nagusia, erdi ugarte edo euren ustean espainiar Iparraldeko euskal lurrarekin arduratzen zanak, Durangoko ibarrean sartu zalako.

1.872an Loraillaren 14an Serrano espainiar gudal nagusiari, Urribarritar Franzizko gudal nagusi karlistak urten eutsen Mañarikoko atxarteetan, karlista euren astindu ederra artuta.

Asko galdu eben Bizkaitar karlistak borroka orretan, ildako askoren artean Ayastuy ta Altubetar Manuel be egon ziralako.

1.872an Loraillaren 16an, 14n eguneko borroka orren ostean karlistak Mondragoira joan ziran eta egun onetan Oñate erasotu eben.

Emen Urribarritar Franzizko Bizkaiko Jauntzaren gudal nagusi agintaria, Aranatar Santiago, Sabinoren aitak, bere itxaso ontziren lantegiko zaintzalearen etxean ostonduta euki eban eta egun batzuk geroago, borroka orretan artu ebazan zauri larriakaz il zan.

Borroka bi onaitan, karlista gazteak asierako prestakuntza gitxi euki ebelako, eta gure anai artearen berezko etsai ekintzagaz gipuzkoako "txapelgorri"ak espainiar guda-riai laguntzen eutsielako, alde andiak egon ziran bata ta besteen indarren joku artean.

1.872ean Loraillaren 20an, Orokietako porrotaren gora beran, karlistak errudun bat aurkezten ibili ziran eta begirada guztiak Diaz de Radatar Eustakioarentzat izan ziran.

Radatar onek, bere arduraren egipidezko ekintzan egin ebazan gauza guztiaren agiriak agertuz gain, beste karlista gudal nagusiei aurpegira bota eutsen, eurak erdi kilikolo ibili zirala borrokan, oraindiño eurretatik inork ez ebelako egiztu Karloseri emoneko zin itza.

1.872an Loraillaren 20an txikiagotasun ori ikusita karlistak, Orozkoren Zaloako apaiz etxean batzartzen dira euki eben egoera larriagaitik berba egiteko, eta euren eziña ikusita ondoren, Dorreko duke Serrano espainiar gudal nagusiagaz berba egitea erabagi eben, euren menpetasunezko eskeintza egiteko, barkamenaren orde.

1.872an Loraillaren 24an, Bizkaian matxinatutako karlistak Jorraillaren askenetan, guda izkillu ta gudarako euren tresneri gitxigaz Gernikan batuta, Urkiza, Orue ta Arginzoniz Aldundiaren arduradunak, Amorebieta edo Zornontzako Belaustegiren etxera bialdu ebazan, espainiar gudal nagusiekaz batzartzeko.

Eta bertan sinatu zan Amorebietako egiune ori, espainiar aldetik, Serranotar Franzizko Dorreko dukea, eta karlistaren aldetik, Arginzoniztar Antonio, Urkizutar Fausto, eta Orue ta Artiñanoko Aristidestar Juan B.

Itun orren bidetik karlista guztieri parkamena emoten eutsoen, eta gure ebarentzat, gudal agintarien baimena, espainiar gudaloztetan lerrokatzeko euki eben guda maillakin.

Bizkaiko Aldundiari be baimena emonda, Foruak agintzen eban legera batzartu zitezen, guda bidetik baiña egin ziran zorrak ordaintzeko bakarrik.

E

Olan amaitu bazan Loraillaren 21eko egunean asitako matxintasun au, VII In Karlosetik asita, Baldespina Markesa, Kareagatar Ezekiel, Kubillas guda nagusia, Santa Kurtz apaiza eta beste guda nagusi batzuk, aurka egon ziran.

Eta euskal lurraldeko asken karlista guztien taldeak Dagonillako illean amaituta egon ba ziran, karlista guda, Kataluñako lurraldeetan iraun eban bizi bizirik.

Alde bietatik baiña, inork ez eban zalantzarik euki, egiune ori borrokaren eten bat baiño besterik ez zala izan, eta lenengo borroka baiño gogorragoa izango zala urrengoan egingo zana.

1.872an Bagillaren 1ean Zumarragako Billarrealen, erdi ugarte edo peninsula onen Iparraldeko gudalozteak Etxaguetar Rafaelen⁽¹⁾ agindutara geratu ziran.

1.872an Bagillaren 3an, Serrano espainiar guda agintari nagusiak Zornotzako itzarmen orren erabagia, naita jarraian egin zan orduan, Loraillaren 24an Madrileria bialdu, ez zan eldu ministruen etxera, eta gobernukoak bakarrik jakin eben ongiune ori itzarmendu zala, Serrano bera ministeritzara eldu zanean.

Madrillera egun berean eldu zana baiña, 26an birridatzi zan ongiune orren agiri bat. Serranoren etsai baten eskuetara eldu zana zan.

Liberalaren artean asarre andiak egon ziran, eurak gure eben menpetasuna ez ebelako ezartzen, eta erdi Ugarte edo peninsula onetarako gura ebezan menpekotasunezko batzangoak lortzeko, lenengoko gudaren antzera, beste guda gogor bat ikusten eben aurrerantza begituten ebenean.

Karlistaren agintariak, osterasi ziran antolatzen euki ebezan tresneri ta indarrak guda nagusietatik asita, Diaz de Radatar Eustakio kendu eta Dorregarai lau euskal lurraldeko guda buru nagusia izendatuta.

Dorregarai, Olo izendatu eban Nafarroako guda nagusi lez, Gipuzkoarako Lizarraga, Bizkaiarako Martinez de Belasko, eta Arabarako Llorentetar Eustakio, Baldespina markesa aintzindariaren⁽²⁾ agintari nagusiaren agindupean ipini ebazanak.

Zornotzako egiune onek, sei illabeteko bakea ekarri eban Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudalozteetan, eta urrezko denbora karlistai, gaztearen gertaera ta gudarako tresneriak ondo prestatzeko, edozein eratar borrokan urten barik lenengo tentaldian egin eben lez.

Gaiñera I Amadeoren gobernuan sortzen ziran arazoaren eragozpenetatik, osterasi ekarten dituz Frantzian atzerituta egon ziran guda nagusi ta agintari liberalak, guda zelaietan borrokatzeko.

Eta era orreitan asi ziran osotuten karlistaren aurkako gudalozteak Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan.

Or amaitu zan, edestilariak bigarren borroka izango zenik ez dabena onartzen, eta emendik aurrera osterasi asten dira karlistak antolatzen, espainiarren ondoriozko eztaibada ori askeneko borrokan erabakitzeko.

Aldi onetako edestilari geienak, espainiar aberri edo nazioa esaten dautse laterritutako erdi ugarte oneri, gaztelerazko lurraldea izan balitz bezela, bera baiño zarragoak diran beste izkuntz ta erriak kontuan artu barik.

Jakin leike baiña ze aberriaren gandik berbetan gabiltz ?.

Laterriarena ? katolikotasunarena ?.

(1) Etxague ta Bermingbantar Rafael = 1.815-1.887, Donostin jaitakoa eta Madrillen il. (2) Aintzindariak = estado mayor.

Espainiar zaleak, nundik nora daukie baimena baiña, Laterritasuna, egoera mugatzen dauan itzak, eta katolikotasuna, alderdikideratzeko dan itza, itz bi oiek, mundu onetan itzak euren esanguran mugatzeko daukan zentzutik aldentzeko ?.

Ez da arritzekoa ba, Frankok bere menpearen eritzizko zaletasunean eta eleiztar azkoren laguntzagaz, peninsula onen lurraldea "Nacional Catolicismo laterritasun" lez mugatzea, zalantzarik ez egian egon euren sasijaintasunagaz, Jainkoak gaiezko mundu oneri oiñarritutako Legearen aurka.

Ondorio labur bat.

Zati onen amaieran esan dogunagaitik, argi ikusten doguna, kolonigille edo erri irasle menperatzaille barri oneik, ez zirala joan bake billa, berezko erriakaz batera, gizarteak bizitzeko bear ebezan mozkin ta tresneri guztien kontrola euren eskuetan gure ebalako.

Noren ametsak beteteko ?.

Norkeriarenak zalantza barik.

Bata, IVn gizaldian Nizeako eleiz batzarrean I Konstatino erromatar kaizerra eta I San Silbestre Aita Santuak mundu guztiarentzat katolikotasunaren batzangotasuna ezarrita, alderdikierizko katolikotasun erlijio orretan, Zeruko Jainko eta gai onen gizon emakume bitartean, Aita Santu beren uts ezintasunagaz ta kaizarraren agintaritzarekin baliozko solaskide bakar lez ipinita bizi gindezen.

Bestea, munduko gizarte guztia kontrolpean eukiteko, gizakiak euren berezko zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko sortu bear dan diru edo urrearen jabetasuna artuta.

Eta biak alkartuta artu eben inđar guztia Erdi Mende osoan, gaurko denborak be kontu andian artuta.

Jainkoaren Legeak mundu onetan baiña, gaitasun eta gizakien eskubideetan oiñarri lez sustraituz egonda, ezin da beste gauzarik egin nortasun ordezkioan jokatu baiño, mundu guztia ezin dalako batzango baten batu Jainkoaren arrazoizko legetik kanpo, eskubidearen ordezkio jokuan Beren Legetik kanpo ibili ezkerro, edesti guztian ikusten dogu: **"oiñaze, negarra, borroka, eta nekagi gorrietan sartzen gaituela"** zer dan ez jakiteko.

Daukaguzan laterrietan batzangotu gura gaituen agertu eben norkerizko nazioaren itz barri "Nacional Catolicismo" orregaz, eta iraun egiten dogu etenbako borroka baten, nortasunaren eskubideak ezin diralako ezkondu gure norkeriaren asmoakaz.

Ez da txarrena ori, katolikotasunak galdu daualako ekarri eban latíñezko izkuntzatik asita, euki eben síñezmen guztia, berezko erriakaz egiten dauan guztia Jainkoaren Legetik kanpo egiten dabelako, eta eginkera orregaz, zikindu baiño besterik ez dabelako egiten, Jesusek, Jainkoaren giza eskubide eta bereztasunezko lege buruz emon euskuzan aolkuak.

Bestetik, diruak ezin daualako jabetasunik euki, bereztasunezko giza-eskubideakaz batera joan bear ziran ordezkio diruaren "ekanduzko ardurak", Jaungoiko ta norkerizko


E

sasikatoliko asmo orretan siniskera guztia galdu daben saleroslearen eskuetan geratu da, ordezkatzeko bear dogun diru guztia, lau merkantilista orrein eskuetan bakarrik geratuta.

Orregaitik, argi ikusten doguz oraindik ere egiten dabezan izkutuzko aruntz onutzko esku joku orreik, m... geratuta, faziztaren sasikatolikotasunezko asmo orre...

Gaur argi ikus... rrerantza, baiña be-
gitu zer egin eb... kin, Frankoren
anai arteko p...

Iñork... tzak.
Zer...



5. Zatia.

Gudako aria ostera berrezkuratuta.

Amorebieta edo Zornotzako egiune edo ta elkargo orrek, arnas apur bat artzeko epea emon eutsen karlistai, ikusi doguzan borrokatan euki eben asiera txarragaitik, bereala asi ziralako atonduten.

Eta karlista gudariak izkilluz tresnatzeko:

- Nafarroan, Peraltatar Serapio arduratuko zan.
- Gipuzkoan, Zurbanotar Esteban.
- Bizkaian, Aranatar Santiago.
- Eta Araban, Rotaetxetar Pablo.

1.872an Uztaillaren 16an VIIIn Karlosek agerian ezarri eban Frantziko mugatik bere erregeko eskubidearen alde, karlista guztiai esanda, bera batzangotasunaren aurkakoa zala eta eurei galdetu barik ez ebalako egingo ezere aldarrikapenik, 1869an Bagillaren 30ean egin eban antzera.

Espainiar karlista batzuen artean, Zeballostar Ermenejildorekin⁽¹⁾ bezela, ez zana on artu, edestia bere gogamen alde adierazpenduta idatzi eban antzera: "VIIIn Karlosek zelan apurtuko eben beren aurreko erregeak Vn Karlos, IIIn Felipe, eta Vn Felipek batzangoaren alde egin ebena?"

Nik dakitenagaitik, iru errege orreik eta artean egon ziranak, Euskalerrria ta Kataluña euren alde batzangotzeko asmotatik ez eben lortu ezer espainiar eritzizko asmotan menperatzeko, errege orreik eurekaz bildur, edo era orreitan eurak gur ebenerako gauzak ederto joan jakiezalako, beti jokatu eben alde-biak euki zituzten nortasunezko jabetasunak ondo zainduta.

Euskalerrriarena, ardura andiz gaiñera, naita Vn Felipek Kataluñari 1.700-1.704ko ondorengo gudan Austriako Karlosen alde jokatu ebalako, guda indarrez Foruak kendu arren.

1.872an Uztaillaren 16ko egun onetan VIIIn Karlosek, Kataluñako gudarien borronte onak indartu gurean, katalanaren Foruak zinez itz emon eutsen, eta bere anai Alfonsok Kataluñako guda agintari nagusiak, elburu onen: "*!!Catalanes !! Por Dios, por la Patria y por el Rey*", bere askeneko berbak, *¡Viva la religión ! ¡Viva España; ¡Vivan los fueros de Cataluña! Eta ¡Viva Carlos VII !* buruz egin eben aldarrikapenagaz.

1.872an Uztaillaren 18an gabeko amaikak ziranean, I Amadeo espainiarren erregea bere emazteagaz doielako, eurak ilteko eraso gogor bat euki eben Madrilleko Arenal kalean.

1.872an Dagonillaren 18an VIIIn Karlosek guda asi gura eban, eta gudariak oraindiño prestakuntza gitxi euki ebalako, guda nagusiaren batzarrak prestakuntza orreik lortu arte itzarokorrezko eritziz agertzen ziran ezker, Urrillaren 2an Euskalerrriko guda nagusiaren batzarreko agintaritzak kendu eta Dorregaraitar Antonio guda nagusiaren ardurapean ezarri eban orokorrezko agintaritzak.

(1) Zeballostar Ermenejildo = 1.814an Uztaillaren 13an Sebillan jaio zan, bere aita koronel ordezkaria izan zan.

1.872an Azaroaren 5ean, euskal lurralde osoaren liberalaren kapitan guda nagusia Riberatar Primok, espainiar gudaletzetan, gudarien arau gabea⁽¹⁾, jazargo⁽²⁾, biurrakeria edo ta menik⁽³⁾ ezaren lasaikeri ta gordinkeriak⁽⁴⁾ ainbesteko neurri aundira eldu ziralako, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutsen espainiar gortekokoari, eta oneik arazo orreri bidera urteteko, lenengo borrokan egin eben antzera, guda nagusiak sarri aldatuagaz konpondu eben, Etxague, Moriones, Pabia, Nobillas, Santxez Breguarekin eta abar.

1.872an Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen Gipuzkoako lurraldean.

– Bizkaian Baldespinako Markesa, Lizarran Argonz ta Ollor matxinatzen dira, eta Perula karlista guda nagusia Sesman liberalaren gogozko mutillai izkilluak kenduta, Baitierra, Kaparroso, eta Billafrankan sartzen da.

1.872an Abenduaren 18rako aukeratu zan eguna matxintasun barri au osterazateko, eta oraingoan Dorregaraitar Antoniok, ez eban asi guda karlista au, Jorraillan ezeren antolaketa barik, Diaz de Radatar Eustakiok asi eben antzera, oraingoan ondo prestutako gazteekin urten ebalako borrokara.

Eta osterazateko ziran basa gudari talde karlistak: Mundaka ta Bermeo artean Goiriena Josulagun lekaideak bideratuta, Nafarroan Ollor, Radika, ta Argonz, Trebiñon Sobrontar Kandidok, Gipuzkoan Santa Kurtz apaiza eta abar. Santa Kurtz apaiza eta Soroeta⁽⁵⁾ 24 urteko mutil gazteak lerrokatuten ibili zan euren basa gerlaritza sendotzeko.

1.872an Abenduaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiak “Bakea ta Foru”aren idazpurua aldarrikatzen dau Bizkaitarrentzat.

1.873ko Urtarrillan Bilboko Foru Aldundiak, mutil gazteak karlisten zirikatuen-gandik askatuta geratu zitezten, Uri barruan geldit egoteko agindu bat aldarrikatzen dau, eurak bear ebazanetarako pezeta bat Bizkaiko Jauntzaren diru kutxatik ordainduta.

1.873ko urte onen asieran Arana ta Ansotegitar Santiago osterazateko itzuli zan Bilbora, baiña osterazateko joan zan Baionara, karlistak osterazateko matxinatu ziralako eta gudari gazteak izkilluz eta gudarako tresneriekin jantzi egin bear ziralako.

1.873an Urtarrillaren 7an VIIen Karlosek, atzerrian egon ziran karlista guda nagusi guztiari, peninsulan sartzeko agindua emon eutsen, karlistaren gudaletzetak antolatzeko, gero Dorregarai guda nagusitik asita, danari eskutitz bat bialduta.

1.873an Urtarrillaren 7an, Morionesek liberalaren gudaletze agintari nagusiak euren gudaletzetan sortzen ziran maltzurrezko jokoak ez ebazan onartzen, espainiar gortekoak guzur orreik egiak ziralakoan artzen ebalako, eta bere gudaletze nagusi Etxaguetar Rafael kenduta gudaletztearen agintaritzatik, berak artu eban gudaletze zuzendaritzaren nagusitasuna.

1.873an Urtarrillaren 13an VIIen Karlosek Dorregarairi idatzi eutsen eskutitzan esaten eban: “geiegizko lan gogorra izango zala gudarien antolakuntzazko lanak aurrera eroatea, gudaletze nagusien artean, bekaizkeri, zelata, zalantza, salakuntza, eta murmurikari asko egon zalako, eurok biok jakiten eban lez”.

(1) Arau-gabea = indisciplina. (2) Jazargo, jazarkeria = oposición, rebelión, indisciplina. (3) Biurrakeria edo ta menik-eza = insumisión, indocilidad, desobediencia. (4) Lasaikeriak eta gordinkeriak = libertinaje, deshonestidad, obscenidad, lujuria. (5) Soroeta mutil gazte au = Aretxulegiko mendietan il zan 24 urte eukezala.

Eta Karlosek, Lizarraga, Belasko, eta Dorronsorogaz lan egiela eskatzen eutsen Dorregarairi, Olo, Argontz, Perula, Diaz eta Radatar Klaudiogaz alkartzeko, oneik euken benetako sinismenean ezarri zitezten.

Gauza onen bitartez izan ziran gudalozte bietan sortzen ziran egoera larriak, alde bietan bardin sortuta, aurrean euken guda, oso gogorra etorrela usten ebalako.

Eta 1.873ko urte onen asieran asi ziran Euskalerriko lau lurraldetan karlisten gudal agintari nagusiak, eukezan talde txiakaz sasi gudan lez, gudariak gudu antolakuntzazko ezarpenean egokitzeko, eukingo ebezan borroka nausieri begira.

Geiago, Lizarraga oraindiño atzerrian antolako lanetan egon zan bitartean, Santa Kurtz apaiza ainbat gud-amarru ta trebetasunezko sasi gudatan ibili zan Gipuzkoa ta Nafarroako liberal gudariak zoraturuz.

Asken baten liberal gortetik Santa Kurtzen buruagaitik diruzko saria ipinita, Aretxulegi ta Aiako atxarteetatik Soroeta gazteagaz alkartuta, Oiartzun, Errenteri, Usurbil, Lizarrako mendietatik, Lasarteko ibarrean eta Astigarragatik egiten ebezanagaitik.

1.873an Urtarrillaren 19an Lizarraga karlista gudal nagusia Bergaran aurkezten da, Moriones eta Primo Riberak liberalen gudal nagusiek euki ebezan indarrak, berak eukazanaz neurtzeko.

1.873an Otsaillaren 11n, Saboiatar I Amadeo erregeak, lege batzarreko eta senatore batzar aurrean, ondo idatzitako agiri baten bidez uztea erabagitzen dau espainiarren jaurkintzazko erregetza, eta lege etxe bi oneik lenengo errepublikako gobernu sortu edo irasi eben, egin eben autaldian 256 autarkiak 32ren aurka irabazi egin ebalako.

Pi eta Margalek bideratzen eben gobernu au, eta konstituzioa aldatuta ezker aldera bideratu ziran, peninsula edo euren eritziz espainiar lurralde au, elkar-zaletasunezko 15 erri-alde euren udaletxeko lurraldeetan banatzeko itxaropenagaz, autonomi edo askatasun gitxigaz oraindiño, 1.789ko urtearen ezkeroztik espainiarren betiko gorteak eta gaurko Zapaterok euskaldun eta katalanarentzat gura dabena, izaerazko nortasunak ezerezko kontuan euki barik, munduko Uritarrak izan bagiñan lez⁽¹⁾.

1.873an Otsaillaren 11n liberalai, geiago naas-maastu egin jakiezan gauzak, espainiar gorteak errepublika aldarrikatu ebenean, baiezteko 258 bozka edo autarkiekin 32ren aurka errepublika ori aldarrikatuta be, motel jaio zalako.

Gudal nagusi batzuk, XIIIn Alfonso gura eben errege lez aldarrikatzea, baiña ba-kean itzi eben, arik eta bera jakiturian obeto atondu arte.

Ondorengo oarkizun txiki bat.

Baten batek orain, esango daust zelango ekandu motan egin ziran sinismenduta, orduko liberal politikari aiek, Erdi Ugarte edo peninsula onetan ezarri gure ba eben gaur daukagun menperatzailearen konstituziozko laterri barri ura?.

Argi dago espainiar gudal politikari aienetan, gaur daukaguzenaren artean lez, ez dauksiela balio Jainkoagandik mundu oneri ipinitako legerik, ez ezer, eurak esaten daben lez "Por el destino en lo Universal" euren naiezko "Nacional Catolico" lapur sakratu ori izan ezik.

(1) Munduaren Uritar lez = ciudadanos del mundo.

Eta begitu noraiño izango dan lapurtza orreri dautsoen gurgintza⁽¹⁾, Jainkoaren Lege gainetik, gudarako daukien tresneri-ingar guztiakaz prest dagozela erabilteko berezko giza/semearen aurka, euren katolikotasunezko sasi-jainkoaren izenean.

1.873an Otsaillaren 14an Liberalak, eupada edo erronka⁽²⁾ lez artu eben Santa Kurtzen erasoak, eta Tolozaren Gipuzkoako Aldunditik, bere Agirre ordezkari nagusiak 10.000 pezta agindu ebezan Santa Kurtz arrapatu egiten ebanentzat.

Eta Santa Kurtzek ez ebalako egiten Lizarraga eta beste karlistaren gudar nagusien esanetan, oneik agintzen eutsena baiño besterik, karlistak 20.000 pezta agindu eben Aldundiko arduradun nagusi Agirre ordezkariaren buruagaitik.

1.873an Otsaillaren 14an I Amadeok, espainiarren gobernuan egiten ebazanagaitik, beren aurka ainbat euki ebazalako, bertan itzi eutsen espainiar errege izateari.

Amadeoren utzitasun onen arrazoia, ez da urriñetik ibili bear aurkitzeko, bere ondoan ezartzen ziran liberal demokratikoen artean egon ziralako etsai amorratu aundienak.

Bestela zelan ezkondu, Amadeo berak euki eben Europaren “erdi-demokraziaren sendimeneko izpi argia”, bera errege lez aukeratu ebenak euki eben “menperatzaille osoko sendimenduarekin?”.

Nere ustez, gertakizun orreik ez dabe bear adierazpenik, eritzi bi oiek orio ta ura lez, ez daukielako aukerarik nastekatu edo konpontzeko, egia ta guzurra nastekatu ezin diran lez.

1.873an Otsaillaren 19an liberalak, euren gudar nagusia kendu ta Manuel Pabia ipini ondoren, onek “Bakea eta Foruak” eskaini eutsuezan euskaldunai, karlistak euren laguntzagaz indar asko asi ziralako artzen.

Oarpen txiker bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun:

VIIIn Karlos, espainiarren erregetzagaitik borrokatzen eban, “ez Foruen” gaitik.

Guk, borrokatzen genuen “Foruen Askatasunagaitik”, baiña atzerako erantzun edo ta igorritako argi (3) bat lez, Karloseri lagunduta.

Gure erriko elburuen sinismenean, banakatuta egon giñan, espainiar gudarozteak euren indarraren aurka bakarrik joateko.

Orregaitikeginzan Euskalerrian eta Kataluñan borroka guztia, espainiarren guda bakarrik izanda, bide batez biak euren kontrolpean eukinda, menperatu gura ebazalako.

Gure orduko askatasunaren garaipena, edo ta Foru jabetzaren itxaropena, VIIIn Karloseri lagunduta euki gendun.

Europatik baiña, sasi-arrazoizko almen guztiak, Euskalerra ta Kataluñaren aurka egon ziran, lurralde nagusi onen “merkantilista, katoliko, liberal menperatzailleak” mundu osoa batzangotu ezinik, Europa era orretan menperatzea erabagi ebelako.

(1) Gurgintza = culto, adoración. (2) Eupada edo erronka lez = como una provocación. (3) Atzerako erantzun edo igorritako argi bat lez = respuesta refleja, o a través de.

Berezkotasuna kontuan artu barik, gaur daukaguzan aberri barriko laterrietan egokitzeko erabagitu eben, Jainkoaren Lege ta gizaren eskubide guztien gaiñetik.

IVn gizaldian asmatu eben urrezko txekor ori, danok gura nai ez deguna gurtu daigun.

Mundu onetan baiña, Jainkoaren Legetik kanpo, almenezko bide guztiak euren mugak daukiez, eta egoera larri orreitan agertzen gara gaur, gure eragilletasunezko bizitz au, lapurrezko bizi baten biurtuta daukagulako.

1.873an Otsaillaren 19an karlistaren basa gerlariak apaizagaitik bideratu ta kontrolpean euki ondoren eta euskal jauntxoaren antolamenduagaz bultzatuta, Otsaillaren 20an Santestebeneko erritik, 20-30 urte bitarteko gazteen bilketa aginduta, karlistaren guda taldeak, indarrezko itxura apur bat azten dira artzen, eta Eliok lau euskal lurraldeetan bardiñ egiteko agindu eban.

1.873an Epaillaren 27ko debora onetan, Euskalerrian ez zan egon aurkako borroka gogorrik, Kataluña aldean egon ziralako borroka latzetan, egun oneitan Barzelonaren lurraldean Bergarako errian egin zan antzera.

1.873ko Jorraillaren asieran, Elio ta Dorregarai karlistaren guda nagusiak, Bizkaitik ibili ziran mutil gazteak, euren guda taldeetarako lerrokatzen.

Eta Loraillan Elio guda karlista nagusiak Euskalerriko beste lurraldeetara lerrokatze ori zabaldua, sasi gudako taldeak ugaritu ta guda loztearen prestakuntz ona artzeko, bakarrik borrokatzen dira etsaien indarrak pareko edo gitxigoak ziranean, bien bitartez liberalaren indarrak zirikatzeke bakarrik ibilita.

1.873an Loraillaren 5ean Dorregarai, Baldespinako markesa, Lizarraga, Ollo, eta Radika⁽¹⁾ karlistaren guda nagusiak, Nafarroako Eraul errian egon ziran, eta Nafarroako 1º, 2º, eta 3º taldeak Azpeitiko taldeagaz euki ebezan 2000 gudariek, Santxez Breguaren liberal guda loztea menperatu eben.

Eta kendu eutsien kañoia, aldatzen ziran erri guztietatik juan ziran erakusten, andrak kañoi ori, garbitu eta labaindu ondoren, dirdaitsu⁽²⁾ apaintzen ebena.

1.873an Bagillaren 8an Lizarragatar Antonio karlista guda nagusiak, gudariak Santa Kurtzen aurka ipinteko, eskutitz bat zabaltzen dau apaizaren aurka keiñatzaille, eta 9an beste eskutitz bat VII In Karloseri esaten, berak artu dauazan erabagiak txarto artuta dagozela uste baeben, euren agintaritz bere eskuetan izten ebala, VII In Karlosek, ez ebena onartu.

1.873an Bagillaren 13an Lizarragak, Dorronsoro karlista guda nagusiari be, beste eskutitz bat bialtzen dautso, Santa Kurtzen asierako bizi kondairagaz, Gipuzkoan sortzen ziran eztabaidak errukari zala esaten, eta salaketa orreitan bera ezarri zan, gero Santa Kurtzen aurka eriotzaren zigorra aginduteko.

Bitarte orretan, Breguak liberalaren guda nagusiak, Bizkaiko erri askotik alde eginda bere guda lozteak batzen ibili zan.

1.873an Lorail-Bagillaren illak eta Uztaillaren lenengo egunak oso mubikorrak izan ziran liberalaren guda lozteetan, Noubilas eta Radolfs Ramonek, Iparralde onen orokorrezko guda nagusiaren laguntza euki ebelako, baiña a ta guzti karlistak, zoratu ebazan liberalak emendik eta andik euren atzetik zirikituten ibilita.

(1) Radika = Diaz de Radatar Klaudio guda nagusiaren izen-gaixtoa. (2) Garbitu eta labainduz ondoren, dirdaitsu apaintzen ebena = que después de alisar y limpiar lo ponian brillante.

1.873an Bagillaren 6an Gaiñera, Kataluñako liberal gudariak euki eben naigabeagaz espainiar gortekoak ez ebalako dirurik bialtzen gudaloztearen ordainketarako, auek guztiz matxinatuta, guda nagusiak il egingo ebezala keiñada edo ta zemankuntzakin ibili ziran guda nagusiaren agindutik kanpo, eleizetatik mez-ontziak lapurtzen, andrak indarrez beartzen, eta Aldundietatik Kataluñako askatasuna eskatzen espainiarrengandik bereiztu edo ta banatzeko.

1.873an Uztaillaren 9an VIIIn Karlosek aginduta, Baldespinao markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, karlisten guda nagusia joan zan Santa Kurtz apaizarengana, gudu indar eta gudarako euki ebazan tresneri guztiak, Aritxulegiko gaztelua ta bere agindupean egon ziran beste gauza batzuekatz batera emon eiotsezan, eta agiri baten siñatu eben zelan emoten eutsoezan gauza guzti orreik, Santa Kurtz apaiza Frantzira atzerriratuta.

Karlistaren arteko gertaera oneik: Antonio Piralaren “Historia contemporànea” liburuko bigarren atalean 1.843tik XIIIn Alfonren eriotzararte, 1.011, 12, 13, 14garren orrialdetan aurkituko dozuez.

1.873an Uztaillaren 16an Eraulen, Dorregarai karlista guda nagusiak, liberalaren gudalozteari irabazten dautse, eta ekintza onegaitik VIIIn Karlosek, Erauleko markesa izendatu eben Dorregarai.

1.873an Uztaillaren 16an VIIIn Karlos sartzen da Nafarroara Dantxarinetatik, bertan Baldespinao markesa eta Lizarraga guda nagusiak itxaroten eukezala.

Eta garaipeneko ibilleran, Zugarramurdi, Baztan, Arizkun, Labayen, Leiza, Lekunberri eta Irurzunetik, karlistak Iruña ondoko Ibero erria berrezkuratu ebenean bertan egonda, gero Amezkoasetik Araba ta Trebiño aldera igarota, Urduñatik Bizkaian sartu zan, eta Gernikara Dagonillaren 2an eldu zanean, bertan gure Foruai ziñez itz emon eutsezan.

Denbora onetan, Gipuzkoan egon ziran basa-gerlari guztiak, apaizagaitik bideratuta egon ziran, eta Andoaineko apaizak liberalari aurka egin ondoren, 40 gudari Tolosara eroanda atxilotu ebezan.

Uda onetan, Euskalerriko erri geienak jausten dira karlistaren kontrolpean, ostera sortuta 1.835ean Zumalakarregigaz sortu zana:

- Bilbao eta Portugaleta izan ezik Bizkaiko erri geienak.
- Gipuzko guztia Tolosa, Donostia eta Irun izan ezik.
- Nafarroa guztia, Iruña, Estella eta ibaiondoko zati bat izan ezik.
- Eta Araba guztia, Gazteiz eta Biazterri⁽¹⁾ karlisten kontrolpean euki ezik, Euskalerrri osoa egon zan karlistaren agindupean.

(1) Biazterri = *La Guardia erria Arabako Errioxan.*

– Madrilletik etorten ziran su-gurdiak ez ziran Ebroko Mirandatik aurrera joan 1.876ko urterarte.

1.873-1-876 urte auetan karlistak, euren aldera irabazten ebazan erriak, laster ipinten ebazan gure Foru Aldundiko batzarpean euskal politikako banakaritzan, euren erregezko gobernu antzeko bategaz.

Jaurkintza, nimiño errege⁽¹⁾ antola baten antzera, erregeari ta ministruaren batzari egokitzen jakon, eta Foru Aldundiakaz batera jaurkituta, Euskalerrian auek izan ziran benetako ordezkariak.

Goi Maillako Errege Batzar izenean Euskalerriko epaikaritzza, Elio ta Ezpeleta gudal nagusiak zuzenduta.

1.873ko Uztaillaren azken onetan Endetxagatar Kastor koronel ordezkioak, Enkarterri ta Menako ibarrekoak matxinatu ebazan, bera gudalozte orren agintari ipinita, eta gudari talde nagusi bat lerrokatzea lortu eban.

1.873an Dagonillaren 2an, VIIIn Karlosek Zornotzatik Gernikara joanda, gure Foruari, ziñez itz emon eutsan.

1.873ko Dagonillan, karlistak Eibarko erriagaz egiten dira, eta izkillu ta izkilluaren tiroi ta tresneri askogaz egin ziran.

1.873ko Dagonillan, Arana ta Goiritar Sabinok 8 urte eukezala, bere ama Paskuala, arreba Paulina, Sabino baiño sei urte zarragoa zana, eta Koldobika eta Sabinorekin batera, Ego Euskalerritik iges egin bear izan eben Lapurdira, bere aita Santiago euki eban diruagaz, karlista gudari mutillak izkilluz tresnatzeko ibilita, iges egin bear ebalako.

1.873ko urtean, 1.879an amaitu zan “El Correo Vascongado”ren aldizkaria argitaratzen da, eta Delmas eta Truebak argitaratuko dabe “La Correspondencia Vascongada”.

1.873an Dagonillaren 6an 1.870ean autatu zan Aldundia ezarri zan barriro.

1.873an Dagonillaren 9an, karlisten “El Cuartel Real” Aldizkaria agertu zan, gudaren barriak emoteko:

– Moralestar Salvador eta bere anai Pablaren laguntzagaz, Tolosa, Durango, Oñati edo ta Lizarran aste biko epean argitaratzeko eskaiñita, Zaragozako lurraldean Darokatik Aldundiko arduraduna izan zanaren, Gomeztar Balentinen zuzendaritzapean.

1.873an Dagonillaren 12an, Andetxagatar Kastorrek, Bilbo irugarrenez inguratu gure dau, eta 1.836an sortu zana ez dagien gertatu, Portugalete inguratuz asten dau Bilboko eraso aldia.

1.873an Dagonillaren 13an Dugiols liberalaren gudal nagusiak, Loma gudal nagusiaren aginduz, bere gogozko mutillakaz eta errian liberalen alde itz emonda egon ziran erritarrekin urtetan dau Oñatitik, andik aurrera VIIIn Karlosen gortea izango zan Durango, Tolosa, eta Lizarrarekin batera.

1.873an Dagonillaren 15ean, Lizarraga karlistaren gudal nagusiak bere gudariekaz Bergarako errian, 1.839an Dagonillaren 31n Esparterok eta Marotok siñatu eben itun edo egiuneko agiririak ango oroikarrian egongo ziralakoan, ezereztu eban au, eta agiriak ez ebazalako aurkitu, beste paper batzuekaz, itxurazko ordezkotza egin eban, agiri areik erre ebezalakoan.

1.873an Dagonillaren 20an karlistek, Bilbaori iturriko ura ebagiten dautsoe.

(1) Nimiño erregetza = monarquía en miniatura.

1.873an Dagonillaren 22an II In Isabelek, bere seme Alfonso eta Isabel alabaren aurrean, Del Kastillotar Kanobas izendatu eban eukezan legezko almen guztiekaz bere seme Alfonsoren alderdiko agintari bakarra, Kanobasek bere baldintzak ipinita gero, on artu ebana.

1.873an Dagonillaren 23an espainiarrak XII In Alfonso erregetzat aukeratu eben.

1.873an Dagonillaren 24an, 20an Bilbo inguratzen asita, ingurutasun ori estutu orduko, atze aldea babestu bear izan eben karlistak, eta orretarako Lizarra, Biazterri, ta Tolosa artu bear izan eben, lenengo borroka gogor baten ostean Lizarra artuta.

1.873an Dagonillaren 25ean Liberalek, Lizarra gure dabe ostera berrezkuratu karlista gudariekin Dikastillon borrokatuta, baiña galtzaille urten eben eta Lizarra Karlistaren eskuetan geratu zan, VII In Karlos borroka orren ikusle izan zala.

– Bien bitartean Biasterin, Zurbanotar Migelek, sasigudaren aurkako beste sasi gerlari talde bat sortarazteko alegiñean egonda, erria be sendotzen asi ziran, karlistaren erasoai aurre egiteko.

1.873ko Dagonillaren erditik aurrera, 3garrenez inguratzen dabe karlistak Bilbo, Uri barruan guztiz, 40 kañoiakaz egon ziran 4.000 erritar ta gudarien aurka.

Eta Bilbaoko inguratze ori aurrera eroateko, Belasko karlista gudal nagusiak antolatuta, prestu ebazan karlistaren guda indarrak:

Kontuan artuta, talde bakoxtaren gudariak, 800enetik gora izan zirela.

- 1.- Ipiñatar Juan koronel ordezeko aginduan, Arratiko taldea.
- 2.- Etxebarritar Martinen aginduan, Arratiko taldea.
- 3.- Altarribatar Ramonen aginduan, Durangoko talde bat.
- 4.- Gorordotar Sarasolaren agindutara, Markinako taldea.
- 5.- Seko ta Fontetxatar Joseren agindutara, Bilboko taldea.
- 6.- Gorordotar Sebastianen agindutara, Mungiako taldea.
- 7.- Iriartetar Leonen agindutara, Gernikako taldea.
- 8.- Bernaolatar Kasianoren agindutara, Urduñako taldea.
- 9, 10enak.- Adetxagatar Kastorren koronel ordezeko agindutara, Enkarterriko taldeak.
- 11.- Bruyeltar Antonio koronel ordezeko agindutara, Gaztelar Zid-en eiztaiak,
- 12.- Santxez Naranjotar Telesfororen agindutara, Gaztelar Arlanzoneko eiztariak.
- 13.- Noriegatar Felixen agindutara, VII In Karlosen emaztearen Margarita izeneko zaldun taldea.
- 14.- Garzia Gutierrezar Julian kapitaiñaren agindutara, mendietarako kañoiezko sail edo lerrokada bat.
- 15.- Jauregitar Gerbasio komandantearen agindutara, tresneri, diru, jantzi ta janiaren banakuntzak egiteko talde bat.

1.873an Iraillaren 2an Bizkaiko karlistaren Aldundiak laguntza andia bear izan eben, karlistaren gudalozteak diruz, jan-edari, izkilluaren tiroiñak eta gudarako bear ebezan tresneriekaz ornitzeko.

1.873an Iraillaren 6an gauza orreikaz arduratzeko, batzorde bat aukeratu zan Orueta'tar Markosen agindupean, Basterra'tar pedro, Legarreta'tar Bittor, Egidazu'tar Zezareo, Bernaola'tar Agustin, Martinez'tar Jose, De la Kina'tar Bernardiño, Las-koaga'tar Manuel, eta Sagarduy'tar Antoniok osatzen ebena, gero Zamalloa, Unzaga ta Llonagaz andiagotu ebena.

Eta beste karlista batzar bat be egin zan, gudalozteak bear ebezan gudu tresneriakaz ornitzeko, Zabala, Zugazaga, Aranatar Santiago, Lameu, Epalza, Sollano ta Aldekoa gaitik osotuta geratu zana.

1.873an Iraillaren 6an espainiar gobernuan Kastelartar Emilio aukeratu eben 133 autarkirekin, Pi ta Margalltar Franzizkok 67 emon eutsoen aurka.

Kastelar au euskaldunai begira, goitik berako konstituzionalista izan zan, naita berak errepublikanoa zala esan, eta orduan naita ez sasikatoliko merkantilismoak aginduten ebazan arau legearen adostasunean egon, bera Askatasunezko Demokrata eta elkar zaletasunaren⁽¹⁾ aldekoa zala aldarrikatuz.

Nork aitu ?.

Menperatzaile sutsu bat dan espainiar Konstituzioaren aldekoa izanda, naita Puerto Rikon joputasunezko⁽²⁾ legearen kendutea agindu gogorra emon arren, Errepublikako ta Askatasunezko Demokraziaren zale-itsua dala bera ?.

Zelango gogo edo oldozmena euki eban euskaldun eta Katalanaren eskubidearekin?.

Ortik ikusi geinke argi, zelango askatasunaren bizitz itxaropentsu euken erdi ugarte edo peninsula onetan bizi diran erri ezberdiñak, katoliko ta merkantillezko menperatzaile oneik eukezan maltzuzeko gogamenaren aurka.

1.873an Iraillaren 9an Bergaran, karlistek itzaldi batzuk emon ebezan, Bizkaitik Piñera, Antuñano, eta Saratzu joan da, Gipuzkoaren aldetik, Dorronsoro, Berzosa, Unzeta'tar Manuel, eta Biñuela, eta Arabatik, Barona, Mendieta ta La Guardia.

Nafarroako batzarraren arduradunak esan eben, eurak ezin ebela joan itzaldi orreitar ta beste itzaldi batzuk antolatu egiezala eskatuta, Azaroaren 15ean Bergaran egin ziran.

Ekitaldi onen ostetik Azpeitia, Plazenzia, Eibar, Elgoibar, Berako burni-ola, Araozko Bergatar Romualdoren lerrauts lantegia ta Bizkaiko gudu lantegiak bizkortu ziran, Beljikara joanda utsunak erosita karlista gudalozteak guda tresneriekin ornitzeko.

Karlistaren jaurkintzazko lanetan, lau lurraldeko Aldundiak eroan eben ardura nagusia, euren artean baiña Gipuzkoakoa bereztu bear dogu, bere aurrean egon zan Dorronsorotar Migel kementsua aipagarrienerikoa izan zalako.

Andrazkoak be ez ziran atzean geratzen, alargunak ziran Arrindatar Sebastiana ta Uzelaytar Petrak, 6.000 longain⁽³⁾ guda jantziak bear ebezanakaz eta guzti, emon ebezan euren zarpeletik ordainduta karlista gudarientzat.

1.873an Iraillaren 13an espainiar gobernuak, Santxez Bregua Iparraldeko liberal guda nagusiak ezin ebalako ezer egin karlistaren aurka, Moriones ipinten dabe euren gudalozte agintari, eta onek gudariai errepublikaren arimako izpitritu barriagaz biztuta, Gazteizetik Iruñiarantza joaten da bere 12.000 gudariekin Urrillaren batean Larraganen sartuta.

(1) Elkar-zaletasunaren = federalista, o a favor de un cantonalismo con un poco de libertad autonómica, que es lo que hoy tienen implantado. (2) Joputasuna = esclavitud. (3) Longain, berokia = abrigo con capota, o capote.

1.873an Iraillaren 13an espainiar gobernukoak, Bregua gudal nagusia kentzen dabe gudaloztearen agintaritzatik eta Moriones ta Murillotar Domingo Orokietako markesa ipinten dabe Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudaloztearen agintari.

1.873an Iraillaren 21ean Morionesek Gazteizetik agiri bat zabaldu eban Euskalerrirako, euren agintari zaintzaileen agindupean egon ez ziran udalerrri eta lurralde nagusietako apaiz eta alkateak beartzen euren legezko agindu onegaz:

– “jakiten ebenean liberal gudalozteak euren tokietara doazela, bakotzaren erriko ateetan baiño 300metru aurrerago kokatuta egon bear zirala prest, gudaloztearen agintari aurrean aurkeztu egiezan, euren gudalozteetarako emon bear ebezan mutil gaztearen kopuruak ia ordainduta eukiten ba eben agiriakaz.

1.873an Iraillaen 30ean Durangotik agindutako agiriak erakusten dauan lez eta urtearen amaierako, Kataluñaako karlisten guda indarrak ia lurralde guztia euren eskuetan, baiña ez eben jakin egoera orretatik ezeren onurarik artzen, gudal nagusiak euren arteko etsaikeriakaz geiegi arduratuta egon ziralako.

1.873an Urrillaren 6an Morionesek, Mañeruko Santa Barbara mendietan aurkeztzen ziran Ollo, Rada, Mendiri, eta Argonz karlista gudal nagusiarekin, egin eban borrokan, bardiñ antzera urten eben, naita liberalak il askoz geiago euki.

1.873an Urrillaren 6an liberalak Migel Zurbanogaz aurkako basa gerlarien talde bat atonduten egon zan bitartean Biazterri karlistatik babesteko.

– Liberalaren gudal nagusiak Lizarra berrezkuratu gure dabe, eta Mañerun Mendirry karlista gudal nagusien agindupean egon ziran guda indarrakin borrokan asita, liberalak ondo astinduta urten eben.

1.873ko Urrillan Arana Goiritar sendia, Baionan kokatu zan, eta Luis ta Sabino Rua de Espagnen dauan San Luis Gonzagaren iraspeneko ikastetxean, gaur Le Guitxot izenagaz ezagutzen dana, emon eben izena 1.873-1.874 eta 1.874-1.875 urteko ikasketak Donibane Loitzunen beteteko eta azkeneko azterketak Ondarribin egiteko.

1873an Urrillaren 6an liberalak Lizarra artu gurean galtzaille urten da, Azaroaren 7, 8, eta 9ko egunetan, Lizarra berrezkuratzen joan ziran ostera, Morionesek gudal nagusiak eroan ebazan 11.000 gudariekin, eta Jurramendin⁽¹⁾ 9.000 karlista gudarien aurka borrokatuta, Morionesek egunduko astiñaldia artuta, alde egin bear izan eben.

– Ille orretan Biazterri karlistek berrezkuratuta, eta beragaz Arabako erri geienak geratu ziranez karlistaren kontrolpean, Biazterri ipini eben gudaltegi lez, Errioxaldek egin ziran ekitaldiren asiera egian.

1.873an Abenduaren 2an Moriones liberalaren gudal nagusiek Belabietako borrokan, karlistak Tolosari inguratzeko euren prestaera apurtzen dau.

1.873an Abenduaren lenengo egun onetan, Santa Kurtz apaizak egin ebazan Lizarraren aurka, Santa Kurtzen bizi kondairan esaten dodazanak, gudari karlistentzat ain mende gabetzeko edo biozkatzeko⁽²⁾ gauzak ziranak.

1.873an Abenduaren 9an, Moriones ta Lomaren gudalozteak bat eginda, Belabietako mendiaren inguruari erasotzeko eta Tolosan sartzeko prestuten egon ziralako, Lizarraga karlistaren gudal nagusiak, bere gudal nagusiakaz Tolosaren babesa asi zan prestuten Moriones eta Lomaren gudalozteari aurre egiteko Belabietako inguru orrietan.

(1) Jurramendi = Montejurra. (2) Mende gabetzeko edo biozkatzeko = indisciplinarse, desanimarse.

1.873an Abenduaren 10ean, Santa Kurtz apaizak, Frantzira joateko (?) bidean egoala Anzuolatik, eskutitz bat bialdu eutsen Dorronsorok gudal nagusi karlistari, beren aberkidetasuna aurkezten, eta Lizarragaren aurka zergaitik egin eban egin ebana adierazteko, egun bat eskatuta berarekin alkar izketa bat eukiteko, arazo orrei urten bide bat emoteko itxaropenagaz.

Dorronsorok erantzunda, zelan "agintari lez, aizatu edo bere atzean jarraian ibiliko zala bera arrapatu arte", bide batez aolkua emonda Frantzira atzerriratu edin.

1.873an Abenduaren 21 eta 22ko egunetan, Moriones eta Loma liberal nagusiak ezereztu ebezan Tolosa ta Gipuzkoako alde ori menperatzeko euki ebezan antolakuntzak eta Santanderrera joan ziran gudalozteak obeto prestuten.

Karlistak sasoi osoan ostera, indar berritu edo sendotuta, ta Gipuzkoako inguru orreik babesteko antolamenduak eginda, Azpeitian emankortasun osoan ipini ebezan, lerrotu barri gudari gazteak ikasi egien, kañoi, izkillu ta gudu tresnaren lantegiak, gero Bilbo erasotzen joateko.

Ondoengo oarpen labur bat.

Argi ikusten da emen be, espainiar gudalozteak ez ebela iñungo premiñarik euki, Erdi Ugarte au, Europako liberalak agindu eben legedian eta 1.812an espainiar gudal nagusiak sortu eben Kadizeko konstituzioaren legepean ezarri gindezan asko kostata be.

Jakin ebelako, denboraren luzetara eurak izango zirala garaille, karlistak ez ebelako dirurik, ez gazterik, ez eta tresnerik be euki, borroka luze baten jokatzeko.

Sasi asmakizunarentzat aurrerazko urbil ta urrunera begituz, eta maltzurtasunez jokatuta bear zan indarrezko almen guztia euren eskuetan eukinda, Menperatzaille elburu orreik izan ziralako arduratzen ebezanak bakarrik, Europa eta munduko gizarteak euren norkerizko asmakerian bizi gindezan.

1.873ko Dagonillatik Bilbao inguratuta egon arren, Bilbotarrai bear ebezan janari ta borrokatzeko tresneri guztiak, Portugaleteko bidetik ekarten eutsiezan.

1.873an Abenduaren 29an baiña, peninsula onen Iparraldean ezin ezik, beste lurralde guztian gudaren eten antzeko bat sortu zan, eta karlistak euren indar guztiekin Bilbo eskuratzen saiatu ziran, Bilbotarrek 40 kañoi eta gudari ta erritarren artean 4.000 gizon emakume babesteko eukezala.

Orretarako karlistak, Ibaizabalean Olabeagatik, Las Arenas eta Portugaleraíño, liberal gudarien itsas untziren joan etorriko ibilkerak geratzeko, kateak zabaldua zarratu eben, eta edateko ura ebagita, Bilbo guztiz inguratuta geratu zan.

1.873an Abenduaren 30ean Dorregarai karlista gudal nagusiek, Portugalete asten da inguratzen, bide batez Baldespinako markesak, Zubi Barriren mendiko goi aldia, Santo Domingo, Artxanda, Ollaran, Zorroza, Arnotegi ta Basurtoko mendi barrenek gudariak zabaldua.

1.874ko urtean agertutako aldizkariak:

- "Bizkaiko lurraldearen agintezko aldizkaria".
- "El Eco Bilbaino", Kosme Etxebarrietak eta Laskurainiek argitaratakoa.
- "Irurac-bat", de la Muela ta Udondo'tar Rikardo bere zuzendari zala.
- Delmas eta Truebak irasitako "La Correspondencia Vascongada".
- "La Guerra" Etxebarrietatar Kosmek eta Laskurainiek argitara ataratakoak, aske-neko aldizkari onek "Noticiero Bilbaino"n aldatuko zana.
- "El Eco de los Voluntarios" Laherran'ek argitaratakua. Bilboko eiztari gudarien aldizkaria izan zana. -Eta 1.869an ertsitu ta berriz agertu zan "Euskalduna" aldizkaria.

Emen argi agertzen da ze garrantzidunak izan zan Bilboko Uri ta beren inguruko erriak.

1.874an Urtarrillaren 3an Pabiak espainiar gudal nagusia matxinatu, eta I errepublika ezereztuta, bitarteko eskubitar jaurkintz barri bat sortu eban, Serranoren agin-dupean ipini ebana.

1.874an Urtarrillaren 8an baieztu zana.

1.874an Urtarrillaren 21ean Portugalete jausten da Andetxaga karlista zarraren eskuetan, 2.000 kañoen lerkaien eztanda igaro edo eutsi ondoren.

1.874an Urtarrillaren 22an Amos ta Kijada'tar Muñiz liberalen gudal nagusia, Dorregarai karlistaren gudal nagusiai etsaimendu zan, eta karlistak alde bietatik lerrotuz izkilluak aurkeztuta, liberal gudariak lerrotuta aldatu ziran karlista gudarien erditik errege erakundearen abestiko doñuakin.

Eta Andetxaga geratu zan Portugaleten, Enkarterri ta Nafarroako gudari taldeakaz.

VIIIn Karlosek Andetxagari ekintza onegaitik Dorregarai gudal nagusiaren ordezkoa, Andetxagari zelaiko mariskala, Patero ta Rada general ordezkoak, eta Kalderoni koronel izendatu ebazan.

Gogora ekarteko oar txiki bat.

Eta emen beste geraldí bat egin bear da, itaun au gogora ekarteko:

"Gure Euskal gizarteetan, zergaitik batzuen (asko ezango neike nik) sendipenetan ezarri zan karlistaren izatasuna, karlistak espainiarrak izan ba ziran ?".

Euskaldunak gure Foruagaitik borrokatu giñan Vn, eta VIIIn Karloseri laguntza eskeiñita, danon aurrean gure Foru-Legeak, adeitsu edo lotsorkotasunezkoak izan zitezen.

Argi ikusten da, euskalgizarte arteko geienak ez ebela euki arazoaren barri edo argibiderik, denbora aietan errigizartean bearraldi edo ta bizitzeko premiñ andiak egon ziran Euskal arazoetan arrazoiz ulermentzeko, eta izatezko arrazoiak zuzendu barik, okertu egin jakuzan.

Errigizartearentzat, gudabidez sortzen diran naztezko zurmur edo lokatz-tutako oiartzunak, indar geiago eukien arrazoiarenak baiño, arrotzak menperatzaillaren lanak egiterakoan daukien "VENI, VIDI, VINCI" indarkeri guztiagaz beti lez erasotzen ebelako.

Eta Menperatzaillak, maltzur-nazte orreik sortu egiten dabezelako, ezjakiñaren arloetan arrapatuta dagozenetatik, beti jausiko dira batzuk lokatz orretan.

Bai eta ainbat diru-zaleen artean, naste orreik emoten dauazan maltzurrezko aukera bidetik, norkerira biurtzen diranean, sinismenaren Ekanduzko arloak ustu egiten diralako, gaur gertatzen jakun lez.

Euskaldunak sekula ez gara izan karlistak, gure oiturazko Nortasunaren zentzua, ori baiño askoz ariñoago egokitu zalako.

1.874an Otsaillaren 1ean karlistak, Portugalete inguratu eben, eta kañoiaren leerkiekin erasotzen dabe.

1.874an Otsaillaren 1ean, liberal gudalozteak Morionesen agindutara Sonsierrako San Bizentetik urtenda, Urizar mendiak eta Biasterriren inguruko erriak menperatu gure dabez, eta Llorente ta Otxagabia karlista gudal nagusiak premiazko estura larrian egokituta, Morioneseri iru erritar mezulari bialdu eutsoezan, eurak etsaimentzeko itun baldintzakaz, Morionezek onartu ebezanak, eta Primo de Ribera gudal nagusia ta Blanco koronela Biasterriko Urian sartuta, karlistak atxilotu ebezan.

1.874an Otsaillaren 2an Llorente ta Otxagabia karlista gudal nagusiek Morioneseekin egin eben elkargoko itungai bidetik, onek gudariai izkilluak itziazko ta gero, bakotxa bere etxeetara bialdu ebazan.

Erabagi onek artu ziralako, liberal gobernuan zalantzazko eztabaida andiak egon ziran, erabagi bigunak artu ziralako karlistekin.

Liberalentzat baiña, denbora aiek ez ziran onak izan alango erabagizko zigor gogorak artzeko karlistaren aurka, Pabiaren matxinatasun ostetik Madrilleko gobernuan, euren arteko zalantza andiak euki ebazalako konpondu ezinik ibilita, errepublika edo elkar zaleko jaurkintza baten ezartzeko gora beran.

Eta danez gain, Euskalerra, Kataluña ta Galiziagaz, erri iltzaillarenen egiten egonda, Kadizeko konstituzio ori menperatzaile eta guzurrezkoa izanda ez ebelako jakin, zelango arautegian ezarri bear ebezan Erdi Ugarte onen lurraldeak.

1.874an Otsaillaren 12an, karlistaren Foru Aldundiak aginduta Oñatiko ikastetxe nagusia zabaldua leneratu egiten da.

1.874an Otsaillaren 19an, karlistaren basa gerlariak apaizagaitik eragin ta bideratu ta euki ondoren, Bizkaia osoa euki eben euren jabetasunpean Bilboko Uria izan ezik.

1.874an Otsaillaren 20an Bilboko Alkate zanak Uragontar Felipek, karlistaren lerkai erasoari aurre egiteko agiri baten, araudi batzuk aldarrikatzen dauz, Bilbotarrak gertu egon zitezen.

E

1.874an Otsaillaren 21eko goizaldian, ainbat andra eta ume urten eben Bilbotik Atxuriko kaletik, lerkaien erasoko inpernutik alde egiteko.

1.874an Otsaillaren 21ean karlistek Bilbo bonbakatzen asten dira, Pitxon, Kintana, Artagan, Mendiko Etxe, Ollargan, eta Santa Monikan euki ebazan kañoiekaz.

– Somorrostroko bidea, Rada, Andetxaga, Ollo ta Eliok babestuta.

1.874an Otsaillaren 22an Portugaleta etsaimenduta⁽¹⁾, eta Desierto ta Lutxanako babes lekuak karlistek eskuratuta, Bilbo bakartu⁽²⁾ egiten dabe, eta Gernika, Durango, Markina, ta Mungiako taldeakaz inguratu eben.

1.874an Otsaillaren 22tik aurrera, karlistak Bilbaoko Uriari geratu bako bonba erasoan asten dira.

1.874an Otsaillaren 24an Moriones espainiar gudal nagusia Somorrostrokit agertzen da beren errepublikano guda-loztekaz, eta karlistak prestatzen asten dira aurre egiteko.

1.874an Otsaillaren 25ean, Ollo, Rada, Endetxagatar Kastor, eta Elio gudal nagusi karlistak, Bizkaian batuta eukezan gogozko mutillak, Aragon, Nafarroa, eta Gipuzkoako, gudu taldeakaz zabalduz, antondu ziran Morioneseri aurre egiteko, eta ikaragarrizko aztiñ ederrak emon eutsezan karlistek errepublikako guda-lozteari, urrengo egunean zelaiko gudan ikusi ebenagaitik.

Morionesek, Lamindano, Enkarterrietan eta Menako ibarretan artu ebazan jipoi bidez, itxasoz Santanderrera joaten da.

Borroka au, Somorrostron egin zan lenengo borroka izan zan.

1.874an Otsaillaren 26an Morionesek ezin ebalako karlisten aurka, eta Madrilleko gobernuan arritasuna sortu ebalako, onek espainiar gortekoari gudari geiago eskatu eutsezan eta gudal agintari nagusi bat, guda-loztearen aginduagaz arduratu edin, auek Serranotar Franzizko dorreko dukea bialduta.

1.874an Otsaillaren 28an karlistek, Bilbaon jasankor⁽³⁾ ibili ziranai etsaimendu zitezen agindu eutsen, eta Kastillo errepublikako gudal nagusiak, Urian agintari nagusia izan zanak ezetza emon ondoren, erasoko bonbaketak aurrera egin eben.

1.874an Otsaillaren 28an VIIIn Karlosek Zeballos karlista gudal nagusiarri idatzi eutson eskutitzan esaten eban: **gogozko gudari ta Gipuzko lurralde osoan Santa Kurtz apaizari Frantzitik sartzen zanean laguntzen eutsoenai, saltzaille edo judaslakoak artzeko esaten eutson, eta kontu andian euki egiezala tiroz ilteko artzen ebazanean.**

Zeballosek, Zabalatar Ladislao bialdu eban Santa Kurtz apaizarengana erabagi oneikaz oartu zedin.

Santa Kurtz abadeak, ostera Zabalatar Ladislao gudal nagusia erantzunagaz Zeballosengana bialduta: “berak ez ebalta ezer egingo ziurtza emon eutson” eta VIIIn Karlosen parkamena berriro eskatzen ebalta esaten eutson.

Zeballostar Ermenejildok baiña, Santa Kurtz apaizarekin ez ebalako ezereu usterik euki, oso zelatuta euki eban Ziburreko Madame Duport egon zan etxean.

(1) Etsaimendu = rendirse. (2) Bakartu = aislar. (3) Jasankor = paciente, sufrido, resistente.

1.874an Epaillaren 3 eta 4n egunetan Bilbao eta Begoñaren aurkako bonba erasoak geiagotu egiten dira eta bilbotarrek 1.836an euki eben eraso bardiñean aurkeztuta, erantzun bardiña emon eben.

1.874an Epaillaren 5ean, karlisten kañoi taldeak lerrauts edo bolborarik gabe aurkezten ziran, eta Bilbo barruan egon ziran karlistekin eukiten ebezan sarriko ukiketa bat eginda jakin eben, liberalak zelan etxe baten ostonduta euki ebezan 304 ontzi lerrauts beterik, eta gabaz talde bat karlista, Bilbon sartuta, bolboraren ontzi guztiekaz egin zirala.

1.874an Epaillaren 5ean karlistek borroka gogor baten bidez Tolosa, liberal eskuetatik berrezkuratuta, VII In Karlos sartu zan Urian garaitzaille, karlistek Gipuzko lurralde osoa eskuratuta Donosti ta Irun izan ezik.

1.874an Epaillaren 12an Serrano ta Domingeztar Franzizko Torreko dukea, espainiar errepublikako lendakaria zana eta Moriones ta Murillotar Domingo Orokieta Markesari ikusten jakie somorrostratik agertzen, 30.000 gudariekin.

1.874an Epaillaren 17an espainiar Serrano lendakaria, Sopuertan asten da kañoi bidez karlistei erasotzen.

1.874an Epaillaren 18 eta 19ko egunetan karlistek, Begoña ta Bilbo gogor erasotzen dabe kañoiakaz, ia etsaimendu edo menpekotu egiten ba ziran, baiña alperrik izan zan.

Ordurako karlistek, Begoñako Ama Birjiña, Santos Juaneseko Justo eta Pastorren basilizan egon zan lekutik, Zornotzako karmeldarren lekaidetxera eroan eben babes-teko, berton guda amaitu eta Begoñako Santutegia konponduarte egoteko itxaropenagaz.

1.874an Epaillaren 19an, gudalozte liberalak 20 itsasontziekin, Portugaleta ta Algortatik eroaten ebezan gudariak porturatu gura ebazan, baiña itsasoaren denboraldi txarra eta karlisten bonba eraso bidez aldendu bear izan eben andik.

1.874an Epaillaren 22an Santa Kurtz apaiza, Ziburren bizi zan Madame Duporten etxetik urten ebanean karlistek atxilotu eben, eta Baionara eroan eben espetxeratzeko.

1.874an Epaillaren 24an Serrano Torreko dukeak Somorrostroko San Juan kallean ipini eban bere gudalategia, eta eukezan 48 taldeekin bertatik asten da antolatzen karlistari egin bear eutsen eraso.

1.874an Epaillaren 25eko goizean, Serranoren kañoiak asi ziran lerkaiekin erasotzen karlisten babes lekuak.

1.874an Epaillaren 27an asten dira aurkako borrokak, eta karlistaren aldetik 2.000 il, liberalaren aldetik 4.000 il eta Primo de Ribera ta Lomas liberalaren gudal nagusiak zauritu ondoren, liberalak atzeratu izan bear ebezan euren gudariak, bezperan euki ebazan babes lekuetara.

1.874an Epaillaren 28an, goizetik erasotzen asten dira liberalek kañoi guztiekin, gero gudariekin, eta naita arriñagoko egunean lez ain gogor ta ainbeste guda indar gogorakin borrokatuta be, ez eben euki ezere almenik karlistak menperatzeko, eta 29ko egunean borrokaren eten bateko antz baten geratu ebezan erasoak, ilda eta zauritutako gudariak ikaragarritzko ixiltasun baten, borroka zelaitik kentzeko.

Karlistek, Somorrostroko odol jariozko borroka onetan geratu ebezan espainiar gudalozteak bigarrenez, eta ez ziralako egon olangoko beste borroka bat egiteko prest, Elio, Dorregarai, Mendiritar Torkuato, Ollo, Orbetar Juan Baldespinako Markesa, Lizarraga, Andetxaga, Martinez de Belasko, Larramendi, Benabides gudal nagusiak, eta Rada, Oliber, Berriz, Zaratiegi, Yoldi, Zalduendo, Albarez, Lerga eta Aizpurua koronel ordezkokoak, VII In Karlosten agindupean batzartu ziran.

Andetxaga, Elio ta Berriz gudal nagusiak esaten ebena ontzat artu eben an egon ziran geienak, eta lenengo gudan Zumalakarregigaz sortu zan antzera, Ollo ta beste gudal nagusi gitxi baiño izan ezik ez ebena gure, Bilboko ingurutasuna aurrera eroatea erabagi eben.

Eta datorren borroka onetan, 1.835ean Zumalakarregigaz gertatuzan antzeko bat gertatu zan ikusiko dogun lez, oso kaltegarria izan zana karlistentzat.

1.874an Epaillaren 29ko egun orren arratsaldean liberalak oster asten dira bonbaketan eta liberalak ikusita, Safuentes erri aurretik, Elio, Dorregarai, Ollo, Radika, Eskudero eta beste karlista gudal nagusi batzuk, euren gudu lekua ikusten egon ziralako, kañoiezko leergaillu bat bota eutsen, eta Ollo, Radika, Torrezilla, ta Eskudero larri zauritu ebazan.

VII In Karlosek gertakizun ori ikusi ondoren, Ollo San Salvador del Ballera eroan eben, baiña bertan il zan, eta egun bi barru Diaz de Radatar Klaudio (Radika) ta Eskudero ? be, 31n il ziran.

1.874an Epaillaren 31n karlisten Baldespinako markesa Bizkaiko gudal nagusiak, keiñada edo meatxuzko aldarrikapen luze bat egin eutsen Bilbotarrei, euren aldera aldatu zitezten, baiña aldarrikapen luze bat lez geratu zan.

1.874an Epaillaren 31n "Cuartel Real" karlista aldizkariak beren esanakin liberalak zirikitzen dauz, eta liberal aldetik gogoratzen aştan dira; ia karlistakaz askeneko egiune edo itzarmenean ez ba eben parkamen larregi ibili.

1.874ko Jorraiaren 3an Serrano liberalak, ariñautik euren gortekoai laguntza eskatuta, auek gudari ta tresneri naikoa bialdu eutzen 3n gudalozte gorputz bat egiteko, Gutierrez de la Kontxatar Manuelen agindutara, eta Iparraldeko liberal gudaloztearen gudal nagusia izateko.

1.874an Jorraiaren 1ean karlistek, eraso txiki bat baiño ez eutsoen egin Bilbori kañoien leergailluekaz.

– Egiten dabena baiña, Baldespinako Markesaren aldarrikapen bat Epaillaren 31ko idazt egunagaz bialtzea da, "Cuartel Real" aldizkari karlistatik Bilbaon ezagutu egiene, zeintzuk ziran euren garaipenak eta asmo politikualak.

– Karlistek ekintza orregaz itxaropentsu egon ziran ia bilbotarrak euren alde kokatzen ba ziran, baiña Bilbokoak eskutitz gogor bategaz erantzun eutsen, eta urrengo egunetan ugaritu ziran bien aldetik eskutitz bitarteko erasoak.

1.874an Jorraiaren 6an, Kontxa liberalaren gudal nagusiak baietza emon eutsen espainiar gobernukoari, zelan peninsula onen iparraldeko gudaloztearen agintaritzan ezarriko zala.

Baiña danak ez eben gura Kontxa gudal nagusia agintari nagusi lez, eta eztabaida gogorak egon ziran espainitarren gobernuan, liberalaren agintaritzan ia ezereztu arte,

euren artean naita balio andibako gizonak izanda be, esku luze ta euren eragipeneko gizonak ipini gurean ibili ziralako.

1.874an Jorraillaren 6an, lasaitasunezko egun batzuen ostean karlistek, ostera erasotzen dabe Bilbo kañoizko lerkailuekaz, eta karlisten belarrietara barri batzuk eltzen dira esaten, liberalak Alemaniatic 14 kañoi "Krupp" ekarrita eukiezala berarizko⁽¹⁾ Aleman gudariakaz bideratuta borrokan asteko.

1.874an Jorrailaren 12an karlisten, Elio, Dorregarai, Mendiri, Larramendi eta beste guda nagusi batzuk San Salvador del Ballen batzartzen dira VII In Karlosen agindupean, eta egon ziran guda tokian irauteko erabagi eben, liberal guda lozteak erasoten asi arte.

1.874ko Zati onen oarpena.

Emen argiago ikusita, borroka onetan ez zirala izan espainiar liberalak bakarrik, Europako liberalaren artean egon zalako guda konstituziozko erabagi ori, eta ez eutsoen ardura andirik emoten, guda ori luze edo laburra izan edin, eurak euren indar, diru eta gauza guztien kontrolagaz, jakin ebelako garaipendun urtengo ebela.

Europaren katoliko liberealtasunaren ardurak, menpeko araudiaren ezarpenak izan ziran, eurak asmatzen eben sasijaintasunezko andikerian bizi gindezan.

Eta katolikotasunezko menperatzail arauditasun ori da gaur osoan daukaguna, argi erakusten dabelako, mundu onen gizatasunari gaurko lez lapurkerizko ekintzak egiten dautsezanean, maltzurrezko arauditasun orren sare-arteko txeberan danok arrapatuta gagozelako.

Eta oartu gindezan zelako antolakuntzazko ezarpenean gagozan gaur egokituta menpetasunezko eritzi orreri esker, kontuan artu bear dogu, katoliko liberal orreik 1.879ko urtearen ezkerotik, sekula ez dabela, naita Jaungoikuarena izanda be, gizaren gai-bereztasunezko antolakuntza lotsazko kontuan euki.

- Errigizarteko antolakuntzaren "Aberri, Sendi, Sendiaren Aitorle, Aita -Ama, seme-alabak, Erri" eta abar, errenkuraz⁽²⁾, zeetasunezko leiaz zaindu bear diran itz sakratu orreik, euren naikerian ibiltzen dabezelako.

- Begitu bestela P.P.koak, Rouko Varela espainiar eleizako lendakari ta epaiketan lagun dabela, zer dabiz egiten.

- Atzo, Epailaren 11n Madrillen egin eben lez, A.V.T.koak euren taldeko biurtuta, Madrilleko tximist gurdiaren istripuan sortu ziranak, gaur zortzi urte geroago zeaztasun guztiagaz epaituta egon arren, ostera E.T.A.ri leporatu gurean, aur-galtzeko legearekin eta beste legeak, Frankoren denboretara atzeratuazoteko dabizen alegiñetan eta abar.

- Ostera gure dabe menperatasunezko katoliko fede zaindietara itzuli gindezen, eurak diruzko edo "urrezko zekor sasijainkoari gurtuteko".

Espainiar orrentzat, JAUNGOIKORIK ba ote da ?.

Europako gizarteak erne egon bearko dabe, espainiarrak benetan, beste gauza bat direlako.

(1) Berarizko = *especial, singular*. (2) Errenkuraz = *escrupulosamente, perturbadamente*.

1.874an Jorraillaren 21ean karlistak Euskalerriko lau lurraldeetan, auta edo 18tik 35 urteraiñoko gaztearen bilketa egin eben, gualozteak gazteakin indartzeko.

1.874an Jorraillaren 25ean Euskalerraren Ego aldeko 4 merindadeak VIIIn Karloseri eskatu eutsen Azpeititik, gudak bear ebazan diruak arriñago batu ta banatzeko, eurak artuko ebezala ardura orreik, gero Urrillaren 15etik asiko zana.

1.874an Jorraillaren 27an Kontxa liberal gudu nagusiak, eraso gogor bat egiten dautse karlistari, baiña oneik eutsi eutsen ekiñaldi orreri.

1.874an Jorraillaren 28ko eguerdian Kontxa liberalaren guda nagusiak, Talledo⁽¹⁾ erriaren aurka zabaltzen dauz bere lerkaietzko bonbaketak 30 kañoiekaz.

– Gero 15.000 gudariak erasotzeko, eta karlistak atzerantza egin bearrezko ekiñean aurkeztuta, Muñekaz galdu eben Andetxagatar Kastor karlisten guda nagusia bertan ilda, eta Dorregarai karlista guda nagusiak beste guda agintari nagusiak batzartuta, Durangora joatea erabagitzen dabe.

– Aranatar Santiago izan zan ondamenti onen aitortzaille.

– Eta Aranatar Santiago ikusita, zelan gudariak izkilluak lurrera botata negar baten “Judaskeria egin eutsoela” aldarrikatzen ebela, Santiago oso larri gaixotu zan.

1.874an Jorraillaren 28, 29 ta 30eko egunetan karlistak, ostera erasotzen dabe Bilbo lerkaiakaz.

Bilbo, gozegaz larrituta, salerosketa baltzan ildako katu bat 30-40 erleko eta aratoiak peza batean saltzen ziran.

1.874an Jorraillaren 30ean, Sopuertako ezker aldea, Kontxa liberalaren guda nagusien eskuetan geratzen da.

Emendik aurrera, karlista guda nagusi batzuen osotasunezko ustea etsipentzen⁽²⁾ asten da.

1.874an Lorailaren 1ean bilboko erasotzea gogörtzen da, baiña Kontxa liberalaren gualozteak inguratzeko erasoan agertuta, Elio karlista guda nagusia orrezkero ez eban euki gogorik eraso toki areik geiago babesten iraun, eta karlista guda nagusiak batzartuta VIIIn Karlosen eritzi gaiñetik edo ta bera ez zalako bertan egon, atzeratzeko erabakia artu eben.

Eta benetako atzerakada emon bear dabe Asuaraiño, San Salvador ibarretik, Reuerto, Zornotza, ta Burtzeñatik aldatuta Durangon indar guztiak alkartzeko.

Eta or, botaten dira askeneko lerkai bi Bilbaoren aurka, urrego Lorailaren 2ko egunean liberalaren gualozteak Serrano guda nagusiaren agindutara Bilbon sartuta.

125 egun izan ziran Bilbo inguratuta egon zala, 5.369 kañoiezko leerkai, 1.307 tiroiñ, 107 granada, eta metrallazko leerkai bien erasoari eutsi ondoren.

Bilbo babesteko 1.873an Abenduaren 29an barruan egon ziran liberal indarrak: 27 guda nagusi, 260 guda buru, 4.826 gudari ta erritar eta 204 buru zaldi ta mandoen artean osotzen eben.

Bilbaoko zeaztasun guzti auek aurkitu gura ezker: Etxebarriatar Maria-nok idatzi eban “Bilbao ante el bloqueo” 1.873-1.874ko bonbaketaren liburuan aukituko dozue.

(1) Talledo = menditxo baten dagon meatokiko erritxo, Kastoren ondoan Otañesen urbil. (2) Etsipentzen asten da = desmoralizarse.

1.874an Loraillaren 2an, Bilbotarrak kañoiezko 21 lerkai bota ebezan aixeetara euren askatasuna ospatzeko, eta egun berean goizeko 11etan sartu ziran Kontxa liberal nagusien gudalozte indarrak Bilbora, eta arratsaldeko 2bietan Portugaletetik sartuta, arratsaldeko 4retatik aurrera itzelezko omenaldia egin eutsoen Etxague, Martinez Kanpos eta Reyesen gudalozteari.

1.874an Loraillaren 2an, Bilboko askatasunak ez eban gura esan guda amaitu zala, karlistak erabidez atzeratu zirala baiño Galdakano ta Durango bitartera, euki eben 70.000 gudari baiño geiago eta tresneri guztiarekin.

1.874an Loraillaren 3an, Zornotzan batu ziran Bilbotik atzeraka ibili ziran karlisten gudalozteak guztiz etsipenduta eta gogo barik.

1.874an Loraillaren 13an VIIIn Karlosek Elio gudal nagusia kendu gura eban bere agintarizatetik, baiña Mendiri gudal nagusiari deituta eta onen aolkuagaz, Dorregarai ipini eban Gudalozte guztiaren agintaritzan, eta Elio gudal nagusia, gudako ministroa izendatu.

1.874an Loraillaren 14an karlisten atzerakada irauin egiten eban, eta Mendiri gudal nagusia 26an Lizarran txokoratzen da talde nagusi bigaz, Nafar 7 talde, Arabatar talde 2, eta Giputz talde 2gaz osotzen zana.

1.874an Loraillaren 15ean Kontxa liberal nagusia Gasteizerantza joan zan eta Mendiri karlisten gudal nagusia Billarrealerantza aldatu zan.

Ainbat oarpeneko gauzak esan eutsoezan Kontxa liberal nagusiari espainiar gorteko agintariak, Durangon karlistaren gudalozteak egon ziranean ez ebezalako erasotu. Baiña Kontxak ondo baiño obeto jakin eban, karlistak ondo antolatuta egon zirala Durangoko inguruetan.

1.874an Loraillaren 28an VIIIn Karlosen anaia Borbon ta Austriatar Alfonso katalanen gudal nagusi izendatuta Solsonatik, Tristan ta Añistar Franzizko gudal nagusiari idazten dautse eskutitz bat oartuazoten, Kataluniako gudalozteak antondu egiezela euren espain izatasunean, katalanak euren Foru-Lege bidez, Kataluniako Aberriaren Askatasuna lortu gure ebela eta kontu andian euki egiezala gauza orreik.

Eta atonduketa orreik dirala ta, Borrell sendagille, Andreu koronela, eta koronel ordezeko gazte bat bota ebezan karlisten gudalozteetatik, auek Frantzian atzerriratuta.

1.874ko urtearen Bagillako illean, lendik be gogorak izan ba ziran be, Kataluniako erritarrentzat oso gogorak biurtu ziran egoerak karlista ta liberalaren gualozteak dirala ta.

Alde bietatik diru, janari ta euren gudalozteko gaztearen eskaera bidez, gazte orreik bizitza gero ta estuagoa biurtu zan, diru ta janariaren ezean, gudako araubidearen orekak zaintzeko, zigor aundiekaz galazo egiten ebezalako.

Baita bestaldetik, karlista ta liberalaren arteko odoljariozko borrokak, oso latzak izaten ziralako.

1.874ko Bagillan, Kontxa liberalaren gudal nagusien eritziz, Bilboko guda amaituta geratu zala ta Lizarrarantza joan zan, bere gudaloztea Ebro lur bideko Miranda ta Tudela bitartean ezarrita, bertatik karlistak Lizarra eukin Uri sakratu lez, berak eukezan 50.000 gudari eta 80 kañoiekaz kentzeko itxaropenean.

E

1.874an Bagillaren 25, 26, eta 27egunetan egin eben Kontxa guda nagusiak borroka odoltsu ori 50.000 gudari ta 80 kañoiekin, karlistaren 25 gudari talde (1) eta 3 kañoien aurka, Abarzuzaren aurrean dago Muru mendian.

– Eta Bagillaren 27an Gutierrez de la Kontxatar Manuel liberalaren guda nagusiak geratzen ziran karlisten indarrak zeitzuk ziran jakin gurean ondoratuta, lar urreratu zalako, oneik izkilluen zupin aldi⁽²⁾ bategaz il eban, eta liberal indarrak atzeraka alde egin eben andik.

– Espainiar errepublikako 22 gudari tiroka il ebezan karlistek, Abarzuzako erritxoa erre egin ebalako ordaiñez, itzelezko eztabaida sortu ebana, ez bakarrik liberalen guda-lozteetan, bai karlisten guda-lozteetan bardin, Europako erri guztietan esaten zalako: ez zala eskubiderik egon, karlistek Abarzuzan egin ebezan fusilamenduak egiteko⁽³⁾.

– Liberalak, Nafarroako ekintza onetan uts andia egin eben, eta karlistaren aske-neko garaipena, Irun eta Iruñako inguratzeak ez ebalako euki garaipenik.

1.874ko Uztaillaren azkenetan, Belazkotar Fernandok karlistaren guda nagusiak aginduten eban arratiko taldea 400 gaztelar gudariakin, Akosta espainiar guda nagusiaren guda-lozte aundiari astindu ederra emon ondoren, auek ibaizabalaren erreka eskuiñ aldetik euki ebazan gudari taldearen ingurura aldatu bear izan ebezan bere indarrak.

1.874an Uztaillaren 31n, Bergarako aztetxeari⁽⁴⁾, “Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara” izendatu eben, Manterolatar Bizente izanda beren lenengo zuzenaria.

1.874an Dagonillaren 14an Bitorestar Benito karlista sarjentuak, beste 10 guda-riekin, Ebroren Mirandako geltokian, su-burdiñeko ibil-gaillu bategaz egin ziran, eta urrutiko idazkiñatik⁽⁵⁾ bialtzeko mezuaren aria ibil gailluari lotuta, Zenizerora joan ziran 39 kilometruetan urrut idaz gaillu orren serbitzua ezereztuta, inguru areitan egon ziran 14.000 liberal gudarien aurrean.

Kataluniako ekitaldietan:

1.874ko urtean karlistek eta liberalek Dagonill eta Iraillaren illetan egin ebezan borrokak Puigzerdan Uriagaz geratzeko eta liberalek garaipendu ondoren, Lopeztar Domingez liberalaren guda nagusiak, dedu-domiñ⁽⁶⁾ andi bat egitea agindu eban, alde batetik Uriaren armarría, eta beste aldetik: “A los defensores de Puigcerdà la Patria reconocida. Agosto y Septiembre de 1.874”. Eta Uria babesteko agintaritzan egon zan Moleratar Andres guda jaurlaria xingolatu eban lenengo.

Kataluniako karlistek emendik aurrera, naita borroka aundi, latzak, ta ugariak irabazi arren, maldaberan asi ziran, bertokoak ez ebelako guda-loztearen bil-ezarpen edo pizkortzerik, espainiar liberalak Europako liberal konstituzionalistaren bidetik, euki eben beste.

A ta guzti, karlistak ustetsu edo itxaropentsu agertzen ziran ainbesteko gairaipen bidetik, eta geiago euren belarrietara Bilbo jausi zala zabaldu zanean, Ekandu mailan asko beratuta, eurak egiten ebazan festatan erakusten eban lez.

(1) Guda talde bat = 800 guda-rikooa izaten zan. (2) Izkilluen zupin aldi bategaz = una andanada de fusilería. (3) Pivala'tar Antonio'ren 3garen liburuan 284-287 orri aldetan datorena. (4) Aztetxea = ikastetxea. (5) Urrutiko idazkiña = telègrafo. (6) Dedu = honrra, decoro, pundonor, respeto. Dedu-Domiña = medalla, condecoración, insignia.

Eta nai eta euren itxuran ustetsu agertu gura baeben be, euren barneko egizko baitak beste susmo bat aurkezten eutsen, azkeneko kondairetan agertuko dana.

1.874an Dagonillaren 2an ostera joan ziran karlistek Teruel arrapatzera, baiña liberalek oartuta, aldendu ebazan karlistak.

1.874an Iraillaren 11n VIIIn Karlosek Kuenkako Uria arrapatu eben eguna ospatzeko, orogarrizko domiña bat agindu eban egitea.

1.874an Iraillaren 12an, Markotar Manuelek karlisten guda nagusiak, Bagilla eta Uztaillaren illetan zelako gauzak gertatu ziran Tudela ta Kuenka 'ko Uriak artzen joan ziranean esan eutsozan VIIIn Karloseri, berak ez egian onartu Billalain eta beste guda nagusien maltzur kondairak.

– Kataluniako karlistak Borbon eta Austriatar Alfonsoren agindupean egonda, onek, garaipen aundiak gura ebazan lortu, eta lenengo Teruel askatu gure eban liberalaren eskuetatik.

– Uztaillaren 3an Borbontar Alfonsok, Markotar Manuelen agindupean bialdu ebazan guda guda Terueleko jauregia artzeko.

– Asi ziran Teruel erasotzen, baiña guda nagusien artean, Billalain guda nagusia-gaz beren erara ibiltzen zalako sortu zan bezala, kidetasunezko atondukeran saldukeria egiten ibili ba ziran lez, ez zan agertzen inungo alkarrezko ulertzerik, eta Teruel eta gero Kuenka be liberalen eskuetan geratu ziranean, karlista guda nagusien artean be-kaizgo, bata besteari erruak leporatzeko, maltzurkerizko guzur zikiñetan sartu ziran.

– Baita, zelan Uztaillaren 15ean, Kuenkako erri barruan sartu ziranean, an guda-riak egin ebena ez eukalako inungo zuriketa edo ta karlista gudarien garbitasunezko almenik, ekanduzko giza-bide arloetan zinkin geratu ziran.

Eta karlistek euren garaipen ugariakaz gogoratuaren gorantza joan zirela, ez eukien zereginiñ, Madrilleko konstituzioaren gubernukoak, etenbako laguntza euki eb-lako guda tresneri gauzatan, Europako konstituzionalistaren aldetik.

1.874ko urte amaieran, ez zan zoridun edo zoriñtsua karlisten egoera Erdi-ugarte onen Ekialdeko lurraldeetan.

a) Erdi Ugarte onen erdiko lurraldearen borrokak guztiz amaitu ziranean, liberalen guda guda, karlisten guda guda baiño indartsuagoak izan ziran peninsula onen Ipar aldeko borroketa garaipendun urteteko.

b) Eta karlisten atzerakadan, Kataluña liberalen aldetik gudari talde aundi bigaz indartuta, auek egin ebazan azkeneko borrokak, indartsu ta ugariagoak izan ziralako.

Euskalerriko ekitaldietan:

1.874an karlistek, Bilbon porrot egin ebela ta apur bat buru makur egonda, Abarzuzako garaipenak ostera bizkortu ebazan eta Iruña, Gazteiz ta Donostiko Uri nagusiai erasotzea erabagita, Iruñari Dagonillaren askeneko egunetatik aurrera ardura geiagorekin inguratu eben, bera izan zalako gudari gitxien euki ebenak 2.000 gizonekin.

1.874ko urte onetan espainiar gortekoak ikusita zelako aurrerakuntzak egiten ebazan karlistek, ondo prestatuko 8.000 gudari bialdu eutsoezan Moriones guda nagusiari.

1.874an Urrillaren 2an, karlistek Motrikun, ainbat izkillu, eta tiroiñak itsasontzitik lurreratu ebezan, Krupp galda-altzairuaren⁽¹⁾ 8 lodieran 6 kañoi, eurentzat 400 leerkaillu, 1.000 ler-ziri⁽²⁾, 1.000 frictore?, 4.000 Berdan-izkillu, 2.500 su-izkillu eta 270.000 tiroiñ.

1.874an Urrillaren 15ean karlisten guda arloko ardura, Euskalerrriaren Ego aldeko lau merindadearen arduratan ezarri zan, batzar onen arduradunak: "Nobia ta Zalzedotar Alejo, Basozabaltar Juan, Praderatar Gregorio, Garrotar Jose, Ingunzatar Tomas, eta Aranatar Santiago izan ziran.

1.874ko Urrillan Praderatar Gregorio, Arana ta Ansotegitar Santiagoren garazkidea zanari⁽³⁾, egiten dautsoe Bizkaiko lantegiaren zuzendari nagusi.

1.874an Urrillaren 24an, VIIn karlosen errege agindu bategaz, Oñatiko ikastetxe nagusia "Errege ta Aita Santuarena" izendatzen da, Ego Euskalerrriko lau lurraldearen ikastetxe nagusia lez izendatuta.

Denbora onetan karlistek, gogaituta egon ziran Beobiako zubian 30 mikelete ta muga zaiñekaz egon zan gaztelutxoakin, eta bera erasotzera joan ziran sendotutako gurdi bategaz, ainbat esku lerkai eta arrolio liberal babestoki ori erre ta ezereztuteko asmorekin.

Bañia porrot andia euki eben, karlistek gurdiaren azpitik anak agiri agirian eroaten ebezalako, eta liberalak anka aiek ikusita, tiroka asi jakiezan, karlistek inguruerdiko itzulia eginda, andik alde egin bear izanda.

Eta 1.874an Urrillaren 31n Baldespinako markesa, eta Karudel ta Lopeztar Manuel gudal nagusi karlistak, Alemany gudal nagusiaren agindupean joan ziran Irune-ko erritik liberalak botateko, eta Santiagomendi, Txoritokieta eta San Martzial mendi ingurutik kañoi batzuk ipini ebazan, Zeballosen agindupean erasoan ziranai laguntzeko.

1.874ko Azaroaren asieran karlistek, Biazterri galtzen dabe betiko.

1.874an Azaroaren 3an karlistek, euren gudariak Bilbaon, Sopelanako mendian eta abar, egiten ebezenagaitik emoten ebazan barriak, garaipentzuzkoak izaten ziran geien.

1.874an Azaroaren 4an karlistak Biazterri betiko galduta, Irungo Uria inguratu eben eta VIIn Karlosen urteguna ospatzeko Irun erasotzen asten dira.

1.874an Azaroaren 11n, Serna liberalaren gudal nagusia oartuta Irune-ko ingurutasun orregaz, Logroño, Ebroko Mirandan, Zenizero, ta Bribieskan bananduta euki ebazan gudariak batu ebazan, eta karlistek, Serna liberala gudalozte andi orregaz etorrela jakin ebenean, Zeballos gudal nagusi ta Karudel koronelak al izan eben edozein eratarata altzau bear izan eben, Iruneri egiten eutsoen ingurutasun ori.

1.874an Azillaren 12an Karlista gudal nagusiak asarre iges orreik egiteagaitik batzartu ziran, eta Diaz de Zeballostar Ermenejildo, ta Karudel karlista gudal nagusiak leporatu ondoren uts orren erru guztiak, salatu ebazan.

Lizarran egin ziran, euren aurkako epaiketa orreik, eta 1.875ean jorraillaren 29an aske itxi ebazan ezereen errurik gabe, ostera eurak aginduten eben lekuetan ipinita.

(1) Krupp galda altzairuzko = acero fundido. (2) Leer-ziri = espoleta. (3) Garazkidea = socio.

Baiña, guda oneik diruaren kontuan ba-eukezan beste arazo batzuk, eta liberalak ez ebelako euki ogi zati bat euren gudariai agora emoteko, ostera atzeratu bear izan ebezan guda indar orreik, euren babes lekuko Donostira.

A ta guzti karlistek ez ziran izan gai, Iruneko inguruan euki ebezan babes edo ta eraso tokiak ostera berrezkuratzeko.

1.874an Azaroaren 30etik aurrera Euskalerrri ta Errioxako karlisten guda nagusi lez izendatuta egon zan Mendiritar Torkuato karlistari botako eutsoezan erru guztiak, liberal guda-lozteak Iruñako ingurutasuna apurtu ebelako.

1.874an Abenduaren 8an Mendiri karlista guda nagusiak, guda osoa aldarrikatu eban Euskalerrriaren lurralde osorako, liberalak, euskal gudari ta erritar karlisten aldekoari egiten eutsoezan mendekuagaitik, mendeku orreik gero alde bietatik ugarituta.

1.874an Abenduaren 16an, VIIIn Karlos Oñatin egon zan, mailla nagusiko ikas-tetxea lanera zabaldu zanean.

1.874an Abenduaren 24an VIIIn Karlosek, Orduñako guda taldeak begiztatu egin ebazan, eta egun berean beste barri bat agertu zan Zornotzatik esaten, liberal guda-lozteak Larraskitun eta Arraizen egindako erasoari, erantzun ona emon eutsoela, eta atzeratu egin bear izan ebezala euren guda indarrak.

1.874an Abenduaren 29an, Martinez Kanpos ta Daban liberal guda nagusiak Sagunton euki ebezan gudari talde bi, eskudroi batzuk, eta kañoi talde gitxi baten aurrean, XIIIn Alfonso izendatzen dabe espainiarren jaurgo barri edo konstituzioaren errege lez, eta emen amaitu jakozan VIIIn Karloseri, 1.868ko urtearen ezkeroztik aurrera, espainiarretik zear asi ebezan bere errege eskubidearen zabalkuntzak.

Eta ezer ez eutson balio VIIIn Karloseri, Morentinetik, eleizako ondasun bidez aberastu ziranai beren alde egineko aldarrikapenagaz, oneik euren aberastasunak ba-besteko, geiago gure ebelako XIIIn Alfonsoren zuzenbide edo 1.812ko konstituzioaren lege barri bidetik joatea berenagandik baiño.

Denbora onetan karlistek euki ebezan indarrak, olan zenbakitu leikez:

– 1.874ko Abenduan Gipuzkoak, Zeballostar Ermenejildo guda nagusi agindupean, 9 talde gudari⁽¹⁾, eta zaldun talde bat⁽²⁾.

– 1.874ko Abenduan Araban, Albareztar Rafael guda nagusi agindupean, 6 gudari talde eta zaldun talde bat.

– 1.874ko Abenduan Bizkaiak, 10 gudari talde eta zaldun talde bat.

– 1.875eko Urtarrillan Nafarroan, Perula guda nagusiaren agindupean, 200 zaldi.

– Eta beste gauza batzuen artean, 12-150 arteko gudari, berarizko ainbat talde basa gurlari artean mezuak banatzeko, sare-arte edo zelatako⁽³⁾ erasotan ez jausteko, berri edo argibideak arrapetan, eta zaintzari lez ibilteko.

– Nafarroako erregetzaren Aldundiak irasitako “Nafarroako Zaitzaleak”.

– Lenengo gudaren gudari zarrak, eta atzean joaten ziranak irasitako “Talde Sakratua”.

– VIIIn Karlosen lagun-taldeagaz, peninsula onen beste lurraldekoaren gogozko gudariak, eta Bizkaitarrakaz batera joaten zan “Zuzentzaille edo Gidarien taldea”.

– Gaztelako guda-loztea, 6 taldeagaz osotuta egon zana.

(1) 9 talde gudari = 9 batallones. (2) Zaldun talde bat = un batallon de caballeria. (3) Sare-arte edo zelatako = trampa.

– Rioja, Asturias, eta Aragoiren zalduneko taldeak: Gaztelatarrak 3 talde, Kantabroak 1, Aragoikoa 1, Asturiarra 1, Errioxakoa 1, eta beste bat, VII In Karlosek lagungo zaintzari lez erooten eban “Arlabaneko Usares” esaten eutsen talde bat.

– Gudarako tresneri lantegiak:

*Urdaxeko kartutxoaren lantegia.

*Lizarrako kañoitegia.

*Azpeitia, Bera, Desierto eta Arteagako kañoien galda edo burdiñolak.

*Plazentzia, Eibar eta Elgoibarreko izkillu ta gudu tresnerien lantegiak.

*Etxaguen, Araoz, Aramaiona, Bera, eta Riezuko errauts edo auts lantegiak.

*Legariako trenamendua.

*Amurrioko jos-bakan edo ilbaintzeko⁽¹⁾ langintza.

*Guda asi barri ta aurrerantzean ustiatu edo beruneko⁽²⁾ mamia atara⁽³⁾ egiten eben Baranbioko beraun meaztegian.

– Gudarien ikasketarako:

*Oñatin egon zan gudarien ikastetxea.

*Azpeitian, egon zan kañoilari ikastetxea.

*Eta Bergaran egon zan injenieritzaren ikastetxea.

1.874an Abenduaren 29an “El Cuartel Real”aren aldizkariak, Serrano liberal agintari nagusiak Abenduaren 8an argitaratu ebenetik olan zenbakitzen dauz Erdi Ugarte edo peninsula onen Iparraldean, liberalak euki ebazan gudu indarrak:

*Orokorrezko Kapitan guda nagusi bat.

*Orokorrezko Kapitain ordeko lau.

*Guda zelaiko 10 mariskal.

*23 koronel ordekoak.

*Gudaloztearen buruzpidedun⁽⁴⁾ bat.

*Osasunbidearen ikertzaille bat.

*Orokorrezko entzulari bat.

*Gudarien kapellau ordeko bat.

*Oñezko 88 gudari taldeak.

*Zalduneko 8 talde nagusiak.

*Kañoiezko 13 andana⁽⁵⁾.

*Mendiko kañoiaren 5 andana.

*Eta, erriko mutillaren⁽⁶⁾ gain, txapel gorri⁽⁷⁾, muga zaiñak⁽⁸⁾, ta gogozko mutillak⁽⁹⁾.

(1) Jos-bakan edo ilbaintzeko = embastar, o, bilvanar. (2) Beruna = plomo. (3) Beruneko mamia = mineral de plomo. (4) Gudaloztearen buruzpidedun = intendente, o, administrador del ejèrcito. (5) Andana = fila de cañones. (6) Erriko mutillark = guardia civil. (7) Txapel gorri = policia foral de Araba. (8) Muga zaiñak = carabinero. (9) Gogoko mutillak = voluntarios.

Onen oarpen laburra.

– Orregaitik, aldakuntza au ikusi ondoren, eta leia geienetan galtzaillezkoak izan arren, liberalei ez eutsen ardura andirik emoten denborakin eukiten ebezan luzetasunezko aldiak, eta gitxiago ilten ziran gudariak.

Europaren laguntzagaz denbora guztia euki ebelako, arrazoi ta zentzunezko erri baten eskubideko alegiñak utsean izteko, gudari, tresneri ta denboreagaz ez ebelako ezeren eztukuntzarik euki.

Europako liberalen ardura bakarra “Por el destino Catòlico en lo Universal”, Erdi Ugarte onen “Nacional Catolicismo”aren laterritasuna izanda, Jainkoak berezko erriari emoneko legezko eskubideak kontuan artu barik, euren norkerizko eritzian bizi gaitezen,.

1.874an Abenduko 29an Martinez Kanpostar Arsenio liberal gudal nagusia Saguntoko Urian matxinatuta errepublikako gobernuaren aurka, II In Isabel erregeiñaren semea XII In Alfonso Borboia, espainiarren errege lez aldarrikatzen dau.

XII In Alfonso errege izendatutako ekintza onegaz, VII In Karloseri amaitu jakozan 1.868ko urtetik asita Morentinetik egiten ebazan gogozko aldarrikapenak, eleizaren ondasunakaz aberastu ziran jauntxoak bere errege izateko eritzira ekarteko.

Euren arteko bidetik espainiarren lurralde osoan aiñ zabaltasunezko atsegintasun andiak lortu ebezanetik, auek aurrera begira, XII In Alfonso erregetzaren menpeko edo gordetzailletasunezko legedira aldatu ziran, euren diruzko altxorak bete euki ezkeru, bost ajola arduratzen eutsielako, Jaungoiko edo ta diabruen Ekanduzko arrazoiak izaten ba ziran.

1.874an Abenduaren 30ean, II In Isabelen semea XII In Alfonso espainiarren errege lez aukeratzen dabe Europatik aginduta, onek 1.810-12an Kadizen gudal nagusiak agertu eben menpetasunezko jaurgo edo konstituzioa ontzat artu ebalako, gobernuko lenengo agintari lez, “Kanobas del Kastillotar Antonio” izendatuta.

1.875ean Urtarrillaren 1ean espainiar liberal gortekoak XII In Alfonso errege izendatzen dabe.

Onen oar laburra.

Emen argiago ikusita, XII In Alfonsoren alde erregetzazko aldarrikapenagaz, zelan 1.812an Kadizen agertu eben merkantilista ta menperatzailletasunezko fazizta lege bidez, Kanobasek sendotu egiten dauela peninsula onetan gaur daukagun menpeko laterri au, Europa guztian ezarri gure zalako katolikotasunaren batzangotasuna.

Atzo ikusi neban telebistan, zelan 1.812ko konstituzioaren liburu agiria erabilten eben ondo zainduta, juduen “Itun-Kutxa” izan bazan lez, Madrilleko ez dakit nungo kaletan kamioi batera igoten.

Zelango aukerakin geratu ziran Berezko erritarren eskubideak ?.

Alango menperatzailletasunezko guda-indar ta maltzurrezko guzurraren aurrean Berezko errigizarteak, zeozer egiteko aukeran geratuko ote ziran ?.

Europako jakituri geiena, edo ta indar geiena euren eskuetan euki ebenetik ez beintzat, andiki orreik bidebagekeri orregaz adoz egon ziralako.

Gaiñera, emen esan bear dana beste gauza bat da: euren barneko baitaren aurkakoa izanda "Jakín aundiko gizon eta emakume guztiak ez zirala egon zapal batzangotasunezko eritzi orren alde, baiña sasikatolikotasunezko laguntza maltzur orregaz, okerreko bide orreitan geienak batu zirala bai".

Ez ziran oartzen nungo lokartzartetan sartzen ziran, eta "Diruaren Arauzko Serbitzura ipini euskun danori", batzuk ondo edo ta sasijainko lez bizi zitezzen.

Gaurgeiegian egiztuta dago, península onetan daukagun menperatzailetasunezko laterri au, berezko arrazoiaren legetik kanpo egonaz gaiñ, ez dabela balio bere barruan gaudenai jaurkitzeko, nortasunezko izatasunaren arduratan ez garelako bardiñak, orregaitik: **227 URTE GEROAGO, FAZIZTA ERITZI BARRI ORI AGERTU ZAN OKERREZKO TOKI BER-BERAN GAGOZ, ERRAKUNTZA URA ZUZENDU, EDO TA ARTEZTUTEA GURA BADA.**

Gaur gagozan larritasunezko egoera bardiñean, aurrera egingo ete dogu ?.

Ori egiten ba da, sinistu ezin leiken beste astokeri aundi bat egingo da.

1.875eko urtearen sarreran Bizkaiko jaurerriak eukezan 189.954 biztanletik, 66.608 baiño ez eben jakín idazten ta irakurten, eta irakurri bakarrik 12.746, eta Bilboko 15.000 jakín eben irakurri ta idazten biztanleak kentzen badautzasuz, Bizkaiko lurraldean 125.642 ezkola bagekerikoak geratzen ziran orduko denboran.

Eta 1.874an Otsaillaren 12an Oñatiko Goi Maillako Ikastetxea VIIIn Karlos erregearen aginduagaz zabaldu zanean, Karlistaren lurraldeko gaztearen irakaspenak, erri guztietako eskoletatik gain, Urduñako Ikastetxean, Tolosako Prantzizkotarren Lekarotxean, eta 1.874an Uztailaren 31tik aurrera VIIIn Karlosek agindu ebenetik, Bergarako "Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara" Manterolatarr Bizenteren zuzendaritzapean, euki ebezan.

1.874an Urrillaren 24an VIIIn Karlos berak "Real y Pontificia" lez izendatu eban lau euskal lurraldearentzat.

Karlos bera egon zan bertan, ikas-aldiak zabaldu ziran.

1.875ean Urtarrillaren 1ean Lizarraga karlistaren gudal nagusia Txelbako gudalgegian egoala, Martinez Kanpostar Arseniok Sagunton XIIIn Alfonso errege izendatzeko alde egin eban aldarrikapenagaz jakitun geratu zan.

– Eta gogoratuta liberalaren gudaletzetan eritizko zalantza sakon orreitan sartuta, eztabaida gogorretan asiko zirela, Guadalajara artzera bialdu ebezan Gamundi ta Boet karlista guda nagusiak.

– Belasko eta Kukala Balentziaren aurreko erreken ingurura, liberal gudaletzeari orko bideak zarratzeko, eta bera Ballesekin Aranjuez artzera, XIIIn Alfonso Madrillen sartu orduko, su-gurdiaren ibilbideak apurtzeko asmoagaz.

– Lizarragaren oldozmen onegaz, baleiteke liberalaren guda indarrak euki ebezan arazoakaz, Uri nagusiaren babesera joanda, Uri barruetan geratuko zirala.

– Baiña Belasko ta Kukala karlistaren guda nagusiak, ezin eben apurtu Binarozeko liberal gudariak aurkeztu eutsen erantzunagaz.

– Gamundi ta Boetek be ez eben ezerik egin gaisotu ziralako, eta Lizarraga bera oraindiño baikor egon arren, Ballez bialduta Aranjuez ta Molina artu egien, onek ez eban lortu ezer.

1.875eko urtearen lenegoetan karlistak Baionatik, "La Cruzada Española" aldizkaria agertzen dabe.

1.875ean Urtarrillaren 6an, "Diario de San Sebastian"ek, Benigno de Morazatar Mateo,

Gazteizeko Lege Gizona ta Arabako Foru Aldundiaren aolkularia, Bizkaiko gizartearen jaurleri edo agintari⁽¹⁾ egin ebela ekarten aban.

1.875ean Urtarrillaren 8an, "El Noticiero Bilbaino" agertzen da Logroñon jaiota, Etxebarria ta Torrestar Manuel Tomasen zuzendaritzapean, 1.936ko urtean "El Pueblo

(1) Jaurleri = gobernador.

Vasco" gaz alkartuko zana eta Frankoren guda ostean 1.938ko urtean "El Correo Español El Pueblo Vasko" ren izenagaz gaur arte urtego dauana.

1.875ean Urtarrillaren 9an, "Noticiero Bilbaino" aldizkariak, frantzezak Baionako euskal lurretatik, zelan atxilotu eban apaiz euskaldun bat eta peninsulara bota ebela, espainiarrakaz euken egiune edo itzarmena beteteko, albistea ekarri eban.

1.875ean Urtarrillaren 10ean "Cuartel Real" aldizkariaren bidez VIIIn Karlosek, urtarrillaren 6an espainiarrari idatzi eutsen "bere santutasunezko agindua" bete egingo dauela, gudakin aurrera eginda esanez.

1.875ean Urtarrillaren 14an XIIIn Alfonso 18 urte eukezala eltzen da Madrillera errege lez Atotxako su-burdiaren geltokira, ezkil-errepika⁽¹⁾, kañoiien leerkai eta zupin aldi ta txaloketa ugari artean, ongi etorria emoteko.

XIIIn Alfonso espainiarren errege lez izendatzea, ez zan onartu karlisten aldetik, eta karlisten izparringietan, XIIIn Alfonso erregeen arteko berdingarrietan beti agertzen eben: "El mocete", "El niño rey", "Alfonsito el chico" ta txantxetako izen orreikaz, eta karlistek Lakarreko garaipena lortu ebenean ta XIIIn Alfonso atxilotzeko arriskuan euki ebenetik "El fujitivo de Lakar" eko izenagaz esaten eutsoen.

1.875ean Urtarrillaren 14an karlisten gudalozteak, Berriz koronelak bideratuta, Balmasedan sartzen dira, liberalak bietako ureartetik Billasanaraiño maillaka⁽²⁾ kokatuta.

1.875ean Urtarrillaren 15ean Nafarroako erregetzaren Aldundiko ordezkaria Itzarbetar Geronimo, Gipuzkoako Aldundian orokorrezko arduraduna Dorrnorsortar Migel, Arabako Aldundiaren orokorrezko arduraduna Mendietatar Franzizko M^a, eta Bizkaitar jauntzako Aldundiaren orokorrezko arduradunak Urkizatar Fausto eta Piñeratar Pedro M^ak, agiri bat aldarrikatu eben "Euskal-Naparrarentzat"⁽³⁾, katolikotasunaren gora beran esaten dodanagaitik arrazoa emoten daustena:

Zelan izan leike sasikatolikotasunaren erlijio aldetik: "Gure bizitz fisiko onen Ekandu arloetan, arrazoi bardiña emon Menperatzaille ta Menperatuta geratzen diranai?"

Eleiza katolikoa era baten, edestiko borroka guztien ostetik naita beti ezeren lotsa barik menperatzaillaren alde egon, bereztasunezko legean bizi direnari menperatu ta gero, sekula ez dautsoelako esan arrazoirik ez daukienik, arrazoiaren eretxi edo uste orreitan beti, maltzurtasunez jokatu daualako.

Geiago, "jakinda" emen sortzen dan lez, alderdikerizko norkerietan zapaltzaille dabilzanai eta Jainko legean berezko nortasunean, zapaltzaille orreinekintzari aurka egiten dautsen artean:

- Bata, maltzurtasunaren sasi-asmalaria dala.
- Eta bestea, Jainkoaren Lege-bidea zaintzen dabela, gure arimaren gai-giza bereztuta daukagun eskubidetik.

Gure adimenean, eta epaiketazko almen bidetik artu bear doguzan erabagiak: "bardiñak ote dira GUZURRA ta EGIA?"

Argi dago, emen zeozere, ustel usain andia daukela, edesti guztian, sare arteko txebera orren ekintza izan dalako Euskalerrriaren zabaltasunezko "Jendekuntzari" murriztuazo egin dautsoena, gaur gagozan lurralde txiki onetan geratzeko.

Kadizeko espainiar jaurgo aldeko Norkeri orren sasikatoliko ta sasimerkantilista asmatzailleak, naita PPko, Sozialista, edo ta Errepublikak zaleak izan arren, ez dira egokituko arik eta Euskalerrria ezereztuarte, 1.812ko

(1) Ezkil-errepika = repique de campanas. (2) Maillaka = escalonadamente. (3) Euskaldumak Naparretatik banatzen, Naparrak euskaldunak ez ba ziran lez Historia General del Señorío de Bizkaia lenengo liburuan (1.860-1.876), 303, 4, 5 eta 306ko orrialdian datorrena.

konstituzio maltzur orrek barruan daukana, asmatutako menperatzailletasunaren araudia dalako.

Eta euskaldunak gure izatasunean, Jainkoaren Legeari begira oiturazko entseguka⁽¹⁾ jokatutearren, norkerizko guzur ta menperatzaille asmatzail orreik batzangotasunezko eritzian daukien aurkari aundiena "EUSKALERRIA" dalako. Ortik agertzen jakuz euskaldunai zitalezko erasoaren aldi guztiak.

EUSKALDUNAK orregaitik "ULERTU" bear dogu "ELBURU" bakar bateri begira ipini bear doguzala daukaguzan BEREZTASUNAREN arrazoizko indar guztiak.

Eta naita menperatzailleak kaizar eritziakin beartuta⁽²⁾, euskal nortasunezko izatasun gorpua zatituta daukaguzan alderdiekaz jokatu bearrean aurkitu arren, gure artean kontu andian eukin da, JAUNGOIKO ta GIZONAREN aurrean guk, ez dagula beste arrazoirik: "EUSKERIA ta EUSKALERRIAK" daukana baiño.

Mundu au danon ardurazkoa izanda, batzango baten ULERMENERA eldu bear ba-gara, GALIAK eta GAITUTAKO GIZAK daukan eskubidearen bidetik eldu bear gara.

Ala...Mundu fisiko onetan alango egun baten norberkeriagaitik menderatuta, lapurkerietan asi gintzazalako, "Bizitzazko Legean biurtuko ote doguz lapurtza orreik?".

Beste alde batetik begituta, ez dira galdu bear erantzuteko aurkezten jakuzan aukereak, legunean agertu jakun antzera, espainiar gortetan Rajoik birriten Iñaki Antiguadaderi esan eutsonean: "BERAGAZ EZ EUKALA IÑUNGO ZORRIK".

"ESPAINIARRAK, EUSKAL IZATASUNEZKO BIZITZAREN ARLOAN EUSKALERRIA MENPERATUA EUKITEAGAITIK, EUSKALDUNEKIN ZOR AUNDIENA edo ta GUZTIAK EUKINDA".

Espainiargortekobatzarrarenaretoanegunorreitanetabatzarrarenlendakarienaotik, arro esanda entzun ginduzen "200 URTE DIRA JAURPIDETZEN ASI ZIRALA KADIZEKO JAURGOAREKIN, GUDALOTZE, POLIZIA ta GUARDIA ZIBILLAREN LAGUNTZAGAZ".

Ez ebena esan, lenengo egunaren arazoak, gaurko arazoak dirala, Euskaldun, Katalan ta Galleguak askatasunezko erriak izanda, ez dogulako onartzen iñungo maltzurrezko menpetasun zikiñik, Berezkotasun onetan gaituta egonda, daukagun arrazoizko araudien kanpotik ez dogulako ezer onartzen.

Teresa Santuak esaten eban: "Jainkoa, lapiko artean ebillela". Eta egia da, Beren Legeakaz topo egin dogulako.

1.875ean Urtarrillaren 17an Bilboko Urrikalmendu Etxean⁽³⁾ txarriaren zozketa egin zan, 1.831tik eskeru, jarraian etorten dan lez.

1.875ean Urtarrillaren 21ean Bilbaoko aldizkari "El Noticiero Bilbaino"⁽⁴⁾, Salamanka ta Negretetar Manuel liberalaren gudal nagusiak, Urtarrillaren 18an XIIIn Alfonso erregearen alde aldarrikatu ebena agertzen dau, argi itxita Erromako eleiza katolikoa eurekaz egoala.

1.875ean Urtarrillaren 22an Del Kastilloren Kanobasek XIIIn Alfonsoren aoz Nafartar Peralta Uritik, aldarrikapen bat egiten dau: "Foruak zainduko zirala, izkilluak lurreratu egiten ba ziran". Euskaldunen artean ez zana onartu.

(1) Entsegu = ensayo, prueba, tentativa. Entseguka = empíricamente. (2) Zezarren "VINI, VIDI, VINCI".

(3) Bilboko urrikalmendu Etxea = casa de la misericordia de Bilbao. (4) Historia General del Señorío de Bizkaian, 308garren orrialdean datorrena.

1.875ean Urtarrillaren 24an XIIIn Alfonsok, bere gudal nagusi guztiak batzar baten batu ebazan, eta gud-antzea⁽¹⁾ antolatu ondoren, bakoza bere aukeratuko lekutik, euki ebezan gudalozte andiekaz zabaldu ziran, guda amaitzeko itxaropenean.

1.875ean Otsaillaren 2an Dorregarai karlista nagusiak Lizarra babesteko, Karraskalen eta inguratuta euki eben Iruñako bidean ipini ebazan ondo antolatuta bere gudari indarrak, baiña Mendiriren agindu txar baten bidez, Eskinzako erritxo babes barik itzi eban eta liberalak Lorca ta Lakarren sartuta, Moriones liberalaren gudal nagusiak bere 35.000 gudariekin Iruña eskuratu eban.

1.875ean Otsaillaren 3an Karlistek, ostera berrezkurutzen dabe Lakar, XIIIn Alfonso espainiarren errege barria bertan egonda karlisten gudariak atxilotzeko arrizkuan, baiña Mendirik ez eban kendu euken miña, karlisten gudal nagusiak biotz ondoko gogorke-rian artzen ebelako Karraskalen berak egin eban atzerakadagaitik.

– Emendik aurrera bekaizkeri asko agertuko ebezan karlisten gudal nagusiak Mendiriren aurka, eurak lez, ez zalako izan antziñako gudal nagusia.

1.875ean Otsaillaren 5ean Mendiri, karlista gudal nagusiak beragaitik esaten ebezanagaitik asarre, eskutitz bat bialdu eutson VIIIn Karloseri bere ardurazko agintaritzaren itziera eskatzen.

Denbora onetan Donosti eta Gazteiz inguratuta dagoz, bai Bilbo erasotuta be, eta esan leike, emen asten dirala karlisten alegiñak okertzen, lenengo gudan sortu zan lez.

1.875eko urte onen asieran Del Kastillotar Kanobasek, ongune batera eldu gura eban VIIIn Karlosekin:

– Bere erregetzazko eskubideak ostera berrezkuratu egiezan, bere alaba Elvira XIIIn Alfosomekin ezkondu.

– Lau euskal lurraldearen Foru eskubideak, euskal jabetasunean zainduta, guda au ez bazan gertatu lez eta abar.

Guzurra ustel bat bakarrik izan zana, euskaldunen Foru Legeak, 1.810-1.812ko urtetan irasi ebezan menperatzeko legeakaz kendu egin ebezalako, ez 1.872an egon ziranakaz, naita lege guzti orreik, gauza bardiñak izan.

– Eta guzti au argitzen da, XIIIn Alfonsoren agintaritzapean, euren legezko agirien VIIn atalean ekarten ebanagaz:

“MAS EL GOBIERNO NO SE CONSIDERARÁ OBLIGADO A GUARDAR NINGÚN GENERO DE CONSIDERACIONES A AQUELLA O AQUELLAS DELAS INDICADAS PROVINCIAS QUE NO SE SOMETAN A LA AUTORIDAD DEL REY ALFONSO XII DENTRO DEL PLAZO MARCADO EN EL ART. VI”.

Eta “Gaceta de Madrid” en agertzen zanetik, illabeteko epean beteteko aginduagaz, argi ikusita, eskeintza ori espainiar gobernuaren keiñadura gogor bat bakarrik izan zala.

– VIIIn Karlosek ez eban onartu eta aurrera egin eban leiarekin.

1.875ean Otsaillaren 7an XIIIn Alfonsok, galdu eben Lakarreko borrokaren ostean, eta arrisku aundian egonda karlisten eskuetan jausteko, Madrillera joan zan gudaloztearen babesean eta gero Iruñan sartuta, Euskelarriko lurraldearen borroka latzari, Bagillarteko eten antzeko bat egin jakon.

Denbora onetan XIIIn Alfonsoren gudalozteak, 778.782 oiñezko gudari, 1.651 zaldi, eta 92 kañoi euki ebezan.

Karlistak alderantziz, 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldi, eta 79 kañoi.

1.875ean Otsaillaren 7an Suizaren Elkartasunezko aolkularitzaren aldetik, onartu eben XIIIn Alfonso gaztearen erregetza, Italiako errege ta Aita Santuak ipini ebezan aurretiko baldintzarekin.

(1) Gud-antze = estrategia militar.

1875ean Epaillaren 3an liberalak, gudari geiago bialtzen dabez Bilbora.

– Epaillaren 3an karlistak, Portugalete inguratu gure dabe.

– Epaillaren 3an ziurtu egiten da karlisten aldetik, Parisen prantzes andiki batzuekin batzar bat euki dabela, Prantzezak guda au amaitu gure dabelako.

1.875ean Epaillaren 5ean karlistek, Santa Marinako inguruak sendotzen ibili ziran.

1.875ean Epaillaren 11n Kabrera, lenengo gudan karlisten guda nagusia zanak, beste guda nagusi batzuk batera, XIIIn Alfonsori euren onespena emon arren, VIIIn Karlos ez eban gura guda amaitu eta aurrera egin eban leiarekin.

1.875ean Epaillaren 12an Makanaztar Isidorok Bizkaiko liberalaren orokorrezko guda nagusiak bere guda indarrakin Bilbotik urten da, Serantes mendi andiaren jabe egin zala eta Zierbanako mendi ganean kokatuta dagozela aldarrikatu eban.

– Liberalak, Santurtze, Portugalete ta Sestao arrapatu gure dabez, bigarren Jibaltar antzeko babes toki bat egiteko.

1.875ean Epaillaren 14an borrokan eten bat egiten dabe, alde bietatik baituta daukiezan gudarien ordain edo aldaketak egiteko.

1.875ean Epaillaren 17an Gazeta aldizkarian agertuta eta Notiziero Bilbainoren aldizkariagaitik adi-erazi edo argituta, Arbolatxako borrokan karlisten aldetik:

– 77 il eta 240 zaurituak egon zirala esaten eban.

– Liberalaren aldetik, 4 agintari ta 12 gudari illak.

– Aldundiko zaintzale aldetik 5 agintari ta 52 gudari zaurituak.

– Saboyako taldetik, il bat eta 16 zaurituak.

– Albuerako taldetik, agintari bat ta 3 gudari il, eta 38 zaurituak.

– Kañoilari taldekotik il bat eta 6 zaurituak.

– Eta Monte Abrillean egon ziran Zamorako lurraldearen gudari taldekotik, 6 zaurituak.

1.875ean Epaillaren 17ko egun onetan be, “Gazetilla” aldizkariak, gizon/emakume artean oiturratu ziran baikuntzak⁽¹⁾ argitzen dauz.

1.875ean Epaillaren 20an VIIIn Karlos Durangora eldu zan, guda lozteak ikusita gero Balmasedara joateko.

1.875eko urteko Epaillatik Kesadak bideratzen ebazan liberal guda lozteak Martineztar Kanposekin batera, jende ta gudariak erakarteko politikagaz asi ziran, baiña politika orregaz aurrera egiteko, liberalaren sasigudan ibiltzen ziran Karrikalutxi, Lakalletar Tirso “Ziraukiko Anka Motzak” eta abar, egiten ebazan sarrazkiak geratu bear ziran, baita ta berak arrapetan ebazan gudariakin eta errikoakaz egiten ebazanak be bai.

1.875ean Epaillaren 23an liberalaren indarrak, 78.782 oiñezko gudariak, 1.651 zaldi eta 92 kañoi euki ebazan.

Eta karlistek alderantziz 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldi, 794 mando, eta 79 kañoi.

1.875ean Jorraillaren 4an Madrilletik agertutako barriak, Kanpostar Martinezek Kataluñan, karlistek Oloten euki eben erri-toki sendoetariko bat artu ebala, eta Erdi Ugarte onen Iparralde osoa bizkortu gure ebala, esaten eben.

1.875ean Jorraillaren 6an VIIIn Karlosek Gaztela indarrez artzeko euki ebazan goak alboratuta, Durangotik urten ebanean Balmasedara joan zan, bertan Elio eta Mogrobejo guda nagusiakin alkartzeko, eta inguru ori sendotzeko.

Arabaren galduera.

1.875ean Jorraillaren 7an aldizkari bidetik esaten zan, karlisten inguruan entzuten zala: “borroka au amaitu bear zala, agintariak esan orreik kontuan artu barik”.

(1) Oiturratu ziran baikuntzak = *moda que aparecio de secuestrar a las personas o cosas.*

– Egia baiña, Balmaseda menderatzen eban San Seberino mendia, karlistek indarzen egon zirala zan.

1.875ean Lorailaren 13an karlistek Getari artu gura eben, eta gogor asi ziran erasotzen.

– Karlistek 12terdiko 15 kañoi eta 7terdiko 8 kañoiekin asi ziran, baiña lenengoetan itxasontziren leergai erantzunekaz ta eurak euki eben kemenezko gogortasunagaz aurre eginda karlisten erasoari, olan egon ziran 1.876an Urtarrillaren 26ko egunerarte.

– Euren lepoetan 340 bonba ta 4.276 granadaren eztanda artu bear izanda, eta janariaren ezean, erriak euki ebezan 900 biztanletik 1.876ko Urtarrillan 150ean geratu ziran, Getari, Marine itsas koronelak bere gudariekaz ontzitik lurreratu ondoren askatu arte.

1.875ean Bagillarterako denbora onetan Primo de Ribera liberalaren guda nagusiak, denbora pasa bat izan balitz bezala Ziraukiko San Kristobalen baselizatik, Zirauki, Artaza, eta Billatueta bonbakatzen ibili zan, bide batez Etxauriko ibarrean egon ziran erriak eskuratzeko, arik eta antolatuta euki eben Lizarrari eraso egitea asi arte.

– Eta Perula karlista guda nagusiak beste aldetik, Iruñako Uriaren Mesede kale inguruetatik, itzelezko kalteak egin ebazan San Kristobaleko gaztelutik bonbaketeagaz.

1.875ean Bagillaren 6an Ille onen baretasunean, garrantzizko borroka bat egon zan Trebiñoko Zumelza errian, liberalak Perularen zaldunezko taldearen aurka, Perulak atzera egitea bear izanda.

1.875ean Bagillaren 15ean Liberalaren gudalozteak urtetan dabe Ebroko Mirandatik, karlistek Gazteizeri egiten eutsen ingurutasuna apurtzeko, eta Tuyoko Kontxatan euki eben borroka bidetik, liberalak Gazteizen sartzen dira.

– Eta emendik asiko dira liberal gudalozteak Euskalerriko beste toki batzuetara zabaltzen, gudaren amaiera lasterragotzeko.

1.875eko urtean Aranatarrak Baionan egon zirala, Maiatzeko-Bagillaren egun bitarteko Pazkoan Sabinok, lenengo Jaun-Artzea egin eban Donibane Loitzuneko eleiz nagusian.

– 1.875eko Loraillaren onetan Arana-Goiritar sendia Ziburrera joaten da.

– Eta Urrillan Donibane Loitzunera⁽¹⁾, artean Arana ta Goiritar Luisek apaiz karlista baten irakatsiak ikasten, eta Sabino, Lodioko Oruetak karlisten Arratiko lenengo taldean bigarren agintaria izan zanak, Loitzunen igeslarienezko zabaldua euken eskolan ikastera joanda.

1.875ean Uztaillaren 1ean VIIIn Karlosek, Mendiri guda nagusia kentzen dau Iparraldeko lur osoaren agintaritzatik eta berak artze dau agintaritza ori, bere bigarren lez Perula guda nagusia izendatuta, eta Mendiri oiñezko gudarien antolako lanetan ipinita, Mendiri berak itzi eban lan ori Uztaillaren 5ean.

1.875ean Uztaillaren 3an Dorregarai karlista guda nagusia, peninsula edo Erdi Ugarte onen erdi inguruan Lezena del Ziz-en borrokan ibili zan, eta bere izena erdi saltzaille lez ibiltzen eban lez, Ebro ibaia aldatu eben Segre mendi gainera joanda, bitartean liberalak Kantabiejako gaztelua berrezkuratuta.

Eta ekintza onegaz amaitu ziran Erdi Ugarte onen, erdiko lurraldearen borrokak, Kataluñako guda indarrak, beste gudari talde andi bigaz sendotu ondoren, Iparraldeko borrokak gogortuta.

1.875eko urtearen erditik aurrera, gure Foru Legeak ez ebena ezeren artu emonik euki, karlisten Zigorrezko Legediagaz zuzendu zan.

Orregaitik VIIIn Karlosek, Ofiatin dirua egin eta bidai-txartelako sillu edo zigiluak⁽²⁾ ataratea agindu eban, andiki edo jaun izenak emon, eta abar.

(1) Donibane Loitzun = San Juan de Luz. (2) Zigiluak = posta-kutxako seilluak.

Eta gure Foru Aldundikoak izan ziran benetako jaurtzaileak, euregandik kanpo ez zalako al izango karlisten gudako antolakuntzarik, eta gitxiago gudarik, izkillu, janari ta gudariak jazteko guztiakin, euregandik kanpo ez zalako egon arduradunik.

Ainbat aldizkari agertu ziran, bakoitza egokitzen jakon lekuan datorrena.

1.875ean Uztaillaren 5ean VIIIn Karlosek, gure Foruai ziñez itza emon eutsezan berriz, eta bi egun barru, Billafrankan Gipuzkokoari.

1.875ean Uztaillaren 7an Kesadatar Jenaro, XIIIn Alfonso errege liberalaren guda nagusi barriak, Perula karlista guda nagusiari atzeratuazota, beartu egiten dautso Nanklares eta Subijana bitartean babesten.

Bañña Kesadak, jakin eban zelan karlistek Gazteiz osterata inguratuta eukiela, eta Trebiño ta Zumeltzutik Gazteizera bideratzen da.

Tello liberal guda nagusia geratu zan Kesadaren atzerakada guda laneko babesean⁽¹⁾, eta karlistekin aurkituta, auek atzerantza egin bear izan eben, karlistek Gazteiz betiko, eta Arabako lurralde geiena galduta.

Kalte geiago be sortuko jakiezan karlistari emendik aurrera:

– “Mendiri ta Perularen arteko eztabaidarekin”.

– “Kabrera ta beste guda nagusiak egin eben saiskerigaitik⁽²⁾”.

– “Espainiar erregetzazko barrizkuntzarekin VIIIn Karloseri egin eutsoen kalteagaz”.

– “Ziraukiko Lakalletar Tirso urgun⁽³⁾ liberalen iltzaileak egiten ebazanagaitik, Mendiri guda nagusi karlistak egin ebazan mendekuak, European oiartzun andiak eukezanakaz.”

– “Karlista guda nagusiak gero ta geiago indar barik aurkezten ziran bidetik, peninsula onen erdiko eta sortaldeko lurraldeetatik euki ebazan berakadak, euskal etxeetan kirkildu edo ta biozkatu egin ebazanakaz”.

– “Liberalak Iruñako bidea garbi gura ebelako, karlistai lagundu edo ta salatu ez ebena egiten, Nafartar erritarrak diru-zigor galantak, nekazariak abereak kendu ta soloko mozkin guztiak erre, mendiko zugaitz guztiak ebagi, atzerrira ainbat bialdu, euren legeak baserri ta erritarrak euren guztia kendu ta baserri geienak erre, zigor aundiko erregarri edo ta diru-zigorarekin, erritarrak lerrotu ondoren, eurak esaten ebezanak lerroetatik atara eta tiroz il, etxetik kanporatu edo ta atzerriratu euren ameriketako kolonietara zigor lez bialduta”. Oso latza izan bear izan ebena gure baserriarrentzat.

1.875ean Uztaillaren 27an Lizarraga, Dorregarai eta Saballs karlista guda nagusiak artegatuta egon ziran, Martinez Kanpos espainiar liberalaren guda nagusiak Kataluñan, karlisten garrantzizko tokia izan zan Seo de Urjel bere Eleiz Nagusi ta eukezan iru gazteluakin artu gure ebazalako.

– Eta VIIIn Karloseri itanduta zer egin bear eben, onek, babestu egiela erria eukezan guda indar guztiak agindu eutsoen, Lizarragaren arduratan geratuta Seo de Urjelen babesa, eta antolatu ta sendotzen asi zan bere ingurua, Dorregarai eta Saballsen guda indarrari denbora emonda euren guda lozteak antolatu egiezen, gero berari laguntzeko.

1.875ean Uztaillaren 29an karlistek Arabako Billarrealen, Gipuzkoaren giltza izan zan Arlaban ondoan txokoratuta egon ziran lekuan, babeseko borroka andia egin ondoren, alde egin bear izan eben.

1.875ean Dagonillaren 1erako asi zan Martinez Kanpos liberalaren guda nagusia Kataluñaren Leridako lurraldean Seo de Urjel inguratzen, onen erasoari erantzun oso gogorrak izan da karlisten aldetik.

– Eta urrengo egunetako borroka oso gogorregizkoak izanda, Kastelluri liberalaren eskuetan geratuta, etenbako iges-aldiak egon ziran karlisten lerroetatik liberalaren lerroetara egunero, Lizarragari arazo asko sortuta.

(1) Gudalaneko babesean = maniobra militar para la guarnecer la retirada de Kesada bacia vitoria.

(2) Saiskeria = traición. (3) Urgun, Urgunak = cojo, el cojo, “El cojo de Cirauqui”.

– Gaiñera karlistentzat edateko uraren ornitzeak moztuta geratu ziran, Balira errekatik urak artzea oso arrizkukoa biurtu jakielako, eukezan babes lekuetan atxilotu lez geratuta leergaillu ta tiroin gitxigaz.

Arrigarrizkoa da emen jakitea, karlisten egoera larria Kataluñaako borroka orreitan: leergailluaren ezean, gudariak erriel-bi emoteko, liberalak botaten ebezan leergailluen suziri edo leer-ziriak⁽¹⁾ kendutearren gero liberalari leergaillu orreik osterata botateko.

1.875an Dagonillaren 2an, Albarezta Rafael karlista guda nagusiak, Aroko erria artu gura eben, baiña Ebro ibaian geratu eben liberalak, La Bastidatik aurrerantza joan ezinean geratuta.

1.875ean Dagonillaren 26an Lizarragak sinatu eban Seo de Urjeleko menperatzearen itun edo elkargoa.

1.875ean Iraillaren 5erako Kataluña eta peninsula onen erdiko lurraldeetan guda amaituta egon zan, eta izkilluak liberalaren eskuetan ez ebenak itxi gura, Dorregarai karlista guda nagusiaren antzera, Nafarroako lurraldeetara bideratu ziran.

Eta itzelezko edurtzaren artetik, karlistek eta liberalak Euskalerriko Nafar lurraldeetara, bideratzen dira euren guda tresneri guztiekaz, liberalak espainiar jaurkintzaren gudarako ministrua izan zan, Jobellar guda nagusiak bideratuta.

Mogimendu guzti onen bidetik espainiar gudu indarrak, guda bitan antolatzen dira, eskuin aldekoak Martinez Kanpos guda nagusiak bideratzen ebena, bere zeregiña Nafarroako lurraldeak menperatzea zana, eta ezker aldeko guda bitan Kesada guda nagusiaren agindupean, Gipuzkoa ta Bizkaiaren lurraldeak menperatzeko.

Bien arteko guda bitan onen indar kopurua, 120.000 gudariena izan zan.

Eskumako guda bitan osterata, bi taldetan banatzen dabe, bata Blanco guda nagusiak bideratzen ebena eta bestea Riberatar primok bideratzen ebena.

Ezker aldekoa, Loma, Moriones, eta Etxebarriaren agindupean banandu egin ebezanak.

Karlisten aldetik botaten eban edurtzeagaz, belañu edo ur-laiño, eta egoten ziran lei beltzakaz, euren lurraren senidetasunezko beroan, lur ebagi edo lubakitan⁽²⁾ babestuta, ez eben euki 33.000 gudari baiño besterik, orreik be, euki bazituzen.

Liberalak, karlistek gudarako euki eben antolamendu makal orregaz eta politikaren arloetako egoera txarragaitik, begirune arloan ezeri begitu barik, ikaragarritzko erasoak egiten eutsezan gure politiku, Foru ta euskalerraren jaurkintzazko antolamenduan ibiltzen ziranai.

Eta nai euskaldunen lurraldean, gizartearen eritzi ezberdin artean eskuma edo liberalak izan, edo ta eskuma ezker aldeko karlista izan ziran guztiei, zigortu gure eban euki eben izatasunezko ezberdintasunean, liberal agintari orreik gura eben espainiar izateari, euskaldunak zirala erantzuten ebalako, baita guda sortu ebelako, nai Foralista, karlista edo ta liberal izan arren, guda agintari maltzur orreik euskaldun guztiak zorrotan, batera sartzen ebalako.

1.875ean Iraillaren 9an Kesadatar Jenarok, espainiar gobernuko ordezko zana Lopez de Goikoetxeari idazten dautso: Karlistaren egoera oso larria izan zala, eta gudarako tresneri ezean egon zirala, leia onegaz aurrera egiteko.

Eta VIIen Karlosek Dorregarai, Olibar, Saballs, Morera, Mendiri eta Sangarreneko Baroia auzipetu egiten dauz, borrokatan ainbeste porrot eukiteagaitik.

1.875ean Urrillaren 10ean karlistek, Martorelltar Juan koronel ordezkoaren agindupean egoan Lunbierreko Nafar erria erasotu eben, eta naita liberalak ainbat aurkako ekintza egin arren garrantzizko lekua izan zalako, errigaiñean dagon mendiko Trinitade baselisa ta erriagaz geratu ziran karlistak.

(1) Su-ziri, edo ta leer-ziri = espoletas de las bombas. (2) Lu-baki edo lubaki = trinchera, fosa, zanja.

Martorelen Liberalak, naita gero Reina guda nagusiaren laguntzagaz garrantziko tokia izan zalako erasotzen ekin, Perula karlisten guda nagusia agertuta, itzelezko astiñaldia emon eutsen liberalai, Lumbier inguratzen dabezan, Ripodas, Domeño, eta Arbonieseko mendi guztiak artuta, Perula karlisten guda nagusiari ekintza orregaitik 40.000 erleko saria emon eutsoen San Fernandoren dedu-domiñagaz⁽¹⁾ xingolatuta.

Urregoko illean liberalak berrezkuratu ebena.

Ekintza onen oartxo bat:

Argi ikusten dogu osteraren emen, karlistak euren lur eta legearen jabetasunagaitik borrokatzen ebalako eta borrokan liberalak baiño geiago izan arren, liberalak lasai ibiltzen zirala, euren garaipenak ez ziralako borroka sutsuetatik agertuko, karlistek gudarako bear eben tresneri ta gudarien bir-lengoratzearen andeatzailetasunezko⁽²⁾ bidetik baiño, liberalak gura eben baiño tresneri ta gizontza geiago euki ebelako.

Erabagi orreikizan ziran Europaren liberalkerizko katoliko konstituzionalista menperatzaileak artu ebena, Europako errigizarteak Jainkoaren Lege bidez euki eben eskubide guztien gaitetik.

Eta katoliko liberal orreik, JAINKOA Ludi oneri erperatu Eutsoan Lege guztiak basterrera ebentik lapurketan asteko, gaur porrot andiak egiten asi dira eurak ipini ebezan "Diruzko Araubideak", lapurretazko ordezkari baten ezin dalako iñungo legerik bitartean sartu, menperatzailearenak izan ezik.

Orregaitik, JAUNGOIKUA Berak irasitako Ludi oneri, Bere legeak erperatuta bereztu euskun lez, ez dau lekurik izten beste jainko batentzat, ta or gabiz mustur ta buruak apurtzen, alperreko alegiñ orreitan.

Begitu mundu onetan non dagon edo zerekin dagon irasita "gezurrezko-jainkoa" edo "Urrezko Zekor" ori.

Dirua ba, ez ote da gure ardurazko ordezkarietan, Ekanduzko irudiaren tresneri bat ?.

Begitu non geratzen dira gizon/emakume batzuen "De la Misión de España en lo Universal".

Zelango agindua da ori, edo ta Nork aginduta.

Ain menperatuta geratu dira euren "Arimako Baitan: GURE ARTEKO EGINKIZUNETAN JAINKOAREN LEGEARIBEGIRA "LOTSAGIZUNA, LOTSATI izan, ADEITASUNA, BEGIRUNEA edo ta GIZONEN LARDERIAK" zer diran ez jakiteko ?.

Egoera oneitan ez da esatenda ba: "ITZALI ARGIA eta GUAZEN EMENDIK".

1.875ean Urrillaren 17an Kesada liberalaren guda nagusia Madrilletik etorrira osteraren gudaletzearen agintaritzaz artzeko, karlistek Payuetan ibili ziran egiten gaztelua artu ta 14 gudari atxilotu ebezan, eta Labastida artu ondoren Toloño eta Urizarreko mendietatik zabaldu ziran, Urizarreko bizkar gaitiean San Leon gaztelua artuta.

Perulak jakin ebenean Urizarreko alderdi ura galdu zala, ia galdutzat emon eban Arabako lurraldea, naita gero ainbat denborako ekintza gogorak egin.

1.875ean Azaroaren 16an VIIen Karlosek, Tristán Rafael karlisten guda nagusiari Kataluniako agintuaren almen guztiak berari emonda, onek Boixeko Kastelfolliten euki eben orokorrezko gudaletzetatik, katalan gudari guztiari aldarrikapen sutsu batez osteraren deitu eutsen borrokan asteko.

(1) San Fernandoren dedu-domiñagaz xingolatuta = Condecorado co la medalla de San Fernando.

(2) Andeatzailetasunezko bidetik = camino de desgaste de hombres y armamento que los carlistas difícilmente podían reponer, o, sostener dicha reposición.

Eta Tristanigaz batera, bardiñ egin bear izan eben Toledo ta Erregearen Urian⁽¹⁾ edo peninsula onen erdian Marko, Segarra, Boet, Gamundi, ta Kukala karlista guda nagusiak.

1.875ean Azaroaren 19an Martinez Kanpos liberalaren guda nagusiaren aldetik, amaitu lez emoten da Kataluniako guda, atxilotuta egon ziran karlistak aske ipinita, naita karlisten guda nagusi batzuk, borroka gaz aurrera gura egin, Kastells Frantzira joanda.

1.875ean Azaroaren 24an karlistek San Kristobaleko gaztelua galtzen dabe, eta Iruñako ingurutasunak indarra galtzen dau, karlistek Orikain, Alzuza, eta Miraballesetik Iruñari bonbaz erasotzen eben mendietatik, liberalak bota egin ebazalako.

Araba galduta, Nafarroak ez eban euki etorkizun obeagorik, eta Belaskotar Ladislao Arabako Aldundiaren orokorrezko arduradunak itxaropen ori ikusita, Foruen ezerez-tutea gura eban baztatu, eta karlisten guda nagusi batzuekin ibili zan alegiñak egiten, karlisten lerroetan gudariak matxinatu egiezen, baiña 1.838an Muñagorri sortu jakon antzera, alperrikoak biurtu ziran Ladislaoren alegiñak.

1.875ean Azaroaren 26an karlistek, Mutrikun London itxasontzitik lurreratu zituzten 3.000.000 tiroiñ 100.000 azta edo libera berun eta 50.000 libera gatzerre edo gatzuker⁽²⁾.

1.875ean Abenduaren 31n karlistak:

- Orokorrezko Kapitain jeneral bat.
- Orokorrezko Kapitan jeneral ordezeko bi.
- 7 zelaiko mariskal.
- 35 jeneral ordezekoak.
- 62 koronel.
- 92 koronel ordezeko.
- 2.063 komandante-alferez bitartekoak.
- 2.137 sarjentu.
- Eta guztiz 32.976 gudari euki zituzten.
- 1.769 zaldi.
- 680 mando.
- 80 mendiko kañoiak.
- Eta 29 enparantzaren zelaiko kañoi. Danak ezberdiñak ziranak euren izaeran eta neurrietan.

Onek izan ziran karlistek euki ebezan gizon-tresneriak, eta onekin aurre egin ebena-kaz, gitxiendiz eurak baiño lau bider aundiagoko indarrak ziranai.

Karlistadaren bigarren edo irugarren go gudaaren amaiera.

1.875ko Abenduan Perulak porrot egin eban karlisten guda nagusi lez, eta Mendiri eta Dorregarai atzerriratu egiten dauz azpikerizko saldukeria⁽³⁾ egitea gaitik, eta Alfonso bere anaia izendatzen dau karlisten guda nagusi lez.

1.875ean Abenduaren 22an VII In Karlosek, Segarratar Tomas karlista guda nagusiari agintzen dau so Kataluña, Toledo, ta Erregearen Uriko zaletasunak oster berrezkuratu egiezan karlistaren alde.

Eta 1.875ean Abenduaren 27an espainiarren zigortasunezko keiñadaren bidetik etorten zan sarraskiko olatutik alde egiteko, edo ta etorten zan ondamenaren aurka,

(1) Erregearen Urian = Ciudad Real. (2) Gatzerre, edo gatzuker = salitre. (3) Azpikerizko saldukeria = alta traición.

Gazteizen Liberal Fuerista Batzar bat sortu zan, Bizkaian Uribetar Eusebio, Gipuzkoan Jaunsorotar Domingo, eta Araban Urigoitiatar Serafin ipinita ordezkari nagusi lez.

Erakunde onen eginkizuna, etorten zan liberal gudaloztearen zarraskiko olatu edo ondamenari karlisten indarrak inguratu gurean mendi ta itsas baztarretan, aurre egitea zan eurak euki eben indar ta eragipen guztiagaz.

1.876ko Urtarrilla osoan karlistak ezin eutsoen eutsi liberal gudaloztearen indarrari eurak ekarten eben antolamendu barrietan, ez, ezeutsielako irabazten eukiten ebezan borrokatan, geienetan karlistak urtetan zirako garaille, denbora orreitan ez ebelako indar naikorik euki, eurak baiño lau bider geiago ziran gudari ta gudako trenerietan.

1.876an Urtarrillaren 19an, Jobellar liberalaren guda nagusiak, 200.000 gudari euki ebazan bere agindupean, XII In Alfonso Madrilleko gortetik urtenda, Zaragozatik Tudelara joan zanean Iparraldeko liberal gudari indarrak bideratzeko, Peraltan 40.000 gudariai ikustaldia eginda.

1.876an Urtarrillaren 21ean Morionesek Donosti askatzeko Getarin lurreratuta, Garate mendiaren goi aldia menderatu eban, eta Medizorroztzeko zulogetara eldu zanean bere gudariakaz, karlistak gogor zigortuta uxatu edo aizatu egin ebezan.

Eta karlistek Donosti leerkailluekin bonbaketan iraunda, alango leergaillu bategaz Bizkarrondo ta Ureñatar Indalezio ("BILINTX") olerkari andia zana, il eben.

Borroka au izango zan Gipuzkoaren lurraldeetan karlistaren askeneko garaipena.

Martinez Kanposek Elizondotik, ia ezin eban aurrera egin karlistek egin eutsen jazarro edo mukertasunagaitik⁽¹⁾, eta karlisten geiago ezin egitearen ondorengo bidetik, asiko zan karlistek euki ebezan gudaloztearen ezereztutea.

1.876an Urtarrillaren 28an espainiar gudalozteak karlistai itsas baztarrean txokoratzeko itxaropenean erasotzen azten dira, liberalak Balmaseda artuta.

– Martinez Kanposek Riberatar Primori aolkatuta Lizarra artu egien, bera Baztanetik Donostira joaten da, karlistek Uria bonbakaz etsaimentzeko Aiako mendikateetatik Igeldo mendiraño lerrotuta euki ebazan kañoiakaz, ia apurtzen ba ebazan.

Kesada liberal nagusia bere aldetik, Bizkaiko Egoaldearen Otxandiotik, Urkiolako bidea artuta Durangora joateko itxaropenean asten da, eta Loma guda nagusia bitartean, Kadaguako bidetik Bilborantza joaten da.

Antolakuntza oneikaz azken borroka amorratuak asten dira, eta benetan odol-jariozko borrokak izan zirela ibarretatik zear azkeneko etxe, toki, edo lur zatiak babesten, il edo ta biziaren itxaropenezko borrokak izan zirelako.

1.876an Urtarrillaren 30ean Riberatar Primo liberalaren guda nagusiak, Oteizako Santa Barbararen gaztelua artu eban.

1.876ko Urtarrilla onetan Perula ta Montoya karlisten guda nagusiak euren artean berbetan, galdutzat emoten eban guda, Montoyak Perulari erantzunda: "guda ez bazan amaituten, barne edo baitazko pekatu andiak izango zirala, ortik aurrera botako ziran odolanta bakotzaren izurpenak".

1.876an Otsaillaren 1ean Kesada liberalaren guda nagusia Bilbaon sartzen da.

1.876an Otsaillaren 1ean XII In Alfonsok ikusita, euren liberal indarrak azkar ibili zirala Bizkaitik, naita karlista eurak be gudaloztearen antolaketatan ibili, urrut-idazkiña bidez esana liberalaren guda nagusiari esaten dautso, ia ez bazan izan ordua bera gudaloztean aurrean joateko, gudarien biotzak berotzeko eta arnas ori emonda Otsaillaren lenengo 15 egunetan gudaren amaiera lortzeko.

– Kesadak, oraindiño ez zala une egokiena erantzun eban.

(1) Jazarro edo mukertasunagaitik = resistencia, por la resistencia que le ofrecieron los carlistas.

1.876ko Urtarrilla ta Otsaillaren ille bi onein borrokak oso latzak izan ziran, alde bietatik il asko egon ziralako, batez be liberalaren aldetik, eta euskaldunak garaitzalle geienetan urten arren, argi ikusten zan liberalak zapatzaillezko azken alegiñetan ibili ziralako.

1.876an Otsaillaren 5ean liberalak Durango ta Zornotzan sartzen dira, eta Karasa karlisten gudal nagusiak Muniketasera joanda, Etxebarriri, Zugaztietatik urten egiela Gernika, Murgia, ta Arratiko guda taldeakaz Abadiñora joateko agindu eutson, gabeko ordu batetan urtenda bete egin ebana, Kabero liberalaren gudal nagusia euren atzean ibili zalako.

Ziria⁽¹⁾ liberalaren gudari taldea, Zornotzan euki eban karlistekin tirokaldi gogor bat, eta karlistek jakinda liberalak Berrizen egon ziralako, albo bietan dagozan Gaztelumendi ta Santa Curtz mendietara joanda, gabeko zortzirakarte ibili ziran borrokan liberalaren aldetik ia 200 eroriak zauritu ta illaren artean eukinda, karlistak gero Elorriora joanda Karasa karlisten gudal nagusia bertan egon zalako.

– Zornotzako borroka orretan liberalaren aldetik il eta zauritutakoak: Floran koronela eta Peirona koronel ordezkakoak izan ziran, 13 gudal agintari zaurituak, 28 gudari il eta 142 zaurituak.

1.876an Otsaillaren 10ean Bizkaiko karlistek, De Grande ta Gonzaleztar Leonzio gaztea izendatu eben gudaloztearen agintari nagusi lez, eta 11n bere indarrakaz, Elorrio, Elgeta, Mondragon, Bergara, Mallabia ta Zalduako erriekaz jabetu zan, Eskiagaren Markiñako taldea Gipuzkoan egoala, bertako gudal nagusiaren agindupean.

1.876an Otsaillaren 13an Kesada liberalaren gudal nagusiak, Elgeta artzen dau, gudalosteak Bergara, Izua eta Azkoititik, Eibar, Plasensia, eta Ermun sartuta izkilluaren lantegiakaz jabetzeko, Araba ta Bizkaia karlistaren gudalozteak, arrizku aundian geratuta, Gipuzkoa ta Nafarroako gudalozteak bananduta geratzeko.

Une onetan Bizkaitar karlistak, ia lurralde osoa galduta euki eben, euren lerroetatik ainbat gudarien igestari eukinda, liberalak inurriek bezala, inguru guztietatik zabaldua egon ziralako.

1.876an Otsaillaren 15ean, espainiarren jaugo edo konstituzio barria aldarrikatu zan, 1.931garren urteraiño iraungo ebana.

1.876an Otsaillaren 17an karlistak atzeraka asita, Riberatar Primo liberalaren gudal nagusiak, Lizarra artu gura dau, eta Jurramendi artu ebanean, bereala Oteiza, Mañeruko Santa Barbara mendia, ta Artazugaz jabetuta, Lizarraren jabetasuna bereala artuko eban.

1.876an Otsaillaren 17an Beasainen karlista gudal nagusiak batuta, barriz antolatu gure dabez eukezan indarrak, eta ez ziralako bat etorri edo ta elkar aditu, espainiar par-kamena gura ez ebenakaz batera, orokorrezko atzerakadan asi ziran.

1.876an Otsaillaren 19an Riberatar Primo liberalaren gudal nagusiak Jurramendi ta bere inguruak menperatuta euki ondoren, Lizarra be jausi zan, Berruetetar Franzizko, Zorrillatar Justo, Saldiaстар Florenzio, Garzia Errerostar Migel, Barandiarantar Jose Antonio, Ibarluzeatar Bentura, ta Dankauestar Matiasek sinatuta etsaimenduaren agiria.

Egun onetan XIIIn Alfonso arro arro, Donostian sartu zan.

1.876an Otsaillaren 19an Larunbe gudal nagusiak Atxuriko⁽²⁾ mendietan geratzen ziran karlistekin ekin eutson borrokan il arte. Eta urrengo 20garren egunean agertu zan askenez “El Cuartel Real” karlisten aldizkaria.

1.876an Otsaillaren 22an XIIIn Alfonso espainiarren erregeak Donostian egi eban bere sarrera, 24an Tolosara itzulita.

(1) Ziria = la brigada ciria. (2) Atxuri = “peña plata”.

1.876an Otsaillaren 28an, liberalak, Lizarra, karlisten irudi edo karlista gudarien itxurapenezko irudizkoa zalako, espainiarren gudalozteak eraso eta odolkerizko⁽¹⁾ sarraski gogorrenak egin eutsoezan, eta geiago ez eutsen ezin ebelako, eta etsaimende orreitan euki eben bitartez:

– VIIIn Karlos, 26an Burgetera eta 27an Balkarlostetik Tolosara joaten da igesean, baiña Uri au be eraso gogor baten bidez inguratuta egonda, urrengo egunean etsaimenduteko egon zalako bertan sartu ezinik, Baztaneko ibarrera joan zan.

Orainarteko bitarte labur onetan gauza bi ikusten doguz, bata: Konstituzioaren jaurgori, noiz nola edo ta euren naierara ibili ebela egokitzen arrazoizkoa biurtzeko, gaurko egunetan, eurak orduko denboretan egiten ebena legezkoa zala esateko.

Baiña, nun egongo ote ziran besteak jaurgori arrazoizkoa biurtzeko ?.

Bestea: Lizarra karlisten eskutik kendu ebenean, amaitu zalako bigarren edo irugarrengo karlisten guda, espainiarren XIIIn Alfonso erregea garaitzuki Donostin sartuta.

1.876an Otsaillaren 28an VIIIn Karlosek, Balkarlosen, gudaloztearen 10.000 gudari ikustaldia egin eta gero, Nafarroako Arnegitik aldatzen dauz auñamendiko mugak ostera itzultzearen aldarrikapeneko itxaropenagaz, Gaztelako 6 talde, Asturias eta Kantaurikoak 4 talde, Balentziako 3 talde, eta zaintzale zaldun talde bategaz, Plasenziako 6 kañoi-sail, Usarezak eta bidearen erakusleakaz joan zan Frantziko euskal lurretara Arnegiko zubitik.

Eta Nafartar gudari taldeak, Orbaizeta eta Burgetetik aldatzen dabez mugako mendiak. Egun orretan XIIIn Alfonso espainiar erregea, Iruñako Urian sartzen da bigarrenez.

1.876an Epaillaren 1ean VIIIn Karlosek Baionatik, eskutitz bat bialdu eutson Segarratar Tomaseri, esaten: ezereztu egiezala ostera borrokan asteko Kataluñan egin ebezan alegin guztiak, aurrerantzean ez zalako egon ezeren etorkizunik peninsula onetan Ipiraldeko gudalozteak etsaimendu ziralako.

Eta Segarratar Tomasek itzarmenduta eukezan gudariekin Frantzira aldatu zan.

Ekintza onegaz, amaitu ziran beste aurkako guda guztiak.

VIIIn Karlosek amaitzeko, eskutitz bi bialduta espainitar erritarrai, eta bestea beren gudariari.

1.876an Epaillaren 2an, Lapoblaziñoko gaztelua jeneral ordezkari Araoz'eri etsaimendu zanean, bere bost gudar agintari, 76 gudari, 8ko kañoi bat, osagille bat eta apaizakin, amaitu ziran karlisten izena eroaten ebezanak espainiarren ondoriozko guda onetan.

XIIIn Alfonso Iruñatik asita, Gares, Lizarra, Los Arkos, eta Logroñotik Gazteizera joan zan, eta Durangotik Bilbaora txalo ugari artean.

1.876an Epaillaren 13an XIIIn Alfonso Bilbotik Portugaletera joan zan, eta inguru ori ikusita gero, aldarrikapen gogor bat egin eban gure foruen aurka irabazle gudalozteari Somorrostron, berba onek esanda:

“Fundada por vuestro heroísmo la unidad constitucional de España, hasta las más remotas generaciones llegarán los frutos y las bendiciones de vuestra victoria”.

Berak “conquistar la paz” esaten eban egin ebala, baiña zelan lortuko ote eban bakerik, ezpata indartsu ori eragin gogorrakaz buruak makurtu ba ebazan ?.

Or ez zan agertzen bakerik, bildurra baiño, berezko errigizarteak denbora bear izanda ostera eskubidearen arrazoiak euren lekuetan ezartzeko, edestiak erakusten daukun lez.

Europar, bakeak lortu gura izan ezkerro, eskubidearen arrazoiak banandu bear dira euren nortasunezko lekuetan, eta gai-mundu onetan batzango batera eldu bear ba-gara,

(1) Odolkeri, = ensañamiento, encarnizamiento. Sarraski = estrago, destrucción, carniceria, degollina.

bertan bizi garen ardurazkoa dalako, bakotzaren eskubideak ondo zainduz ulermen orreitarra eldu bear gara, beste biderik ez dagoelako zentzuz eta bakez bizi gindezan.

XIIIn Alfonso Somorrostratik Madrillerantza joan zanean, gauza baragarri batzuk sortu ziran bidean, eta geien Santanderretik aldatu zanean, oneik konturatu barik, edo ta konturatuta, baiña barregarrizko ekintza zikin baten:

- Andrak bulerretan, aterkiñetan, umien jantzietan, eta abar.
- Musikari edo soñu-jotzailleak euren tresneri edo ereskiñetan.
- Gizonak kapela, ginbail edo ta txapel eta lebitetan.
- Poxpollo ontzietan.
- Nai aizagalluetan⁽¹⁾,
- Txakurrak eztarri edo ta lepoko, ustai edo lepustaietan, ormatan, etxeetan, eskegi-tako ikurriñetan, kale argitan, dendako ateetan ta erakus tokietan, baita ikusi leiken leku guztietan ipinten eben iragarki au: *"ABAJO LOS FUEROS"*, lotsagabekerizko zomorro jai bat izan zana, **"Euskalerrriaren Legezko Izatasunari eta bere seme-alabari"** bortizko indarrean eta ain gorrotzko berotasunekin, ezinbesteko amurrua erakutsita.

Eta alderantziz, Foruen alde jokutzen ebanai edo ta Foruen babesean zeozer erakusten ebanai, zigor andi ostean, oial txabola baten sartu eta jende gabeko basamortuetara bialdu, bere izatasunezko aberriaren alde urten edo ta beren izena aldarrikatzen ebela-

Alango amurrua erakutsi eben liberalaren alde jokutzen ebenak.

Eta gaur ?.

Ikusten dogunagaitik, ez da agertzen besterik, naita mozorrotubarik egin da be.

Ala euren jabetasunezkoak garela agertu gindezan, azagariak egiten dauan antzera, lotsati lez esanda izango ote da ?.

Dana dala, espainiarren gobernuak gaur lez, eta euren demokrazizko legearekin (?), ez eben izten ezer egin edo ta gure Foruen alde ezer esaten. **Bai alderantziz saritu, gure Foruko Legearen aurka ezerean lotsabarik jokutzen ebanai.**

1.876an Jorraillaren 6an espainiar gortekoak, Somorrostron XIIIn Alfonsok esan eban guztia onartu eban, eta Kastillotar Kanobasek gure euskal Foru Aldundiko arduradunai Madrillera deituta, agiriko aldarrikapen bategaz, au esan eutsen:

"Eurak guda au, arifiauko izaeraren legezko utziera, eskubide, edo ta elkarpede barik irabazi ebela"

Esan orrekaz argi itzita, guda irabazi ezkeru, eurak izan zirela eskubide guztiaren jabe. Alan ote da ?.

Jainkoak Mundu onetan bakez bizi gindezan, oiñarrituta daukazan Legeen gaiñetik, gudako legearen era orreitan ordezkatu bear ba genduzan zor-eskubidearen eginkizunak, gudak eta borrokak etenbakoak izango ziran, oraiñarte izan eta diran lez, menperatzeko baimen edo ta gudarako eskubide orreik, danorenak izan ezkeru.

Orregaitik mundu onetako gizon-emakumeak ez daukagu eskubiderik inungo legerik agertzeko, Jainkoak ipinita daukazan Legeak ardura andiz eta gogo onenean bereztuta, egipidetzea baiño, eta begitu zelango aldea dagon eurak esangura dabenetik, egin bear doguzan egizko egipideraiño.

1.876an Loraillan espainiar gobernuakoak, erriko arduradunai deitzen dautsee Ietik 15era Madrillen batzar bat egitera, bitartean peninsula onen beste lurraldeetatik Sebilla izan ezik, gure Foru Legeak ezereztuteko eskatuten egon zirala.

Eta Kanobasek, gure ordezkariari entzulearen antzerkikoak eginda, beren ixilpeko ardurapean gorde ebazan, gure aurka azalduko ebazan asken eritzi edo ta aginduak.

1.876ko urtearen Bagilla ta Uztaillan Aldundiko batzarretan, alegiñak agin ziran gure Foruen alde, eta naita Benigno de Moraza ta Ruiz de Garibaitar Mateo Arabako legezizon andia, legearen

(1) Aizagalluak = abanico, ventilador, etc.

almen guztiak iru etenbako egunetan izildu barik argitzen egon arren, ez eban ezertarako balio, espainiar belarriak zipoztu edo itxita egon ziralako, gero eurak gura ebena egiteko.

Eta ori ote da espainiarren legezko ordezkari? Ori, zapaltzailearen legea da.

Orregaitik, Eskubidearen arlo onetan daukaguzan arazoak askeneko 200 urtetik sekula ez diralako argitu, betiko arazoak dira daukaguzenak, or emon gura izan ebelako asken aitzokada, erdimendearen 325eko urtean asi eben **Euskal Izkuntz ta Euskerazko Gizarteak euken Nortasunezko Eragipenari**, katolikotasunaren latifinezko batzango edo kolonizazio orregaz.

Bai eta gaurko era-berritu onetan "Nacional Catolicismo Imperial" elburu lez eukinda Jainkoaren Legeen gaiñetik, gauza orreik euren norkeriaren menperatasunezko buru asmatzail gogorretatik kentzeko alegiñik ez dabelako sekula egin.

Goiko JAUNGOIKUARI begira dagozela?. Guzuz aundiagorik, zekula ez dot entzun.

"Orregaitik, bide orretatik ez dira ta izango dira gai, berez daukaguzan gizaren esku-bideko jabetasunak ardura aundiz ordezkatzeko".

Eta berau bakarrik ikusita, ez da arritzekoa gaur Europa ta munduan sortzen dana.

1.876 urtearen Udan Sabinok, muga aldatu bear izan eban ikasketaren amaierako azterketak egin bear izan ebalako Ondarribiako maisuarekin.

1.876an Uztaillaren 21ean espainiarren gortekoak, gure Foruak ezereztuten ebezan legeak ontzat artu ebezan, eta maltzurrezko erabidez euskaldunak sinistu daiguzan eurak esaten ebezan guzurak: "Eurak emoneko Lege Berezi edo ta Faborezko Legeak zirala" ausartu ziran esaten, aldarrikapen onegaz:

"Los deberes que la constitución política ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del estado, se extenderán como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las provincias de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba, del mismo modo que los demás de la nación".

Eta urte ta egun onetan ipini euskuen Euskaldunai, espainiar asmatutako aberritasunari naita-naiezko gudaritza edo soldauzka, Euskaldunak espainiar biurtu gurean.

1.876an Dagonillaren 5ean, Begoñako Ama Birjiña, Santa Monikako lekaidetxearen eleizan gordeta egon zan lekutik, bere Begoñaren Santutegiko ezar lekura ekarri eben oster, eleizbira eder bat eginda.

1.876ko Urrillan Arana' tar Sabino Baionatik Ondarribira eroan eban, erriaren eskolako maisuagaz lenengo ikasketaren azterketak egiteko.

1.876an Urrillaren 17 ta 18ko egunetan Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako Aldundiaren ordezkariak Gasteizen batzartuta, lege orre in ezarpenaren aurkako jazargo gogorrean agertuta, itzi edo uko egin eutsoen euren Aldundiko ordezkotzari.

Ekintza onen ondorioz, fuerista alderditar barri bat agertu zan, Sagarminagatar Fidel, Bizkaiko Aldundiaren orokorrezko arduraduna, berak beste Foruko arduradunakaz batera zuzentzen ebanagaz, ez ebalako onartzen menperatzail agintasunik.

Sagarminagak, bere "**Bizkaiko Edestiaren Oroimen**"eko idaz lanetan esaten dau: "Bizkaiko Jauntza" bera erandu ta zuzentzeko, jabetasunezko Laterri bat zala".

"Gure Askatasunak ez diralako inorgandik emonekuak edo ta artutakoak".

"Gure Bereztasunezko eskubidetik, EUSKAL BEREKIKO ASKATASUNAK zirala, gure jabetasunaren asiera edo ta jaioterriaren sorburuko ondorioa ekarten daualako".

Gure aldeko baten batek esaten dau: "Europako menperatzaileen aldia olan amaituta, oraingo edestian sartuta gagoz, gure erriaren izaerazko legetxean edo ta nortasunezko jabetzaren legebideak berrezkuratzeko".

Menperatzaillearen aldia amaitu ote da ?.

Aurrerantzean gure nortasunezko euskal- seme izatearen etenbako lan eta gogoekin AITA-AMAK edo ta arbasoen irakatsiak JAUNGOIKUARI begira eurak lez, Askatasun ta Euskaldun Demokrasiaren eragipeneko bidetik mundura zabaldu ginduzen.

1.876ko urte onen Urrillako illean Sabinok 11 urte eukezala, Arana Goiri sendia betirako aldatzen da Abandora, Koldobika eta Sabino anai biak Orduñako Josu lagunena ikastetxera joanda euren ikasketak egiten 1.881eko urterarte.

Arana ta Goiritar Koldobika eta bere anai Sabinoren ITAUNAK, euren aita Santiagori, eta baita gudariak esaten ebenai begira.

ZERGAITIK AITA ?:

– Arana ta Ansotegitar Santiago aitak:

Neure seme laztanak, ni enintzen matxinatu VIIIn Karlosegaitik, gure erlijio eta Bizkaiko edo euskal Foruengaitik baiño.

Arana ta Goiritar Koldobikak esanda, gudari karlistak esaten ebena:

Santa Kurtz apaizak guri, sekula ez euskun erakutsi ; Gora VIIIn Dn. Karlos! esaten.

Guri: “Gora Erlijioa eta Foruak” aldarrikatzen baiño ez euskun irakatsi.

Eta olan izan zan, “erlijioa” izan zalako elburuaren ardatza gauza guztien gaiñetik, naita Foruak ezereztuten ba ziran be.

Ain sakontasunezko sinismen sendokoa izan zalako euskal gizartearena.

Europako liberalak baiña, beste gaiezko eginkizun bat gura eben orokorrezko gizarteentzat: sasi-katoliko ta sasi merkantilismoaren eritziz asmatutako batzango elburuen serbitzura zana, Jainkoak ipinitako Lege guztien gaiñetik.

Ikragarrizko amiltzegira ekarri dozkuna danori:

Bizitzaren gizako-eskubideak ekanduzko zeregiñ maltzur bidetik egipideratuta ekarri doguzelako.

1.879ko urtean Frantziko iraultzaren bitartez artu ziran, eskubide guztien kanpoko erabagi oneik, eta ez dago beste konpon biderik, bereztasunaren oiturazko bideak berrezkuratzea baiño, bestela JAINKOAREN Legeak aurkezten dauskun amiltegi orren arazoa bertan dago.

Noz konturatuko ote gara, mundu onetako ordezkartzaren arduradunezko jokua ez dala txantxetako ?:

“Sasi-arrokeriaren maltzur ta guzurrezko jokutik aldendu bear doguz gure ekin-tzak”.

“Ez guk esaten dogulako”.

“Bereztasunaren aurrean okerrak izanez gaiñ, ezin diralako edo egokirozko lekuri ez daukielako zeatzezko zentzu andi ta orekazko eginkizunetan, jaungoikuak beren borondatean, olango legeakin gai bereztuta daukalako bizi au”.

1.876tik 1.879ko Azaroaren 4rarte iraun eban euskal jaurkintzaren debekatasuna konstituzioaren legezko baimenean.

1.876an Abenduaren 23an Atxatar M^a Jesus, Aranatar Santiagoren amagiñarreba il zalako, itzuli zan Santiago egon zan atzerri lekutik, eta ez zan geiago erbestera joan edo atzerriratu.

1.876ko urtean espainiarren errepublikako lenengo lendakaria izan zanak, idatzi eban liburuan “Las Nacionalidades” esaten eban:

“En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia. No los une a los demás pueblos de la península, ni la raza, ni la lengua, ni el carácter, ni las costumbres, ni las leyes”.

"No siguen el movimiento político del resto de la nación. Vencidos, se les ha arrebatado con los fueros la exención del servicio militar y de los tributos.

¿Son por eso más españoles ?.

Es indudablemente el resultado natural de la diversidad de razas ese antagonismo que entre ellos y nosotros existe.

A poco que se combine aquí los distintos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habrá de estar por la independencia de los vascos.

¿La consentiría España ?.

¿Se está seguro escribe en otro pasaje de su libro "Las Nacionalidades" que esas y otras provincias no vuelvan a levantar pendones por sus antiguos fueros ?.

En mi opinión duerme el fuego bajo la ceniza".

1.878an Otsailaren 28an Euskaldunak zeozegaz lasaitzeko, 8 urtearen epe baterako oldoztuta baieztatzen da Bizkaiko Aldundiaren arduraren "Diruaren Antolakuntza"⁽¹⁾, gero 1.887, 1.894, 1.906, 1.925 urtetan eguneratzeko.

1.879ko urtean Aranatar Koldobika, batxillerrezko laugarren ikas-mailla eskuratu eban eta beren gurasoak, A-Koruñako Laguardiara bialdu eben Josu lagunaren ikastetxera etxegillearen ikasketak beteteko.

1.879ko urtean Nozedaltar Kandidok, VIIIn Karlosen ordezkoa zanak, osteran antolatatu eban karlistaren alderdikidetasuna katoliko izatasun lez, euren alde egon ziran aldizkariaren laguntzarekin.

Aldizkari oneik eraso gogorretan ibili ziralako, Pidalta Alejandrok beste karlistaren eritziak bideratzen ebezanak "Katoliko Batasunaren" alderdi barri izenakin leia gogorrak euki ondoren, Kanobas del Kastilloren euslari edo gordetzailleakaz⁽²⁾ alkartu ziran, emendik aurrera karlisten eritziak naste aundiagoetan sartuta, "Tradizio-Zale edo Lengozale Elkartasunean" biurtu zana.

1.880-1.881eko ikas-urtea bete eban bakarrik Aranatar Koldobikak, A.Koruñako Laguardian, ez zalako egon maixu-biderik, eta Madrillera joan bear izan eban bere etxegillearen ikasketetan aurrera egiteko.

1.881ko Bagillan Aranatar Sabino Urduñako ikasketak amaitzen egoala gaisotu zan il-zorian geratu arte, bizitzaren askeneko Sakramentuak ille orren 16ko Gorputz egunean artuta, 22ko gauerditik aurrera asita biztuten eta askeneko azterketak ogean eginda, baiña ez eban indar asko euki aurrera egiteko, eta Abandoko etxera joanda, urte bitan egon zan ezer ikasi barik, arik eta indarrak berrezkuratu arte.

1.881eko urtean, Pi eta Margall'tar Franzizkok aitatu eben askatasunaren sua, abandon egon zan, 17urte eukezan gazte baten bulerrear:
"ARANA TA GOIRITAR SABINO" IZAN ZAN GAZTE AU.

1.882ko urtean Koldobika Galiziaren Laguardiako ikasketatik etorrira egoala, ez dakigu inork noren bidetik⁽³⁾, Euskalerraren egoera politikoagaitik arduratuta, jakin eban zein zan Euskalerraren egizko arazoa, eta Sabino 17 urtegez oraindiño bete osasuna berrezkuratzeko eriondoko aldiaren ogean egoala, Luisek jakin ebezanak Sabinoren ezauntzan ipini ebazan, eta egun bereinkatu orretan onek, ziñez itz emon eutson, bera indar guztiekin arduratuko zala Euskalerraren arazoagaz, eta ez zala geldituko, arik eta arazoaren azkeneko arrazoiak jakin arte.

Sabinok, egun orreitan eta Koldobikaren aotik jakin eban: "Bizkaia Euskalerra osoa lez, ez zala espainiarren lurralde bat, ez nortasunaren izatezko bidetik ezer, ez bereztasunaren, ez eritiziko bidetik eta gitxiago edestiaren aldetik, eta berba oneik esan ebazan":

(1) Diruaren Antolakuntzak = concierto económico. (2) Euslari edo gordetzailleak = conservadores. (3) Naita susmoa, Batzelonan egon ziran denboran, Kataluñara erbesteratuta egon zan Urduñako apaiz batenak izan.

“BEREINKATUA IZAN DAITELA NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA, ETA BETIRAKO ESKERRONAK, ERBESTETASUNEZKO LAINU BALTZETATIK ATARA NINDUANEI”.

Anai biak bat izan ziran ortik aurrera Euskalerrriaren arazoetan, Luisek bere anai Sabinok euken ulertze aundiagoari, beti erkidetuta lagundu eutsolako agertzen ziranak arazoaren argibidetan.

1.882an Dagonillaren 11n euren irugarrenengo anaia, 1.851ko Epaillaren 30ean jaio zan Arana ta Goiritar Juan il jakien, etxeko sendi guztiaren miñ edo oiñaze andienagaz, bere aita Santiago ta Paskuala amak, itxaropen aundiak euki ebezalako beren itsas-ontziaren egille izateko ikasketakaz.

1.883an Bagillaren 24an euren aita Aranatar Santiago, karlistek gudan uts egin ebenetik oso minduta gaisotu zan, eta Euskalerrria espainiarrengandik menperatuta geratu zanean geiegizko larritasunean sartuta, San Juan egun onetan, gabeko 11etan il jakien.

1.883an amak, Koldobika ta Sabino Bartzelonara eroan ebazan, Eraman-Ona⁽¹⁾, Lege jakintza⁽²⁾ eta Elertia⁽³⁾ ikasteko, bai bitartean Arturo Kanpionek atara berri eban “Gramátika Baskongada” rekin euskerea ikasi be, len gaisorik egon zanean “Ban Eys” olandarraren iztegi ta gramatikarekin egin eban lez.

1.885ean Sabinok 20 urte eukezala, eta naizta geroago argitara emona izan, “Gramática Elemental del Euskera Bizkaino”, 200 orrialdekoa osotu eban.

1.888an Otsaillaren 11n gabeko 4retan il zan Goiri ta Atxatar Paskuala, Sabin ta Koldobikaren ama, eta ortik aurrera Sabinok, ez ebazan legezko ikasketak aurrera eroan nai, aita ta amaren esanak bertan utzia.

Beren gogapenak alde batetik sendagillarenak izan ziralako, eta beste aldetik, euskerea ikasten biotz guztiagaz ibili zalako.

1.888ko Uztaillan, Bilbora etorri ziran Koldobika ta Sabin anai biok, eta ortik aurrera il arte, ikaragarritzko lana egin euskun lumaz ta mingaiñez.

1.888an Epaillaren 4an espainiarrak Euskalerrriko meategiaren Foru legeak ezerez-tuteko eurenak ezarri ebezanean, agertu eben araudian XVIIIn legezko atalaren leen idazpuruak txantxa edo izeka lez, auxe esaten eban: “*Que no se saque vena para reinos extraños*”.

1.892ko urtean ez da arritzekoa Somorrostroko idazkariak, bere agiri baten auxe esatea: “*Esta cuenca, que ha contribuido al noventa y uno por ciento de la producción total, está acaparada por los ingleses*”.

Orregaitik espainiarrak 1.888an agertu ebezan legeak, lotsabakerizko txantxa bat bakarrik izan ziran Euskaldunai egin euskuena, euren barnean jakin ebelako asmo maltzurerekin, lapurretako ekintzan ibili zirela.

Eta ez da arritzekoa, FAZIZTA menperatzaileen ekintza izkilluaren indar bidez, besteak egiten dauna, eurentzat artzen dabelako.

Beste gauza txar batzuk sortu jakuzan euskaldunai ortik aurrera, eukal izaera gartsu edo oldartsua dan lez, edesti guztian lez al izan garela edozein ekiñaldiko lanbidetik, bizitzeko bear doguzanak egin edo ta sortzeko, eta espainiarrak ori ikusi ebanean, oso osoan joan ziran gure barnean daukaguzan oldozmeneko almen orreik, lapurrezko guzur elburuarekin menperatzera.

Ez dira konturatzen, lapurtza orreik, erri-iltzaillearen eritzizkoarenak direla.

Eta Frankori, bere ospe andiko bost urteko egitamuarekin sortu jakon lez⁽⁴⁾, espainiar langilleak prest egon zirala guk egiten genduzan lanak lapurrezko bidetik eurak egiteko.

(1) Eraman-Ona = Filosofia. (2) Lege jakintza = abogacia. (3) Elertia = humanidades, letras humanas, o, literatura.

(4) Bost urtearen egitamuarekin = planes quinquenales de Franco.

Lantegiak euren lurraldeetan ipini ebezan gu beartsutasunean ezartzeko, eta eurak daukien "*Nacional Catolicismo*" asmo orreitan, Euskaldunak asmo-mende orrekin erre-zago urtu gindezen euren norkeripean, Zaragoza, Balentzia, Galizia eta Andaluzian ipini ziran lantegi guztiak, azken gaizto edo utsegite andi bat euki ebela.


Eta ez ziran izan gai aurrerantzean, burni langintza orreik aurrera atarateko.

Baiña Euskalerrarentzat zoritxarrena batez be, gauza guzti oneik gure artean aber-tzale ez ziran jauntxo aberatsarekin egin zirala da.

1.901ean Dagonillaren 23an espainiar "erri irakaskintza eta arte ederraren gobernu-ko ministruak", 1.896an Epaillaren 6an Oñate ta Euskal ikastetxe nagusiari emon ja-kien baimenezko legeak indargabe geratu zirala esan eban, eta Euskaldunak ezereztuteko aginte orren ondorioz, ikastetxe nagusi barik geratu giñan.

1.925eko diru antolakuntza ori 25 urterako oldozmenduta egon zan, baiña, 1.937an Frankok "ezereztuteko aginduaren" agiri bategaz, Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundiaren almen orreik kendu ebazan.

1.952eko urtean Arabak barriztatu ebana, eta oraintsuago 1.977an.



6. Zatia.

Lan guztiaren ondorioa.

1.789ko urtearen eskeroztik ona karlistaren 2 edo 3garren borrokako azalkera onetan ikusiaz gain kontuan artzen doguzenak:

- a) Zertarako egiten dodan lenengo oarkuntza.
- b) Frantzian zergaitik egin zan iraultza eta zertarako.
- d) Zelango lege-mota izan zan 1.812'an Epailla'ren 19'an Kadizen atara eben espainiar guda nagusiak.
- e) Europa ta mundu guztian, orduan menpeko legearekin artu ziran erabagiak, zelango eragipenak daukiez gaurko legezko araudietan.

Erantzunak.

a) **Lenengo oarkuntzaren asmoa, berezko Nortasunaren bereiztasunak ondo ulertzea da**, kontuan euki eta jakin dagiguzan bakotzaren eskubideak zeintzuk, zertarako, eta zergaitik geratu bear direzan bananduta:

b) **Frantzian, iraultza zergaitik egin eta zertarako:** Europaren etorkizunari begira, aurrerakuntzako oinkada barri bat emon bear jakon, diru kontuan, nekazaritzan, merkataritzan, burnigintzan eta eurentzako bear ziran lantegi gintzak, ordezkariaren arduratan ibili bear genduzan gauza guzti orreik, beste egokitasun barri batzuk eskatzen ebezalako.

d) **Zelango lege-mota izan zan 1.812'an Epailla'ren 19'an Kadizen atara eben espainiar guda nagusiak:** Zapaltzaillea zalantzarik bage.

Europaren etorkizunerako, orduan egokitu bear ziran, Giza eta Berezko Errigizar-teak daukazan eskubideak, Munduko eta Europaren jendekuntzan alango aurrerazko oinkadak emon ezkerro, bera osotzen dabean ordezeko egille guztien eskubideak, neurri bardiñean zainduta aurrera egin bear ebelako.

Ez ziran gai-gizaren eskubideko neurri orreik kontuan artu, liberalismoaren jaurkintz asmoak ekarten eban guda indarrezko bizkortasunagaz, eskubide guztien gainetik ezarri zalako.

e) **Europa ta mundu guztian, orduan artu ziran erabagiak, zelango eragipenak daukiez gaurko legezko araudietan.**

Guda nagusiaren gudu indarraren erasoakaz, menperatzailletasunezko diru-merkantil legedi orreik, maltzur ta lapurrezko araubide lez ezarri ziranetik, eskubidebageko ta goitik berako agintaritzan daukagun antolamendu guztia ustelduta dago.

Edo ta mundu onetan baten bat arrituko ote jaku, lapurtzako legedietatik, lapurrezko emaitzak agertzen diranean ?.

Munduan, Europa osoan, eta espainiar lurraldean lapurrezko asmakizun onegaz battez be, JAINKOAREN Araudizko Legetik kanpo kokatuta, ankaz gora daukaguz, Izadi onek bere Bereztasundutako almen guztietan JAUNGOIKUAK oinarrituta daukazan eskubide guztiak.

1) Nortasunaren zentzuzko izatasuna:

– Bereztasun onetan naita naiez jaiota, eta bizitzeko bear doguzenak jakin gurean, azter bideko azi ta eziko azturan oituratu bidez, bizi onen egizko zergaitiak lortzen doguz gure baitazko eritziarentzat.

– Eta gure artean oitura orretan erkidetzeko sortzen dogun izkuntzarekin, zarratzen dan berezko egi bat izanez gaiñ, Nortasunari emoten dautson bereiztasunezko egia da.

Errigizarte guztiak, JAUNGOIKUAK mundu oneri asieratik ipini eutsezan lege bardiñekaz baliotu bear izan dira beti, asieratik danontzat lege bardiñak diralako daukaguzenak, eta eurei, iñoren almenean ezerezko aldakuntza txikienarik egiteko be euki barik, gure irazale edo sort-arazlearen ezintasunetik, eta asmatzaille almena bakarrik eukinda, ez garelako iñor, Beren legerik edo ta legeetan, ikutu edo sudurrak sartzeko.

Ori da Euskalerrriaren egia Ludi onetan, mundu au beste errigizarte batzuekaz daukezan beste ulermeneko baitakin osatzen dauana.

Eta leiñu bakotzaren azkuntzazko oikuntzan lan eginda ezberdiñetako izatasunean agertu arren, ori ote da arrazoia, batak bestea menperatzeko edo ta bata bestea baiño politagoa dalakoan ganorabako baten eritiz ta indarrez besteak menperatzeko ?.

Baita beste alde batetik begituta, baten batek bere etorkizunezko il-zoria kontuan artu barik arro, edo ta berak sasijainko indar asko eukiten dalakuan besteak menperatu edo errigizarteak berak gura dauan eran nastekatu al ote dituz ?.

2) Nortasunaren izatasunezko ABERRIAK, eta Norkeriz asmatutako aberriak:

– Goian ikusi dogu, zelan Nortasunaren zentzuzko izatasunak, leiñuaren berezko oikuntzazko azkeratik osotzen dirala Erriko Aberriak lez, erkidetzeko sortu eben izkuntz bidetik izena artuta.

– Eta orreik dira mundu onetan, Jainkoak Bereztasundutako Lege bidetik erakusten dabezan izaerak.

– Asken baten, beste gorengo mailla baten erkidetu (**ez batzangotu**) bear direnak, Jainkoak sortutako Ludi onen gai au, danoren ardurazkoa biurtu euskulako.

– Eta gai mundu onen ordezkarietzako bizi ekintzagaitik beartuta, sortzen jakuzan gauza guztien antola bearra ta lan guztien garbitasunezko bidetik bear dabezan “**Ore-kak**”, danoren ordezko ardurakaz zaindu bearrean aurkitzen garelako da.

Aberriak ote dira baiña, Norkerizko asmokin gizarte ezberdintasunakaz sortzen diran batzagosunak ?:

Batutako errigizarte orreitan, euren baimenik bage eginda badagoz, ez dira ezer, edo ta beste erabatera esanda, Jainkoak ipinitako Legearen aurka, batzuen norkeri bidetik eta arrazoibako indarrakaz egiten diran batzagosunak, sekula ez dira izango Aberriak, gauza orreik ez daukielako BEREZKOTASUNAREN ZENTZURIK.

Bestela begitu dezagun zer esaten dauan J. Kasaresek espainiar erregeen ikastetxe-koak:

“Lugar, ciudad o pais en que se ha nacido.// Este mismo pais con sus habitantes, tradiciones, costumbres etc., en cuanto es objeto de cariño por parte de los naturales de él”.

Eta nik gafiñeratuta: "Cariño que como es obvio, procede de la familia directiva educacional padre-madre y de la relación lógica de comprensión religioso idiomática en la que los naturales se desenvuelven".

EUSKALDUNTASUNAREN NORTASUNEZKO ABERRIA:

ABERRIA Euskeraz baiña, aita-ama gurasoaren ondorengotasunetik agertzen jakuna baiño gauza andiago bat da.

Jaungoikuak mundu au irasi eta Berak oiñarritu ebenean, erperatu eutsoezan legezko araudiaren zentzuakin, Paleolitiko ezkeroztik Beren Lege orreik Euskal jendekuntzagaz ulertzea lortu leikezanak dira, milla urte askotako epean ekarri dabezelako euskaldunak gai-gizaren askatasunezko eskubide demokratiko orreik, sinismeneko oituran, euren baitan irarrita nortasunaren irudizko-eritzi lez.

Orregaitik Euskaldunak euskereagaz euren baitan irarrita ekarten dabena, ez da ikusten dan gizaren itxurazko gai ondorengo bat bakarrik, mundu fisiko oneitan bere leiñuzko gai-gizaren bereziak ondorengotasunean naitaez BARRIZTUTA ekarri bear izanak izan arren, auts biurtzen diralako.

Bizi bizian oituratuta ekarten dabenezanak etenbako zifiekintza baten eta sekula iltzen ez diran zentzuan, Jaungoikuaren Legeekin ulermendu ebezanak dira, ondorengo baita lez laga edo ordenuz izten dabezanak euren urrengo gizaldiari, gaurko euskaldunak, Omo Sapiens'en asieratik, askatasunaren demokrazizko edesti guztiaren aitortza ekarriz.

Orregaitik Euskerea be, azturaren sortzezko izkuntza izan da, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz bat bezela, maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko tresneria bakarrik.

Bera biurtu gendulako AMA, euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik maitasun guztiagaz bideratzeko.

Euskereak daukan NORTASUNEZKO irudiagaz itxuratzen gaitu Euskaldunak.

Eta ez da txantxetako jokoan ibili bear dan gauza bat, Euskaldunak JAINKOARI euren edesti guztian eskaifñi eutsoen eguneroko AITORGILETASUNA dalako.

NORKERI BITARTEZ SORTUTAKO ABERRIAK.

Edestian argi ikusten diran gauzak dira, norkerizko menperatzailleak euren asmoetan dabizen erri ezberdiñeko gizarteak menperatu gurean, eta sasi-jainkotasunaren garaipenak lortzeko egiten dabezan bear-kuntzazko naastekatasunetik sortzen diralako izkuntz barri baragarriak, erromatarren menpeko ekintzagaitik ainbat latín kume sortu ziran antzera.

Latiña bera be, asmatu ta egindako izkuntza bat izan da, ez da erri baten azturan edo ta lanezko oikuntzatic sortzen dan jen-kuntzazko izkuntzalakoa, Berezko erri maitasunagaz eginda dagoela erakusten daualako batek bere orekatasunean, eta besteak menpekotasun kirrinkako abesti baten datorrena, itzak euren ezberdintasunaren esangureko naste bidetik, ots elkargoaren osagarritasunezko zentzua galduta ekarten dabelako.

Orregaitik: Euskerea, euskaldunaren izkuntza da.

Baiña: "Gaztelera, espainiar izkuntza ote da?"

Zer dira: Katalan edo Nafarroa-Aragon bitarteko, eta Bable izkuntzak?.

Laterriak: "Aberriak ote dira ?".

Espainiar menperatzaileak gure daben: "Nacional Catolicismo" ori, Aberria ote da?.

Menperatzaile oneik, nungo jaungoikuari gurka ote dabiz ?.

Nora juangoote dira ainbeste nasteekin, gero espainiar katolikotasunaren guzurrezko aberriekin aurrerantza joan ezkeru ?. Gai-Mundu onen biribiltasunaren antzera, "guzurra"ri gaur geratzen jakon bitartegaitik, biribiltzeko ?.

Ludi onetan Jaungoikuaren Legetik kanpo, iñork ezin dau bere legerik ezarri, giza-kiren almenean ez daualako ezerezetik ezer sortzeko gaitasunik, eta bere asmakizunezko esku-mendea ez dabelako emoten ainbesterako.

Gai guztiaren almena daukagu gure esku artean ibilteko, baiña JAUNGOIKUAK ipini eutsazan baldintzakin, eta emaitza orreik BEREZTASUNEAN jokatura bakarrik lortzen dira.

1.823garren urte onen askenetan, VIIIn Fernando, espainiar gudaiburu jaungoizaleak beartuta, espainiar konstituzio barriari ziñez itz eman bear eutson "**sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquía**" esaten ebana, eta gero "**sin detrimento de la unidad constitucional española**" biurtuko zana.

VIIIn Fernando ortik aurrera, ez eban inkiziziorik barriz ezarri, erregearen betiko antola bideak berrezkuratzeko bertan itzita.

Eta guda agintariak beartuta, erregeak espainiar jaungoia ziñatu ebenetik atara ebezan lege guztiak, batzangotasunezko jaungo aldera urbiltzeko izan ziran, Euskaldun, Katalan eta Galiziarren baimenik bage, edo txarragoa dana, guda indarrarekin, euren eskubideak zapalduz gaiñean ezarrita, batzangotasunezko kaizar katoliko lege orreitan urtu gindezan.

Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan orren azpitik ?.

Nun egongo ote zan Europaren Ekanduzko aolkulari nagusia ?.

Europaren merkantillezko eragipen orregaz, IIIn Isabel eta Vn Karlosen espainiar anai arteko ondoriozko guda orreik, euki ba eben be, ez eben euki erregetzaren aulkigaz zer ikusirik, ondorio ori aitzakia bat baiño besterik ez zalako izan.

Erregearen irudiak ez eben ezeren artekari, epaille edo ta bitarteko indarririk euki ortik aurrera, ostondutako indar aundi orreik panpiñeko irudietan biurtu ebezalako.

Euskaldun, Katalan, eta Galiziarrek antolamendu au da arrazoiz eta arrazoi guztiagaz, batera erasotu bear doguna, Europa eta munduan Jainkoak ezarritako berezko legearen zaletasunezkoak diranekin batera.

EUSKALERRIA eta MUNDUAN BEREZTASUNEZKO JAUNGOIKOAREN LEGEAN JAI DIRAN ERRIKO ABERRIAK, EZ DABELAKO MEREZI, EDESTITIK ZEAR SASI-KATOLIKO ETA BESTE ERLIGIO FAZIZTAK EGITEN DAUTSENA.

ERLIJIOA (religare), JAINKOAREN LEGEPEAN EDO GAIK DAUKAN LEGEAGEAGAZ ERKIDETZEKO DA !!.

SEKULA EZ, GUK ASMATUTAKO LEGEPEAN.

EUSKALERRIKO SEME-ALABAK, OR ALKARTU BEAR GARA EZEREN AITZAKI BARIK.

**Atutxa'tar Paul
Zornotzan 2.012an Epaila'ren 19'an**

BIBLIOGRAFIA.

- “Añamendi eziklopediatik”
- “Labairu ta Goikoetxeatar Estanislao Jaime” “Historia General del Señorío de Bizkaia”.
- “Reader’s Digest” “Gran Diccionario Enciclopédico Ilustrado”.
- “D. Victor Gebhardt” editado en 1.863 “Historia General de España y de sus Indias”, VI n ataletik artutakoa.
- “D. Atonio Piralak 1.893an argitaratutako “Historia Contemporànea”.
- “Aranburuk” argitaratutako “Historia General del Pais Vasco”.
- “Julio Eyarak” argitaratutako “Euskalerriko Edestia”.
- “Sabindiar Batza Argitarazleek” argitutako “Obras Completas de Arana Goiritar Sabin”.
- “Agustin Blazquez Fraile” espainiar edestiagaitik argitaratu eben “Gran Historia General de los Pueblos Hispanos”.
- “Manuel Alvarez” argitaratu eban “Historia de España”.
- “J. Kasares’ek” de la Real Lengua Española zanak ta argitaratu eban “Diccionario Ideológico de la Lengua Española”tik artutakoak.
- “Antonio Ballesteros eta Berettak” argitaratu eban “Historia de España y su influencia en la Historia Universal”.
- “B. Beatriz Canton, M^a Nieves Diaz, eta M^a Cristina de Pablo’k, argitaratu eben “GIZONAK” ren liburuetatik.
- “Arturo’tar Kanpione’k” argitaratutako “NAVARRA EN SU VIDA HISTÒRICA”:
- “Lasa ta Apalategi’tar Josek” argitaratutako “EL PUEBLO VASCO DEMOKRACIA TESTIGO DE EUROPA”.
- “Mujika ta Berrondotar Plazidok” argitaratutako “DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO” “DICCIONARIO CASTELLANO-VASCO”.
- “EUSKAL HISTEGI ENT’ZIKLOPEDIKOA”.
- Zeferino Jemein’ek egineko “Biografia de SABINO ARANA”’tik.
- Eta “Barroeta ta Amorrortu’tar Klaudio’ren, ezin dodan eskertu laguntzarekin.

E

Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen

“Semea izan ote zan ?”

1. ZATIAN.

Egillea´ren aurkezpena.

Liburu onen egillea, Berd eta Mortorell´tar Gabriel da, eta nik bere bizitzari buruz dakidanaren aurkezpena auxa da:

1.955´eko urtean Baleares ugarteko-lurraldeetan Mallorca´ko Montuiri errian jaio zala.

Eta txangolaritzaren antolaketatik lortzen ebala beren bizitzazko ogi-bidea.

Berd baiña, ez da edozelako gizona, bere ogibidearen lanez gaiñ, bere erriko edestian illunetan geratzen ziran ezaukizunak ⁽¹⁾ argitzen, andiak izan diralako emankortasunezko 10 urte luze alditan emon dauzanak, ikerketaren bidez.

“CRISTOBAL COLON, ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL” da bere lan aundi au, 1.989´ko urtean argitaratu ebana lenengo irarkaldian, eta 1.992´ko Epailan bigarrena.

Berak erabili bear ebazan liburuaren kopurua edo bibliografia, bere orrialdeko zerrendan etorriko da, konturatu gaitezen, ibili bear izan eben denbora bear izan ebela, lan andia izan dalako berak ikertzaille lez azterkatu egin dauana, erandoki edo mosaiku ⁽²⁾ ori osatzen dabezan arrazoizko zati orreik ⁽³⁾ bere tokietan ipinteko.

Zetan ezanik bez, Euskalerrriak zor aundiak daukazala Gabriel´ekin, bere erriaren edestia argituz gain, gure erriaren edestiko antzezleri nagusien ostonduta egon diran bizitzak be, argira agertu dabezalako.

Oarra.

Lan onen asmoa, ez da Berd ta Martorell´tar Gabriel´ek ikaragarritzko ikertzail lan bidetik idatzi dauan “Cristobal Colon era Noble y de sangre real” liburu berbera ataratea.

Ez.

Nire asmoa Euskal edestiari buruz alango lan bikaiñaren aurrean, Euskalerrrian ezagutzea da, euskaldunak gero ta geiago arduratu gaitezen gure etxeko gauzakaz eta konturatu beñ eta betiko, gure arbasoen bidetik oiñarri lez, sustraituta gagozela daukagun berezitasunaren nortasunezko izaeran.

Zor aundiak daukaguz JAUNGOIKO eta gure ARBASOEKIN, euskal baitaren ekandu eta orokorrean erri lez, jendekuntzazko itxura eder onen oiñarrietan erperatuta agertzen garelako, eta berezitasundutako mundu onetan gure txandako bizitzan zorrezkubidetatik

(1) Ezaukizunak = ezaun-bearrezkoak. (2) Erandoki edo mosaiku = mosaiko. (3) Arrazoizko zati orreik = razones con las que completar el jerogüifiko, o, mosaiko racional de esta historia.

sortzen jakuzan antolazko zeregiñak, euren eta beti izan bear dan ekanduzko demokraziaren lege ederrean ordezkatu bear doguzela, danok Jaungoikoaren lege zarrak aginduten daben lez, askatasunezko demokrazi zabal ta baketsu baten bizi gaitzean.

Gure Euskalerra maite onek bere ekanduzko izaeran, askatasunezko demokraziaren nortasunezkoa izatearren, ainbat etsai fazizta daukoz, Jainkoak bereztutako gai oneri ezarri eutsozan legeari jaramon egin barik, eurak euren asmotan indarrez ezartzen dabezan batzango legeetan gure dabelako gu bizitzea.

Ezinezkoa da baiña, ekintzazko asmo ori, Jaungoikoak Gai-Ludi⁽¹⁾ oneri bereztu eutsozan lege guztien aurkakoa dalako.

Orregaitik gaitzesgarri eta nazkagarriak egiten jakuz, maltzurrezko guzurti orrein ainbeste kaizarkeriaren batzangotasunezko alegiñak, asperbidezkoak ⁽²⁾ izan da, aspergarriak ⁽³⁾ be badiralako.

Fazitentzat ez alderantziz, bizitz onen ordezkartzazko gai-tresneri guztiak euren esku artean eukiten alegintzen diralako, gero indarrezko ekintzaren elburuakin ibilteko asmoan.

Arrigarria da baiña, euren bizitzaren il osteko itxaropenari, iñundik iñora begitu barik egiten dabezala, egiten dabezan gauza guztiak.

Egalper edo ostruka'ren buru ostondurena egiten ote dabe, asmatu daben diruzko sasi-jaun estalkiagaz ?.

Ba ote dago JAUNGOIKORIK eurentzat ?.

Eurentzat nire ustez, diruzko irudimemenean urrezko-tzekorragaz, lillura⁽⁴⁾ edo ta atsegintasunaren distiadurazko bidetik⁽⁵⁾, erakarpenezko zirikada aundiak daukiezala, beren menpetasunaren zoraldizko eragipenetik ain errez urteteko.

Orregaitik nire ezkeron aundienak Berd eta Martorell'tar Gabriel'eri, bere lan aundi onegaz, politika maillan ostondu gure izan daben gauza bateri, gauza izan dalako euki dauan mozorrotasunezko estalkia kendu ta argitara zabaldu, berezko arrazoi bidez gertatu zirenak argitasun ederrenean ikusi daiguzan.

Idaz lan onen aurkezpena.

Lan onen esangura andienak nire aldetik, Mallorkako Berd eta Martorell'tar Gabriel'ek idatzi dauan CRISTOBAL COLON ERA NOBLE Y DE SANGRE REAL'eko liburutik artutakoak izango dira.

Berak, liburuaren aurkezpenean esaten dauan lez: "La màs documentada y sòlida refutación que de la tan interesada "Tesis Genovesa", se haya presentado jamàs".

Eta nire aldetik erabilitako billakuntzazko liburuak, aurkibideko zerrendan etorriko dira.

Zergaitik.

Beren bibliografian esaten dauan lez, edo ta liburu askotatik iker lanean, galdeketa asko egin ondoren, nire ustez argitasun aundienak emon dautsazelako Kolonen leiñu eta beren

(1) Gai-Ludi au = este universo material-naturalizado. (2) Asperbidezkoa = vindicativo, defensivo. (3) Aspergarria = fastidioso, gravoso, importuno, pesado, molesto, vengable. (4) Lillura = delirio, vèrtigo, mareo, bahido, desmayo. (5) Distiadura = fulgor, brillo, resplandor, esplendor.

izatezko nortasunari.

A ta gusti, liburu onen esangurak ulertzeko, XV-XVI In gizaldiaren denborako bizitzan kokatu bear dira, emen esaten dodazanak orduko denborakuak izanez gain, bereztasunaren zentzuzko arrazoian argi ta egi urbillenean kokatu gaitezten, benetan jakiteko zelan zaintzen ziran giza eskubideak orduko denboretan.

Zelan bizi ziran orduko errege, eleiztar, andiki ta erritarrak, bizitzarako eukezan legezko baldintzakin, eta zelango legeak izan ziran areik ?.

Bigarren baldintzari ebatuta: Legezko Araudia.

Paleolitiko-Neolitiko aldian lortuta, demokraziaren zentzuzko lege andi baten ezarrita etorten zan mundu onen errigizartetasuna, ekialdetik Sargonidakaz, goitik berako kaizar menpeko agintaritzaren baten ipini gurean asi ziran arte.

K.a. 490eko urtean Maratonen medikaseko borrokarekin Grezitarrak, persiarrak Europara ekarri ebezan menperatzaillezko asmoak geratu ebazan.

Arno ta Tiber ibai bitartean baiña, K.a. 753'tik, Etruskoak kokatuta egon ziran lekuan, euren salerosteko mozkiñak merkantilerien zabaltasunezko lurretan kokatu ta eurak ondo apaindutako kirkillerietan bizi ta sortzen ebezan Uriak lapurretatik babesteko:

-Espartar antzeko gudalozteak Latin izkuntzagaz sortu ondoren, naita Etruskoen gogoak menperatzailetasunezkoak ez izan arren, eta sortu eben gudaloztearenak be bardiñ, laster okertu ziran goitik berako agintaritzara eta Europa, Afrika ta Ekialdeko erri geienak menperatu ebezan, K.o. 409'ko urtean Mendebaleko kaizartza ezereztu zan arte.

Blaustada ori sortu orduko baiña, I Konstatinok jakinda, euren asmo indarretan berantza joan zirela, I Silbestre Aita Santuagaz alkartuta K.o. 325ko urtean Nizean Eleiz Batzar Nagusia ospatu eben, ta Kristautasuna Katolikosunezko eritzian alderdikidetu ondoren, ortik aurrera emoten jako indarra zoritxarrez kaizartzazko agintaritzari oster, gure gizarteko eskubideen antolakuntza, menperatzailetasunezko fazizta indarpean iraun egian.

Orregaitik IVn gizalditik aurrera, Jesuse'k Bere aolkularitzazko bidetik ta Berezko legetik sortzen eban Kristau eritzizko zentzu ta izatasunak, eleiztar agintaritzaren ardurazko aldetik bigarren maillara baztatu ondoren, katolikotasunaren erromatar ziñezkintza ipini eben orduko Europa ta muduaren legezko ardatz nagusi lez, berak eukezan menpeko estutasun eta zigorrezko lege inguruan danak jantzan ibili bear izan da.

Afrika, Ekialdea eta Europako giro bizitzak ez ziralako bardiñak izan, eta mendeko lege bardin bat danentzat ez zalako egokiena, menperatzaillezko eritzi orrek laster euki eban, bear eben erantzuna eta Islan'dar erlijioa mauritarak sortu eben.

VIII In gizaldiko asieran moroak Erdi-Ugarte (1) onetara etorri ziranetik ta IX-Xn gizaldiko epean bertan ezarri, bertoko errigizarteak, paregabeko aukera baten aurkitu ziran, danak euren antola egokienak eginda, bereztasunezko zentzu egokitasunean ezarri zitezten.

Euskalerriko antolamenduak baiña errege jaunakin itzarmenezko ongunde demokratikoak

(1) Erdi-Ugarte = peninsula.

euki arren, Leon'goak Pelayoren bitartez (?), godoak euki eben erromatar menperatzaille ta fazizta'tar kaizertzan ezarrita geratu ziran.

Eta Europa guztian gertatu zan lez, bata askatasunaren demokrazizkoa zalako, ta bestea askatasunaren nortasunezko eritzi orreik galduta euki zituzelako, biak katolikotasunaren batzangotasunezko asmakuntz orren aolkularitzapean geratu ziran lotuta, eta bide orretatik erri guztiak mendeko premiñara (1) bideratuz, gaur daukaguzan laterriakaz aurrera joanda, merkantilismo ta diru serbitzu edo morroiketara sortzen jakun lez.

Europa eta munduko gizarteetan ortik aurrera, faziztaren indar aundi orreik erlijiñoakaz nastuta, eta danon dirua zaletasunezko guda-griñean bortxatzeko leku egokienetan ezarrita, maltzur ta guzurrezko bizi ekintza baten gaiñean ezarrita gagoz urten ezinik.

Europa ta peninsula onetako bizia, egia ta guzurraren aolkularitzazko naste orreitan, odoljariozko borroka baten etorten zala, XIn gizaldian sortu ziran Gaztela eta Aragoiko erregetzak, IIIIn Santxo Garzez Aundiak Nafarroako erregetzari lotuta egon ziran lur oiek, banandu ebazalako bere semeen artean.

Gero, XIV-XVn gizaldietan Aragoiko erreñuari, Kataluña, Balentzia eta Balearseko ugarteak egokitu jakozan.

- Aragoiko IIIn eta Gaztelako Vn Fernando 1.516an il zanetik, Gaztela, Leon, Asturias, Galizia, eta moruei kendu eutsezan ego aldeko lur guztiak, ondorioz Alemania'ko Vn eta Gaztelako I Karlos'en eskuetara joan ba ziran be.

-Euskalerriko lurraldeetan, nai Nafarroako erregetza Gaztelatarren edo ta Aragoien(2) guda-legeagaz menperatuta egon, Gipuzkoa ta Arabako lurraldeak ongunez Gaztelatarrekin, eta askatasunezko legean bizi zan Bizkaiko Jauntzagaz batera, laurak euskal nortasunaren barneko oituran euki ebazan askatasunezko Eleiz Aurreko Batzar jabetzapean bizi ziran.

Errigizartearen izaerazko oitura demokratiko lez, Euskalerrian itzarmen bidez aukeratzen ziran antolatzailezko agintariak, euskal batzarpeko errege-jaun demokratikoak euki ebazan, eta Aragoi ta Gaztelako erreñuak sortuta, Asturias ta Leongo erromatar erreñu katolikoak euki ebazan goitik berako kaizar agintaritzan ezarri ziran lez, Euskal-Baitaren oiturazko-demokrazitik kanpo geratu ziran.

Eta Europako errietan ekintza orren bidez, Mendebal eta Ekialdeko erregetza guztiak, bai ta Euskalerrian egon ziran errege-jauntzak, katolikotasunaren ziñezkintzapean guztiz lotuta eta errege-erregiñ guztiak senidetuta agertu ziran.

Orduko erregearen garrantzidunak ziran epaiketazko zeregiñak edo ta antolamenduzko ardurak, katolikotasunaren eritzizko legepean betetea zan.

-XV-XVIn gizaldietara eldu giñanean baiña, eta agertu ziran aurrerakuntzakaz, erregeak, euren orokorrezko agintaritza lortu gurean asi ziran, eta lenagotik lapurketan egiteko euki ebezan maltzurrezko trikimailluak sendotuz, ekanduaren maldaberazko guzur bideak ezin besterarte zabalduz ebezan.

Argi ikusten da emen, Jesus'en berezko aolkularitzatik kanpo, giza bidea katoliko batzangotu egin gura ebenetik, sekula ez dala aurkitu zentzunezko egokitasunik.

Adibidez: 1.238-40'ko urteetan Nafarroako errege I Teobaldo Lur Santuetan egin eban Gurutzada Santuaren ostean, 1.246'ko urtean, eztabaida oso gogorak euki ebazan euskal

(1) Premiñakin = necesidad, obligaciòn, fuerza, precisiòn. (2) Nafarroa norentzat menperatu eban, Aragoiko IIIn Fernando katolikoak ?.

Foru-Jabetasunaren gora beran Ximenez ta Gazolaz'tar Pedro gotzaiñarekin, gotzaiñ onek Nafartarren erregetza, zalantzan ipinten ebalako.

-Bai ariñagoko Aita Santuak be, VI In eta VII In Santxotarra, eskutizetan oiturazko "REX" idatzi barik, "DUX" izenakaz idazten eutsielako, euren katolikotasunaren aolkularitzazko agintari nagusiko maillatik euki ebezan asmoak, mundu onen errigizarte guztiak, erromatar batzango-mende zentzuan egokitzea zalako, eta Euskalerrriak Jainkoari begira bere baitazko zentzuan lortu ebazan askatasunaren demokrazizko izatasun sendoakaz oker-egin edo ta etsai amorratu lez artuta, euskal askatasunezko demokrazi ori ezereztuten ibili dira beti.

-Aita Santuak baiña, erromatar guzur andi ori lar-agirian geratuko zala ta, I Teobaldok Gurutzada Santuetan egin ebenagaz kontuan artuta, lege berezi bat agertu eban: "Bere baimenik bage, iñork ezin ebala I Teobaldo eleizatik kanporatu", esaten ebana.

-Guzti au dator, Europaren katolikotasunezko legean, errege baten bat exkomunikatu edo ta eleizatik kanporatu ezkeru, edozein printze edo ta errege egon zala baimenduta, errege aiek bota eta eurak ezartzeko erregetzazko jaur-alki orreitan.

-Geroagoko erregeak, lege orreik erinduten (1) joan ziranak, Aragoiko II In Juan Nafarroako erreñuan egin ebezanak edo ta bere seme II In Fernando katolikuak beren eskontzarako, bai eta Nafarroako erregeak ezkomunikatzeko alegiñean euren erregetzatik kanpora botateko, buldak eskerniatu edo ta ñabartu (2) egin ebazan antzera egiteko, eta abar.

Beste ikus leku batetik begituta, artu degun Manzanotar Maisuak "Kristobal Kolon" idatzitako liburuan esaten dauana: Kolon'ek itxaso zabaletara urtetea lortzeko, bere bizitzan euki ebazan garrantzizko zazpi urteen gora berak (1.485-1.492) ikertuz:

Sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.

Aurrerago ikusiko dogun lez, Kolon, erregearen semea zan, eta ama nai aberatsa izan arren, erri koskor edo mailla txikikoa izan zan lez, ortik agertu ote jakozan, bere bizitzazko lan aundi guztien onartzeko arazoak ?.

Eta orren aldi bat beintzat jakiteko, orduko kaizar legearen baldintzak ezagutuko doguz:

-Gaztelatar Alfonsotarren erregezko legeak, zeatz eta garbitasun guztiagaz debekatzen dabe, andre edo ta emakume txipiki, xume (3), edo ta oakaideakaz (4), errege, printze, duke, konde, andiki eta abarrekin ezkontzea, gizarteko maillan eurak edo gurasoak azpikoak izan da "ez zalako egokiena edo bear bezelakoa" orren goi maillako odolak, emakume xumearen odolagaz nastatu edo ongaizkatzea.

-Eta jakin degun kaizarkerizko lege orreik noraiño debekatuten ebazan ezkontza orreik: "Andiki ta erriko alaba bitarte orreitaitik sortzen ziran seme-alabak, andiki aiek debekatuta eukiten ebela jaioten ziranak, euren seme lez onartzen", eta arrotzezko-etsaikeri (5) bidetik euren gurasoen ondorengo guztiai debekatuta be, umearen aziera edo ta azkuntza, jaiio berri ori, erri-ume (6) biurtuta.

Errege guztiak baiña, sasiko seme-alaba ugari eukiten ebezan (*ta emen itauna*): "zergaitik babesten ebazan guztiak, eleiz ta gobernuaren agintaritzazko leku berezietan kokatuta ?".

(1) Erinduten = refinando. (2) Eskerniatu edo ta ñabartu = falsificar las bulas de Papa. (3) Emakume txipiki edo xumeakaz = mujeres plebeyas. (4) Oaide, mulastin edo oe-lagun = barragana. (5) Arrotz-etsaikeri bidetik = a través de posiciones xenofobicas. (6) Erri-ume = inclusero, o, bastardo.

Orduan, zer edo ta zelangoak izan ziran lege orreik eurentzat ?.

-Eta emendik agertzen dira Kolonen senditasunezko izatearen izkutuzko illuntasunak, zati baten beintzat, bera IVn Karlos Nafar erregearen ta Mallorkako Kolon'tar Margaritaren semea izanda eta bere aita IVn Karlos'en senidetasun bidetik, I Isabel erregeña eta IIn Fernando erregearen berezko loba edo illoba izan zalako.

Edestilariak orregaitik, I Isabel, IIn Fernando katolikoa ta Kolonen artean egoan izkutuko ongune bidetik, Kolonen jaiotasunezko izatea agertzen zanean, Korapillozko itaun mordoATEGAZ aurkitzen ziran aurrez aurre, edestilari batzuk euren Genobako erriaren edo euren irabazkoitasun alde begira, edozer gauza ipinten ebazalako, Berd ta Martorell'tar Gabriel'ek aztertzaile lez, aztarka asi arte.

-Nungoa ote zan Kolon: Jenoba, edo Mallorkakoa ?.

-Noren semea: Genobako Kolontarrena, edo Mallorkako Kolontar Margarita ta Nafartar IVn Karlos erregearen semea ?.

-Ala, Kolonen jaiotzazko senidetasuna, Gaztelako I Isabel ta IIn Fernando katolikoagaz ziñezpeko baldintzakin, goian aipatu doguzan kaizar debekatuzko legeakaz, iñork jakin ez egien nungoa ta zer izan zan, itzarmenduta egongo ote zan ?.

Edo Kolon, Nafartar IVn Karlos erregearen semea izan da, Isabel ta Fernando erregearen leen maillako senidea zalako: Fernando, Kolon, I Isabel, eta beren aolkularitzazko aitortaria zan Ernando de Talaberatar Lekaidea, Abilako gotzaiña, Salamankako batzarretan nagusi, Kolonek euki eban asmoaren aztertzaile nagusia, ta erregeakaz aolkulari ta artekari zanagaz batera, danon arteko egiunezko "Aitor-ixilpe"⁽¹⁾ bat eukingo ote eben ?.

Orregaitik kontuan artu bear dogu, Aragoi eta Fernandok ez ebela euki ezer ikusterik arazo onetan, Eleiza, Gaztela-Leon eta I Isabel ziralako asmo onen yagole edo zaintzaleak.

Orduko denboraren erregeen agindu naiak, feudo edo ta maiztergoko jaunaren lege bereziak ezereztu egiten ebazalako, nai legeilletasunean, epai-legetan eta egilletasunezko arlo guztietan.

Kolon, orduko denboretan ez zan iñungo legearen bereizkuntza edo salbuespen bat.

Orregaitik, 1.491ko urtean errege katolikuak, ararte Granada inguratzeko euki eben kanpaldian eraiki eben Santa Fe'ko Uria, ta bertan ziñatu ziran Granadaren menpekotasuna, eta Kolonek egingo ebazan bidaiaren elkargoak.

Orrez gaiñ, Santa Fe'ko zeregiñaren zentzuzko asmoetan zeozer geiago eukiten ba eben: "berton erabagi zala, erdi-ugarte edo peninsula onetan euren katolikoatasunezko espainiar asmoaren batzangotasuna lortuarate ez ebela atzekadarik egingo, bai-ta erregeak eurak ostondu bear ebezan gauzakaz, itzarmen, azpiraketak, kidetasun ta gaizkideko ixiltasunak erosten ebazanak, Kolonegaz sortu zan bezela, eta euren baitak bakeztu naian, begirune andikoak izaten ziralako sasikume orrein odolakin, batera erregearen odolak be ziralako.

Ni ziur nago, Isabel eta Fernandok aurreko edestiari begira, ez ebela euki euren gogoetan alango batzango barnetasunik ⁽²⁾, gaur Europa guztian bananduta menperatzailletasunezko laterri auk leporatuta daukagunak euki dagiguzan.

Leen, sakontasunezko ikas-bide orreik ikasteko, eurak ez ebelako denborarik euki, eta argi ikusten dogulako Fernando ta I Isabel'ek zer egiten ebezan lege orreikaz.

(1) Aitor-ixilpea = secreto sacramental. (2) Barnetasunik = profundidad, interioridad de conocimientos futuros.

Eta bigarren, edestiari begira alango batzangotasunaren asmakuntza urrunean ikusteko, beronek bear dauan antolakuntza lortzeko, berentzat goi maillako billakarien jakitun elkarte aundi bat bear ebalako.

Orregaitik orduko denboratan Europako erregeak nundik nora ikusiko eben errigizarte ta aberriko gauzatan aifn urrunera, aurrean euken itsaso ta lurak be, ez ba ebezan ezagutzen.

Europa, Asia Ta Afrikako errege-erregiñaren gaiñetik, beste erakunde gogor bat egon bear zan, eurei panpiñak lez erabilten ebazanak.

Nun aurkitu, menpeko batzangotasunaren asmatzaille orrei ?

325eko urtean Nizeako Eleiz-Batzar Nagusia egin zanetik dator katoliko asmakizun ori, eta bertan dira betidanik jakitun orreik, munduan dagon goi maillazko ikastetxe nagusi orren elkarte orretan egon diralako beti, mundu onen Mendebal, Egoalde eta ekialdeko aolkulari nagusi lez.

Bai eta gauza orrein argibide aundiena dana, Zisneros kardinalarekin daukagu, bera izan zalako Nafar erregetza gaztelar erregetzaren menpean edo etsaimendeko lez ezarri ebena, naita katolikuaren azpiko joko ori izkutatzeko, I Isabel; IIn Fernando katolikuak edo ta I Karlos'en izenak erabili.

Espainiar laterritasunaren arrazoiak izan zirela asmakuntza oiek ?

Ez, mundu osoaren batzangotasuna lortzeko alegiñean ibili ziralako.

Eta eten barik ta odoljariozko ixurketa baten etorri dira edestitik zear, berezkotasunaren aurkako batzangotasun orreik lortu ezinik, Jainko legearen aurkakoak diralako.

Baiña, Mundu osoaren batzangotasuna lortu ezinik ibilita, laterri andietako lurraldeetan errigizarte ezberdiñak batzeko, 1.789an Frantziko giza iraultzatu eben.

Eta iraultza orren ondorioz, gudal nagusiak gudaloztearen indarkeriz agertu ba-ebezan espainitar laterrizko batzangotasunaren menpeko lege orreik eta ainbeste borrokakin ezarri ezinean ibilita, geroago, Baamonde ta Frankotar Frantzizkok, Aleman eta Italiaren guda laguntzagaz indarrean menperatu eban.

Eta argi geratzen da nortzuk ekarten eben batzango mende asmo orreik, lege orreik ez ziralako agertu errege katolikuarekin "1.512'ko" legeetan.

1.810/1.812 eta 1.936'ko urteetan baizik, eta ekarri eben "Nacional Catolicismo Dogmätiko y Sagrado" ori, danok dakigu noztik datorren, eta nundik ta noren maltzurrezko asmakizunetik geratu diran agirian, IVn gizalditik batzangotasunaren ari ori eten barik, maltzurrezko indarrakin berriztuten datorrelako gure gaurko egunerarte.

Nori esan bear jako baiña, batzangozko gauza orreik Jaungoikuaren Legeen bitarteko azturan izan bear dirala, "bereztasunaren ekanduzko legean lortu ezik", ez dagolako beste biderik munduko errigizarte guztian, bakez ulermen orreitara eldu gindezen ?

Gaiñera, batera ezin diralako gurtu zeruaren goiko Jaungoikoa ta asmatzen doguzan gaiezko sasi-jainkoak.

2. ZATIAN.

Sarrera.

Kolon'tar Kristobal orduko denboran eta bere jaiotzazko senidetasunean kokatu gura ezkerro, bere senidetasuna ingurutzen eben Andere ta Jaun aundiak aurkeztu bear dituguz.

Eta orretarako, Kolon bera ta Mallorkan bizi ziranakaz batera, orduko Euskal Nafartar, Aragoi ta Gaztelaren erregeak, baita Jenoban bizi ziran beste Kolon leiñu batzuk, Kolonek lortutako ospearen billa ibilita, eurak be badaukielako naastutako antzerki onetan euren antzezlaritza, guzti oneik kontuan artuta arrazoizko egi inguruan ezarri bear doguz, Kolontar Kristobalen nortasunezko izaera orko ingurutik, bere argi guztiagaz bakantzea gura ba-dogu.

Nafarroa'ko Erregetzan.

Nafarroako erregetzaren izatasuna beren barnetik azaltzeko, IIn Karlos "Txarra" zana esaten eutsoenetik asiko gara.

IIn Karlos "Txarra":

Nafarroaren Ebreauxeko IIIIn Felipe erregea ta IIn Juana, Frantziko Xn Luis "Buru Gogor" esaten eutsien erregearen alaba izan zanaren semea zan, eta euren izatasunezko bidetik, Nafarroako erregearen seme ta Frantziko erregearen billoba.

IIn Juana, IIn Karlos'en ama, Frantziko Xn Luis erregearen alaba bakarra izan arren, Frantziko erregetzan Salikako legeagaz, erregetzatik kanpo itxi eben.

1.289ko urtean Frantzian jaiotako Xn Luis "Burrukari" errege au, 1.305-1.316eko urte bitartean Nafarroako errege, eta Frantzikoa 1.314-1.316ko urte bitartean izan zanak:

-Ezarri ba eben Salikazko lege ori, Borgoñako Margaritagaz ezkontuta, Nafarroako erregiña izango zan IIn Juana alabea bakarrik euki eben, eta Margarita ezkontza-nasle edo ezkon-loikerian ibiltan zan lez, Xn Luisek, urkatu edo gargaillez-ito egien agindu eban, eta IIn Juanaren garbitasunezko odolak zalantzan ipinita, Xn Luisen bigarren ezkontzatik euki eben Juan seme bakarra il zalako, aukeratutako lengusuen bidetik moztu eutsoen IIn Juana eta bere seme IIn Karloseri Frantziko erregiñ errege izateak.

Frantziko lurraldeetan IIn Karlosek bere oiñordekotasunezko bidetik, Txanpaña ta Brieko konderriak, Angulema ta Ebreauxeko etxetik Normandian laterri batzuk, eta beste ondazun geiagoagaitik, bere osaba Frantziko VIn Felipe erregeagaz asita, edestiko borroka luzeak euki ebazan bere bizitzan, bere ama IIn Juana eta bere aita IIIIn Feliperi Frantzian sortu eben Salikako legearen bidez, gure artean arrotza zana, kendu eutsozelako ondorengo ondasun guzti orreik.

IIn Juana ta IIIIn Felipe, IIn Karlosen gurasoak, konderri orreik Frantziko VIn Feliperi emon bear eutsoezan Angulemako dukadoaren truke, Nafarroako errege gura izan ba eben.

Eta euren seme IIn Karlos berandu jaio zan lez, bitarte ori erabili eben bere senideak Frantziko erregetzaren ateak izteko ariñautik: bere osabak Vn Felipe "Luzea" 1.316-1.322 eta IVn Karlos "Ederra" 1.322-1.328ko urte bitartean igongo eben Frantziko erregetzara, eta IVn Karlos, Nafarroako errege zana batera I Karlosen izenarekin, 1.328ko urtean il zanean, bere loba ta IIn Karlosen lengusua Baloiseko VIn Felipe igongo eban Frantziaren erregetzazko aulkira.

1.332an Urrillaren 10ean jaio zan IIn Karlos Ebreauxeko konderrian. Eta denbora onetan VIIn Felipek 4 urte eroan ebezalako Frantziko errege lez, berandu egin jakien, errege au aulkitik kentzea.

1.343an Iraillaren 23an egin eben Ebreauxeko kondea, 1.378ko urterarte iraun ebena, une orreitan Frantziko Vn Karlosek IIn Karlos baituta, kendu edo jabetu egin zalako Ebreauxeko konderriarekin.

1.348ko Iraillan, Izurri Baltza (1) agertu zan.

1.349an IIn Karlos igon eban Nafarroako erregetzara, bere ama IIn Juana il zanean.

1.349an Urrillaren 6an Frantzia ta Nafarroako errege Vn Karlosek, erregetzazko legez kendu eutson IIn Karloseri Ebreauxeko konderria.

1.350eko urtean Iruñan koroatu eben IIn Karlos, eta beren gorteko zeregiñak bere anai Luisen eskuetan itzi ondoren, bera buru belarri sartu zan Nafarroako erregearen eskubideko babes zeregiñetan, beren izlaritzazko ulerpide aundia erakutsita.

Nafarroako erreinuaren Lege Biltzarra orduko aldian, Frantzikoa baiño aurreratuagoa zan, eta IIn Karlos iraspen orreitan ondo oituta egon zan lez, Frantziko erregetzaren garrantzi aundienetariko bitarteko bat biurtuko zan.

1.350eko urtetan IIn Juan Frantziko erregetzara igon ebanetik, iñork ez zan gai Frantziko erregetza eskatzeko, eta IIn Karlos ortik aurrera, bere eskubideko indar guztian, Brie ta Txanpaiñako lurraldeen jabetasunak bir-eskuratzeke aleginduko zan.

Lenengo Balois onein denborak, larritasun andikoak izan ziran diru ta gizarteko politika aldetik Frantziko erregetzan, eta geiago gogortu ziran, ingelesarekin 100 urteko borrokan sartu ziran.

IIn Karlosek, guda onen gizarteko nekegarri ta atsekabeko une auk erabiliko ebazan bere eskubideak berrezkuratzeke, bere bizitza osoa zalantza orreitan sartuz, eta beragaz Frantziko erregetza be zalantzazko aldakortasun (2) gogorretan ipinita.

Eztabaida orreik, gogorak izanez gain, ia IIn Karlosen bizitza osoan iraun eben.

“Txar” ez izen gaizto orren etorkizuna, baleiteke Izurri Baltzaren ostetik izatea, Nafar erregetzan %eko biztanletik irurogeita amarrean murriztuta, lurgintzaren lanerako beso ezean agertu ta Nafartarrak gose andian sartuta, gizon asko lapurketetan asi ziralako.

Neurri gogorak artu bear izan ebazan lapurketa orreik bakezteke, batzuri lepoak moztu eta beste batzuk mii-luzeko zubitik urkatuz, batera, baserritarrak zirikituta andiki batzuen aurka joan zitezen, geroago bere seme IIIIn Karlosek bakeztu bear izan ebena, andiki orreik ostera goralduta. Eginkizun orrein ordeztu ipini bear izan eben eutsienetik datorrela esaten dabe edestilari maltzur batzuk “Txar”rezko izen gaizto ori.

Ez da egia baiña.

“Txar”rezko ez izen gaizto ori, Frantziko erregetzatik, eta batez be Frantziko edestilari bidetik ta bera il zan ostetik datorrena da, oneik IIn Karlos amurru aundian euki ebelako.

IIn Karlos, Nafartarren andiki ta erritarren aldetik maitasun andian euki eben, naita bere izakera gogorragaz, biurkeriak egiteko al izan.

Badagoz beste gauza batzuk, Nafartarren bizitza geiago larrituko ebena, legezko eta sasiko semeen artean bekaizkeri (3) aundi bitartez, beti borrokan ibiltako ondorio bidetik,

(1) Izurri Baltza = peste negra. (2) Zalantzazko = conjetural, confuso, oscuro. Aldakortasuna = inestabilidad. (3) Bekaitz = envidia.

Agramontes eta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziralako, eta naita Europa osoan bardiñezkoa izan, Euskalerrarentzat eta batez be Nafartarrentzat oso kaltegarri izan ziran.

VI In Feliperen semea II In Juan "Ona", 1.350/1.364 urte bitartean Frantziko errege zanak bere aitagiñarrebagoz batera, euren begikoa zan espainiar Alfonso de la Zerdaren Karlos semeari emon eutsoen Angulemako dukaterria, II In Karlosen ingurukoak il ebena, II In Karlosena zana, eukitearren.

Eta 1.351an Urtarrillaren 8an II In Juanek epaitu ondoren, Loubreko dorrean giltzapetu eban II In Karlos, bere ama II In Juanak, VI In Felipegaz egin eben ongunde edo ebazpena ezereztuta.

II Juanen bekaizko ekintza onegaitik, andiki geienak jokatu eben II In Karlosen alde, azken baten onek, ez ebalako geiagorik egiten, Frantzia eta Nafarroako erregetzagaz euki ebazan eskubideak zaindu baiño besterik, baiña espetxean euki eban 1.356ko Azaroaren 9rarte.

1.352ko urtean ezkondu zan II In Karlos, Frantziko errege II In Juan "Ona" 1.319/1.364 urte bitartean bizi eta errege 1.354/64ko urtetan zana, eta bere emazte Luxenburgoko Bonaren alaba izan zan, Frantziko Juanagaz.

1.354ko urtean II In Karlos, Frantziko II In Juan bere aitagiñerrabagoz eriotzeraiño etsaituta egon zan, berak eukezan oiñordeakaz, nor izan zala uste ebalako Frantziaren erregetza eskuratzeko, eta orren itxaropenekin beren erreñua sendotzeko etsaien aurka, Ingalaterrako errege III In Eduardogaz alkartu zan, gero 1.358an Frantziako Mertzal Etiennen iraultzari lagunduta.

Beartuta, Gaztelako I Pedro "Odol-zaleagaz" 1.334-1.369 urte bitartetan bizi eta 1.350/1.369ko urte bitartetan errege izan zanakin, eta Aragoiko IV In Pedro "Zeremoni zaleen" artean, artekari lez egin bear izan eban, eta gero denborak zelan etorten ziranean, batagaz edo besteagaz beinbanan alkartuko zan.

1.364ko Jorraillaren 8an il zan Londresen II In Juan, Vn Karlos errege aulkira igonda.

1.364an Loraillaren 16an Kotxerel erri ta Eure'ko ibai inguruan, Nafarroako errege II In Karlosek galdu eben borrokagaz eta Vn Karlos Frantziko errege lez Loraillaren 19an Reimseko Eleiz Nagusian koroatu ebenean, amaitu jakozan II In Karloseri, Frantziko erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiak.

1.365eko urtean Saint Denisen Frantziako Vn Karlos eta Nafarroako II In Karlosek egin eben elkargo bidetik, II In Karlosek Frantziaren erregetzagaz euki ebezan eskubideak itzi bear ebazan, euren aldeko jaurkintzaren antolakuntzak erreztuteko euki ebezan jabedunezko erriakaz truke eginda, eta II In Karlosek egokitu jakon Montpellierreko erritarrakaz arazo aundiak eukinda, oneik ez ebelako gura Nafartarren menpean egon.

II In Karlosen Nafarroako erregetza jarrera orretan lotuta eta Frantzia, Aragoi ta Gaztelako erregetzak gero eta indar geiagotan sartzan joan zirelako, Nafartar erregetzaren jabetasuna lortu gurean ibili ziran iru erregetza orreik, katolikotasunaren laguntza osoarekin.

Euskalerriko lurralde nagusiak bananduta egon ziralako, denboraren etorkizuna izango zan bakarrik bear zana, baten edo besteko erreñu orren eskuetan jaustea.

Azken baten eta maltzurrezko-guzur utsezko denborak ziralako, Aragoiko II In Fernando katolikua izango zan indar askoren keiñadakin eta ariñautik II In Julio Aita Santuaren buldak eskerniatu ondoren, Nafarroako erregeak eleizatik kanpora bialtzea lortuko ebana.

1.378ko urtean gaztelarrak, 1.263an IIn Teobaldok Tiebaseko errian liburutegi eta idaz agirien gorde lekua izan edin, eraiki eben gaztelua erre eben, barruan euken artxiboaren arduradunezko zaindari eta paper guztiekaz.

IIn Karlos "Txarra" deritxon au: Izakera gogorrekua, zori-zale (1), odol bizikoa, eta mendekaria izan zan.

Ez ziran izan gitxiago baiña, Gaztelako I Pedro "Odol-zale" eta Aragoiko IVn Pedro "Zeremoni zale"ak. Orduko denboraren ekandu eta lojikazko bide-giroak alan eskatzen ebalako.

IIn Karlosek euki zituzen seme/alabak auek ziran:

Nafarroako Maria 1.360/1.420 urte bitartean bizi zana, ta 1.393an Aragon eta Jimeneztar Alfoso Aragoiko errege eta Ribagorzako kondea zanagaz ezkondu zana.

IIIIn Karlos "Biotz Andikoa" 1.361/1.425 urte bitartean bizi eta Nafarroako errege izango zana.

Nafarroako Bona 1.364/1.389 urte bitartean bizi zana.

Nafarroako Pedro 1.366/1.412 urte bitartean bizi zana eta 1.411 Alezongo Katalinagaz ezkondu zana.

Nafarroako Felipe 1.368/ ?.

Nafarroako Juana 1.370/1.437 urte bitartean bizi zana, lenengo esteguetan bere lengusu Bretañako IVn Juan, eta 1.403ko urtean bigarrenez Ingalaterrako IVn Enrikegaz ezkondu zana.

Eta Nafarroako Blanka 1.372/1.385eko urte bitartean bizi zana, eta Frantziako VIIn Felipegaz ezkondu zana.

Eta legezko ezkontzatik kanpo.

Lizaso'tar Katalinagaz:

Leonel edo Lionel Muruzabal'eko konde ordea eta Nafarroako erregearen sasi/kumea, 1.378/1.413 urte bitartean eta ezkondu barik, Lunako Epifaniagaz bost seme/alaba euki zituzenak.

Eta Joana, Nafarroako erregearen sasi-kumea, ?/1.413 urtetan bizi zana, eta 1.378an Bear'eko Joanegaz ezkondu zana.

1.387an Urtarrillaren 1ean il zan IIn Karlos "Txar" au, bear eztan zorigaitz baten:

Bera etxean egonda eta burua joan jakon alako baten, zelaira jausi zan, eta osagilleari deituta, onek, koñakagaz bustitako zapiekin ingurutu egiela beren gorputza agindu eban, eta eskuko su-argiagaz egon zan morroien kriseillutik, su edo txingar tanta bat jausita, beren gorputza sua artu eban, eta itzaldtu edo amatau ezinik, berton erreta il zan.

Beragaitik osteko surrumuruak, askoz txarragoak izan ziran etsai ta saltzailleari esker, berak bere bizitzan egin ebazanak baiño. Beren ekintzari geienean, egia ta zuzentasunak laguntzen eutsoezelako.

(1) Zori-zale = aventurero.

Ondorio labur bat lez.

Nafarroako II In Karlos onen erregetza eta ekanduzko bizi giro aiekaz konturatzeko, nai ta katolikotasunezko erlijioan batzangotzeko alegin aldetik egiten ebazan inkizizio edo ta fede zainduak, errietako jabetasunaren aldakuntzak, espetxeratzeak, erbesteratzeak, pozoitasunak ta sarraski, edo ta egiten ziran ilketak ez dodaz ekarten, edeslan onen kondaira lar luzea litekelako.

Orduko errigizartearentzat orokorrezko edesti ori, oso garrazkeriko zigorpekua izan zan eta katolikotasun alderdikerizko arrazoietan edozer gauza gaitik grifñatsuki⁽¹⁾ ezartzen baziran izilpeak, sinistu ezinekoak izanda be, gaurko denboretaraiño iraun dabe.

Ekintza orren esan naia da, asierazko edo ta IVn gizaldian artu ziran erabagiak, nai oker edo zuzenezkoak izan, ezer aldatu barik etorri dirala gure gaurko denboretaraiño.

Orregaitik ez gara arrigarritu bear, Kolonen Nortasunezko izatasun arloetan etorri diran ertzeko edo gogorrezko iziltasunagaitik, Europa osoaren berezko erriak euren nortasunera itzartu edo ta arduratuta itzuli ez zitezten, menpearen arrazoizko baldintza orreik orain be bizi bizirik daukaguzelako gure artean erlijio lez, eta erreza dalako ostonduta ekartea edestitik zear, egun baten asmatu ziran Batzangotasunezko sasikatolikotasunaren mendeko arrazoi orreik, guda indarkerizko keiñu edo meatxuekaz lagunduta etorri ba dira, gaur ikusi leiken lez.

Edo ta, ala uste dabe menperatzaille orreik, Kolonen izatasunezko nortasunekin batera, argituko doguzenak.

III In Karlos “Biotz Andikoa”.

Nafarroaren Ebreuxeko leiñuaren II In Karlos “Txarra” eta Baloiseko Juana aita/ama bidez jaio zan Frantziko Mantesen Joliko errian III In Karlos au 1.361eko Uztaillaren 22an.

1.375ean, Gaztelako errege II In Enrikeren alabagaz, Trastamarako Leonorrekin ezkondu zanean, bakeztu ebazan Gaztela ta Nafarroarren artean egon ziran eztabaidak, gero I Juan eta III In Enrikerekin iraun ebenak.

III In Karlosek, Trastamaratar Leonorren ezkontza bidetik, seme/alaba oneik euki ebazan:

Juana Foixeko konde-andrea, Foixeko III In Juan kondeagaz ezkondu, eta 1.383/1.413 urte bitartean bizi zana.

Nafarroako I Blanka, Nafarroako erregetzan bere aita III In Karlosen ondorengoa izango zana eta 1.385ean Iruñan jaio eta 1.441ean Jorraillaren 3an Santa Maria de Niebasen il zana.

Maria, 1.388ko urtean jaio ta 1.425ean il.

Margarita, 1.390ko urtean jaio ta 1.403an il.

Beatriz, Martxeko konde-andrea, II In Jaime Martxeko kondeagaz ezkondu zanetik, eta 1.392 jaio ta 1.415ko urtean il zana.

Isabel Armañakeko konde-andrea, Armañakeko kondea IV In Juanegaz ezkondu zanetik.

(1) Grifñatsuki = apasionadamente, excesivamente.

Karlos, 1.397an Dagonillaren 31n Iruñan jaioa, 1.398ko urtean Nafarroako erregearen ondorengo izendatu ebena, eta 1.402an Dagonilaren 12an Lizarran il zana.

Luis, 1.401ean Oliten jaioa eta 1.402an Urrillaren 14an il zana.

Eta Esparzatar Maria Migelegaz, ezkontzaren kanpoko sasiseme/alaba auek euki ebazan:

Nafarroako Juana, 1.396an Ortiz de Zuñigatar Iñigoren lenengo ezkontza bidetik Sada ta Eslabako andrea zana, eta 1.424an Beaumont' tar Luisegaz bigarrenez ezkontuta Leringo konde-andrea izan zana.

Lanzelot, 1.386an jaio ta 1.420an Urtarrillaren 8an il zana eta 1.408-1.420ko urte bitartean jabetasun barik egon zalako, Iruñako apezpikutegian gotzaiñaren ordezkoa izan zana.

Godofredo, Korteseko Kondea eta Arellanoko Teresagaz ezkontuta egon zana.

Leonell, 1.441eko urtearen ostetik il zana.

Eta Maria, lekaimea izan zana.

1.378ko urtean bere aitaren aginduz, IIIIn Karlos, Frantziko Vn Karlosegana joan zan ordari/gizon (1) baten buru zana gaz itzegiten.

Vn Karlosek ez eban ontzat artu IIIIn Karlosek bere aitaren aginduz eroaten eban mezua eta atxilotuaz gaiñ, bere aita IIn Karlosek Frantziko lurraldean euki ebazan jabetasunak kendu eutsezan Txarburgokoarenak izan ezik, auek ondo babestuta euki ebazalako.

Vn Karlosek, IIIIn Karlos zipertu edo oñazkatutako galdeketara bialdu ebanean (2), IIn Karlos Logroñoko Uria bereganatzeko ibili zala jakin eban Frantziko Vn Karlosek, eta Gaztelako IIn Enrikeri esanda, onek Nafarroa erasotzeko agindu eban, IIn Karloseri beartuz Brioneseko ongundea siñatu egian.

1.380ko urtean Frantziko Vn Karlos il zanean, VIn Karlosek askatu eban Nafarroako IIIIn Karlos.

Orañarte be bai, baiña emendik aurrera, Nafartarren gortekoak geiago begituten eben Frantziko gortera Gaztelatarren gortera baiño, Frantziko gorrea jakituriz eta artu/emoneko arremanetan garbiagoak izan zirelako, Aragoiko gortekoaren antzera.

Eta Nafarroako IIIIn Karlos erregeak emendik aurrera, sendotu ta bizkortu ebazan Nafar izakizunezko almenak, bakean, eder/lanetan eta jaurkintzari, aurrerakuntza aundiak emonda.

Aurrerakuntza onegaz, Gaztela, Aragoi, Frantzia eta Ingalaterrakin bakeztu ebazan arremanak, eta neurri orreitan euren arteko lankidetasuna be bai, erregeen arteko ezkontzari ta Abiñon'eko Aita Santuari lagunduta.

1.380an Uztaillaren 1ean amaitu ebazan Iruñako Eleiz Nagusiaren konponketak, eta Tafalla ta Oliteko errege jauregiak be eraiki ebazan.

1.387an Urtarrillaren 1ean, bere aita IIn Karlos il zanean igon eban Nafartarren erregetzako aulkira, eta Ebreauxeko konde ta Nemourseko dukea izendatu eben.

1.388an Gaztelako errege ta Bizkaiko Jauna zana I Juanek, bere seme Gaztelako errege izango zan IIIIn Enrike, Lankasterreko Katalinagaz ezkontzeko ibili zanean, Asturiaseko Printzerria sortu eban, eta eurok izan ziran lenengo Asturiaseko printzeak edo errege-erregiñ gai, Gaztelako erregetza ondore lez jaurkitzeko.

(1) Ordaritz = embajador, Ordari/gizon taldea = conjunto de personas que comprenden una embajada. (2) Zipertu edo oñazkatu = tortura. Oñazkatutako Galdeketa = interrogatorio, bajo tormento.

1.402an Aragoiko erregetzagaz bakeak lortzeko, bere alaba Blanka Siziliako IIa eta Aragoiko errege izango zan I Martin gaztea “Gizabideko” deritxonagaz ezkondu eban, eta elkarrizketa bardin antzeko baten ibili zan Ingeles eta Frantzikoarekin.

1.404ko urtean IIIIn Karlosek, Pariseko alkargoaren bitartez eta Txanpaña ta Brieko jabetasunak frantzezari itxi ondoren, Frantziko VIn Karlosegaz garbitu ta argitu ebazan Frantziko lurraldeetan euki ebazan Ebreauxeko Nafar jabetasunak, bere nafartar adizkideak Frantziko gortearen leku garrantzienetarako izendatzea lortuta.

1.409ko urtean Bartzelonan il zan Nafarroako I Blankaren senarra, “Gizabideko” deritxon Siziliako IIa eta 1.396ko urtean izendatu eben Aragoiko I Martin erregea.

1.412ko urtean Granadako moruen erregetza menperatzeko alegiñetan be ibili zan Gaztelatarrei laguntzen, eta aukera orretan Antekerako Fernando Gaztelako errege/semearen semeakaz ezkondu ebazan Isabel eta Maria bere alabak.

1.413ko urtean IIIIn Karlos onen zeregiñ onenetan, Goieneko Auzitegia sortzea izan zan.

1.415eko urtean IIIIn Karlosek, bere alaba Blanka Aragoiko I Martinen alarguna, norekin ezkonduko arazoan aurkeztu zan.

Eta Foix etxeakoak, euren alaba Juana il zanen alarguna IIIIn Juan aurkeztuta, Aragoiko I Fernandok bere bigarren seme Aragoiko IIIn Juan izango zana aurkeztu eutsoen, eta Blanka baiño 12 urte gazteagoa izan arren, IIIIn Karlosek, len Foixekoakaz sortu zana Nafartarren erregetza Frantziko erregetzagaitik iruntsita geratzeko arrizkuan ostera sortu ez egian, bigarren aukera artu eban ontzat, eta Aragoiko IIIn Juanegaz ezkontzeko geratu ziran.

Eta ezkontza au aurrera eroateko, 1.419an Azaroaren 6an Oliten, eta 1.420ko Otsaillaren 18an Guadalajarako egiunetan aukeratu ziran baldintzak, oneixek izan ziran:

a) Nemurseko dukadoa artu ondoren, Nafarroako erregetza, I Blankarentzat eta beren ondorengoarentzat izatea.

b) Nafarroako erregetzan iñungo lurralderik ezin zala zatitu, eta erbesteko erregetza baten menpe geratu.

d) Nafarroaren jaurkintzazko gortearen ardurazko lan tokiak, Nafartarrentzat bakarrik izan zitezela.

IIIIn Karlosek neurri orreikaz, naita Nafarroako erregetza Trastamarako etxeagaz ezkondu arren, bere erregetzazko eskubidearen izatasuna ondo lotuta gura eban, Nafartarren erreñua baldintza sendoakaz, askatasun guztiegaz irautea gure ebalako.

1.423ko Urtarrillaren 20an IIIIn Karlosek, I Juan Gaztelakoa Asturiasen egin eban antzera, Bianako printzerria sortu eban Nafar erregetzaren ondorengotzat, eta beren billoba IVn Karlos izango zan lenengo errege-gaia, Bianako erakunde barri orrek izendatuko ebena.

1.425ean Iraillaren 8an Oliten il zan Nafarroako IIIIn Karlos “Biotz Andiko” errege au, Nafarroako jaurkintzaren alde alegiñ-on aundiak egin da gero.

I Blanka, Nafarroako erregiña.

Nafarroako “Biotz Andiko” errege zan IIIIn Karlos eta bere emazte Trastamarako Leonor, IIIn Enrike Gaztelako erregearen arreba zanaren bidetik, Iruñan jaio zan Ebreuxeko leiñuko zana Nafarroako I Blanka au 1.385eko urtean.

Nire maisu eta lagun andia izan zan San Sebastianar Jose Marik (**Latxaga**) esaten eustan Nafarroako I Blanka erregiñagaitik, bera izan zala andra eder ta politena Nafarroa osoan.

I Blankaren bizi kondaira.

1.401eko urtean il zan Siziliako erreñuaren jabe izan zan Maria, Aragoiko erregearen seme I Martin gazteagaz ezkontuta egon zana, au Siziliako erreñuagaz jabe geratuta, naita Siziliako jableduna bere lenengo emaztea izan arren.

1.402ko Urtarrillaren 21ean Nafarroako IIIen Karlosek, Aragoiko erregetzagaz bakeak lortu gurean, bere alaba I Blanka, Siziliako IIena eta Aragoiko errege izango zan I Martin “Gizabidekoa” deritxon seme gazteagaz ezkontzea erabagi eban.

1.402ko Lorailaren 21ean Kataniako Urian ordezeko legean ezkondu ebazan, Nafarroako Bakedanotar Diego ta Mosentar Lionel, I Blankaren ordezkariak zirala.

1.402ko Azaroaren 9an Bernardo de Kabrerak bideratzen eban itsasontzi baten joaten da I Blanka Siziliako Ugartera.

1.402an Abenduko 26an ezkondu ebazan Migel Mari lekaideak, Nafarroako I Blanka ta Aragoiko I Martin gaztea.

I Blanka, Sizilian egon zan bitartean, ez eban artu arrera edo jardunbide onik, eta bere aita IIIen Karlosek berari emoten eutsoen arrera orregaitik atsekaberatuz, serbitzariai leporatu eutsen, Blankak ezkontzatik illabete gitxi barru euki eben ume-galtzea, eta baita Siziliako gortekoai salatu, bere alaba Blankari ezkontzaren ordezeko sariak ez eutsozala emoten.

1.404an Uztaillaren 17an emon eutsozan ezkontzako sari orreik, Paterno, Mineo, Lentini, Frankabilla eta Bizzini'ko erriaren jabetasunagaz.

1.404ko Urrillaren 22an “Vicaria” edo erregetzaren ordezekoa izendatzen dabe I Blanka, bere senarraren alde egite edo ta urruntzerakoan.

1.405ean I Martin Aragoira joaten da aldi baterako eta I Blanka berak jaurkitu eban Sizilia bere aolkularitzazko ordezkariaren laguntzagaz.

Eta 1.405ean Dagonillako illean I Martin itzuli zanean amaitu ziran I Blankaren errege ordezekoak.

1.406an Abenduaren 17an euki eben euren lenengo semea, Martiñen izena ipini eutsoenai Aragoiko aita ta aititeri euki eutsoen begirune edo omenagaitik.

1.407ko Dagonillaren illean eta zortzi illabete eukezala il jakien, Aragoi ta Siziliako ondorengoa izan bear zan Martin umea.

1.408an Dagonillaren 13an I Blanka ostera izendatzen dabe erregetzaren ordezekoa, bere senar I Martin Zerdeñaren Ugarteko erreñura joateko asmoa euki ebalako bere gudalozte indartzuakaz.

1.408an Urrillaren 3an urten eban Sizilatik I Martin Zerdeñako Ugarterantza.

Eta 1.409an Uztaillako 25ean il zan I Martin au, Kagliariko errian sukargaitzak artuta.

1.409ko Dagonillaren 7an I Blankaren aitagiñerraba Aragoiko I Fernandok “Arteza” edo “Antekerakoa” deritxon onek, on artu eban bere seme I Martin gazteak agindu ebana, eta I Blanka ostera “Vicaria” izendatuta aurrera egin eban Siziliako erregetzaren ordezkotzagaz.

IIIIn Karlosek, laster asi zan I Blanka ezkontzeko ardurakin eta 1.409ko urtea amaitzen egoala, Frantziko Isabelen nebeagaz, Babierako-Ingolstadt'tar Luisekin ezkontzeko asi ebazan atonketak. 1.410eko urtearen asieran apurtu ziranak.

1.410eko urtean beste ezkontza bat be atondu eutsoen I Blankari, Bar'eko I Roberto Dukearen seme Eduardorekin, ezerezean geratu zana.

1.410ean Loraillaren 31n I Blankaren senarra izan zana eta "Biotz onekua" deritxonai I Martin Aragoiko errege izateko zana il zan, eta I Blanka Siziliako erregetzan bere zeregiñ onagaitik, Siziliatarrak erregearen ordezkotzan iraun egiala gura eben eta IIIIn Federiko Siziliako errege izan zan ondorengo bategaz Peraltako Nikolasekin ezkondu gura eben.

Portugaleko I Juanek be, bere seme bategaz ezkondu gura eban, Siziliako ugartearen jabetza berak gura ebalako.

Monikako Konde Kabreratar Bernardok be gura eban beragaz ezkondu zedin, ta I Blanka indarrez arrapatu gurean ibili zan.

1.411ko Loraillaren illean Kabreratar Bernardo bere matxintasunezko alegiñagaitik epaitu ebenean, erregeen aolkularitzazko erakundeak I Blanka erregiñagaitik esan eban, erregiñak Siziliako eztabaidagitik bere Nafarroako senideai sekula ez eutsela eskatu laguntzarik, auek Siziliako arazoakaz ez ebelako euki ezer ikusirik.

1.412an Bagillaren 28an Aragoiko errege Antekerako I Fernandok, XIIIIn Aita Santu Beneditoren laguntzagaz eta Kaspen egin ziran antolabideakaz, beraganatu eban Siziliako erregetza.

Eta 1.412ko Azaroaren 21ean Siziliako gortekoak koroatu eben Aragoiko I Fernando Siziliako errege lez.

1.413an Uztaillako illean I Blankaren aizta Juana, Foix Konderriaren jabe eta Nafar erriñuaren ondorengo zarrena seme/alaba barik il zanean, guztiz aldatu ziran I Blankaren bizi ekintzak, bere aita IIIIn Karlosek, bere ondora joateko eskatu eutsonean.

1.415eko Jorraillan I Blankak, ia 13 urte ordezkotza lanetan ibilita urten eban Siziliatik, Nafarroaren gortekoak aukeratu ebazan, Pierres de Peraltatar Mosen eta Asiaintar Juanen laguntzagaz.

1.416an Urrillaren 28an Nafarroako errege IIIIn Karlosek Oliten, bere alabaren eskaerari baimena emonda gero, Nafarroaren erregetzazko ondorengo lez izendatuta, ziñez itz emon bear izan eutson I Blankak.

Eta 1.419ko Azaroaren 5ean Nafartar gortekoak, Aragoiko erregearen seme Peñafieleko Duke, Mayorgako Konde, Larako jaun eta geroago errege izango zan IIn Juanegaz atondu eben I Blankaren ezkontza, Nafarroako erregetzaren alde euki bear ebezan jabetasunezko baldintzarekin.

1.419an Abenduaren 5ean Oliten, ordezkotza bidez ezkondu ziran.

Eta 1.420an Bagillaren 18an Iruñako Ama Zuriaren Eleiz Nagusian ezkondu ziran eurak, I Blankak 35 urte zituela (1) eta IIn Juanek 22 urtegaz (1.397an Bagillaren 29an Kanoko Medinan jaioa).

Euki zituzen seme/alabak, oneixek ziran:

(1) Baleiteke, 38 euki ebazan urteak eukitea 35 baiño.

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan *IVn Karlos*, Bianako Lenengo printzea, Borgoñako Dukea ta IIIIn Feliperen loba Kleberis'tar Ines'ekin ezkondata egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan *Juana*.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan *Blanka*, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan *Leonor*, Nafarroako erregetzan ondorengoa zana eta Foix'eko IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn'eko Kondearen ordekoa izan zanarekin ezkondata egon zana.

Edestiaren aria osterartuta.

1.421eko Lorailaren 29an I Blanka ta IIIn Juan Peñafielen egon zirala, jaio jakien lenengo seme Karlos, eta 1.419ko urtean ezarri ziran baldintzakaz, bera izendatu eben Nafarroaren erregetzako ondorengoa, ama, I Blanka ilten zanean.

Jaiotzatik lau illabetera, Olmedoko Urian bateatu eben IVn Karlos, bere besoetako-aitak edo aitabitxiak, Gaztelako errege IIIn Juan aita ta Luna'tar Albaro Gaztelako Kondestablea.

1.422ko urtean I Blankaren aita Nafarroako errege IIIIn Karlosek deituta, irurak joan ziran Nafarroako errege Tafalla ta Oliteko errege jauregietan bizitzera.

1.423an Urtarrillaren 20an Tudelan izenpetu zan agiriagaitik, IIIIn Karlos Nafarroako erregeak, Bianako Printzerria sortu eban, bere billoba Karlos izanda erakunde orren leen printze edo ondorengoa.

Eta urte onetan jaio zan bigarren alaba Juana.

1.424ko Bagillaren 9an, Blanka irugarren alaba jaio jakien.

1.425ean Otsaillaren 2an Leonor jaio jakien.

1.425ean Dagonillaren 22an il jakien Juana alaba nagusiena.

Eta 1.425ean Iraillaren 8an, I Blankaren aita Nafarroako errege IIIIn Karlos Biotz Onekua ilda ostean, I Blanka geratu zan Nafarroako erregiña lez.

1.425eko Azaroaren 29an geratu zan izendatuta IIIn Juan, Ribagorza ta Balentziako Konde lez.

I Blankaren bizitza Nafarroako erregiña lez.

I Blankaren bigarren senarra Aragoiko IIIn Juan onek, bera baiño 10-12 ⁽¹⁾ urte gazteago izanez gain, izakera gogorrekua izan zan, ta Aragoi ta Gaztelako lurraldetan euki zituzen jabetasun aundien norkeriagaz, Gaztelako lurraldeetan sarritan euki ebazan borrokazko esku sartzeak.

1.425ean Iraillaren 8an il zan Nafarroako errege IIIIn Karlos "Biotz-Andikua" eta bertan geratu zan izendatuta I Blanka Nafarroako erregiña lez.

1.427an Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak barriztu eben ziñezpena IVn Karlosen alde ondorengo errege lez.

(1) I Blankaren adifetan, azkeneko ikerketeta bidez, zalantza orreik agertzen diralako.

1.428/1.429ko urte artean IIn Juanek bere guda indar alegiñakin, eta Aragoiko mugaren lurralde batzuk galduta gero, gaztelarrek andik bota eben orduan, deitu eutson I Blankak Nafarroako errege lez koroatzea atzeratzen euki ebalako, eta alan urbildu zan bere ondora.

1.429an Lorailaren 15ean lau urte beranduago erregetzara igon ebanetik koroatu ebezan Iruñako Eleiz Nagusian Nafarroako I Blanka ta Aragoiko IIn Juan. IIn Juan erregeñaren ezkon-lagun lez.

1.439an Otsaillaren 17an I Blanka Nafarroako erregeñak il orduko bere borondatezko azkenai idatzi eban agirian, bere seme IVn Karloseri eskatzen eutson: ez egiala erregetzazko ardurarik artu, bere aita IIn Juanek esan arte, eta I Blanka ama il zanean, aitaren ordezko agintaritza artuko eban.

1.441ean Jorraillaren 1ean il zan I Blanka Nafarroako erregeña, bere alaba IIn Blanka Gaztelako IVn enrikegaz Epaillaren 31n ezkondata urrengo egunean, ta Nafartar gortekoak Jorraillaren 3an Segobian Niebako errian, Erregearen Santa Maria Eleizan illobiratu eben.

Bere arri-illobia gaur, beren lekutik kenduta Kukullaren San Millaneko gela illun baten baztertuta dago, beste Napar errege askoren antzean.

Aragoiko errege IIn Juan “Guzurti-Aundia”ren bizi kondaira.

Antekerako I Fernando eta Gaztelako Urrakatar Leonorren semea izan zan.

1.397ko Bagillaren 29an, Gaztelako Medina del Kanpon jaio zan, eta bere bizitzan artu ebazan andiki izenak: 1.425-1.479 urte bitartean Ribagorzako Kondea, Peñafieleko Duke ta Nafarroako errege, eta 1.458-1.479ko urte bitartean, Aragoi, Zerdeña ta Siziliako errege.

1.427ko dagonillaren 9an IIn Juanek, bere begiko alaba izan zan Leonor izendatu eban ondorengo Iruñako gortetan, bere beste seme IVn Karlos eta alaba IIn Blankarekin orren ostean, maltzur eta guzurraren azpikerizko jokuetan asita.

1.429ko udan, IIn Juan “Guzurti Andi” onek, antza, Nafarroako jaurkintzan ez ebalako euki zeregiñik, bere Aragoiko anaiaren diru ta ondasunezko irabazkiari laguntzearren, Enareseko ibarretatik sartu zan Gaztelako lurraldeetara, eta Jadrakeko inguruan borroka antolatzen egoala, bere arreba Maria, Gaztelako IIn Juanegaz ezkondata egon zana sartu zan lez bitartean, or amaitu ziran Gaztelako lurraldeetatik Aragoiko IIn Juanek egingo zituzen txangoak, eta urrengo urterako Gaztelako IIn Juanen aurka antolatuta euki eban guda.

1.435eko urtean laguntza bardiñean ibili zan bere anai Aragoiko Vn Alfonso erregeak Napoleseko erreñuaren jabetasuna lortu egian, baiña utsegite andi baten amaitu zan.

1.436an Uztaillaren 30ean IIn Juanek, Leonor bere begikotasunezko alaba ariñautik Foixeko IVn Gaston Kondeagaz egin eban ezkontzeko elkargoa baieztatuten dau, berentzat ezkon-sari lez Miranda, Larraga eta Falzeseko urien kontuan 50.000 florin emonda.

Eta guri geien arduratu egiten gaituelako, bere bizi kondaira, bere emazte I Blanka 1.441eko urtean il zanetik artuko dogu.

IIn Juan bera izan zan bere 82 urtekin XIV-XVeko gizaldi bitartean, geiago bizi edo ta zarrenetariko erregea izango zana, 1.479an Urtarrillaren 20an Bartzelonan il zan arte.

1.441eko Jorraillaren 1ean, I Blanka il zanetik eta berak azkenai lez bere seme IVn Karloseri borondatez idatzita agindu eutsonagaz, IIn Juanek naspilduta euki eban bere seme

IVn Karlos Nafarroaren erregetzazko zeregiñetan, IVn Karlos bere semea ezkerronekoa eta esanekoa izanez gain zordun be agertzen zalako, agindu orreik I Blanka amaren esanetan eroan ebazan, arik eta IIn Juan aitak osteraz ezkontzen zala esan arte.

1.442ko urtean eta I Blanka ama il zan ostetik IIn Juanek, Leonor bere alaba txikerra eta Foixeko Gaston Kondea ezkondu ebazan, berau bere senarragaz Bearn´era bizitzen joanda.

1.444ko Jorraillan ezkondu zan Nafarroako IIn Juan, Gaztelako amiral Enrikez´tar Fradike, ta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Marianaren alaba, Enrikez eta Fernandez de Kordoba ta Ayalatar Juanagaz 19 urte euki ebazala, bere aundizale, ospezale ta dana gura ebenagaz.

Emendik aurrera ta I Blankaren azkenai bidez, IIn Juanen jardunbidea bere seme IVn Karlosegaz gogortu egin zan ezin besterarte, bere emazte Enrikeztar Juana Lizarrara bialduta, IVn Karlosen errege-ordezko zeregiñak nastu ta oztopatzeko alegiñean, Nafartar erritarren artean asarre aundiak sortu ebana, eta IVn Karlos bere aitaren aurka asi zanean al eben gogortasunean, Nafartar erria zati bitan banandu ebana, beamontarrak Karlosen alde kokatuta, eta agramontarrak IIn Juanen alde, 1.451n anaien arteko gudara eroan ebazanak.

1.445eko urtea baiño ariñautik IIn Juanek, bere Gaztelako errege IIn Juan koñatua ta onen guda agintari nagusi Albaro de Lunagaz, betiko lurraldearen nagusitasunezko jabetasunetan ibilita, Atienza ta Torrijako Uriak artu ebazan, baiña urte onetan talde biak Olmedon aurrez aurre aurkeztu ziranean, Nafarroako IIn Juanek naita Aragoitar gudalozteekaz batera egon, astiñaldi gogorra artu eban, eta borroka orregaz amaitu jakien aragoitarrai gaztelaniako gauzatan euki ebezan indarrezko eragipen guztiak.

Nafartarren anai-arteko guda.

IVn Karlos Gaztelara joan zan, Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestablearen laguntza eskatzera, oneik argi itxita, eurak ez zirala Nafarroagaitik borrokatzen, IIn Juanen aurka baiño, eta gaiñera zirikatzen dautsoe, aitak emoten eutson arrera txar ta otzagaitik, obeto ibiliko zala gaztelarrakin alkargotuta, bide batez oartuazota, zelan bere ama ordea aurdun egonda, ekarriko eben ondorengotasunagaz.

Ondoren, Asturiaseko Printzeak Albaro de Luna Kondestableari itaun au egin eutson: “Guk baiña, zer lortzen dogu Nafartarrai laguntzeagaz?”. Kondestable jaunak erantzun da: “izten dautsagun 40 urteko anaiguda”.

1.451n Iraillaren 8an IVn Karlosek eurakaz, alkartasunezko ituna sinatu egiten dau, eta Asturiaseko printzea ta Luna Kondestable oneik, inguratuta euki eben Buradoneko gaztelua itzultzen dautsoe.

1.451ean Urrillaren 23an borrokatu ziran talde biak Aibarreko zelaietan, eta IVn Karlosek astiñaldi andia artuta, IIn Juanek atxilotu eban Beaumot´tar Luis Nafartar Kondestableagaz batera.

1.452ean Epaillaren 10ean Enrikeztar Juana IVn Karlosen ama ordea, ariñeketan urten bear izan eben Lizarratik, bere semea Aragoiko legeak agintzen eben eran, Aragoien jaio zedin, eta or ibili zan larri, Nafarroaren mugako Sos erritxoan jaio zalako egun orretan, gero Aragoiko IIn Fernando katolikoa izango zana.

Eta Juana Enrikez onek, euken amurru aundiena erakutsiko eban emendik aurrera, bere seme/alaba ordearen aurka, Leonor txikerrenagaz izan ezik, bere senar IIn Juaneri alegiñ orregaz bultzatuta, IVn Karlos eta IIn Blanka bere seme/alaba oneik erregetzatik alboratu egiezen, eta 1.455eko urtean IIn Juanek Nafar-erregetzaren ondorengoak ez diran lez aldarrikatu ondoren, biak pozoituta il ebazan.

Guda au ezan amaituko arik eta 1.512an IIn Fernando katolikua Iruña menperatuta, I Karlosek 1.522an Mayan, ta 1.523an Ondarribin, Nafartar askatasunezko Ikurrak menperatu arte.

Aragoiko jaurkintza.

1.454ko urtean IIn Juanen anaia Aragoiko Vn Alfonso, Italia ta Siziliaren egoaldetik jaurkitzen egoala bere erreinua, IIn Juan izendatu eban Aragoi ta Kataluñako ordezkotzat (1).

1.455eko urtean IIn Blanka bere neba IVn Karlosekin batera, bere aita IIn Juaneri, Nafar erregetzan eurak euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itzi ta irugarren alaba Leonor 30 urte ebazala ondorengo lez izendatuta, Nafarroarren arteko anai-guda biztu eban.

1.458an Uztaillaren 15ean Aragoiko Vn Alfonso erregea ondorengo barik il da, IIn Juaneri egoki jakon Aragoitarren erregetzazko aulkia.

Eta 1.458an Uztaillaren 25ean IIn Juanek, naita batera Kataluñako jaurkintza bere seme IVn Karloseri emon bear, bere seme Fernando(2) Montblankeko Duke ta Ribagorzako Konde izendatu eban Balagerreko Uriaren jauntzagaz batera.

1.460an IVn Karlos atxilotu eben bere aita IIn Juanen aginduz, eta Kataluñan IIn Juanen aurka egon ziran erakundeak, La-Biga, errien andiki, zaldunak eta eleizako abade ta agintari batzuk matxinatuta, anai arteko guda antzeko bat asi eben.

1.460ko urtean Katalan gorteak Leridako Urñan batzartuta, aske itzi egiela bere seme IVn Karlos eskatu eutsoen IIn Juaneri.

Eta 1.461ean Katalanek IIn Juaneri, Penedeseko Billafrankaren ongunea onartzen beartu eban, berari debekatuta Kataluñan sartzea bertoko agintarien baimenik gabe, Kataluñako jaurkintza IVn Karlosen ardurapean itxita, naita lan ori Kataluñaren Orokorrezko edo Generalitateko arduradunak egin, IIn Juan IVn Karlosen aita, beti ibili zalako beren atzetik atxilotu naian.

1.461eko urte berean IIn Juanek, gogogabeko aldarrikapen bat egin eban, IVn Karlosen erregetzazko eskubidearen jabetasunak onartuta.

Eta 1.461eko Iraillaren 23an il zan IVn Karlos, Enrikeztar Juana IIn Juanen emazteak pozoituta.

IVn Karlos il ostean Katalanak, aurrera eroan eben IIn Juaneri Kataluñan sartzen ez iztea, bertoko arduradunaren baimenik gabe.

(1) Ordezko = lugarteniente. (2) Gero IIn Fernando katolikua izango zana.

1.462ko Otsailan baiña, IIn Juanek Penedeseko Billafrankaren ituneri jaramon egin barik Kataluñan sartuta, katalanen anai arteko guda asi eben, remensako payes nekazaritzaren iraultzagaz bateratu zana.

Kataluñako matxintasunaren aurka IIn Juanek lortu ebana, Aragoi, Balentzia ta Siziliaren zintzotasuna zan.

Katalanek baiña, IIn Juan errege lez ez ebelako ontzat artzen, erbesteratutako bat izango zan lez euki eben.

Kataluñako Jeneralitatearen gudalozteak Pallarestar Rojerren aginduz, Enrikeztar Juana eta bere seme Fernando Jeronan egon ziran gazteluan, inguratuta euki ebazan lau illabetetan, arik eta IIn Juan frantzezaren laguntzarekin askatu arte.

XIn Luisen Frantzez laguntzagaitik erabagi ziran ordaiñak, 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbekoa ⁽¹⁾ zan, IIn Juanek urte baten barruan ordaindu bear ebana, eta ordainketa orren bitartean Zerdeña ta Rosellon emon ebazalako baikuntzan, Frantzezaren jabetasunera aldatu ziran, 200.000 dolbeko dirutza ori IIn Juanek, sekula ez ebalako ordaindu.

Guda luze onetan Katalanak, Gaztelako IVn Enrikeri eskeiñi eutsoen Bartzelonako konderria, eta izendatu be bai, baiña Frantzezak bitartean sartuta IIn Juanek zor eutsozan ordaiñak eskuratu gura ebazalako, gaztelatarrak nai aleginduarren be, ez eben Bartzelonako konderri ori artu.

IIn Juanek denbora oneitan bere maltzurtasunezko trikimaillu guztieagaz, Nafartar erreinua bere bigarren ezkontzako seme Ferdinandoren eskuetan izteko ibili zan, maltzurrezko joku orretan bere alaba txikerra Leonorren alde ibili zalakoan, bere lenengo alaba IIn Blanka erregetzatik zelan aldendu alegiñetan ibili zalako, baiña denboraren igarotzeak erakutsiko eban, ori be guzur utsa izan zala, azken baten Leonorren aurka be ibili zalako.

1.462an Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargo bat, Leonor bere urrengoa izendatuta bere zenarra be ondorengo lez artu ebana.

Eta orretarako II Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz beren ilketa antolatzen.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juan Frantziko XIn Luisekin Aguraiñen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIn Luisen 16 urteko seme txikerra Berri'ko Dukea izan zanaren Karlosegaz ezkondu zedin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, aita asarre, Foixeko IVn Gaston bere suiñen agindupeko Monkada dorrean atxilotzea erabagi eban.

1.462an Jorraillaren 23an eta IIn Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak IIn Blanka, mendi ostera atxilotuta eroan eban, eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, IIn Blankak: "bere Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian, atxilotuta eroaten ebala aldarrikaru eban, bere orde z Leonor aizta txikerra eta Fernando ugaz-nebaren mesede".

"Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi egiezala beren salaketa orreik, olango zoezer egiterakoan, bere borondatea Gaztelako errege IVn Enrike bere lenengo senarra zanaren, Armeñak Kondearen zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak eta". 1.462ko

(1) Urre-gorritzko otxin edo dolba = doblones de oro.

Jorraillaren 30ean IIn Blankak egin ebana.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beren seme/alaba IVn Karlos eta IIn Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan pozoituta IIn Blanka, IIn Juan bere aitaren aginduz Frantziko Orthez errian.

Oarrezko labur baten bidez, emen ikusten doguna.

IIn Juanek bere bigarren emazte Juana Errikezegaz batera, IVn Karlos eta IIn Blanka euren erregetzazko eskubidetik aldentzeko, Nafarroako anai-guda eurok sortu ebela ikusten dogu, eta trikimaillu guztiak ibilita be ezinean agertu ziranean, pozoitu ebezala biak, Nafar erregetza, euren azkeneko seme Aragoiko IIn Fernadoren eskuetan izteko alegiñean.

1.463ko urtean eta Kataluñako borroka luze au aurrera joan zala, katalanak IVn Enrikeri egin eutsoen Eskeintza bardiña egin eutsoen Portugaleko Pedro konde ordeari, baiña au urte bi beranduago il zan lez Kalaf'eko borrokan, gero Aragoiko errege izango zan IIn Fernando katolikua 13 urte bakarrik euki ebazanaren aurka, or geratu zan aukera ori.

1.466ko urtean Katalanak Anjou'ko Renato'ri be egin eutsoen eskeintza bardiña, baiña orrek be ez eban aurrerakuntzarik euki.

1.468an Otsaillaren 13an bulerreko min-biziagaz il jakon Erriketar Juana emaztea IIn Juaneri.

1.468ko urtean IIn Juanek, Iruñako gotzaiña Txabarri'tar Nikolas bere alaba Leonorren aolkulari zana il eban.

1.469an Epaillaren 5ean Aragoi ta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, ariñautik il zan IIn Pio Aita Santuen bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako lengusutasuna ezereztuteko, eta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridako lurraldearen Zerberako Urian siñatu eban ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Jeronako Printzea zan IIn Fernandogaz.

1.469an Abenduaren 16an Lorenako Dukea il jakien katalanari, eta IIn Juanek Bartzelona inguratu ondoren, bakezko ongune batera eldu ziran alde biak.

1.472an Abenduaren 22an, IIn Juan bere zitalkerizko irurogeita-amabost urte euki zituzenean ta ia itsu egon arren, bere seme Fernandoren laguntzakin, Bartzelonan sartzea lortu eban, eta egin eben ongune bitartez, danari parkamena emonda, Kataluñaren Foru ta askatasunari ziñez itz emon ondoren, Kataluñako anai guda luze ori, Predralbeseko elkargo orregaz amaitu zan.

IIn Juanek bere askenengo borrokakaz, Rosellon ta Zerdeña be berrezkuratu gura ebazan, baiña XIn Luisek ez eutson ezer emon, diru askoren zorrak euki ebazalako beragaz.

Nafarroako I Blanka eta IIn Juanek lenengo ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:

1.421-1.461eko urte bitartea bizi zan *IVn Karlos*, Jerona ta Bianako Lenengo printzea, Borgoña, Gandia eta Montblankeko Dukea, ta IIIIn Feliperen loba Kleberis'tar Ines'ekin ezkondata egon zana.

1.423-1.425eko urte bitartean bizi zan *Juana*.

1.424-1.464ko urte bitartean bizi zan IIIn *Blanka*, eta Gaztela Leongo errege izan zan IVn Enrikegaz ezkondata egon zana.

1.425-1.479ko urte bitartean bizi zan I *Leonor*, Nafarroako erregetzan ondorengo ta gero erregiña zana, eta IVn Gaston, Foixeko Konde ta Bearn'eko Kondearen ordezkoa izan zanakin ezkondata egon zana.

IIIn Juanek Gaztelako Enrikeztar Juanagaz bigarren ezkontza bidez euki zituen seme/alabak, oneik izan ziran:

1.448ko urtean, *Aragoiko Leonor*.

1.452ko urtean bere ondorengo izango zan Siziliako errege, Aragoiko izenean IIIn *Fernando*, eta Gaztelako erregegiñaren bizi-lagun lez Vn *Fernandoren* izenagaz ezagutuko zana.

Eta 1.454ko urtean Aragoiko *Juana*, Napoleseko errege I *Fernandogaz* ezkondu zana.

Eta IIIn Juanek legezko ezkontzatik kanpo euki zituzen seme/alabak, oneik izan ziran:

1.439/40ko urtean *Juan*, Zaragozako gongotzain edo artx-apezpikua izango zana.

1.417ko urtean *Alfonso*, Kalatrabako maillan nagusia izango zanaren alaba Eskobartar Leonorregaz euki ebana.

Nafartar Leriñeko II Konde Beaumont'tar Luisen andreagaz euki eban Aragoiko *Leonor*.

Eta 1.455ko urtean, *Maria*.

1.479ko Urtarrillaren 20an 83 urte eukezala II zan IIIn Juan "Andia" esaten eutsoena baiño, andinai, lapur, guzurti, ta maltzur aundi bat izan zana, Nafartar euskal errigizarte ta erregetzari ainbat kalte egin ondoren, eta bere seme IIIn *Fernandori* errege-bizi ekintzarako erakutsi eutsozan maltzur ta amarrukerizko guzurak beren aolku ta ikaspide zikiñakin, bizitz onetan andikerizko ergelkerietan ibili zedin eta baita aaztu barik, Nafar erregetzagaz geratu zedin.

Balls'tar Karrerak esaten dau, Argaiz'tar Gregorio'ren "La perla de Cataluña" liburuan, 104ko orrialdean: "Manuscrito he leído en lo que confesò la reina al tiempo de morir el rey D. Juan su marido que avia dado veneno al principe D. Carlos". (Carrera Valls, Cataluña, Descubridora d'Amèrica, pag, 159).

Fernandez de Kordoba Ayala ta Enrikez'tar Juana.

1.425eko urtean Medina de Riosekon jaio zan Enrikez eta Kordobako Fernandez'tar Juana au, 1.431ko urtean Fernandez de Kordoba ta Ayalatar il zan Mariana ama, eta Enrikeztar Fradike Gaztelako Amiralaren bitartez.

Mendiko Kasarrubiosen Vn Jauna, Nafarroako erregearen bizi lagun ta erregiña lez 1.447/1.468 urte bitartean, ta Aragoiko erregiña lez 1.458/1.468 urte bitarteetan izan zana.

Gaztelako amiralgo nagusi baten alabea izanda eta gazte gazterik ama-bage geratuta, andinai edo ta andi-zale, buru arin, buru-gogorreko maiñatsu edo apetatsu ta sutsuzko agintzaillea zan andre au, bere senar IIn Juaneri ainbeste okerkeri egiten lagundu eutsona.

1.444-1.445eko urtean bigarrenez ezkontzen zan Aragoi ta Nafarroako IIn Juanegaz ezkondu zan, eta euki zituzen seme/alaba, oneixek izan ziran:

1.452an Epaillaren 10ean, Aragoiko legeakaz adoz egoteko, ia denbora barik edo ta doitasunezko denboran elduta Nafarroagaz muga egiten dauan Sos'eko erritxoan (gaur Errege Katolikoaren Sos erria deritxonai) jaio zan, gero katoliko ez izenarekin esagutuko zan Aragoiko IIn *Fernando eta Gaztelako I Isabelekin ezkondu ta Vn Fernando lez*.

Eta 1.455eko urtean *Juana*, Aragoiko IIn Fernandoren sasi-lengusu eta Napoleseko I Fernandoren izenagaz ezagutu zanakin ezkondu zana.

Enrikeztar Juanaren zeregiñak erregiña lez.

1.458ko urtean Aragoiko Vn Alfonso il zanean ondorengo barik, bere anaia eta orduan Nafarroako errege izan zana izendatu eben Aragoiko errege IIn Juanen izenagaz, eta Juana, Nafarroako erregetzan naita lapur edo ta guzurrezkoa izanda eta Aragoien benetakoa, erri bi orrein erregiña lez agertu zan.

Juana sutsuzko ekintza baten agertu zan beti, bere gizonaren lenengo ezkontzako seme nagusiena ta Nafartarren benetako errege izan zan IVn Karlos Bianako Printzearen aurka, eta geiago, Juanak jakin ebenean bere semearentzat gura eben emaztea, Gaztelako IVn Enrikeren arreba I Isabelekin ezkontzeko, Karlos aurreratutako alegiñ sakonetan egoala.

Enrikeztar Juana au, ez zan geratuko iñoz, IVn Karlos, IIn Blanka, eta irugarren alaba Leonorregaz, ezkontza bidez bere arduraren ordezeko seme/alabak ziranak eta Nafartarren erregetzan ondorengo lez benetako errege erregiñaren aurka, arik eta euregandik pozoituta, lenengo biak il ebezan arte.

1.461eko urtean IVn Karlos il eben ostetik, Juana bere seme Fernandogaz, onek 11 urte eukezala, Barzelonara joan ziran errege orde lez, Fernandoren 11 urte orreikaz al izan ebelako Aragoien ondorengo izan eta tituludunezko errege Nafarroan.

Juanak, bere senar IIn Juaneri laguntzen Kataluñako jabetza lortu egian, aurka ipini ebazan erritarrak Kataluñako Generalitatearen jauntxoakaz, eta remensako payes nekazari eta jauntxuen artean asarre ori zabaldua, anai arteko borroka latza sortu eben, ain basati ta odoltsua izango zana katalanarentzat.

IVn Karlos pozoitzeko agindua emon ebalako salatuta, Jeronako gotzai ta remensarenaren gaztelura joan ziran babesaren billa, an Aldundiko gudaloztearen erasoari eutsi bearrean agertuta.

Juana andre onen amets aundiena, bere seme Aragoiko II In Fernando, Gaztelako I Isabel erregiñagaz ezkondata ikustea zan, eta 20 illabetegaitik ez eban ikusi.

1.468an Otsaillaren 13an Tarragonako Urian il zan bulerreko min-biziaren gaixorekin Enrikeztar Juana au, eta bere ostean biziko ziranentzat, matrakarako ainbat bide zabalik itxi ebazan.

Nafartarren Bianako Printzea IVn Karlos.

1.421ean Lorailaren 29an Balladolizeko lurraldean eta Peñafieleko Urian jaio zan Bianako Printzea izango zan Nafarroako IVn Karlos au.

Beren ama Nafarroako erregiña I Blanka, eta aita Aragoiko erregearen seme txikerra II In Juanen semea zan.

1.423an Urtarrillaren 20an IVn Karlosen aitite III In Karlosek, bere billoba jaio ta urte bi beranduago Bianako Printzerria sortu eban, iñoren arazo barik Karlos gaztea, Nafarroako errege eskubide guztiekaz izan edin.

Eta barregarria dana, nor eta bere aita, Aragoiko II In Juan izan zana izatea IVn Karlosen erregetzako bide ta eskubide guztiak, moztu egingo eutsozanak.

Zeozer jakin ote eban III In Karlosek ?.

Oliteko erregetzaren jauregian asi ta bere azkuntzaren jakintasunezko arlo guztiak bete zituzan: bost izkuntz ondo ikasita, gizabidean, eraman onaren arloan, gudarako buruzagi ta zaldunezkoa izateko, erregetzaren jaurkintzarako, elerti ta eder-lanetan trebea ta jakintsua izateko, bitartean arraunlari, eizan ta zaldi gaiñean ibilteko ardura andiko ikasketarekin bete ebazanak, gazte paketsu ta jakituna izateko.

Aberetasunaren zaletasun aundia euki eban, mota askoko abel-baratz aundi bat euki arte, eta soiñu-zale aundi bat be, berak bere maniura edo arpa ta kitarrea jotzen ebazenentzako eresziak idazten ebazalako.

1.427ko Dagonillaren 9an Nafarroako gorteak, ostera ziñez itza emon eutsen Bianako printzeari Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

1.439an Iraillaren 30ean Klebes'tar Ines, Klebeseko I Adolfo Dukearen alaba ta III In Felipe Borgofiako Dukearen loba zanarekin ezkondu zan IVn Karlos 19 urte zituzela.

1.441ean Lorailaren 1ean IVn Karlosen ama I Blanka il zanean, bera geratu zan Nafarroako erregetzaren ondorengo Bianako Printze lez eta bere aitite III In Karlosek Frantzian irasitako Nemours'eko konderriaren jabetasunagaz.

Zoritxarrez baiña, IVn Karlosen amak bere azkenaian, baldintzazko aolku bat emoten eutson Karloseri: "Erregetzako izenik ez egiela artu, arik eta bere aitak bere bedeinku ta baimena emon gabe" IVn Karlosek, erregetzaren ordezkotza bakarrik artuta.

Amak, gogamen onegaz uste eban, bakeak lortuko zituzela aita ta semearen artean, azken baten eziñ-ikusaren ta elkartu-eziñezko gorroto-bizi baten geratu zana, bata nortasunaren legez eta bestea norkeriz, biak sinistu egiten ebazan eskubideetatik ez ebelako urten gura.

Nafarroako erregiña I Blankagaz ezkondata, eta bere bizi-lagun lez bizi zana Aragoiko I Fernando erregearen seme ta Gaztelako I Juan erregearen billoba II In Juan onek, ia bere

gaztetako denbora guztia iraun eban Gaztela aldetik borrokan, Aragoitarrak gaztelanian ondorengo jabetasunean euki zituzen lurraldeagaitik.

Ez gitxiago Gaztelako gortean euki gura eben erapenagaitik, lenengotan lortu ebana arik eta Luna'tar Albarok Gaztelako jaurkintzan goi maillako agintaritzara igon arte.

Nafarroako erregeñaren bizi-lagun II In Juan onek, bere matxin-zale edo ta errinaslearen bere betiko zeregiñekin ibilita ez eban lortu, leku guztietan gorrotogei edo gorrotogarri izatea baiño: "Gaztelaniako gauza guztietan esku-artzeagaitik borroka ugari, Aragoien bere erritar eta lurraldeak guztiz jaramon egin barik euki ebazalako danak asarre, Kataluñan anai arteko guda luzeak, eta Nafarroako erregetzan, beste biak ordaintzeko, bertako dirutik ordaindu egiten ebazalako eukezan erregekerizko andinaien bidetik, anai arteko guda ugari".

1.447an IVn Karlos eta bere aita II In Juanen artean, gogortu egin ziran euren arteko gorrotoak, eta geiago, Nafartarren gortekoari ezer esan-gabe eta onen asarre bizian, II In Juan aita, Gaztelako erregearen sasikumeko adarretik etorten zan Enrikez eta Fernandez de Kordoba'tar Juanagaz Kalatayuz'en ezkondu zanean.

1.448an Jorraillaren 6an II jakon IVn Karloseri 27 urte euki zituzela bere Klebes'tar Ines emaztea, 9 urte ezkondata gero, ondorengo seme/alaba itxi barik.

Gaiñera Juana onek, bere aita Enriketar Fradike Gaztelako amiralgoren laguntzarekin, bere senarra II In Juan bakera bideratu barik eta berari, Fernando katolikuaren izenagaz ezagutuko zan semea emonda, *kuku txoriak egiten dauan antzera, Nafarroako abian egoan arrautza bota eta berea ipini gura eban*, bere ugazume edo seme-ordea Nafarroako IVn Karlos, Nafarroako erregetzan "Sarkoi"⁽¹⁾ bat izan bazan lez erabilita.

Juana berak bultzatu eban bere senarra II In Juan, Nafarroan benetako erregea zanaren IVn Karlosen aurka, bere seme Fernando Aragoi ta Nafarroako errege izan zedin.

Dana dala, Europa, Erdi Ugarte au eta beren Iparraldeko Nafartarrentzat batez be, orekaren ekandubako goibeltasunezko denbora ekaiztsuk izan ziran ezkontza orren bidez agertu ziranak, eta alan sortu zan gero etorriko ziranakaz.

Bianako Printze IVn Karlos onek, nai ta bere aitaren agindutara ipini bazan be, eta onek lege arloetan berak asmatzen ebazan arrazoiakaz, egitik urriñ ibilten zalako, gaztelatarrak eurak eskeiñi eutsoen II In Juan errege au, naita bere aita izan arren, Nafarroako erregetzatik botatea.

Gaztelar oneik baiña, IVn Karloseri argi ikusiaz egiten dautsoe: "Eurak ez zirala borrokatzen Nafartarren aurka, II In Juan arrotza Nafartarren erregetzatik botateko baiño", eta IVn Karlos alegintzen dabe, bere ekanduzko egilletasunaren sorburutik, kendu edo aldendu egiezala, bere aita II In Juanen lapurtzazko asmakizunak.

1.451n Iraillaren 8an sinatu eben IVn Karlos Naparra, II In Juan gaztelatar erregearen seme Asturiaseko Printzea ta Albaro de Luna kondestableak, Aragoiko II In Juan Nafarroatik botateko elkargo orren agiria, beaumontesen alderdia IVn Karlosen alde kokatuta, eta onek euki zituzen nafartar gudalozteak I Leringo Kondearen agindutara ipinita, eta gudalozte biak borrokatu ziran garrantzi andiko ondorio barik.

II In Juanek bere agintaritzari indarra emoteko, bere emazte Enrikeztar Juana bialdu eban Nafarroara, gortearen jaurkintza bere seme IVn Karlosekin batera eroan egien, Juana onek

(1) Sarkoi bat lez = atzerritar bat izan bazan lez.

baiña, bere agindu-naiaren eraso gogorrekin ibilita, beaumontes-nafartarren gorroto eta ezin-ikusi biziak beren aurka sortu ebazan, eta Nafar ta gaztelatarrak IVn Karloseri esan eutsoen, ordua zala IIn Juan errege maltzur ori Nafarroatik atarateko.

Beaumontarrak Juana inguratu eben Lizarrako jauregian, baiña laster askatu bear eben ingurutasunori, IIn Juan bere gudalozteakaz agertu zalako.

1.452ko urtean aurkeztu ziran Aibarren gudalozte biak borroka latz baten, eta IIn Juanek Aragoi, Frantzez, eta Nafar Agramontesaren laguntzarekin garaipenduta, bere seme IVn Karlos Tafallako gazteluan atxilotu eban, gero Tudela, Mallen eta Monterrey ta Saldubako gazteluetatik ibili ondoren, atxilotutako azkeneko toki onetan 20 illabete bete zituzen IVn Karlosek.

IVn Karlosek atxilotasunetik urteteko, bere aita IIn Juaneri esan eutson, aurrerantzean berak ez ebala errege titulorik artuko bera ilten zan arte, eta onek aske itzi eban.

1.452an Epaillaren 10ean jaio zan Aragoiko Fernando, gero katolikoa izango zana.

1.453an Bagillaren 23ko asken egun arte ez eban askatuko IIn Juanek bere seme IVn Karlos euken atxilotasunetik.

IIn Juan erregea gogaituta, bere suin Foix'eko Gaztonekin ordurarte IVn Karlosen alde egon zanagaz, erabagi onetara eldu ziran, bere seme IVn Karlos Nafar erregetzaren ondorengotzatik kendu eta Leonor IIn Juanen lenengo ezkontzaren alaba txikerrena bere zenar Gaztonekin batera, Nafarroaren erregetzan leen ondorengotzan ezarri.

IVn Karlosek Lizarran egin eban askeneko alegiña bere aitaren aurka, eta galdu ondoren, Iruña, Paris eta Erroman Aita Santu IIIIn Kalixtogaz egonda, Napolesera joan zan bere maitasun aundian euken osaba Vn Alfonso "Biotz Andikoa" esaten eutsoenaren babesera, 1.457ko urtean elduta, eta Vn Alfonso au, bere loba IVn Karlosegaz lilluratuta eukezan gizon itxura ta jakintzagaitik, beren Napoles eta Siziliako ondoengoa izendatu eban.

1.457ko Epaillan Beaumont'tar Juan, Nafarroako jaurlaria Bianako Printzearen izenean, Iruñan batzartu ebazan gorteko arduradunak, eta oneik IVn Karlos aldarrikatu eben Nafar errege lez.

Eta 1.457an Bagillaren 26an Napoleseko errege Vn Alfonso, IVn Karlosen osaba ta IIn Juanen anaiak, IVn Karlos aldarrikatu eban Aragoi, Balenzia, Mallorca, Zerdeña, Sizilia eta Kataluñako printzerriaren errege lez, bere aita IIn Juanen ostean, Napoleseko erregetza IIn Juanen seme Fernando Kalabriako Dukearentzat itxita.

1.458ko Bagillaren 27an il zan Vn Alfonso Aragoiko erregea, eta bere aita IIn Juan Aragoiko errege koroatu ebenean, onek IVn Karloseri Napoles eta Siziliako koroak emon eutsozan, IV Karlosen bake aldiak amaituta.

IVn Karlosek, bere osaba ilda, Napolesetik Siziliara aldatu zan, eta egon zan urte oso baten bitartean, Portugaleko erregeak bere arreba Katalina eskaiñi eutson IIn Juaneri bere seme IVn Karlosekin ezkontzeko, ez zana aurrera joan.

1.458an Uztaillaren 15ean IVn Karlosen aita IIn Juanek, Aragoiko erregetza artu eban bere agintaritzan.

1.459an 38 urte euki zituzela eta bere aitagaz adizkidetu ondoren, ostera etorten da Nafarroara, eta Beaumont'tar Juanen bidez alkarrizketak asten dira IVn Karlos, Gaztelako

IVn Enrike erregearen 9 urteko ugazarrebagaz (1) ezkontzeko, gero I Isabel katolikua izango zanarekin.

Denbora onetan ia batera, Portugaleko erregeak, IIn Juaneri eskeiñi eutson bere arreba Katalina, IVn Karlosegaz ezkondu egien.

1.459ko Uztaillaren 23an IVn Karlosen gogoan, bere aitak emendik aurrera seme bat lez ondo artuko ebala, Siziliatik urten da, Kataluñaren Salouko itsas-portuan lurreratu zan.

IVn Karlos bere aita IIn Juanegaz euren politikako gauzatan alkar egonda, Karlosek aitari eskatu eutson, Gaztelako 9 urte zituzen Isabelegaz ezkontzeko euki eban egitarau edo montioa aurrera eroan egiela.

1.459an Dagonillaren 28an IVn Karlos itsasora urtenda Mallorkara joan zan, Palmako Eleiz Nagusiaren ondoan egon zan Almudaina errege jauregian, erritarren poz eta su-gurpill pesta-bidez kokatuta, gero baiña aitak, Felanix'eko aitz gaiñean eginda dagoan SANTUERI eta San Salvador Santutegiaren urbil dagon gazteluan atxilotuta lez euki eban.

IVn Karlosek, emen euki ebezan Margalidagaz bere laztakerizko artu emonak.

1.459an Urrillaren 28n eguna baiño ariñago, IVn Karlosek oartu zan Margalinda aurdun geratu zala, eta Mallorkako jaurlariari idatzi utson eskutitz bat gertakizun orreikaz arduratu zedin, eta denbora baten barru, IVn Karlos jakin ondoren Mallorkako agintariak bere ardurak bete zituzela, eskutitz au idazten dautse: "Agradecemos mucho lo que fecho haveys en recomendación de MARGARITA, la verdad de la cosa mostrara lo que haveys sentido de ella ser prenyada".

1.459an Azaroaren 22an IVn Karlos bere 38 urtegaz Santueriko gazteluan atxilotuta egon zala, bere aita IIn juaneri eskutitz bat bitartez parkamena eskatu eutson, aitak emon eutsona.

Eta 1.460an Epaillaren 20an IVn Karlos bere aita IIn Juanegaz, Bartzelonan aurkeztu zan.

1.460an Epaillaren 28an Baldonzellako lekaidetxean, Bartzelonako aolkulari nagusien gandik onartuta, Epaillaren 31n Bartzelonan agintari lez sartu zan.

IVn Karlos Lorailan alkartu zan bere aita ta amaordeagaz Igualdan, eta ostera aurkeztu eutson bere aitari Gaztelako Isabelegaz ezkondu gure ebala.

1.460ko Bagillan, IVn Karlos eta Margalindaren seme Kolontar Kristobal semea jaio zan.

1.460ko Abenduaren 2an IIn Juan, bere seme IVn Karlosegaz Leridan egon ondoren, oartu zanean zelako garrantzi aundiak eukiko ebezan I Isabel IVn Karlosekin ezkontzeko gora beran Beaumont'tar Juanek Gaztelako IVn Enrikegaz euki zituzen elkarrizketak, IIn Juanek I Isabel, bere 7 urteko Fernando semeagaz ezkondu gura ebalako, eroaldi gogor bat emon baeutsen lez, bere seme IVn Karloseri atxilotzeko agindua emonda, lenengo Lerida, Aitona, Fraga, Zaragoza eta askenez Mirabent ta Morellako espetxetatik ibilita, txorakeri onen ondore, Kataluña ta Nafarroako erritar guztiek IVn Karlosen alde matxinatu ziran.

IIn Juanek ez eban askatu gura, IVn Karlosek ez ba ebezan Aragoi ta Nafar erregezko izen-buruak ukatzen.

Eta 1.461eko Otsaillaren 8an Kataluña osoa matxinatuta, eta matxinatuak IIn Juan ta bere emazte Juanaren atzetik ibilita, larri aldendu ziran oneik, euren eskuetan jauzi ez egiteko.

1.461ean Otsaillaren 25ean IIn Juan bildurrez, IVn Karlos aske itzi eban erritarren poz aundiagaz.

(1) Ugazarreba = hermanastra.

Beaumont' tar oneik IIn Juan erregetzaren aurka matxinatuta, eta IIn Juanek Frantziko XIIn Luiseri beti lez laguntza eskatzen eutselako, IIn Juanen zorrak 200.000 urre-gorritzko otxin edo dolbaraiño igon eben, eta Frantziko XIIn Luisek Rosellon ta Zerdeñagaz geratu zan zorraren baitura lez.

1.461ean Epaillaren 12an IVn Karlos Bartzelonara eldu zanean, erritarrak goratzarrezko ongi etorri andi bategaz artu eben, eta ikur bat lez geratu zan katalan ta baita beaumontar Naparrentzat, IIn Juan errege lez baztertuta, Rosellon ta Zerdeña, diruagaitik baituta itxi etutsozelako Frantziko errege XIIn Luiseri.

1.461eko Bagillaren 21ean IVn Karlos, Penedesekeo Billafrankan egin zan elkargoagaz, eta IIn Juanen seme nagusia izanda, Aragoi ta Kataluñan matxinatutako erritarrengandik ondorengo errege lez artu eban, eta Kataluñaren betiko ordezeko lez sinatu eban.

I Isabelekin ezkontzeko alegiñean IVn Karlosek, Gaztelako errege IVn Enrike Isabelen neba-orde edo ugaznebagaz asi ebazan alkarrizketak ostera, baiña IIn Juan bitartean sartuta, ezereztu ebazan ongune orreik.

Eta emen oartxo bat lez esan bear dot.

Katalanak, IIn Juanen seme IVn Karloseri egindako goratzarrezko ongi etorri oneik bere baimenik gabe, IIn Juan asarratu ebalá ezin besterarte eta IVn Karlos bere aita ta amaordeari belauniko eta lotsatasunezko izaera aundienean parkamena eskatuta, baita danok pozik eta batera Bartzelonara joan, bertan egon ziranean, IIn Juanek, IVn Karlos bere lagun eta berritzaille ona zanakin batera atxilotu ebezala.

Atxilotasunezko bidetik, borroka sortu zan eta IIn Juan astiñaldi ederra artuta, Nafarroara joan zan, bere emazte Juana, Kataluñako agintari lez itxita.

Juana izan zan, gero IVn Karlos atxilotuko ebena Mallorkako Felanix erritxoan, atz-gaiñean egindako Santueri gazteluan, eta inguru areitan egon zan etxalde gorriko Kolontar Juanen sendia ezagutu ondoren, bertan Margalida alabeagaz sortuko zirala Kolonen jaiotza erazi eben gertakizunak.

1.461eko Iraillaren 21ean, IVn Karlos eta beragaz euken barritzaille lagun aundia, biak larritasun aundiz gaisotu zirala batera.

Eta 1.461ean Iraillaren 23an IVn Karlos, 40 urte, iru illabete eta 26 egun euki zituzela il zan, bere berritzaille lagun ona, urrengo egunean Bartzelonako errege jauregian il da, IVn Karlosen ama-orde Enrikeztar Juanak, biak pozoituta.

IVn Karlos bere goi maillako jakintasunean, bost izkuntz, musika edo ta eresi arloetan jakin sakonak, edestilari ta elerti-zalea zan, bai Aristoteleseki idatzi ebazanak ekandu edo etikazko arloan gazteleratu be, Nafarroako erregearen kondaira, Exzelsiseko San Migel lekairtxeko mirariaren kondairak, eta elerti arauzko idazki bat beste askoren artean, euki zituzen.

IVn Karlosek euki zituzen seme/alabak.

1.439ko Iraillaren 31n ezkondu zan Klebeseko Inesekin, eta 1.448an il zan seme alabarik euki bage.

Ez zan ezkondu geiago, naita Gaztelako IVn Enrike erregearen I Isabel katolikua izango zanaren arreba ordeagaz, montio edo asmo batzuk egin arren.

IIn Juan eta bere emazte Enrikeztar Juanak, asarre aundiekaz ezereztu egiten ebena, Isabel neska ori euren Fernando semearentzat gure ebalako, IVn Karlosentzat Portugaleko I Eduardoren alaba Katalinagaz ezkontzeko alegiñetan ibilita.

IVn Karlos Bianako Printze onek, emakumezko maitale batzuk euki zituzen: 30 urtekin, Armendariz'tar Maria, bere arreba Leonorren neskamea zana, eta beragaz ezkonduko zala seme bat emoten ba eutson, esaten eutsonai.

-Baiña neska bat euki eban: Nafarroa eta Aragoiko *Ana*, 1.451-1.477 urte bitartean bizi, eta De la Bega ta De la Zerdatar Luis Medinazeliko Vn Konde eta I Dukeagaz ezkondu zana.

Napolesen egon zanean, Bega'ko Baka'tar Brianda andre ederragaz, ta bere bizi guztian Batzelonan il arte lagunduko eutsonakin maitemindu zan, beragaz seme bat eukinda:

-Felipe, 1.456-1.488 urte bitartean bizi zana, Beaufort'eko Konde ta Palermoko gongotzai edo artx-apezpikua izango zana, askeneko lan au ez ebena beteko, Bere osaba IIn Fernando katolikuak Montesako nausigo edo zaldungo ⁽¹⁾ ardurak bete egiezan eskaiñi eutsolako, eta Kordoba moruetatik berrezkuratzeko egonda, bertan il zalako.

Beste seme bat be Nafarroan bertan:

Nafarroako Juan Alfonso, San Juan de la Peñako lekaretxearen apaiz-buru zana.

IVn Karlos ilteko larrian egon zanean eta De la Bega'ko Briandarekin ezkontzeko, lagunak, bere Felipe semea ondorengo lez izendatu egian ibili ziran, baiña bere arreba IIn Blankari iztea erabagi eban, ume ori ondorengotasun orregaz, anai guda gorri baten erdian kokatzen ebalako.

Sizilian, Kappa neskatxo xume bategaz be, euki eban beste seme bat: Juan Alfonso, 1.459-1.529ko urte bitartean bizi zana, eta San Juan de la Peñako lekaretxearen apaiz-buru izanez gain, Ueskako gotzaiña be izan zana.

Bere serbitsuan egon zan beste neska bategaz be maite mindu zan Sayas'tar Giomar, beti urbil euki ebena.

Baiña guri arduratu egiten dauskuna, IVn Karlos Mallorkan egon zanean, Felanitxeko errian Anjoutar Renatoren serbitsura egon zan Kolon'tar Margalidarekin, 1.460ko Jorraillan euki eben semea da, Verd ta Martorelltar Gabrielen esanetatik, Amerikako lurralde zabalak azaldu edo argitan ipini ebazan Kolontar Kristobal izan zalako.

Eta Kolontar Kristobal iziltasunezko ongunde ori egon zalako, iñork ez ebalako aipatzen, beste edestilari batzuk: "IVn Karlos egi zalea izateagaitik, ez zala ostonduka ibiltan zan gizona, eta ori kontuan eukinda, aur-galdu edo ta jaio barritan il zala ume ori esaten dabe, naita IVn Karlosek euki zituzen seme alaba guztietatik, lau ontzat artu zituzenetik, jakinda Kolon'tar Kristobal euren artean egon zala.

Baiña ez dabena esaten, Margalida bera zelangoa zan gauza orreikaz, eta nortasunaren arloan zelango zentzunagaz bizi zan berak egiten ebazanakaz, il edo ta bizi bazan ume ori guk jakin daigun.

Edo ta Kolon, bere ama Margarita judu ondorengotzatik agertu ezkeru, IVn Karlosen

(1) Montesako nausigo edo zaldungo = maixugo edo ikasketarako arduradun nagusia.

semea izanda, iruditu geinkez orduko denboratan sortuko ziran arazo gogor ta larriak, adibidez: Kolontar Kristobal, Fernando katolikuaren ugazanaia zala esaterakoan ?.

Pozoiak errez ibiltzen ebazan denbora aietan, eta laster konponduko ebezan arazo orreik, alango izkutuzko itzarmen gogor bategaz ez ba-ebezan isilduten.

1.461ean Iraillaren 23an Bartzelonako errege jauregian egon zala il zan IVn Karlos 40 urte 3 illabete eta 26 egun euki zituzela, eta bere jaenezko izen artean: "Jaiotzatik, Nafarroa ta Aragoiko errege semea zan, 1.423an bere aitite IIIn Karlos biotz onekua, Bianako printze lez aurkeztu eutsen Nafarroako erritarrai, 1.439-1.461eko urte bitartean Gandiako Dukea, 1.458-1.461eko urte bitartean Biana ta Jeronako Printzea eta Montblank'eko dukea izan zan.

IVn Karlosen II-otoizketak, Bartzelonako Eleiz-Nagusian ospatu ziran, bere seme Nafarroako Felipe buru zala, eta 15.000 giza-semeen laguntzagaz.

Bere gorpua Eleiz-Nagusi orreitan egon zan illobiratuta 1.472ko urterarte, gero Pobleteko lekaidetxera eroanda.

1.515eko urtean ango eleiztarrak "sainduetsi"⁽¹⁾ gura eben, azkenean baiña, ez zan aurrera eroan.

IVn Karlos, aitagaz euki ebazan eztaibadagaitik ezagutzen da geien, bere bizitzan olan sortu ziralako gauzak, eta atzeratuagoak izan ziralako Gaztela ta Aragoiko gorteari begitu barik, Frantziko gortera begituten eban, jakitunezko maillan gizon andia izanda, eta bai lan ederraren babesle aundi bat, bere aitagaz euki ebazan eztabaida gogor orreik, jakitasunezko gauza oneik illundu arren.

IIn Blanka Nafarroako Erregiña.

1.424an Bagillaren 9an Oliten jaio zan Trastamara eta Ebreux'tar IIn Blanka.

Nafarroako erregiñaren I Blanka eta bere senar Aragoiko IIn Juan, orduan Peñafieleko Dukea zanaren ezkontzako bigarren alaba izan zan IIn Blanka, eta irugarrena I Blanka amak euki zituzen lau seme/alabetatik.

IIn Blanka erregiñaren bizi kondaira laburra.

1.436ko Azaroaren 22an Majanoko onguneagaz 6 urteko guda amaituta, Toledon sinatu eben bakea Gaztela ta Nafarroako erregeak.

12 urte ebazan Nafarroako IIn Blankak orduan, eta Gaztelan gero IVn Enrike izango zanarekin gurasoakaz elkar adituta euren seme/alaba oneik ezkontzeko, Nafar erregeak gudan galdu zituzen gaztelu ta uriak berrezkuratu ebazan.

1.440an Iraillaren 16an Nafarroako erregiña I Blankak, bere alaba IIn Blankari 15 urte zituzela lagundu eutson Balladolizera, Gaztelako IVn Enrikerekin ezkondu zedin, eta 1.441eko Epaillaren 31n ezkondu ziran.

1.441ean Jorraillaren 1ean, IIn Blanka bere alaba ezkonduetako urrengo egunean il zan I Blanka Nafarroako erregiña, IIn Juan bere gizona Gaztelako lurraldetatik euki ebazan eztabaidak bakezten egoala.

(1) Sainduetsi = santificar.

1.453an Lorailaren 2an, Nafarroan IVn Karlos eta bere aita IIn Juanen artean anai arteko guda sortzen zan bitartean, IIn Blankak ezkontza barragarri bat eroan eban Gaztelako IVn Enrikegaz, onen esanetan: kaltegarritzko eragipenagaitik⁽¹⁾ edo itzalkeriaren indarragaitik, bien artean ez zala egon arremezko artu-emonik, berak bere emazteagaz barrendu-ezin⁽²⁾ ebalako. Egia baiña, bere antxu⁽³⁾ edo algabetasunagaitik izan zan⁽⁴⁾ antza.

1.455eko urtean IIn Blanka bere neba IVn Karlosekin batera, euren aita IIn Juaneri, Nafar erregetzan euki ebazan errege/erregiñ izateko eskubideak eskatu eutsoezan, eta onek, ondorebage biak itxita, irugarren alaba 30 urteko Leonorren eskuetan itxi eban ondorego ori. Ekintza onegaz, Nafarroako beste anai-guda barri bat sortuta.

1.461ean Iraillaren 23an IVn Karlosek il orduko, beren azken naiak idatzi ebazan bere aizta nagusiena orduan IIn Blanka zanaren alde, 1.439an Otsaillaren 17an bere ama I Blankak idatzi eban baldintza bardiñekaz, Nafar erregetza ondorengo seme-alaba nagusien izatasunetik iraun egien beti lez.

1.462ko urtean IIn Blanka bakarrik eta bere aitaren naikerizko aginduan Oliten atxilotuta egoala, IIn Juanek Frantziko XIn Luisekin Agurainen batzartuta egon zirala, alkargo bat egin eben, IIn Blanka 38 urte eukezala, Frantziko XIn Luis'en 16 urteko Karlos seme txikerra Berri'ko Dukea izan zanagaz ezkondu edin, eta IIn Blankak ezetza emon eban lez, bere aita asarre, alaba txikerra Leonor eta Foixeko IVn Gazton bere suiñen agindupeko Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

1.462an Jorraillaren 12an IIn Juanek Oliten, bere alaba Leonor eta bere senar Gastonekin sinatu eban alkargoan, Leonor itzi eban bere ondorengo lez.

Eta orretarako IIn Blanka benetako erregiñaren eskubideen gaiñetik egin bear ziran lez gauza orreik, bereala asi ziran azpikeriz bere ilketa antolatzen, IIn Juanek bere suin Gaston eta alaba Leonorren zainpean ostera atxilotu egien aginduta.

1.462an Jorrailla'ren 23an IIn Juanek aginduta, Mosen Pierres Peraltakoak IIn Blanka mendi ostera atxilotuta eroan ebenean eta Orreagako lekaretxean egon ziranean, Blankak, idatzitako aldarrikapen bat egin eban: "Beren Nafar erregetzaren eskubideak ezereztu naian bere aizta Leonor eta Fernando bere ugaz-nebaren mesede, bere borondatearen aurka eroaten ebala eroaten eben lekura".

"Eta olan izan ez balitz, arduradunak baliobage itzi dagiezala beren salaketa orreik, olango zeozer egiterakoan, bere borondatea, Gaztelako errege IVn Enrike bere lenengo senarra zanaren zainpean iztea zalako euki ebazan eskubideak".

1.462an Jorraillaren 30ean IIn Blankak Saint-Jean-Pied-de Port'en idatzi eban azkenai ori, len bere senarra izan zan Gaztelako IVn Enrikeren alde.

1.462an Jorraillaren 30ean IIn Juan bere aita asarre, alaba txikerra ta IIn Blankaren aizta zana Leonor eta onen senar Foixeko IVn Gastonen gazteluan Monkadako dorrean atxilotzea erabagitzen dau.

Dana dala, Leonor jaio zanean, aitaren tresna biurtu zan beste seme/alaba IVn Karlos eta IIn Blakaren aurka egiteko.

Eta 1.464ko Abenduaren 2an il zan IIn Blanka bere aizta Leonorrek pozoituta Frantziaren

(1) Kaltegarritzko eragipenagaitik = influencias malignas. (2) Itzalkeriaren indarragaitik = por la fuerza de la mala influencia. (3) Antxu = esteril, agenèsiko. (4) algabetasun edo ezintasuna = impotencia, fallo de potencia.

Orthez'eko urian Monkadako dorrean IIn Juanen aginduz.
Leskarreko Eleiz Nagusian obiratu eben.

Foix'eko I Leonor Nafarroako Erregiña.

1.425eko Dagonillaren 22an Nafarroako IIIIn Karlos erregearen Juana, alaba nagusiena il zan, eta Iraillako 8an IIIIn Karlos bera.

Gertakizun oneik I Blanka kokatzen eben ondorengo lez, eta Nafarroako erregiña koroatu eben, bere senar Aragoiko IIn Juan, ezkon-lagun lez errege koroatuta.

1.426an Otsaillaren 2an Oliten jaio zan Ebreaux eta Trastamaratar Leonor, Nafarroako I Blanka eta Aragoiko IIn Juanek euki zituzen lau seme/alabetatik, alaba txikerrena izan zana.

Eta bere anditasunezko izenaren artean, 1.426-1.479 urte bitartean Nafarroa ta Aragoiko errege/erregiñaren alaba, 1.462/1.472 urte bitartean ezkontza bidez Foix'eko Kondea, 1.462/1.479 urte bitartean Jaurleri lez, eta Nafarroako erregiña lez 1.479ko Urtarrillaren 28tik Otsaillaren 12rarte.

Leonor, bere aita Aragoi ta Nafarroako IIn Juanen alaba kuttuna izan zan, IIn Juanek bere maltzurrekeriak beste seme /alabaren aurka eroateko, panpiña bat lez ibili ebalako.

1.427an Dagonillaren 9an lortu eben IIn Juanek, Leonor Nafarroako errege/erregiñaren zerrendan, IVn Karlos Bianako Printzea eta IIn Blanka neba/arrebaren ostetik ezartzea.

1.434ko urtean I Blanka eta IIn Juanek, Foixeko IVn Gazton Kondearekin itzarmendu ziran euren alaba Leonor txikerrenagaz ezkondu zedin.

1.436an Uztaillaren 31an onetsi eben ostera I Blanka eta IIn Juanek itun ori, Leonorrek Aragoi aldetik 50.000 florin ezkon-sari lez artuta, Miranda, Larraga eta Falzes'eko Uriaren kontura.

1.442ko urtean, I Blanka ama il eta gero ezkondu ziran eleizatik Leonor eta Bearn'eko IVn Gazton. Leonor bere senarrakin ortik aurrera, Bearn'era bizitzen aldatuta.

1.455eko urtean IIn Juanek, bere seme IVn Karlos eta IIn Blanka alabea Nafarroa eta Aragoiko erregetzari buruz, ondorengogabetasunean itzi ebazanean, Leonor 30 urte euki zituzela, bere aita IIn Juanen panpiña izatera aldatu zan, onek bere beste seme alabaren aurka egiteko, itxura orreitan ibili ebalako.

IIn Juanek, erregearen ondorengo lez, Leonor eta bere senar IVn Gazton izendatu ebazan.

Gauza oneik Nafartarren anai arteko borroka gogorak sortu ebezan, erreiñuko jaurkintza oso latz biurtuta, eta eskerrak Martin eta Peraltako Pierres agramontesei, auek izan ziralako Nafarroako jaurkintza zuzendu ebenak.

1.462an Jorraillaren 12an Oliten IIn Juanek, Leonor bere alaba eta bere suin IVn Gazton kondeagaz, elkarpede bat egin eben, eta bertan siñatu, zelan IIn Juan Nafarroako errege lez onartuta, berak bere aldetik onartzen ebala bere alaba Leonor, Nafarroako erregetzaren ondorengo lez.

Ongune onek eskatzen ebena: 1.461eko Iraillaren 23an IVn Karlos Bianako Printzea bere ugazama Juanak pozoituta il ebenetik, Leonorren aizta IIn Blanka ikusmenetik kentzea, eta lazter antolatuko eben onen pozoitasuna, Berarn'en Foix konderriko gazteluaren Monkada dorrean 1.464ko Abenduaren 2an egin ebena.

Ekintza orren ostean Leonorrek, Nafarroako erregetzaren ordezkotza bere izenean lortu eban.

1.465eko urte onetan Leonorrek, gudako eten bat siñatu eban beamontesarekin, eta bere jauntzazko izenetan eroaten ebazan izenburuak: Nafarroako erregetzaren ondorengo leen printzea, Aragoi eta Siziliako erregearen alaba, Foix ta Bigorrako Kondesa, Bearneko Andrea, eta bere aita IIn Juan Nafarroko erregearen, orokorrezko ordezkoa izatea, izan zian.

Aita IIn Juan eta alaba Leonor biak lapurrak zirala ta, batak edo besteak aukerea bakarrik lortu bear Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta 1.462ko Jorraillan Oliten Leonorrek ez ba eben siñatu IIn Juan errege izateko ongundea, Leonor bera izango zan Nafarroako erregiña, eta ez ziran piztuko, Leonor beamontesarekaz lagun eta IIn Juan agramontesarekin piztu ziran borrokak Nafarroako erregetzagaitk.

1.467ko urtean Leonor bere beaumont' tar kondestablearen alegiñ bidez, geldiune bat egin eban IIn Juanen agramontesekin.

1.468ko urtean IIn Juanek, Leonorren lenengo aolkulari eta Iruñiako gotzaiña Txabarritar Nikolas il eban, gero Leonor bera, beren erregetzaren orokorrezko ordezkotzatik kenduta eta ardura ori Leonorren seme Gaztonen eskuetan itzi ondoren, eztabaida orren nasketak azken muturraren mugaraiño elduko ziran.

1.471n IIn Juanek ostera itzuli bear eutsoezan Leonorri bere ordezko ardurak betirako, naita, IIn Juanek Leonorri ipini eutsozan Aragoiko eskubideetatik alde egiteko baldintzak, balio aundirik euki ez, borrokarren gogortasunak txikiagotzeko.

1.472an Uztaillaren 10ean il zan Leonorren senarra Foixeko Gazton Kondea, Bearneko gualozteakaz bere emazteari laguntzen joan zanean.

Nafartarrentzat aldikada oso txarra izan zan egoera au, Frantzia, Aragoi eta Gaztelatarrak itxaroten egon ziralako, euren musturrak Nafartar erreñuan sartzeko.

1.472an Dagonillaren 2an saldukeri ta judaskeriak geiegian egon ziran lez, beamontes kondestable Trebiñoko Laratar Manrrike kondea, Gipuzkoako oñazekoakaz alkartu ondoren, Nafarroaren mugetako, Lekunberri, Laiza ta Gorritiko gazteluak ezereztu ebazan.

Eta Leonor eskubideko erregiña eta Nafar erreñu osoaren ordezkotzako jaurkintzaren aginduan egoala, Leringo Kondeak, agiri gogor bat atara eban, San Juanen lekaidetxeko jauna eta Luxako Juan beaumontarrak, eriotzera eta ondasunaren baiturara zigortzen ebanak, ortik aurrera eta azkenerarte beaumont'tarrak Fernando katolikuaren aldera aldatuta.

Ariñautik be, Nafarroako erregeak askatasunezkoak izan ba ziran be, saman beaumont' tarren lepokoa eroaten eben, Fernando katolikuak ondo baiño obeto erabilten ebana.

Nafarroako erregeak beste aldetik, Frantzian laterritasunezko jabetasunak euki ebazalako, Frantziako erregearen agindutara egon bear ziran. Eta geiago, oneik etenbako auzian ibilten ziranean Foixeko leiñuaren ondorengotasunagaitik.

Nafarroako erregetza orregaitik, Frantzia, Gaztela ta Aragoien arteko oreka larrian bizi izan bear izan eben beti, nafar erregetzaren eriotzea, oreka orreik apurtzen ziranean sortuta. Eta Fernando katolikua, Aita Santu IIIIn Pio, IIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano, eta VIIIn Klemente maltzurkerizko gauza orreitan paregabeko maisuak izan ziran lez, 1.512an sortu zan, danak ariñautik jakin ebena sortuko zala.

1.479an Urtarrillaren 19an il zan IIn Juan 82 urte beteteko euki zituzela.

Eta 1.479an Urtarrillaren 28an Leonor erregiña lez izendatuta, Tudelan egoala Otsaillaren 12an il zan, 15 egun erregiña lez bakarrik bete ondoren.

Eta ilteko egon zala, bere neba IVn Karlosek euki ebazan eskubide guztiak eskatu ebazan bere semearentzat, bere ama I Blankak agindu eban lez.

Leonor eta Foixeko Gazton Kondeak euki zituzen seme/alabak:

Gazton 1.444an Libournen jaioa eta 1.470ean Azaroaren 23an il, Bianako Printzea, eta Kastelboneko Konde ordea zana.

Frantziako Madalena VIIIn Karlosen alabeagaz ezkondu, I Febotar Franzizko ta Katalina seme alabak euki ebazan, biak Nafarroako erregetzaren ondorengoak izango ziranak.

Pedro 1.449an Otsaillaren 7an Pau'n jaioa eta 1.490ean Dagonillaren 10ean Erroman il zana, bere bizitzan Arles'eko artx-apezpiku ta kardinala izan zana.

Juan 1.450ean Etanpes'en jaioa ta 1.500ean Azaroaren 5ean il, bere bizitzan Etanpes'eko Konde eta Narbonako Konde ordea izan zana.

Juan au, Frantziko XIIIn Luisen arrebagaz, Orleanseko Mariarekin ezkondu, eta biok euki eben alaba Foix'eko Jermana, Fernando katolikuaren bigarren emaztea izan zan lez, IIn Fernando katoliko onek gero, bere emaztearen eskubide orretatik eskatuko ebazan, Nafar erreñuaren eskubideak.

Emen, argi ikusten dogu, IIn Fernando katolikuak alegiñ guztiak eginda, aukera ori be erabili ebala Nafarroako erregetzagaz geratzeko, eta emen ez daukie ezer ikusirik, espainiar aberriaren asmoak, Fernando orko aldetik sekula ez zalako ibili.

Gauza orreik, Zisneros, eta 325ean Nizeako batzar nagusian Erromako katolikotasunetik datozen Mundu osoko batzangoaren asmokeriakaz begitu bear jakie.

Or dagozelako faziztaren erpe-nagusi zabal ta sakon orreik, mundu onetan, Europa, Asia ta Afrikan batez be menperatzeko alegiñetan, ainbat eta etenbako odoljariozko kalteak egin dabezanak. Eta ez arritu, oraindiño be, ortze dabizelako.

Maria 1.452ko urtean Karkasonan jaio eta 1.467an Kasalen il, 1.465ean Montferrateko VIIIIn Gillermo markesagaz ezkondu egon zana.

Juana 1.454an jaio ta 1.476ean Otsaillaren 10ean Pau'n il zana, 1.469an Armañak'eko Vn Juan Kondeagaz ezkondu egon zana.

Margarita 1.458an jaio, eta 1.486eko Lorailaren 15ean Klisson'en il, 1.471ko urtean Bretainako IIn Frazizkogaz ezkondu euki eben alaba Ana, Bretainako Dukea izanez gain, birritan izan zan Frantziko erregiña, VIIIIn Karlos, XIIn Luisen semea zana eta XIIIn Luis, Orleans'eko Karlos dukea ta Klebes'eko Ana'ren seme eta Frantziko erregeak ziranakin ezkondu egon zalako.

Katalina 1.460an jaio ta 1.494ko urtean il, 1.469an Foix'eko IIn Gazton Benauges eta Kandaleko Kondea zanakin ezkondu egon zana.

Isabel 1.462ean jaio eta 1.479ko ostean il zana, Guy Pons'eko Jaunagaz ezkondu egon zana.

Ana 1.464ko Urtarrillan Iruñan jaio, eta 1.464an Otsaillaren 3an Iruñan il zana.

Leonor 1.466an jaio ta 1.480ko urtean il, Medinazeliko Dukeagaz ezkondu baiño apur bat lenago.

Jaime 1.470ean jaio eta 1.500enean il, Kortés eta Monfort'eko Kondea, bere lengusiña Foix eta Peraltako Ana, "Mosen Pierres **Gaztearen**" alabagaz ezkondu lenengo aldiz, eta auek banandu ziranean, Lerin'eko Kondearen alaba Beaumont'tar Katalinagaz ezkondu zana.

Oar txiki bat.

Gaztelako I Isabel eta Aragoiko II Fernando katolikuaren bizi kondairak luzeak izango litzakezelako, IVn Karlos Nafarroako errege ta Kolon'tar Kristobal'ekin zer ikusi daukiezan zeaztunetaraiño bakarrik aipatuko dodaz.

Aragoiko II Fernando katolikua.

1.452an Epaillaren 10ean Enrikeztar Juanak, bere senar II Juanen aginduz Nafarroaren Lizarrako gorteetatik IVn Karlos bere ugazsemearen jaurkintzazko eskubideak lorrinzen eta ume barri bat itxaroten egoala, berak gura ebalako edo ta Aragoiko legeak alan eskatzen ebalako, larri aldi bateko ariñeketa baten joanda, Nafarroakin muga egiten dauan Aragoiko Sos erritxoan eta euren senideko Sada etxean jaio zan II Fernando "katolikua" deritxon elementu au.

Nafarroa eta Aragoiko II Juan erregea bigarrenez ezkondu Enrikez'tar Juana'rekin, euki eben lenengo semea zan.

1.458an Uztaillaren 25ean Fernandok 6 urte eukezala, bere aita Aragoi ta Nafarroako erregeak, Montblank'eko Duke, Ribagorzako Konde eta Balagerreko jaun izenakaz jantzi eban.

1.461an Urrillaren 6an Bianako Printze ta Nafarroako erreñuan eskubideko errege zana eta Aragoien erregearen ondorengoa IVn Karlos, bere ugazama Enrikeztar Juanak pozoituz il ebenean, II Juan bere senar eta Nafarroa ta Aragoiko errege, IVn Karlos eta Fernandoren aitak, 15 egun beranduago bakarrik, Fernando Aragoiko Katalayuzen, Aragoiko ondorengo errege izendatu eban, andik gero Kataluñara eroanda, katalanak ondorengo errege lez onartu egien.

1.462ko urtean II Juanek, Fernando semea Kataluniaren jaurkintzan, beren Orokorrezko ordezkoa izendatu eban.

1.468ko urtean II Juanek, Siziliako errege izendatu eban Fernando.

Eta 1.462-1.472 arteko urteetan Kataluniako anai arteko gudan, Fernandok bere aita II Juanek aginduta, Kataluñaren gorteko zeregiñakaz arduratu zan.

1.468ko urtean Fernandoren lengusua, Gaztelako IVn Enrike erregearen seme Alfonso il zanean, IV Enrike erregeak, bere ugazarreba Isabel artu eban ondorengo lez Gaztelako erregetzan.

1.469ren Urrillako urtean, II Juan Nafarroa eta Aragoiko erregeak maltzurkeriz, Balladolizeko gortean lortu eban, bere seme Fernando, gero Gaztelako erregiña I Isabel izenagaz ezagutuko zanarekin, ezkontzazko onguneak siñatzea.

Eta maltzurkeriz esaten dot, ariñautik Fernando Patxekotar Juanen alabeagaz ezkontzeko, itzemanda egon zalako.

Jaun aundi guzti oneintzat, zer ote ziran LEGEAK ?.

1.469an Epaillaren Sean Aragoi eta Nafarroako IIn Juan erregeak, bere seme Fernando Gaztelako I Isabelegaz ezkontzeko alegiñetan ibili zala, IIn Paulo Aita Santuak ezkontza orretarako ez ebalako emoten baimenik, Karrillotar Alfonso artx-apezpikuak ariñautik il zan IIn Pio Aita Santuen 1.464ko urteko bulda bat eskarniatu eban, I Isabel eta Fernandok euki eben leen maillako senidetasunaren eragozpenak ezereztuteko, ta an egon ziranak jakin arren gertaera ori, Leridan Zerberako Urian siñatu zan ezkontzaren alkargo orren agiria.

Eta 1.469an Urrillaren 19an Balladolizen Biberoko jauregian ezkondu ziran Gaztelako I Isabel eta bere leen maillako lengusu Aragoiko erregetzaren ondorengo, Siziliako errege ta Geronako Printzea zan IIn Fernandogaz.

1.471ko Abenduaren 1ean IVn Sixto Aita Santuak bulda bat agertu eban, I Isabel ta Fernando artean euki ebezan odolkidetasunezko debekuetatik, parkatu edo salbuetsi egiten ebezanak, Erromatik Borjatar Rodrigo, gero Aita Santua VIn Alejandro izenagaz izango zanak ekarri ebena.

1.474ko urtean baiña, Gaztelako erregetzan IVn Enrike il zanean, anai-guda sortu zan, I Isabel aukeratu ta IVn Enrikeren alaba Trastamaratar Juana “La Beltraneja” ez izenarekin ezagutzen ziran alderdikidearen artean.

Juana Portugaleko errege Vn Alfonso “Afrikanoaren” laguntza eukinda, onek Juanagaz ezkondu gura ebalako, Portugal eta Gaztelako erregetzak alkartu gurean.

1.475eko urtean Fernandok asko zirikatuta, Segobian Adizkidetasunezko batzarra ospatu zanean, lortu eban I Isabelek euki ebazan eskubide bardiñakin Gaztelako “errient-kide”⁽¹⁾ izatea, eta ortik aurrera Vn Fernando izenagaz ezagututa, berak artu eban guda onen zuzendaritzazko ardura, 1.476an garaipena lortuta eta gero Santiagoren-maileko⁽²⁾ diruaren zuzendaritza artuta 1.477ko urterarte.

Anai arteko guda au, Juana “La Beltraneja”ren ondamenakin amaitu zan.

1.476ko urtean katoliko errege oneik “Anaidi Santua” irasi eben.

1.478ko urtean gaztelanian inkizizio edo fede-zaindia sortu eben, Aragoien 1.249ko urtetik egon zan bardiñ antzekoa.

1.479ko urtean Alkazobasen egin zan itun edo elkargo bitartez, Juanak, Gaztelako erregeagaz eukezan eskubideari uztea erabagi eban, eta Koinbrako lekaretxe baten sartu zan.

1.479ko urte berean eta Urtarrillaren 20an Aragoi eta Nafarroako errege IIn Juan il zanean, IIn Fernando errege eginda, Aragoien emakumearen aurka “Salikako Legea” egon zan lez, I Isabel ezin eben “errient-kide” izendatu, Aragoien IIn Fernandoren agintaritza bardiñagaz erregiña izan zediñ, eta Gaztelarrak txartxat artuta, aurrerantzean Gaztelako agintaritzarako I Isabeleri garrantzi aundi edo aintzindaritza emon eutsoen.

1.480ko urtetik aurrera eta Aragoi ta Gaztelako gorteak antolatuta, zuzendaritzaren aginpidea⁽³⁾ ipini eben, erregeak antolatzen eben erri ta lurralde guztietan.

1.481eko urtean Gaztelan, Zaldun agintariak bideratuta, Errege-Diruak antolatzen dira⁽⁴⁾.

1.481eko urtean errege katolikuak, Granadako moru-erregetzaren menpekotasuna lortu nai guda asi eben, eta guda onek euki eban bereizgarritasunezko arriskutik alboratzeko,

(1) Errient-kide = corregente. (2) Santiagoren-Maileko = Orden de Santiago. (3) Zuzendaritzaren aginpidea = mandato del corregidor. (4) Errege-Diruak = hacienda real.

Fernando katolikuari guda orren agintaritza kendu eutsoen.

1.492an Urtarrillaren 2an amaitu zan guda onek, ospe ta indar aundia emon eutsen errege katolikuari, *naita nire ustez geiago munduaren katolikotasunezko batzangotasuna beti lortzeko ibiltzen ziran eleiztarrai, ortik aurrera itxaropenezko baikortasun erak zabaldu egin zaielako erregearen agindu gaiñetik, euren izkutuko aolkularitzaren lan nagusi guztiak batzangotasun orreitarara bideratzeko.*

1.492an Epaillaren 3an erdi-ugarte edo peninsula onetatik, kanporatu egin ebazan ez ziran bateatuten Juduak.

Eta Nafarroako erregetza be sartzen dabe Gaztelako jaurkintzan, Tudelan 1.476ko urtean egin zan ongune bidez.

Eta Amerikako lurraren agerketak, gure Kolon'en ausardiagaitik.

1.492ko urtetik aurrera Fernando katolikua, naita bere maltzur izaeragaz danetarako almena euki, euki eben gaztelatar eskubidetik baiño, geiago asi zan begiratzen beren aldeko Aragoiko errege eskubidetik, eta Italia ta Afrikaren Iparraldeari ain zuzen be.

1.493ko urtean Bartzelonako ongundearen bidez, Frantzezaren eskuetan 1.463ko urtetik egon ziran Rosellon eta Zerdeña berrezkuratu ebazan.

1.495eko urtean Fernandok, Napoles eta Siziliako erreñuak Frantzezak eurenganatzeko egiten egon ziran alegiñak ezereztuteko, "Biltzar Santua" antolatu eban, eta eurakaz lortu eban Napoles eta Siziliako erregeak botatea.

1.496an Abenduaren 19an VI In Alejandro Aita Santuak, Fernandoren bildur beren agintaritzazko lurraldeagaitik "Si Convenit" bulda atarata, katolikozko izenak ipini eutzezan Fernando ta Isabeleri, ortik aurrera Gaztelako errege guztiak, nai Austria edo ta Borboi izan, danak ondorengo lez ekarri dabenak, gaur I Karlos izanda izen orren arduraduna.

1.502an Otsaillaren 14ko agiri baten bidez, katolikotasunera ez ziran aldatzen Granadako moru guztien oilketa edo kanporatzea, aginduten ebana.

Eta 1.504ko urtean Frantzezak Napoleseko luraldetik kanporatuta, Napoleseko erreñua Aragoiko koroara aldatzea.

1.504an Azaroaren 26ko eguerdian I Isabel il zanetik, eta 1.512ko urtean Nafarroako erregetzaren menpekotasuna guda bidez lortu ondoren, erregearen gogamena ez, eurak ez ebalako jakin, baiña mundu onetan aginduten eben eleiztar gogamenetan bai, Europa osoa katoliko batzangotu ezinik ibilita euren ustezko espainiar lurraldea lez, ortik aurrera euki eben oldozmeneko almenak aukera baten billa ipini ebazalako, 1.789ko urtean Frantziko iraultzagaz aurkitu ebena, eta eleiztar ta merkantilistak lagun alkartuta, iraultza ori egokitu eben, orko urtetik aurrera Europako lurralde osoak laterritzeko asmoakin, errege bakotzaren antolabidezko lurraldeak laterrituta, berezitasunezko aberri edo errigizarteak etenbako guda-erasoko keiñada bategaz menperatuta.

Eta 2.000 urte geroago, menperatzaill zale oneik ez dira konturatzen, Jainkoak, gure gizatutako arimak gai-bereztutako Ludi edo mundu onetara bialduta, askatasunezko legean berezkotu euskunetik, bakeak ezin dirala menpekotasunezko norkeriekin lortu, mundu fisiko onetan sutauts edo lerrautsari, poxpolloa urbiltzea lez dalako.

1.505eko Urrillaren 19an Fernando 53 urte euki zituzela, 18 urte euki zituzen Foix'eko Germanarekin ezkondu zan.

Fernando katolikuaren gogoak emendik aurrera, Erromako eleiztarren espainitasuna lortu baiña geiago, euki zituzen guda-indar eta almen guztiagaz egiten ebazan oarkuntzak, Erdi Ugarte onen Ekialdeko lurraldeak, Aragoien agindupean ipintea zan, orko bidetik urbilago ikusten ebazalako beren nagusikerizko kaizar ametsak.

1.509ko urtean Fernando eta Foix'eko germanak, seme bat Juanen izenagaz bateatu ebena euki eben, baiña, andik ordu gitxira il zan.

Eta zer sortuko ote zan gaztelaniako asmoetan mutil ura il ez bazan ?.

Gaur, espainiar asmakuntzazkoak guzurra da esaten daben guztia, Fernandoren amets edo irudikerian ez zalako agertzen espainiarren irudirik iñundik be.

Gaztelako I Isabel erregiñ katolikua.

Gaztelako IIn Juan erregea eta bere lenengo emazte Aragoiko Mariaren artetik, Enrike, gero errege lez IVn Enrike "Antxua" ez izenarekin ezagutuko zana jaio zan

1.451ean Jorraillaren eguen guren'eko 22an, Zelaiko Medinaren Andienetariko Dorreak egon ziran Madrigaleko errian jaio zan I Isabel, aita Gaztelako IIn Juan eta bigarrenez ezkontuta Portugaleko Abiz'tar Isabel amaren bidetik. Eta 1.453ko urte bi beranduago, bere anai Alfonso jaio zan.

1.454ko urtean Isabelen aita IIn Juan Gaztelako erregea il zanean, Isabel bere ama Abiz'tar Isabel eta bere anai Alfonsogaz Arebaloko errira aldatu ziran.

1.461eko urtean IVn Enrike Gaztelako erregeak aginduta, bere ugazarreba Isabel eta bere ugazanai Alfonso, Segobiako gortera eroan ebazan, denbora orreitan IVn Enrike eta bere emazte Portugaleko Juanaren alaba jaioteko egon zala.

Eme-ume oneri gero "La Beltraneja" deituko eutsoen, IVn Enrike'ren antxutasunean, bere emazteak, Beltran de las Kuebas'eko laguntzarekin euki ebalako alaba ori, eta ortik ipini eutsoen Juana'ri "La Beltraneja" izen ori.

1.462ko urtean IVn Enrike Gaztelako erregearen alaba "La Beltranejatar Juana" jaio zan, bere jaiotasuna legeztasunezko zalantzaz ipini zana, Kobatar Beltranen alaba zala gortean esaten zalako, eta orregaitik esaten eutsoen "Juana la Beltraneja".

1.466an IVn Enrikek, Isabel 16 urte euki zituzela, Patxekotar Juanen anai ta 43 urte euki zituzen Kalatrabako Jirontar Pedrokekin ezkondu gura eben, baiña Isabelengana joan zanean ezkontzeko, bidetik doala, este muturreko gaixoak (1) jota il zan.

1.468ko urtean Gaztelaren gorteko gizon andien norkeri bidetik, aurkan ipini zituzen IVn Enrike erregea ta bere ugaz anai Alfonso, eta urte onetan Alfonso pozoituta il eben arazo orreik amaitu zitezen.

1.468an Iraillaren 19ko urtean, gauza oneik olan ibili arren, Isabellek ez eban artu gura erregeiñaren aginterik, arik eta bere ugaz anaia IVn Enrike bizirik egon zan bitartean, baiña bere ugaz anai IVn Enrikeren eskutik "Toros de Gizandoko ongunean" lortu ebena, Asturiaseko printzea izendatzea zan, Gaztelako errege/erregiña izateko bear bearrezkoa izan zana, eta eztabaida oneitan Gaztelako gortekoak, bere loba Juana La Beltranejaren aurretik ipini eben erregetzaren ondorengotasunean.

(1)Este muturreko gaixoa = ataque de apendicitis.

Isabel emendik aurrera Okañako Urian, Patxekotar Juanen etxe batera bizitzen joan zan.

Isabel iru urte euki zituzenetik, Nafarroa ta Aragoiko errege IIn Juanen alegiñagaitik, bere seme Fernandogaz ezkontzako itzarmendukoa zan, eta Gaztelako errege IVn Enrikek itzarmen ori apurtuta, I Isabelen lengusua zan Nafarroako IVn Karlosegaz itzarmendu eban.

Ez ziran aurrera joan IVn Enrikek euki zituzen asmoak, Nafar ta Aragoiko errege IIn Juanek egin ebezan aurkako alegiñak gogorrak izan zirelako, eta beste leku batera begituta IVn Enrikek, Portugaleko Vn Alfonsogaz ezkondu gura eban, baiña Isabelek ikusita euren artean adifñeko aldia 20 urtekoa zala, berak ezereztu eban ezkontza ori.

Nafarroa eta Aragoiko errege IIn Juanek ostera saiatzen da Fernando bere seme ta Isabel ezkontzen, baiña senidezko eragozpen andi bat euki eben biak, euren aititek Antekerako Fernando eta Gaztelako IIIIn Enrike, anaiak ziralako.

Aragoiko Fernando, Trastamara'tarren ondorengotasunean mutil bakarra izan zalako, "La Beltraneja" eta Isabelen aurkako estabaidak nastatu gurean, bera be agertu zan Gaztelako erregetzaren errege-nai lez, Portugaleko Alfonso erregeagaz ezkondu eban "La Beltraneja"tar Juanaren aurka, baiña ez eutsuen onartu eta or geratu ziran bere alegiñak.

Eragozpen orren bitartez ezkontza au aurrera eroateko, IIn Pio Aita Santuaren bulda bear ebela ta onek, Frantzia, Portugal eta Gaztelako erregetzakin etsaitasun aundiak sortuko ziralakoan siñatu gura ezean agertuta, gero Aita Santua VIn Alenjandro izenagaz izango zan Borgiatar Rodrigo bialdu eban arazo orreik konpontzeko.

Moruen aurka egiten ebelako eta beartasun bidez agertuko ziran lanagaitik, eleiztar onein atsegintasunezkoa izan zalako eskontza au, Karrillo de Akuñatar Alfonso Toledokoartxapezpiku edo gongotzaiñak, IIn Pio baiño ariñagoko IIn Juan Aita Santuak 1.464ko urtean atara eban bulda, berak eskerniatutako antz baten agertu eban, eta or inguruan egon ziran guztiak, zer gertatzen zana danak jakin arren, ontzat artu eben, eta Isabel ta Fernandoren artean egon ziran senidetasunaren debekatuzko lege guztiak ezereztuta geratu ziran.

1.469an Epaillaren 5ean Isabelek baietza emon ondoren, Zerberako Urian siñatu ziran ezkontzako elkargo orreik.

1.469ko Maiatzan Isabelek bere anai Alfonsoren illobia ikustera joan zalakoan, bildurrez Okañara iges egin eban, Patxekotar Juanen babesera.

1.469an Urrillaren 19an, Fernando igeslari baten antzera, iñork jakin barik Balladolizera joanda, Biberotar Juanen jauregian ezkondu ziran 19 urteagaz Isabel, eta Fernando 18 urte euki zituzenean, IVn Enrike, I Isabelen ugazneba oso asarre agertuta.

Ezkontza onein sare arteko azpikeriak ez eben beste asmorik euki, Isabel Portugaleko Vn Pedrokekin ezkondu eban, IVn Enrikeren alaba Juana "La Beltraneja", Portugaleko Vn Pedro ondorengoan seme Juanegaz ezkontzea baiño, Portugal eta Gaztelako lurraldeak alkartzeko.

Isabelek ez eban ezkondu gura Pedro onegaz len esan dogun lez, IVn Enrikek Frantziko errege XIn Luisen anai Guyenako Dukeagaz ezkontzeko antolamenduak eginda.

1.470eko urtean egin ziran Medinako Zelaietan itzarmenduzko ezkontza oneik, baiña ez eben ezertxo be lortu, frantzez Guyenako Duke au baleiteke 1.472ko urtean, iñork ez dakien nortzugaitik, pozoituta il zalako.

Eta 1.471ko Abenduaren lenengo eguna baiño ariñautik, IVn Enrikek Isabelen aurkako lanean ibilita, Borgiatar Rodrigok agertu eban buldako legearen indarra ezerezean edo ta ebagita itxi ebalako, Toledoko artx-apezpiku Karrilloren lan bitartez, IVn Sixto Aita Santuak baieztu eban barriz ezkontza ori urte onetan, Simankasen agertu eban buldarekin.

1.474an Abenduko 12an IVn Enrike ilda, 13an koroatu eben gaztelarren Isabel erregiña lez, Gizandoko Zezenaren Urian *Eleizako aginduari bere menpetasun osoa siñatuz*, bere IVn Enrike ugaz anaiakin elkar-aditu ebezan baldintzakaz, eta indar andiko erregiña izan zan euki eben aolkularitzaren bitartez, askoren andikerizko eritziaren aurka, zentzu aundiz aurrera egin ebalako Amerikako lurraldeak argitan agertzeko be.

I Isabelek, oso osoan sinistu eutsozan Kolon'eri iñoz ikusi ez ziran itsas-osteko lurraldearen burupideak, bere aitorle ta aolkulari Talaberako Ernando lekaideari sinistu eutson lez, eta Kolon'tar Kristobal, senide lez be onartu eban.

Eta onarte ekarten dogu I Isabelen bizi kondaira, emendik aurrera Kolontar Kristobalegaz asten dalako biok euki eben adiskidetasunezko edesti ederra.

Mallorka ugartearen asierazko edesti ta Kolonen alditan bizi ziran jendearen jakituri ta nortasunezko zeregiñaren aurkezpena.

Mallorkaren ugarte, beste ugarte bi Ibiza eta Menorka erdian kokatuta dago, bere 3.625 Km karratuekin, itsas-bazterren inguruak 300 km. daukazela, Puig Mayor mendiaren goialdiak 1.500 metroekin, eta Erdi Ugarte edo peninsulatik 25 leko ⁽¹⁾ Bartzelonaren Egoalderaiño dagozela.

524.980 biztanlekin, Palma bere Uri nagusiaren edertasunean, abelur-ikastetxe, zapataren langintza eta atzerrien txangoketaz, gaur bakez bizi diranak.

1.229ko urtean menperatu eban Mallorka Aragoiko I Jaime garaitzailleak eta 1.349ko urtean, IVn Pedro zeremoni-zaleak betiko lotu Aragoiko erregetzagaz.

XVn gizaldian Mallorkako Ugarte, Aragoiko lurraldea zan eta ez eban ezer ikusirik Gaztelako erreñuarekin, Kolon gaztelaniko gortetara joaten zanean atzeritar bat izan bazan lez joaten zalako.

Mallorka Ugartean baleiteke urriñetik etortea itsasoko jakintzak eta mapagintzako zaletasunak, K.a. 1.300 urte inguruan ejiptziarrak euren jakiturizko mailla aundienean egonda, eta Greziarrak orduan ezagutzen zan mundu guztiko itsasoetatik asi ziranean ibiltan, K.a. 1.000 urte gitxi gora-beran, Euskalerrian "Triku-Arri, eta eurak gaur "Talayots" esaten dautsoen jendekuntzatik datorrela esaten dabe batzuk.

Baiña Mallorkaren nortasunezko jakintza, ezin da ulertu Lull, edo Lull'tar Raimundo frantzizkotarra barik, eta kondaira luzea dalako, zati aundi baten murriztuko dogu.

1.232ko urtean Mallorkaren Uri Nagusia dan Palman, gaur bere Kale Nagusiko 5n zenbakian egon zan etxean Jaio zan Lull'tar Ramon teologu, izkutu edo mistiku, olerkari, jakin-zale edo ta bizitzaren eraman-ona edo filosofu mallorkindar au, eta ainbeste jakituri euki ebalako "Irakasle Argitsua"ren ez izenagaz esagutzen eben danak, bera izan zalako Katalanezko izkera zentzuntasunduagaz batera geiago idatzi ebena.

(1) Leko = legua, que equivale a 5.572, 70metros.

200 liburu baiño geiago dagoz gaur latin, arabiar eta katalaneraz idatzita.

Llull'tar Ramon au, I Jaime Aragoiko erregearen zerbitzura sartu zan 14 Urtegaz morroi lez, bere seme Pedro ta Jaimegaz lagun eginda.

Ezan geldirik egoteko gizona, eta Aragoi ta Kataluña ikusteko beren denborak eukezan.

Gero ezkondu be egin zan seme bat eta alaba bat eukinda, baiña erlijioagaitik deituta, geiago gura eben Kristoren barriak zabaldu misiolari lez, eta ekintza orreitan aleginduko zan, garrantzi aundikoa izanda, gurutzada santu gora beran Vn Zelestino eta Vn Klemente Aita Santuaren bitartean egon ziran beste Aita Santuakaz.

1.270-1.272ko urteko bitartean Konpostelako Santiagotik erromes ibilita, Mallorkara joan zan eta Arabiar eta Latiña ikasi eban, "El Llibre de Contemplacio" arabieraz idatzi ebana eta ain omentsu zan "Ars Magna", "Mestre" izena balio eutsona.

Ortik aurrera, bere idaz nagusi "Blanquerna" be idatzi eban.

1.295-1.296ko urte bitartean, bere beste idaz-lan garratzi aundiko zana be idatzi eban, "L'Abre de Ciencia" katalanez.

1.295ko urtean Frantzizkotarren lekaidetxean sartu zan, eta siñezbagekoak eskolatzen emon ebazan bere denbora aundiak, bere adierazko idaz-lanak izten eutsoen bitartean.

1.302-1.307ko urte bitartean, "Liber de Fine" beste liburu bat idatzita.

1.312ko urtean Bienako Eleiz Batzar Nagusia amaitu zanean, ostera joaten da Mallorkara.

1.314ko urte erdi ingurutik, Afrikaren lurraldean Iparraldeko itsas-ertzearen Bujia Urian lurreratuta, Tunezera joan zan mixiolari, eta itsas-ertzeko Bujiaren errira bigarrenez joanda, lenengo ostera egin eban antzera gogor arrikatu eban lez, oraingoan ez eban euki ainbesteko aldi onik eta 1.315eko urtean 83 urte eukezala, bertan, Bujiako errian il zan, gaur bere gorpuaren ondarrak, Mallorkako Palma Uri nagusiaren frantzizkotarren eleizan illobiratuta dagoz.

Berd eta Martorelltar Grabielek esaten dau, Llull'tar Raimundok itzi eutsoen ikerketako eta jakitunezko lan aundiak, oso garrantzi andikoak izan zirala itsas-araudietarako.

Llull'tar Raimundo onek, bere askotako liburuetan aipatzen dauz orduko itsas-eskutitz edo mapak, zelan izan ziran orduko itsakuntzarako (1) oiñarrisko gidariak.

Bere denboran sartu ziran itsas-ontziaren gidari izateko "Gabeko Astrolabio" (2), euren iguzki-orratzakaz (3) ta "Ipar Orratza", berari emonda sarrera orren irabazpide ori, eta baita bi-orratzeko eres/neurkiña (4) itsasoko-eskutitzetan aizeen sorrerazko aldi bitarteak neurtzeko.

Eta gaurko egunetan euren bitartez esan leikela, Llull'tar Raimundo bera izan zala orduan egon zan amesleri bakarra, borobiltasunezko mundu onetan, beste lurralde aundi batzuk be egon zirela asmatzeko, eta Mallorkan bere jakituri aundiagaz itsasoko-eskutitz edo mapagintzazko eskola ori sortu ebanak, Llull'tar berak esanda, 1.286ko urtearen baiño ariñautik asi zirala Mallorkako itsastarrak eskutitz orreik erabilten.

Ez gitxiago Kreskes judu-leiñukoak Ludi-mapagintzan egin ebenakaz.

Jafuda'tar Kreskes, judu mapagille aundi bat zan, XIVn gizaldi erditik XVn gizaldiko lenengo erdiaren urte bitartean bizi zana.

Kreskesek ainbat katalan izkuntzazko Ludi-mapak egin ebazan, danetatik 1.375ean egin

(1) Itsakuntzarako = profesiòn de marineria. (2) Astrolabio = izarren ibilketarako neurgailua. (3) Iguzki-orratz = cuadrante para determinar la altura de los astros sobre el horizonte. (4) Eres-neurkiña = compàs.

ebena bakarrik izanda geratzen dana, eta bera Parisen, Frantziko aberriaren liburutegian erakusten dabena.

Jafuda'tar Kreskes bere aitagaz batera kristautu zanean, Ribes'tar Jaume'ren izena artu eban.

1.327-1.330urte bitartean Mallorkan beragaitik eginda eta esagutzen dan itsas-eskutitz zarrena dana, Londreseko "British Museum"ean dago Add. Ms.25691 asi-izkiekin.

1.339an Dulzert'tar Anjelino sinatzaille zala, Mallorkan lenengo ezagutu ta siñatu zan itsas-eskutitza "Pariseko Aberriaren Liburutegian" erakusten da.

Eta lenengoz sartu ziran "Aize-Arrosak"⁽¹⁾ Katuluñan Jafuda ta Kreskes'tar Abrahamek egingako mapa-sortan sartu ziran⁽²⁾.

Juduak, itsasoko mapagintzan Mallorkako ugartean jakiten ebana.

Llull'tar Raimundok, eskolaren ereduzko jakituriz, katalanez idatzi ta margoztu ebezan itsas-eskutitz edo mapak, garrantzi aundienetarikoa dira, askoz geiago, itsas-osteko ardura orretan ba ziran, eta eginkizun orreik dira aurkezten dauskuezanak, Mallorkan egon ziran itsas-osteko ikerketaren zaletasunezkoak.

Kontuan artu bear dogu, juduak orduko denboran euki eben merkantil artu-emonakaz, mauri ta kristau mundu guztitik zabaldua aurkezten zirela, eta ondo baiño obeto ezagutzen ebezala Lur-Arteko itsasoa eta beste itsasoetatik ur gainean ibilteko bear ebezan orduko tresneri guztiak.

Ez da arritzekoa ba, Kolonek alango Kristau sinismena ta itsas-zaletasunezko jakituria eukitea, Llull'tar Raimundo, Abraham Cresques eta bere seme Jafuda juduaren jakituri aunditik asko eukelako ikasita.

1.391kako urtean kristau zoro batzuk, Kall deritxon judu auzunea erasotu eben, eta 300 judu inguru il ondoren, galazo eutsoen judutarrak kristautasunezko sinismenara itzuli zitezen edo bestela lur aietatik alde egien.

Sinismena aldatu eben artean, Kreskes'tar Jafuda be egon zan, eta izena aldatu bearrean agertuta, onek Ribes'tar Jaumerena artu eban.

Eta sinismena aldatu gura ez eben beste batzuk, Kolontarren antzera, Flandesera aldatu ziran.

1.391kako urtean, kristautasunezko sinismenara aldatu ziran judu artean, batzuk Kolonen izena artu eben, emendik Flandesera zabaldua.

Kolon Kataluñako abizen bat da, txori Kolonbus'en izenetik artuta dagoena, eta I Jaime Aragoiko erregeak ugarte au 1.229an menperatu ebenetik, eurak daukien oiturazko abizen batera biurtu zan.

1.394ko urtean Ribes'tar Jaume edo Jefuda'tar Kreskes onek, Bartzelonara joan zan mapagintzan.

Eta 1.412ko urtean, Portugaleko Itsasgizon'tar Enrike errege semeak deituta, Portugalera joan zan, bertan bideratzeko Enrikek sort-araziko eban mapagintzaren lantokia.

(1) Aize-Arrosak = rosa de los vientos. (2) Mapa-sorta = atlas Catalan.

1.450eko urtean Mallorkako errigizartearen artean, auzitegikoak⁽¹⁾ erritarren aurka matxinatu ziranean, merkatari aberatsaren artean askok, Anjoutar Renatori lagundu eutsoen, Aragoiko errege biotz-andiko Vn Alfonsoren aurka.

Eta merkatari aberats onein artean, Kasenabe'tar Gillaume eta Koullon'tar Kristobal, Kolontar Kristobalen osabak zirenak aurkezten ziran.

Dana dala emen agertzen da Kolontar Juan, igeslari bi ta andre Margalidaren aita.

Baiña, nor ote zan Margalinda ori ?.

Margarita andere-lagun bat izan zan, IVn Karloseri atxilotutako denboratan laguntzen egonekua.

1.459ko urte onen amaieran, IVn Karlos eta Margaritaren artean maitetasunezko laztankerietan ibilita, 1.460ko Bagillan seme bat jaio jakien, eta IVn Karlos berton ez egon arren, jakin ebalako aurdun egon zala, Mallorkako gotzai ta erki edo gudu-jaurleriari idatzi eutsen eskutitz bana, gertakizun orren barriakaz arduratu zitezen, eta egia izan bear da, erki edo gudu-jaurleriak eta gotzaiñak ardura aundiz erantzun ebela, IVn Karlosek ostera idazten dautsielako beste eskutitz bat eskerrak emonez.

Eta jaio zan ume ori izan zan Kolon'tar Kristobal, Amerikako lurraren agerketak lortu ebezanak.

3. ZATIAN.

Oar txiki bat.

Mundu onen arrazoidunezko gizakiak izanda, eta Jainkoak gai oneri bereztu eutsozan legeak, guretzat, egiten dogun gauza gustiarentzat bardiñak diralako, arduraz, gogora ekarten dogun egitamuzko lan guztiaren aurrean egin beargeunken lez (2), aurkeztu doguz lan onentzat oiñarrizko baldintzak zeintzuk direzan, antzerki onetarako aurkeztu doguzan antzezlarien bizitzakaz, euren denborako giroan.

Orain, guazen Kolontar Kristobalen jaio ta bere bizitzazko ezjakiñak argituten, Berd eta Martorell'tar Grabielen laguntzarekin.

(2) Mundu onetan, eta gu "gizakitutakoak" sortzailleak ez garelako, gure gauza guztietarako egiten doguzan asmakizunezko egitarauetan, Jainkoak bereztuta ta danontzat bardiñak diran legearen baldintzak erabili bear doguz, tresneri edo ta oiñarrizko elementuak lez.

Eta ortik aurrera, zentzu ta ardura aundiz jaso edo ta gauzatu, gauzatu bear direnak bizi garen serbitzurako; bestela egiten dogun guztia, oker, ankaz-gora, zentzubage ta neurrian edozein gauza urtengo leukelako, beartsu edo onbear eta aberastuten diranen artean gaur sortzen jakun lez, orekak leku guztietatik galdu ondoren.

(1) Auzitegikoak = forenses.

Bereztasunaren legezko baldintza orreik dira, gaurko Europaren politikuak kontuan artu bear dituzenak gauza guztietan, eta ardura bardiñakin, diruaren antolaketak egiten dabezenean.

Gaiak, beren Ludi irudiaren izaerarako, daukazan mukulluak orokorrezko askatasunean bananduta egonaz batera, bere eraikitasunean mukullu arteko-gintzan daukan erakarrezko indarra, eurak osagarritasunezkoak izan zitezken legea da, eta gurentzat eragilletasunezko bizi-tresneri bat izan daiten.

Orregaitik, "Jaioten garan guztien bear-bearrezko ordezkartzan zor-eskubide arduran bardiñak izanda, Ludi onek daukazan bereztasundutako lege orreik dira, gure arduradunezko arima gizatuari, lege bardiñean osagarritzkoak izatera alegintzen dauzkuna, Jainkoaren legeagaz, zeregiñ bardiña daukagulako".

Eta egiten doguzan gauza guztiak Jainkoari begira, azturazko maitasun osoan egiten diran lez, bide orreitan eraikitako etxe, auzo, erri, eskualde edo lurralde, aberri, eta errigizartearen askatasunezko eskubide orreik dira oiñarri lez ipini bear dituguzenak, bizitza onetan askatasunezko orekan irautea gura ba-dogu.

Danon lotsagizunezko ardureak bear dituguzelako ortik aurrera, gai-gizaren bizitza onen egitamuak zentzuz gauzatzeko, eta elkar erabili bear doguzan osagarritasunezko bideen ulermenak, orekazko zentzun baten eroan dagiguzan.

Guzti orreik kontuan eukinda, ez bagaude lau gizaki nagusitasunezkoagaitik bideratuta, ainbeste urte menperatzailletasunezko agindupean egonda, ori be al izan leikena dalako, eta nire ustez "UTS EGIN BARIK".

Gaurko politikuak, gaiaren eta gizaren eskubideak ez dabezelako oiñarritzen, agindu egiten dabezan gauza guztietan, sortzen dan entrabaloaren eragipeneko indarragaz, gai-giza arloetan dana agertzen da nastuta lez.

Gaiaren-orekan: Itsas-errekako urak eta mendi-lur-aizeak zikinduta.

Eta gizaren arloetan: lan-eza, lapurtza, negarra, gozea, gaitzaldi, elde edo izurriteak, eriotza, borroka, aitu eziña, eta arduragabekerizko itsutasun aundi baten.

Bizitzeko egiten doguzan gauzaren mozkiñ guztiak, batzango edo agintari-zaleak euren kontrolpean eukiteko, guda-indarrezko keiñada gogorrak erabilita, nai gai edo ta danon giza eskubidearen ardurak kendu egiten dauskuez, eta ez gero eurak egiteko danok egin bear doguzenak, ostera guri beartzeko baiño, eurak gura daben eratara betetea, eten gabeko menperatzail ekintza baten.

Len, munduko borroka nagusi bategaz, dana utsezko zenbakian ipinita lez azten ziran ostera bizitzarako bear zan guztia eraikiten, euren poltzilluak beti berriz beteta eukiteko, baiña gaur beste olango borroka bateri eurak be bildur direlako, demokraziaren indar bidez, maltzurrezko guzurak eten barik gero ta

indar geiagorekin argitzen dira, eta orain 1.687 urte bereztasunaren aurka Nizean asmatu zan batzangotasunaren GOITIK BERA KO AGINTARITZAREN GIZA-GORPUTZA ORI, GUZTIZ USTELDUTA LEZ AGERTZEN JAKU.

Zergaitik ?

Gure bizitzaren epe laburrerako, Jainkoaren legeakin beartuta agertzen gara lez, argi erakusten jaku:

A) Osagarritasunezkoak garela jaioten garan guztiak.

B) Kundeatzaille edo gai onen eragilletasunerako jaioten garela.

D) Gure eragilletasunean kontuan artu bear dituguzela, gai ta giza guztiaren eskubideak, bakoitzak, talde, leiñu, edo ta errigizarteak euren bereztutasunezko aztura bidetik izkuntzagaz sortu ebezan nortasunezko bereiztasunak, ezeren aitzakia barik.

E) Asmatzaillearen almenak bakarrik eukinda, gure almenean ez dauelako iñungo izatasunik: “irazale, sortarazle edo eta sortzailletasunezko arloetan”, gure norkerizko alegiñetan, iñorentzat ezeren legerik egin barik, alegiñ guzti orreik Jainkoaren legeditik artu beardiranak diralako, euren kanpotik lege guzti orreik, menperatzailleak biurtzen diralako,

F) Ala... mundu oneitara, beste gauza baten bat egiteko etorri ote gara ?

Nortzuk izan ziran Kolon'tar Juan eta Kolon'tar Margalida ?

Aurkezpena.

Margalida mallorkinez, pitxi edo txirlarri'a (1) dala esangura dau, eta Kolon'tar Juanen alaba izan zan, euren bizitza Felanitx erritxoan “ALQUERIA ROJA”ko lur ondasunean eginda (gaur Son Ramonet dana, Felanitx Uritik 2 km. ingurura eta SANTUERI gaztelu inguruan).

Eta nor ote zan Margalinda ?

Margalinda, Nafarroako errege IVn Karlosen denbora pasa baten antzera eta bere aitagandik atxilotzeko itxaroten egon zan denboran, laguntzen eutson andre bat zan.

1.459ko urte azkenetan beragaz maitekerietan ibilita, 1.460ko Bagillaren illean seme bat euki eben, “TERRA RUBRAKO” Kolon'tar Kristobalen izena ipini eutsoenai, eta IVn Karlosek, lau seme alaba bere gain artu ebazanetik, Kolon'tar Kristobal izan zan bat.

Felanitx'en, Son Koloneko Kolontar Juan, Kolontar Kristobalen aitite onek, ia txirotu egin zan, bere etxe ta lurraren irabaziak Felanitx'eko zuzendari, idazkariari eta alkate biurdikatzailleai bir-erosi, eros-sari, edo aitzakia lez ainbat diru emon bear eutsoezelako, eukezan seme biak Kristobal eta Gillaume Kasenobe'tar Koullon oneik Probenzan atzerrituta, Anjou'tar Renato Probenzako erregearen alde egon ziralako, 1.450-1.453ko

(1) Margalida = mallorkinez “perla” dala esangura dau.

“Germanias”en iraultzan, auzitegiko ta erritarren arteko guda gogorra amitu zanetik.

Kolon'tar Juanen seme oneik, sekula ez ziran itzuli ostera Mallorkara, ziur bertan eriotzea itxaroten euki ebelako.

Baiña Kolontar Juanen seme ta Margalidaren neba auek jakiteko nortzuk ziran, esan bear da: “Guillaume de Kasenove Coullon”, Italian “Colombo” lez eta espainitarren artean “Colon”en izenagaz ezagututakoak, Anjou'tar Renato Probenzako erregearen serbitzuan egon zirala, eta Frantziako itxas-jazarle edo itxas-lapurren ontzi-nagusi edo OntziNagusien Amirala izan zala Margalidaren neba au, eta Margalida ta IVn Karlosen seme Kolontar Kristobalek, bere Ontziren-Amiral osaba nagusi onegaz, ikasketa nagusiak egin eta gero, ainbat denboratan beragaz ibilikua zala, gero agertuko dan lez.

Emen, Kolontar Kristobalen bizitza argitzeko oso garrantzi aundikoa dalako, Probenzako erreñuaren edestiko bizi kondaira labur bat azaldu bear dogu, eta baita legez zelako aldakuntza egon zan itxas-lasterkari edo itxas-jazarle (1), eta itxas-lapurren artean (2).

Probenzako erreñua, Frantziko lurraldearen ego aldean, Rodano ibaiia, Lur-Arteko itsaso eta Italiako lurraldeak inguratzen dabe, bere edestiko Uri nagusia Aix-en-Probenze izanda.

Beren lurraldea, Rodano ibaiaren agoak, Bar ibaiia, Alpe-seko bealdeak, eta Baukluse ta Itsastar-Alpeak osotzen dabe.

Paleolitiko-Neolitikotik, euskaldunak ziran lur orreitan bizi zirenak.

Eta Euskaldunai buruz, garrantziko gauza da, 25etik 101eko urte bitartean bizi zan Silio Italiko olerkariak esan ebana: “Probenzako alor edo soroak (3) leenengo landu ebezanak Auñamendi edo ta Pirineosetik bera joan zirenak zirala eta euren arteko ezagutzan ulertu zitezen lurraldearen izena aipatzea bearrezkoa izanda, “Sicanos” zirala esan eben.

“Sikano” berbea, baleike Auñamendietan (4) dagon “ZINKA” ibaiaren izena izatea.

Eurak esaten dabe ez dagozela ziurtasun guztiagaz, baiña zeozer izan bear, beste ibairik ez dagoelako izen orrekin.

K.a. VII-VIn gizaldietan, erria fenizioak irasi eben.

K.a. IVn gizaldian griego fozenseak, Massaliako Uria (Marsella) sortarazi eben.

K.a. IVn eta IIIIn gizaldian keltiarrak sartu ziran.

K.a. IIIn gizaldian, erromatarrak sartu ziran eta “Galia Narbonense”ko lurraldeakaz osotu eben lurralde ori.

K.a. 123 urte inguru, fenizioak Marsellako Uria berriztu eben.

K.o. Vn gizaldian, Bisigodoak menperatu eben. VIn gizaldian frankoak. Eta VIIIIn gizaldian arabiarrek. Eta Karlos Martelek Berduneko ongundearen bitartez 843ko urtean berrezkuratuta, Lotarioren eskuetan geratu zan.

Karlos Buru-soil'en eskuetan ondorengo geratuta lur inguru ori, onek Probenzako leen erreñuan biurtuko eban.

947ko urtean Borgoñako aginpean ipini eban, eta ondore 1.032ko urtean Kaizarren agindura.

1.125eko urtean ondorengo lez, IIIIn Berenger'tar Ramon Bartzelonako Kondea eta

(1) Itxas-lasterkai = corsario. (2) Itxas-lapurrak = piratas. (3) Alor edo soro'ak = campo de cultivo. (4) Auñamendietan = Pirineos.

Toulouseko Kondearen artean bananduta geratu zan.

1.246ko urtean Ajouko etxearen aginpean geratu zan, eta orren bitartez 1.277ko urtean Napoleseko erregetzagaz lotuta geratu zan.

1.266-1.285eko urterarte, Napoles eta Siziliako errege VIIIn Luisen seme, Anjoutar I Karlos izanda.

Eta I Anjoutar Karlosen errege denbora onetan Aragoiko IIIIn Pedrok, Sizilia menperatuta Aragoiko erregetzagaz alkartu eban.

1.284-1.309ko urte bitartean Anjoutar IIIn Karlos izan zan Napoles eta Siziliako erregea.

1.345-1.386ko urte artean, Anjoutar IIIIn Karlos, Napoles eta Ungriako errege.

Probenzako Anjoutarren azkeneko agintaria, Renato izan zan.

1.408an Urtarrillaren 15ean jaio zan Anjoutar Renato, IIIn Luis erregearen seme au.

1.419ko urtean Napolezeko errege IIIn Luisek, bere seme Anjoutar Renato ondorengo lez eta 11 urte euki zituzenean Lorenatar Isabelekin ezkondu eban.

1.434ko urtean I Renatok, eta Aragoiko Vn Alfonsok, borroka latzak euki zituzen Napoleseko erregearen gora beran.

1.442ko urtean, I Anjou'ko Renato aragoitarrak Napolesetik bota ebenean, Taraskonen auzotu zan.

1.450ko urtean Mallorkako auzitegikoak matxinatuta, Vn Alfonsori agindu eutsoen erregearen aulkia.

1.452an Otsaillaren 28an II zan Lorenatar Isabel erregiña.

1.454an Iraillaren 11n Anjoutar I Renato erregea, ostera ezkontzen da Labaltar Juanagaz.

1.466an Dagonilaren 20an Katalanak, Mallorkakoak egin eben antzera, Aragoiko Vn Alfonsori eskaiñi eutsoen erregetza.

1.470ean Abenduaren 16an Anjoutar I Renatok, ostera agindu eutson bere seme Juaneri erregetza berrezkuratu egian, baiña Bartzelonan il zan.

1.471ko urtean Anjoutar I Renato, Taraskonera joan zan bizitzen.

1.479an Urtarrillaren 19an siñatu ziran Probenza ta Kataluñako bakeak.

Anjoutar I Renato erregeak, bere loba zan du-Maine'tar III Karlos Probenzako Kondea, ondorengo errege lez izendatu eban.

1.481eko urtean Probenzako lurralde au du-Mainetar III Karlos Konde onen jabetasunean egonda eta ez ebelako ondorengorik euki, Frantziko errege XIIn Luiseri aldatu eutson ondorengotasuna.

Eta 1.486ko Urrillan du-Maine'tar IIIIn Karlos au il zanean, betiko aldatu zan Frantziko erregetzara, Probenzako Konderri au.

Itxas-lasterkari ta Itxas-lapurrak.

Itxas-lapuraren irudia, ez zan itxas-lasterkariak irudizko izaeran euki eben antzekorik be, euren leen eta askeneko ardura, lapurretan egitea bakarrik izan zan.

Bigarrenaren ardura alderantziz, errege edo ta erriarteko agintaritzatik artzen eban eskugo edo baimenaz, etsaiezko erri baten itxas-ontziak erasotu, menperatu edo ta arrapaka kendu, eroaten ebazan egitamuzko argibide ta balio guztiak, izaten zalako.

Eta gure Kolontar anai biak, Kasenobe ta Kolontar Gillaume, Frantziko Aitor-seme ⁽¹⁾ ta Ordezko-Almirante ⁽²⁾ oneri, Frantziko XIn Luis erregeak bialtzen eutsoen eskutitzetan « dit Koulon » idazten eutson.

Kolontar Kristobal, Kolon'tar Kristobalen osaba, bere anaiaren antzera bardin ibili zan, baiña aiñ ospe aundirik euki gabe.

Gero eurak baiño ospe aundia artuko eban euren loba Kolontar Kristobalek, IVn Karlos Nafar errege eta Margarita'ren semea zanak, Ameriketako lurraren ezaguneraziakaz.

Kolon'tar Kristobal'en bizitza.

Berd eta Martotorell'tar Gabrielelek esaten dauenagaitik, ainbat edestilari izan direla Kolontar Kristobal Felanix'en jaio zala esaten dabenak: Benezuelako aita Nektario, Lopez ta Flores'tar Manuelek bardiñ, Madariagatar Salbador, eta Zerdatar Juanek Koloni buruz ankea sartu ba eben be "XUETA" (judio) deitu eutsolako, danak jakin eben eta dabe, bere sendia katolikua zalako, Kolon bera be katoliku sutsua zala, IVn Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren bidetik, sinismen orreikaz bizitzan gizon eginda.

Eta Kolontar Kristobal ta bere anai Bartolomeri "Kolonbo de Terra Rubra" esaten eutsiela.

1.459ko urtean IVn Karlos Nafar erregea, Santueri'ko gazteluan egon zala atxilotuta.

1.459an Urrillaren 28ko idazt-eguna daukiela, IVn Karlosek, Mallorkako Gotzaiña ta Jaurleari idatzitako eskutitzak, euri esanda "MARGALIDA" gaz arduratu zitezela, nezka gazte ura beragandik aurdun geratu zala ta.

1.460ko Bagillan jaio zan Kolon'tar Kristobal.

1.461an Iraillaren 23an Nafarroako errege IVn Karlos il zanean, Kolon'tar Kristobalek urte bat eta iru illabete eukingo zituzen gitxi gora beran.

Eta agiri onen agerketa arazoa, XVn gizaldian Felanix'en jaio ziran umeen argibideak, ezin diralako iñondik iñora aurkitu, bateatuko egun eta bear ziran zeaztunak iñundik ez diralako agertzen, nai Felanix'eko San Migel Goi-Angeruaren eleizakoak, ez eta San Salbadorren Santutegiko eleizakorik be.

Sendi ta gurasoen argibideakaz, bardiñ antzeko bat sortzen da Kolon'tar Kristobalen amaren sendiagaz be, bakarrik aurkitu direlako Kolonen aitite, Kolontar Juan aitarena, Kolontar Margaritaren amarena, igeslari euki ebezan iru itsas-ontziren jabe Anjoutar Dukearen serbitzura, Kolontar Kristobal, eta Frantziko lurraldean deitzen eutsoen Kasenobe ta Koullontar Gillaume itsas-ontzi Amiralaren osabarenak.

1.462ko urtean Bartolome, Kolontar Kristobalen anaia jaio zan.

1.469ko urtetik aurrera Kolontar kristobal 9 urtegaz eta bere anai Bartolomek 7 urtegaz Frantziko osabaren etxera joan ziran, euren ikasketak Anjoutar Dukearen gortean egiteko asmotan, eta ortik aurrera sekula euren bizitzan ez ziran itzuli Felanix'eko erritxora, naita Kolonek itsasoaren beste aldetik Ameriketarren lur billa agertzen ziran Ugarte ta lurraldeari, bere ama ta beren erriko baselizaren izenak ipini.

(1) Aitor-seme = escudero. (2) Ordezko-Amirala = vicealmirante de Francia.

Kolontar Kristobalek 9 urtekin asita itsasontzietan ibili arren, 14 urte eta Bartolome bere anaiak 12 urte euki arte, ez ziran euren osaba Kolontar Kristobalen itsas-ontzietan ikasten ibili.

Eta, Kolontar Kristobalen bizitza bere asieratik adierazteko, ainbat itaunari emon bear dautzaguz erantzunak, eta ez edozelakuak.

Adibidez:

a) Bereztasunaren eta arrosoizko lege guztiaren aurka, errege/erregiña, gorteko aolkulari ta Kolonen artean ongunderatuta, Kolontar Kristobal jaio eta noren semea zan gora beran ostonduak egiteko ziñez itza emonda, araubidez egiten daben orokorrezko ezkutaldi zital ori, gogorra izan bear izan eban, Kolonen semeak be euren aita norena eta nungoa zan jakin ez egien.

Eta beren izatasunaren izkutu zital oneik aurrera eroateko, Kolonek gaztelerrian legez arrotz lez agertzen bazan, bere Aragoiren Mallorkako jaioterrikoa lez be, ostondu bear izan eban itzarmen orren bitartez.

Dana dala, ongunde edo itun orren inguruan, ziñez itz emonda egon ziran guztiak, Kolon bera be artean dala, ondo baiño obeto zaindu eben laterrizko elkarpede ori, idazkietan eta errigizartearen artean guzurrezko aztarnak zabaldua.

Baiña, zergaitik ote izango zan guzti ori ?

Mundu-gai-fisiko onetan badakigu, egiten direzan gauza guztiaren izenak, asmoak, edo ta arrazoiak, euren sorburuzko gogorapen lekutik kentzen ba dirala, beste leku batera aldatzeko direzala, eta egikera orreik norkerizkoak biurtzen diran lez, guzurra, naspiltasuna, lapur, edo naikerizko esabidearen adierazpenetan biurtzen dirala.

Ala, Erromatar Kaizar-katolikotasunaren sasi-jaintasunezko arrazoi biurtzeagaitik izango ote ziran alegiñ orreik ?

Zertarako, "JAINKO AITARI, guda-indarrean odoljarioz eginda, menperatasunaren giza-batzango oneik eskeintzeko ?

JAINKOAREN LEGEAK, nori emoten dautsoe alango baimenik ?

Jesus, bere Semea gure artean egon zanean, aolku ederrak bakarrik emoten euskuzan, naita batzutan lukurrerizko-fariseoak ostikadaka ibili, Aitaren etxea saleros-legez ibiltzen ebelako.

Ostikada orreik fariseo andikiak ez ebelako parkatzen, Jesus gurutzean il eben, eta iltze orren ondorioz bere sinismeneko aolkularitza katoliko alderdikidetu eben, gai-mundu onetan Erromatar katolikotasuna, ziri edo ta zilborraren ardatza izan zedin.

JAINKOA Goiko Zeruan dago, eta guri Berak gai-sortarazitutako legezko baldintzakin bereztasun onetara, ez dauzku bialtzen norkerizko sasi-jainkotasunean bizitzen, len, Beragandik gaiezko bizi au baldintzatuta dagoelako, eta bigarren, jaioten garenok ulertu dagigun baizik, nortasunez eta bakean bizi bear garela, baktxaren beren eskubidetik zor-jakezanak ardura aundienean ordainduta.

Zenbat bider gogoratzen naz gure Euskal guraso zarrakin: "Berba gitxi ta zeatzak, iñor kaltetu barik, beti arduradun euren zorrak ordaintzeko, eta beti prest, gure "EUSKAL LEGE ZARRAGAZ OITURATUTA", beartsuari laguntzeko.

b) Errege ta andikiak ortik aurrera, bereztasunezko legearen aurka egiten ebazanak eta gero itzuraz beintzat euren artean gizon-emakume on-lez agertzeko, Santa Fe'n, eraiki eben Uria ezarri eben zilbor lez, txar egiñekoari ongunde bidez garbitzeko, oitura lez egiten ebazan busti-zaletasunak (1), edo bakeak beste trikimmalluekin lortzeko, ta abar.

Eta begitu, gizon/emakume jakitun aundi oneik, len eta gaur be, zelan egiten dabezan ostrukaren buru-ostonkera lotsati auek, euren artean truke: "Diru, eleiz-sari, ogipide, opari, mesede, koipekeriz busti, keiñalari edo guda-indarrarezko keiñadakin" guztiak gogoz erabilten ebezanak, euren baitak itzuraz beintzat, bakeztuteko buruz.

Norkerian, ala Nortasunaren osagarritasunezko zor-ordezkaritzaren arrazoian egongo ote dira JAINKOAREN LEGEAK ?.

JAINKOAK, mundu onetara jaioten garan danori BERE LEGEAKAZ, nortasunaren ardurazko kudeatzailleak izan gaitezaz bialtzen gaitu iñungo zalantza barik.

Mundu onetan orregaitik, iñor ez gagoz baimenduta iñungo legerik sortarazten, "BERAK ipinitako LEGEAK, ortxe daukaguzelako ardura aundiz erabilteko".

d) Kolonek, I Isabel erregeiñaren aldetik eukan babesa ta IIn Fernando erregearen aldetik gorrotoa.

Gorrotoa bai, baiña gorroto ori zergaitik ?.

Ala, IIn Fernando, IVn Karlosen ugazanaitasun aldetik Kolonen osaba izanda, eta bere aita ta berak IVn Karlos eta IIn Blankagaz Nafar erregetzan egin ebezan pozoitasun eta guzurretatik ostondu gurean, edo ta, euren alegiñez gain, Kolonen nafar ondorengotasunean, orokorrezko itsas osoa ta lur barri orrein agerketaren bere erregearen ordezkoko agindupean legez artuta, Nafar erregearen edestiko adierazpenetan arritasun aundi orreik ez zitezen argiratu ?.

Badago beste bide bat, Kolonen jaioterazko ixiltasun zital ori adierazpendu egiten dauena, eta nik esango neuke, ziurtasun aundiena daukana dala.

Ostondutasunezko ixiltasun zital orreik, Erromatar eleiztarrak, Katoliko batzangotzeko asmoaren aritik dakarrena dalako.

Bestela zelan ulertu, I Isabel ilda, IIn Fernando bere kaizar edo aundienetariko errege izateko itxaropenean Foix'eko Germanagaz ezkondata, erdi ugarte onen ekialdeko Aragoi eta Napoleseko erregetzakaz ibili ebazan antolaketak ?.

Gaiñera, zelan ikusiko eben orduko erregeak aiñ urrun, ia bertokoa be ez ba eben ikusten, euren arteko andinai ta eskubidearen naspiltasunezko borrokakaz.

Argi dago, egia bada Santa Fen katolikotasunezko-espainiar batzango orregaz itzarmendu ba-zirala, Erromako eleiztarren ardura bakarrik izan zala, euren gandik kanpo, iñork ez ebalako almenik ez ikusmenik euki, eurak esaten ebena, erregeak guda-indarrakin aurrera eroatea baiño, eta erregeak eleiztarren agindupean ez ba ziran ezartzen, VIIIn Fernandogaz sortu zan antzera, onen aginduz 1.810-1.823ko urteetan gudal agintariak erregeen gaiñetik egin ebana baiño besterik egitea ez ebalako bear, katoliko-batzangotasun ori garaipentzeko.

Ala noren aginduz egin eben gudal-nagusi aiek, Kadizeko 1.810-1.812 Merkantil ta katolikotasunaren konstituziozko errigizarte batzango areik, gaur oraindiño keiñatzaile daukaguzenak ?.

(1) Busti-zale = sobornador.

e) Eta arrigarriena dana, Ameriketako bidai orren, azken mariñelaren ogi-bide, izen abizen ta jaio erriak jakinda, Kolonenak jakin ez ?.

f) Naita egia izan, Kolonek ixiltasun orretarako Erregeakin benetako ziñezpen gogor bat eginda itzarmendu bazan be, urrengo urte ingurutan Gaztelako gortetatik, al izango ote ziran alako iziltasunik aurrera eroateko ?.

Iñundik iñora ez zan gerta ditekera, eta gitxiago, odolzaleko inkisizioaren agintaritzazko denbora aietan.

Ixilezko zitaltasun ori adierazteko, leen kontuan artu bear dituguzenak, orduko gertakizun orreik edestirako idazten ebazan idazkariak dira, eta denbora aietan eleiztarren kontrolpetik kanpo, ez egoan iñor.

g) 1.460ko Bagillan jaio zan Kolontar Kristobal Felanitx'eko land edo oraindiño zutik dagoen basetxe-gorrian, eta egia izan bear da IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, land-etxe orretan orain bizi diranak "Margalida"ren izena ibiltzen dabelako, eta izen ori gaur ainbeste urte igaro ta gero erabilteko, ez zan izango lenengo neskatilla gazte bat euki zitun ume bat lez, izen ori gaur azpimarratzeko beste bereiztasunezko gertakizun berezitik etorri bear daualako.

Kolonek, 1.498ko irugarren itsas-aldiko bidaian, Benezuela aurrean ikusi eban ugarteari ipini eutson "Margalida" bere amaren pitxi-izen ori, Juan De La Cosa mapagilleak, Kolonek urte orretan bere itsas-eskutitzan ugarte ori izenduta ipini ebanetik aldatu ebana, eta gaur, Madrilleko itsas-erakustokian dagoena.

1.474ko urtean Kolontar Kristobalek 14 urte euki zituzela, itxas-ontzitarra igoten dau, bere osaba Kasenobe ta Kolontar Gillaume Amiraltearen agindutara.

1.474-1.475eko urte bitartean Kolontar Kristobalek, Esporades ugartedian dauan Kio ⁽¹⁾ Ugartera egin eban ostera bat, bertan "Lentisko"aren ⁽²⁾ zugaitza ezagututa, gero 1.492an Azaroaren 12an aipatzen dauana, Kubako Ugartean be aurkitu ebalako.

1.476ko udan Kolontar kristobal lenengoz eltzen da Portugalera, denbora onetan ondo baiño obeto ezagutzen eban Lur-Arteko itxasoa, eta baleiteke Atlant itxasoarekin amesetan ibiltea, Zipango ⁽³⁾ ugarteak aztu barik.

1.476an Dagonillaren 13an ikaragarritzko itxas-borroka bat egon zan erdi-ugarte onen San Bizente lur-beso aurrean, Jenobako lau itxas-ontzi ta Frantziko itxas-lasterkariaren artean, auek Kolontar Kristobalen osaba, Kasenobe ta Koullontar Gillaume agindupean egon ziranak.

Borroka onetan sua artu eban Kolonen itxasontziak, bera ta beren lagunakaz batera Jenobako itxasontzi bateri erasotzen egon zirala, ta uretara jausita arraun baten laguntzagaz, uger joan egin bear zuen Portugaleko izparter edo itxas-ertzean Lagos'eko ondartzara.

Eta Kolontar Kristobal gazte onek, Lagos'etik baleiteke 15 milla ⁽⁴⁾ edo 24,135 Km. egon ziran Sagres ta Sam Bizenteko lur muturretara joatea, Sagresen itsastar Enrrike Portugaleko erregearen semeak euki ebalako beren itxasoko-eskutitz'gintza edo ta mapagintzaren lantegi-zilborra.

(1)Kio = Greziako ugarte bat. (2) Lentisko = txapar landara bat beti orlegi egoten dana eta egur gogorrekoa izanez gain, bere barrutik argitzeko ibiltzen zan olio bat ataraten eutsoena, eta usai-goza ta bizkorgarri lez be ibiltzen zan "Almaziga" zukea be. (3) Zipango = Japon'eko ugartediaren antzifiako izena. (4) Milla batek, Gaztelera = nudo esan gura dau, eta 1.609m. daukaz.

Borroka onen ziurtasuna, Kolontar Kristobalen aldi bereko, Ruy de Pina Portugesa, eta Palenziako Alonsok argitaratu eben, Vn Fernando katolikuak egiztatu ebana, Diego de Barela'tar Mosen'eri Iraillaren 5n egunean bialdu eutson eskutitzan.

Kolontar Kristobal borroka orretan, 16 urte euki ebazan.

Vn Fernando katolikuak "Kolon'tar Kristobal"en izenagaz idazten dau eskutitz au, Kristobaleri oraindiño "Kristoforo Kolonbo" esaten eutsoenean.

1.477ko Otsaillan, Kolontar Kristobalek beren 17 urtegaz, eta itsasoaren jakiturizko arloetan Llull'tar Ramonen irakaspenak ondo ikasita, Islandiako bidean orduko Thule esaten eutsoen ugarte ezagutzeko eta itsas-bidai orren zeaztunak artzeko, urten eban itsasora.

1.477ko urte erdian Kolontar Kristobal itsasoaren zeaztasunezko jakin barriekaz Lisboan aurkeztu zan, eta itsasoaren jakitun andiko gizonakaz alkarrizketan ibilita, bere aipu ta ospea gorantza joan ziran.

Kasastar Bartolome lekaideak Kolonengaitik esaten eban: Los Santos lekaidetxera joaten zala Mesa Santua entzutera, eta lekaidetxe onen iraspenna, Santiagoren zaldunezko gizon aundiaren emazte ta alabaren etxea izateko izan balitz lez eraiki ebela, gizonak gudan egoten ziran bitartean, neskato ta andre garbitasun, zintzotasun eta agindupeko ziñ-itza emonda, euren senar, senargai eta semearen alditarako urruntzean, berton itxaroteko zala.

Los Santos lekaidetxe ori, gudari-elkargoko Santiagoren lekaimeak zuzenduta egon zan.

1.478-1.479ko urteetan Lisboan, Kolontar Kristobal lekaidetxe ontara joaten zanean ezagutu eban bere emaztea izango zan Moniz eta Perestrelo'tar Filipa, beragaz ezkondata.

Eta 1.479-1.480ko urte onetan jaio zan Kolontar Kristobalen seme Kolontar Diego, gero Itsas-zabalaren ondorengo bidetik, itsas-aundiaren bigarren Amirala izango zana.

Kolontar Kristobalen amagiñarrebak, bere gizonak eukezan itsasoko tresneri guztiak emon eutsozan Koloneri, onek poz aundia erakutsita.

Eta bere emaztearen sendi bidetik, Portugaleko andikitasunen arteko ate guztiak zabalik aurkitu ebazan.

Orren argibidea, Portugaleko errege ta andikitasunezkoak beragandik be zeozer jakin ebelako da:

a) Erregeen arteko mailan, ondo baiño obeto ezagutzen ziralako.

b) IVn Karlos Bianako printzea Portugaleko erregearen arreba Katalinagaz ezkonduko egon zanean, oso ezagutua ta onartua izan zalako gorteko andikitasunengaitik.

d) Eta batera, Nafarroako IVn Karlos erregearen seme, Vn Fernando katolikuaren loba, eta I Isabel erregiñaren lenengo maillako lengusua izanda, argi dago Kolontar Kristobalek, ez ebela ezeren eragozpenik euki erregearen maillan sendi aundi baten alabeagaz alkartzeko, eta beren sasoi ederrenetariko 19 urte zituenean ezkontzeko.

Eta gero, Madera ugarte ondoan, Portu Santuko Ugartera bere emazte ta semeagaz bizitzen joanda, andik itsasoratzen zan, Azores, Madera, Kanarias, Orlegi lur-muturraren ugarteak eta Ginea ikustera joateko.

1.480ko urte onetan Kolontar Kristobalek, irakurri bear izan ebazan, 1.474ko Bagillaren 25ean Florenziako fisikari ta matematiku aundia zan Toskanelli ta del Pozotar Paolok, Portugaleko erregearen senidea zan Martins'tar Fernando kalonje edo eleiz-legegizonari, bialdu eutsozan eskutitz ta mapa bereziak.

Toskanellik, Martins'tar Fernandori eskutitz eta mapa onegaz esaten eutson,; Itxasoko eskutitz edo mapa au, nire eskuekaz eginda dago, eta margoztuta dagoz zuen Portugaleko itsas-bazter ta ugarteak, lur-bururainoko bitartean (1) ta kontuan artu bear dozuen gauberdinlerroa (2), bai zenbat leko (3) erabili bear dozuezan, ugari ta gozatsutasunezko aberats toki orreitara eltzeko. Toki orreitatik asi bear zenuke zuen mendebalerantzako bidaia, eldu bear zaretan lekuetara.

Ez arritu nire eskutitzetan Mendebala esatea, onkailu, kanela, gaz-piper, atsegintasunezko lur orreri, oiturazkoa daukagulako gauza orreik Ekialdetik datozela esaten.

Leku orreik, Itxasoaren beko boil-erdi edo lurrerditik(4) Sartaldera bideratzen diranak, Mendebaletik aurkezten diralako, eta lurraren boil-erdi edo goiko lurrerditik bideratzen diranak, beti Ekialdetik.

Kolonek eskutitz au berriz idatzi ta aldatu ebenean, Silbio ta Pikolomini'tar Eneasen "Historia rerun"egaz lotu eban eta "Kolonbina Liburutegian zaintzen da", Sebillako Urian "Laran-Ondo Aterpe edo Bailan" kokatuta dagoena.

Kolontar Kristobal ez zan pozik geratu eskutitz ta mapa orretan ekarten ebenagaz, eta Toskanelli berari idatzi eutson beste eskutitz bat, zeaztasun orreik argi geiagoaz ulertzeko.

Argi ikusten da Kolontar Kristobalek, al eban jakiturizko zeazpen ta zeaztasun guztiagaz batzen zituela eskutitz ta itsas-eskutitz edo mapatan aurkezten ebazan aurreko txeetasun ta oarketak, barnean euki ebazan egarrizko asmakizun aundiak, bere bizi denboretan bete gura ebazalako.

Kolontar Kristobalek, liburu, agiri ta idazki askotatik, ainbat gogaketa, galdeketa eta oarketa eginda gero, ondorio onetara eldu zan: Indiaseko lurrarteraino peninsula onetatik, borobil mundu onen itzul-ingurutik (5) 282° besarkatu egiten ebazala, eta 360°'tik 282° kendu ezkerro, Katayo (6) ta Lisboako bitartea 78°'koa zala.

Eta lur-gerrirantza 2/3, 78° oneik 56° edo 50 milla Kanariasen neurrian gitxi gora beran berentzat izan zirelako, Mendebaleko bidetik peninsula ontatik Indiaraino, 3.900 milla edo 975 leko urtetan eutson Gomeraren obo (7) neurrian.

Eta utsegiteko bide ortatik, neurtasun orreikaz Indiaren Ekialdeko lurak, nai gabe Amerikaren Atlant-lurraldeetan kokatzen ebazalako, ez da arritzekoa bera Ameriketako lurraldeetara eldu zanean, Indiako lurraldeak zirala esatea.

1.478ko urtetik aurrera Kolonek bere ustean asi zan esaten, zeintzuk ziran itsas-aundiaren zabaltasunezko neurriak, eta agertuko ziran gauzak bide orretatik, 1.484ko urterarte geratu barik egonda, beren gogoko gauza orreikaz.

1.483ko urtean Kolonek, ba eukazan asmakizunezko egitarau oneik mugatuz, idatzi ta erabagita, baiña, Itxas-ontzi ta mariñelentzako bear ziran ondasunak berak naikoak ez eukazalako, laguntzaren egarri aurkeztu zan, itxaropenezko gertaldi ori aurrera eroateko.

Eta orretarako, Kolontar Kristobalek euken egitamu ori, Portugaleko errege IIn Juaneri aurkeztea erabagitu eban.

(1) Lurbururainoko bitartea = distancia al Polo. (2) Gauberdinlerroa = Linea Equinocial. (3) Leko = legua. (4) Beko boil-erdi edo lurrerditik = hemisferio inferior. (5) Mundu onen itzul-ingurutik = de la circunferencia de este mundo. (6) Katay edo Katayo = Txinari emoten jakon izena Erdi-Aroan. (7) Obo = latitud, paralelo. Gomeraren obo-neurrian = paralelo de la Gomera.

Kolon, Portugaleko errege IIn Juanegaz egonda, aurkeztu eutson zeregiñezko egitaraua, au izan zan: Mendebal edo sartaldeko bidetik Eguerdi edo itsas-zabalaren mugan eguzkia goialdi aundienean dagoenerantza joanda (1), lur zabal, ugarte eta zoriontasunezko lur sendo ta aberatsak, urre-gorri, urre-zuri edo zidar, pitxi edo txirlarri, arri-bizi edo arri-argi ta amaibako giza-semeak aurkituko ebazala.

Eta bide orretatik berak ulertzen ebala, Indiako lurrakin topo egingo ebala, bai-ta Zipango ugarte aundiekin (2) be, eta Kaizar edo Kan Andiaren erregetzagaz.

Aurkitutako gauza guzti orrein orde, baldintza oneik ipini eutsozan Portugaleko IIn Juan erregeari, bera gizatsu aundi lez jantziteko: leen, onartu egiela urre-gorritzko zalduna izatea.

Bigarreneko baldintza bera ta beren ondorengoai "Jaun" (3) gorengo izenagaz deitzea.

Irugarren bearrezko baldintza: Itxas-zabalaren Amiral-Aundiena izatea.

Laugarren, gaiezko gauzetatik, erregeak artzen ebazan Urre-gorri, zidar, bitxi(4), arri-bizi edo arri-argi(5), menasta(6), onkailu(7), pizkailu(8), gaz-piperki(9), kanela ta beste onuratsuzko edozein gauza guztietatik 10ena berentzat izan daitela.

Eta askenez, joan-aldi bakotzaren antolakuntza eta egiten ziran bidalgo guztietatik, berak ordezkatzeko eskubidea eukitea, ibilaldiko talde bakotzaren baliozko kopurutik zortzirena ordaintzeko.

Oar txiki bat zati onetan.

Orañarte idatzita daukagunagaz eta orduko erregearen izaerakin, baten batek ulertu leuke Kolontar kristobalen ain lotsabageko eskaeraren eskeintzari, al-osokerizko sasi-jainko ta odol-ixurtzaille errege aiek, eriotzarekin ez bazan izaten, zigorkada edo astiñaldi gogor barik itxi ote leukiela ?

Argi dago Kolontar Kristobal European orduko andikitasunen artean, onartuta egoala, IVn Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren seme lez, eta Fernando ta I Isabel katolikuaren leen maillako loba edo ta senidea izan zalako.

Zer gertatuko jakon, eskale bat edo ta, Jenobako be maillaren errikoi mariñel Kolonbotar Domeniko eta Fontanarrosa'tar Susanaren semea izan bazan, 1.470-1.473ko urtetan Jenoba eta Sabonako notari-agirietan, illagintzaren (10) bizibideekin agertzen zanari ?

Ez dot ustegabe ona ekarten Jenobako Kolonbotar au, Jenobezak Kolontar Kristobalen aurka egiteko edo ta Kolontar Kristobalek Ameriketako lurraldearen agerketa bidez, artu e-bezan entzute eta ospe guztiak eurekandu, edo agerketa orrein eginkariak eurak izan ba ziran lez agertu gurean, ille zaltzaille Kolonbotar au zala Amerikaren agertzaille esaten eban, Berd ta Martorelltar Grabielek egia argitara agertuaz, Jenobezaren naikeriak ezereztuta.

Edesti onen aria oster berrezkuratuta.

Portugaleko errege IIn Juanek, iru jakintsuen aolkularitzara eroatea agindu eban Kolonek

(1) Egurdi edo Eguzkia. (2) Zipango ugarte aundiekin = Japonen antziñako izena, Marko Poloren esanetatik. (3) Don edo Jaun deitzea = tener tratamiento de Don o Señor. (4) Bitxi = joya, alhaja. (5) Arri-argi = piedra preciosa. (6) Menasta = mineral, metal en bruto. (7) Ongailu edo onkailu = abono. (8) pizgailu edo pizkailu = producto, hierba o flor para reanimar. (9) Gazpiperki = salpimienta. (10) Illagintzaren = batanero, lanero, tratante en lanas.

aurkeztu eutsoezan eskeintzak: “erregearen osagille ta izarlari Rodrigo ta Josope judu bieri”, ta “gaztelako eleiztar Ortiztar Diego”, lenengo Zeuta eta gero Bizeu´ko gotzaia izan ziranai.

Jakintsu oneik, Kolonen eskeintza izarlari ta kosmografoakaz ikertu ta gero, ezetza emon eben, euren ustean Zipangoko lurraldea ez zalako kokatzen Atlas-itsaso zabalaren ostean.

Kolon 24 urte eukezala, bere emazte Moniztar Filipa il jakon, eta emen argi ikusi leike, bere bizitzan gertatu jakozenak, bere aita Nafarroako IVn Karlosen antzekoa zala, bere gorpua, Karmengo Ama Birjiñaren eleizan illobiratuta.

Kolontar Kristobal oartu zanean bere eskeintzat ez zirala onartuak izan, eragozpen aundi bat agertu jakon bere lau urteko seme Diegogaz, ezin ebalako beren egitarauen eskeintzakaz askatasunez ibili.

1.485eko urtean geiago oldoztu edo arazo orreik buruan erabili barik, eta In Juan Portugaleko erregearen beldur, edo zuurtasun andiz bai beintzat, erdi ostonkeran Uelbako Mugaren-Palos itxas-kai edo portura joan zan Diego bere semeak bosturte eukezala, eta lan asko egin ondoren, emendik asiko jakozan aukereak agertzen Koloneri, eukan burupidea aurrera eroateko, argitasunezko lenengo-izpiak Gaztelako lurraldeetatik asita.

Kolontar Kristobalek Uelbaren Mugako-Palos itsas-kaia aukeratu ba eban bere semeagaz joateko, Nieblako Konderrian koñatu bi euki ebalako zan, Korreatar Pedro, Perestrelotar Iseu´rekin ezkondata, eta Mulyar´tar Migel, Muniztar Briolanja´gaz ezkondata egon zana, bide batez bere seme Diego zaindu egien, bere gauzakin ibiltezan bitartean.

Alderantziz be oldoztu leike, bertotik errezago euki ebalako Gaztelako gortera bere joan etorriak egiteko.

Baiña Kolonek jakinda andik 6 kilometrura Rabidako lekaidetxea egon zala, bertara joan zan bere semeagaz, ta atea jo ta ogi zatibat eskatuta bere semeentzat, frantzizkotar lekaideak arrotz-zaletasun guztiagaz onartu eban.

Eta emen Mallorkako Llulltar Ramon frantzizkotar jakintsua aipatu bear dogu, bere jakin aundiko ikerketaren bidez, itsas-mugimenduaren gora-berak adierazpendu egiten ebazanean, Atlant itsasoko beste aldean lurrak egon bear zirela, esaten ebalako, gero Rabidako lekaretxearen Pereztar Juan eta Martxenatar Antonio frantzizkotar lekaideak aurrera eroan ebena.

Kolontar Kristobal Rabidan egoala, Pereztar Juan lekaideagaz aurkitu zan, eta bere asmo edo egin naiak berari adierazten egoala, au arrituta, lekaidetxeko osagillea zan Gartziatar Ernandezeri deitu eutson, eta biak geratu ziran txundituta, Kolonen adierazpenakaz.

Lekaidetxe orreitan, ospe andiko izarlari bat be egon zan, Martxenatar Antonio lekaidea, baiña ez zan egon Kolon egon zan egunean.

Kolonek Rabidako lekaidetxe orretan, etxe ta eskola eder bat aurkeztu eban bere seme Diegorentzat, eta lekaidetxera sarri joaten ziran ainbat mariñelekin, adiskidetasun aundiak aurkitu be bai.

Belaskotar Pedro izan zan alango adiskide mariñel bat, Koloneri beren 40 urte ariñagoko itsasoaren ibilkerak esaten eutsezanak, adibidez: Fayal ugarte ondotik aldatu ziranean eta 150 leko baiño geiago ibilita, Ipar-Mendebaleko aize zakar batengaitik eragozpenduta, itzuli bear izan ebela; ta bidean Loraren ugarte aurkitu ebela, lur-egazkiaren egazkadari begituta.

Kolonek, ez zala naikoa lekaidetxe orretan aurkitzen eban laguntzagaz eta bere pareko zaldun edo aundikiekin berba egitea erabagi eban, Guzmantar Enrike Medina Sidoniako dukearengana joanda, eta Kolonek beren gogoko asmoak adierazpendu ondoren, onek ez eutson onartu ezer.

Gero, de la Zerdatar Luis errege seme ta Medinazeliko Dukearengana joanda, eta au IVn Karlos Bianako printzearen alaba, Nafarroa eta Aragoiko Anarekin ezkondata egon zan ezkerro, nun agertu ziran koñatuak lez.

Eta Medinazeliko Dukeak emoten eutson laguntza, ez eutsala emoten Zaldunezko aundiki bat izateagaitik, beren koñatua izateagaik be laguntzen eutsolako, Berd eta Martorelltar Grabielek beren liburuetan ondo baiño obeto adierazpenduten dauan lez.

Kolontar Kristobal, urte bi inguru egon zan bere Nafar eta Aragoiko arreba Ana eta bere koñatu de la Zerdatar Luis Medinazeliko Dukearen etxean zaldunezko arreragaz onartu ta zainduta, eta denbora onetan izango zan, bere koñatuak I Isabeleri idatzi eutsola eskutitz bat, esaten, zelango asmoak euki ebazan Kolonek itsasoaren bestaldera joateko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koiñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.

Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonsorengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanak adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Urtarrillaren 20an Kolontar Kristobal, IVn Karlos ta Margaritaren seme ta errege katolikuaren loba au, Kordobara joan zan bere koiñatu Medinazeliko Dukeagaz laguntzaille lez, onek I Isabelen aitorleari idazten eutsoezan eskutitzak eroaten, eta Talaberako Ernando I Isabelen aitorle oneri eroan eutsoezan eskutitz orreitan, idatzita joan zirala ezan leike, Kolonen errege-seme ta ondorengotasunezko zaldun izaera, ezkontza, jakituri ta eukezan asmo guztiak.

Eta Kolonek, bere koñatuaren aolku bidez, erregearen zenbatzaille nagusi Kintanillatar Alonsorengana joanda, onek, Gonzalez ta Mendozatar Pero Sebillako gotzaia eta gero Toledoko kardinala "irugarren errege" izenagaz ezagutzen zanarengana eroan eban.

Kolon, iru illabete inguru egon zan Kordoban, errege katolikuak Kordobatik itzuli arte, eta Kolonek, Jorraillaren askeneko gerta-egun orreitan ezagutuko ebazan bere izeko-osaba katolikuak.

Kolon, I Isabel eta Fernando erregearen gortera joan zanean, berak itsasoaren gora beran jakin ebazanak adierazi eutsezanetik, eta eroan eban itsasoaren eskutitz edo mapa erakutsi ondoren esan leike, Kolon emendik aurrera babestuta egon zala bere izeko-osabaren aldetik.

Errege katolikuak garrantzi aundia emon eutsoen asmo oneri, talde-buru bat antolatuta, Kolonek aurkezten eutsen egitaraua entzun eta ondoren ikertzeko.

1.486an Loraillaren 15ean Errege katolikuak orduko denboran moruekin guda gogorrean egonda, eta Fernando egun orreitan borrokara urten ebalako, Loraillaren ariñauko egunetan esan leike ikertasunezko talde-buru ori sortzeko erabagi ebela.

Talde-buru onen lendakaritza, ez eban euki edozeiñek, Talaberako Ernando au, I Isabelen aitorlea izanez gain, erregiñarentzat orokorrezko-ministru baten antzerakoa izan zalako, eta osotzen eben taldekideak be, Salamankaren Ikastetxe Nagusiko jakintsuaren ardurapean ipinita: Zakuto'tar Abraham izarlari aundia, Torres'tar Diego izarraren irakaslea, de la Yerbatar Nuñez eta Nebrija kosmografo, itsaslari, filosofu edo jakin-zale omnetsuakaz osotu zan.

Kolontar Kristobal Salamankan egon zan denboran, benetan gozatu eban, bere jakintza ta asmoak, Salamankaren goi maillako ikastetxe nagusian, ta dominiko lekaidearen ardurapean egon zan San Esteban lekaidetxean adierazten.

San Esteban lekaretxe onetan gero, Deza'tar Diego izango zan zuzendari, Torkemadatar Tomas inkisiziozko azterkai nagusiaren ondorengo lez, Kolonek lekaide onen babes guztia eukinda, 1.504an Azaroaren 21ean Sebillatik, bere seme Diegori idatzi eutson lez.

Talde-buru onek, ainbat bider batzartu zan, eta danetan esaten eben eziñ-egiñezkoa zala Kolon Amiralak aurkezten ebana.

1.487an Loraillaren 5ean Kolon eta Diego lekaideak, Kordoban egon zan Granadako gudu abia-lekura lagundu eutsoen gaztelar gorteko kideai, eta Kolonek, orduan artu ebazan lenengo 3.000 marabedi, Uztaillaren 3an beste 4.000 marabedi, eta Dagonillaren 18an Malaga mauritarrei kendu eutsen osteko Dagonillaren 27an, 4.000 marabedi KOLOMOTar Kristobalen izenarekin, beren biziaren beartasunerako.

Ekintza onek bakarrik argitzen dau, Kolon, errege katolikuaren loba izan zala, bestela nundik emongo ote eutsien ainbeste diru, eurak beartasunean egonda Andaluziko lurraldeak morueri kentzeko alegiñean ibilita ?.

1.487ko urte onetan Kolon Kordoban bizi zala, ez ebazan bakarrik beren bizitzazko bearraldiak asetu, baleiteke denbora onetan izatea, bere bigarren emazte-gaia izango zan Enrrikeztar Beatriz, Gaztelako Amiral Enrrikeztar Fradikeren alaba, leku orretan ezagutzea, eta beren bidez, 1.488ko Dagonillaren 15ean bere bigarren seme Fernando euki.

Baiña, 1.487ko urtearen amaieran edo 1.488 asieran, Kolon bere bidaiaren gora beran ikerlariai ainbeste deboran itxaroten, ta erabagirik ez zalako agertzen nekatuta, Portugaleko erregeari idatzi eutso eskutitz bat, beren serbitzuak eskeintzen.

1.488an Epailaren 20an idatzita artu eban Kolonek, In Juan Portugaleko erregearen adiskidetasunezko, bizkorgarri eta maitekorrezko erantzuna, In Juanek gogo aundiak euki ebazalako Kolon berriz bere serbitzuan artzeko.

Kolontar Kristobalen itxarotezko asperraldi denbora oneitan, ainbat gauza kosmografia ta jeografiako liburuetatik irakurri ta idatzi ebazan, eta bere aita IVn Karlosen olerkari edo izneurlari oneko ondorengotik bere izaerazko zaletasunean agertuta, baita olerkiak be, bere "Iragarpeneko liburuan" agetzen diran lez.

Bai bere irakurketaren bidetik, oarketa asko idatzi be liburuko orrien idatzibako lekuetan, adibidez: Marko Polo, 1.489ko urtean irarritako Plinioren orokorrezko edestian, Plutarko, Ptolomeo ta abar.

Baiña, Sebillako "Kolonbino erakustokian" dagozan liburuak 2.125 oarketakin: 1.485eko urtean argitaratuko "Marko Polo latino", "Senekaren izu-antzerkiak", "d'Allytar Pedro kardinalaren Ymago mundi, onek 1.410ean idatzi eban Jeografiaren orokorrezko liburuan esanda, Asia Ekialdetik urrun zabaltzen zala, eta mundu onen biribiltasunezko beste aurpegi aldetik, ez zala egon Europatik bananduta itsas-estu bategaitik baiño, eta azkenez, Silbio ta Pikolominitar Eneas, gero Aita Santua izango zana In Pio izenarekin idatzi eban "leku guztietan gauza guztiaren egindako edestia" (1), dira.

Kolontar Kristobal, jakintza ta itsumenezko ardura aundiko gizona zan bere munduko biribiltasunari begira, eta ez ebanzan alboratzen libururik, kontu orreitan bere barruan aipamen txikerrena baiño ekarri ez arren.

Onez gain, Kolontar Kristobal gaztelanian egon zan denboran, oso babestuta egon zan, Kintanilla, Dezatar Diego, eta espainitarren Kardinala kontuan euki barik, Kabreratar Andres eta bere emazte Fernandez de Bobadillatar Beatriz, Moya'ko Markesak, I Isabel erregiñagaz adiskidetasun aundiak euki ebezanak, geiago, Malagako ingurutasunean batera egonda, mauritar batek Beatrizeri aitzokada sakon bat sartu eutsoenean berak galbidetik gordeta, bai eta Kabrerotar Juan erregearen gelazaiñ aldetik, eta abar.

Aragoi aldetik be, naita juduak izan arren, ba-eukazan beste adizkide laguntzaille batzuk, Santxeztar Gabriel diru zaiña eta Santanjeltar Luis idazkaria bezela.

1.488an Dagonillaren 15ean jaio zan Kristobal eta Beatrizen seme Fernando, eta ezkondu ez arren, orduko denboran zaldunezko aundikiari ez eutselako ardura aundirik emoten, edozein nezka bategaz ume bat eukiteagaitik, naita Beatrizek beren bizitza on eroan dagien, Kristobalek bere ardurazko gauzak ondo baiño obeto atonduta itzi, gero 1.502ko urtean azkenai lez bere seme Diegori agindu eutsonean bezela.

1.489ko urtean, Kolontar Kristobal, leku askotatik ibili zan itsasoz Gaztelako erregearen serbitzura, erregearen eskutitz bat beragaz eroanda beti, egoten zan leku guztietan ordezkatu bear ebazanak Gaztelako gortearen ordaintzeko ardurapean geratzen zirala, esaten ebana.

Eta emen, Kolonen zaldunezkotasun ta erregearen senitasunak agertzen dira ostera be, bestela nundik nora ulertu ainbeste eskubideko laguntza ?.

1.490eko urtean, Indiako bidearen gora beran urte ta egunak astiro baiña etenbako iraun aldian doiezela, Salamankaren batzarreko iker-taldearen erabagia agertu zan, Kolontentzat ez ebena ekarten baimen eta gitxiago zorionik, Jakintsuen eritzian bidai ori ezinezkoa ta

(1) historia rerum ubique gestarum = Leku guztietan, egindako gauza guztiaren edestia.

ezezkorearen merezimendu andienagaz baztatu egin ebalako.

Baiña erregeak, Kolonen aurkako erabagia euren eskuetan euki arren, eskutitz bat bialdu eutsoen Koloneri, ezeren itxaropenik kendu barik, eurak erabagiko ebela, Granadako guda amaitzen zanean.

Zoritxar andia Kolonentzat, sendian banaduta egonez gain, bere biziaren egoera okertzen ebalako, 11 urteko Diego semea Uelbaren Rabidako lekairtxean, beste semea Kordoban bere amagaz, eta txarrena, Gaztelako gortearen laguntza kendu eutsoenean.

1.491ko Jorraillaren 11n Errege katolikuak Juan Printzeagaz batera, mauritarren aurkako borrokak asteko naian, Sebillarantza joan ziran, Fernando katolikuak bere emazte I Isabel eta seme Juan, Erregearen Alkalako urian izteko.

Uztaillaren erdian I Isabelen larruzko aterpeak sua artu eban, eta beste aterpeetan su orrek triskantza aundiak egin eta gero, Fernandok ez daiten ostera alango gauzarik sortu eta beren gudalozteak ondo babestuta egon zitezen, iru illabetetan erri bat jaso eben Granadako ibar aretan, eta "Santa Fe" izena ipini eutsoen uri barri orreri.

Errege katolikuak beti lagundu ta babestu eutsoen Koloneri, baiña sekula ez eben bere izenik, jaio erria ta euki eben Nafarroako erregearen ondorengotasuna aldarrikatu. In Juanek eta bere seme Fernando katolikuak, bere aita IVn Karlosekin, errege lez euki zituzen leiak eta pozoitasunezko eztabaidagaitik izango ote zan ?.

Nik geiago sinistuko neuke, Fernando katolikuaren maltzurrezko guzurti ta gaizkatzaille izateagaitik, ez ebala gura nai iñork jakin egian nor zan Kolon, berak eta bere aita In Juanek egin ebezanak, euren seme ta ugazanaiarekin ez zitezen ezagutu.

Orregaitik da izilpeko ongunde zarratu ta politiko zital bat, orduko denboratan Kataluña ta Euskalerrria edo ta Nafarroan ezagutu ba ziran Kolontar Kristobalen izen abizenak eta IVn Karlos Nafarroako erregearen semea zala, erri-biak euki ebezan eskubidetik, indar guztiekaz matxintasun bideetan sartuko ziralako.

Koloneri, Gaztelaren gorteko agiri guztietan emoten eutsoen arrera, ez zan Mallorca, Jenoba, edo ta alango beste izen bat eukiteagaitik, ez, arrotza izateagaitik baiño.

Eta au da nire ustez, Kolontar Kristobalek euki eban bene-benetako arazoa, errege katolikoak eleiztarren agintaritzazko kaizar aolku eta gaizkidetasunean euki eben almen guztiagaz, jakin ez-edin edo Aragoi ta Nafartar erregetzaren izenak ez egiezan agertu, ezezaguntasunezko illunpetasun baltzenetara sartu ebazan Kolonen izen-abizen ta ondorengotasunak.

Bestela Granadan, Nizeatik katolikotasunezko batzangotasunaren asma-kuntzan etorten zan iritziari bertan ziñez itz emon edo zinpetuaz ez ba eben berri-iztu, espainiar izenagaz erdi-ugarte edo peninsula au aberri-katolikotasunean batzagozteko euki ebezan egin-nai guztiak, pikutara joaten ziralako.

1.491eko urtean, Kolontar Kristobal ez zan kikildu eta Uelbara joan zan Rabidako lekairtxean frantzizkotarren babesa, eta Palos'eko mariñelaren laguntza billa.

Eta begitu non sortu leiken zoriona, bertan aurkitu ebazalako, len berari ainbeste lagundu eutson Pereztar Juan, beste gizon bi barriekaz, Martxenatar Antonio ta Alonso ta Pinzontar Martin, berentzat ain garrantzizkoak izango zirenak.

1.492an Urtarrillaren 2an menperatu eben errege katolikuak Granadako Uria, eta emendik aurrera emon eben amaitutzat mauritarren aurkako guda.

Batikanoko inguruan Aita Santuak, Erromako San Pedro eleiz nagusian meza santuak eta jolas-jaiak ospatuta. Bai eta VIIen Enrikek Londreseko San Pabluko eleiz nagusian, Islanen aurkako katolikotasunaren garaipena ospatuta.

Emendik aurrera azten dira Kolonen alkarrizketak Gaztelako errege katolikuarekin.

Eta Berak beren buruagaitik zer oldozten eban jakiteko, berak idatzitako berba auek aurkeztuko dautsuet: “Ni zer nintzala oldozten, nere apaltasunak naspillatu egiten eustan, baiña, izaeran eroaten nebana jantzita oldozten, koroi bi orren bardiñakua senditen nintzen”.

Eta len Portugaleko erregeagaz egin eban antzera, errege katolikuakaz batzartuta, bere eskaerazko baldintzak ipini eutsezan: agertuko ebazan lurraldearen “Errege ordea, Amiral ta Orokorrezko Jaurlari” izendatu egiela, eta azkeneko izen oneik Don izen-ondokoagaz betiko eroan egiezala bere ondorengoak.

Bai eta Indiasera baktzaren joan-aldirako prestatu egin bear ziranaren balio izaten zan diru guztitik, berari itzi eutsiela zortzigarrena ordaintzen, eta irabazi guztiko kopuruaretik berari, amargarrena ordaintzea.

Errege katolikuen eritziz, lar zala Kolonek eskatzen ebala ta ostera bota eben atzera Indiazeko asmo ori.

Kolon asarre, lagun guztiari agur eginda eta mando baten gaiñera igonda, Kordabarantza artu eban bidea, gero Frantzirantza joateko.

Moyako Kondesa, Kintanillatar Alonso, Kabrero ta beste lagunak, ez eben onartu Kolon Europako beste erregetza batera joan zedin, eta euki ebezan asmo on guztiak beste kanpotar batzuk gozatu ez egiezan, erregiñarengana joan ziran ostera, erregiñari esanda, ori gertatuten bazan, Gaztela ta Katolikotasunaren kalte izango zala.

I Isabel Gaztelako erregiñak ostera mezulari bat bialduta, eta Granadatik leko-bira “Pinos Puenten” aurkituta, ostera itzuli zan Kolon bere izeko erregiñak zer esaten eutson entzutera.

I Isabel bere loba Kolontar Kristobalekin egonda, auxe esan eutson: “Eginkizun au, nire Gaztelako erreñuaren kontuan artzen dot, eta Gaztelako gortearen gorde-lekuan dirurik ez balego, nire bitxi ederrak salduta ordainduko dodaz”.

Emen ikustenda Fernando katolikuaren lenengo urruntasuna, I Isabel il zanean, eginkizun oneik, bere guzurrezko maltzurtasun ta norkerizko jokoakaz alkartzeko.

Eta errege katolikuak, Kolonen baldintza orreik agiri baten batzeko, Kolonen lagun andia izan zan Pereztar Juan frantzizkotar lekaideari agindu eutson agiri baten idatzi egiezala, eta onek Koloma'ko Juanen laguntzagaz egin eta gero, alde biak “Santa Fe'ko elkargo”an izenpetu ebezan. Eta Kolonek, asieratik artu eben zaldunezko arrera, errege seme-lez.

1.492an Jorraillaren 17an siñatu ziran agiri oneik Granadaren Santa Fe'ko Urian.

Eta Kolonek, agiri orren baldintza baten, ipini ba eban Enrikeztar Alfonso Amiralaren bizibide edo mailla bardiñean izendatzea, baleiteke Enrikeztar Alfonso, Gaztelako II Enrike erregearen sasiko semea zalako izatea, eta bera beren mailla bardiñekua izanda, zer gitxiago berarentzat, eta alan egin eben Kolon, Indiako Amirala.

II Enrike Gaztelako errege au, Fernando katolikuaren birraitite izan zan.

1.492an Jorraillaren 30ean errege katolikuak Koloneri, aurkitzen ebazan lurralde ta ugartearen “Amiral” “errege ordezeko” ta “Jaurleri” izendatuz gain, berak bear eben guztia eskuratu egiaziela agindu eben, bide orren asmoa, len bait-len lortu egian.

Eta erregeak, Palos´eko alkate Rodrigez ta Prietotar Diego eta erritarren artean erregearen aurka egon ziranai, agindu au emon eutsen zigor lez, kañoiakaz armadunezko itsasotzi-bi ipini egiezela erregearen urtebiko serbitzura, Kolonek bear eben lekutik ibilteko.

1.492an Loraillaren 12ko Zapatuan urten eban Kolonek bere taldekideekin Granadatik Palos´eko Uriaren itsaskairantza.

1.492an Loraillaren 23an Kolonek, Palos´eko jaurleri ta erritarrai deitu eutsen, San Jorjeko eleizan batu zitezen, erregeak emon eutsoezan aginduak danori irakurriaz batera, itsaszontzi biak bere ardurapean ipini egiezen.

Eta Palos´eko jaurleriak erregearen eskari ori beteteko, itsaskaian egon ziran itsasontzi bi baitu (1) ebazan, eta irugarrena De la Kosa´tar Juan kantauriko mariñelak eskeiñita eukan itsaszontziakin osotu zan Kolonen itsas-taldea.

Beste gauza bat izan zan itxasontziaren mariñeltza lortzea, ezau-bageko itsas uraren bildur, iñork ez ebalako gura itsasontzietara igon.

Kolonek egoera au ikusita, erregearen agintaritza erabiltzea erabagi eban, eta zigortzeko ziran gaizkilleari parkamenaren ordezk deituta, lortu ebazan geienak beintzat.

Agindu orregaz batera, Andaluziko agintari guztiari esanda, Kolonek bear eban guztia saldu eutsiela, zentzunezko ordain sari bidetik.

Kolonek ez eban lortzen berak gura ebena eta Rabidako lekaideak konturatuta, Pereztar Juan lekaideari agindu eutsoen Kolonegaz berba egin degian, eta onek Alonso ta Pinzontar Martinen laguntza eskaiñita Koloneri, onek Pinzonegaz diru kontuen gora berak erabagita lortu eban, Pinzon bera ta bere sendiaren lagunakaz itsasontziaren mariñeltza betetea, eta baita Pinzonek berak diruz, 500.000 marauri maileguz edo aldikoz iztea.

Eta beste itsasontziren mariñel eza, atxilotuta egon ziran edo gizon-gaizkillearen gaiñetik, Palos, Uelba ta Mogerreko jendeakaz osotu ebazan.

1.492an Ekaiñaren 23tik, Dagonillaren 3rarteko bitartean Kolonek, Alonso ta Pinzon´tar Martinekin lortu eban bidai orretarako lortu bear ebena, eta Paloseko jaurleriak itzi eutsezan itsasontzi bien aldaketak beste aundiagoko itsasontziagaitik eginda, Palo´seko izenakin joan bear izan ebenak, “La Pinta, La Niña ta Santa Maria”ren izenak ipini eutsozan.

“La Pinta” itsasontzia, Palos´eko Kinterotar Kristobalena izan zan, ta iruretatik azkarrena izan zalako, itsasontzi onetatik ikusi ziran leen Ameriketako lurak. Itsasontzi onetan 26 mariñel joan ziran.

“La Niña” itsasontzia, Mogerreko Niñotar Juanena izan zan, eta Kolonek ontzi-oialetan egin eutsozan aldaketakaz, bestien bezelako azkarra biurtu zan. Eta itsasontzi onetatik bota eben lenengo tiroa Rodrigez ta Bermejotar Juanek (2) lurra ikusi ebalako. Itsasontzi onetan 22 mariñel egon ziran.

“Santa Maria”, la gallega esaten eutsoenai, de la Kosatar Juan Santoñako izarleri aundi ta geroago onek egin eban Ameriketako mapa artean ospatsuena izango zanarena izan zan, Koloneri akuratu edo alokatuta. Itsasontzi onek 39 mariñel euki ebazan.

(1) Baitu = decomiso, confiscación, secuestro. (2) Rodrigez ta Bermejotar Juan = Trianako Rodrigoren izenakin esagutzen zana.

Itsasontzi oneik, izkillu sendo ta kañoiakaz tresnatuta egon ziran, eta lau Pinzon senditar aurkitu ziran ikertasunezko bidai onetan:

Pinta itsasontziren kapitaiña, Alonso ta Pinzontar Martin 45 urte ingurukoa.

Itsasontzi onen bigarren agintaria, Pinzontar Franzizko Martin.

Itsasontzi onetan be mariñel lez, Pinzontar Diego martin joan zan.

Eta "Niña" itsasontziren kapitaiña Yanez ta Pinzontar Bizente 32 urtekoa.

Diruagaz be, txarto ez, Pinzonek ipini ebanzan milloi erdiari, beste milloi bat gaiñeratu egin bear zalako errege katolikuak emon da.

Eta emen oar txiki bat.

Eskerrak B. Gould'tar Alize ikertzaille edo aztertzaileari, iru itsasontzietan jua ziran 87 mariñel guztien izen-abizen eta nungoak ziran datoz, Berd eta martorelltar Gabrielen liburu onetan.

Orregaitik dakigu Murtziako bat eta amar galizia ta euskaldunen artean ziranetik kanpo, danak andaluzitarrak izan zirela.

Eta arrigarriena amen, zergaitik mariñel guztiaren izen-abizen eta bakotzaren ogi-bidetik euki ebezan langintza eta eurengandik bear ziran zeaztasun guztiak jakinda, Kolontar Kristobalenak izen-abizen ta ondorengotasunik ez ?.

Ni itxaropenezko gizona naz, eta ez dakit noz, baiña uste dot agertuko dirala.

4. ZATIAN.

Lenengo itsasaldia.

1.492an Dagonillaren 2an Kolonek 32 urte euki zituzela, itxasontzietara igoteko agindua emon eban, eta Dagonillaren 3an eguzki aldetik egun orren argitasuna agertu egien ordu erdi bearrean egon ziranean, itxasontziak itsas-zabalera bideratuta, kariatik urtetako agindua emon eban.

1.492an Iraillaren 1ean Gran Kanariasen ugartediko Las Palmasetik urten eta Gomerako San Sebastian kaiara joan ziran.

Eta 1.492an Iraillaren 6an Gomera ugartearen San Sebastian kariatik urtenda, atzean itzi eben Europa zar au, itsas zabalaren bakartasunetan sartzeko.

Mallorkaren izarlaritzazko ikastetxetan ikesten ziran izarraren kokategietatik ibilten, eta ibili be ibilten ziran, euren artean ezagutzen ebazan itsasoetan, eskutitz edo mapa baten izarraren ezarmeneko zeru-margoztutatik, Mallorkakoak gauza orreitan sakon sartuta egon zirelako.

Eta bai Europa osoan be arduratzen ziran ikasten, baiña itsasoaren bazterretik ibilten ziran lez, itsaslariak ez eben eukiten itsasoko gauzatan, izarraren laguntza bear tresneri lez, arik eta Kolonen antzera, itsaso zabalaren bakartasunean sartuta, bear ebezan zeaztunak artzeko beste tresnerik euki ez, eta Kolon bera izan zan kosmografiaren tresnak leen ibili zituzenak.

1.492an Iraillaren 19an Santa Maria itsasontzi inguruan, sanga ⁽¹⁾ bat agertu zan, eta jakinda txori au ez zala urrunduten 20 leko ⁽²⁾ itsas-baztarretik, jakin eben lur sendo edo ugarte aundi batetik urbill egon zirala.

1.492an Urrillaren 11n aize gogorra ibilten zala, Pinta itsasontzikoak suagaz landutako makilla bat eta kañabera batzuk ur gaiñean ibilten zirala ikusi eben, eta baita urrunean sua be.

1.492ko Urrillaren 11n gabeko 2-3 ordu bitartean Kolon, Alonso ta Pinzontar Martin, Yanez ta Pinzontar Bizente eta iru itsas-ontziko mariñelaren neka eta larritasunezko otoitz eskaerak entzunak izanda, nun agertu jakiezan Amerikako Lurrak, naita eurak Indiako lurrak aurkeztu ebazala ustean egon.

Orregaitik ango biztanleai Indian egon zalakoan Kolonek, indioaren izenakin deituta, gaur be orokorrean izen orrekin ezagutzen dira ango lurraren seme-alabak.

1.492an Urrillaren 12an Bahamas edo Lukayaseko ugartedian osotzen dauan Guanahani bertoko semeak deitzen eutsoen ugartean lurreratu ziran, eta Kolonek aunditasun guztiagaz, bere Mallorkaren Felanitx'eko erriaren dagon San Salbadorreko basiliza gogoratuz, "San Salbador" izena ipini eutson, iñori adierazpenik emongabe, errege katolikoakaz egindako itun edo elkarpidetik, ixilpekoa zalako.

San Salbador basiliza onen edesti laburra auxe da: 1.348ko urtean, udalako ziñegotziak Santueriko gaztelatarrekin batera, IVn Pedro Aragoiko erregeari eskeintza edo egin-nai au aurkeztu eutsoen, "itzi eutsiela mendiaren gaiñean otoi-gela bat egiten", eta erregearen baimena artu ondoren, zazpi illabete baiño ez eben bear, mendi gaiñ orreitan lenengo basiliza euken patiiñ edo urtegiagaz batera eraikiteko, gero aldakuntza asko euki ebazanak.

San Salbador basiliza ori, itsasotik goi-aldera 509m daukan San Salbador mendi gaiñean eraikita dago, eta XVn gizaldian, beren inguruko biztanleak zaletasun audikoak izan bear ziran basiliza orrek euken Ama Birjiñagaz, Kolon berak erakusten eban lez.

Kolon jaio zan Felanitx erriko etxe-gorritik San Salbador basilizara, 7km bakarrik dagoz.

1.492an Urrillaren 14an Kolon ostera itxasontziratu egiten da, eta Marko Polok esaten eban antzera, aberastasun aundia euki eban Zipangoko ugartearen billa urte eban.

1.492an Urrillaren 15ean Errugabeko Sorkunde ugartera joan ziran eta 16ko eguerdian Fernandinako ugartean egon ziran.

1.492ko Urrillaren 16ko eguerdian urtenda, Fernandina izena ipini eutson ugartera joan ziran, eta ugarte guztietan onartuak izan ziran lez, ugarte onetan Kolonek ariñautik ikusitako beste ugartetik gizon bat agertuta egoan, eta euren barriak emonda, itsasontzia guztiz inguratuta agertu zan euren potin edo kanua txikiekin, Kolonek eroan ebazan bitxikeriaren billa, eta eurak be eukezan gauzaren truke.

Kolonek, emen erabagi eban gaxteluzka antzeko bat eraikitea, bertokoen esanetan urbil egon zalako berak gura eban urre-gorria.

1.492an Urrillaren 19an Kolonek Samoet'eko ugartera joan ziran eta Isabelen izena ipini eutson, bere izeko Gaztelako erregiña I Isabelen omenez, bera izan zalako ugarte ederrena.

1.492an Urrillaren 24an Kolonek, gaba-erdian Isabela ugartetik urten da, Zipango ugartera joan bazan lez, Kubako ugartera joan zan, bertoko semeagandik oartu ondoren, ugarte ori

(1) Sanga = alcatraz (ave). (2) Leko = legua.

urre gorritan aberastasun andikoa zala.

1.492an Urrilaren 28an Kolonek, Gaztelako erregetzaren ondorengo Juana omenez, Juanaren izena ipini eutson ugarte oneri, eta aifñ ederra izan zan lez Kubanakaneko ugarte au, Kolonek Zipangora eldu zala uste eban, eta bertan aurkituko ebala Kan aundi errege ori, Toskarellik bere itsasoko eskutizetan esaten eban lez.

Eta Kolonek erreka orrek euken kaiari, berè ustez Kan Andiak sarritan etorten zan lekua zalakoan, San Salbadorren izena ipini eutson.

1.492ko Azaroaren 2ko barikuan Kolonek, Kubanakan'eko ugartera eldu zanean, lurralde au aundia zalakoan, gizon bi Jereztar Rodrigo eta Torrestar Luis beste bertoko gizon bigaz, errege-ordari lez bota ebazan Kan andiagaz egon zitezen itxaropenean, ugarte orren erdi ingururantz, sei egun barru itzultzeko agindupean.

1.492an Azaroaren 5eko gauan eldu ziran ordari biak, Kan Aundi, Uri, ta urre gorrizko aberastasunaren aipamenik gabe, bertokoagaitik onartuak izan zirela esaten, eta barri lez, ke-belar edo ke-belarraren barriak ekarrita, zelan mozkortzen ziran bertokoak orri orreik erre ta keiaren arnasa artukeran erakutsi eben, ke-belarraren orri orreri "Tabakos" deitzen eutsela esanda.

1.492an Azaroaren 12an itsasontziak konpondu ondoren Kolonek, Babeke ugartera joan zan, eta ainbat ugarte ikusita "La Mar de Nuestra Señora" Felanitx errian dagon San Salbador baselizako Ama Birjiñaren izena ipini eutson itsasoko orren inguruari, eta ango kaiari "Puerto Principe".

Kolonek emoten ebazan oinkada guztietan, beti aurkezten ebazan gauza barriak, landara, zugaitz, bestelako arraiñ edo arraiñ artean ezberdintasun asko eta zangurru edo karramarro aundiak.

1.492an Azaroaren 21ean Alonso ta Pinzontar Martinek agintzen eban Pinta itsasontzia, beste itsasontzi bien Ekialdetik aldendu zan, ugarte barrien lur zabalak, bai ta beragaz eroan eban bertako seme baten esanetan, Babeke ugartean urre gorri asko aurkitzeko, Kolonek leporatzen eutson lez, eta ez ziran alkartuko barriro, 1.493ko Urtarrillaren bigarren asterarte.

1.492an Abenduaren 6an Kolonek Kubako ugartean egon zanean, bertokoak Boio deitzen eutsoen ugarteagaitik esaten eutsoen, ango gizon/emakumeak txakurren aurpegi ta begi bakarrekuak zirala, eta Kubako ugartea itzi ta Boioko ugarterantza bideratuz Aitiko ugartera eldu ziran, bertan egon zan kaiari "Puerto Maria"ren izena ipiniko eutson, eta ugarteko beste aldean ikusi eban lur-mutur ederrari "Cabo Estrella".

Ugarte au aifñ aberats ikusi eban lez "espainolaren" izena ipini eutson, eta "Puerto de la Concepción" an egon zan kai ederrari, eta egin zan gazteluari bere goi-buru aldean, gurutz aundi bat ipini.

1.492ko Abenduaren 16-17ko egunetan ugarte onein erregearen bitartez, urre gorri naiko asi ziran batzen. Baiña iñoz ez izango zan naikoa, eta sekula ez ziran asetu, guk dakigun lez.

1.492ko Abenduaren 21ean Kolonek, itsas-kai ederbat ikusi eban, eta bere mariñeltzaren 23 urtean ez ebala ikusi alango kai-lakorik esan eban. Esan orretatik atara leike, Kolon 1.469ko urtetik aurrera ibili zala mariñel lez.

1.492an Abenduaren 25ean Martitzeneko “Gabon-Egunean”, urperatu zan “Santa Maria” itxasontzia, eta au da onen kondairak esaten dauana: Kolon ainbeste denbora lo egin barik, ontzi-gidariaren ardurak mariñel bateri itzi eutsezala.

Onek be, itxasoaren ur-bera andia egon zalako, eta naita Kolonek guztiz debekatuta euki, gabeko 12etan loegitera joateko alegiñean ibilita, itsasmutil gazte-bateri itzi eutson ontzi-gidaritzaren ardura, konturatu barik urbizi edo uren lasterrak itsasontzia areetarantza eroaten ebala, eta ondartu aiñ errez egin zan lez, iñor ez zan konturatu zer gertatzen jakien.

Mutilla deika asita, danak agertu ziran ia zer gertatzen zan, eta batzuk ori ikusita iges egin gura ebalako beste itxasontzietara joanda, “Niña”ko Yañez ta Pinzontar Bizentek ez eutsien izten bere itsasontzira igoten, eta Kolonek ontziaren tantai aundia ebagiteko agindua emonda ta beste gauza batzuekin arduratuta egon zan bitartean, itsasontzia urperatu zan.

Kolonek eguna argitzen egon zanean, Santa Maria itsasontzira joan zan, eta batel baten, Aranatar Diego itxas-ontzidiaren ertzaiña ta Gutierrezar Pedro erregearen goxogillea bialdu ebazan ango Guakanagari erregearengana laguntza eskatzen, eta onek beren neska ta mutillakin laster utzitu eben itsasontzia eta gauza guztiak euren etxolatan gordeta itzi.

Asko idatzi eban Kolonek errege katolikoarentzat, ango aberastasun andiko zuaitz, urre-gorri, landarak eta jende onein gora beran.

Eta bertokoak “Boio” deitzen eutsoen ugarte onetan euren babeserako, gaztelu antzeko bak eraikitea agindu eban Kolonek, erri lez “Villa de la Navidad” izena ipinita.

Kolonek ez eban euki eragozpenik lur auek erritzeko, mariñel batzuk lenengo egunetik, eskatu eutsoelako, ia bertan geratu leikezan.

Kolonek, Santa Maria itsasontzia urperatu zanean, beartuta geratu zan ostera peninsulara itzultzen. Niña itsasontziagaz bakarrik lur geiagoren ezagutzan ibilteko, arrisku edo galbide aundia ikusten ebalako.

Kolonek, 39 mariñel artu ebazan gaztelu au zaintzeko, Aranatar Diegoren agindupean ipini ebazan izkillu ta kañoiekin ondo pretauta, Gutierrezar Pedro erregearen goxogille eta Segobiako Eskobedotar Rodrigoren laguntzarekin.

Aranatar Diego au, Kolontar Fernandoren ama, Enrikeztar Beatriz'en loba izan zan.

Kolonek, 39 gizon onen artean Torrestar Luis adieratzaillea be itzi eban, gizon auek antolatu ta bideratzeko, bera Ugarte-Erdi edo peninsula onetara itzultzen zan bitartean, eta ostera bertan agertzen zanerako, lur aiek ondo aztertu ondoren, urre-gorri, algodoi, ta bertako beste gauza batzuk moltzatuta euki egiezen aginduta.

Bertoko seme-alabak, ondo artu eben mariñelaren erabagia, euren ugarte ederra beste ugarteko gizonagandik babestu egiten ebalako, eurak menperatzera juaten ziran.

1.492an Abenduaren 31ko egunean Kolonek, Niña itsasontzia, egurra, ura, janari ugari, ta biderako bear ebezanakaz ondo apainduten ibili zan.

1.493ko Urtarrillaren 4an Kolonek, bertako errege Guakanarigaz egonda gero, itsasoratu zan.

1.493an Urtarrillaren 6an Kolonek, mariñel bateri agindu eutson, ontzi-tantai ⁽¹⁾ aundien goiko aldera igon egiela, eta bertatik begitu lurra ia ikusten eban, eta Pinta itsasontzia izan zan urbiltzen ikusi ebana.

(1) Ontzi-tantai = mastil mayor del navio.

Itsasontzi biak alkartuta bare egon zan itsas-bazter baten, Alonso ta Pinzontar Martinek Niña itsasontzira aldatu ondoren, zergaitik taldetik banandu zan bere aitzakiak esanda gero, ikusi ebezanak esan eutsoezan Koloneri.

Eta Kolonek, nai bere barnean asarratuta egon arren, ez eutson Pinzoneri asarrerik egin, onartuta berak esaten eutsozanak. 9an ostera itxasoratu zan, gauza barriak aurkezteko.

1.493an Urtarrillaren 13an ur-kolko zabal bat aurkitu eben, gero “Geziaren⁽¹⁾ Ur-kolkoa” deituko zana, eta egon ziran lekuan lar agirian egon ziralako, Kolonek, beste gera-leku bat aurkitu bear ebela esan eutson Pinzoneri, berak illa onen 17rako itxaroten eban Illetargi ta Eguzkiaren elkarte ikusita, ia Jupiter ta Merkurio elkar-biltzeak zelan geratzen ziran jakiteko, elkarte orreik aurkakoak izanda, aize indartsuak eragiten ebezalako, ta bere ugarterdi onetara edo peninsulako itzulkeran, zelango aizeak eukiko ebazan jakingura ebalako.

Eta beste babes-toki obiagoa billatzen arduratu ziran, bertoko gizakiak oso basati ausartak eta trebeak izan ziralako, aurrekoak billurretan sartzeko eukezan gorputz guztiko margoak, zurezko ezpata zabalak, eta gezi-uztai andi ta gezi meekin⁽²⁾ edozein billurtu leukielako.

Indio oneik itassontzi ta mariñelak ikusi ondoren, laguntzaille ta adikor lez aurkeztu ziran, baiña une baten 8 mariñel eurekin artu-emonak egiten ibili ziranean eta indio orreik mariñelak menperatuko zituzelakoan erasotzen asi ziranean, mariñelak eroaten ebezan zorrotz aundiko ezpatak atara ta euren aurka azi ziranean, baten batzuk zauritu ondoren, burdiñezko ezpata orreri bildur, iges egin eben andik, eta areik izan ziran Ameriketako agerketan, bota ziran leen odol-tantak.

1.943an Urtarrillaren 16an, Urrengo egunean, bakez eta atsegiñezko sari askokin erregea aurkeztu jakien, eta Kolon bere gauzakaz oparitu ta gero, iru gizon eskatu eutsozan euren aurrendari izateko urre-gorria aurkitu arte, baiña ikusita mariñelak zelango gogoak euki ebazan etxeratxeko, aurrera egin eban.

Itzultzeko bidea oso ekaiztsua izan zan eta bildur ziralako, Kolonek mariñelak batuta, txitxirio edo ilar-nabarrekin zozkatu eban⁽³⁾, Guadalupe Ama Birjiñarengana nor juan bost liberako argizai lodi bategaz eskerrak emoten.

Zozketa barri bat egin eben Aita Santuaren Ankonako lurraldeetan dauan Loretoko Santa Maria Ama Birjiñarengana joateko, eta Bilatar Pedrori egokitu jakon, Kolonek esanda, bear eben diru guztia berak emongo eutsela.

Kolonek ekaiztsutasuna ez zalako bakezten billurrez beterik, beste zozketa bat be egin eban, Mogerreko Santa Klararen eleizara gaba oso baten otoizketak egiteko, eta Koloneri egokitu jakon lez, arkonda zuriekaz danak joatea erabagi eben.

Astuna izan bazan etorkerako bidai, geiago gaiztotu eban “Niña” itsasontziak, itsasoak eroan eutsezalako eukezan janari eta lasta⁽⁴⁾ guztiak.

1.493an Otsaillaren 18an, Azoreseko ugarte batera eldu ziran eta arri-last, janari-edariak itsasontzietara igon eta gero, ostera atonduten asi ziran peninsulara itzultzeko.

1.493an Otsaillaren 19an Kolonek, ango baseliza batera bialdu ebazan mariñel erdiak Ama Birjiñari egin eutsoen eskeiñ-itza beteteko, eta Berengana arkondara utzik eta ortozik joan ziranean otoi egiten egon ziral, Kastañedatar kapitaiñaren agindutara egon ziran

(1) Gezi = dardo, flecha. (2) Gezi-uztai = arma arrojadiza. (3) Txitxirio edo ilar-nabarrekin zozkatu = hacer una rifa con garbanzos. (4) Lasta = lastre, arri-last = lastre de piedras.

zaldunezko portuges gudari batzuk, atxilotu ebazan.

Kolon otoiz egitera bialdu ebazan batelekoari itxaroten egoala, susmo txarra barruntatu eban ainbeste denbora zalako joan zirela ta ez ziralako agertzen, eta ugartearen bestaldera joateko asi zanean, batel bat ikusi eban portugezakin etorten zala, eta alkarrizketa gogor baten ostean, Kolon itxasoratu zan.

1.493ko Otsaillaren 20an, Kolonek ikusita beste ekaizte gogor bat etorten zala, itsas zabalera urten eban eta egun 2 geroago Santa Mariaren kaian lurreratu ziran.

Kai onetan egon zirala, ontziska txiki bat aurreratu jakien "Niña" itsasontzira, bertan abade bi, baratari edo agiri-idazle bat ta bost mariñel ekarten ebala, eta onekin be alkarrizketa gogorra eukinda, Kolonek bere izatezko agiri ta Gaztelako erregearen aldetik eroaten ebazan aginduak erakutsi ta gero, dana amaitu zan bakez, portugesak lengo egunean atxilotu ebazan mariñel guztiak askatuta.

1.493an Otsaillaren 24ko domekan aizeketaren ekaitz gogorra zala ta, itsasontzia lastakin, ura ta egurragaz ornitu ezinik ostera itsasoratu egin ziran, 27ko egunean aizeak euren bidetik atarata.

1.493an Epaillaren 3an dana korapillatu zan ostera, denboraldia zakartu egin zalako ezin besterarte, eta Kolonek ostera beren mutillak batuta beste zozketaldi bat egin eban, Ama Birjiñari ostera euren taldetik baten batzuk erromes joan zitezen, edo Uelbako urian egon zan Zingolako Santa Mariaren eleizara erromes bat bialtzeko.

Eta 1.493ko Epaillaren asteleneko 4an Kolonek, Portugalaren aitzazko Zintra Tajoren ibai ondoko ingurua ezagututa bertora joan zan babes billa, eta babestu ondoren Kaskaeseko Urira joan zan, erritar guztiak berari begira egon zirala, aren ekaitz zatarraren erasotik, iñork ez ebalako ulertzen zelan urten eben bizirik, eta Portugaleko erregeari baimenaren mezua bialduta gero, Lisboako itsas-portuan sartu ziran.

1.493an Epaillaren 8an Kolonek, Portugaleko erregearen eskutitz bat artu eban berari ikustera joan egian, eta 9 an joan zan Portugaleko erregearengana.

1.493an Epaillaren 13an Kolonek Lisboatik urten eban eta 15eko arratsaldean Palos'eko portuan egon zan, Alonso ta Pinzontar Martin be egun orretan elduta, bera oso gaixorik egoala.

1.493ko Epaillaren 15ean Rabidako lekaretxean emon ziran Meza Santu ospatsu orreik, bertan, Kolon, Alonso ta Pinzontar Martin, Yanez ta Pinzontar Bizente, eurakaz joan ziran mariñel, ekarri zituzen indioak, urre gorri, bitxiak, eta Indian argiratu ebazan lurrarengaitik Ama Birjiñari ezkerak emonda eskeintzeko.

1.493ko Epaillaren 20an il zan Alonso ta Pinzontar Martin, eta Rabidako lekaretxean illobiratu eben.

1.493an Epaillaren 30ean errege katolikuak Bartzelonatik mezu bat bialdu eutsoen Koloneri zorionduz, Don, Itsaso Zabalaren Amiral, Ugarte aien Jaurlari ta Errege Ordezko izen aundiakin omenduteko euren loba, eta etorriko ziran denboretan Koloneri aleginduten, bidai barriak antolatu egizan.

1.493ko Epaillaren 31n Kolon, Sebillako Urian sartu zan, 10 indiar, urre-gorria ta papagai txori batzuk beragaz eroaten ebazala.

Kolon onen ostean, Bartzelonarantza joan zan, errege katolikuari erakusten andik ekarri ebazan gauzak, eta bidaiaren gora berak adierazpenduteko.

I Isabel erregiña baiña, oso arduratuta egon zan bere Fernando senarragaitik, oraindiño 1.492ko Abenduaren 7an, Fernando erregeak euki eban gaiztokeritik⁽¹⁾ il edo biziko zorian egon zalako.

A ta guzti, errege katolikuak gorteko ospe aundienean artu eban, gitxiri egiten eutsoen neurrian, alde batetik, erregeak zutunik kokatuta Kolonen eginkaritza goraltzeko neurrian artu eutsoelako, eta bigarren, erregeen eskuari mosua emonda gero, oinpeko edo oiñ-alki baten gaiñean kokatu ebanean.

1.493ko Jorraillaren 5ean, Portugaleko erregeak, gaztelaniako erregeakaz itun bidez lur barrien agerketaren gora beran egin ebazan banaketatik, Kolonen agerketa orreik, eurak egin eben elkargo edo itzarmenaren aurkakoak ziralakoan artu eben, eta ordezkari talde bat bialdu eben Gaztelako gortera.

1.493ko Jorraillaren 22an erregeak Bartzelonatik eta Portugaleko erregearen ordezkariak eurengana eldu barik egon zirala, eskutitz bat bialdu eutsoen Portugaleko IIn Juaneri, Kolonen indiaseko agerketaren barriak emoten, eta beragaz, bere menpekoak oartu egiezen, Indiaseko lurraldeak Gaztelako erregetzarenak zirala, eta ara ez ebala zetan iñor bialdu edo ta juan, eskubidez egin bear zan guztia ondo eginda egon zala ta.

Alkazobas'eko ongundearen zortzigarren atalean agertzen da guzti au, mundu onetan egingo ebazan agerketak, euren artean bananduta euki ebazalako, eta 1.481eko "Aeterni Regis"eko bulagaitik berriz baieztuta, mundu erdi onen Kanariaseko lerrotik berantza Portugalena eta Iparralde guztia gaztelarrarena izan zedin erabagita euki ebelako.

Eta guzti au ziurtzeko, begitu zer esaten dauan 371 urte geroago IXn Pio Aita Santuak 1.863an Jorraillaren 24an Kolonen gora beran:

"Cristobal Colòn, inflamado por su celo hacia la Fè Catòlica, resolvió al emprender la màs audaz de las navegaciones, descubrir un Nuevo Mundo, no para añadir nuevos territorios a la soberania de España, sino con el fin de colocar nuevas tierras en el seno del reinado de Cristo, es decir de la Iglesia".

Dan guzti au ote da, espainiarren " El Destino En Lo Universal Del Facineroso Nacional-Katolicismo?".

Jesus'ek bere aolkularitzan, sekula ez ebelako agindu olakorik, eta Jainkoaren berezko lege gaiñetik gitxiago, iñoz ez ebalako irakatsi eta gitxiago alango alderdikeririk eraiki gura, bere izenean sekula ez ebalako gura iñoren menpekotasunik.

Emen argi ikusten da, mundu au katolikotasunean batzagotzeko asmo ori, oso gogorra izan zala.

1.493ko Jorraillaren 29an Bartzelonako Posatar Pedroren irarkintzan irarrita, Kolonek Santanjeleri idatzi eutson eskutitzaren irarpen bakarra, "New York Publik Library"ko gorde lekuan aurkitzen da.

1.493an Loraillaren 3an VIn Alejandro Aita Santuak "Inter coetera"ko "Bulda" argitaratu eban, Kolonek aurkitu eta aurkituko ebazan lurak gaztelarrentzat zirala, Afrikakoak len Portugaleri emon eutsezan lez.

(1) Gaiztakeria = maldad, atentado criminal.

1.493an Lorailaren 4an Aita Santuak "Inter coetera"ko beste bulda bat argitaratu eban, andik aurrera munduan aurkituko ziran lurak, Portugal eta Gaztelaren artean erdibananduta izango zirala, ipar-burutik, ego-bururainoko erdi-aldetik⁽¹⁾ bitan bananduta, ori-urdiñeko lurmutur ta Azoreseko Mendebaletik eun leko'ra inguru, margoztu eben marra zuzenezkoa edo okerra izan bazan be, erabagi barik.

Gero Tordesillaseko alkartean, munduaren eguerdiko lerro edo marra ori bientzat bananduta erabagi zan.

Bulda bi oneik, Sebillan dauan "Indiaseko agirien gorde lekuan" dagoz.

Kontuan euki bear da, VI In Alejandro Aita Santu au, Balentziako lurraldearen Jatibako errian jaio zala, eta Aragoiko Fernando erregearen lurraldeak zirala denbora aietan.

VI In Alejandro edo Borjiatar Rodrigo au, III In Kalixto Aita Santuaren loba izan zan, eta orrek adierazten dau, zelan 1.492ko urtean Alejandro au egin eben Aita Santu, 61 urte bakarrik eukazanean.

Eta albiste au Frantziko gortera eldu zanean, VIII In Karlosek, bere serbitsura egon zan Kolontar Bartolome, Kolontar Kristobalen anaiari deitu eutson albiste barri ori emoteko.

Kolontar Bartolome au, ama bardiña euki arren, ez zan izan bere anai Kristobalen antzera zaldizko gizona, Kristobal izan zalako bakarrik IV In Karlosen semea.

1.493an Lorailaren 14an inguruko egunetan asten dira Kolonen alde eta aurkako eritziak, eta batez be Bartzelonatik Martyr'tar Pedro'k, Borromeori idazten dautson eskutitz bidez: **"algunos dias después un tal Kristobal Colón retornò a las Antipodas Occidentales; es un LIGUR⁽²⁾ que, enviado por mis Reyes, con solo tres barcos penetrò en aquella provincia reputada por fabulosa, volviendo con pruebas palpables, muchas cosas preciosas y en particular oro que aquellas regiones engendran de suyo"**.

Ligur, Italiako Ipar-Ekialdean dagon errialde bat da, Jenobako kolkuaren itsas-bazterretik doana RIBIERAko izenekin, eta Kolon Mallorkaren Felanitx errikoa zan lez, emen asten dira edestian Kolonengaitik esan diran astokeriak, nai bera beren ospean beratzeko, eta bai beren nortasunezko ondorengotasuna zirriborrotuteko.

1.493an Loraillean 20an errege katolikuak Koloneri, Gaztelako errege maillakoak euren armarrietan eroaten ebazan Gaztelako gaztelua, Leoneko leoia ta ugarteak, mairu-arri edo armariaren lauki edo laurden barrutietan eroaten ebalu egin eutsoen, Kolonek beste gauzarik bear ote eban, bera erregearen semea zala esateko ?.

1.493an Lorailaren 23an Koloneri, 1.000 urrezko doblak emon eutsoezan.

1.493an Lorailaren 26an Koloneri baimena emon eta gorte guztiaren laguntzan, berak nai gura eben ostatura lagundu eutsoen, berari laguntzen eutsoen mariñelakaz.

Eta erregeagaz zaldi gaiñean joaten ziranean, erregeak aginduta, Kolon bere albo baten eta ondorengo Juan printzea beste aldean direla joaten ziran, erregezko odola eukiten ebenai bakarrik baimenduta egon zana.

1.493an Lorailaren 28an errege katolikuak Santa Fe'ko itunean Kolonek eskatu ebazan izenburu, eskubide, izen-on, Indiako bigarren itsasotzidiaren orokorrezko kapitaiña izatea, eta bere eskuaren ardurapean itzitako ainbeste gauza ortik aurrera sinatu ziran, eta denbora

(1) Erdi aldetik edo Eguerdilerrotik = linea meridiana. (2) Ligur, ligurino = perteneciente al país Italiano de Liguria en Génova, dandoèste Pedro Martin, una de las primeras informaciones equivocadas, respecto ala procedencia de Cristobal Colon.

gitxian, berak egin ebazan arrigarrizko bidai orreik, Europa guztitik zabaldu ziran.

Eta egun berean erregeak, Kolon, indiazera bigarren bidaia egingo zanaren orokorrezko kapitaiña izendatu eben.

1.493ko Jorrail-Lorraillaren ille onetako gertakisun bidetik argitu egiten dira, Kolon leen: “Zaldizko edo ondo-ikasitako giza-semea zala, errege katolikuak eta euren inguruko gortekoak adierazi egiten eban lez”.

Bigarren: “Kolonen izen berezia (KOLOM) izan zala”.

Irugarren: “Argituta geratzen dala, zergaitik gero beren izena, zelan ald-erazi egin gura eben beren berezko izenetik, Martyr´tar Pedrok, Borromeori idatzi eutsozan eskutitzetatik”.

Eta idatzi oneik izan zirala, Kolonen izen eta jaio tokiak Jenobako artzain gazte baten izenakin nastu ebezanak.

Bai Kolon errege katolikuaren maian egonda, Kolonek lortutakoagaitik bekaizkor ziran gizonak maltzurtasunez, arrigarrizko egikari orrein garrantzi ta ospeak beratzeko, an egon ziranen arteko batek aurreratuta egin eutsozan itanduakaz: “Ia berak sinesten ba eban, beren bidai ori utsegite baten amaitu bazan, beste baten batek al izango zala bidai ori zorionez amaitzeko”.

Kolonek, beren asarrea barruan gordeta eta arrautz bat beren eskuetan artuta, au esan eutsen danari dei eginda, “arrautzea zutunik ipintea lez dala”.

Danak ipini ziran arrautzea zutik ipinten, baiña iñork ezin eben lortu, eta berak arrautzea artuta mutur baten txaka-txaka jota apurtu barik, zutik ipinita, besteak olan egitea erreza zala esan eutsoen, eta Kolonen erantzuna: “erreza zala egiteko gauza ori, baiña zuetatik iñork ez dala ezertarako gogoratu”, eta gauza guztiekaz alan sortzen dala lenengoa agertu arte, esan ondoren, danak ao zabalik itzi ebazan.

Gaztela eta Portugaleko erregen artean be bardin sortu zan, mundu onetan agertutako lur zabalagaitik be asi ziralako eztabaidak; Aita Santua bien artean agintari nagusi lez ezarrita eurak egin eben ongunde bidez, agertzen ziran lurak erdibanatzeko izanda, Portugalek Jorraillaren Sean bere gortekoak Gaztelara bialduta zalaketa bidez bereganatu egin gura ebazalako lur orreik.

Gaztelako erregeak irabazi eutson baiña, egiune aretan Portugaleri Kanariaseko lur-gerri edo eguerdi-lerrotik bealderantza Afrikako lurraldeak bezela egertzen ziranak egokitzen zaiolako bakarrik.

Eta erregearen aurkaldi oneik argitzeko, Aita Santuaren erabagi billa joan ziran.

1.493an Iraillaren Sean Kolonen lenengo ta bigarren ostera bitartean, errege katolikuak Kolontar Kristobaleri idatzi eutsoen eskutitzan esaten eutsoen, beren bidaietan izarlari on bat eroan bear ebala, Martxenatar Antonioren izena emonda.

Erregeak gero Martxenatar Antonio lekaideari idatzi eutsoen eskutitzan, Kolonegaz joanda Indiasetan denboraldi bat egiela aginduz, antolamen on bategaz ango giza-semeak erlijio-katoliko oiñarrietan bideratzeko. Erregeak sinismen aundia euki ebelako Martxenaren erlijiozko sinismen sakon eta eragilletasun garbi ta argiagaz.

Emen gaiñera esan bear da, Kolon Rabidara joan zanetik, franzizkotarrak sekula ez eutsoela babesbarik itzi, bitarte orreitan Martxenaren eskua argi ikusita, bera izan zalako ikerlarien talde guztietatik, Koloneri siñisten eutson gizon bakarra.

Gaztelanian 1.485-1.492ko urte bitarteko agirietan Koloneri beti deitu eutsoen “Colomo”, Portugaleko Pinatar Ruy albistariak “Colombo”, Portugaleko In Juan erregearen Barrostar albistariak “Colom” esaten dautso, eta Fernando erregeak “Colòn”.

Baiña, Kolonen izena edestiaren iragaitzean, batzuetan asmo osoagaz eta beste batzutan naigabeko aldaketak euki ba-zituzen, Granadaren santa Fe'ko erri barrian, eleiztar, errege ta Kolonen artean, bere Mallorkako jaioterri ta Aragoi-Nafartar izatasunak ixiltzeko egin eben ituneko erabagi orren bitartez, Kolonen izatasunezko gaiakin ibilten ziran edestilariak naastuten ziralako izaten zala jakin bear dogu, eta esker aundiak emon Berd ta Martorelltar Gabrieleri, gauzaren berezitasunak alango zeaztasunezko ikerketa lan bikain orrekin euren lekuetan ezarrita, danok zentzu apur-bategaz bizi gindezan, argitzen dabezelako Kolonen izate ta eginkizunak.

Bigarren itsasaldia.

1.493an Iraillaren 24an urten eban Indiazeko bigarren ekitaldia, Kanariaseko ugartetara bideratuta eta Gomerako kaian lenengo geraldia eginda, itxasontziak egurra, ura, txal edo bigantza, auntz, bildotx, zerri-eme ta zerri-ordotzak itxasontziratu eta lur aietan lantdatzeko laranja edo urre-sagar, limoi-ondo edo zitroi-ondo, meloi, barazki edo ta ortuarien aziak artuta, apintzen asi ziran Gomerako kaitik urten eta Burdiñeko ugartera joateko.

1.493ko Urrillaren 13an urten eben Indiasera joateko Burdiñeko ugartetik itsas zabalera.

1.493ko Azaroaren 3an agertu jakien ugarte aundi bat, Kolonek Domekea izateagaitik Dominika izendu ebena, ta berton ez ebalako babes-lekurik euki aingurak⁽¹⁾ botateko, ugarte oneri, euren itxasontzi kapitaiñak euken izena “Marigalante” ipini ondoren, aurrera joan ziran beste ugarte bat aurkitu arte.

Urrengo aurkitu eben ugarteari “Guadalupe” izena ipini ondoren, Kolonek itxaron egin bear izan eban, berak bialdutako Markez'tar Diego itxasontzi baten kapitaiña, galdu egin zalako ugarte orren basartean, eta agertu zanean kapitaiñ onen kondairan: “aurkitu ebazan leiñuen janari bitartez, giza-jaleak ziralta esan eban”, ta eurengandik andrazko batzuk askatu ondoren, aurkitu ebazan “anana” edo lur-beroaren aldeko “piña” ta beste ale-mota batzuk be ekarri ebazan.

Kolon, Dominikako ugartetatik, obo-erdi edo biribil-erdi baten antzera egon ziran ugartetik ugartera ibili zan, Dominika edo espainolaren ugartera osterata eldu arte.

Guadaluperen izena ipini eutson ugartearen ostetik, ta Bartzelonako Montserrat'tar Santa Mariaren izena ipinitako ugarteari, urrengoari Antziñako Santa Mariaren izena ipini eutson Sebillako Eleiz-Nagusiaren oroimenez, Kolon ta taldekideak berton otoi egiten ebalako Indiasera urten aurretik, eta bertan eraikiko eben gero jaun-obi eder bat, Kolonen gorputza illobiratzeko.

Antziñako Santa Maria eta Puerto Rikoren bitarteko ugarteari ipini eutsezan izenak: San Martin, San Kristobal, San Jorje, San Bartolome, Santo Tomas, San Anastasio, Santa Kruz, Graciosa, eta Amaika Milla Neska-Garbi edo Birjiñarenak izan ziran.

1.493an Azaroaren 19an odolezko eztabaida batzuk eukinda bertokoakin, gaur “Puerto

(1) Aingura edo arbak = anclas.

Rico” lez ezagutu egiten dan Bateatzaille San Juanen ugartera eldu ziran, eta uragaz, ta bear eben janariakaz ondo ornitu ondoren, 22an urten eben Dominika edo espainolaren ugarterantza, eta bertora elduta, itxasontziak aurrera egin eben Gabonetako Urira⁽¹⁾ eldu arte.

1.493an azaroaren 27an eldu ziran “Gabonetako Urira” eta itxasontzitik urten barik aurrera joateko itxaropenean egon ziralako, Gauakanagari deritson ugarteko erregearen loba bat beste bertoko batzuekin urreratu jakiezan ongi etorriak emoten, eta bien bitartez esan, Guakanagari erregea zaurituta egon zala beste ugarteko Kaonabo ta Mayreni jauntxoaren aurka egin eban borrokan, eta zaurituak ta il batzuek euki arren, bakez eta ondo aurkitzen ziralan egon ziranak.

Itxasontzien aingura edo arba urperatuta, lonbardazko tiro batzuek bota ebezan erantzuna artzeko, eta iñork ez ebalako erantzunik emoten, Kolonek, txalupa bat bialdu eban, an zer gertatzen zan jakiteko, eta ez eben aurkitu besterik, erretako ondarrak baiño.

Eurak ango triskantza ikusten egon ziran bitartean, bertoko batzuek zuaitzen ostetatik ostonduka ibiltzen ziralan ikusi ebezan, eta eurengana joanda jakin eben, zelan eurak jua zirenean, berton geratu ziranen artean borrokan asita, batzuek il ziralan, beste batzuek euren kontura urre gorriaren billa joan ziralan, eta geroago Diego kapitaiñak nai bere laguntza euki arren, Kaonabo beste ugarteko jauntxoaren erasoari eutsi-ezinik il zala, eta ondore erre ebela ia ugarte guztia.

Kolonek, ondamenezko triskantza au ikusi ondoren, beste erri bat eraikitzea agindu eban, Dominika edo espainolaren ugarteko ipar-ekialdean I Isabelen omenez, eta egin eben erri oso ori, arri-landuakaz egitea agindu eban.

Kolonek ugarte aretan zer egon zan jakiteko, Ojedatar Alonso bialdu eban beste amabost lagunekin izkilluakaz ondo tresnatuta, ia zer aurkitzen eban ugarteko barruetatik, eta erreka baster batera eldu ziranen arri-koskorren antzera, urre-gorri asko aurkitu eban lez, bereala asmatu eben urbillean garrantzi aundiko miak aurkituko ebezala, eta meaztegi orreik billaka asita aurkitu ezinean, 15 egun barru, osteran itzuli ziran Kolonengana, urrezko barri areik emonaz.

1.494ko Otsaillaren 2an Kolonek, 12 itxasontzi bialdu ebazan peninsula onetara Torrestar Antonioren agindutara, erregearentzako oar-idazti batekin, eta erregeari adierazi an aurkitu zituzten urre-gorritzko arri koskorren meaztegiak aurkitzeko egingo ebezanak, eta zelango antolaketak egingo ebazan babestuta egoteko ango azterkuntzak egiten egon ziran bitartean.

Eta emen nun agertzen dan berez, Kolonek erregeakaz euki eban senidetasuna, idatzi ebazan lenengo lerroetan: “encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores naturales” esaten dabenean, askeneko iru berba oietan esaten dabelako, zelango senidetasuna euki eben Aragoi eta Gaztelako errege-erregiñak Lur Gorri edo Terra Rubrako Kolon Amiralarekin.

Kolonek emendik aurrera eztabaida gogorak eukingo zituzten, agindupean euki ebazan batzuen bekaizkeri bitartez, ta ori kontuan artuta bera ugartetatik gudari talde gogor bategaz joan zanean azterkari, bere anai Don Diego agindupean itzi eban Isabelaren erria.

1.494ko Epaillaren 12an urten eban Kolonek bere gudari taldeagaz azterkari, eta ibar aberats bateri “Vega Real”en izena ipini ondoren, Zibao mendi katera joan ziran azterka, eta

(1) Gabonetako Urira = Villa de la Navidad.

urre gorriaren ainbat agerpide ikusita, erreka inguru baten gaztelu bat eraikitea agindu eban, gero Santo Tomasen izena ipini eutsonai, eta 50 gudari Margaritetar Pedroren agindupean ipini ondoren, eurak Epaillako 29an Isabelaren errira ugartera joan ziran.

1.494an Epaillaren 19an Kolonek Kubara elduta, len berak Alfa ta Omegako izenakaz deitutako lur muturrera joan zan, eta ugartetik ugartera ibili zanean, Kolonek itxasontzian eroandako indio batek, an inguruan urre gorri asko eukiten eban Jaimaika deitzen zan ugarte bat egoala esan eutson. Berri ori emon eutson indio orrek, Kolontar Diegoren izena ipinita euki eban.

1.494an Jorraillaren 24an Kolonek itsasora urten eban iru itxasontzirekin, Isabela ugarte bere anai Diego, Boiltar Bernardo, Ernandeztar Pedro, Koronel, Santzez ta Karbajaltar Alonso, eta Juan de Luxanen agindutara itzi ondoren, Kubarantza joan zan, ia Kan Aundia aurkitzen eban.

Emen sukar gaitzaldiekin ainbat gizon il jakiezan.

1.494an Loraillaren 3an Kolonek Jamaikako ugartera joateko bidea artuta, eta Loraillaren 13an eldu zanean bertokoakin eztabaida batzuk eukinda, ostera joan zan Kubarantza, bidean 14ko egunean eltzen egon zanean ugartedi eder bat aurkituta, "Erregiñaren Lorategi edo Baratza" deitu eutson ugartedi oneri, eta 164 ugarteraiño zenbakitu ebazan Kolonek Guakanayaboko kolkoaren bazter areitan.

Bertokoak Amonaren⁽¹⁾ izenagaz deitzen eutsoen ugarte parean egon ziranean, Kolon oso gaisorik geratu zan, eta ainbat egunetan egon zan il-bizian konorte barik.

1.494an Bagillaren 7an Portugal eta Gaztelako eztabaidak bakezteko, Tordesillaseko itunean erabagi zan munduaren goiko ta beko aldeak bien jabetasunerako eguerdi-lerrotik⁽²⁾ banatzea, Aita Santuaren Buldari jaramon egin barik.

1.494ean Iraillaren 29an Kolon gaisorik egoala eta Kolonen urrengo agintariak bideratuz, bost illabete barru eldu ziran Isabela ugartera, eta bertan euki eben Kolontar Bartolome, Kristobalen anaia itxaroten.

Kolontar Kristobal osatu zanean, bere anai Bartolome agintaritzan sendotzeko, jaurleri ta gudalozteko agintari nagusia izendatu eban, bere agindupekoen artean ez ebena ontzat artu, eta gitxiago errege katolikuak, euren ardurazkoa izan zalako ordezeko agindu orrein izenak ipinitea.

Kolontar Diegorentzat be gaiztotu egin ziran egoerak, bere agindupeko Margaritetar Pedro eta beste batzuk Boiltar Bernardo lekaideagaz, matxinatu egin ziralako, eta lortu be, Bartolometar Kolonek eroan ebazan iru itxasontziakaz peninsularantza alde egitea, an euren artean sortzen ziranak errege katolikuari esateko.

1.494ko Urrillan Torrestar Antonio eldu zan indiaseko ugarteetara, Koloneri errege katolikuaren agiri bat emonda, Koloneri oarreraozen, erregeak zelan jakin eben an gertatzen ziranak, eta bai 1.494ko Bagillaren 7an Tordesillazen Potugaleko erregeakin alkartuta artu ziran erabagi bidetik, zelan 370 leko ori-urdiñeko lur muturraren mendebaletik, mugatuta geratzen zirala Gaztela ta Portugaleko jabetzak, Kolonen agindupeko nagusiari oartuz, on artu egiezala Kolonek euren izenean agintzen eutsoen guztiagaz.

1.495eko Epaillaren 24an Kolontar kristobal ta bere anai Bartolomek 200 oiñezko gudari,

(1) Bertoko jendeak Amonaren izenagaz deitzen eutsoen ugarte orreri, eta kristauak MONA. (2) Eguerdi-lerrotik = linea meridional del globo.

20 zaldunezkoak, eta erasorako erakutzita 20 txakurrekin urten eben Isabelatik, Kaonabo indiar jauntxoak, eurei ango ugarteetatik botateko antolatzen egoanari, aurka egiteko.

Eta Ojedatar Alonso izan zan Kaonabo erregea arrapau egin ebana, bere almenean euki ebazan maltzurkeri guztiekaz.

1.495eko Urrillan, errege katolikoaren aginduz, Aguadotar Juan eldu zan Isabelaren ugartera Kolon aipatu barik, eta Kolonek jakin ebenean bera ikustera joanda, Aguadotar Juan onek, erregeak jakinean egon zirala an gertatzen ziran gauzakaz adierazi eutson, eta ez zirala erregeak pozik egon berak egiten ebazanakaz esan ondoren, au izan zan lenengo estu-aldia errege ta Kolonen artean.

Kolonek ez eban bitan oldoztu zer egin bear ebena, eta bereala asi zan etorteko bidai bat antolatzen, erregeakaz egoteko.

Baiña itxasontziratzeke egon zanean, aizetzar edo aizebeltz zakar bat agertuta, ugarte guztia ondatuz gain, kaian egon ziran lau itxasontziak urperatu egin ebazan.

Ugarte orretan itxasontzi barik agertuz, Kolonek karabela bi egitea agindu eban, eta bere anai Bartolomeri, Isabelako erria bertan itzita, ugarteko leku ezberdiñetan gazteluak eraiki egiazala agindu eutson.

Kolonek, espainolaren ugartetik urteteko egon zanean, bere anai Bartolome itzi eban ango orokorrezko jaun nagusi lez, eta Kolontar Diego, Bartolomeen ordezkioak, bere morroi izan zan Roldantar Frazizko, Isabelako alkate nagusi lez ipini eban.

1.496ko Epailaren 10ean urten eben Dominika edo espainolako ugartetik karabela biak, Kolon batean eta Aguadotar Juan bestearen aginduan, guztiz 225 gaztelar eta 30 indiar eroaten ebazan, eta onen artean ainbat gaiso eta an gertatzen zanakaz pozik ez ziranak egon erregeari idatzita, auek baimena emon ondoren, euren etxera joaten ziranak egon ziran, eta itxasontzien agintariak ontzi-zama edo ontzikada orregaz bide zuzena artu barik, antillaseko ugarte txikerretara artu eben bidea, Marigalante ugartera joateko.

Aizearen ezagaitik, ia illabete baten luzatu jakien, denbora gitxian egin bear eben lenengo geraldori, Jorrailaren 10ean Guadalupeko ugartera elduta.

1.496ean Jorrailaren 20an indiar emearen aldetik larritasunezko eraso gogor ta egoeraren estu alditik urtenda, ura ta bear ebezanak itxasontzietara igon da gero, ostera itsasoratu ziran peninsula onetara etorteko.

1.496ko Bagillaren 11n eldu ziran Kadizeko kaiara iru illabetetan itsasotik ibili ondoren "Niña ta India" karabela orreik, mariñel geienak, buba, lotseri edo andramin gaitzaldiakaz gaisotuta.

Kolon, Kadizeko kaiara eldu zanean, beste irten-aldi bat egon zan kaitik urteteko, abelburu batzuk eta indiasetan eurentzat bear ebenagaz itxasontzietara igoten, janariagaz ondo ornituta joateko, eta Kolonek aukera onegaz baliatuta, bere anai Bartolomeri agindu batzuk bialdueutsozan.

Ontzidi talde ori urten ebenean, Kolon Sebillara joan zan frantzizkano jantzita, ta beragaz indiar batzuk, papagai poli ta ederrak, bero-aldeko zitu, ale edo igali batzuk, urre-gorria, eta Kaonabo erregearen anaia Don Diegoren izenagaz bateatu ebena, buruan lumak eta sama edo ta lepo-gibelean urre-gorritzko lepokoa, 600 gaztelarreko astuntasuna euki ebana⁽¹⁾.

(1) Gaztelarrak = castellano, o moneda antigua de oro, que equivalia a la cincuentaava parte del marco de oro.

Denboraldi bat itxaron bear izan eban Kolonek erregeak artu egian, onek euren seme Juan Austriako Margaritagaz eta Juana Austriako Felipegaz ezkontzeko lanpetuta egon ziralako.

Erregeak eskutitz bat bialdu eutson Koloneri, Burgoserantza joan zedin, erregeñak an artuko ebalá esaten ebanak.

1.496ko Dagonillaren 8an Koloneri, Burgoseko urian egon zala, eskerroneko eskutitz bat bialdu eutson I Isabel erregeñak, erregeak guztiz arduatuta egon ziranean Flandesetik etorten zan ontzidia Austriako Margarita printzeagaz itsasketa zakar baten erdian atrapauta geratu ziranean.

-Kolonek larritasun andiko estutasunetan sartuta egon zala ontzidi ori jakin ebanean, beren izeko-osaba erregearen nekagirotá larritasunagaz oartu ta arduratuta, argibideko paper bat erregeari bialtzea erabagi eban, zer gertatuko zan eta zelan egingo eben ontzidi orren itxasontziak etorkerako bidai ori esaten.

-Eta itxasontzi orreik ezer gertatu barik, euren kaira eldu ziranean, I Isabel erregeñak, eskerronekua agertu zan Kolon bere lobagaz, "Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko Bigarren errege ta gizon jakintsua" deitu eutsonean, idatzi eutson eskutitzan.

Emen, gero ta argiago agertzen da Kristobal eta erregearen senidetasuna, Kolonen aldetik bigarren bidaia egin ebanean eta erregeari oar-idatzi bat bialdu eutsoenean, Torres tar Antoniori esanda: "*me encomendareis en Sus Altezas como a Rey e Reina mis Señores naturales*" eta erregeñak "*Itsas Zabalaren Nere Amirala eta Indiaseko Bigarren errege ta gizon jakintsua deitu eutsoenean.*"

1.497ko Jorraillaren 23an Juan, errege katolikuaren semea, Austriako Margaritagaz ezkondu ondoren eta egun batzuk barru, erregeak Koloneri baieztu eutsoezan Santa Fe'ko ongundean izenpetu eutsoezan izendatuko eskubide guztiak, bai eta eskubide guzti orreik bere sendian, ondorengotasunezko etxaguntzan iraun egiazan.

Errege katolikuak geiago be emon eutsoen Koloneri, 1.495ean berak eskatu ebanean bidai-aldi bakotzetik zortzirena ordaintzea, ararte ordainduta emon ziranak, irabaziak baiño askoz geiago izanda parkatu egin eutsoelako, eta bai bere anai Bartolome, indiar ontzidiaren agintari nagusia izendatu ebenagaz.

Gertakizun onen ostean, osterá asi zan irugarren bidaia antolatzen.

Arazo askokin aurkitu zan Kolon bidai onen bear bearrezko antolakuntzak beteteko, erregeak leen Frantziagaz gudan egonda eta Juan semea ta beste alaba Juanaren ezkontzakaz diru barik geratu ziralako, leen.

Bigarren, gorteko nagusien bekaizkeri zitalak zalantzan ipinten ebelako berak egiten eban guztia.

Eta irugarren, emen agertuko diranakaz, ia urte bi bear izan ebelako antolakuntza orreik amaitzeko.

1.497ko Urrillaren 4an 19 urte eukazala il zan Juan errege katolikuaren semea.

1.498an Otsaillaren 18an, I Isabel erregeñ katolikuak, Kolonen seme Diego ta Fernando artu ebazan bere serbitzura, bakotzari 9.700 maraurien lan-sarituagaz.

Irugarren itsasaldia.

1.498ko Lorailaren 30ean Kolonek bere bost itxasontzi bardiñ antzeokakaz, 100 tonako itxasontzi aundi bat, 200 gizon eta mariñelekin urten eban Barramedako Sanlukarretik, Bagillaren 7an Porto Santorara elduta, aldikada baten bere emazte Moniztar Filipagaz bizi zan lekua zana, ta andik iru egun barru Madeirako ugartera, eta emen sei egunetan ura ta bear zirenak itxasontzietara igonda, Bagilaren 16an Madeiratik urtenda, kanariaseko ugartedirantza joan ziran eta Bagillaren 19an Gomerako ugartera eldu ziran.

Kolon, Gomerako inguruan egon zanean, kaian itxasontzi frantzez bat egoala oartu zan, eta jakinda Gaztelako itxasontzi batzuk baitu ebazala, bere atzean joanda askatu ebazan eroaten ebazan gaztelar mariñel guztiak.

1.498an Bagillaren 21ean Kolonek indiasetara joateko asmoan, Gomeratik urten orduko, erdibitu egin eban ontzidia, iru itxasontzi espainolako ugartera bialtzeko, bere anai Bartolomeri, eroaten eutsezan janarizko ta bear ebazan orni-aldiak emoteko.

Onen iru itxasontziko baten agindua, Aranatar Pedrok euki eban, Kolonen Fernando bigarren semearen ama Enrikeztar Beatrizen neba zanak.

Kolonek bere beste iru itxasontziekin egoalderantza urtenda, ori-urdiñeko lur muturraren ugartedirantza bideratu zan, mundu onen lur-gerriko lerroa aurkitzen, gero mendebalerantza joateko, Dominikako ugarte iparraldean geratu arte, lur aiek bertoko indioaren gora beran, oraiñarte ezagutuak baiño askoz aberatsagoak ziralako.

1.498ko Bagillaren 23an gaztelarren gorteko agirietan, Kolonegaz sekula ez zerala Jenoba izen ondokorik⁽¹⁾ erabili, agiri orreik begitutea baiño ez dago, danetan “arrotza”ren izen ondokoagaz agertzen diralako.

Gaztelako gortearen agiriak, beti joaten ziralako bakotzaren aberriari deritson izen-ezagun bereziakaz: “veneciano, florentino, genovès, frances, catalàn” eta abar.

Eta onen argibidea erakusteko ez dago besterik, Gonzalez eta Pueblatar Ruyk Londreseko errege katolikuaren ordezkariak, Kabot´tar Juanen bidaldia aipatuz, aurei bialtzen eutson eskutitza begitutea baiño: “Inglaterrako erregeak, bost guda-ontzi bialdu dabezala Kolon bezelako beste jenobes baten agindutara, Brasilgo ugarte ta bere beste bost uri nagusiak aurkezteko”.

Erregearen erantzunean: “Esaten dozunagaitik, ara, Kolon bezelako bat bialdu dabela Ingalaterrako erregea indiaseko beste irabazpide antzeko baten ipinteko”.

Errege katolikuaren ordariak esaten dau: “Kolon bezelako beste jenobes bat bialdu dabela”

Eta errege katolikuaren erantzunean: “Kolon bezelako bat bialdu dabela” esanda, jenobeseko itza desagertzen da, eta agirizko idatz oneik erakusten dabe, Kolon, zelan ez zala jenobako semea.

Gauza guzti oneik ikusita, badauka garrantzi aundia bai, Kolonen izenak euki dabezan aldakuntzak.

1.498an Bagillaren 27an eldu ziran ori-urdiñeko lur muturrera, eta Portugaleko legendun edo legenartsuak⁽²⁾ osatuten joaten ziran Buenabistako ugartean egun batzuk egin ondoren, ugartedi eretan egon zan Santiago ugarte aundienera joan ziran.

1.498ko Uztaillaren 1ean portugez eta morroi-baltz asko egon ziran Santiago ugartera

(1) Izen-ondokorik = adjetivo. (2) Legendun edo ta legenartsuak = leprosos.

eldu ziran, eta Saarako ekaiztsu aizeak areagaz naastu egiten ebazalako artu bear ebezan gauzak, 5ean geiago ezinean urten bear izan eben ego-mendebalerantza, ia urre gorri asko eukiten ebazan ugarteak aurkitzen ebazan.

1.498an Uztaillaren 13an, aizea guztiz geratu jakien eta itsasoaren bare-aldi edo aize-il bateko egoeran sartuta, laba baten egon ba ziran lez aurkeztu ziran, itxasontziren bike-koipeak⁽¹⁾ urtu egiten zirala, gatza emondako okelak usteldu, garie laban egon bazan lez erre edo baltzituta agertu, ura ta ardoaren upelak lotzeko burdiñezko ustaiak askatu edo ta lasaitu egiten zirala ta ainbat zoritxarrakin egon ziran, zortzi egun luzeetan.

1.498an Uztaillaren 22an, euria botaten asi eta agertu zan eki-aldeko aizeagaz, ostera itsasketa onera aldatu ziran, eta itsaskuntza onen aldia Kolonek luzatu egin ebalako, ia ezer jateko barik eta uraren upel bat bakarrik euki ebela, Uztaillaren 31n eldu ziran ugarte barri batera, legorreatuta⁽²⁾ gero Kolonek Trinidad'eko izena ipini eutsona.

1.498ko Uztaillaren 31n astearteko eguerdian Kolonek bideratzen eban itxasontziaren mariñel batek trapa⁽³⁾ igonda, iru mendi andi ikusi ebazan, eta Kolonek bere sinismen sakonean, agertzen zan urrengo ugarteari Irukoitz Deunaren⁽⁴⁾ izena ipiniko eutsola esan eban lez, izen ori ipini eutson.

Kolon bidai onetan, ezueri edo ezuri⁽⁵⁾ gaitzaldiagaz gaisotu zan.

1.498an Dagonillaren 1ean Kolon bere itxasontziaren ontzi-gibel edo atze-aldean egonda, lur barri batzuk ikusi ebazan, eta berak ez ebalako jakin lur aiek lur-nagusiaren lurak izan zirala, Isla Santa eta Isla de Gracia'ren izenak ipini eutsoezan.

Kolonek ainbat denbora itsas-bazterretik ibilita "el Arenal" deitu eutson lur-mutur baten ingurutik urbil, aurkitu eben kai eder bateri, ta bertan geratu ziran itxasontziak konpondu ta bear ebezan urak itxasontzietara igotzeko.

Lan onetan egon zirala, txalupa bat agertu jakien ekialdetik, bertoko itxura on eta euren gezi-uztaiekaz armatuta 24gizon gazte, ararte ikusi ebazan indiar baiño apurbat zuriagoak zirenak, buruetan margo ezberdiñeko zapi bat batuta eukezala, eta aitu ezinean, urrunetik euren uztaiakin geziak botaten asi jakiezan, euren erantzun labur bategaz laster amaitu zana, Kolonek aurrera eginda.

1.498ko Dagonil onetan ura eta bear ebenagaz ondo ornituta Kolonek, ur-gezako inguru areitan, Irukoitz-Deunaren ugarte ta Benezuelako itsas-bazterreko erditik Pariako itsas-kolkora urtenda, bertokoak Paria esaten eutsezanai, eta Kolonek Graziaren izena ipini eutso lurretara joan ziran.

Eta Emen kontuatu zan Kolon, itsaso artan arek ur-geza zabalak egoteko, erreka aundien urak izan bear zirela, eta lojikaz lur zabal ta aundien urak izan bear zirela.

1.498an Dagonillaren 11n Kolonek, inguru aietatik ainbat ibili ta gero espinolarantza bideratu zan, bere anai Bartolomegaz egoteko.

Pariako ur-kolkotik urtenda eta Benezuelako itsas-bazterretik joanda, Esparta-Barriaren karibe itsas-bazter aldeko Ekialdean, kotxe-ugarte, Kubagua ugarte, ta an egon ziran ugarteari Fernandina, Juana, Isabela eta beste izen batzuk ipini ondoren, bere ama "Margalida"ren izena ipini eutson 920 Km. karratuak eukazan ugarte bateri.

(1) Bike-koipea = breca de calafate, o breca con estopa, con la que se calafatean o cierran las juntas de los barcos para que no entre el agua. (2) Legorreatu = atracar. (3) Trapa = meseta colocada horizontalmente en el cuello de un palo o mastil del barco. (4) Irukoitz-Deuna = Santísima Trinidad, o Trinidad. (5) Ezueri edo ezuri gaisoa = enfermedad de gota.

Gauza bi dira Margalida Kolonen ama izan zalako, ugarte orreri Margaritaren izena ipini eutsoela, Iribarnetar Manuelek "El Principe de Viana (un destino frustrado) 233ko orrialdian" esaten dauelako zelan IVn Karlos Mallorkan egon zanean Margaritagaz egon zala maite minduta eta aurdun geratu zala.

Bigarren gauza, De La Kosa'tar Juanek 1.500'eko urtean Santa Mariako kaian marreztu eban itsas-askutitzan, zeaztu ebazan Mallorkinezko izen artean, Margalidaren izena agertzen dalako, Madrillen itxasoko erakus tokian dagoena.

Eta Pariako itsas-kolku onetan, Orinoko errekek itsasoaren barrurantz 40 leko baiño geiagotan, ur-gezakin itsasoko urak gezatu egiten dabela oartuta, Kolonek erreka orren barrurantz esaten eutsen errege katolikoari egoala "parabisu edo atsegintasunezko baratza", eurei idatzi eutsen ondo eskutitz luze onetan.

1.498ko Dagonillaren 23an errege katolikuaren alaba Isabel, Portugaleko erregiña il zan, bere seme Migel euki ta ordu batera.

1.498an Dagonillaren 31n Kolonek, oraindiño ezagutzen ez eban Santo Domingoko kaian legorreratu zan.

Baiña kaian sartu orduko bere anai Bartolomek, txalupa bategaz bidera urtenda adierazi eutson, zelan Santo Domingoko uria eraikitzea agindu ebenean, bera Xaraguako ugartera joan bear izan ebalu, berton Beetxio erregea eta bere arreba Kaonaboren alarguna aurkitzen ziralako, eta itanduten joan zalako eurei ipini eutsoezan urre-gorria eta algodoizko zergaren ordaintzagaitik, zelan ordaintzen ebezan algodoiena bakarrik, eurak, urre-gorririk ez zalako egon erantzunda.

-Eta bere aldegitte bitarte orreitan sortu ziralu mantxintasun ugari, eta bai zelango egoeran aurkitzen ziran une orreitan, Santo Domingo ugarteko uria ta beste ugarteetan eraiki ebazan uriak, bai zenbat urre-gorri ta algodi batzen ebazan zerga lez ugarte guztietatik esan eutson Kolontar Kristobaleri.

-Dana dala, Kolontar Kristobal Dominika edo espainolaren ugartetik kanpo egon zan bitartean, gauza asko sortu ziran eta geienak txarrak, ango nagusiak ia beti matxinatuta egon ziralako Kolontarren aurka, bitartean zukarrak, andramiñezko gaisotasunak, gosea, bertoko jendearen erasoakaz, Kolonen anaia Bartolomek bere agintaritzan lar gogorra izan zalako aitzakiakaz eta abar. Kolonek oso naastuta aurkitu ebazan an bizi ziranaren ardurazko jarduketak.

1.498ko Iraillaren 22an, Aragoiko gorteak artu eben Fernando ta I Isabel katolikuaren alaba, Isabel Portugaleko erregiña zanaren semea Migel erregetzaren ondorengo lez, eta 1.499ko Urtarrillan Gaztelako gorteak.

1.498an Urrillaren 25ean eskutitz bat idatzi eutson Kolonek asarre matxinatu zale zan Roldantar Franzizkori, Bartolome bere anaiaren aurka egin ebazan ezbearreko gauzak egin ebazalako, eta barkamena be eukala, berak errege ta beren agindutara ostera agertzen bazan, izkillatutako erabagi gogor bat artu barik.

Roldatar Franzizko onek, bere matxinatuekin berba egin ondoren, auek ez eben gura ango morroiekaz eroaten eben jauntxo bizitza ezergaitik itzi, eta Kolonek beste amarrukerizko gauza batzuk antolatzen asi zan.

Gauza guzti onen ondorioz eztabaida asko sortu ziralako, bere izeko-osaba errege-katolikoari idaztea erabagi eban Kolonek, Dominika edo espainolako ugartean sortzen zan guztiakaz, eta bide batez aolkulari bat bialdu egiela jaurkintza arloetan berari laguntzeko, eta euren ustez gitxi bazan berak eskatzen ebana, bere seme Diego be bialdu egiela, eurai bertotik serbitzeko.

Eta 1.498ko Urrillaren illa erdian peninsulara bialdu ebazan erregentzako bost ontziak ango mozkin eta barri askogaz Sebillara elduta, Ojedatar Alonso sortu zan berton egotea, eta au arduratuta indiasetik agertu ziran barriakaz, Fonsekatar Juan gotzaiña, Kolonen etsai aundiena izan zanarengana joan zan, bere buruz lur aietara joateko baimenaren eske.

Fonsekak, baimena emon eutson Ojedari bidai ori bete egian bere buruz, baiña baldintza onegaz, errege katolikoaren ordezkioak euki ebazan legeak "lotsean artuta".

Eta talde barri au osotzen eben Ojedatar Alonso, De la Kosatar Juan eta Bepuziotar Ameriko, bereala asi ziran Santa Mariako kaian antolatzen bear eben ontzidia Indiaserantza joateko.

1.499an Lorailren 18an Ojedatar Alonso, De la Kosatar Juan ta Bepuziotar Amerikoren lau itxasontziak Kadizeko kaitik urtenda, Kanariaseko ugartetara urten eben, eta Gomeratik, Kolonek irugarren bidaiaren egin eben bidai bardiña egin eben auek be. Baleiteke Kolonek beste itsas-alditan margoztutako itsas-mapa bat eroaten ebelako izatea.

Ojedatar Alonsok, Orinokoren ekialdetik 200 lekora eldu zan lekutik asi zan ikertzen Ameriketako lur bazter edo izparterrak, eta gaur frantzezen Guayana deritsonetik talde bitan banandu zan ontzidia, Ojeda ta De la Kosatar Juanek, Kolonek agertu ebazan lurretara joanda, eta Bepuziotar Ameriko egoalderantza, Kattigara ko lur-muturra ia aurkitzen eban, Ptolomeok 9º egoaldeko zabaltasunerantza egon zala esaten ebalako.

Ojeda ta De la Kosatar Juanek, Trinidad ugartetik aldatuta, Pariako itsas-kolkoa aldatu ziran Eren-Sugearen Agora⁽¹⁾ elduteko, eta ortik Margaritaren ugartetik bitxi edo txirlarien itsas bazterrak ikusi ondoren, lau itxasontziak alkartuta, Kurazao eta Kokibako itsas-kolkora joan ziran, Bepuziotar Amerikok Benezuelako kolkoa deitu eutsonai, eta Ojedatar Alonso ta De la Kosatar Juanek kolkoaren barnean Marakaiboko aintzira⁽²⁾ aurkituta San Bartolome izena ipini eutsoen.

1.499ko Dagonillaren 30ean Ojedatar Alonso eta De la Kosatar Juanek, gauza guzti oneik aurkituta, eta naita Fonseka gotzaiñak, ipini eutson baldintza bakarrean debekatuta euki, espainola ugarterantza joan zan, bere atzetik Bepuziotar Ameriko Amazonas ibaia aurkitu ondoren euren billa joanda.

Arrituta geratu zan Kolon, jakin ebanean Ojedatar Alonso, De la Kosa tar Juan eta Bepuziotar Ameriko, Jakynoren itsas-bazterreko kaian lurreratu zirala, eta bidai ori egiteko zer gertatu zan jakin gurean egonda, bai ta zertan jua ziran berari ezer esan-bage jakiteko, Roldantar Franzizko bialdu eban eurakaz egoteko.

1.499an Iraillaren 29an eldu zan Roldantar Franzizko guda-talde gogor bategaz, espainola ugarteko mendebalean Yakinoren kaian Ojeda ta besteak kokatuta egon ziran lekura.

Ojedatar Alonsok, guzur aundia esan eutson Roldaneri, bera Kolon ikusteko itxaropenean

(1) Eren-sugearen Agora = boca del dragon. (2) Idoi edo Aintzira = pantano, lago pequeño.

egoala esan eutsonean, gogo ori urriñetik be ez ebalako euki, eta Roldanetik aske geratu zanean, Xaraguako ugartera joan zan, angoko espainar jendea Kolonen aurka matxinatzeko asmoan.

Batzuk alde eta beste batzuk aurka egon ziralako, borrokan asi ziran euren artean, Roldan bera joan bear izanda matxinatu aiek bakezteko.

Eta Ojedatar Alonso jakinda, Roldantar Franzizko zelakoa zan bere aurka joan ezketiño, peninsulara itzultzea erabagi eban eta 1.500ean Bagillako illerdian eldu zan Kadizeko kaira, itxasontzia yopu biurtu⁽¹⁾ ebazan ugarteetako indiar jendeagaz beterik.

Ojedatar Alonso andik alde egin ebanean, espainolako kolonitarrak Koloneri eskatuta, bertoko jendea euren serbitzura eukitea lortuta guzientzakotu egin zalako, *banatzailletasuna* edo "*magalpea*⁽²⁾" deitu jakon, bertoko jendearen menperatze orreri.

Baiña Kolon ez zalako ergela eta gitxiako oilo edo koldar bat, Fonsekatar Juan gotzaiñak Ojedari emon eutson askatasuneko baimenagaz asi zan gogora ekarten, gertakizun aiek zer esan gura eben ausnartzeko, eta bereala konturatu zan bere lilluramena⁽³⁾ berantza joan zala, Fonseka eta Ojeda jendelakoak indar ta bestearenagaitik bekaizkeri asko euki ebelako, bere ospea ain goialdeko maillan eten barik iraun egian.

Kolon bere oldozmenean ez eban arrazoizko zalantzarik euki, indiasetara joan etorriko talde bakoitzaren mariñelak, bitartekotasunik edo alkar-adituak euki edo euki ez arren, ango agintarien aurka negartsu edo marmarika agertzen ziralako geienak, ta gauza orreik bertoko jendearen bekaizkeriko irudimenakin maltzurtasunezko almenagaz zabalduta, Fernando katolikuak ez eban euki beste biderik, Bobadillatar Franzizko gomendatorea⁽⁴⁾ indiasetara bialdu baiño, an zer gertatzen ziranak ikerketa bidez jakiteko.

I Isabel eta Fernando errege katolikuak ez ziran konturatzen ara bialdu eben Bobadillatar Franzizko ori, ez zala eurak gogoratzen ziran bezela aiñ argi ta jakintsua, bekaizt, kasketatsu ta altsutasunezko itxurak emonda, borondatezko neurrian maskar edo aul ta ergel bat baiño besterik ez zalako izan.

1.499ko Epaillaren 21ean IIn Fernandok bialdutako agirian agertzen da Bobadillatar Franzizko, zelan izendatzen dabe Indiaseko jaurlaria agindu zabalakaz.

Kolonentzat gogorra izan zan Bobadillaren jaurlarizko izenpetze ori, erregearen ordezkioa ta orokorrezko jaurkintza kentzen eutselako agiri orrek, eta ekintza onek bakarririk erakusten dau, Kolontar Kristobal errege- seme ta errege katolikoaren loba izan zala, bestela beste baten bat izan bazan, ainbeste denboran eukiko ote eben agintaritzazko mailla andi ortan ?.

1.500eko Dagonillaren 23an eta aginte guzti orreikaz agertu zan Santo Domingoko kaian Bobadillatar Franzizko ori, baiña lau milla ariñago ta denbora askoan geldirik egon ziralako itsazotzi orreik, uri orren agintea Kolontar Diegok eukinda, iru mariñel bialdu ebazan jakiten, ia zer gertatzen zan ainbeste denboran an geldirik egoteko.

Eta mariñelak itxasonzietara eldu ziranean, Bobadillak itandu eutsoen, ia nun egon ziran Kolontar Kristobal, bere anai Bartolome eta Diego ta Fernando Kolonen semeak, mariñelak erantzunda: Kolontar Diego Santo Domingon, Kristobal Amirala Sorkunde ugarteian eta Bartolome jaurlaria Xaragua'ko ugarteian matxinatuak arrapetan gero urkatzeko.

(1) Yopu biurtu = esclavizar, convertir en esclavos a las gentes de aquellas tierras. (2) Banatzailletasuna edo magalpea = repartimiento, encomienda o proteccion. (3) Lilluramena edo larderia = prestigio, fascinacion, o autoridad. (4) Gomendatorea = comendador.

Aginduaren eztabaida gogor orretan ibili zirela Bobadila onek Kolontar Diego atxilotu eta oin-burniakaz kateatu eban.

Eta bardiñ egin eban Kolontar kristobalegaz, esku-mendean euki ebanean, berari be oin-burniakaz kateatu eutsonean.

Bobadillak, Kolontar Kristobal kateatu ebanean, onek ez eutson ezeren gaitzesterik⁽¹⁾ egin, ekintza orregaz an egon ziran guztieri erakutsita, bera, odol-beroko Bobadilla aul eta ergel ori baiño azkoz gorago egon zala, bai jakintasunean eta bai gizon lez.

Bobadillak, Diego ta Kristobal anai biak atxilotu ondoren, Kolontar Kristobalari eskutitz bat idatzi egioztela, Roldanegaz Xaragua ugartean jaurkilari lez egon zan bere beste anai Bartolomeri, eta onek jakin ebenean zelango gauzak gertatu ziran bere anaiekaz, bereala joan zan Santo Domindoko ugartera, eta urira sartuaz batera atxilotu eban Bobadillak.

Kolonek, ondo baiño obeto jakin eban, eurak gaztelanira elduten ziranean, bere osaba-izeko erregeak askatu ta gauzak bere lekura joango zirela, bitartean baiña, andik jauntxoaren gogoaz bizitzeko itxaropenean egon ziranak, poz aundiz ibiltzen asi ziran, Bobadillaren araubideak eurekin, lasaitasun aundiagokoak izango ziralakoan.

Bobadillak, Kolontar iru anaiak atxilotu ondoren, gezur-zaleen zalakuntzak batzen asi zan, gero an zer gertatu zan zeetasun guzti orrekaz, erregeari agiri luze baten adierazteko, eta peninsula onetara katez beterik bialduta berton epaitzeko, itxasontziak antolatzen asita.

1.500eko Iraillaren 30ean, Yanez ta Pinzontar Bizentek egin eban ostera bat, Kolonek agertu ebazan lurretik kanpo ibilteko baldintzagaz, eta beste ugarte eta lur zabal batzutik aurkitzen ibili ondoren, Kadizeko kaira eldu ziran, itxasontzia txirlak edo bitxiiekaz⁽²⁾ beteta.

1.500eko Urrillaren lenengo egunetan urten eban itxasontzidia Santo Domingoko kaitik peninsula onetara, Ballejotar Alonsoren agindupean eta Kolontar anaiak etorten ziran itxasontziko Martintar Andres kapitaiñagaitik, ondo ta lotsagizunezko arrera aundiagaz zainduta.

Ballejotar Alonso ta Martintar Andres agintari nagusi ta itxasontzien kapitaiñak, kateak kendu gura eutsezan irueri, Kolontar Kristobal ez ebana onartu, berba oneik esanda: "Erregeak agindu ebala, eurak, Bobadillak agintzen ebena egin beargendula, eta alan izango zala erregearen aurrean agertu arte". Kate orreik berak gordeko ebazan bizi izango zan bitartean.

Eta alan bete eban bere esana, beti egon ziralako eskegita bere lan-gelan, bera ilten zanean, beragaz illobiratzeko kate orreik aginduta.

1.500ean Azaroaren illeko azken egunetan eldu ziran itxasontziak Kadizera, eta jendea ikusi ebazanean Kolon ta bere anaiak kateatuta jetxitzen zirala itxasontzietatik, naita len marmarka euren aurka etsaiakaz batera ibili, oraingoan lotsatu ta asarratu egin ziran, gizon aiek ikusiaz batera jakin ebalako, bekaizkeri ta gezurraren-iraintsu edo ta gezur-gaiztoaren kaltetunak zirala konturatu ziralako.

Errege katolikuak, Granadan egon zirala jakin eben zer gertatzen zan eurokaz, eta bereala agindu eben askatu egiezen, eskutitz bat euren loba ta onen anaiari idatzita, bitartez 2.000 dukado bialduta, eurengana ondo apainduta joan zitezten.

1.500eko Abenduaren 17an eldu ziran Kristobal eta bere anaiak Granadara, erregeak

(1) gaitzesterik = protesta, reprobación. (2) Txirlak edo bitxiiekaz = perlas o con perlas.

zutunduta ta esku zabalik eurak artzeko zirala, eta Kolontar Kristobal bere zintzotasunean, nortasunaren osotasuna galduta, negar ta belaunikatzen egon zala ez eutsien itzi, an osotu zan irudia, lots aundieneko irudia izanda, danok damu agertu ziran, Kolontarrakin sortu zirenakaz.

Kolontar Bartolome alderantziz, ez zan belaunikatu, eta bere anaiak erregearen serbitzura deitu eutsoenetik, zazpi urteko denbora luzean eta ardura guztiagaz ia lo egin barik berak egin ebenagaz, Dominikatik kanpo, Xaraguako ugartean Roldanegaz egonda, Bobadillak guzurrezko eskutitz bat bialduta, katez beterik atxilotu egin ebala ezan eutson erregeari, eta gura-eukela berak, guzur orreik beren lepotik kenduta, bere arduradunezko lekuan egokitu egiola ostera be.

Argi ikusten da emen, Kristobal, Bartolome ta Diego anaiak izan arren, Kolon bakarrik izan zala IVn Karlosen semea eta errege katolikoaren leen maillako loba.

Eta erregeak, bereala ipini eutsoen ostera euren ardurazko mailla aundietan, erregearen ordezkotzan izan ezik, eta beragaz, Indiasen erregetasunezko ordezkari barik.

Amen ikusten da argi, Kristobal Kolonen aita IVn Karlos Naparroako erregea eta bera, zitaldasunezko⁽¹⁾ maltzur denbora aietan egi edo ta berbakoak izateagaitik, porrot egin ebela biak, denbora aien bizi ekintzatan egi-zaleak izan ezkeru, nortasunezko bitxi-bereziak izan bear ziralak, ingurukoagaz berez, zentzu onaren izaerazko jokuan, ainbeste arazoetatik irabazle urteteko.

Kolon bera ain gogoetatsu izanda, denbora oneitan be, ez zala geldirik egoteko gizona berez agertzen eban, eta beste egitarau baten antolamendu barri bat egin eutsen erregeari, Jeruzaleneko Jesusen illobia mauritarren eskuetatik berrezkuratzea, aurkeztu eutsenean.

Baiña naita denbora askotan, antolakuntzazko ezaupide orreitan ibili, ezerezean garatu zan guztia.

1.501eko Iraillaren 3an errege katolikuak ikusita, Portugaldarrak zelango aurrerakuntzak egiten egon ziran Brasillaren inguruetatik, Bobadillatar Franzizko kendu eban indiazeko agintaritzatik eta zentzu aundiko gizona izan zan Obandotar Nikolas ipini eben erregetzazko ordezkotza orretan, berari aginduta, Kolontar Kristobaleri itzuli eutsozala len kendu eutsiezan jabetasunak, Koloneri bere ordezko bat izendatu dagien aginduta, peninsulara ekarten ziran gauza guztien baliotatik, beren amarrak artu egiezan, eta Kolonek, Karbajal izendatu eban lan orreik aurerantzean eroateko.

Eta 1.501eko Urrillan gauza guzti oneik konponduta Kolon antolatzen asi zan, berentzat indiaserako laugarren bidaia izango zana, lau itxasontzi erosi ta Palos'eko kai ingurutik 140 mariñel artuta, bere anai Bartolome ta Fernando semea eroa zituzen laguntzaille lez, Diego semea Gaztelako gortean eta Diego anaia Gaztelan geratuta.

Kolontar Kristobalek eskutitz bat bialdu eutsen errege katolikuari, eta bidai au egiteko ta arabiar izkuntza jakin eben iru gizon, Kan Aundiagaz aurkitzen bazan, beragaz ulertzan egokitzeko baimena eskatuz.

1.502an Otsaillaren 13an Urten eban Sanlukarretik Obandotar Nikolas 32 itxasontziko ontzidian 2.500 gudari eroaten ebala.

Eta 1.502ko Epaillaren 14an erregeak Balentziatik Kolonen eskariari erantzunda, arabiar

(1) Zitaldasunezko denborak = tiempos de mucha bajeza moral y malignidad.

izkuntzaren iru utzultzaillearen baimena euki ebala, baiña debekatuta eukela espainolaren ugarte joakeran ikutzea, naita itzulkeran beartuta egoten bazan, bear ebezanakin ornitzeko baimena emonda.

Kolonek bidai au, sei illabetetan apaindu eban.

Laugarren eta azkeneko itsasaldia.

1.502ko Loraillaren 9an urten eban Kolon Kadizeko kaitik indiasetarantza, eta 20an Kanariasera elduta ta bear zituezenak artu ondoren, 25ean ostera urten eban itsas-zabalera Indietara joateko.

1.502an Bagillaren 15ean Martinikako ugartearen ingurura eldu ziran, Bagillaren 23an Santo Domingoko inguruan egonda eta Kolonek erregearen debekuari uko eginda itxasontzi bat txarto eukelako, espainolako kaian sartu gura eben itxasontzi ori konpontzeko, baiña Obandok ez eutson sartzen itzi.

Kolonek, espainolako ugartean itzi eban bere itxasontzia, konponketa orreik egiotsezan, eta jakinda Obandok zelan egon zan antolatzen bidai bat peninsula onetara Roldan eta Bobadillatar Franzizko ekarteko, mezu bat bialdu eutson Obandori esaten, aize-denborea gaiztotu egingo ebala eta ez egiela kaitik urten bada ez badan.

Obandok ez eutson jaramonik egin, eta itsas-zabalera bialdu ebazan berak ekarriko 32 itxasontziak.

Kolonek igarri ebena sortu zan, eta 32 itxasontzitik 20 urperatu ziran, euren artean itxasontzien aginduetan joan ziran Torrestar Antonio, Roldan eta Bobadilla kapitaiñak beste 500 mariñelekin.

Ostera joan ziran Santo Domingoko kaiara geratzen ziran 11 itxasontziak, eta bat bakarrik eldu zan erdi-ugarte edo peninsula onetara, Bobadillak Koloneri emon bear eutsoezan 4.000 urrezko ogerlekoakin⁽¹⁾.

Kolonek, itxasontziak konpondu ebazanean urten eban egon zan kaitik eta Jamaikako ugarte ondotik igarota, Kubaren ostean, Erregiñaren-Baratzeko ugarte batera joan zan, eta ura ta janari bear zituzenak artuta, ostera itsasoratu zan, bere Indiasera joateko asmoan.

1.502an Uztaillaren 27an Onduraseko itsas-bazterrera eldu zan eta Dagonillaren erdi ingururantz lur orren jabetasuna bere errege katoliko izeko-osabaren izenean artuta, aurrera egin eban, eta ez arazo barik, aizeketaren ekaizteak 88 egunetan iraun ebazalako.

1.502ko Iraillaren 12an Kolon bere itxasontziekaz aiñ estu-aldian egonda, Onduraseko lur muturretik ego alderantz aldatzen dan lekura eldu ziran, eta lur mutur orreri « Gracias a Dios » en izena ipini eutson, ortik aurrera aize onak eta itsas-bide azkarrak euki ebazalako.

Egun batzuk igaro ta gero, Nikaraguako ibai-ondo batera eldu ziran, eta erreka oneri Kolonek, Zorigaitzeko Ibaiaren izena ipini eutson.

1.502ko Iraillaren 25ean Kosta-Rikara eldu ziran, eta bertokoakin berbetan egon ondoren, Kolonek aurrera egin eban.

1.502ko Urrillan Kariay'eko izena ipini eutsozan eldu ziran lur barri batzuetara, ta bertan lurreratu zan, eukezan gaisoak osatzeko, itxasontziren garbiketak, konponketak egin ta bear

(1) Urrezko ogerleko = pesos

ebena itxazontziratu egin ondoren, bertoko gendea ondoratu jakozan, eta urre-gorritzko meaztegi batzuen tokiak erakutsi eutsoen.

Urrezko meaztegiak aurkitzen joan ziranean, beragaz eroan ebazan bertoko gizonak, sartalde edo mendebal aldetik beste itsas baten⁽¹⁾ uragaitik ikutuak ziren lurrak eta urre-gorritz beterik egon ziran Ziguareko lurragaitik berba egin eutsoen, Kolon bide batez bertatik ibilita itsas-arte estu bat aurkitzen, bere ametseko Zipangora joateko.

1.502an Urrillaren 17an Kolonek Beraguako itsas-bazterretatik urre gorriaren meaztegiak aurkitzen asi zan, baiña ekaitz gogor bat sortuta, Puerto Bello'ra eldu ziran, bertan amar egunean egonda, eta atzera egin bearrean meaztegiak aurkitzen, euren kokamenak itsas eskutitzetan marraztu ta aurrera egin eban.

Itsas-zakar orretatik igarota, aurrera egin eban Bastimentoko kairara eldu arte, eta bertan 14 egun eginda, aurrera egin eban Darieneko kolkora elduarte, eta 15 leko eginda sortu ziran aize eta ur'lasterrak geratuazo eutsoen eta atzera eginda Bastimentoko kaira joateko, beste berezko kai bat aurkitu eban eta "Komuneko" kaira ipini eutson izena, itsasoaren ekaitz aregaz, danak joan ziralako galtzak edo prakak erantzi bearrean.

1.502ko Abenduaren bigarrean astean eta Darieneko kolkua ta gaur Panamako istun edo ugaska⁽²⁾ bitartean dagon Komuneko ugaratean 15 egun egon eta gero, Kolonek Beraguara joateko agindu eban, eta "Kai Lodira" eldu ziran, bertan itxasontziak konpontzen asita.

1.502ko urtean, Kolonek, bere emazte Enrikeztar Beatrizegaz ezkondu, naita denbora askotan ikusi barik egon, asko gura izan bear eutson, gaur galduta dagon eta bere azken naiaren arauetan⁽³⁾ bere seme Diegori idatzi eutson lez, bere emazteak bear eban diruagaz arduratu dagiala, bere bizitzan euki ez dagien ezeren beartasunik, eta Ameriketako lurrak bera izan zalako leen ikusi ebezanak, erregeak dirutan emon eutsoezan 10.000 marauriren errentak, urteroko-sari lez berentzat itxi ebazan.

1.503ko Urtarrillaren 6an Beraguako aberats toki batera eldu ziran, bertoko ibaiaren ao edo uobian, berezko kai eder bat aurkituta, eta 1.536ko urtean, bertoko Dukea izendatuko eban Kolonen illoba, eta Duke ta Amiralaren izendutasunak, gaur be Kolonen ondorengoak ekarten dabe.

1.503an Otsaillaren 6an, Kolonek bere taldeagaz Beraguan egon zirala, 70 gizon bialdu ebazan lur barru eta bost leko ibili ondoren, ainbat urre-gorritzko meaztegi aurkitu ebazan.

Zaindu bear ziran ainbesteko aberastasunak, eta Kolonek bere anai Bartolome agindupean itzi ebazan meaztegi aiiek, bertan Beleneko Santa Mariaren uria jasotzen asita, Kibian, euren erregearen baimenagaz, eta bera espainolako ugartera joateko laguntzaren billa presatzen asi zan.

Kolonek itsas urak ibitu edo beratu ziranean eta ibai-aotik urteteko arazoak euki ebazala, Kibian bertoko erregearen iritzia aldatu zan, eta danak iltzera joan zirala jakin ebanean, Kolontar Bartolome ta Mendeztar Diegok, Kibian arrapatu eban, eta naita onek iges egitea lortu, il zalakoan barria eldu zan Kolonek belarrietara, eta aurrera egin eban bertan 80 gizon eta itxasontzi txiker bat itzita.

Eta Kolon bide erdian aizeagaitik eta ur-lasterragaitik geratuta, uraren ezean aurkitu zan

(1) Beste itsaso bat = "Itsas-Nagusia" izan zana, Oceano Pacifico. (2) Itsas-zidor. istun edo ugaska = estrecho maritimo. (3) Azken naiaren arauetan = codex, codicilo al testamento.

eta ur bialdu eban batel bat lur aietan ura artu egien, bertako jendeak danak ilda.

Kolonek ikusita batela ez zala agertzen, eta Kibian ez zala il jakin ebenean, bertara joanda, bere anai Bartolome ta beste guztiak askatu ta osta osta lortu eban eurengandik aske geratu ta aurkitu ebezan gauza guztiakin andik urtetea.

1.503an Epaillaren 23an errege katolikuarekin Kolonek urrun egonda be, sekula ez eban galdu arremarik, eta errege katolikoari idatzi eutsen eskutitzan, berak gauza askoren artean denbora onetan, ikusi ta ikertu ebazala itsasoari buruz ainbat idaz-lan, adibidez: Kosmografia, edestia, berriak edo albisteak, berrixkak, bizitzaren egon-arri edo eraman ona ikertasunezko bideetatik, bai ta Jainkoak beste ainbeste jakintasunezko bideak zabaldu dautsezanetatik, agirian ipinita "emendik Asia'raiñoko bidea, egin leikela", eta su orregaz joan zala bera eürengana.

1.503ko Jorraillaren 16an Kolonek, Berakurtzetik urten eban geratzen jakozan konpondu ta gero 2 itxasontzigaz Kai-Ederrarantza⁽¹⁾, irugarren ontziko zureria⁽²⁾ ustelu egin zalako.

1.503ko Lorailaren 1ean urten eban Kolonek espainolarantza, 13an Kubako inguruan Erregiñaren Baratzera elduta, baiña itxasoa zakartu egin jakon lez eta bere itxasontziak guztiz zillotuta aurkitzen ziralako, Bagillaren 25ea eldu ziran osta-osta Jamaikako ugartera.

Kolonek itxasontzi barik aurkitzen zalako, alango txalupa txiki bat pretauta, Uztaillako illean, Mendeztar Diego itxasontzidiaren idazkaria, Obando eta erregeentzako eskutitz bigaz bialdu eban beste sei lagunakaz espainolako ugartera Obandoren laguntza eske, baiña bertokoak arrapau egingura ebalako, arazo andi ta gogorrak eukinda, ostera joan bear izan eban urten eben lekura.

Ostera urten eban Mendeztar Diego, eta lau egun barru, Nabasa'ko ugartearen atxak ikusita, ango atxaren zilloetan aurkitu eben uragaz kendu ebezan egarriak, urrengo egunean San Migeleko lur muturrera elduta, eta emendik Azuako kaian jakinda, Obando Xaragua'n egon zala, bertora joan zan, eta Obando, Kolonen aurkakoa zalako, bertan atxilotu lez euki eban Mendeztar Diego 1.504ko Epaillararte.

1.504ko Urtarrillan Kolon artritiseko gaisoagaz ogean egon zala, Porrastar Franzizko beste 48 mariñelekin matxinatu zan kolonen aurka, ta espainolako ugartera joan ziran berton euki ebezan txalupakin, ortik gero erdi-ugarte onetara etorteko, baiña itsasoaren ekaitzak ostera bialdu ebazan Jamaikako ugartera, eta lapurketan asita bertoko bistaleen etxolatatik, auek asarratu egin ziran, eta ararte emoten eutsezan jatekoaren eskuratzeak ebagi eutsezan.

1.504an Otsaillaren 29ko bisust-urte⁽³⁾ edo bi-urte orreitan Kolon gogoratuta, illart-illune⁽⁴⁾ edo illargiaren illuntasuna sortuko zala, bertoko jauntxoari deituta, zeruko illargia kendu ta illuntasunezko ekaitz gogorretan sartuko eutsiela eureri, janaririk ez ba eutsen ekarten esan eutsoen.

Eta danak itxaroten egonda, gabaz zer gertatuko jakien, illuntasuna agertu zanean, danak joan ziran Kolonengana parkamena eskatzen, eta illuntasun orren denborea amaitzen egon zala, ostera urten eban Kolonek eurei esaten, parkamena emoten eutsoela, eta bertokoak ikusita illetargia ostera agertzen zala bere lekura, bear izan eben guztia emon eutsoen Kolon eta bere mariñelai.

1.504ko Jorraillan Obandok, itxasontzi bat bialdu eutson Koloneri Eskobartar Diegoren

(1) Porto Bello. (2) Zureria = maderamen del barco. (3) Bisusturte = año bisiesto. (4) Illart-illuna = eclipse de Luna.

aginduan, esateko, euren billa, egiten egon zan itxasontzia amaituta eukanean etorriko zala, eta Kolonek Eskobarrerri, Obandorentzat eskutitz bat emonda, ostera urten eban espainolaren ugarterantza.

1.504ko udabarri orreitan Santo Domingora joan zan Menedeztar Diego, an erdi-ugarte onetatik joan barri ziraneko itxasontzi eder bat erosita Koloneri emoteko, eta bera, bear ebenagaz apainduta, ostera itzuli zan erdi-ugarte onetara, erregeari, Kolon idatzi eutsoen eskutitza emon eta ango barriak eurei esateko.

1.504ko Lorailaren 20an Kolonek, Porrastar Franzizko erakarri gure eban zentzunera eta parkamena agindu ta gero ostera matxinatu zalako, Kolonek, bere anai Bartolomeri agindu eutson beste 50 mariñel adizkideakaz aurka egin egiola, eta menperatu ondoren, Kolonen aurrera eroan eban.

Ia urte oso bat egon bear izan eben Kolon eta bere mariñelak Jamaikako ugartean egoera orreitan, eta matxintasunezko arazo orreik konpondu ta egun bira, itxasontzi eder bi ikusi ebazan euren ugartera etorten zirala, bat Obandok bialtzen eutsena eta bestea Mendeztar Diegok erosi ebana.

1.504ko Bagillaren 28an itzi eban betirako Kolonek Jamaikako ugartea Dominika edo espainolako ugartearen bidea artuta, eta Beata'ko ugartean geraldik bat eginda, Dagonillaren 13an eldu zan Santo Domingoko kaiara.

1.504ko Iraillaren 12an Kolonek, bere Bartolome anaia eta bere seme Fernadokin urten eban Santo Domingotik erdi-ugarte onetarantza.

Eta emen itzi bear izan ebazan betirako, berak agertu ebazan Indiaseko aberats lur orreik, bere Zipangoko lur eta Kan Aundiaren amets nagusiak bete barik, gero 1.520an Urrillaren 21ean Magallanesez aurkitu eben itsas-arteko estutasun ori ez ebalako aurkitu.

1.504an Azaroaren 7an, ille bi beranduago legorreratu⁽¹⁾ edo porturatu ziran Sanlukarreko kaian, Kolon eta beren kideak Dominikatik etorri ziran itxasontzi biekaz.

Kolonen azkeneko oñaze edo nekeak eta beren eriotzea.

Kolon, Barramedaren Sanlukarreko kaian lurreratu zanean, Sebillara joan zan artez, bere osasuna eta irabazpideak argitzeko asmotan, berak irabaziko diru arloaren egoera, Bobadilla bere amurratutako etsaiaren bidez, oso nastuta egon zalako.

1.504an Azaroaren 26an, Kolonek Gaztelako gortera joan gura eban len bait-len, bere izeko-osaba ikustera ta indiaseko barriakin idatzita euki ebazan eskutitzak eurei emoteko, baiña euken gaisoa zaindu egin bear ebalako, eta bere seme Diegogaz irabazpideko agiriak argitu naian denborea irauten doiela, I Isabel erregiñ-katolikua il zan 53 urte eukezala, Kolon eldu zanetik 19 egun barru.

Kolonek, beste gauza batzuen artean eta oso kezkatuta egon zalako, eskutitz bidez, bere seme Diegori eskatzen eutson, ia I Isabelek beren azkenai agirietan, berentzat zeozer itzi ba eban idatzita izan zan.

-Baiña kontuan euki bear zituzen, Santa Fe'ko ongundean, eleiztar, errege-erregiña ta berak artu eben erabagiakaz.

(1) Legorreratu = atracar en el puerto.

-Ala, beren erregezko ondorengo izaerak, gauza onekaz, ez ote euken zer ikusirik ?.

-Orduan, B. Gould´tar Alize´k ikerketaren arrigarrizko lan bidez, mariñel talde osoaren izen, abizen, nungoak ziran, bakotzak zelango ogi-bidetan lan egiten eben, eta euren gurazo errigizarte ta auzoak zeintzuk ziran zeatz jakiteko egin ebana, zergaitik Kolontar Kristobalen izen abizen eta bere ondorengo izatearen nortasunagaitik ezer jakin ez ?.

-Ala, beste pekatu gogor bat euki eban Fernando erregeak, Kolonek I Isabelekin izenpetu ebazanak, irabazita gero Kolontar Kristobaleri ez emoteko ?.

-Ze garrantzi ote euken, eleiztarren bitartekotasunak ?.

-Dana dala, baleiteke I Isabelek Kolonen alde ez ebela ezer idatzita itzi, beren izena agertzea ez zalako egokiena Santa Fe´n asmatu zanagaz, gero azkeneko ondorioan argituko doguna.

1.504ko Abenduaren 21ean, Kolonek bere Diego semeari idatzi eutson eskutitzan, bera gortera mando baten gaiñean joateko, baimena emoten ba eutsien agiria atarateko eskatzen eutson.

1.505eko Loraillan eldu jakona, eta Kolonek Sebillatik, mando baten gaiñean urten eban Segobiarako bidean, bere osaba Fernando erregea ikustera.

Kolonek Fernando erregearengandik, berak indiasetara urten orduko lortu ebazan errege ordezkotzaren eskubideak berrezkuratu gura ebazan, Fernando bere osabak baiña, naita agindu arren beren amiralgo gauzak zuzentzeko auzitegi berezi bat sortuko ebala berari esan arren, sekula ez eban eraikiko alango auzitegirik.

Denbora iraun egiten ebala ikusita, eta Fernando erregeak beren eskubideagaitik ez ebala ezer egiten, Kolonek ostera erabagi eban bere seme Diegogaz erregearengana joatea, berea zana eskatzen, eta Fernandok alderantziz, izendatu eutsozan ordezkotzazko guztieri uko egitea eskatuta Karrion de los Kondes´eko jabetasunaren ordezkotzaz, Kolontar Diego semeak bere asarre guztiagaz, eskeintza orreri atzerazi edo ta ez eban ontzat artu.

Eta onen gora-beragaitik Kolonek bere lagun bateri idatzi eutson eskutitzan, auxe esaten eutson: Erregeak ez ebala ikusten ongarri, I Isabel erregiñak nigaz batera izenpetu ebana, eta nik aldotena eginda, Jainkoaren eskuetan izten dot, beti egiten doten lez.

1.506ko urtearen lenegoetan, Kolonen itxaropenak barriztu egin ziran ostera, Juana ta bere senar Felipe erregeak Segobiarantza etorten zirala jakin ebanean, baiña itsas-txar eta euki ebezan kalteagaitik, Ingalaterraren Weymouth´eko kaira joan bear izan eben, Windsor gazteluan, ia iru illabetetan egonda.

1.506an Jorraillaren 28an A-Koruñara eldu ziran erregeak, eta Kolonek eskutitz bat bialdu eutsen, bere lotsakortasun eta eskaerak idatzita, Bartolome bere anaiak eroan ebana.

Eta bere azkeneko naiaren atal baten bere seme Diegori idatzi eutson eskutitz onetan: Dominika edo espainolaren ugartean Baselisa bat eraikiteko diru naikoa batu egiala, berton iru Meza Santuak: Trinidaz Santuen egunean, Sorkunde Garbiaren egunean, eta irugarrena, bere aita-ama ta emazteagaitik urte guztietan ospatzeko agintzen eutson.

1.506an Loraillaren 19an Kolonek Balladolizen egoala eta bere osasunean txarto ikuste zala-ta, azkenai bat idaztea erabagi eban Inojedotar Pedro idazkariakin, bere ondorengoari 1.502ko laugarren bidaldira urten orduko azken nai lez idatzi ebazanak baieztuten, eta bere seme Kolontar Diego erro-jarauntsi⁽¹⁾ lez izendatzeko.

(1) Erro-Jarauntsi edo Erro-Ondarearen oñorde edo ondorengo = heredero de los Bienes de Mayorazgo.

1.506ko Lorailaren 20an Balladolizen il zan Kolontar Kristobal 46 urte eukezala, eta San Franzizkoren eleizan 21eko egunean frantzizkotarren jantziakaz illobiratu zanetik, 400 urte ibili ziran beren ezur-ondarrak alde batetik bestera.

1.512ko urtean Kolontar Kristobalen azurrak, Sebillan dagon Kuebaseko lekaidetxera eroan ebazan Fernando katoliko erregeak, eta eraikitzeke agindu eban jaun-illarri eder onen aurre-alboan, berba auek idatzi ebazan: "A Castilla y a Leòn, nuevo mundo dio Colon".

5. ZATIAN.

Lan guzti onen ondorioa.

Sarrera.

Mundu onetan jaio nintzan oraiñarte danok jaio diran antzera, baiña Eusebio ta Maura aita ama on bitartetik Euskal kabi ederrenetariko baten, Zornotzako erri polit onetan.

Euskalerriko semea izanda, ta bakotzaren jaioterak berezko izatasun edo orokorrezko baldintz bereizipean jaiota, ez dira bereiztasun orreik txantxetan ibili bear dituguzenak, izaerazko azturan, gai bide orreik baldintzapeko etorpidean ulermenduta ezi, azkortu, edo ta azten garelako.

Ez da edozelako bidea, JAINKOAK ipini euskuna ez, jaioten-garenok bakotzaren izaeran nortasunduta bereztuteke, Berak Izadi au gai bereztu ebanean eta gaiaren orokortasuna beti itxura eder onetan agertu dagian, osotzen dauan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenari be, osagarritzko legepean izaerazko berezitasuna emon eutsolako, gure gaitutako-arimak be gai-lege ortan oiñarrituta geratzen dira, eta mundu onetan iñork eta ezerk, ez dauka beste zentzunezko biderik, legezko baldintzape orreitan bizi ezik.

Jainkoak, gaia bereiztasun orreikaz bananduta bereztu ebanean, Nortasunaezkoa biurtu eban, berak daukazan mukullu, ataltxo edo ta iski txikerrenean be, danak bateratasun edo aldiberetasunezko ta osagarritasunean, erlojugintzazko lan eder baten ipini ebazalako.

Guk, badakigu arimak garela, konturatu bear baiña, gaitutako arimak garela, eta Jainkoak or, ipinten dasku danori, gaiaren baldintzapean.

Zeintzuk ote dira baldintza orreik ?:

a) Mundu fisiko onetan jaioten garanean, danak bardiñ jaioten garela munduko erritar⁽¹⁾ lez eta orokorrezko ulermen batera bideratuta osagarritzkoak izan gindezan.

Osagarritasunezko ulermen ori baiña, elburu nagusia da, eta aukera orreitara eltzeke, nortasunaren bereiztasunezko zor-eskubidearen ordezkartzazko lots bitartez eldu bear gara, ta orren ekanduz kanpoaldetik norkeriz bizi garelako, jarduerazko arrera orreitan agertzen jakuz, ulertu eziñ diran, bata bestearen aurkako odoljariozko nekaldi ta lotsagabeko menpekotasun oneik, danon ulermeneko elburu nagusia mugagabe atzeratuta, alan gagozan bitartean.

(1) Sozialistaren esanetan eta euren kaizar menpekotasuna ostonduteke = como ciudadanos del Mundo, y es así, pero cada uno con los condicionantes físicos de lugar y lingüísticos que denotan nuestra diferentes peculiaridades, y por tanto distintas maneras democráticas de pensar, para llegar a acuerdos coherentes.

b) Gai-Mundu onetan iñor ez dalako ezereen ugazaba⁽¹⁾ arduradunezkoa izatea baiño ez jaku geratzen, eta danon eskubide guztiak bardiñak izanda, Jainkoaren Legeak diralako beartuten dabezanak izaerazko egoera orreik, iñork ez dauka baimenik ezereen edo ta iñungo legerik atarateko, "JAINKOAK BERAK" izadi oneri ipini eutsoezan baldintzatik ez ba dira bakantzen.

d) Gai-bereztutako Arimaren bizia izanda, arrazoidunezko bizitza da zalantzarik gabe, ta jaio ta bizi zaran lekuko izkuntzagaz nortasunduta, osotu bear dozuz zure osagarritasunezko ulertzak, norbera izateko, Jainkoari begira orreitan argitzen diralako nire euskal izaera beste izaera guztiekin, BERAK nortasunduta bereiztu euskuzan gauza guztiari lez ulertzeko.

Jainkoak, gaia osotzen dan bereiztutako mukuluekin lez, gizari be bere ugaritasunean bereiztuta, mundu onetan osagarritzakoak izatera eldu gindezan alegintzen dauzku, lege orregaz orokortzen dabezalako nortasun bakotzaren ardurazko eskubideak, ta ez batzuk gure daben antzera, danak naastuta arto-urune opilduta talo bat egiten dan lez Jainkoari eskeintzeko, Bere aurrean bakoitza, dan lez agertu bear garalako.

Danok bardiñak garala esangura dau orrek, bakotzaren nortasunekin elkarpidetu gaitezen.

Baiña, bereizkotasunaren ulertzarako itun, ongunde edo elkarpede bidetik zail edo gaitza da antza, iñoren artean ulermen batera eltzea, eta danak errezenera joanda makil bat artuta, makalenaren buruak apurtzen alegintzen gara, gure arrazoiakin ados egon daitezen, dan guztiok BAITA bidez dakiguzan arrazoiaren gaiñetik.

Oar txiki bat emen.

"Azpalditik, kezka txiki bat euki dot nire barnean, eta goi maillako jakintsueri esan bearrean nago, Aita Santigaz asita nigaz sortu zana ez daiten galdu, eurak be bardiñ egin bear dabela Euskadi edo Euskalerrriaren seme arduratsuakaz, gure Euskalerrri maite onek, bere semeen pil-pilezko ardurapean ezarri dagigun".

Ni jaio nintzanetik menpeko egoera larri baten egonda, ta askatasun egarriagaz Jainkoari begira egon nazelako beti, negargarrizko arazo onen itur edo sorburuak argitzeko zalea izan naz, eta larritasunezko egarri ori asetzeko, gero nire lagun aundia izango zan Onaindia'tar Santi'rengana joanda, onek goi-maillako ikasbidearen atea zabaldu eustazan mugarik-gabe gauza guzti onekin arduratzeko, eta benetan diñotsuet Euskalerrriak gaur egun, etsai asko daukazela bere izaera demokratikoan irauteko, EUSKAL SEME-ALABAREN ARDURETAN, GANORA BARIK IBILI GINDEZAN.

Gaurko menpekotasunezko joko zitalaren sorbide edo iturburua.

325'ean Nizeako eleiz-batzar nagusian artu ziran norkeriaren lapurtzazko erabagi bidetik datoz ondorio txar guzti oneik, Erromatik, iñoz ez diralako aldatu ezertxo be, artu ziran okerrezko erabagi orretatik.

a) Jesusek, Jainko ta bizitzaren gora beran zabaldu ebazan aolkularitz barriak indartsu ta

(1) Iñor ez dalako ezereen ugazaba = en este mundo nadie es propietario de nada. porque nada nos podemos llevar de este mundo, sino responsable de aquello que me toca administrar, siendo esa la función que nos es permitida.

alegiñ ederrenean egonda, katoliko alderdikidetuz, lapurketa aundiena egin jakon orduan ezagutu egiten zan Kristautasunezko munduari, I Konstantinoren guda indarragaz ta eleiztar batzuen laguntzarekin norkeiz, euren esanak siniskai biurtuz gaiñ, jabetu ziralako, mundu guztien ekandu ederrena izan bear zanagaz.

b) Goian aipatu dogu, zelan Jainkoak gaiezko izadi oneri, bardiñezko indarrean bereiztuta erperatu eutsoezan bere askatasunezko lege-baldintzak, gure bizitzak, bere zentzunezko askatasunera bideratu ginduzen, baiña Kristautasuna, katoliko alderdikidetu ebenean, eurak jabetu ziran gure nortasunaren erantzuteko ardurakaz, ta ordezkariaren zeregiñak ekanduz kanpo geratu dira beti, bakez bizi gindezan.

d) Norkeiaren lapurkeria agiri-agirian geratzen da, Kolon'en lan onetan ikusten dan lez, orduan ezagutzen ez ziran lur barri ta berton bizitzen ziran jendearen jabetasunak, euren arteko jabetasunean bananduta euki ebezalako ezereen lotsa barik.

Orduko VI In Alejandro ta ariñauko IV In Sixto ta VIII In Inozensio Aita Santuak 1.481'eko "Aeterni Regis'eko" buldagaz, Kanariaseko lerrotik bera Portugalari eta lerrotik goiko aldea gaztelarren jabetasunean ezartzen ebezan, eta dan guzti au Kolonek Ameriketako lurraldeak argitan ipini orduko.

Nortzuk ziran oneik, edo ta "Noren Jainko bidetik artuko ote ebezan eskubide orreik?".

e) Eta ortik aurrerako tresneri, bolbora, ta abar guztietan agertu ziran aurrerakuntzak, danak ipini ziran kaizar-menpeko batzango asmo orren serbitzura.

A ta guzti be, eta naita berezko erriaren eskubideak ararte edozein eratako maltzurkerian erabili, berezko erriaren lege ta nortasunak zapaldu egiten ebezalako ezereen lotsa barik, ezin ebezan erriak legez menperatzea lortu, Jainkoak bereztasundutako gizari erperatu eutsoezan legeak, danok Baitatuta ekarten doguzelako.

1.789an batzango zale orreik baiña, eurak sasi-jainkotuta sekula ez dabelako onartzen JAINKOAK bereztu ebazan legeak, Frantziko iraultza eginda, European guda indarkeriz guztian eta danez gaiñ ugarte-erdi edo peninsula onetan, batzangoaren konstituzio zikin barrien legeak ezarri ebazan, orduko errege ta erritarren agindu gaiñetik, eta or irauten dogu beti borrokan, erri ezberdiñak naastuta ipini ebezalako, gura ez dan bizkidego baten.

Batzangotasunezko kidetasunak, munduko Nortasunaren ulermenean lortu bear dira, ez guda bidez beartuta, batzuk urrezko zekorraren yaureskeri edo irudi-gurkerian bizi egiezen.

Kolon'tar Kristobal, bere izaeraren jakin-eza.

-Egin dogun Jainkoaren legez-kanpoko zeazkuntza bidetik, errez ulertu leike, orduko katolikotasun alditan, onek euki eben al-osokeriaren agindutik kanpo, ez ebela gure iñor geiago bere ondoan, bestela Aita Santuak buru gaiñean, ekialdeko Persa kaizerrak eroaten eben iru koroako kopaletaren antzera, bear eban aginbidezko omen-barik geratuko zan, eta ez zan egokiena eurak euki eben naikunderako, Berd eta Martorell'tar Gabirel'ek, bere lan bikaiñ onetan erakusten dauskun lez.

-Badagoz beste maltzurtasunezko zital errukari batzuk be, eta nik uste dot ondo zeaztuta geratu dirala, IV In Karlos Bianako printzearen aita II In Juan eta bere anai-orde edo ugazanaia II In Fernando katolikuaren zeazkuntzak azaldu doguzenean.

Iln Juan eta Iln Fernandoren debekuak, Nafartar erregetza menperatzeko euki ebezan asmotik izen leikezalako, edo ta alboratuta iztea geiago egokitzen jakiezalako, ez dot uste Kolonen izatasuna garrantzi aundia euki ba eben be, orren erruagaitik aipamen barik geratuko zenik, Fernandoren maltzurrezko lotsabakokeriak ez ziralako egin barik geratuko, Kolonen aipamenak daukana baiño garrantzi aundiagoko gauzaren gaiñetik aldatu zalako.

Nik uste dok, lenengo aipamenagaitik izan zala zalantzarik-gabe.

Euskalerrriari begira.

Gaur sortzen diran gauzakaz, Euskaldun guztiak jakin bear gendun, espainol menperatzail onekaz ezin garala etxe barru baten bizi.

Eurak kaizarkerizko menperatzailleak izanda, ta guk gure *“Jaungoiko ta Lege Zarragaz”* demokrazizko askatasunaren izaerazko sinismenean, ez garalako ulermen ezberdiñ orreikaz iraungarritasunean bizitzeko gai, eta gitxiago, beartuta laterrizko batzango eritzi orreik goitik-beraiño ustelduta dagozenean, gure demokraziaren askatasunezko sinismenak euren serbitzura ipinteko.

Goian, ezeren txantxa barik geratu da naiko argi, erri baktza bere bereiztasunezko-izaerakin izan bear dala osagarritasunezkoa beste erriekaz, ordezkartzako arloetan nortasun aundiz jokatuta, ekintza orreitan geiegian dagozelako norkeriaren kaizarkerizko: *“El destino en lo Universal”* eta *“Nacional katolicismo”* orreik, bereztasunaren lapurtza orreik ustel usaiña eukinez gain, bere inguru guztia usteltzen dabelako.

Europa, jakinezko sinist-arazian ipini edo ta eskuratu bear dogu, Europako Euskal erri zarrena eta Paleolitiko-Neolitikoaren askatasunezko demokrazian AITORTZAILLE dana, ezin dalako bizi iñoren menpekotasunean, naita onena izanda be.

Bide batez, Europari jakin-arazian ipini, daukezan arazoak ez direla diruzko ta merkantil arazoak, errigizartearen askatasunezko-demokrazian; nortasunaren ekanduzko arazoak baizik, Europako bizkidetasunak lenengo eskatzen dauana, bere giza ta gizarteko ekanduak zaintzea dalako.

Len, borroka nagusi bat eginda, dan guztia utsetik osterazko asmoetan egiten zan, edo eta salerosketetan maltzurkeriz jokatzen zalako dirua beren asierako baliotik arrotu edo puztu egiten zanean, diruaren balioa merkaturaz konpontzen ziran ordezkartzaren orekak gizaren eragilletasunezko ardurean osteraz aukera barriak eukiteko.

Gaurko euroari baiña, ezin jako ikuturik egin bear ikusten dogunagaitik, eta gizartea gaur legearen orekazko ordezkartzan bizi al izateko, lortu dabezan eskubideko tresneritik asi dira murrizketak egiten, gizaren eskubideko arduratan kontuan euki barik, giza-seme milloiko asko, bear-gorrietara bialduten dabela, bear dogun guztia diruaren serbitzura ipini dabelako.

Diru ta merkantil-tresneriak, ez dira European bizia daukenak, bizia daukezanak bere nortasun aundiko seme-alaba ta errigizarteak dira, eta egin bear doguzan eragilletasun guztiak giza-semearen serbitzura izan bear dira.

Eta orreineko oreka ta ekanduak dira ondo zaindu bear direnak, diru ta merkantilezko eragipideak zor-eskubidearen ordezkartzan on-bideratuta, bereztasunezko legearen ekandu edo ta orekazko ondorio lez agertu daitezen.

Maltzurrezko menpekotasun ta ulermen ezberdiñeko errigizarte-naspil batetik eta gaiñera alde bat menperatzaillea izaten bada, zeozer urtengo ote leuke argitasunekin?.

Bizi onetan egiten diran gauza guztietan, ez ba dira egiten gauza berak eskatzen dauazan benetako edo ta berak bear dauazan legezko baldintzakin, egiten dan gauza guztia, utsezko porrot aundi baten agertzen da, okerrezko bidetik egiten doguna, oker agertzen dalako, mundu fisiko onen jarraidun edo lojikazko ondorio bidetik.

Nork esango leuke gagozan gizaldi onetan, norkeriz eragiten diran maltzur-guzurtiaren diru lapurketa guztiak, Jainkoaren Legezko ordezkarietan arduratuta bizi direnak ostera ordaindu bear dabezala, Nizeatik maltzurrez datozen batzango ta menpekotasunezko kaizar agintaritzazko mailla orreik, daukezan norkeri orreitan zaintzeko.

Begitu, gaur egunean non agetzen jaku “dirua” edo ta “urrezko zekorra” benetako sasi-jainko lez.

Zer egin ?.

Benetako Jainko Egillearen Legeak, edo ta bereztutako gai-mundu onen legeak berrezkuratuta, berezko nortasunaren ardurapean ostera ezarri, iñork ez daukelako eskubiderik, beste nortasunezkoaren berezko ardurak, norkeriaren menpeko alegiñetan eroateko, gaur daukaguzan Laterri menperatzaile oneik egiten daben lez.

Euskalerriko seme-alabak daukagun berezko ordezkari ardureagaz adoz agertzen bagara, ganorabako alderdikeri onetatik iges egin bear geunke, gure Euskadi edo ta Euskalerrri maite onek bere askatasunezko ernatzailletasunean bai eta demokraziaren sortzaille izateagaz, gure burugogorkeritasunagaitik ez bazan izan, berak ezereztu egiten dabezelako alderdikeri zital orreik.

Gulako erri demokratiko batek, bere eskubide ta nortasunaren ordezkarietzako ekanduak zaintzeko, ez dabelako bear, ez eskubi, ez ezkerreko alderdikeri, erriaren elburuari begitu baiño, bestela beti egongo gara eritzi orreikaz lotuta.

Siñeztu gauza oneik egiak direla, “KERI” guzti orreik lotuta izten gaitueulako.

Eta orduan alegiñ aundienak egin, gagozan espainol laterritasunezko menpetik urteteko len bait len, Europa askatasunaren zentzunezko demokrazi on baten ezartzea gura ba dogu, danok Jainkoak agintzen dauzkun eran bizi gaitezen.

Gazteari zer esan ?.

Euskal seme zintzo lez, etxeko-edestiaren ezauntzazko errotik ondo ebatuta, geiago arduratu daitezela belaun-aldi lez.

Euskal jendekuntzazko nortasunaren ondorengotasunean daukien ordezkari ardureagaz, norkerizko maltzur batzango menperatzaillearen geiegizko jan-edate ta astokerizko lilluratzailaren eragipeneko alegiñetatik urrundu daitezela, gauza orreik, zuen euskal ekanduzko nortasunak ezereztuta, EUSKALERRIA MENPERATUTA eukiteko alegiñak diralako.

Eta alderdikeri barik, euskalerraren arduradunezko eragill onak izan, orrela irabazten dalako euskalerriko zorientasuna Europako beste berezko errigizarte artean; JAINKOAREN LEGEZKO BALDINTZAK ARDURA AUNDIENEAN ORDEZKATUTA.

Atutxa'tar Paul
Zornotzan 2.013'an Urtarrilla'ren 19'an

Nire aldetik ibili dodan Bibliografia.

Berd eta Martorell'tar Gabriel'en oraingotutako iru liburuak.

Arturo Txanpion'en "Navarra en su vida històrica".

Auñamendi'ren edestiko liburu-bildumatik.

Gran Diccionario ilustrado "Selecciones Del Eeader's Digest".

BERD eta MARTORELL'tar GABRIEL'en BIBLIOGRAFÍA

I Anzoátegui, Ignacio B.: Cristóbal Colón. Los cuatro viajes del Almirante y su testamento. Séptima edición, Espasa-Calpe. Madrid, 1980.

II Alomar Esteve, Gabriel: Historia de las Islas Baleares. Ediciones Cort. Palma de Mallorca, 1979.

III Allison Peers E.: Foll d'amor. La vida de Ramón Llull. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1966.

IV Arranz, Luis: Don Diego Colón, Almirante, Virrey y Gobernador de las Indias. Tomo I. Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto "Gonzalo Fernández de Oviedo". Madrid, 1982.

V Atlas de les Ules Balears. Geográfic, Económic, Historie. Primera edició, editat per Diáfora. Barcelona, 1979.

VI Bauza y Adrover, Cosme: Historia de Felanitx. Tomo I, II, III. Imprenta B. Reus. Felanitx, 1921.

VII Bayerri Bertomeu, Enrique: Colón tal cual fué. Porter-Libros. Barcelona, 1960.

VIII Bernardini-Sjoestedt, Armand: Cristóbal Colón. Ediciones Castilla. Madrid, 1965.

IX Bernáldez, Andrés: Historia de los Reyes Católicos Don Fernando y Doña Isabel, escrita por el bachiller Andrés Bernáldez, Cura de los Palacios y Capellán del Arzobispo de Sevilla, Don Diego Deza. Tomo I y II. Edición de la Sociedad de Bibliófilos Andaluces. Sevilla, MDCCCLXX.

X Bigelow Merriman, Roger: La formación del Imperio Español en el Viejo Mundo y en el Nuevo. Volumen II, Los Reyes Católicos. Editorial Juventud. Barcelona, 1965.

XI Blasco Ibáñez, Vicente: En busca del Gran Kan (Cristóbal Colón). Editorial Prometeo. Valencia, 1929.

XII Capitulaciones del Almirante Don Cristóbal Colón y salvoconductos para el descubrimiento del Nuevo Mundo. Ministerio de Educación y Ciencia. Dirección General de Archivos y Bibliotecas. Madrid, 1970.

XIII Carreras Valls, Ricardo: Catalunya descobridora d'América, La pre-descoberta i els catalans Joan Cabot i Cristófol Colom. Imprenta Altes. Barcelona, 1929.

XIV Carreras Valls, Ricardo: El Cátala Xpo Ferens Colom de Terra Rubra, Descubridor d'América. Edició d'un grup de socis de la Lliga Regionalista de Gracia. Imprenta Altes. Barcelona, 1930.

XV Carreras Valls, Ricardo: La Descobertá d'América (Ferrer, Cabot i Colom). Imprenta M. Roca. Reus (Tarragona), 1928.

XVI Carreras Valls, Ricardo: Los catalanes Juan Cabot y Cristóbal Colom. Memoria presentada a la Real Academia de la Historia. Imprenta Altes. Barcelona, 1931.

XVII Castellar-Gassol, J.: La conxorxa americana. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1987.

XVIII Cerda, Juan: Mallorca, ¿Cuna de Colom? Imprenta Hispana. Fe-lanitx, 1968.

XIX Colmeiro, Manuel: Los restos de Colón. Informe de la Real Academia de la Historia al Gobierno de S.M. sobre el supuesto hallazgo de los verdaderos restos de Cristóbal Colón en la Iglesia Catedral de Santo Domingo. Publicado por el Ministerio de Fomento. Madrid, 1879.

XX Coll, José: Colón y La Rábida. Editado por la Librería Católica de Gregorio del Amo. Madrid, 1891.

XXI Colón, Hernando: Vida del Almirante Don Cristóbal Colón. Editado por Fondo de Cultura Económica. México, 1984.

XXII Compte Freixanet, Alberto: Historia Universal. Moderna y contemporánea. Editorial Marfil. Alcoy, 1970.

XXIII Dascáno, Antonio: Ensayo biográfico del célebre navegante y consumado cosmógrafo Juan de la Cosa. Publicado por los Sres. Cánovas Valles y Traynor. Madrid, 1892.

XXIV Descola, Jean: Cristóbal Colón, El infortunado Descubridor de un Mundo. Segunda edición. Editorial Juventud. Barcelona, 1985.

XXV Duff, Charles: La verdad acerca de Cristobal Colón y del descubrimiento de América. Espasa-Calpe. Madrid, 1938.

XXVI Elliott, J. H.: El Viejo Mundo y el Nuevo (1492-1650). Segunda edición. Alianza Editorial. Madrid, 1984.

XXVII Enciclopedia Básica Danae. Volumen I y II. Ediciones Danae. Barcelona, 1977.

XXVIII Erssa: Colón. Editorial Ramón Sopeña. Barcelona, 1941.

XIXX Espinel, José Luis: San Esteban de Salamanca, Historia y Guía (Siglos XIII-XX) Editorial San Esteban. Salamanca, 1978.

XXX Fernández de Navarrete, Martín: Viajes de Colón. Editorial Porrúa, México, 1986.
XXXI Fernández Duro, Cesáreo: Colón y la Historia postuma. Imprenta y Fundación de M. Tello. Madrid, 1885.

XXXII Fernández Martín, Luis: El Almirante Luis Colón y su familia en Valladolid (1554-1611). Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1986.

XXXIII Frutos, Pedro de: El enigma de Colón. Libroexpres. Barcelona, 1980.

XXXIV García Rodríguez, Sebastián: La Rábida, pórtico del Nuevo Mundo. Gráficas San Antonio. Sevilla, 1981.

XXXV Gaya y Delrue, Marcelo: El Mito de Cristóbal Colón. Editado por Librería General Zaragoza, 1953.

XXXVI Gil, Juan y Várela, Consuelo: Cartas de particulares a Colón y Relaciones coetáneas. Alianza Editorial. Madrid, 1984.

XXXVII Gil, Juan y Várela, Consuelo: Temas Colombinos. Publicado por la Escuela de Estudios Hispano-Americanos de Sevilla. Sevilla, 1986.

XXXVIII Granzotto, Gianni: Cristóbal Colón. Javier Vergara, Editor. México, 1985.

XXXIX Homenaje a Isabel La Católica en Madrigal de las Altas Torres. Instituto de Estudios Africanos, Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1957.

XL Iribarren, Manuel: El Príncipe de Viana (un destino frustrado). Montaner y Simón, Editores. Barcelona, 1947.

XLI Irving, Washington: Vida y viajes de Cristóbal Colón. Gaspar y Roig, Editores. Madrid, 1851.

XLII Irving, Washington: Viajes y descubrimientos de los compañeros de Colón. Gaspar y Roig, Editores. Madrid, 1854.

XLIII Jimeno, Rodolfo: Las leyendas y el Padre Las Casas. Vassallo de Mumbert, Editor. Madrid, 1983.

XLIV Jos, Emiliano: El plan y la génesis del Descubrimiento Colombino. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1979-1980.

XLV La Torre y del Cerro, José de: Beatriz Enriquez de Harana y Cristóbal Colón. Editado por la Caja Provincial de Ahorros y la Asociación de Amigos de Córdoba. Córdoba, 1984.

XLVI Las Casas, Bartolomé de: Historia de las Indias. Volumen I, II y III. Segunda reimpresión, editada por Fondo de Cultura Económica. México, 1986.

XLVII Las Casas, Bartolomé de: Obra indigenista. Edición de José Alcina Franch. Alianza Editorial Madrid, 1985.

XLVIII López de Gomara, Francisco: Historia General de las Indias. Volumen I y II. Editorial Iberia. Barcelona, 1965.

XLIX López Flores, Manuel: Colón no descubrió América. Editorial Clásica. Madrid, 1964.

L Llanas de Niubó, Renato: El enigma de Cristóbal Colón. Ediciones Marte. Barcelona, 1964.

LI Madariaga, Salvador de: Vida del muy magnífico señor Don Cristóbal Colón. Tercera edición. Espasa-Calpe, Madrid, 1982.

LII Manzano Manzano, Juan: Colón y su secreto, El predescubrimiento. Segunda edición. Ediciones Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1982.

LIII Martínez Hidalgo, José María: A bordo de la "Santa María". Publicación del Museo Marítimo de las Reales Atarazanas de Barcelona. Barcelona, 1976.

LIV Mateo, Andrés María: Colón e Isabel La Católica. Consejo Superior de Investigaciones Científicas y Universidad de Valladolid. Valladolid, 1942.

LV Menéndez Pidal, Ramón: La lengua de Cristóbal Colón. Sexta edición. Espasa-Calpe. Madrid, 1978.

LVI Milhou, Alain: Colón y su mentalidad mesiánica en el ambiente franciscanista español. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1983.

LVII Molí, Francesc de B.: Els llinatges catalans (Catalunya, País Valencia, illes Balears). Segona edició. Editorial Molí. Palma de Mallorca, 1982.

LVIII Morison, Samuel Eliot: El Almirante de la Mar Océano. Vida de Cristóbal Colón. Editado por Librería Hachette. Buenos Aires, 1945.

LIX Otero Sánchez, Prudencio: España, Patria de Colón. Editado por Biblioteca Nueva. Madrid, 1922.

LX Palau Vera, Juan: Vida de Cristóbal Colón. Quinta edición. I. G. Seix y Barral Hnos. Editores. Barcelona, 1932.

LXI Parellada, Caius: Colom veng Colombo (La veta naturalesa catalana del descobridor del Nou Món). Editado por Caius Parellada i Cardellach. Barcelona, 1986.

LXII Paz y Mélia, Antonio: Archivo y Biblioteca de la Casa de Medinaceli. Series de sus principales documentos. 1.^a Serie, Histórica. Imprenta Alemana, Madrid, 1915. 2.^a Serie, Bibliográfica. Imprenta de Blass. Madrid, 1922.

LXIII Pérez de Tudela y Bueso, Juan: Mirabilis in Altis. Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Instituto "Gonzalo Fernández de Oviedo". Madrid, 1983.

LXIV Pey Ordeix, S.: Doña Isabel de Castilla y nuestra América. Biblioteca Vulgarizaciones Históricas. Barcelona, 1929.

LXV Porter, José: Los Libros. Editado por José Porter Rovira. Barcelona, 1973.

LXVI Prescott, William H.: Historia de los Reyes Católicos Don Fernando y Doña Isabel. Compañía General de Ediciones. México, 1952.

LXVII Quadrado, José María: Forenses y Ciudadanos. Historia de las disensiones civiles de Mallorca en el siglo XV. Segunda edición. Tipo litografía de Amengual y Muntaner, Editores. Palma de Mallorca, 1895.

LXVIII Ramos, Demetrio: La Primera Noticia de América. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1986.

LXIX Ramos Pérez, Demetrio: Variaciones ideológicas en torno al Descubrimiento de América, Pedro Mártir de Angleria y su mentalidad. Casa-Museo de Colón y Seminario Americanista de la Universidad de Valladolid. Valladolid, 1982.

LXX Revista Iberoamérica. N.º 6. Diciembre 1980 - Enero 1981. Edita: AMEGISA. Madrid.

LXXI Rey Pastor, Julio y García Camarero, Ernesto: La Cartografía Mallorquina. Departamento de Historia y Filosofía de la Ciencia. Instituto Luis Vives. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1960.

LXXII Rosselló Vaquer, Ramón: Documents per a la Historia de Felanitx. Segle XIV Editorial Ramón Lull. Felanitx, 1972.

LXXIII Rosselló Vaquer, Ramón: Els Castellans de Santueri. Segle XI Editorial Ramón Lull. Felanitx, 1971.

LXXIV Rumeu de Armas, Antonio: El "portugués" Cristóbal Colón en Castilla. Ediciones Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1982.

LXXV Rumeu de Armas, Antonio: Hernando Colón, historiador del Descubrimiento de América. Instituto de Cultura Hispánica. Madrid, 1973.

LXXVI Rumeu de Armas, Antonio: Hernando Colón, historiador de América. Real Academia de la Historia. Madrid, 1970.

LXXVII Rumeu de Armas, Antonio: Nueva luz sobre las Capitulaciones de Santa Fe de 1492 concertadas entre los Reyes Católicos y Cristóbal Colón. Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid, 1985.

LXXVIII Santaella, Rodrigo de: El libro de Marco Polo anotado por Cristóbal Colón. El libro de Marco Polo versión de Rodrigo de Santaella. Edición, introducción y notas de Juan Gil. Alianza Editorial. Madrid, 1987.

LXXIX Sanz, Carlos: La Carta de Colón anunciando el Descubrimiento del Nuevo Mundo. 15 febrero - 14 marzo 1493. Impreso por Gráficas Yagües. Madrid, 1961.

LXXX Sanz, Carlos: Bibliografía General de la Carta de Colón. Editado por Librería General Victoriano Suarez. Madrid, 1958.

LXXXI Sanz, Ricardo; Olmo, Margarita del y Cuenca, Emilio: Nacimiento y vida del noble castellano Cristóbal Colón. Edita, Nueva Alcarria. Guadalajara, 1980.

LXXXII Schoch y Pereira de Castro, Luis: ¡Descubrir al Descubridor! Ediciones Ordoñez. Madrid, 1971.

LXXXIII Suau Alabern, J.: La tesis mallorquina de Cristóbal Colón. Segunda edición. Ediciones Cort. Palma de Mallorca, 1978.

LXXXIV Sureda Blanes, Josep: Episodis de la Historia. Ramón Lull i l'origen de la cartografia mallorquina. Rafael Dalmau, Editor. Barcelona, 1969.

LXXXV Taviani, Paolo Emilio: Cristóbal Colón, génesis del gran descubrimiento. Volumen I y II. Instituto Geográfico de Agostini. Novara, 1974. Editorial Teide. Barcelona, 1977.

LXXXVI Taviani, Paolo Emilio: Cristóbal Colón, génesis del gran descubrimiento. Instituto Geográfico de Agostini. Novara, 1982. Editorial Delta, Barcelona, 1983.

LXXXVII Testamento y codicilo de Isabel la Católica. Ministerio de Asuntos Exteriores, Dirección General de Relaciones Culturales. Madrid, 1956.

LXXXVIII Ulloa, Luis: Butlletí del Centre Excursionista de Catalunya. Volumen XL. Barcelona, 1930.

LXXXIX Ulloa, Luis: Cristofor Colom fou cátala, La veritable gènesi del Descobriment. Editado por Llibreria Catalonia, Barcelona, 1927.

XC Ulloa, Luis: Noves proves de la catalanitat de Colom. Les grans falsetats de la tesi genovesa. Editado por la Librería Oriental-Americana. Maisonneuve Frères. París, 1927.

XCI Várela, Consuelo: Cristóbal Colón. Textos y documentos completos. Alianza Editorial. Madrid, 1982.

XCII Verd Martorell, Gabriel: Cristóbal Colón y la revelación del enigma. Segunda edición. Editado por Gabriel Verd. Palma de Mallorca, 1986.

XCIII Verdura, Nito: La verdad de un nacimiento, Colón ibicenco. Kai-deda, Ediciones, Madrid, 1988.

XCIV Verlinden, Charles y Pérez-Embid, Florentino: Cristóbal Colón y el descubrimiento de América. Ediciones Rialp. Madrid, 1967.

XCV Vespucci, Amerigo: Cartas de viaje. Alianza Editorial. Madrid, 1986.

XCVI Vespucio, Américo: El Nuevo Mundo, Viajes y documentos completos. Ediciones Akal Madrid, 1985. XCVII Wiesenthal, Simón: Operación Nuevo Mundo (La misión secreta de Cristóbal Colón). Aymá, Editora. Barcelona, 1976.

BIBLIOGRAFÍA PARA LA SEGUNDA EDICIÓN

XCVIII Manzano, Manzano, Juan: Cristóbal Colón. Siete años decisivos de su vida (1485-1492). Segunda edición. Ediciones de Cultura Hispánica del Instituto de Cooperación Iberoamericana. Madrid, 1989.

AURKI-BIDEA

IDAZ-LANAREN ZERRENDA

ORRI-ALDEA

1. ZATIAN.

Egille edo Berd eta Martorell'tar Gabriel'en aurkezpena.....	263
Oarra.....	263
Idaz lan onen aurkezpena.....	264
Zergaitik.....	264
Zelan bizi ziran orduko errege, eleiztar, andiki ta erritarrak, bizitzarako eukezan legezko baldintzakin, eta zelango legeak izan ziran areik ?.....	265-267
Sasikumetasunean jaiotakoaren aurkako legeak.....	267-269

2. ZATIAN.

Sarrera.....	269-270
Nafarroako erregetzan.....	270
IIn Karlos "Txarra".....	270-273
IIn Karlos'en seme/alabak.....	273
Ondorio labur bat lez.....	274
IIIn Karlos "Biotz-Andikoa".....	274
IIIn Karlos'ek euki zituzten seme/alabak.....	274-276
I Blanka Nafarroako erregiña.....	276-277
I Blanka'ren bizi kondaira.....	277-278
I Blanka'k euki zituzten seme/alabak.....	278-279
Edestiko aria osterata.....	279
I Blanka'ren bizitza, Nafarroako erregiña lez.....	279-280
Aragoiko ta Nafarroako errege IIn Juan "Guzurti-Aundiaren" bizi kondaira.....	280-283
Nafartarren anai arteko guda.....	281-282
Aragoiko Jaurkintza.....	282-284
Oarrezko labur baten bidez, emen ikusten dogunak.....	284
IIn Juan'ek euki zituzten seme/alabak. I Blanka'gaz, Gaztelako Enrikez'tar.....	284-285
Juana'gaz, eta euren ezkontzatik kanpo.....	285
Fernandez de Kordoba ta Enrikez'tar Juana.....	285-286
Enrikez'tar Juana'ren zeregiñak erregiña lez.....	286-287
Nafartarren Biana'ko Printzea IVn Karlos.....	287-291
IVn Karlos'ek eui zituzten seme/alabak.....	291-293
IIn Blanka Nafarroako erregiña.....	293-295

Foix'eko I Leonor Nafarroako erregiña.....	295-297
Leonor eta Foix'eko Kondeak euki zituzen seme/alabak.....	297-298
Oar txiki bat.....	298
Aragoiko II In Fernando katolikua.....	298-301
Gaztelako I Isabel erregiñ-katolikua.....	301-303
Juduak, eta itsasoko mapagintzan, Mallorkako ugartean jakiten zana.....	303-306

3. ZATIAN.

Oar-txiki bat.....	306-308
Nortzuk izan ziran Kolon'tar Juan eta Kolon'tar Margalida ?.....	308-310
Itsas-Lasterkari ta Itsas-Lapurrak.....	310-311
Kristobal Kolonen bizitza.....	311-317
Oar txiki bat zati onentzat.....	317
Edesti onen aria ostera berrezkuratuta.....	317-325
Eta emen oar txik bat.....	325

4. ZATIAN.

Lenengo itsasaldia.....	325-334
Bigarren itsasaldia.....	334-338
Irugarren itsasaldia.....	338-346
Laugarren itsasaldia.....	346-349
Kolon'tar Kristobalen azkeneko oñaze edo nekeak eta beren eriotza.....	349-351

5. ZATIAN.

Lan guzti onen ondorioa.....	351
Sarrera.....	351-352
Oar-txiki bat.....	352
Gaurko menpetasunezko joko zitalaren sorbide edo iturburua.....	352-353
Kolon'tar Kristobal, bere izaeraren jakineza.....	353-354
Euskalerruari begira.....	354-355
Zer egin ?.....	355
Gazteari zer esan ?.....	355-356
Nire aldetik ibili dodan bibliografia.....	357
BERD eta MARTORELL'tar GABRIEL'en BIBLIOGRAFIA.....	357-362
Berd eta Martorell'tar Gabriel'en 2garren irarkaldikoaren bibliografia.....	362

Atutxa'tar Paul

“IZADIA ZAINDU”
“EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN”
eta
“EUSKAL EDESTIA”

AURKEZPENA.

Munduan eta Europa onetan batez be, asko dira maltzurrezko jokoan dabizenak, euren norkerizko asmakuntzak garaipendu dagien eta Bereztasunezko legearen aurka diran lez, or sartzan gaitue guri, Euskalerra ezereztutea gure dabelako.

Erreza ez da izango Euskaldunak bizi egin gura dogulako eta geiago, gure arbasoak Jainkoari begira gai bizi oneri emon eutsen adierazpen ederragaz zor aundiak daukaguzelako.

Jainkoak, Nor izateko bialtzen gaitu gaitasun onetara eta gure arbasoai esker, gure nortasunezko sinismenak bereztasunean sustraituta dagozan lez, gaitz izango da JAINKO-ARI ta ARBASOAI uko egitea.

Olazar eta Uribetar Martinek agindu eustan lan onen mamia azaldu dagidala eta al dodazan alegiñak egingo dodaz, solas itzaldi onetatik arrazoiz beteta pozik urten daigun.

SARRERA.

Jaungoikoak, gure arimak gaiezko bizitz oneitara bialdu ebazanean, Berak ipinitako gai legeen artean ezarri ebazan eta guretzat ez gendun ezagutzen bizitza izan zalako, urduritasunezko bildur aundiagaz asi giñan egokitzen.

Aize, lur, ur, egazi, suge, narrazi, arrain, abere eta lorategi eder oneitan sartuta, laster konturatu gintzazan ardura izan zala bizi onek eskatzen euskun aurreneko ardatza eta beartuta geratu gintzazan jakintzaren antolaketakaz arduratzeko.

Gaitasun onen legeak beartuta egiten genduzan gauza guztietan bizitzan irauteko, laster konturatu giñan, len, neurria zala arduradun nagusia, eta gizatasunarentzat or asten dira iker-lanak, daukaguzan jakitasunezko egarriak asetzeko, gaur arte eta gaurtik aurrera noz arte izango dan jakingabe: zergaitik itaun gure jakintza entseguz edo oarrez⁽¹⁾, azturazko bidean⁽²⁾, garaipendu daiten.

Orregaitik, bizi onen asiera eta gaurko denboratan, jakintzagaz bakandutasunezko aztura bidean erreztasun aundiak lortu, aukera arloetan neurri bardiñean gagoz, bakandu bear doguzan ditekeenak edo izan gaitasunetik beste ainbeste aurretik agertzen diralako, Jainkoak ipinitako legeen oldozmenean antza, Berak bereztutako legearen elburua betetea gura daualako, orekan bizi gindezan.

Bigarren: Bizi onen bearrezko ta etenbako egitarau ekiñaldietan, danon ordezkartizan eskubide bardiñak daukaguzalako, gure gizatutako arimak, baita⁽³⁾ garbi baten eta poz aundiz agertu gindezan, ondorio lez beste garrantzi aundiko irudi bategaz estutu egiten gaitu, bizitzan bear dan ardatz nagusiaren Lotsagaz.

Au, Izadi onen ardatz nagusia biurtzen jaku.

Oiñarrizko ardatz oneitatik askatasunezko irudia bakarrik geratzen jaku aurkezteko.

(1)Entzeguz edo oarrez=método empírico. (2)Aztu-razko bidean=crecimiento sapiente. (3) Baita = conciencia

Askatasunaren Irudi au, ez da: Jainkoak emon euskun agindu bat, gure Arimaren Baitari aukerea emotea baiña, gure ekiñaldiko gauzak on edo txarrezko bidetik egin daiguzan.

Orregaitik, nor beren eta danoren giza barrenean, askatasun osoko egikeragaitik agertzen dana: gauzak on bidetik edo berezko legean egiten doguzanean nor beren sendimenduzko baita garbi ta pozez beterik agertzen da. Eta gauzak maltzurkerizko txarbidetik egiterakoan, norberen baita damu aundi baten, ezeren askatasunik gabe, menderatuta agertzen da.

Jaungoikoak bere bereztasunezko lege aurrean, giza barrenaren minkortasunezko sentimentu orregaz bialtzen gaitu gaiezko lorategi eder oneitara, eta zoriontsu edo oso txarto sentitzen gara danok, zuzentasunezko gauzak zeintzuk diran jakiten dogunean, txarto egin ezkeru.

Gizon emakume batzuri, diruaren lillur deiak gaiñezka egiten dautselako baiña, gaiezko izadi oni danok nor izanda emon bear dautsaguzan adierazpenetik ta nortasunaren baitan gaitz eginekoak emoten dauan damuari jaramon egin gabe, euren sasi norkerizko ziñezkintzakaz, giza eta errigizarteak bereztasunaren legezko jakintzan nastatu egiten dabez, ta mundu onek emon bear eban olatubageko itsas edo pakezko iruditik, ikaratutako elefante batek leiargintza⁽¹⁾ baten sartuta egin leuken ondamen irudia emoten dogu.

Deiartari bat (alarmista) nazela irudituko jatzue batzuri.

Nire gizabarren edo baitaren egarriak baiña, zuzentasunaren zentzua eten bako eskaera baten eukinda ta gure Euskalerrri maite onen arrazoiakaitik minduta, ardura orreitan buru belarri sartuta nago.

Enaz edestilaria, ele-jakituna be ez, jakintzaren arlo orreik, euren teknika bidez edo arauz bete bear diralako.

Baiña, lenagoko edesti ziurtasunaren zentzuzko zeaztasun asko batutakoa bai. Orregaitik, errigizartearen edesti ta edestian izkuntzak emoneko toki izenak⁽²⁾ alkarren arteko ulermen baten azalduko dautsuedaz.

IDAZLAN ONEN ZATIAK.

I. ZATIA:

1. Izkuntza eta edesti arloan idazlari batzuren laguntza izan dot.

1.1. Zubiaga eta Legarreta Felix "Origen del Vasceuce".

Beragaz egonda, Gaztelera emon eustazan "Vasceuropeismo versus Indoeuropeismo". Eta Euskeraz idatzita daukan: "Euskara ermeneutika" liburuetatik artuta.

Liburu oneik Internetetik atarateko daukan elbidea:

<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

1.2. Nuñez eta Astraintar Luisek egin eban "El Euskera Arcaico" liburutik. Interneteko elbidea: **www.txalaparta.com**

1.3. Euzkadi Online: "LA PRIMITIVA LENGUA DE LOS ANTIGUOS EUROPEOS" Interneteko elbidea: **email@Euzka-diOnline.com**

(1) Leiargintza=cristaleria. (2) Toki-izenak = toponimia.

1.4. "TOPONOMIA VASCA EN EUROPA".

1.5. "Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado". Selecciones Del Readers Digest.

2. Europako jakintsuen esanetan Kromañoen denborako giza jakituria eta gaurko giza geneak zelan dagozan.

3. Orren frogagarri batzuk.

3.1. Kromañoi'en Izkuntza.

4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, Zelako jendekuntzagaz osotu eben, ezagutzen ziran Afrika, Asia eta Europako lurraldeak ?.

5. "Munduko Gizatasunaren ETORKI edo GURASO ONDOKO" izatea.

6. Arri Aroan, Euskera'ren mintzotasuna nondik nora egiten zan eta erro bardiñetik sortuak non ?.

7. Mundu zabalean, Euskal Toki izenak eta Itzak.

7.1. Afrika, Asia eta European, Euskal toki izenak.

7.2. Maixu jakintsuak zer esaten dabe.

7.3. Krutwig'tar Federikok esaten dauana.

7.4. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

7.5. Lonbardian.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda eta Ingalaterran Euskerazko toki izenak.

7.7. Kaukasoan.

7.8. Bereber inguruan.

7.9. Boudatar Karl Aleman Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berariskoak zer esaten eban.

7.10. Iriondotar Mikel antropologo edo giza iztilariak.

7.11. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

7.12. Europa, Asia eta Afrikaren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokitu-ta.

8. Europa, Asia ta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokitu-ta edesti aurrean sartu orduko ?.

2. ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo eta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaren edesti laburra.

2.1. Asiaren edesti laburra.

2.2. Ejiptoren edesti laburra.

2.3. Greziaren edesti laburra.

2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta Indoeuropeotarrak ?.

2.5. Zergaitik euren erri aldak ?.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Mauritarrak ?.

5. Bigarren zati onen ondorioa.

- 5.1. Giza leiñuen egokitasuna.
- 5.2. Izkuntza ta toki izenak.
- 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
- 5.4. Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoaren agerkeraren edesti laburra.
- 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarrizko izen on.

3. ZATIA.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak eta erromatar ta latiñaren jaiotza.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

4. ZATIA.

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian errege ta jauntzaren sorkuntzak.
2. Euskalerrian Oraingo Aldia edo ta Berrizte Alditik⁽¹⁾ Frantzian 1.879an egin zan iraulketararte.
3. Euskalerrian iraulketatik gaur arte.
4. Euskereak, zelako irudiagaz itxuratzen dautso Eus-kalerrari ?.
5. EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.

1. IZKUNTZA eta EDESTI ARLOAN EUKI DODAN IDAZLARI BATZUREN LAGUNTZA

1.1. Zubiaga ta Legarretatar Felixek, bere argitaratutako liburuan Origen y desarrollo del lenguaje⁽²⁾ 49n orrialdian esaten dau: Munduko gizarteetan Mintzoeraren jaiioera eta beren azalkuntza azkerazko edestian, Munduko gizaren jendekuntzazko edestia dala bere neurri guztietan.

Orregaitik, Euskerazko mintzoera bat bezala, Izadiak daukazan irudizko eredu nagusietan ikertu eta ipuin bezala adiarazia dala, edesti ta edestiauurre onena, gizatasunagaitik iñoz azaldu, esan, edo kontatu dana.

Maixutasunezko lan ederra benetan Felix Zubiaga ta Legarretak egin dauana. Euskaldun guztiak eta batez be jakitunak irakurri bear leukiena, gure Euskal Askatasunezko Demokrasiaren sinismenean sendotu daitezen eta European erakutsi, bera dala orain be asieraren “izar”ezko argibide onena, izadi onen giza, zentzutasunezko “orubean” eseri edo kokatu gaitazan.(orubean emplazamiento de ORU = SOLAR+ be = bajo).

Arriaro berriko berbea, Griegoen ots izti edo fonetikan *orube* = *europa*, solar europeo esangura dauana.

Felix Zubiagak, bere “Vascoeuropeismo versus Indoeuropeismo” 56 orrialdeko IIIIn zatitik datorrena, liburuaaren 49n. orrian: “izen jakintza (la Onomàstika), jakintzaren oroimena”⁽³⁾: An, Utu, Ra, Ilu, Ka, Ba eta As en eredu nagusiren⁽⁴⁾ izkin bateko berbak

(1) Berrizte-aldetik = desde la reforma. (2) Según el vascuence.(3)Jakintzaren Oroimena=memoria sapiencial.(4)Eredu-Nagusiren = arquetipos.

aztertu ta argitutako amaieran ondorio lez esaten dau: "Izkin-bateraño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza batek, jatorriz edo sortzezko izkuntza dala". Izkin bateraño eltzea, eredu nagusiren ozenezko⁽¹⁾ iturria argitzea dalako berberaren mintzo edo abots sorkuntzan. Eta Euskerea, al dalako izkin bakarreraiño eldu, orain ezin da esan alderatzailleak⁽²⁾ esaten daben antzera, "Euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala".

Mintzoeraren oguzpeneko⁽³⁾ jaiokeran, bera dalako berezko aitortzaille.

Orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan "IZKUNTZ BAKARRA".

Euskereak, inguruan daukazan oraingo eta esaten daben jatorrizko diran mintzoerak baiño obeto ezagutzen dau beren jatorritasunezko edestia.

Bere esangura, mintzotasunezko gorputz guztiaren alkartzezko itzaren antolakuntzan, ta entzutezko abotsetan, irarrita daukazelako.

Zeruko⁽⁴⁾ eredu nagusiaren antzezko⁽⁵⁾ zuzentasunetan "Izadi-iztia"⁽⁶⁾ dalako, gizadiaren jakintzan "gogo-iztia"⁽⁷⁾ ta "gizadi-iztia"⁽⁸⁾ da, bai dirdaitasunezko gogarketa⁽⁹⁾ gizartearen eredu nagusiaren antzezko zuzentasunetan eta teolojia da, oneik zeruko eredu nagusiagaz bat egiten dabenean.

Euskereak, Sumerioen izen jakintzazko irudimenaren eredu nagusiko arlo aundietan eta gramatikan be esku artzen dau, Ugarit ta Ejiktoren azturazko jakintzagaz jazten joan zalako.

Izkuntz edo mintzoeraren trebetasuna ipuiezko asmamena⁽¹⁰⁾ da, baiña eredu nagusian berba barrien jaikunezko kokamenaren⁽¹¹⁾ trebetasuna be bai, aiek ez dabelako galtzen abotsik, antolamenduzko zentzurik, ez aintzintasunik, bieri oso osoan aurreratuazota burutakizun barrien artu emonetan.

Izkuntz edo mintzoera gintza baten lojikak, mitolojia beste balio dau, biak alkartu egiten diralako gaiezko Izadi onen antolakuntzan eta Arri Aro Barriko gizonen oldozmenean.

Berbea, esan/izaneko⁽¹²⁾ elburua bete dagian, atsegintasunezko ardura aundiz zaindu zan beren oiturazko arau zaletasunean.

Dana, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokitzeko, eta oroimenaren atzerakadarik ez daiten egon.

Bere galduerak, danoen oarkabeen atzerakada galanta egin ebalako, ele jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dagoanagaz bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabe-tasunean dagozelako.

1.2. Nuñez ta Astraintar Luisen: "El Euskera Arcaico" (extensiòn y parentescos) libu-rutik be bai, zeaztasun batzuk artzen dodazalako.

1.3. Euzkadi Online: "la primitiva lengua de los antiguos europeos". Interneteko elbi-dea: email@Euzka-diOnline.com

1.4. "TOPONOMIA VASCA EN EUROPA".

1.5. "Gran Diccionario Enciclopedico Ilustrado". Selecciones Del Readers Digest.

(1) Ozenezko = sonoro. (2) Alderatzailleak = comparatistas. (3) Mintzoaren oguzpeneko = pronunziaciòn articulada. (4) Zeruko = divino. (5) Antzezko = analogias. (6) Izadi-iztia = cosmologia. (7) Gogo-iztia = almapsicòlò-gica. (8) Gizadi-iztia = antropologia. (9) Dirdaitasunezko gogarketa = meditaciòn refleja. (10) Ipuiezko asmamena = imaginaciòn mítica. (11) Jaikunezko kokamenaren = engarce ritual. (12) Esa/izaneko = decir/ser.

2. Europako jakintsuen esanetan, Kromañoen denborako giza jakituria gaurko gizajeneak zelan dagozan.

Elisabeth Hamel, berrien idazlea; Theo Wennemann, germaniar ele jakintzaren mai-xua, eta Peter Foster, Kanbridgeseko ikastetxe nagusian jenetikaren irakaslea diranak eta irurak bat eginda, auxe da baieztatuten dabena (leen Wilhelm Humboldt elejakitun edo izkuntzalariak eta orain beste jenetista barri batzuk be bardiñ esaten dabena): “Europaren oiñarrizko gizartean edo jendearen jenetan euneko zenbakitik, irurogeita amabost Omo Sapiens, Kromañoi edo Euskaldunak dirala eta euren oiñarrizko izkuntza Euskerea zala”.

3. Orren frogagarri batzuk.

Homo Sapiens Afrikan sortu eta ugarituta, WURM deritxon azkeneko izotzaldia urtzen asi zanean, orain K.a. 14.000 9.000 urte Magdalenienese eta Azilienese, gorengo Paleolitiko edo arri aroko denboran Europatik zabaldu eta erritu egin zan.

1.868an Frantziako Ego Sartaldean Dordoñako lurraldeetan Perigoreko errian dagoan Kromagnon aitzuloan, Goi Arri Aldiko asieraren giza azurrak aurkitu ebezan: Gizon zaar batenak, adiñeko gizon bi, emakume bat eta aurtxo batenak.

Danak buztin gorriagaz margoztuta, zirgillo edo beso ta samako estunakaz⁽¹⁾ eta saretxo edo xirristak itsas maskorrakin aristatu edo ondozkatuta egon ziranakaz apainduta.

Eta giza-azurrak geiago: Frantziako beste lurralde batzuetan, Txekoslovakian, Erdi Ugarte onetan, Alemanian, Suezian, Italian eta Polonian be aurkitu ziran.

Gizaki onen buru azurrak, gaur daukagun giza itxuraren bardiñ antzekoak ziran eta eroaten ebezan apainkeriak, bilbe⁽²⁾ aundikoak zirala esan eben.

Oneik dira Kromañoen giza esan dautsoenai eta Europaren arbasoak.

3.1. Kromañoien IZKUNTZA.

Gaur, jakintsuen esanetatik dakigu, Homo Sapiens edo Kromañoi denboran, euren arteko ulermenean egokitze, sorkuntzazko asieratik jakintzazko azturan oituratzeko euki eben izkuntza, “len ereduko euskerea” zala Atlant Itsasotik Indiaraiño.

Iñorentzat ez leuke izan bear sinis-gogorkeri-bat, Homo Sapiens edo Euskal Kromañoi giza izan zalako zabaldu zana.

Besterik, egoan ba?.

Alan dala esan leike. Jakintsuen ikerkuntza bidetik, dagozan izkuntz guztien sorkuntza ta senitasunak jakinda, EUSKERE, asikoen sorkuntza baiño askoz aurreragokoa izanda, galdu egiten jakiela.

Afrika, Europa ta Asian orregaitik, EUSKERE, ainbeste argitu leiken tokiaren izenetan aurkitzen da: “Aran, Ur, Ibar” ta abar asko.

Eta mendi toki, lur, ura, aize, eta eurak biziaren ulermenean sartzeko, izendu bear ebezan gauzetan agertzen da.

(1) Beso ta samako estunakaz = pulseras y collares. (2) Bilbe = evolucion

Emen, Euskerearen ziurtasuna zeaztuteko esan bear dogu, goian, Felix Zubiaga ta Legarretak maixutasunezko adierazkizunean esaten dauana: "Izkin bateraiño aztertu egiten dauan mintzoera edo izkuntza, jatorriz sortutako izkuntza dala".

"Izkin bateraiño eltzea, eredu nagusien⁽¹⁾ ozenezko iturria dalako, berbearen mintzo edo abots sorkuntzan".

Eta EUSKERA al dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin da esan alderatzailleak⁽²⁾ esaten daben antzera: "EUSKERA jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala". Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaille, oguzpeneko⁽³⁾ mintzoera jaiokera.

Gaur EUSKERA orregaitik, mintzoeraren jato-rrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan "IZKUNTZ-BAKARRA" da.

4. Homo Sapiens edo Kromañoi gizarte areik, zelako jendekuntzagaz osotu ebezan, orduan ezagutzen ziran Afrika, Asia ta Europako lurraldeak.

Afrikatik mugi aldiak asi ziranean, jakintzaren arloetan: Euskerazko leen Izkuntz ta ekanduzko oitura bardiñ batetik zabaldu ziran zalantzarik gabe ta milla urte asko ondoren jakintzazko azturan, leiñuak auzotasunaren lurraldeko antolamenduan kokatuta geratu ziran bakoitza beren Batzar Nagusiko babespean.

Mundu bizitsu ta aldakor oneitan, ekintzazko arduraren eta berezko denboraren larrialdiko egoeratik babesteko, leenengo ikasten doguna, orekaren egokitasuna da, Izadi onen indarrari, gordin gordiñik aurka egin ezkeru, gu baiño askoz geiago dalako.

Ortik asi giñan sendiko alkartasunetan babesten eta gero auzotasunezko lur leiñuetan Afrika, Europa ta Asiako lurralde guzti orreik egokitzen.

Milla urte askotako aukera orreitan lortu eben orduko leiñuak, gaur oraindiño euskalerririak daukan, euren nortasunezko izkuntzak eta oitura demokratikoak, gure lege zaarretan daukaguzanen antzera.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin eben egin, eta orko bidetik asi ziran berexkatzeten antzeko izkuntz desberdiñetan.

Alan da guzti, nai ta gizarentzat, ekanduan eta oiturazko oiñarri batekoak izanda Mundu zabal orreitan, mendi, aran, euri, izotz, egugiro, lurraren otz-berotasun, abeldi ta lore di antzeko ezberdintasunai, bizi ekintzaren bidez gauza guztiei bereziki izen berexiak emon, aukera barri orrek ez dau nai esan, guztiz banakatu egin zirala, leiñutasunezko auzotasunaren urbiltasunak arremant edo alkar ikusteak zaindu egiten ebazalako.

Gure arbasoak, milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben, eta eurentzat: Aurreko JENDEKUNTZ GALDUA dana.

Baleiteke, baiña Mundu onek daukan gizaren jarraikuntza ikertzeko ez dago ezelako mirari ez antzekorik, nai ta ainbeste antzeko izkuntz eta toki izenaren arrasto eukinda.

Gaiñera, Felix Zubiagak esaten dauan antzera: "Euskerea bere jaiokera argitzen dauan IZKUNTZ BAKARRA DALA".

(1) Eredu nagusien = arquetipos. (2) Alderatzailleak = comparatistas. (3) Oguzpeneko mintzoera = pronunciación articulada. (4) Irabazkoi=interesados.

Esan onekaz, guzurra dala esan leike edestiaren azalkeran gaurko edesti ta izkuntzalariren artean oraindiño ainbeste maltzur ganorabako ta irabazkoi⁽⁴⁾ elementu egotea, guzurtasunezko illuntasunak nastuta iraun egiezan, eta almen guztiagaz ibilten dabizela esaten dotenean, ez dot esaten lengo ta gaurko jakintsu guztiak dirala errudunak. (Naita geienak izan).

Menperatzaille aundi orreik Munduko gizarte eta gauzaren egiakaz sortu eben illutasunezko naasteborrazteko zirriborrotik, eta ekanduz edo berezko jakintzazko oitura onean ibili diran edesti ta izkuntzalariei, denboran euren azterkuntzak luzatu dagiezan, egia dana frogapen edo siñispidearen eragozpeneko eskaeran debekatuta argitzeko, ez bakarrik jakiñezko utsetik asi bear ebezan lan orreik egiten, guzur eta illuntasunezko zirriborro orreik, margoztuaren emanaldi askoko azalaren goialdetik, kontuz eta banaka asi bear ebelako egia askatzen, gero bigarren zatian adieraziko dodan lez.

Norkeriaren maltzurtasunezko guzurrak irabazki politiko biurtuta, ikertzazko lanak euren aurrean aurkezteko, eragozpen aundiagoagaz argitu bear izan eben.

A ta guzti, euren jakituri aundian egindako ikerkuntzazko lan guztiak, ez ziran edozelakuak, goian esan dodan lez, asierako Homo Sapiens, Kromañoi edo leen Euskal egokitasunera, gura nai ez bideratuta geratzen diralako.

5. MUNDUKO GIZATASUNA´ren ETORKI EDO GURASO-ONDOKO IZATEA.

Emen, au da galdetu bear doguna: Zergaitik, Santimamiñe, Ekain ta Altzarriko arzulo edo leize zuloetan marraztuta agertu diran irudiak “Munduko Gizatasunaren ONDOREKUAK” izendatu.

Eta gure artean izkuntz zaar eta ederrena dana, irudi ulermentzeko mintzo berbearen leenengo itz otsak Euskeratik argitu leikezenak eta orregaitik garrantzi aundienekoa izan da “EUSKERA”, ZERGAITIK GIZATASUN ONDOREKUA IZENDATU EZ ?.

Erri legean, edo Demokrazian sartuta gagozela esaten dabe batzuk, baiña sekula ez gara aukera orreitan ezarriko, antziñatik etorten dan norkeriaren zentzuzko maltzurtasunean geiegi kokatuta gagozanen artean.

Laster izan bear dana, Jainkoaren Lege aurrean, txarto egiten doguzan gauza guztiagaitik mugatuta egonda, premiazko larritasun oneri irtenbide bat emon bearrean gagozelako.

Euskaldunak, ez doguz galdu bear aurkezten jakuzan aukera oneik, gure nortasunezko eta ordezkoko ardurak berreskuratu gura ba-doguz.

Orretarako baiña, euskalerriaren askatasunezko elburuari danok batera begitu bear dautsagu, nai ta politikaren ezberdintasun talde kideetan lan egin.

Beti, lelokeri barik, eta buru belarri sartutako ekintzan ! gure arbasoak emon euskuen “Lege Zaarraren” edo erri legezko ⁽¹⁾ zentzuaren ardurean lan eginda.

6. ARRI AROAN, EUSKERAREN MINTZOTASUNA NONDIK NORA EGITEN ZAN ETA ERRO BARDIÑETIK SORTURITAKO EZBERDINTASUNAK NON ?.

Olazartar Martinek, beti esaten eustan, idazten doten guztia, erabateko zorroztasunaren lanean egiteko.

(1)Erri-legezko = democracia. (2)Erabateko zorroztasunaren = rigor.

Baiña zer esan, adibidez: Zezarek, leenengo aipamenean esaten ba eban, Euskerea Garona ibaitik bera berba egiten zala eta bigarrean Loira ibaitik ?.

Gaiñera gaur jakinda, Eskoziaren ugartean goialdeko Kaledonian Piktoak bizi zirala eta eurak egindako arri landuetan aurkitu diran idatzitako izkiak Euskerazkoak dirala ?.

Arri baten adibidez Piktoz idatzitakoa: “doanna-ta-enakotekaetua” beren irakur agiria: “doana da Eneko t’akaitsua” eta Gaztelera irakurrita: “el que se va es Eneco y la preocupaciòn”.

Eta Piktoak IXn gizaldian Eskozez Keltiarrakaz bat egin ba ziran, nortzuk bizi ziran an Keltiarrak joan arte ?.

Orregaitik, Mundu zabalean gaur agertzen diran sustrai bateko leen Euskerazko toki izen eta itzetan, gero argituko dodan lez, orduan ezagutzen zan Omo Sapiens gizarteetan: “Atlant Itsasotik Indiaraiño ? eta Britaniatik Afrikako zein lekutaraiño ?.

Eta Euskerearen jendekuntz⁽¹⁾ osoa, nik aurkitu dodazan zeaztasunezko zentzutik, Atlant Itsasotik, Belgika, Alemania Italiaraiño mugatuta eta goitik bera, Eskozia edo Britaniatik Kadizeraiño.

Ez da arritzekoa nik emen esaten dodana, itaun gogorak agertzen diralako, adibidez: “Zer ziran Tarteso ta Iberoak Euskaldunak baiño eta zer Keltiar, Sumer ta Etruskotarrak ?.

Nortzuk eta nungoak ote izango ziran Indoeuropeotarrak?: gizaren Nortasuna ta daukazan bereiztasunak, bakotzak bere izkuntza ta bizi dan ingurutik artzen dauana izan ezkerro?.

Europa, Asiaren ego mendebal ta Indiaren ekialdeko iparraldean egon ziranak.

Eta izkuntz oneik, ainbesteko arreman aundiak eukiteagaitik, ele jakitunai burukomin aundiak emonda, euren azpiko bardintasunak izkuntz bakarretik sorturikoak zirala emoten eutsen.

Zelako izkuntzatik baiña ? : Omo Sapiensek euki eban izkuntzatik zalantza barik, orain beste gauza bat esanten ba dabe.

Niri, indoeuropeoaren itz adimugaren gora beran, ele jakintzaren esku antze edo trebetasunean ezer jakin gabe, zentzuzko lojikan egiten nagoen billaketazko lan onetan, nastutako edo zuzenezko ez diran gauza asko agertzen dira, adibidez: Zergaitik Gaztelera eta Katalan izkuntzak, indoeuropeoarrak ?.

Ez ziran sortu biak, erromatarrak ekarri eben Latin eta Euskeraren bitartez ? . Edo, latiñagaitik ?.

Zorro orreitan danak naastuta sartzea baragarria da, gaiñera jakinda, latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren edo Italiako izkuntz baten batetik sortu ebela ta Etrusko izkuntza oiñarrian Euskerearen anai edo antzekoa dala.

Nortzuri esan eutsoen Indoeuropeoak zirala ?.

Nik daukodan iztegiak esaten dau: “Semita, Uralo altaika eta Malayo polinesian beste batzuen laguntzan ondo egokituta egon ziran izkuntzak baiño oso ezberdiñak zirala eta alkartasun orrean mordozkak: “Albaniar, Anatoliko, Armenio, Baltiko, Kelta, Eslabo (Errusitar ta Txekoak sartuta) Germanikoak (Ingeles, Aleman eta Eskandinabiako izkuntzak sartuta), Griego, Indoirano (Sanskrito, Hindi, Persak eta abar), Italiko (Latin eta espainol, fran-

(1) Jendekuntz = civilizaciòn

tzez, italiano, katalan, gallego, judu espainola, Zerdeñako ugartean sardo, Adriatiko itsas baztarretan dalmata eta abar latin kume bezala)".

Eta Indoeuropeoa baiño beste ariñagoko oinkadabat emonda, Arioak nortzuk ote ziran?: Indoeuropeoak baiño ariñago "Asiaren erdian bizi ziran leiñuai esaten eutsen".

Oneik, lur langille ta abelzain edo artzaiak izan ziran, eta ez eben euki, orduan Babilonian, Ejipto eta Sirian euki ebezan oroigarri lakorik eta irakurri ta idazten jakin gabe, euren leiñuen antolakuntza etxegabeko edo erdi alderraiezkoa⁽¹⁾ izan zan.

Ario itzak, indoeuropeoaren erri ta izkuntzak edestian mugatzeko, ez dauka ezelako zentzurik.

1.823 eta 1.900 urte artean Max Müller aleman ele jakitunak izkuntzaren bilbe⁽²⁾ edo aldakuntzak argitaratzeko alegiñean, "ario" itzari ospe ta zabaltasuna emon eutson, beste batzuk, Europak euki ebazan nortasunezko arazo guztiak adierazteko ibili ebena.

Egoera orreik, "nazi" faziztak aukeratu ebazan, Ario itza, ordezko "indogermano" edo "judua ez dan" itzan ulertu daiten, eurak endaren gora beran euki ebazan eziñ ikusiak⁽³⁾, arrazoitasunean ezartzeko.

Begitu ortik aurrera zer egin eben Aleman faziztak Munduko bigarren gudan.

Eta arrazoi au argitzeko, Keltiar, Eslabo ta Germaniar izatasunak azalduta, adibidetu egingo dot.

Nik, danak sartuko neukez keltiar arlo bakar baten, oitura antzeko baten ibili ziralako eta euren izkuntzak alan emoten daualako.

Adibidez: Oso indartsu eta mobikorrak izan ziran izatasun orreik, baiña, alderraiezko e-kiñaldi orreik ez eutselako izten euki ebezan sinispideak sendotzen, orregaitik, nai ta indartsuak eta euren azturan asko ikusikoak izan, ez eben gizabideko⁽⁴⁾ jendekuntzan ⁽⁵⁾ jakintzazko indar geiegirik euki.

Indoeuropeoak jendekuntzazko jakiturian be-maillakoak izan edo eta neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituta askatasunean oiñarrituta egon ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan, ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen.

Eta orduko denboretan, zalantza orreitan kokatuta egon ezkerro, erromatarren antzera, mendeetan azkartasunezkoak ziranagaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europaren berezko erriarteetan, Aleman eta Eslaboak izan ezik.

Azalpen orrek, iru irakaspén argitzen dauskuz:

- a) Milla urte askotako mobikortasun orreik Sinismenetan ez eutsela itzi sendotzen.
- b) Euren arteko izkuntzak zirriborrotu egin ebezala.
- d) Demokrazizko askatasunean erdipurdiko aukera baten geratuta, ez ebela indarrrik euki, menperatzailletasunetik urten eta euren sinismenetan sendotzeko.

Emen Alemanakaz salbuespen bat egin bear dogu, gero Erdi Aroan I Karlosen denboran ta Alemaniatic ekarri ebezan aolkulariak, Nafarroa gaztelarragaitik menderatuta egonda, oneik, Zisnerosek euki eban menperatzaillate batzangotasunezko eritziaren aurka, Nafartar erregeak euren ezar lekuetan ezartzeko aolkua emoten eutselako.

Grezia ta Euskalerrriagaz ez zan gertatu bardin, euren lurraldeetan kokatuta iñor menderatzen ibili barik, sinismenean indartuta geratu ziralako. Baiña azalbide ori, Europaren zezkuntzan ezartzen dalako, beren edestiko lekuan adieraziko dogu.

(1)Erdi-alderraiezko=semi-nòmada (2)Bilbe=evoluciòn.(3)Ezin-ikusiak=antagonismos. (4)Gizabideko=cultura.(5)Jendekuntzan=civilizaci-òn.

Orain indoeuropeo onein artean dagozan asierako Omo Sapiensen itz ta toki izenak aurkezten joango gara.

7. MUNDU ZABALEAN, EUSKAL TOKI-IZENAK ETA ITZAK.

Toki Izenaren⁽¹⁾ zentzua azaltzeko, gure gogarketetan garrantzi aundian euki bear dogu, asieratik gaur arte izen jeografiko batek iraun dagian, izen ori errotu, sendo edo ondo sustraituta egon bear dala toki orreitan, eta ori ez da lortzen, toki orreitan izen orreik milla urte askotako jabetasuna euki ezik.

Euskereak, Neolitikotik asi ta gaur arte ikutubako berbak daukaz, Asia ta Afrikako leen gizarteak euren errekarari eta abar emon eutsezan izenak: Ibai/rio, Ibi/vado, Ibar/rio/valle eta abar. Eufrates ibaia bera deitzen zan Buranu = Urnammu, zeru guztia URA izan zala gogoratzen ziralako: URA = UR+ANU = Agua del cielo.

7.1. Afrika, Asia ta European, erreka, mendi, toki ta erri izenetan ostonduta dagozan sorburuzko edo oiñarrizko Euskal itz asko dira. Orain jakintsuak dabizena argitzen, eta azkar esan leike, lendik eginda dagozan lanak sakonak diralako.

European, erreka askoren izenak, itz bardiñakin emoten dabez euren esangurak ezagutzera, edo euren oiñarriaren sorburuzko itz bardiñakaz bai beintzat.

Susterrezko itz bat "IS" adizkia⁽²⁾ da: "Noruegatik asi ta Italiaraiño, Espainatik Errusiaraiño, ta Bretaina Aunditik Balkanes"eneraiño 200 errekatari baiño geiagotan aurkitu diranak.

Adibidez: Noruegan Iseljorden edo Isa Italian. Errusian Isainka edo Ieslà Lituanian. Txekiako Errepublikan Jizera edo Ijssel Beko Errietan⁽³⁾. Euskeran Iz berbea S lez esanda: URA edo UR lasterra esangura dau.

Izen itzak, era bardiñetan agertzen dira ur (aur), var (ver), sal (salm) edo al (alm). Ur itzak ur geza⁽⁴⁾ edo ur gazi⁽⁵⁾ esangura dau, eta URA ur tira edo ur lasterra⁽⁶⁾.

AL eta SAL itzentzako be, esangura bardin antzekotan babestu edo zaindu dira, danak batera, Euskerazko Izkuntza aldi baten, oso zabala izan zala erakusten dabela.

Izen onein esaerak, beste ainbesteen artean, adibidez: Noruegan URULA, Bretaina Aundian IRWELL, Beljikan OURTHE, Alemanian AUERBACH, UR-BACH, AURACH, Austrian IRRSEE, Frantzian lenago UROFIA izan zana eta gaur AROFFE eta HURIEL, espainian URURA ta UROLA, Polonian URWIS, Errusian URA eta abar.

Alemania'n VAR adizkia daukien izenak: Warne, Werre, Warmeno, Warme Aue dira.

SAL adizkia dauken izenak: Saale, Sale, Selz (Salusia), Selke (Salika).

Eta AL adizkiarekin: Aller, Alm, bi Alme, bata Alman eta bestea Almara, Ahla, Elte (Alantia) eta Elz.

Erdi Ugarte onetan, besteen artean izen oneik agertzen dira: Alba, Alenza, Almar, Almanza, Almonte, Almantas eta abar.

(1) Toki-izenaren=topònimos. (2) Adizkia=elemento berbal. (3) Beko-errietan=-Paises-Bajos. (4) Ur-geza = agua dulce. (5) Ur gazi=agua salada. (6) Ur-lasterra= corriente de agua.

Lenagoko izkuntzaren izenak be, oiñarrizko itz orreitatik etorri leikez, orduko gizarteen leiñuak, errekek edo lurraldeak euki eben alderdi eder baten berezitasunetik, izenak artzen ebezalako.

Erdi Ugarte onen Iparraldean, Erromatarrak IBERUS esan eutsoen Ebro ibaiari.

Ebro erreka onen luzera guztia, bere urak Lurrarteko Itsasoan bota arte, danak Euskeraz berba egiten eben lurraldeak ziran. Eta izkuntzalariak ez eben bearko burutasun aundirik egin, Euskeraz IBAI errekea dala esateko eta IBARRA errekeak bere urak itsasoan botaten dauazan IBAR zelaiari.

Guadalajarako erria, Segobia, Soria, Zaragoza⁽¹⁾, Teruel, Kuenka eta Madril erriengaitik mugatuta dagoena, euki eben antziñako izena ARRIAKA izan zan.

Erromatarrak etorrira, Toledotik aldatzen zan Zaragoza Meridaraiño egin eben bidea, Arriaka ibaiaren albotik igaroten eban eta Mauritarrak etorrira Guad ilhijarahren (euren izkuntzan arriaren erreka esangura dau) izena ipini eutsoen, gaur eurengandik datorren Guadalajara izenagaz ezagutzen doguna.

Ernest Försteman Alemanak (1.822-1.906) Germaniar eta Amerikar izkuntzalariak XIXn gizaldi erdian toki izenen azterketan ibili zala: Errekaren auntsiñako izenak, Leunkatubako⁽²⁾ Bitxiak zirala esaten eban.

7.2. Vennemanntar Theo, germaniar ele jakintzaren maixua (catedratico), Fostertar Peter, Kanbridgesgo Ikastetxe Nagusian genetikaren irakaslea ta Hameltar Elisabeth berrien idazleak esaten dabena:

Ebersberg erria, Babieraren goi aldian Ebrach ibaiaren ondoan kokatuta dago, aurreratsuago basalde zabal, abartsu edo ta oiantsua daukana eta Erdi Aroan Eberesperch edo Eparesperc izena esaten eutsoen.

Uri orren izena esan leike, basarte orreitan eizarako egon zan ainbat abereen izenetik datorrela (Eber = basurde, bas-auntz edo orein eta Berg = mendi) eta euren armarrarian orregaitik ipinita daukiela basurdearen irudia.

Antza ez da olan baiña, Ebrach izena eredu lez artuta, Ebersberg izena Ibai esan gure daualako eta apur bat estututa Ibai Ibai ipini eutsoen azkeneko ach ori euren Ego aldean dagoan Aleman mintzadar edo izkelki baten IBAI esan gure daualako.

Frantzian, izenak gaiñera ainbat eber'ekin asten dira, nai ta beste izkuntz senditik etorrira doiñu ezberdiñak euki.

A ta guzti, ainbat: Ebreon, Ibarrolle, Evrune, Ivry, Ivors, Averdun, Avricourt, Avrolle, Yvre eta ainbat izen, danak izkuntz baten erro bardiñetik datozenak.

Frantzezez ez dagoz izen orreik, (nai ta Aleman izkuntzan eber basurdea izan) basurdearen izenagaz elkartuko dauzanik, basurdea euren izkuntzan sanglier esaten dalako.

Orregaitik eber izen orrek berak bakarrik erakusten dau: Erri biak, bata besteagandik ain urbil egonda eta itza Euskerearen antziñako jendekuntzaren errotik artuta, erreka edo IBAIA' ren adimuga⁽³⁾ daukala.

Lenago adizkai oneik ez ziralako ondo adierazpenduta egon, Renfrewtar Kolin Ingles arkeologuak, beren adierazpenarekin bidera urten da, esaten eban: Indojermanoak edo erri guztien artean ezagutzen diran indoeuropeoaren izenarekin, berandu etorri zirala eta Europa etorri ziranak nekazarien bardiñ antzekoak zirala, eurokaz Europaren Neolitikoa ego-

(1)Zaragoza=Bere antziñako izena Zalduba zan. (2)Leunkatu-bako = sin pulir. (3)Adi-muga = definicìon.

kituta.

Zatarain'tar Anbrosio aipatu bear dot emen, Euskerea-Aleman-Euskeraz itzultzeko egin eban DUDEN iztegia, askeneko orrazketak berak ezin ebazalako emon, arrigarrizko lan eder ori ametsezko bidean geratu dalako.

Berak aurkeztu euztan itzezko zerrenda aundi bat: idatz eta esan bardiñak euki ebezan Aleman ta Euskerazko itzak, eta damu naz aren bir idazki bat orain ez eukitea.

7.3. Krutwigtar Federikok esaten dauana.

Krutwigtar Federikok esaten dau, Europara indoeuropeoaren aurrekoak etorri orduko, Europa ta Asiaren zati batean, jendekuntz aundi baten, oiñarri bateko izkuntz ezberdiñakaz mintzatzen zirala eta nastu egingo zirala, agertu ziran erri lapur edo sartzailleakaz⁽¹⁾.

Krutwigek, alkarganatu⁽²⁾ egiten dauz Dordofña ta Altamirak euki eben jendekuntza, gero agertu ziran Troya⁽³⁾, Sumeria edo ta Babiloniakoakaz.

7.4. Italian Euskerazko toki izen eta itzak.

Italian, Euskerazko toki izenak: Liguria (Genoba inguruan, IIIIn. Gizaldian erromatarrak menperatu eben erria), Etruria (Arno eta Tiber bitartean egon zan Etrusko erria), Oscia (Erromaren Ego Ekialdeko Kanpanian) egon zan kokatuta Osko erria, (len euskerazko orde izenak Erdi Ugarte onein tokietan dagozenak eta Asturias ta Galizian batez be). Guztiak Sizilia ta Alpesetan dagozenak.

Alpe itza, Euskerazko Arpe (Arpe, aizpe = cobijo bajo la roca, caverna, pie de la peña, concavidad de la roca) itzatik datorrena da.

Alpeseke toki izenak AOSTAN: Artavoz: arta = roca (arkaitz), naba = planicie, otz=fin / Ayas: aia = vertiente, as = de atrás / Arbelei: arbel.= pizarra (ar-bel), ei = punta (egi). / Arieta: Arrieta (arri tokia) / Arroil: garganta montañosa (euskeraz bardin)/ Arro-bi, Arpe, Aran, Arpeta: nido de aguilas (arrano abi), bajo la piedra, Valle y Valle bajo las piedras (euskeraz Valle=Aran da)/ Gane: cima (euskeraz bardiñ esaten da) / Lesache, Lessona, Lezetta: sima (euskeraz: Lezea, Lezona eta Lezeta dira) / Loy: loi (euskeraz: barro, tierra húmeda) / Orio: Gipuzkoako errekea bezala / Oyace: Oiane (selva) / Oren: Orein (ciervo) / Eta abar.

7.5. Lombardian: Izen asko dira ATE'an amaitzen diranak eta Euskeraz ainbat dagoz esangura bardiñakin: puerta, paso esan gura dabe. / Albizzate, Alzate, Lazate, Velate, Lurate, Lainate, Azzate, eta abar.

100 kilometrutan 200 izen baiño geiago dagoz.

Elexpururentzat: Iru lurralde dagoz euskal-izen oneik argi erakusten dabezanak. Aundiena: Piamon-teren Iparraldea (italieraz PIAMONTE=ARPE=al pie de la montaña, Euskeraren antzera Auñamendi lez (al pie de la montaña) eta Oñamendi Pirineosen Euskerazko izena. Lombardia eta Aosta (Milan eta Milaneko Iparraldean) eta Suizan, Ticino edo Tesinoko erri aldean.

(1)Sartzailleak=invadores.(2) Alkar-ganatu = relacio-nar. (3)Euren ariñagoko izena Ilton izan zan Eus-keraz ili = iri, Uria esan gura dau.

Eta esan doguzenak baiño, geiago be badagoz: Azasca, Andrate, Aranno, Artore, Arbedo, Arese, Arizzano, Arona, Arola, Arrobio, Arzo, Ascona, Balzola, Barasso, Bettola, Biasca, Gabiola, Gauna, Gazza, Gordola, Landarenca, Lesa, Oria, Ossola, Zubiena, etabar.

Liguria lurraldean, batez be Savona inguruan eta bere Iparraldean (Genobatik urbil): Aiona, Albissola, Ardola, Berri, Carcare, Olano, Orba, Ormea, Sabona, Varezze, etabar.

Ladinian (Tirol ta Trentotik ur): Agordo, Andraz, Arabba, Ardo, Arta, Gardena, Gares, Lasa (tirol), Maia, Mendola (Trentino), Padola eta abar.

Milanetik, erreka bi aldatzen dira: Lambro (euskeraz niebla esan gura dauana) eta Olona (avena´ren lurraldea ?)

Frantziagaz muga egiten dauan UBAYE errekea / Ladinian: EGA ibaia / Dolomitaseko mendietan: Bai de dones´eko aintzira edo ur geldia. Aiarnola, Arlas, Arblatsch (Tz doñuagaz), Atalalta, Cima de Gana Bianca (euskeraz bardin), Ormea, eta abar, Alpeko mendiak dira.

Aran edo Ibar asko dagoz –ascaren amaieragaz, euskeraz bardin esan gura dauanak: Val di Anzasca, Val di Verzasca eta abar.

Lurralde orrean Izkuntz ta mintzadarren artean be sortzen dira bateratasunak: Asciola = acha (Euskeraz aizkora) / Astore = cernicalo (Euskeraz aztore) / Baita = borda (casa del pastor).

Txistuka esaten diran TZ eta Z geiago dira Euskerarenak orko izkuntz latinoarenak baiño.

Emen, derrigorrezkoa da aitatzea: Alpeetan, Ale-man, Italiano ta Frantzes izkelki edo mintzadarretan berba egiten dala eta bai beste bost edo sei izkuntz geiagotan.

Adibidez: Romance, (Suizan % 0´7, 50.000 giza seme/alaba). / Ladino (aurrekoen mintzadarra dana eta Dolomitasen erdian 10.000 giza seme/alabak berba egiten dabena. Friuli (Austria, Eslovenia eta Italiaren muga 500.000 giza seme/alaba). / Occitano (Piamonteko lurraldean 200.000 giza seme/alaba). / Esloveno (Piamonterren mugan, Trieste eta Gorizian 80.000 giza seme/alaba).

Alpes eta Kaukasoren gertakizunetan ikusten da, mendi andien babesean izkuntz geiago bizi dirala eta euren nortasunak obeto zaindu.

Alpes eta Euskal mitologian be, antzeko gauza asko daukiez artean.

Italian beste toki izen batzuk: Ligurian: Venasca. / Genovan: Benasco / Pavian: Beaschi. / La Chapelle: Benêche. / Vaocluse: Venasque. / Napoles ta Kampanian: Ausona ta Liberi. / Salermon: Orria. / Potenzan: Anzi, Abriola, Banzi eta abar.

Siziliari buruz, garrantzizko gauza da, 25etik 101era bizi zan Silio Itoliko olerkariak esan ebana: Siziliako alor edo soroak⁽¹⁾ leenengo landu ebezanak Oñamendi edo Pirineose-tik bera joan zirenak zirala eta euren lurraldearen erreka aipatzea bearrezkoa izanda ezagutzan ulertu dagien Zicanos zirala esan eben.

Zikano berbea, baleike Oñamendian⁽²⁾ dagon Zinka ibaiaren izena izatea. Ez dagoz ziurtasun guztiagaz.

7.6. Eskozia, Gales, Irlanda ta Inglaterran Euskerazko toki izenak (Kromañoien ezurrezko ondar asko dagozan tokiak direnak).

Zalantza aundiko berbak dira: -barri edo Berri adizkietan amaitzen diranak.

Landa berbea adibidez (nai ta Keltiar berbea be ba dala gogoratu) edo Irlandan Gara ibaia.

Eskozia eta Irlandaren meaguneko lurretan: Carrick berbea (Karr=piedra) edo Scoth (-sk doñuan, eusko, ausko edo basko lez) ta Glasgow (gasko doñuan).

7.7. KAUKASO'an: Zalantzazko berbak eta sinisgabekeria artu bear diranak dira Georgian adibidez: Gorbeya (Bizkaia ta Araba bitartean dagon mendi ederra lez). Eta Armenian: Ararat mendia (Araba, Gipuzkoa eta goi aldeko Nafarroaren bitartean dagoan Aralar mendi eta edo mendi besanga lez). Edo Gora (lurralde orre in izkuntzan Montaña esangura dauana eta Euskeraz Arriba).

7.8. BEREBER inguruan: Zalantzazkoak dira: Magdalenense garai alditik datozen berbak "-barri" abotsean amaitzen diranak, adibidez: Sugabarri, Zuchabarri (Ptolomeo) edo Succbar (Pliniok). Eta beste batzuk, euskal toki izenak osotzeko ekarten dauan adizkiakaz⁽³⁾, adibidez: -Gar)a (altura): Garb, Garian, Gardaya eta abar".

7.9. Karl Bouda Aleman (1.901ean Anburgon jaioa ta 1.979an Erlangen il) Euskalaria eta Errusiaren izkuntzan berarizkoak (especialista) esaten eban.

Euskerea eta Siberiako izkuntz artean, urbilleko abotsak aurkitu edo argiratu (descubrir) egin ebazala: Argi ta Yrgi (luz) berbaren artean bezala, Bele (cuervo), Lepo (cuello), Gurdizka (carreta), Elur lera edo Elur narraren (trineo) artean adibidez.

Eta berarizkoen (especialistas) artean esaten dabe: Euskerea ta Uraleseko izkuntzarekin: Fines, Ungaro eta Siberiako Obi ibaiaren ibarrean bizi diran errien fino edo sendi ugriara

(1) Alor edo soro'ak = campo de cultivo. (2) Oña-mendian = Pirineos. (3) Adizkiakaz = elementos verbales.

(Uraletako izkuntz ugarien artean adar nagusia dana), Suomiera (Finlandiako erriaren izkuntza), Laponiera, Ungariera ta abar Ostia´ren izkuntzakaz, kidetasuna dagoela.

Mixel Morban, Timo Riiho eta Maria Teresa Etxeniketik be ikertu ebezan ditekezen orreik eta iztegiko zenbaketari bidearen emonak beti izan ziran %tik 5 baiño gitxiago.

A ta guzti euren esana: Euskerea, Uralo Altaiko izkuntzakaz senidetuta dagoela da.

7.10. Mikel Iriondo antropologo edo giza iztilariak.

Amerikan Journal Physikal Anthropology aldizkarian esaten dau (2.003an Urrillaren 13an Diaro Vasco´k batu ebana): Euskaldunak Europeoakin, naiko berezitu egiten dirala.

Bere eritzian, orube (asentamiento) edo lur jabetasun orreine lenaldi edo antziñatasuna adierazten dau.

Eta azaldu leiken gauzea dala: Europeoak, Euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 5.000 edo 7.000 urte Ekialde Erdetik erri aldan etorri ziran lur lantzaille edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Teknika edo trebetasun orreik Euskalerrira, geiago eldu ziran Jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño.

Eta orren itzulpena: Euskaldunak jendekuntz ta izkuntz jakitean, European Indoeuropeizatuta ez gagozan azkeneko bakar lekukoak garala esan nai dau.

Mikelek eritzi au nabarmentzeko: Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo bestegana-koa⁽¹⁾, Ludi onen gizakumeari zeozer bereizgarritzen badautsoelako, artean nastutako trebetasun edo gaitasuna dalako. Eta euskalerritik, europatik bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

7.11. Gandiak idazle edo asmalari Arjentinarrak.

Geiago esaten dau: Euskalerrira, Europako erri zarrena dala. Bere izkuntza: Kaukasotik Atlant Itsasoraiño eta Afrikatik Europaren Iparralderaiño Paleolitiko ta Neolitiko garai artean berba egiten zala. Eta Ario edo indoeuropeoak, Etrusko, Ibero eta antxiñako edo lenaldiko beste erri batzuk, Euskaldunak baiño geroagokoak dirala, baieztatzen dau.

7.12. Bigarren zatian, Europaren gizarte auziko (cues-tiòn social) edestian sartu orduko, a-urkeztu daigun: Europa, Asia eta Afrikaren gizarteak, zelako antolamenduan geratu ziran egokituta.

Pleistozeno aldia: 2.000.0000 1.800.0000 urtetan asi eta orain 11.000 urte amaitu zala.

Paleolitiko aroa: Iru alditan banatzen da: Be Paleolitikoa K.a. 1.000.000 urte inguruan asi ta, 150.000 urte ingururarte.

Erdi Paleolitiko aroa: K.a. 150.000 urte ingurutik 40.000 urte ingururarte.

(1)Bestegana-koa=relativo.

Eta Goi Paleolitiko aldia: K.a. 40.000 urtetik 9.000 urte ingururarte.

Oso luzea izan zan aroaldi au eta bitartean ainbat giza seme bereziko mota sortu eta galdu ziran, orain 30.000 urte Omo Sapiens agertu arte.

Mesolitiko aldia: Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa da eta Europaren edesti aurreko aroa, orain 10.000 urte ingururarte.

Europa aldi orreitan, ainbat epeldu zan eta Omo Sapiens giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zan.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki edo Brontzezko aldiaren artekoa da.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zan eta orren ondorioz bizi leku tinko edo iraunkorretan asi ziran bizitzen eta len iriak sortu ebazan.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen eta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Neolitiko aldia Ekialde Urbillean, orain 9.000 urte asi zan eta Europan 6.000 urte inguru.

Omo Sapiens: Afrikan sortu zan eta leen euki eben izkuntz ta euren jakintza oituratzeko ekanduzko oiñarri bidetik asi ziran Asia ta Europatik zabaltzen, Würm deritson izotz aldian.

Kromañon giza eta euki eben leen-izkuntza: Frantziaren Dordoñako erri inguruan (Tursac) Eyzies-de Tayaken Madeleineko arpe edo aitzuloan⁽¹⁾ aurkitu ziran orain 30.000 urteko Kromañon gizaren azurrai esaten jako.

Kromañon giza onek, jakin eban otzari aurre egiten eta bera agertu zanean aurreko Neandertalak euren artean ezereztu egin ziran eta sortu zan giza mota au izan zan Asia ta Europatik zabaldu zana gaur arte, bere leen Euskerazko izkuntz azturan.

8. Europa, Asia eta Afrika, zelango antolamenduan eta izkuntzarekin geratu ziran egokituta edesti aurrean sartu orduko.

Ikusi dogu, zelan aize ta lurraren giroak epeltzen joan ziranetik, janari billa aurrerakuntza aundiak emon eutsoezala, zitu, bii, ale edo Fruituak ugari artzen asi ziralako.

(1)Ortik dator Auriñaciense edo Magdalenense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense ta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdalenense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsoelako

Orregaz batera, euren denborak be nasaitzen asi jakiezan, giza legean aurreratzeko eta bear ebezan arri landuak trebetasunean egokitzeko.

Dana dala, leiñuak auzotasunezko lurraldeetan antolatuta geratu ziran, bakoitzaren bazarrarekin ta izkuntzan Atlant Itsasotik Urruneko Asiaraiño, Europaren Iparraldetik Afrikaraiño, eta orduan lurrak lar zabalak izan ziralako, leen Euskerazko errotik sortutako mintzadar antzeko ezberdintasun baten azkortu ziran.

Au da aurkitu dodazan zeaztasunetatik, ulertzen dodan orduko Europa, Asia ta Afrika-ren auzotasunaren NORTASUNEZKO egokitasuna.

Eta gure edesti aurretik NORKERIETAN asi ta, menperatzaillak Asiatik xirriborrotzen asi zirana, gaur Bizkaiaren ur kolko inguruan ondo murriztuta geratzen dan gure EUSKALERRI maite au izan ezik.

Espainolak ta Frantzezak ezin bestean ezereztuteko alegiñean dabizena, Paleolitiko gizarteak oraiñarte JAINKOAREN BEREZTASUN LEGEAN lortutako ASKATASUNEZKO DEMOKRAZIAK ezereztu gure dabelako, Mundu onen gizarteetan BEREZITASUNEZKO BAITAREN LEGERIK GABE, EUREN NORKERIAREN GAIEZKO ELBURUAK, ERREZTASUN GEIAGOREKIN GARAIPENDU EGIEZAN.

Bai ?.

Bigarren eta Euskalerriko irugarren zatietan ikusiko dogu, ori ez dala izan ditekeena.

2n. ZATIA.

1. Asia, Afrika eta Europako jendekuntzak.
2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Greziaren edesti laburra eta edesti onen ondorioz, Ario edo ta Indoeuropeotarrak egin bear izan eben erri aldaketaren edesti laburra.
 - 2.1. Asiaren edesti laburra.
 - 2.2. Ejiptoren edesti laburra.
 - 2.3. Greziaren edesti laburra.
 - 2.4. Nortzuk ziran Ario edo eta Indoeuropeotarrak.
 - 2.5. Zergaitik euren erri aldák ?.
3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak.
4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarra?.
5. Lenengo eta Bigarren zati onen ondorioa.
 - 5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.
 - 5.2. Izkuntza ta toki izenak.
 - 5.3. Jendekuntzazko garaiak.
 - 5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etruskoen agerkeraren edesti laburra.
 - 5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen ona.

1. Asia, Afrika, eta Europako gizartearen leen jendekuntzak.

Leïñuen auzotasunarena ardurazko antolamenduan ta leen euskerazko izkuntzan egokিতuta egoteaz gain, egu giroaren gozotasunagaitik, goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrerakuntza artu eben, bai ta nortasunezko bidetik alde eginda K.a. 4.000-3.000 urte inguruan norkerietan be asi zirala.

2. Gure edesti aurretik, Asia, Ejipto, Ario eta edo Indoeuropearen edesti laburra.

Mundu onen leen jendekuntzak⁽¹⁾ egugiro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira. Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezkerro Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean. Sumeriako erria, orain K.a.4.000-2.500 urte bitartean. Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, ziri antzeko⁽²⁾ irudiaren⁽³⁾ idazkerea asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre lan edo eta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundia erakusten dabe eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin⁽⁴⁾ ureztatu egiten ebezan, gero Babilonioak aukeratu ebena eta Sargon erregeak menperatuta ezereztuten joan ziran erri lez, ortik aurrera Babilonia sendotzen joanda azturazko jakintzan.

2.1. Asiaren edesti laburra.

Edestiko une onetan azten dira Norkeriaren bide maltzurak. Sumertarrak euren auzotasunezko lurraldeetan bakez kokatuta, aztura edo egitezko⁽⁵⁾ jakintzan jendekuntz aundia artuta, baten baten aunditasunezko irudimenari egoak ipini eutsoezan. Ala eurak izan ziran lenengotik maltzurrezko eritzi orreik bideratu ebezanak ?

Dana dala, Semdarren erri zarretik, K.a. 4.000 urte inguru Mesopotamiaren Ego aldean sortutakoa, K.a 2.600-2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan Akkad'eko⁽⁶⁾ kaizertzaren sortzaillea i-zangurean eta bereala asi zan Sumeriotarren aurka, menperatzeko ale-giñean.

I Sargonek, K.a. 2.025-2.010 urte artean, Asiriatik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaizertza sendotu eban.

Gero, K.a. 722-705 urte bitartean II Sargonek, sargonidaren errege leiñua ezarri edo irasita, Samaria, Isrrael, Ejipto, Armenia, Kaldea eta Babiloniako erri-aldeak menperatzeko alegiñetan ibilita, K.a. 710ean Babiloniako errege egin zan, beren jauretxe edo gaztelua, Niniberen⁽⁷⁾ Iparraldeko mendietan eraikita.

II Sargonon ostean, K.a. 705-681eko urte bitartean bere seme Senakerib izan zan errege edo kaizerra, eta 689an Babilonia ezereztu edo ondatu ondoren, Ejiptoren mugatara elduta, jauretxeak edo gaztelu batzuk eraiki ta Akkabeko urian Nesrok jainkoaren izenean egon zan eraikitako eleiza edo jauretxean, beren semeak il eben.

Urrengo errege, I Kanbises K.a. 600-559 urte bi-tartean errege izan zan.

(1)Jendekuntzak=civilizaciones.(2)Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cuña. (3)Irudian= ideogràfica. (4)Egindako tresneriekin = artificialmente. (5) Egitezko = método empirico.(6) Akkad'eko= Acadio(7)Ninibe'ren=Khorsabad.

Gero bere seme Ziro aundiak K.a. 559-529 urte bitartean, gaur Irak dan Media erria⁽¹⁾ 553-550 (549) urteetan menperatu eban.

547-546 urte bitartean Kresori irabazi eutson, eta Lidia mendetuta, 540-539an Babilonia ta Juduak askatu ebazan, eta oneri Palestinara joaten itxi ondoren, Kaspio Itsasoren zelaietan Mesajetaren leiñuen aurka dagoela il eben.

K.a. 529-522 urte artean bere seme II Kanbisesek igon eban erregetzara, eta 525ean Ejipto mendetu ta euren XXVIIko errege leiñua ezarri ostean, bere kaizertza Nubiaraiño zabaldua, Nilo ibaiaren ibarragaz bat egin eban.

Baiña Ammon eta Etiopian porrot egin eban eta Ejiptora urten orduko, bere anai Smerdis il eban, bera gudan ibilita, erregetza kenduko eutsolakoa bildurragaitik, ta bitartean, Gautama apaiza beren anai Smerdis izenean, erregetza lapurtu eutson.

IIn Kanbises, K.a. 522an Persiara lapurketak zuzentzeko itzultzen egoala, il zan.

I Dario aundia 558-486 urte bitartean bizi zanak, 522an erregetzara igon ebanetik Indiaraiño elduta, kaizertzaren zabalkundezko asmo aundiak euki ebazan eta Europa menperatzeko be alegintzen asi zan.

Europan sartzeko, Greziaren demokrazia ezereztu egin bear lenengo, ta or agertu ziran aurka, oiturazko sinismenetan eta eritzizko ulermenean, guztiz ezberdiñak ziran jendekuntz orrein indarrak.

Persak: morroitasunean batzangotzeko Menperatzaille gogokoak oso osoan zirenak, eta Griegoak: Azturazko giza bidean ekanduzko mailla aundira elduta, Askatasunezko Demokrazi aundi baten sinismenduta egon ziranak.

K.a. 499-494ko urte bitartean Dario persiatarrak Joniko erri batzuk bakeztuta, 490ean Maratonen, Greziari emon eutson leenengo eraso aldia, ta Milziadesen aginduan Greziaren gudalozteak oarturik, 9.000 Espartar gudariaz babēserako prest egonda, Dariok eroan ebazan 20.000 gudariai irabazi eutsen.

Bere seme I Jerjesek⁽²⁾ Ejiptoko iraultza bakeztuta, 480an, Greziari emon eutson Termo-pilaseko bigarren eraso aldian garaille agertu arren, 480an bertan Temistoklesek Salamina-ko itsasoan emoneko astiñaldi ederra artuta, I Jerjesek gudalozteak bere lengusu Mardonio-ren agindutara itxi ondoren, Ekialde Txikerreko Susa errira, euren kaizar jauregira alde egin eban.

K.a. 479an Mardonio Plateako⁽³⁾ borrokan, Pausaniasek Espartarren Alkartasunezko gudaloztea bideratzen eban aurka be, galtzaille urten eban, eta Mikalan egun berean, itsas ontzidi edo guda ontzidien itsas borrokan Persak ondamenduta geratu ziran.

Eta emen bitxi bat: Mardonio Jerjesen lengusua zan, eta galtzaille lez, Greziak eukiko eban urrengo satrapa edo jaurlaria il da, Griegoak bere oialpe edo oial txabolara joan ziran, eta an egon ziran diru ta urrezko altxor aundiak ikusita, euren arritasunezko itaunean: Gizon onek baiña, zertarako gura dau ainbesteko premiatusunagaz gure erriak menperatzea, ainbesteko aberastasuna eukin da ? esan eben.

(1)Media Erria=Medos. (2)519-465. (3)Grezia'ren antziñako uri-bat izan zana eta Tebas'eko Ego-Mendebalean kokatuta egoana.

I Jerjes il eben, eta bere seme II Jerjes asi zan Greziaren aurkako erasoan, baiña au be alperrik, euren artean trebetasunezko nor geiagoan asita, 424an, beren agintaritza artu ondoren aste gitxi baiño ez, il ebelako.

Greziaren Demokraziari ezker, faziztak Europa menperatzeko euki ebezan asmakuntzak, or geratu jakiezan lenengo aldiz, eta batera, Eki aldetik morroitasunezko itxuran agertu zitekezan alegin guztiak.

2.2. Ejiptoren edesti laburra.

Kamitak, Nilo ibai inguruan Suezeko lur besotik⁽¹⁾ sartuta, an egon ziran baltzak basamorturaino alboratu ebazan, ta K.a. 4.500-4.000 urte inguru, jaurkintza legez erregetzazko giza bide sendo baten antolamenduta, K.a. 3.300-3.200 urteetan Menesek erregetzara igon ebanean Ejiptoren goiko ta bealdeko lurak alkartu ondoren, faraoien jendekuntzari bideak zabaldu eutsozan, auek ogeita amar errege leiñutan iraun egien.

Ejipto, Asiaren antzera, jendekuntzazko jakintzan azkera aundikoa izan zan.

Ikusi dogu, zelan Asiatik agertuta Kamitak sartu zirala bertakoak basamortura baztertua, eta K.a 4.241 urtean Menes erregetzara igon orduko, lortuta euki eben 365 eguneko Eguzkiaren egutegia eta irudizko idazkera.

IVn eta Vn Faraon leiñuekin trebetasunean goraldtu egin ziran ezin obe, eta ainbat txuntxurrezko⁽²⁾ etxegintz aundiak egin ebezan.

VIn Faraoen leiñutik onantza, erregeen jabetasunak berakada aundia emon ondoren, fedotza asi zan goratzen eta kaizertzaren batasuna ezereztu eben.

Erakleopoliseko printzeak agintaritzaren jabetasuna eskuratuta IX eta Xn leiñuari emon eutsen iraunkortasuna, baiña Tebaseko printze edo buruzagiak alkartuta Erakleopolisekoak bota ebezan ta K.a. 2.160-1.570 urte bitartean, Erdiko kaizertzari emon eutsen indarra XIn leiñuetatik XVIIgarreneraino.

XIIn leiñuak, ostera berrezkuratu eben orokorrezko agintaritza, eta Nubiaren bealdeko lurak erritu ebezan.

XIIIIn leiñu agintaritzan, Asiatik agertuta Iksoen sarraldia⁽³⁾ euki eben, eta oneik Niloren ibai artean ⁽⁴⁾ ezarri ta Uri nagusia Abarisen kokatuta, Kamitak euren faraoi erregetzagaz aurrera egin ba eben be, XV eta XVIgarrengo leiñuak Ikso'etak izan ziran.

K.a. 1.600 urte ariñago XVIIIn leiñu aldiari, Faraoiak Iksoren aurka asi ziran, eta Almesek Faraoien XVIIIgarrengo leiñuaren sortzailleak 1.570-1.075 urte bitartean kaizertza bariari irauteko indarra emon ondoren, Iksoak bota ebezan.

Ortik aurrera eta 1.570-1.304ko urte bitartean, Ejiptoren jendekuntzari esaten dautsoe urrezko aldiari bizi zirala.

Ejipzioak, beste sarraldi baten billur, Siria ta Palestina Eufrates ibairaino Iparraldetik mendetu eben, eta Ego aldetik Nubiako jabekuntzak Napataraino zabalduta, Ejiptotarrak

(1)Lur besotik = istmo. (2)Txuntxurrezko=piramides.(3)Sarraldia=invasiòn. (4)Niloren ibai artean=delta del Nilo.

Lur Arteko itsaso⁽¹⁾ inguruan egon ziran errien antolatzaile edo artekari⁽²⁾ nagusienak izatera eldu ziran.

K.a. 1.375-1.358 urte bitartean, IVn Amenotepek euki ebazan indar guztiak, erlijiozko monoteista gurketak gaintzeko alegiñean ibili zanean, Ititak Siria kendu eutsen eta basamortuaren etxe gabeko edo alderraiak⁽³⁾ Palestinan asi jakiezan sartzen.

K.a. 1.290-1.223 urte bitartean, XIXgarrengo leiñuen Faraoiak IIn Ramsesetik asita, Siria ta Palestina berrezkuratu ebazan, eta Libio ta Egeotarren sarraldiak geratzeko Ititakaz alkartu zan. Nai ta, Libio eta Egeotarrak 1.190-1.158 urte arteko IIIIn Ramses'en denboran, Siria ta Palestina ostera berrezkuratu.

Faraoiak kanpoko lurralde orreik galtzeak, diru arloetan naasiak ekarri eutsezan, eta euki eben aginpidea makaltzen joan jakien.

K.a. 1.075-940ko XXIIn leiñuen urte artean Faraoiak, Ejiptoren bealdeko Tanisetik jaurkintzen eben bitartean, Amonen apaizak Tebasetik asita, Ejiptoren goialdian agintzen eben eta etsaigo edo zatiketa au, Iparraldean K.a. 940-730 XXIIIn leiñu eta K.a. 725-710 urte bitartean XXIVn leiñuagaz iraun, Ego aldean K.a. 761-715 urte bitartean XXIIIIn leiñuagaz iraun eban.

Areik eta Etiopitarrak Ejiptoren jabetza artu eben arte, eta XXVn leiñuagaz K.a. 657rarte jaurkitu.

K.a. 670n urtean, Asirioak asi ziran Ejipto menperatzen eta K.a. 654 urterarte egon ziran.

K.a. 664-525 urte artean Faraoiak, denbora gitxi orren barruan jaurkintza berrezkuratu naian egonda, Persiako IIn Kanbises agertu jakien, eta Ejiptotarrak menderatuta, Satrapi jaurlari baten azpian ipini eba-zan.

K.a. 332an Alejandro Aundiak Persak bota ebazan, ta Alejadriako Uri Nagusia eraiki ondoren, bera, K.a. 323ko urtean il zanean, Alejandroren gudal nagusi izan zan Tolomeoren aginpean geratu ziran. Eta Tolomeo Faraoi izendatu ondoren, Tolomeotarren leñuasi asiera emon eutson.

Tolomeotar leiñuak, Elenikako jendekuntzaren eragipenean⁽⁴⁾ indartu ta Siria ta Palestinagaz jabetuta, euren agintaritzan, K.a. 30an Kleopatra beren burua eraill eben arte iraun eban, eta ortik aurrera Erromatarren kaizartzapean geratu ziran.

Ejipto ortik aurrera, Bizanziotik jaurkitu eben erromatarrak, areik eta K.o. 641ean Mauritarren mendean geratu arte.

Ortik aurrera, Ejiptoren Islamizaziñoa asi zan eta arabiar izkuntza geratu zan izkuntz bakar lez.

K.o. 969-1.171ko urte bitartean, Fatimitaren mauritar leiñuak, Kairo, Uri nagusi lez izendatu eben, eta K.o. 972an Azhar mauritar eleiza islamitarren ikaste-txe naguzian biurtu ebenetik, Munduko len goi ikas-tetxe edo Ikastetxe Nagusia eraiki ebala esan leike.

1.170-1.250 urte bitartean, Ayubitarren mairu erre-ge leiñuak Siria berrezkuratu ondoren, mameluko gudariak baztertu ebazan, eta oneik gero, euren goraltasunean, etorriko ziran mairu erregearen⁽⁵⁾ jagole izatera lortu eben.

(1) Lurrarteko-itsasoaren = mar Mediterraneo. (2) Artekari = arbitro. (3) Alderraiak = nòmadas. (4) *Eragipena = influencia*. (5) *Mairu erregearen = sultan*.

1.517an Ejiptotarrak, Otomanoen⁽¹⁾ menpean jauzi ziran, eta oneik ejiptotarren jaurkintzarako Baja jaurlari bat ipini eutsen.

1.798an Napoleonek Ejiptoren menperatasuna asi eban, Ingelesak Indiagaz euki eben salerosketaren gora berak moztuteko. Baiña au be, Ingelesak Otomanoakaz bat eginda 1.801ean bota eben.

1.805ean, Mohamed Ali izendatu eben Ejiptoren Baja jaurlari lez eta mamelukoak eze-reztu ondoren, onek leiñu ondore bat irasita, 1.952ko urterarte Faruk erregeagaz iraun eban.

1.820-1.822 urte bitartean, Sudanen egoan Funji erreinua menperatu eban.

1.866an Ismail Baja jaurlariak Jedibe Baja baiño izen aundiagoa artu eban, eta bere jaurkintzapean 1.869an Suezeko itsas xidor edo ugaska zabaldu zan.

Sudaneko menpetasunari amaiera emon eutsoen, baiña ortik aurrera Ejiptoren barneko jaurkintzan, Frantzia eta Ingelesaren eragipena asi zan garaipentzen.

1.882an Ingelesak Ejipton, guda legez eskua sartu eben sortu zan iraultza bakeztuteko, eta ortik aurrera eurak izan ziran jaun eta jabe Ejiptoren jaurkintzan.

1.898an, Ejipto ta Inglaterraren gudalozteak alkartuta, Sudanek 1.885ean lortutako askatasunak ostera menperatu eben, ta bien arteko mendekua ezarri eutsoen.

Munduko leenengo guda nagusian Turkiak, batzango zale kaizertzakaz bat egin ebenean, Ingalaterrak amaitutzat emon ebazan Ejiptogaz euki ebazan artu emon guztiak, eta berak Ejipton irasi eban zaindaritza, 1.922ko urterarte iraun eban, naita oraindiño Suezeko Ugaskaren⁽²⁾ kontrola eta Sudanen bien arteko mendekua eroan.

1.868-1.936 urte bitartean I Fuad bizi zanak 1.917-1.922 urte bitartean Ejiptoko Sultan egin zan, ta errege lez 1.922an izendatuta, 1.936an il zanean, bere seme I Faruk´eri aldikatu eutson.

I Faruk (1.920-1.965) 1.936-1.952ko urte bitartean errege egin zan ondo-ren, Ingelesen aurkako politika eroan eban, eta ez eu-tson Europako ardatzaren indarrari aurkako gudarik agertu 1.945eko urterarte.

1.958an erritik kanpora bialduta, 1.959an lekaide sartu zan.

Ejipto, Palestina zatituaren aurkakoa agertu zan, eta 1.948-1.949 urte bitartean Isrraelegaz borrokatu zan.

1.952ko Uztaillan, Mohamed Naguib gudal nagu-siak bideratuta eta Gamal Abdel Nasser koronel ordezkariak antolatuta, I Faruk erregea kendu eben jaurkintzatik eta bere seme IIn Fuad (1.952-1.953) i-zendatu, gero 1.953an au be erregetzatic kenduta, Naguidek euren agindupeko errepublika irasi eban.

Ejiptioak Isrraelekin ortik aurrera, badakigu zenbat eztabaida euki dabezan 1.979ko Epaillan bakezkoak egin arte. Ejipto gaur, ONU, OUA eta Mauritarren Alkargoko kidea da.

2.3. Greziaren edesti laburra.

Grezia asierako baten, Lurrarteko Itsasoaren inguruko erri leiñu guztiak lez, leiñuen autotasunezko laterrietan antolamenduta bizi ziran luzeroko denbora aundi baten, euren sa-

(1) Otomano = Turco. (2) Suezeko ugaska = Canal de Suez.

riak irabazten asi ziran arte.

Mundu onen goimailako jakintza, Tupiki edo brontzezko Aro Aldia esaten dautsoe, K.a. 3.500-1.400 urte bitartekoari.

Grezian, K.a. 2.800 urte brontzezko denbora orreitan asi-ta, Elenikako erdiugartean Late-rritutako Uriak ezarri ziranen artean, erri jakintza asko sortu eta gaienduta⁽¹⁾ desagertu ziran.

Garrantzidunak Kreta ugartean (kretense) eta geroago K.a. 1.700 urte inguru Mizenaseko jendekuntzatik sortu ziranak.

Lortu eben goimallako jakintza, ez zan eurengandik sorturikoa, Asia ta Ejiptoko jakituri-aren alkartasunezko eragipenetik, eurak artu ta edertu egin ebana baiño.

Europa edo Lur nagusi onen erditik joan ziran Akeo ta Elenotarrak, Kretaren jendekuntz jakintzaren eragipeneko⁽²⁾ mende egon zi-ran aintziñako denboretatik eta Iparraldeko erri neolitikotik.

Kretak jakintzan euki eban jendekuntzazko bereketaren⁽³⁾ ondorioz, K.a. 1.700 urte inguru: Tirinto, Korinto eta Tebaseko Uri nagusiak eraiki ziran.

K.a. 1.400 urtean Akeotarrak, Kretako ugartean e-gon zan Knosos gaztelu edo jauretxea ezereztu ondoren, Mizenaseko jakintza sartu zan bere ederrenetariko jendekuntz garaian. Gizaldi bi geroago, Peloponeso, Greziaren erdian, Asia Txikerraren itsas-bazterretan eta Txipreko ugartean zabaldu zan.

K.a. XIIIn gizaldian, Iparraldeko Doriotarren eraso aldi edo sarraldia euki eben, eta jakintzan, Akeota-rrak baiño atzeratuagoak egon ziralako, Greziaren jendekuntza berakada galanta emon da, jakintsuak Greziaren erdi mendea zala, esan eben.

Dorioak, Peloponesoan kokatu ziran batez be, eta Espartako Urira eldutako Akeo ta Dorioen jendekun-tzazko elkartzearen, adierazpena da.

Joniotarrak batera, egunaren neurria artu-gabe eta itsas aldetik astiro, Atikako Uri nagusietan eta batez be Atenasen asi ziran bakezko goxotasunean sartzen.

Eleno, Akeo, Dorio, Eolio ta Joniotarrak, sekula ez eben lortu Greziaren erri guztiaren-tzak agintza bakar bat, politikako jaurkintzan guztiz, askatasunaren Laterritasunezko Urie-tan oitura zar lez antolatuta egon ziralako, euren artean beste loturarik eukin gabe, enda, iz-kuntza, erlijioa eta euren jakintzak emoten eutsoena baiño.

Ardurak ondo zaintzeko, geiago bear eben ?.

K.a. 800-600 urte bitartean, laterritutako Uri oneik Ejeo itsasoaren ugarteetan, Asia Txikerraren itsas-bazterretan, Joniko itsasoaren ugarteetan eta Lurrarteko itsasoren izparte-rretan: Italian, Napoles eta Tarento; Frantzian, Marsella; Erdi Ugarte onetan eta Jeronaren lurraldeko Rosaseko itsas golkoan, Ampurias eta Rosas; eta Afrikan, Libiaren Iparraldean Lurrarteko itsasotik 15 kilometrora dagoena, Zirenen koloniak edo salerosteko Uriak.

K.a. 600-300 urte bitartean, Greziatarren jendekuntza⁽⁴⁾, beren urrezko garaipenera eldu

(1) Erri- jakintza asko sortu ta gaienduta = sobresalir resplandecer. (2) Eragipeneko = influencia, impulso (3) Bereketare = asimilaciòn. (4) Jendekuntza = civilizaciòn.

zan: Etxagintza edo Eraikintzan⁽¹⁾, Irudigintza edo zizelkaritzan ⁽²⁾, Olerki⁽³⁾, Eraman ona edo Jakin zaletasunean ⁽⁴⁾, Antzerkian ⁽⁵⁾, Matematiketan eta Natur jakintzan.

Greziak, Atenasen bere jaurkintzarako, Demokrazizko legean antolatuta. Esparta alde-rantziz, bikaintasunezko gudaren antolamenduan, eta beste Uri batzuek: “Korinto, Kalziz, Korzira⁽⁶⁾, Mileto, Sardes, Fozea, Lesbos eta abar, goimallako goraldi edo aurrerapidea lortu eban.

Asiaren lur-arloetan ikusi dogun lez, K.a. Vn gizaldian Persak, Europaren mendeko bi-deak zabalik eukiteko, Griegoak menperatu gura ebezan, Griegoen Uriak alkartuta baiña, eta gudaindarrak Atenas ta Espartaren aginpean bideratuz: Maraton, Salamina ta Platean⁽⁷⁾ astiñaldi ederrak artuta, alde egin bear izan eben.

K.a. 448an Kaliaseko bakearekin amaitu ziran Persa eta Griegoen aurkako gudak⁽⁸⁾.

Espartarrak, euren indarrezko arrotasunean, Atenasen nagusitasunezko jakintasunagai-tik bekaitz eta jeloskor edo ixterbegituz urdurik ibilita, Uri guztietatik Atenasen etsai guz-tiak batzen asi ondoren, K.a. 431-404 urte bitartean Peloponeson, anai arteko guda asi e-ben.

Espartak irabasle urten ebalako, beste alkartasun batzuk be egin ziran eta or asi ziran etenbako borrokak Greziako Urien artean.

Uriak guztiz indargabetu arte ekin eutsen eta Greziaren Iparraldeko Mazedoniatik IIn Filipo⁽⁹⁾ erregea agertuta, ez eben euki indarrik espartar mendetik iges egiteko erdi ugarte ta Grezia osotzen ebazan ugarte guztietatik.

Bere seme Alejandro aundiak⁽¹⁰⁾, Persak K.a.334an Granikon, eta K.a. 333an Issuseko gudatan menpera-tu ebazan, eta K.a. 326an bere agintaritza Greziatik Indiaraiño zabaldu eban.

323an Alejandro Aundia il zanean, Grezia, Alejandroren gudal nagusiaren eskuetan ge-ratu zan eta ostera lengo Urien jaurkintzazko antolamendua artu barik, aurkako alkartasu-netan geratu zan bananduta.

Zori edo egoera orreik, Greziako atea erromatar indartsuari zabaldu baiño besterik ez eutson egin eta erromatarrek K.a.148an Mazedonia menperatuta, Grezia osoa erromatarren lurralde lez geratu zan.

2.4. Nortzuk izan ziran Ario ta Indoeuropeotarrak.

Zazpigarren orrialdian eta leenengo zatiaren seigarren atalean adierazten dot, nor eta nortzuri esaten eutsen Ario edo eta Indoeuropeoak dirala.

Nik, jakitunen artean ibilita sarritan entzun neban, Munduko gizakia sei tximu mota ezberdiñakaz osotzen dala, eta gaur Theo Wennemann jermaniar ele jakintzaren maixua, Peter Foster, Kanbridgesko ikas-tetxe nagusian jenetikaren irakaslea dana, eta beste jakitun askori esker danok dakigu: “Makakus Rhesus”etik gatozela, euren azterketak ala emoten

(1)Eraikintza=arquitectura.(2)Zizelkaritzan=escultura.(3)Olerki=poesia.(4)Eraman ona edo jakin zaletasunean = filosofia.(5)Antzerkian=teatro. (6) Korzira = gaur Korfu dana.(7) Medikaseko gudak. (8)Periklesen denborak ziran oneik. (9) K.a. 382 336, Pausaniasek il eban. (10) K.a. 356 323ra bizi, eta 336an erre-getzara igon.

daualako, eta euren artean ulermentzeko lortu eben leen Euskerazko mintzoera bidetik dala.

Ele-jakitunai burukomin aundiak emon eutsezan Indoeuropeotarren Izkuntzazko arloak.

Menperatzaille-maltzurak, sekula ez dabelako gura izan, egirik argitu daiten, edo euren maltzurrezko guzurak argi zabalean geratzen diralako, alegiñ aundiak egiten dabez billakarien azter-lan orreik, Bereztasunezko legera ez egiezan urbildu,

A ta guzti, jakitunen izkuntzazko azter-lan bidetik, izkuntz orreik daukien azpiko edo oñarrizko bardintasunagaitik, izkuntz bakar batetik sorturikoak dirala deritxe.

Goiko edesti laburretan ikusi dogu, menperatzailleak euren sasi eritxiak aurrera eroateko, zelako erak edo arauak⁽¹⁾ erabilten dabezan besteak daukien nortasunaren ordezeko ardurak ezereztuteko.

Izkuntzalari batzuk⁽²⁾ orregaitik, guzuraren mugara elduta eta adierazpenik gabe geratzen diranean alde batetik, eta bestetik, menperatzailleak goi aldetik Damoklesen ezpata dindilizka eukielako prest, izkuntzaren zalantzazko gauza guzti orreik Indoeuropear zorroan sartutako erabakiagaz, garbituta geratzen zirala gogoratzen ziran. Ekintza orreik baiña, urrin dagoz egitik.

Adibides: Zergaitik Gaztelera eta Katalan latin kumeak indoeuropeo zorroan sartu ?

Ez ziran sortu biak latin eta Euskeraren bitartez ?

Edo, latiniaren mendeko ekintzatik ?

Baragarria da zorro orreitan danak nastuta sartzea, jakinda gaiñera, Latiña, Etruskoak Griegoen izkitegiaren laguntzagaz, euren izkuntzatik sortu ebela, eta Etrusko ta Sumerioa izkuntzak, sustrai batekoak dirala.

Felix Zubiagak ondo argitzen dauz orren gora berak. Adibidez: Berbea, esan/izan'eko elburua bete dagian eta oiturazko arau zaletasunean, Izadi onen berezko antolakuntzagaz egokituta egon daiten, bai-ta oroimenaren atzekadarik ez daiten egon, atsegintasunezko ardua aundiz zaindu zala, bere galduerak danoen oarkabean atzerakada galanta egin ebalako, eie jakitunezko gorputza edo talde osoa ez dalako bir jabetzen, ermeneutika edo adierazketaren gabetasunean kokatuta dagozelako.

2.5. Zergaitik euren leiñuen erri aldak ?

Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan, edo ta siko-neurri aundi baten Omo Sapiens asieraren oiturari jarraituz askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen, eta Asia, India eta Afrikako menperatzailletasunaren jarraibideak gogortzen asi zirala ikusiz, eurak etxe gabeko edo alderraiezkoak⁽³⁾ izanda, errez iruditu leike zergaitik euren leiñuen erri aldak.

3. Zer edo nortzuk izan ziran Etruskoak ?

Etruria, Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egoan ⁽⁴⁾ eta iñork ez daki nondik agertu ziran.

(1)Mundu oneitan beste biderik ez dagolako. (2) Geienak aldi-luze baten. (3) Alderriaiezkoak = nomadas. (4)Tirreno itsas-bazterrean, gaur Toskana dana.

Herodotok, Tirrenokoakin antz emoten dautso, eta Asia Txikerratik Italian agertu zirala diño.

Beste batzuen esanetan Europaren erditik agertu zirala eta oraingo edestilarien gora beran, Arno ta Tiber bitartean bizi ziranarekin apur apurka sortu zala. K.a. VIIIIn gizaldian amabi laterritasunezko Urietan jaurkintzazko antolamenduan kokatuta ta danak arremanduta erlijiozko alkartasun edo batasun baten.

Euren jaurkintzazko agintaritzza, Andi-Mandiak⁽¹⁾ bideratzen eben, sortzez, odolez edo ondorengo⁽²⁾ iraspenean egokituta euki ebana.

Mariñelgintzan zentzun aundikoak izan ziralako, Lurrarteko Itsasoaren erri nagusi guztiakaz euki ebezan arreman sendoak. Eta ez euken lotsarik euren gizabidea aberastuteko, Italian, Ekialdeko Sirio, Ejiptzio eta Griegoen jakintzazko aurrerakuntzatik bear ebena artzen.

Itsas aldeko lurrak ondo landuta eukinez gain, langintzan trebetasun aundiak artu ebezan eta merkataritzazko salerosketan maixutasun aundia.

VIIIn gizaldi erditik onantza, euren zabalkuntza erabagi eben, eta Erroma, gizaldi bateko agintaritzan zuzendu eben.

Adriatikoko Iparraldetik itsasalde guztia eta Korzikako ugartea menderatuta euki arren, Uri nagusien bereiztasunak ez eutsen izten batasun batera eltzen. Eta euren maldabera, VIIn gizaldean Erromatarren aurka asi ziranetik onantza asi zan.

509an, Griegoak, Samnitak eta galoak alkartuta, Etruskoaren erregea kanporatu eben eta euren lur guztiakaz geratu ziran.

K. a. IVn gizalditik onuntz, erromatarrak euren Uri nagusi guztiakaz geratu ziralako, euren gandik babesteko premiña euki eben, eta K.a. 295an Erromatarrengaitik guztiz menderatuta, K.a. 90n urtean erritarteen gizarteko guda osetetik, erromatarren uritargo edo erritargoa⁽³⁾ artu bear izan eben.

Etruskoaren jendekuntza, bere inguruan egon ziran Unbroak, Liguritarrak eta Sabinoen erri guztietatik bereizpendu⁽⁴⁾ ziran, eta maitasun geiago emoten eutsoen: apainkeri⁽⁵⁾ ta oporraldeari⁽⁶⁾, gudako zaletasunari baiño.

Etruskoak, erromatarren irakasleak izan ziran, Griegoen jendekuntz jakituriaren irakaskintzagaz.

4. Zer edo nortzuk izan ziran Arabe ta Mauritarrak ?.

Antziñekoak dira, eta Arabian sortutako Kamita Semitikoren leiñu ondorengoak dirala esaten dabe.

Etxegabe edo alderraiezko artzain izanda, Mesopotamia⁽⁶⁾, Lurrarteko Itsasoaren Ekialdea ta Nilo ibaiaren ibarretan zabaldu ziran. //Arabiatarren osotasuna: Antziñako Babilonia, Asirio, Kananeotarrak⁽⁸⁾, Arameo, judu edo ebrautarrak eta Etiopie geienak egiten dabe. Eta leiñuzko senitasun antzera taldekatu egiten dira, euren izkuntzak erro batekoak diralako.

(1) Andi-mandiak = aristocracia. (2) ondorengo = hereditariamente. (3) Erritargoa = ciudadanía. (4) Bereizpendu = disgregación, separación. (5) Apainkeri = adornos superfluos. (6) Opor-aldeari = vacaciones. (7) Mesopotamia = Asia Menor, entre el Tigris y el Eufrates. (8) Kananeos = antigua ciudad de Palestina, donde hizo Jesus su primer milagro, eta Amorrítak, Moabitak eta Feniziarrek zirenak.

K.a.1.000 urte inguru, Arabian bizi ziran gizarteak, erreinuetan antolatuta egon ziran, eta orreitatik bi nagusienak: Marib eta Sai'a⁽¹⁾ izanda, K.a. 950 urtean Idazti Deunaren ara beran, azken erri onen erregiña Jerusaleera joan zan, Salomon ikustera.

K.a.VI gizaldian Dariok, Arabiako Iparralde satrapi⁽²⁾ baten biurtu eban. Eta erromatarrak K.a.106n urtean Arrizko Arabia⁽³⁾ sortarazi eban.

K.o. IVn gizaldian, itzuli ziran Abisinioak⁽⁴⁾ eta berton egon ziran Himiaritarren ⁽⁵⁾ artean eztaibada gogorak sortu ziran, Ekialdeko erromatarren kaizertza sartu bear izanda erdian, bakeak lortzeko.

580an Mahoma, la Mekako Koreitxitar leinu baten jaio zan, eta 632an Medinan il. Beren aita, Siriakin Kameluakaz salerosten ibili zana il eta gero jaio zan Mahoma, eta lengo bere aitona ta gero bere osaba batek azi edo az-erazi eban. 24 urte euki ebazala, oso aberatza zan Kadidja alargunarekin ezkondu zan eta euki ebezan zortzi seme alabetatik, Fatima bakarrik aipatzen da.

Urte asko borrokan ibilita ondoren, igarle⁽⁶⁾ biurtuta, bere esanaren aldeko lagun asko euki arren, etsaiak be agertu jakozan eta K.o.622an Uztaillaren 16an⁽⁷⁾ Medinara iges eban, bertan aurkitu ebazan bazkide gogotsuakin, beren erkidegoa antolatu, mezkita eraiki, erlijiozko gurketaren era-arauak ezarri, eta juduak erakarteko porrot eginda ondoren, ziñ ustelaren⁽⁸⁾ aurka, guda santua asi eban.

K.o.630ean La Mekara joanda, erlijio ta politikan nagusi izendatu eban. Beren irakaskintzak Koraneko liburuan batuta.

Beren ondorengoak, batasunezko teokrazi jaurkintza orregaz gudarako sukartuta, Iparraldetik: Siria, Ejipto ta Persiagaz jabetu ziran eta Afrikako Iparraldetik zabalduta, VIIIn gizaldiaren amaieran Mauritaniara⁽⁹⁾ joan eta islandartu eban.

711n urtean Tarik ben Zeyaden gudalozteak erdi u-garte onetara aldatuta, eta Rodrigori Guadaleten irabazi ondoren, Auñamendietara igon eban, eta Frantzian Poitierserañño sartuta, Marteltar Karlosek gera-tu ebazan.

756an I Abderramanek Guadalkibir guda ostean, Kordoban Omeyatar leinua bir ezarri eban.

762ko urtean La Mekaren ordezkari Kufa, Damasko ta Bagdadeko Uri nagusiak izendatu ebezan eta musulman laterriak ugaritu ondoren, 1.258an Bagdaden Mongoliarrak sartu ziranean moruen berakada oskatu edo marratu eban, eta maldabera ori, 1.517an Turkoak Ejipto menderatu eta Islam osotasunaren menpekotasuna lortu ebenean amaitu zan.

929ko urtean IIIIn Abderramanek, Kordobako kalif erriaren Kalifa izendatu zan, politika, diru kontu eta jakintzan, aurrerakuntza aundiak artuta.

1.031n kalif erria ezereztu zan eta 1.086an Almorabideak menperatuta geratu ziranean, moru onein denboran, Sebilla, Toledo, Kordoba ta Granada, jakintzazko erdigune garrantzizkoak izatera aldatu ebazan.

Moruen jendekuntza, Grezia, Asia Txikerratik eta Ejiptoko jendekuntzaren jakintza batu

(1) Sai'a=Saba. (2) Satrapi=Persiarren jaurlari edo agintaria. (3) Arrizko Arabia=Arabia Pètea. (4) Abisinioak, Kristau-ak ziran. (5) Himiaritarren = judutarrak. (6) Igarle = Profeta. (7) Au da hejira edo musulman erlijioaren asiera. (8) Ziñ-ustel = infiel. (9) *Iparraldetik Mendebaleko Sahara eta Arjella, Ekialdetik Mali, Ego aldetik Mali ta Senegal, Ipar Mendebalek Sahara eta Mendebalek Atlant Itsasoa mugatzen dabena eta len erdi ugarte onegaz mugatzen ebana*

ta edertu ondoren, Munduko jakintzaren ardatz nagusia izatera lortuaz, ordezeko biurtuta geratu zan.

Eta ez eben txarto egin: Ele eder⁽¹⁾, filosofia, medikutza, eder lanaren jakintzak ondo landu ta Erdi Aroan, ibili ziran errietatik zabalkuntza aundia emon ebelako.

Etxegintzan⁽²⁾ bereizitasun ederra artu eben: Kordobako eleiza⁽³⁾ ta gazteluagaz⁽⁴⁾, Sebi-llako dorrean⁽⁵⁾, Zaldubako⁽⁶⁾ jauretxean⁽⁷⁾, Granadako jauretxean⁽⁸⁾ eta abar.

Edertasunezko mailla aundira be eldu ziran: Metal edo txilinkiko sar lanen⁽⁹⁾ eradonkian⁽¹⁰⁾ edo ta metalak pikailatzen edo esmailatzen⁽¹¹⁾, zizel iruditan⁽¹²⁾, luma ederrako idazkeran⁽¹³⁾ ta abar, ta oso korapillotasunezko loraren marrazkietan⁽¹⁴⁾ apaindura eder edo ta jeometrikoak.

Baiña, gauza bizien irudi barik, euren erlijioak debekatuta eukielako.

Soiñu, eresi edo musikaren arlorako be, gaillu askoren sortzailleak izan ziran, adibidez: Arrabit⁽¹⁵⁾, Rebab edo Rebik, gaurko biboliñaren bideak zabaldu ebanak, Zurna Zaramiola edo oboeren antzekoa dana eta abar.

Izar jakintzan eta matematiketan aurrerakuntza a-undiak egin ebezan eta Hinduari artuta, Europara ekarri eben amarkako zenbakintza (numeración decimal).

Sendakintza eta kimikaren sortzailleak izan ziran.

Garrantzi aundiko ikastetxeak sortu ebazan Bagdad: Kordoba, Basora, Bokara ta Kufan. Eta liburutegi aundiak: Alejandria, Bagdad eta El Kairon.

Jakin zale aundiak euki ebazan Abizena ta Aberroes lakoak, eta ainbeste olerkari ta itzlau-gille⁽¹⁶⁾ bikain.

Mauritarren kaisal erria, erromatarrena baiño askoz zabalagoa izan zan, eta gaiendu, Mahoma 632an il zanetik 660ra aukerazko kalifak euki ebazanean.

Gero 661-750 urte bitartean Omeyatar ondorengo leiñuak, Uri nagusia Damaskora eromanda, 750-1.055 urte bitartean Abasidasen ondorengo leiñuak Bagdadetik jaurkitzen eben euren kalifatoa.

XIn gizaldian asi zan euren berakada. Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

5. Leenengo ta Bigarren zati onein ondorioa.

Bigarren zati onetan ikusi dogu, zelan Neolitiko eta tupiki edo brontzezko aldi bitartean, giza leiñuak gai oneitan zentzuz egokituarte, ikasbide luzeak euki ebazala, eta milla urteko ikaskuntzaren ekiñaldian ikasi gendula, gauza txarrak eta onak egiteko zeintzuk izan bear diran ekiñaldiko gogoetak, ibili bear doguzan erazko eritziak, alde batera edo bestera urten egiezan.

Mundu onetako ekiñaldietan nabaritasun guztiagaz agertzen jaku: Ekanduzko gauzak egokirotasunean ezartzeko, gure borondatearen erabakiak bakarrik dirala gai.

Bereala jakiten dogulako, zeintzuk diran gauza on eta txarrak, Jaugoikoak gure Arimari

(1)Ele-eder=le-tras.(2)Etxegintzan=arquitectura.(3)Kordoban mezquita. (4) Gaztelua=alkazar. (5)Dorrea=Jira-lda. (6)Zalduba =Zarago-za. (7)Alja-feria =palacio arabe. (8) Alhambra=palacio arabe.-(9) Sar-lanean=taracea, trabajos de incrustación.(10) Era-donkia =cosa incrustada.(11)Esmailatzen=ataujia, obra de ta-racea en metales y esmaltes.(12)Zizel-iruditan =talla.(13)Lu-ma ederrean=caligrafia.(14)Marrazki = diseño. (15)Arrabit = laud. (16) Itzlaugille = prosista.

emoneko arrazoitasunaren Baita⁽¹⁾ zain daukagulako, atsekabetuta edo pozkor agertu gaitzen.

Oiñarri oneik izan bear dira kontuaundian euki bear doguzeak, Mundu oneitan miraririk ez dagoelako, bizitzabera bakarrik izan ezik, konturatuten ba-gara.

Alan dala, Beren Legeak bakarrik dira Ludi au bereztu edo izatasundu⁽²⁾ egiten dabezanak, eta lege orreik dira bakarrik erabiliz gaiñ, danok egokitu bear gaituzenak.

Mundu oneitan orregaitik, ez dago gizatasunetik iñork eskubidetuta, berezko legetik kanpo⁽³⁾, asmakisunezko legerik atarateko. Gauza orreik egiten diranean, beti !, norkerien aldekoak izaten diralako⁽⁴⁾.

Fisika berak erakusten dausku, zentzuz edo edozein apeta edo nai kasketaldi bidez, leku batetik zeozer kendu edo aldatzen dogunean, leku ura gabetasunean edo gauzak aldatuta geratzen dirala.

Bereztutako gizarte arloetan bardin sortzen da: nortasuna edo errigizarte bateri euskerazko izkuntzak emoten dautson nortasuna, baten batek norkeriaren asmakuntzazko buru zalekerian ezereztu nai badau, ez dago beste biderik: gizarte ori il edo, menperatzailletasunezko morroitasunean urte askotan eukinda, denboreagaz nortasunean aldatu edo ezereztuz, Jainkoaren zerbitsura bizi barik, sasi norkerizko asmakuntz orren serbitzuan ipini baiño besterik ez.

Ainbat erri alda, zigor, guda⁽⁵⁾ eta eten bako espe-txe erabili dira⁽⁶⁾ edestian zear, errigizarteak morroitasunean eukinda nortasunean aldatzeko.

Mundu onetan Babiloniatik asita, edesti guztian argi ikusten doguna: Demokraziaren ateak zabaltzen asten diranean, beti agertzen dala guda gogor bat, menperatzailleak, mundu onen ekanduzko bide ta mozkin guztiak euren kontrolpean gura dabelako, bizitz onetan sasi-agintaritza orreik iraun dagien.

Noiz arte ?.

Gure baitak ez ote dausku jazarraldirik⁽⁷⁾ egiten ?.

Olan bada, Mundu onen giza, zuzen edo zentzunezko bide barik, ezin bestean galdata dago.

Gero ikusiko dogun lez, asmakuntz ori da gaur arte etorten dana, eta orregaitik gagoz gaurko XXIn gizaldi onetan burubelarri sartuta, nortasunezko gizarteen eskubideak berezko ekanduaren zentzuan egokitu dagiezen.

5.1. Giza leiñuen egokitasuna eta oiñarrizko leen toki izenak.

Giza leiñuen azturazko bidean ikusi dogu, euren urrengo egunean bizitzeko, eizan eta zitu, bii, ale edo fruituaren arraparia bakarrik izatetik, izotzak urtzen asi ziraretik, ekoizle, egille edo sortzaille izatera aldatu zala, eta leen iri edo leiñuen leenengo orubeak⁽⁸⁾ mugatzen asita, nekazaritza eta abel zaintzara bideratu egin ziranean, jakintzaren azturazko bide orreitatik euren etxegabetasuna edo alderraiezko bizitza gaindu egin ebal.

(1) Arrazoitasunaren Baita 'k = ULERMENA. (2) Izatasundu = naturalizar. (3) Berezko legetik kanpo = porque lejos de las leyes naturales. (4) Norkerien aldekoak izaten dirala-ta = entramos en el mundo de los egoismos. (5) Guda = Erdi-ugarte oneitan askenekoa, Franko'rena. (6) Erabili dira = gaur-be erabilten diranak. (7) Jazarraldirik = protesta, oposición. (8) Orubeak = emplazamientos.

5.2. Izkuntza ta toki izenak.

Omo Sapiens edo Kromañoi Giza Afrikatik urten eta zabaldu zanean, bere ulermenerako leen izkuntza, adierazten eban abots edo leen itz ots bakarretik asi bear eben, eta azturazko jakin bidean berbeari gorputza emonagaz irudiz oituratzen, berbea ulermenaren eza-gutzazko oroipenean, ederrenetariko gaillu bat biurtu zan.

Ez zan egon nastetasunik gauza orreitan, milla urte askoren jakintzazko azturan, Europa, Afrika ta Asiako lurraldeak, izkuntz edo oiñarri bateko esabideakaz mugatuta izendatu ebelako.

Milla urte asko leiñuen auzotasunean egonda, antzeko izkuntz bakar baten ulermenpean, goian esan dodan lez, toki izen orreik lurraren jabetasuna artu eben, eta nai ta gero Asiaren ondorioan agertu ziran maltzuratasunezko menperatzaille bideak gaur arte, Munduko lurralde guzti orreitan ez dira izan gai, lenengo Euskal toki izenak aldatu edo ezereztuteko.

Gaur, geure izkuntz-edestilari ta ele-jakitunentzak toki izen orreik, urrezkoak diranak, Mundu onen giza bidea argituz gaiñ, ia konturatuten ba gara, JAUNGOIKOAK bereztutako gai-mundu onetara zertarako bialtzen gaitun.

5.3. Jendekuntzazko garaiak.

Munduko Giza, bere azturaren oiturazko lanean edestian zear nasaiago bizitzen joateko, nortasunezko Jendekuntzan garaipentzen asi zanetik, ez dau izan bear besterik, gaiak era ezberdiñetan emoten dauskuzan aukerak egokitu baiño, ta eratzen joan giñan tresneriekin, izakizun, al diranak edo ta izan ditekezenak zentzuzko azturaren azter lanean⁽¹⁾ egokituta⁽²⁾, gaur daukagun erreztasunezko egokitasunean ezarrita gaude.

Orregaitik leen, Mundu au Beren oiñarrizko legean erperatuta dagoela ikusiz, eta onen lege kanpobidetik beste gauzarik egitea eziñezkoa biurtzen jakun lez: asieratik gaur arte, denbora guztiak bardiñak dirala esan bearrean aurkezten gara.

Gaiak daukazan legezko arrazoiaren bidez, gure ekintzarako eskatzen dauskuna, eten bako ekandu edo zentzuzko orekak zaintzea dalako.

Eta Gizaren arloan bigarren: betiko legeak eskatzen dauan lez, Danon Eskubideak, ekanduaren ordezkko ardura bardiñean zaintzea dala ! zentzuzko oreka eder baten egokituta, belaunik belaun bakez iraun daigun.

Baiña ainbaten esan dodan lez, izan ez ditekeena, gure gizarteko eskubideak zaintzeko gaur bear daben ekanduaren orekazko ordezkarrizak: Elefante bat leiargintza⁽³⁾ baten sartuta, egin leiken triskantzaren antza eukitea da.

Eta ez gara geiegi arritu bear, IVn gizaldian egin zan Nizeako eleiz-kaizar batzarretik ona, daukagun katolikotasun au, asierazko oiñarrietatik norkerizko oldozmenean lapur antolatu zalako, beren eragipenagaz Europa ta Mundu au antolamendu onetan zuzentzeko daukaguzan jaurkintzazko agintaritzak, goitik bera ustelduta egertzen jakuz, bere izatasunezko lapurtza, lapur biurtzen dabelako bere ondorengotik bakanduta agertzen diran lege guztiak.

(1)Azter lanean=investigación empírica.(2)Azturaren azter lanean egokituta=enraizar el recuerdo.

5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etrusko agerkeraren edesti laburak.

Asian ikusi dogu, Sargon asi zala kaizertzaren sortzailletasunetan, eta aurrera begira, antziñeko edo aurretiko erabagi txar ori⁽¹⁾ garaipendu arte ez zala geratu, areik eta 1800 urte beranduago Griegoak medikaseko gudakaz geratu arte.

Aurretiko erabaki txar ori, aundikien bidez gurtza maillara igonda, Afrikan be bardin sortu zan, eta mundu Fisiko oneitan norberak besteak menperatu gure dabezenean sasi norkerizko izkuntz ta oitura txar orreitan ezartzeko alegiñean, ikusi dogu zer gertatzen dan.

Orregaitik, egoera orreitan argi guztiagaz nabaritzen dana: Sasi jainkotasunean bizi gura dabenentzat, sasi asmakizun orreik jainkotzat lez goraldtu eta gurtu bear dabezala.

Sasi ekintza orreik nai ta nai ez, eta derrigorrez elkargarrizkoak⁽²⁾ biurtzen diralako: Gauza txarretan iraun gura dabenentzat, Gauza txarrakin elikatzen joan bear dabelako.

Ekintza orreik, izkuntz eta oiturazko siñismenetan naste aundiak sortzen dabez, eta batez be, nastezko⁽³⁾ izkuntz barriak sortu.

Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran Demokrazizko oiturak, erri edo leiñu artean, ordearen ardurazko lotsak bikain zaindu ziralako izan zan.

Eta sasi asmo barri orreikaz Ekanduzko beko maillan geratuta, Erdi Aroko goialdetik asita, edesti guztian belaunez belaun etorri gara, bakezko elburua eskuaren neurrian eukinda eldu ezinik, bitartean, norkeriaren katolikotasunezko batzangotasun asmo txar ori, bear-tuta ekarten dogulako.

Ez da gauza aundirik bear, bakarrik berezko legeari baietza emotea baiño ez dalako.

Baiña, Munduko jakitunak aurrekoi oinkada orreik emoten ez dira ausartzen, antza, lotsa emoten dautsielako oraiñarteko irakaskintza BEREZKO LEGEAREN albotik etorri dala esaten, eta naste orreikaz jarraitzen dogu.

Noiz arte baiña ?

Gaiñera jakinda BEREZKO LEGEA Damoklesen ezpataren antzera, buru gaiñetan daukagula keiñatzaille⁽⁴⁾, gaur sortzen dan lez.

Gaurko Sozialistak esaten dabe Mestizaje para una ciudadanía del Mundo. Zertarako jaio ziran be aztu jakie, PPrene beste menperatzailleak biurtuta.

Endaren nortasunak nastutea, nortasunaren oiturazko sinismenak nastutea da, eta ortik agertu leiken gauza bakarra, onbear⁽⁵⁾ edo txirotasun galantatan egokitzea da gaurko egunetan sortzen dan lez.

PP ta Sozialista menperatzailleentzat bai ondo, erreka loietan arraiñiak errez arrapatzen diralako, eta orrein billa dabiz zalantzarik gabe, kloniko batzango baten bizi gaitezen, euren sasi-agintaritzaren mesede.

Asiatik, Ario ta Indoeuropeo alderraiak ez eben egingo alde ba ? . Nai ta nai ez !.

Baiña, Etruskoak egon ziran Arno ta Tiber ibai bitartean⁽⁶⁾, eta Asian ta Afrikan egin zan lez, eurak ipiniko ebezan ibiltan erromatar asmakizunezko menperatzail eritziak, Europa osoan Jainkoak Mundu oneri emoneko Bereztasunezko Legearen egia zirriborrotzeko.

(1)Erabagi txar ori = precedente. (2)Elkargarrizkoak=compatibles.(3)Nastezko= rom-ances similares cuando se trata de dos lenguas en-frentadas, como en el caso del Euskera Latin, aun-que el latin sea prefabricado, porque se construyò para imponerse a las lenguas naturales. (4)Keiñatzaille = amenazador. (5)Onbear = indigencia, necesidad. (6) Arno ta Ti-ber ibai bitartean = Asia Txikerratik etorritakoak ?.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen on.

Ezin dodaz aipatu barik itxi : Izkuntz, izen toki, azur, margo, giza izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai ta egiaren billa ibilita, menperatzaillaren berekotasunarengandik oztopo aundiak euki, edestian zear, arrigarritzko azterlanak egin dabezelako.

Azterkari maisu andi oneik, Asia ta Afrikan lenengoz, toki izen ta edestiko lan bidez Izadi onen Omo Sapiensen asierara joanda, arrigarritzko egoarriagaz eroan⁽¹⁾ bear izan eben, ondorengo kaizar menperatzaillak eskuetan pintzel edo ixipu aundiak artuta, euren asmakisunezko eritxiakaz ⁽²⁾ zelan margoztu eben erri baktzaren edestia ikusi ebenean, euren eten bako azterkuntz lan ederrakin, arrazoi edo egiaren illuntasunak argira agertzeko.

Arritzekoa da, kaizar-menperatzaillak erri baktzaren edesti-gaiñean ainbeste margo esku emon eta gero, maisu aztertzaillak oneik, ebaketariak⁽³⁾ egiten daben antzera, margoaren esku aldi baktza kontu aundiagaz zati txikerretan erauzita⁽⁴⁾ azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan eldu diran oiñarritzko egira.

Gaur erdikusten baiño askoz geiago asi dana, eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero eta errezago izango dana, eurei esker.

Joan gaitezana ba, mundu onen errigizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean, non ta noren norkerizko asmakuntzarekin asten dira, txandako menperatzaillak orreik ixipuk⁽⁵⁾ eskuetan artuta Europako lurak eta errigizartearen Nortasunak ez daitezana ezagutu, ostera margotzen ainbatgarren aldiz aleginduten diralako.

3n. ZATIA .

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak, latiniaren jaiotza eta Erromatarrak.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.
5. Godo'ak.
6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala.
7. Erdi Mende onetan, Eleiza Katolikoaren nausitasuna.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamenak.

Lenengo zatian ikusi dogu, zelan menperatasunaren asmokoak, nai ta Asian eta Afrikan, leiñuen errigizarteakaz, len-izkuntzak eta toki izenak naspiltzen ibili.

Maltzurrezko asmakizun orreitan garaipenduta egon arren, errigizarteak morroitzeko eta toki izenak aienatzeko⁽⁶⁾, ez dabela oldozmeneko ustean indar geiegirik euki, Jaungoikoak Beren bereztasunezko lege bidez bizitzari emon eutson "Baita"⁽⁷⁾, nastu bai, baiña ezereztu ezin dabelako egin.

(1) Egoarriagaz = paciencia. (2) Eritxiakaz = opinión, parecer. (3) Ebaketariak = cirujano. (4) Erauzita = hacer saltar. (5) Ixipuk = brochas. (6) Izen tokiak aienatzeko = anular, revocar los nombres de las cosas denominadas. (7) Baita = conciencia.

Leen: Mundu oneitan jaioten dan guztia, oiñarrizko baita orreitan jaiota, aurrekotasunezko⁽¹⁾ almen orregaz, errez oartu edo konturatzen gara, nortasunezko baitaren aurka dirala norkeriaren asmakizunezko alegin guzti orreik, Izadi onek daukazan berezko eskubide guztiak zapalduz, euren sasi asmakizunetan indartzeko.

Euskalerrria da, Omo Sapiens sortu zanetik, Paleolitiko Neolitikoaren bitartean lortu zan jendekuntzazko Jakin Demokratiko ederraren ikusbegi edo Aitorlari.

Gai al izango ete dira, ezereztuteko ?.

Ez dot usten: Jainkoa lagun, euskaldunak gura ez ba dogu.

Emen bearrezkoa da aipatzea, Aranatar Sabinok, 1.901ean Arantzaditar ingartziri⁽²⁾ Urtarrillaren bosteko eskutitzan esaten eutsona: **“Jaungoikoa izango ete da ba, gura ez dabena, gure euskalerrri maite au aienatu edo ta suntsitu ez egian ?”**.

Bigarren: Mundu fisiko oneitan, gizartearen belaun aldiko etorkizunean, ekintzak jakintzazko azturan sendo oituratzen ba dira, ta sinismenean ikasitakoak, berbeagaz mugatu, izendutako toki eta errigizartearen ekanduzko gauzak, nekez aienatzen dira, Munduan Euskal toki izenari eta Euskalerrriari sortzen jakozan lez.

Orduan, aztarna ugari geratzen diranakaz eta ez gaitezkan milla urte askotan ikasitakoarekin aztu, naaspiltzen garanean edo egiten gaituenean, konturatu bear gara, non ebatzeko eldu-leku ugari geratzen jakuzela, Euskal Nortasunez argizabalera agertu gindezkan.

2. Erromatarren sarrera.

Bigarren zatian ikusi dogu, zelan Sumerian jendekuntzazko jakintza sendotzen joan zanetik, edozein kaizertzaren maldaberan, gora egiten eben kaizar barriak, egoan jakintzazko jendekuntza, bereganatu egiten ebela, eta berakadarik ez edin egon Grezia ta Mauritarrek egin eben antzera, aurreko Demokraziaren bide zar oituran aleginduta, edertu egin ebela, azturazko jakin egarriak ordezkatzan joan ziralako.

Ez zan gertatu bardiñ Erromatarrakaz gero ikusiko dogun lez, oneik asierazko errepublika on bateko jaurkintzatik⁽³⁾, oso osoan, amaitu ezin dan sasi norkeriaren leize zuloan jausi ziralako.

Eta euren maldaberan indartzeko, beste batzuen erlijiozko eritziakin alkartuta, gaur lo-katzazko sasi-norkeri orreitan gagoz zikinduta urten ezinik.

3. Etruskoak, Latiñaren jaiotza eta Erromatarrak.

Etruskoak bideratuta, Erromatar asmakuntzaren sorraldia K.a. 753tik 510era egin eben, Sabino ta Iszeresakaz alkartuta.

Etruskoen jakintza aundian, Latiña sortzeko len asmakizuna, baliteke Mundu zabalean jakintzaren ibilgaillua izateko egin ebela.

Eta Griegoaren laguntzagaz erindu ta argituz biribilduta, elerti arauzko izkuntz aundi bat biurtuta geratu zan, gure gaurko egunerarte.

(1)Aurrekotasun = precedencia. (2) Aranzaditar Ingartziri = “Kizkitza”. (3)Nai ta neurri aundi baten jaurkintzazko asmakuntz onekin eginda be, menpekotasunezkoa izan zalako.

Erromako Iria, Romulo irasi ebala K.a. 753-716 urte bitartetan esaten dabe, eta urrengo 715an Ponpiliotar Numak Erromako erregetza artu eta beste sei errege iraun ondoren, 510ean Tarkinotar Luzio arroputz deritxonagaz amaitu zan lenengo ekitaldi au, arrezkerotik errepublikako jaurkintzara aldatuta.

Etruskoak lenengoetan oso jarduntsu⁽¹⁾ ibili ziran, askatasuneko asmakizun orreri zentzunezko itxura emon naian, eta Griegoen izkitegia artuta, euren arteko izkuntz bat eraberritzen ibili ziran Latifnezko iztegia lortu arte. Gero mundu osoan zabaldu ebena.

K.a.509an Erromatarrek, Etruskoen gurasordetik askatu ziranean eta Errepublikaren jaurkintza sortu, urtero aukeratzin eben lege gizon bien aginduan ezarri ziran. Pretorak ziran auek, gero kontzul deituko ziranak, eta euren jaurkintzazko ekintza, lengo erregeak egiten eban antzekoa zan.

Errepublikako leenengo denboretan, sendi aberatsen aundikiak edo gurasoak senatore batzarretan batuta, izan ziran Uriaren jaurkintzan agindu leikenak, jabe bide ori, bizi guztirako izaten zana.

K.a.240 urte ingurutan asi ziran erromatarren arazoak, erriaren bemaillako sendi oso aberats batzuk, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko, errigurasoen⁽²⁾ sendiakaz alkartu ziranean.

Ekintza orren eredu zaurkintza guztia euren eskuetan egonda, andi mandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ziran ezin beste, euren arbasoak goimaillan lortu ebezan oiturazko ekanduak, neurri aundi baten galdua.

Eta ondorio orren bidez, berezko baserritarrak aienatu ziran, lur zabaleko etxagunak, mendeko joputasunean⁽³⁾ agertu ziralako.

K.a.106an Erroma, Kaiotar Mario eta K.a.27ko urtean Oktabiotar Augustorekin, guda-loztearen indarrezko antolamenduan izen aundia artuta, kaizergotzan edo aginzalekerizko jaurkintzan ezarri zan.

K.o.306an I Konstantinok Erromako kaizertzara igon ebanean ta euren asmakisunezko elburuak indarra galtzen asi zirala ikusi ondoren, orduko denboran ekandu arloan berrikuntza andia ekarten ebana eta eten bako ekiñaldian indartuz gorantza joan ziran Kristau indarrak alkartu gura ebazan, Erromatar kaizertza indartuta iraun egien.

Eta orduko denboran eriotzeraifio eizatu ta aizatuta⁽⁴⁾ egon ziran kristau eritziko gizarteak, Galenok 311n Sardikako legearen bidez, Kristau jai arauak askatzeko eskatuta eta Konstantinok 313an Milaneko agindua emonda, Baleriok baieztuta askatu ebazan.

324an, I Konstantino geratu zan erromatarren mendebal eta Ekialdeko kaizergoetan agintari bakar lez.

325ean, I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak Nizeako eleiz batzarra ospatzea agindu eben, eta katolikotasunezko izen barriagaz antolatuta, or alkartu eben erromatar kaizertza eta Kristau ekanduzko barriaren eritziak, munduko gizasemeak kaizar eta Aita Santuaren aginpean iraun egian.

337an gertatu zan I Konstantinoren eriotza, ostean erritarren gudak sortuaz.

II Konstantino⁽⁵⁾ guda orreitan garaipenduta, 351an kaizar aulkira igon eban eta Mendebal ta Ekialdeko kaizertzak bateratu ebazan.

(1) Jarduntsu = atareados. (2) Erri gurasoen = patricios. (3) Mendeko joputasunean = esclavismo. (4) Eizatu ta aizatuta = acosar, acorralar y darles caza hasta la muerte. (5) 331-363.

Eta 363an Flabio ta Klaudiotar Juliano, ziñ ukatzaille⁽¹⁾ deritxona ezarri zan kaizar aul-
kian, 364an Persak menperatuta.

Eta Mendebaleko Erromatarren kaizargotzan azken ezarri zana 384? 395-423rarte
Flabiotar Onorio izan zan. Nai Erromatar Ekialdeko kaizargotza⁽²⁾ 1453ko urterarte iraun,
areik eta Turkoagaitik menperatuta geratu arte.

Eta 423an erromatarren Mendebaleko kaizertza jausi zanetik, Erromari emoten jako asi-
era, Aita Santuaren bizi leku eta kristau katolikotasunezko zilborra izan edin, Europaren
aolkulari nagusi lez geratuta.

Emendik aurrera eta Erroma saskildu ondoren, 410ean I Alarikogaz asita, Godoak sar-
tzen dira kaizargotzaren jokoan.

4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.

Kristautasuna katoliko alderdikidetu zanetik ona ezartzen dira okerrezko erabagi aundi-
ak, edestian zear etenbako goraldian ziñeskintza arauz gogortzen joan zirenak, eta oraindi-
ño ezin doguzenak lepotik kendu, berezko errigizarte ta izkuntzaren eskubideai ainbeste
kalte egiten dautsezan norkeriaren guzurrezko arrazoikeri orreik.

4.1. Konstantinok 325n urtean eta bere agindupean.

I San Silbestre Aita Santuak, Kordobako Osio gotzaiña⁽³⁾ bere ordez joan zedin deituta
ta beragaz Bito ta Bizente apaizak joan da, 325ean Nizeako I Eleiz Batzar Nagusia batu
zan.

Bertan Arrianoren irakaspidetza baztartuz eta Zesareako⁽⁴⁾ Eusebiok siñesteko idatzi
eban Kredoan on artuta, katolikotasunezko eritzi barri au aukeratu zan.

Ekitaldi au, ez dogu galdu bear gure ikusmenetik, gero Godoen VIIn gizaldian Toledoko
eleiz batzar nagusian eta XVIgarrenean, errege katolikoarekin zer gertatu zana jakiteko.

Konstantinok urrengo urtean: Izadi oneitan Jainkoa eta Mundu onen giza bitartean or-
dezkari legeak zuzentasunezko bidean ezartzeko, solaskide bakarrak⁽⁵⁾, Kaizertza eta Elei-
zaren Aita Santuengan egon zedin jabetasunak erabagi eben.

Eta ortik aurrera, euren batzangotasunezko agindupean Munduko gizarte guztia eritzi
orreitan sartu naian, asi ziran arrokeri aundiz ziñeskintzazko agindu gogorraz⁽⁶⁾, Jainkoak
gaiari ipinitako Berezko lege guztiak naastuten.

Erabagi au artu zanean, erromatarrak asieratik eta ariñago Zesar Augustorekin batez be,
Mundu onetan erregetza bakarra egiteko asmakuntza indartu zan, Eleizari aolkularitzazko
eskubide osoak emonda.

4.2. Erromatarrak Europara ekarri ebena.

Erromatarrak, gudalari edo borrokalaria aundiak izan ba ziran be, sekula ez ziran izan

(1)Ziñ ukatzaill= apostata,renegado. (2) Bizanzioko kaizertzari deritxona. (3) Osio Gotzaiña, 257an ? Kordoban jaiio eta 357an Pano-niako Sirmionen il zana. Kordobako Gotzaiña eta Konstan-tinoren aolkulari zana Arrianismoa bastartu dagian eta Nize-ara Aita Santu I San Silbestre ordez joan zana Bito ta Bizente apaizaren laguntzan. (4)Cesarea.(5)Solaskide bakarrak=uni-cos interlocutores válidos entre Dios y los hombres. (6) *Maixukeritzko Dogma arauz = dogmatika-mente. Batzangotu baiño, dana banandu ez ebena baiño besterik egin*

erri bat eskolatzeko gai.

Eginda egoten zana edo ta ibili ziran erri guztietatik egon zan baliozko mozkin guztia eurentzat artzen eben, erritarrak morroitasunera galazota.

Legedi arloetan ausartak izan ba ziran be, euren menperatzaille asmakizunezko eritzian eginda egon ziran danak. Eta ori izan zan Erromatar Bakea ?.

Greziako erria, menperatuta geratu zan gudalozte eta politika arloan erromatarren bul-tzadagaitik.

Greziatarrak, Euskalerrriaren lurraldeko batzar nagusien antzera, sekula ez eben artu nazioaren izena, euren Uri nagusitik kanpo. Gogoan euki ebelako, Ludi onen berezitasunezko lege indarrak zelan jokatzen daben giza ta errigizartearen Berezko Nortasunetan.

Mailla aundiko ulermena lortuta jakintza orreitan.

Eta danon Nortasunezko ardurak jaurkintz zaintzeko euki eben antolamenduzko oitura, itzarmenekoa edo elkargokoa izan zalako, sekula ez ziran joan Laterrizko Uritik gora.

Denbora aietan eta gaur be, berezko antolakuntzatik kanpo, nai Euskalerrriaren lurraldeko batzarrak eta Griegoaren elkartasunak, geiagorik bear ote eben ?.

Erromatarrak asmakizunez euki eben menperatzailetasunezko katolikotasunaren eritzi-agaz indartuta, eta Europako errigizarte guztiak banaka Jainkoari begira eta erri-lez Nortasunezko antolamenduan euki genduzan ordezkarietarako ardurak demokratikoak, erromatar oneik odolkeriz eta ezereztuteko alegiñetan, zirriborrotu baiño ez egin eben altxor aundi ori.

Orregaitik, Greziatarrak gai lez menperatuta geratu ba ziran be, erromatarrak euki eben bemaillako edo zentzungabea aundikerizko ulermen ori, beti egon bear izan eben Greziak bizi oneri emon eutson adierazpeneko ulermenaren mende, jakintzazko zentzun aundian kokatuta egon ziralako.

Erromatarren arrokerizko asmakuntz orreikaz, beti sortzen dira eztabaidak gauza bien artean aukeratu bear dogunean: Gai onetan sasijainkotasunean aundiak izan, ala Jainkoak Ludi oneri erperatuteko Legean ondo adierazpendutako lotsagizunean bizi.

Erromatar oneik, leenengoa artu eben, eta asmakuntz orregaz gudalozteak indar aundiko antolamenduan eraikita, Munduko lurrak eta gizarte guztiak menperatzen asi ziran, danok, euren errege ta eurak asmatutako jainkoen agindupean egon gindezan.

Andik oraiñarte katolikotasunezko alderdikieran sendotuta, bidean aurkitu eben indar guztia, nai berezko edo egindakua izan, indarrez eta amarrukerizko "veni, vidi, vici" jokoa-gaz, euki eben batzangotasunezko asmoa, betirako izango zala uste eben.

Zertarako gura dabez, dan guztiko gizaren erantzuteko ardurak, batzangotzeko asmatu eben iraspenean ⁽¹⁾ edo ta esku bateko agindupean batu: Danon ordezeko arduraren lanak, eurak beteteko ?.

Ezinezkoa da ori.

Danok, ordezeko ardurak orreik, gizartearen zentzunezko antolamendu on baten ordezkatzeko jaiotzen garalako. Antza baiña, batzuk uste dabe, gai-ludi onentzat Egilleen oiñarritutako aginduak ez diralako orreik, norabideko naaste berraste baten agertu gara, nai erri lez, bai izkuntz lez.

(1) Iraspen=institución.

Zergaitik?: Izkuntzak eta erriak euren Nortasunezko Berezkotasunean diralako tresneri ederrenak Jainkoari ulertzeko eta Beren agindua ekanduz ta orekan zaintzeko, zentzunezko eta danon arduraren antolamenduzko ekintza on baten.

Asken baten, asmakerizko ekintza orreik izan dira len eta gaur, erromatar katolikotasunaren amets ta indar guztiak suntsitzen dabezanak, gizon emakumeai olako eritzi bidetik, gaitzberako baitan⁽¹⁾ kokatzen gaitulako.

Gaur, Europan eta Euskalerrian batez be, oraindiño daukaguz gure artean fazista indar orreik, zentzunezko arrazoia ez dabena izten bere lekuan kokatu daiten.

Baiña uste dot denbora gitxirako izango dala: Jainkoak bereztutako legearen aurrean, euren maltzurreko guzurrak, nabaritasun guztiagaz suntsitzen⁽²⁾ diralako.

Ala, Munduan beste irugarren odolkerizko sarraski aundi bat egin, antolakuntzak len maltzurrezko asmakizunetara eroateko?. Ori zan, Munduko bigarren guda nagusia sortu ebana.

Aukera ori be ezinezkoa biurtu jaku, iñorentzat ez dalako egongo urten biderik.

A ta guzti, gaur Munduko gizartea artegatzeko daukien aukera bakarra, diruan dago. Ostondu edo eta beren bideak moztuta, errigizarteari irauzi edo errotik atara⁽³⁾ egiten dautselako, errigizarteak guztiz noraezeko urduritasunean kokatuta.

Luzaro?. Aukera orreik be, epe laburra daukie, Mundu ta onen gizartearen BAITA, leen beren bakezko lekuan kokatzera joango dalako.

Ori da arrazoi aundiena, gaur iñork ez dagian izkillurik erabili, eta askoz gitxiago gure euskalerrian.

5. Godoak.

Godoak ez eben denborarik euki, erromatarren ereduazko menperatzail alegiñakin kaitzertzazko asmakizunak sendo ezartzeko, eta Europa osoan emon eben denbora guztia, borrokan baiño ez eben ibili.

Ardura aundiz egin ebena baiña, Ekialdeko erromatar Arkadioren seme II Teodosio kaitzertzak⁽⁴⁾ argitaratu eban Teodosioren lege bilduma eta I Justinianok⁽⁵⁾ beren Corpus juri civilis⁽⁶⁾ batu ebenagaz, II Alarikogandik asi ta 506n urtean, Romana Bisigotorun⁽⁷⁾ legearen laburpena argitaratu, Mendebaleko bisigodo guztientzat.

Leobijildo⁽⁸⁾ konturatu zan erromatarren antzera, oneik katoliko Kristautu eben alderdian euki ebela aukera bakarra, euren kaizar-mende asmakizunakaz aurrera irauteko, eta bere seme Rekaredo limurtu eban Arrianismoa baztartuta katolikotasuna besarkatu egian, indartuz, euki ebazan elburuak garaipentzeko.

I Rekaredok⁽⁹⁾, 587an Arrianismoa baztartuta eta 589an katolikotasuna besarkatu ondoren, Toledoko IIIgarren Eleiz Batzar Nagusia batu eban bere agindupean, ta ortze emon eutsen indarra oster be, erromatarrak Mundu onentzako errege eta katolikotasunezko ekandu bakarra euki eben asmakuntzari, ortik aurrera, Toledo kaizartzazko Iri lez ezarrita.

Eta Europaren Mendebal guztiko agintaritzak ortik aurrera, sortu edo eta egingo ebezan jaurkintzazko antolamendu guztiak, iru baldintza oneikaz beartuta geratu ziran: Greziaren

(1)Gaitzberako baitan=presos de un ostracismo vicioso. (2)Suntzitzen=desaparecer, disiparse.(3) Errotik atara=desencajar, desquiciar. (4)568-586. (5) 516-601.(6)Corpus juri civilis = còdigo de Justiniano. (7)Romana visigotorun = breuiario de Arriano.(8)Leovigildo = 568-586. (9) I. Rekaredo = 516-601.

jakituria, Erromatarren Legea eta Eleizaren Katolikotasuna.

Berez ezin leikezanak iñondik iñora eskondu, Greziaren jakiturizko Demokrazia ezin leikelako bateratu beste biekaz, oldozmeneko eritzian guztiz aurkakoak diralako.

Askatasunaren Demokrazia ezin dalako Menperatzailletasunaren asmakuntzazko ekin-tzakaz zorro edo zaku bardin baten sartu.

Godoak, len Arriaren eritzian eta gero erromatar katoliko asmakizunakaz aurrera eginginda, beti borrokan ibili bear izan eben eta Euskaldun Demokraziaren zentzuzkoagaz batez be.

Aukerutzen zan euren errege barri bakotza jaur-alkian ezarri orduko, beti egon ziran beartuta: "et domuit vascones esatera". Guzur utsa izan zana.

Esan oneri Aita Santiago Onaindiak eta Olazartar Martinek erantsunda, batera esango eben: lujuria exuberante.

711an Mauritarrak etorrita, godoak suntsitu ziran, baiña asmakizun orreik Pelayok (?) Asturiasera eroanda⁽¹⁾, andik eta katolikotasun bidetik asiko zan ostera be erdi ugarte onetan beren berrezkuntza eta 800 urte geroago⁽²⁾ ekiñaldi gogorrean asi, mendeko eritzi orreik lortzeko.

6. Erdi Mende au, Mauritarrak artean dirala.

Edestiaren jakintza antolamenduta egokitzeko, edo: 476an Godoak Erromatarren Mendebaleko kaizertza ezereztu ebenetik, Turkoak 1.453an, Konstantinopla menperatu eben arteko aldiari, Erdi Mendea dala esaten jako.

Edo ta erromatarrak suntsitu ziranetik, 1.440-1.450 urte bitartean, irarkola⁽³⁾, irarritzeko papera⁽⁴⁾, bolbora edo lerrautsa⁽⁵⁾, itsas orratza⁽⁶⁾, itsas ontzientzako oial mugikorraren asma-ketak lortuta, Amerika agerketaren ondorioz lurralde nagusi bietan asi ziran itsas billaketa-rarte be, esaten jako.

Bai, pizkunde⁽⁷⁾ edo ta Eleizak Luterotar Martinekin asita euki ebazan berrikuntzazko⁽⁸⁾ arazo aldiak deritson arte.

Goiko ta beko mende aldietan banatzen da Erdi Mende au, leenengo gizaldiak goikoare-nak esaten jakozenai eta bealdekoak askenekoari.

Goian ikusi dogun lez, esan leike Metal aldi edo Arotik aurrerantzean, Sargonen gandik asita jendekuntzazko jakiturian ⁽⁹⁾ garaipentzen zanak, eskubidea ta indarra eukala besteak menperatzeko eta alan sortu ziran Siria, Ejipto, Greziatik zear, Mauritarran garaipeneraiño.

Mauritar onen asiera K.a. 1.000 urte gitxi gora bera sortu zan.

Onak be bardiñ gura eben egin, baiña artean Erromatarrak K.a. 753 urte ariñago jaio ziran eta K.o. 325ean Konstantino I San Silbestre Aita Santuarekin batera Nizeako batzarrean beste zeaztasunezko eritzi bat emon eutsen mugi aldi oneri, Mundu guzti au kaizar eta Aita Santu baten agindupean batzangotzeko.

Ortik aurrera gaur arte, ikaragarritzko lasterketa bat izan da, Jaungoikoak Ludi oneri Berezitutako⁽¹⁰⁾ legearen aurka.

(1)Pelayo baiño, nik uste dot eleizaren katolikotasuna izan zala. (2) 1.453. (3) Irarkola = imprenta. (4)Irarritzeko papera = papel para imprimir. (5) Lerrautsa = polvora.(6)Itsasorratza=brujula. (7) Piz-kunde=renacimiento.(8)Berrikuntzazko = reforma. (9) Jakiturian = civilizaciòn. (10) Berezitutako = naturalizado.

Mauritarrak 711n urtean Europara sartu ziranetik, antolamenduzko guda indar aundiekin asi ziran euren asmakizuna garaitzeko, baiña ikusi dogun lez, Poitiersera elduta, Marteltar Karlosek geratu ebazan.

Ortik gora ezin eben igon, eta euren 781eko urtetan gure artean egonda, XIIn gizaldian berakadan asita, 1.492ko Urtarrillaren 2an Granadaren menpetasunezko itunerarte iraun eben.

Baiña, Munduari emon eutsoen jakintzazko eragipena, ia gure denboretaraiño eldu da.

Euren izkuntza ezarri naian, toki izenak be alegindu ziran aldatzen, adibidez: Guadalajara ibaiaren len edo Euskerazko izena arriaka edo arriaga izan zana, eurak guad-ilhijiarah⁽¹⁾ esangura bardiña daukan izena ipini eutsoen eta gaur bertatik datorren Guadalajara izenagaz geratu zan.

7. Erdi Mendean, Eleiza Katolikoaren nausitasuna.

Europan, erromatarren menderatzeak amaitu ziranean, eta Aita Santuak bere sasi-jainkotasunezko aldizkoan⁽²⁾, Nizeatik ekarri eben uts-ezintasunezko⁽³⁾ gogoeta⁽⁴⁾ siniskai bidetik, Eleiza katolikua agertu zan errigizarteak alkarganatzako, eta jakintzan jendekuntzatzeko kaizartza guztien gaiñetik, bera ezarri zalako aolkularitzaren agintaritzan, eta bereala bete ziran Europako lurralde guztiak, baseliza, eliza ta Gotzai Elizarekin⁽⁵⁾.

Gero erlijioa irakatsiz, Europako lurralde zabala latiniñaren izkuntzazko jendekuntzan ezarri gura ebana, eta orduan egoan erlijiozko Kristau sugar edo irakiñaldi erri ta errigizarteetan susmatu edo igarritzeko, ez dago bezterik, katolikotasun jardueran⁽⁶⁾ egin ziran gurutz gudaldiak ta eleiz epaiketetan⁽⁷⁾ banatzen ebazan zigorrak ikusi baiño.

Frantziako lurraldean Klodobeok⁽⁸⁾ Merobinjio leiñua sortu ebenetik ta Kristautasuna besarkatu ondoren, euren etxezain ta gero errege izango zan Marteltar Karlosek⁽⁹⁾, 732an Mauritarrak Tours ta Poitiersen geratu ebazan, ekintza orregaz Europako Katolikotasuna galbidetik gorde egin ebana.

Bere seme Pipino, edestirako laburra izendatuta geratuko zana eta Karlo Magnoren aita, 751n Karolinjioaren leiñua sortu ondoren, IIIIn Leon Aita Santuak Karlo Magnori Gabon egunerako Erromako San Pedro eleizara deituta, Mendebaleko Erromatar Kaizar Sakratuaren Augusto Kaizar jauna koroatu eban 800n urtean.

Ortik asiera emonda ostera be, zoritzarreko erromatar menpekotasunaren asmakuntza orreri.

962an XIIIn Juan Aita Santuak Alemaniako I Oton aundia⁽¹⁰⁾, Europaren erdiko aldea, Italiako iru zatitik bi ta Frantziaren Ekialdeko Erromatar Kaizar Sakratua izendatu ondoren, 963an euren arteko gora beragaitik ez ziralako konpontzen, Otonek XIIIn Juan kendu eben beren jauralkitik eta VIII Leon ezarri eban.

Txekoslobakiaren errege I Boleslaok⁽¹¹⁾ onartu egin bear izan eban Erromatar Kaizar Sakratuaren nagusitasunezko menpetasuna eta abar.

(1) Guad-Ilhijiarab, mauritaren izkuntzan = arriarenerrekaesangura dauana. (2) Aldizko = capricho, terquedad, obstinación. (3) Uts-ezintasunezko = infalibilidad, o el don de nopoder equivocarse. (4) Gogoeta = pensamiento, idea, concepto. (5) Gotai-eleiza = catedral. (6) Jarduera = proceder, comportamiento. (7) Eleiz epaiketetan = autos de fe. (8) Klodoveo, frankoaren erregea = 466-551. (9) Karlos Martel, lenengo erregearen etxe-zain eta gero frankoen errege = 689-741. (10) Alemania'ko Oton aundia = 912-973. (11) Txekoslobakiako errege I Boleslao = 935-976.

Gero I Maximiliano⁽¹⁾, espainiako I Karlos'en aitite eta II In Maximiliano⁽²⁾, espainiako I Karlos'en anaia Alemaniako I Fernandoren⁽³⁾ semea zana be, Erromako Kaizar Sakratuak koroatuak izan ziran.

Kontuan artu bear dira, 1.516an I Karlos espainiako errege izendatu eta 1.519an Alemaniako kaizar V Karlosen izenarekin egin ebenean, Frantziako I Franzizkoren aurka euki ebazan Europaren lau guda nagusiak, Aita Santuak euren buru gaiñetan dindilizka euki eben Erromatar kaizar Sakratuzko domiña aundi ori nork eroan dagian Europaren Mendebal onetan: 1^a=1.521-1.526.⁽⁴⁾; 2^a=1.526-1.529 eta urte onen bitartean I Karlosek, VII Klemente Aita Santua I Frantzizkorekin kidetuta egon zalako, Erromari erasotu ta saskildu ondoren, I Karlos Aita Santuaren atzetik arrapaka ibilita, onek Sant Angeloko gazteluan ostondu bear izan eban, eta 1.530ean VII In Klemente Aita Santuak espainiako I Karlos ta Alemaniako Vna, Erromako kaizar sakratua izendatu ebala.

3^a = 1.535-1.538 eta 4^a = 1.542-1.544 Nizako bake une edo gudu arte, eta Krespiren ba-kean amaitu ziranak, eta abar.

Bai eta kontu aundiagoan, Errusiaren askeneko mugatik Atlant Itsasoraiño, eta Noruegatik Afrikaraiño⁽⁵⁾, nai ta batzuk beranduago egin arren Kristiñaukide izan da, 325ean katolikotasunaren indarrezko alderdikeria sortu zanetik, 622an lenengo banaketa andia Islam sortutakoan euki ebala, eta Europaren errigizarte asko beartuta, Kristau egin zirala.

Gaiñera, ez zala Jaungoikoaren agindua, Bere Legezko bereztasunetik sortu ziran: "gizaren leiñu edo erri ta errigizartearen izkuntzazko nortasunak suntsitzea".

Gure arbasoak, Bera ta Bere Lege baldintzaren aurrean bereztasundutako erritartze one-ri, ondo baiño obeto banakatuta adierazi ebelako bizitz au.

JAINKOAK, osagarritasunezko batzagotasunaren elburua be ipini euskun, baiña ez mendeko ekintzaren bide.

Gure arimak, arrazoizko baitaren ulermenean eragille eginda, gai eta gizaren eskubi-deak ordezkotuzko arduran zaintzera beartuta dagoz, arrazoiaren ulermenetik, nortasunezko ulermenera eldu gindezan

Sargonon ondorengotik asi, eta Erromatar Kaizar Sakratu asmakizunaren atzean ibili ziranak, ondo baiño obeto jakin eben, ez zirala Jaungoikoaren gauzak, sasi agintaritzarenak baizik. Jesusek, beste gauza batzuk esan euskuzalako.

Eta ikusi dogun lez, erregeen artean be, ondo baiño obeto jakin ebala, erabilten ebazan legezko eritziak norkeriaren gauzak zirala, sasi garaipenaren atzean ibilita Aita Santuen uts-ezintasunezko legeak be, agintaritzaren garrantziko gauza orreik euren artean ondo lotuta eukitearren, irabazgoi naierara ibilita, ez ebalako kontuan artzen.

Begitu bestela erlijiozko sinismenean euki eben ulermena Frantziako erregetza gure Nafartar III In Enrikeren eskuetara aukeratu zanean esan ebenagaz.

Kontuan euki, Nafarroako erregetza, 1.527an II Enrike Frantziko I Franzizko erregearen arreba Angulemako Margaritagaz⁽⁶⁾ ezkondu baiño ariñagotik, erlijio katolikoaren aurka, Kristau ukalarien⁽⁷⁾ erlijioakoak zirela. 1.560an Nafarroako III Juana erregiñak onartu eta 1.567an legeztu ebenetik.

(1) I Maximiliano = 1.459-1519. (2) II In Maximiliano 1.527-1.576. (3) Alemaniako errege I Fernando eta espainiako I karlos'en anaia 1.503-1.564. (4) 1.525an Pabiako borrokan, Urbietatar Juan bizkaitar gudariak I Franzizko arrapatu eban, eta I Karlosek atxilotu. (5) Bera kontuan artuta. (6) Angulemako Margarita, Frantziako I Franzizkoren arreba zanak, berak ez eutsen katolikotasunari ukorik egin, eta II Enrike bere zenuarra iltzetik askatu eban. (7) Protestante.

1.593an, Nafarroako III Enrikeri Frantziako errege izateko aukera ori, baldintza onegaz agertu jakon: Kalbinoren ukalaritzatik⁽¹⁾ alde edo ukatu egiela eta katolikotasuna besarkatu.

Bere erantzuna: "Parisek, Meza bat merezi ebalala esan ondoren"⁽²⁾, 1.594an Otsaillaren 27an Frantziako errege koroatu eben, IVn Enrike izenagaz.

Orduko Munduan eta Europako errigizarteak batez be, batzangotasunaren asmakizun ori kontrolatzeko, ez eben gogorkeri orren griñapean⁽³⁾ bakarrik bizi bear izan, aitor seme andiki edo galdukerizko feudoaren legepeko⁽⁴⁾ premiñaz⁽⁵⁾ gain, uzurri edo elderri⁽⁶⁾ ugari artean bizi bear izan ebalako.

Negargarrizko ikustea da, zelan katolikoak norkerizko batzangotasunaren asmakuntz ori aurrera erodateko, kaizar domiña aundi ori errege guztien buru gainean dindilizka ipinita indartsuenak artu egian, European Kristiñau erlijioa eskuetan panpa bitxi⁽⁶⁾ edo panpa⁽⁷⁾ bat lez ibilita, egin ziran odolkerizko sarraskiak.

Pozgarritasunezko egia da baiña, jakintza len lekaidetxetan babestu egin zana ta gero Bolonia, Padua, Paris eta abarreko Ikastetxe Nagusietan, eskolastikazko eraman onaren⁽⁸⁾ zentzua sendotzen joan zala.

Eta geien, Akinotar Tomas Santuak⁽⁹⁾, Kristautasunezko zentzua, Aristotelesen eraman onaren irizpideko⁽¹⁰⁾ bereketagaz⁽¹¹⁾, maixutasun aundiz bat egin ebana.

Nai ta berak, bere azkeneko denboratan zalantza asko euki, bere idazkietan zeruko izkutasu-nari ez ebalako jakin, bear eban lez, egokitasunik e-mon.

Tomas Santuak, orduko eraman-onaren⁽¹²⁾ zirriborro orren barruari, argitasun aundiak emon eutse-zelako.

4. ZATIA.

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, errege jaun sorkuntzaren sarrera.

1.1. Euskalerrian Jaun-erregearen sorkuntza.

1.2. Gure Nafar erregetza.

1.3 Bizkaiko jauntza.

2. 1.540 1.550en Erdi Mendeko urtetik Oraingo Aldira, edo ta Berrizte Alditik⁽¹³⁾ Frantzian 1.789an egin zan iraulketatik gaur arte.

3. EUSKEREAK Euskalerrinari, zelako irudiagaz itxuratzen dautso ?.

4. Euskalerriko semearen egin bearra

1. Gure Erdi Mendeko Euskalerrian, jaun eta erre-getzaren, sarrera.

Sarrera.

(1)Ukalaritzatik = protestantismo. (2) Nai ta berak erantzun ori, emon ez. (3) Griñapean = preocupa-ciòn, desasosiego. (4) Galdukerizko feudolege-pean = corrupto, feudalismo valvasor.. (5)Premiñan = in-digencia, pobreza. (6) Izurri edo elderri = epidemi-as, o, pestes. (6)Panpa bitxi=marioneta, fìtere.(7)Panpa=muñeco.(8) Esko-lastikazko eraman ona=filosofia escolastica, escolasticismo. (9)Akinotar Tomas Santua = 1.225ean Italiako Rokka-sekan, Kanpaniako Akinoren aldamenean dagoena jaio, eta 1.274an, Fossanobako zizter lekaidetxean il. (10) "Irizpide" = Critica de la filosofia del aristotelismo. (11) "Bereketa" = Asimilaciòn. (12) Eraman oneko = filosofia. (13) Berrizte alditik = desde la reforma.

Orañarteko edestilari geienak irabazgoi edo ta bildurraren eragipenez, norkeriz dabizen agintariak gura⁽¹⁾ daben argitan ezarri egiezen errigizartearen etorkizunezko edestiak, Europa eta Euskalerriko arbasoen ulermenak zelako zentzuagaz jokatu eben esateko: “beti izan dira, edestian etorri dan erromatar batzangotasunezko asmakizun mende orregaz zikinduta”, berezko errigiarteak ezerezko kontuan euki barik, eta norkerietan dabizenai lagunduz, daukiezan sasi garaipenaren egarrietan iraun dagien.

Espainolak adibidez, beti agertzen dabe, euren errege ta izkuntza⁽²⁾ betikoak edo ta danok espainiolak izan bagiñan balitz bezala.

Egia baiña, urrun dago ortik.

Orregaitik, Euskalerriko edestia ta Euskal izkuntzaren buruz, berezko nortasunaren zentzu aunditik urrunduta, egiten dabezan adierazpenak eta bai euren menpekotasunezko irakasketetan guzur aundi ta utzikeriz ⁽³⁾ betean: Euskaldunak, Mendekotasunean ⁽⁴⁾ bizi izan garela beti esaten dabe.

Zelan ulertu leike ori, gure Euskerearen nortasun demokrazizko askatasunean bizi bizi gagozanean, eta eurak nortzuk diran jakin gabe ?.

1.1. Euskalerrian, errege-jaun´en sorkuntza.

Euskalerriko lurraldeak, euren batzarreko nagusitasunean antolatuz jaurkintzen ziran, eta batzar nagusi orrein agintaritzak mugarik ez ebala euki adierazteko, Jaunak Bizkaiko jaurkintzaren antolarazirako, zelako baldintzakaz aukeratzen ziran argituko dodaz.

Europa guztian, baiña Euskalerrian batez be, errege jauntzak aukeratzen ziranean, erriak iru gauzatarako artzen ebazan:

A) gudal buru izateko.

B) zuzenbidearen buru nagusia izateko.

D) Bizkaiko ondore aundiko lurraldeak zaintzeko.

Jauntza, ain zabaleko almen eta ondasun orrekaz jantzi ba eben, bere buruzagitasuna, lasaitasunezko jaurkintzan iraun egian izaten zan.

Eta kontu aundian artuta, berea ez zala ezer, bere antolarazian⁽⁵⁾ babesteko euken guztia, Bizkaitarrak emonekua zalako.

Orregaitik, aginduaren eskubide bakarra errian egon zala erakusteko:

Erabagitasunean apur bat.

Beste apur bat: Egilletasunean.

Eta beste ataltxo bat, Legegilletasunean bakarrik, emoten eutsoen.

Alderantziz baiña: Batzordea beartuta geratzen zan, jaun edo erregeak bere antolarazian gure arteko bakeak lortzeko, edo ta baten bat indarka sartzen zanean kanporatzeko borrokatu bear izaten ebenean, euki eben gudaloztea, gure guda mutillakaz bear eben neurrian indartu bear ebelako.

Jaunaren antolarazi barruan bakeak lortzeko izaten zanean, diru ordezeko soldata barik, eta ariñautik ordainduta, etxetik kanpo bere gauzatarako izaten zanean.

Europako Jaun-erregezko baldintza au, nai berezko erri guztien eta Euskalerraren aska-

(1)Edo beartuta.(2) Izkuntz ori Espainol ez dana, Gaztelera-ko latin kumea baiño. Eta, zer da espaina ?. (3)Utzikeriz =lleno de omisiones
(4)Mendekotasunean=subordinación. (5) Antolarazian = arbitraje.

tasunerako izan, txeberazko sare aundi bat biurtu jakun, Euskaldunak, eta Europaren berezko erri guztiak ortik aurrera, anai arteko borrokan ibili garalako beti.

Jaun erregeak, bategaz edo besteagaz borrokan ibiltzen ziranean, bai beren maltzurkerizko andikeriaren billa ibilita, adibidez: II Juan⁽¹⁾ eta beren seme Fernando katolikoa Nafarroagaz geratzeko ibili ziranean, anai arteko guda ugari egiñez gain, Aita Santua Europaren katolikotasunezko aolkulari nagusi lez euren alde egonda, erlijioagaz guzurrezko naste andiak egin ziran.

Zergaitik ?:

Europaren berezko erri eta Euskalerrriaren askatasunarentzat batez be, eleiza katolikoaren alderdikeriak, itxura gabetuan⁽²⁾ ekarten eban txeberazko sare aundiak: Mundua latini-menpe batzangotzeko, kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren norkerizko asmakuntzak⁽³⁾, greziaren jakintz demokratikoagaz bat egin ebalako.

Eta Aita Santuak, Erromatar kaizar sakratuzko katolikotasunaren kaizar domiña andi ori, Europako errege katoliko guztien buru gaitan dangilizka ipinten eban indartsuenak artu egian, berezko errigizartearen eskubide gaitetik, asmakuntz gaito orreik lortzeko.

Baiña, Greziatarren Jendekuntzako Jakintz Demokratikoa, naastu leike erromatar menperatzaille kaizar sakratuzko katolikotasunaren legeakaz ?.

EZ ! guztiz aurkakoak⁽⁴⁾ diralako.

Alderantziz baiña, naste ori egiñaz, eurak emon euskuen aukera ederrena, euki eben menperatzailletasunezko asmakeri ori, Berezko egiagaz alkar aurkezteko⁽⁵⁾.

Eta nai ta egibillaren azterkuntzak oso odoljariozko lazkartasunean⁽⁶⁾ etorri izan ba dira be, Greziaren jendekuntzako jakituri demokratikoa artean sartuteagaz, mesede aundiak egin eutsozan Munduari, Berezko egiaren zentzuak argitu zitezen.

Baiña, Europan eta Euskalerrriaren batez be, errege jaunak sortu ziranetik gaur arteko edesti guztian, eta jakintza ta indarra, aginduten eban nagusiak guzurrezko baldintzatan biurtu ebenetik, maltzur joko orregaz Bereztasunaren egi guztia naspiltzeko alegiñean ibilita: "Berezko erri ta izkuntzak, irten bide barik geratu ziran".

Edestiaren Ekanduzko joko guztia, berezko erri ta Izkuntzaren aurka biurtu eben, berezko erriak eukezan nortasunak desagertu, aienatu edo suntsituta, mundu oneitan euren sasi jainkotasunezko jopu bildurrean⁽⁷⁾ ezarri gindezan.

Gudaren buruzko alegiñean, nor ez da gogoratzen Zesar'en veni, vidi, vici'gaz, godoen et domuit vascones eta Katolikotasunak Nizeatik aurrera Euskerea bastartzeko esaten dauskuenakaz HABLE USTED EN CRISTIANO, euren beldurkerizko guzurra ostondu narian, edo ain nabaritasunezkoa izan da, norkeriaren indarkeria erakusteko.

Eta bai abar asko be, menperatzaille eritzi orren lorak baiño ez diranak, Berezko Erri ta Izkuntzaren aurka.

Zergaitik ez dabe esaten HABLE USTED EN KATOLIKO ? . Bildur dira euren menperatzaille maltzur joko argitan agertu izatea ?.

Argi dago, Jotsabako ollo busti batzuk baiño ez dirala JESUSen irakaskintza olan zikintzen dabenak, sasi-jainkotasunaren asmoz.

(1)IIJuan=Aragoiko ta Nafarroako erregea.(2)Itxura gabetu-an=camuflado.(3)Kaizar ta Aita Santu baten agindupeko jaurkintzaren asmakuntza = nacional-catolicismo fascista. Rou-ko Barelak atzo, nortzuri esan eutsoen fazitzak zirela ? . (4) Aurkakoak = antagonicos.(5) Alkar-aurkezteko = cotejar. (6) Odoljariozko lazkartasunean = dureza, aspereza, bastedad. (7) Jopu bildurrean ezarri gindezan = ubicados en el miedo a la esclavitud.

Gaiñera, batu edo batzangotu baiño, nai nortasunezko erri ta izkuntzazko arloetan, mila zati geiagotan birrindu eben.

Munduko eta Europaren edesti guztia, odolkerizko sarrazkintza baten ekarri dabe sasi asmakizun ori dala eta ez dala.

Nortzuk dira ikarabideen⁽¹⁾ izutzaille edo izu-arazleak ?⁽²⁾.

Ez ete da ordua, zentzunezko aldakuntzan asteko ?.

Gaiñera ikusita, berezko legearen indarrak buruaren goi aldian daukaguzela keiñalari, noz iruntsiko momorro aundi baten antzera.

1.2. Gure Napar erregetza.

778-824an Orreagan Euskaldunak, Karlo Magnoren aurka euki genduzan borroka bi orre in ostean, Aritzatar Iñigorekin asi gendun Nafarroako erregetza, Banu Kasi sendiaren laguntzagaz.

Eta 888an, III In Alfonsogaz Paduran⁽³⁾ euki gendun borroka odoltsuaren ostetik, Jaun Zuriagaz, Bizkaiko jauntza.

Europa guztian baiña, 325ean Nizean, gaur daukagun katolikotasunezko alderdi menperatzaille antolatu ta erabagi zan jaurkintzagaz sartzen dira VII, VIII, eta IXn. gizaldi oneik be gaur arte, Europa ta Munduaren berezko nortasunaren izatasunak, euskalerrikoagaz batera desagertu zitezten edesti guztiko borrokan. Barriztu bear ziran ekanduzko eritziak eta tresnerietan sortu ziran aurrerakuntza guztiak, katoliko-batzangotzeko asmakizunaren serbitzura ipini ziralako.

XX In gizaldi oneitan konpondu bear dira, erdi-mendeko okerkuntza guzti orreik, bestela, ze izen ipini gure buru-gogorkeri edo itsumen oneri.

Euskaldunak, Bereztasunaren babeserako, Nortasunezko Izatasunean euki genduzan errege-jaunak oso abertzale aundiak izan ziran, baiña txeberazko sare aundi orregaz nai ta nai ez inguratuta.

Nafarroako erregetzan, lenengoetatik asita esan bear da: Batzangotasun orren asmakuntza bidetik eta European Eleiztarrak Latiña elburu lez gaienduta euki eben aolkularitzazko jabetasunagaz, Nafartar Jaurkintzan, sekula ez zala idatzi agiri bat Euskeraz, eta latinez ez ba ziran egiten, naiago latin kume⁽⁴⁾ baragarrian. Napar erritarrak ezeren kontuan artu gabe.

Joko orreitan eurentzat gaur lez: zer ziran Euskal Nafar erritarrak ?.

III In Santso Garzez Aundiak⁽⁵⁾ 1.035an kaizar erregetza, bere lau semeen artean banandu ebenetik, Gaztela eta Aragoitarrak edesti guztian ibili ziran zirikatzen, nork geratuko ete zan Nafartar erregetzagaz.

Eta len, Frantzia ta katolikotasuna bakarrik euki ba eben etsai, Gaztela ta Aragoitarrak asmakizunezko talde orreitan kidetuta, lau bider aundiagotu egin ziran, Nafartarrak aurre egin bear eutsoen zirikatuaeren eraso aldiai.

Gurutzadaren gudak aztu barik, ara be joan bear zalako.

Baita kontuan euki bear da, VI In Santso Jakintsuaren⁽⁶⁾ jaurkintzan, III In Zelestino Aita

(1) Ikarabide = terrorismo. (2) izu-arazleak = espantador, amedrentador, terrorista. (3) Padura = borrokaren ostetik Arrigorriaga deituko zana. (4) Latin kume = romance castelano, o, navarro-aragones. (5) III In Santxo Garzez "Aundia" = 965ean jaio, 999-1.035 errege. (6) VI In Santso "Jakintsua" = 1.128an jaio, 1.150-1.194 errege. (7) VII In Santso "Indartsua" = 1.154an jaio, 1.194- 1.234 errege.

Santuak beren berun bulda edo idazkietan, beste erregeari REX izenagaz bialtzen ba eutsozan agiriak, VI In Santso, 1.194an Jorraillaren 13ko berun idazkian eta gero urrengo VII In Santso(7) bardiñ, DUX edo dukearen izenagaz bialtzen eutsozala.

Baten batek ulertu leuke, zergaitik VI In Santso jakintsuak, Aldarrikatu bear izan eban Euskerea "Lingua Nabarrorun" lez ?.

Oso susmogarri agertzen jat neuri, Euskalerriko Nafarroaren erregea euskalduna izan eta Euskalerrian egonda, bere erriaren izkuntza EUSKEREA dala, aldarrikatu bear izatea.

VII In Santso Azkarra edo Indartsua gurutze gudatan ibili zan denboran, ordezeko jaurkintzan itzi ebazanak, okerkeri galantak egin ebazan beste euskal lurraldeakaz, eta VIII In Alfonso gaztelarrak Araba erasotzen ibilita, 1.200ean Araba ta Gipuzkoa Nafarroako erregeztatik banandu ziran gaztelarragaz itzarmenduta.

Eta Bizkaia 1.224an Nafarroako erregearen itzarmenetik askatu ondoren, naastu ziran Euskal luraren gizarteak euki bear izan eben sendi bateko ulermena, errege-jaunak ortik aurrera, euren antolaraziko lurraldeak, bananduta erabili ebazalako euren asmoak beteteko, edo baten batek daki zeren serbitzura.

Euskaldunak emendik asita, berez euki bear eben senidetasunezko ulermenean, naastuta ibili ziran denboraldi aundi baten, baiña zekula ez eben galdu sendimenduzko senidetasun ori, gero 1.789ko iraultzaren ostetik eta beti guda-bidez, European antolatu ziran laterriak aberriak zirala aldarrikatu eben arte, orduan konturatu ziralako euren berezko aberriaren eskubideak ostuten ibili zirala.

I Teobaldo, 1.238an Lur Santuaaren seigarren gurutzeko gu-daldia(6) bideratu ebela eta Tauro mendian betiko ospagarritasuna lortu ta gero, 1.240an itzuli zan ostera Nafarroara.

I Teobaldok 1.246an, Ximenez ta Gazolazar Pedro gotzaiñarekin, Fuegoak dirala eta ez dirala euki ebazan estaibada bidetik, gotzain onek zalantzan ipinten eutson Nafar erregetzak euki ebazan berezko eskubideak, eta IV In Inozensio Aita Santuak gogoratuz I Teobaldok gurutzeko gudan zer egin eban, lege berezi bat argituz: Bere baimen barik, iñork ezin leikela Teobaldo eleizatik kanporatu agertu eban.

Kontu aundian euki bear da, orduko denboratan errege baten bat edozer gauza gaitik elizatik eskomunikatuta kanporatu egiten ba ebela, erregetzazko koro ori, aske geratzen zala edozein printze katoliko artu egian, Aita Santuaren baimen guztiak eukinda erreñu orretan guda indarrean errege lez ezartzeko.

II In Karlos txar deritson erregetzan(2), 1.348ko Iraillan, izurri baltza(3) agertu zan, Nafartarren gizarte artean %tik, 70ean murriztu ebana eta lurgintzaren lanerako besoaren ezean agertu ziralako, Nafartarrak gose aundian sartuta, askori lapurketara emon eutsoen.

II In Karlosek, neurri gogorak artu bear izan eben ekintza orreik bakezteko eta Frantziko erreñuaren edestilariak, nai ta erriak oso maite euki arren, Nafar erreñukoari zirikatze "TXAR" izen ori ipini eutsoen.

Nafarroako erregetzan, erregearen legezko eta sasi semeen artean, bekaizkeri(4) aundia bitartez beti borrokan ibilita, eta kanpotik euki eben zirikitasun bidetik, erritarrak estutasun geiagotan sartu egiezan: Agramontes ta Beaumontesen alderdikeriak sortu ziran.

Nai European edo eta Euskalerrian bardin sortuta, baiña Nafartarrentzat batez be, oso

(1) Igo Teobaldo = 1.200ean jaio, 1.234-1.253 Nafarroako errege. VI In 1.228-1.229, eta VII In = 1.248-1.253 Gurutz gudaldietan buru belarri sartuta egoala.
(2) Nafarroako II Karlos "Txarra" = 1.332an jaio, 1.349-1.387 arte errege. (3) Izurri = peste. (4) Bekaiz = envidia.

gaiztoak izan ziranak.

Emen konturatu bear gara, Europako erregetza guztia, euren artean senituta egoala eta naigabezko borrokak edo asarre guztiak⁽¹⁾, bakoitzak gogoratzen ebazan erregetzaren esku-bideetatik agertzen zirala, erritarrak morroi bezela, Foruen aipamenakaz ara ta ona borrokan ibilita, kontuan artu barik.

1.423an Urtarrillaren 20an, IIIIn Karlos Biotz Aundikoak Nafar erregetza babesteko, Bi-anako printzerria sortu eban, bere illoba IVn Karlos izanda lenengo printze edo errege gaia.

1.441an baiña, I Blanka Nafarroako erregiña, Aragoiko IIn Juanegaz askonduta egon zana il zanean, ta euren seme IVn Karlos errege izendatu ondoren, IIn Juan bere aita eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, erregetzatik bota eban.

IVn Karlosek, gaztelatarren laguntza eskatu eban eta laguntza emon ondoren, Gaztelako printzeak Albaro de Lunari itandu eutson: Baiña guk zer lortzen dogu Nafarroan laguntza oneikaz ?. Eta Albaro de Lunaren erantzuna: Jauna ! 40 urteko anai guda izten dautsaguna.

Gaztelarrak, zelako gogoagaz lagunduko eutsoen IV Karloseri ?.

IIn Juanek⁽²⁾: I Juan izenagaz 1.441-1.479 Nafarroako errege lapurra lez, eta Aragoi ta Kataluniako IIn Juan errege lez, 1.458-1.479 Urtarrillaren 19raiño il zan arte agindu eban.

Beren seme alaba biak, Nafarroako errege erregiñak izan bear ziran IVn Karlos⁽³⁾ eta IIn Blanka⁽⁴⁾, pozoituta il ebazan.

Nafarroako Igoa eta Aragoiko II Juan onek sortarazi ebazan, Nafarroa, Aragoi eta Gaztelako erreñuaren artean aurkako guda oneik, ez ziran amaitu: 1.522an Mayan, eta 1.524an Ondarribian, Nafarroaren askatasunezko ikurriñak beratu arte.

Eta edesti labur bat lez esan bear dot:

Nafarroako I Juan ta Aragoiko IIn Juanen izenagaz ezagutuko zan eta IVn Karlos eta Fernando katolikuaren aita izan zanak, 1.441ean bere emazte Nafarroako erregiña I Blanka il zanetik asi zala, Nafarroa, Aragoi menpean ezartzeko ekintzakaz.

Gero, Vn Fernando katoliko'aren⁽⁵⁾ izenagaz ezagutu zanak, 1.512an Uztaillaren 21ean aurpegia erlijiozko mozorroaren estalpenagaz ⁽⁶⁾ agertuta, Nafarroa menperatu ebala.

Eta espainiako Igoa eta Vn Alemaniako Karlosek⁽⁷⁾, 1.522an Mayan ta 1.524an Ondarribian, Nafarroa, espainiaren mendepan egon edin lortu ebala, VI Alejandro, IIIIn Pio, IIn Julio, Xn Leon, VIIn Adriano, eta VIIIn Klemente Aita Santu ta Zizneros'en gudu tresneri ta bedeinkapeneko laguntzagaz.

Or amaitu ote ziran Nafartarren askatasunak ?

EZ.

Nafartarren askatasuna oraiñarte, indarkeri aundiaren aurka ezin dalako besterik egin, Euskalerrri osoa lez, estutasunezko larrialdi bat baiño besterik ez da igarotzen dabillena, beren askatasuna lortu arte.

1.3. Bizkaiko Jauntza.

(1) Geienak bai beintzat. (2)Aragoi eta Nafarroako II Juan erregea = 1.397 1.479. (3) Nafarroako IV Karlos = 1.421an Peñafielan jaiotako, eta 1.461eko Irailaren 23an Bartzelonan, gaitzepel edo bularre-tako miñagaz il zala esaten eben, baiña ez zan egia. (4) Nafarroako II Blanka = 1.424an Oliten jaiotako, eta 1.464ko Otsailaren 12an Euskalerrriko Iparraldean Biarnoren Leskarreko bizkonderrian il. (5)V.Fernando katolikua=Aragoiko Sos errian 1.452an jaiotako, ta 1.516ko Urrilaren 23an,Kazerezeko Madrigalejon il.(6)Mozorroaren estalpenagaz=ocultación, disfraz.(7) I Karlos = 1.500 1.558.

Gure jauntza, 888an Padurako⁽¹⁾ borroka lazgarri ostetik Jaun Zuriagaz asi ta aurreran-tzean, gure aukeratutako jaunak be, oso abertzale aundiak izan ziran, areik eta gauzak naspiltzen asi ziran arte, adibidez: 1.137an IVn Lopek Gaztelako VIIIn Alfonsogaz batera, Nafarroako VIIn Garsea edo Gartziaren aurka borrokan ibili zalako, bera kendu eta Nafarroako erregegaz itzarmendu giñan.

1.454an Gaztelako IVn Enrike Bizkaiko jauntza artu eban eta 1.470ean Epaillaren 4an Mungiaiko guda ostetik, jauntzatic bota egin genduna, bere ugaz-arreba I Isabel⁽²⁾ ipinita.

Eta ainbategaz bardin edo al gendun eran, nai guda keñuakin batzuetan IIIn Felipe espainiako erregeari bezela eta abar.

Bizkaiko jauntza, Europa ta Nafarroako arazo bardiñakaz iraun bear izan eban asieratik.

Danen antzera guk be, erromatar katolikotasunezko asmakuntz sakratuaren txeberazko sare orreitan sartuta asi bear gendulako.

Eta Bizkaiko gizarte ta Batzarrak euren jabetasunean, indarrezko babes ausarta aundiak eginda be, 1.371ean Abenduaren 20an gure jauntza, 13 urte eukazala espainiako errege izango zan I Juanen⁽³⁾ eskuetan jausi zanetik, txeberazko sare orreik zabaldu ta sendotu egin ziran.

Ortik aurrera, espainiako erregeen eskuetan egon dalako gure jauntza. 1.876an Uztaillaren 21ean guztiz ertsi⁽⁴⁾ edo Euskalerrria morroitasunean giltzapetu arte.

Europa, Euskalerrria eta Bizkaiaren gaurko Menperatzaille oneik, betiko askatasuna galdu egin dogula esan gura dabe ?.

EZ !!.

Bizitz oneitan Askatasuna galtzen dauenak, nortasunean galdu edo ilda dagoela esan gura daualako. Eta Euskalerrriaren Ego-alde ta Iparraldeko euskaldunak, bizi bizirik gagoz oraindiño.

Bereztasunezko legearen bidera aokatuta gagozelako, Demokrazizko bideak artzen doguzanean, Jainkoak ipinitako Legearen bideak artzen doguzela esangura dau.

Orregaitik, buru otzakakin eta demokrazizko zentzu aundiz jokatuta, lortuko dogun gauza da, munduko bizitz au norkeriaren maltzurrezko guzurak, amiltegitik⁽⁵⁾ ez badabe botaten.

1.540-1.550ean Erdi Mendeko urtetik oraingo aldira, edo ta Berrizte Aldetik⁽⁶⁾ Frantzian 1.789an egin zan iraulketatik gaur arte, agertu ziran aurrerakuntzakaz⁽⁷⁾, lengo erregetzaren orokorrezko agintea indartu barik eta eurak menderatuta, Nizeatik merkatilismoagaz batera etorten zan katolikotasunaren batzangotasuna joan ziran sendotzen, eta nai ta Europaren berezko errietan eta Euskalerrrian Iparaldeko iru lurralde ta Ego-aldean, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian gure askatasunezko eskubideak euki, tresneri barri orreik indarrezko aukeran emoten eutsoezan neurrian, euren asmakuntzak asi ziran gogortzen.

Zergaitik baiña menperatu ote eben, errege-irudiak euken antolatzaile edo artekarizko ardurak ?.

Erregetza orreik, XVIIIn Mendetik onantza makaltzen joan ziran lez, eta Berezko erriak ekanduzko ardurean indarra artzen, batzangotasunaren asmakuntzazkoak, erromatar kaizar sakratuaren katolikotasun tresneri orrekin ez ziralako gai izan Munduko giza guztia eritzi baten inguruan batzangotzeko, saio barri bat asi ziran antolatzen.

(1)Padura= Arrigorriaga. (2) I Isabel katolikoa. (3) espainiako I Juan=1.358-1.390. (4) Ertsi= clausurar, cerrar. Edo morroitasunean giltzapetu arte = encerrados bajo amenaza de las armas al servicio de los que dicen llamarse españoles. (5)Amiltegitik = precipicio, despeñadero. (6) Berriz-te Aldetik = desde la reforma. (7) Aurrerakuntzak = Irarkola, itsas orra-tza, lerrautza-(polvora), eta a-bar.

1.789an Frantzian egin zan iraultza izan zan saio barri ori, laterritutako lurralde aundien jendeak pillotuta, erri ta izkuntz ezberdiñ orreik, ia aienatzeko gai izaten ba-ziran, erromatik asmatuta, etorten zan latiñezko katolikotasunaren mesede.

Frantziko lurraldearen erregeen artean, franko erregeak, lenengo leiñuetatik beti, goitik berako jaurkintzaren zaleak izan ziran lez, iraulketaren ondorio bidetik, Frantziko gizarte ta lurraldeak batzangotu gura ebazan, eta ararte euki ebazan antolabidezko⁽¹⁾ erregeen ardurak baztartuta, berezko erriak daukezan nortasunezko izkuntz eta lurak guda-bidez latiñezko katolikotasunaren asmakuntzagaz laterritu ebazan, laterritutako lurralde guzti orreitan, danak frantzez biurtuta.

Eta katoliko batzangotasun ori mundu osorako asmatuta izan zan lez, Europa osoan eredu ori artuta, ararte egon ziran itzarmen bidetik antolaraziko erregeakaz lotuta, lurralde aundietan, guztiz Laterrituta geratu zan, aberri-barriak katolikoaren izen gaiñerakoagaz.

Baiña, Erromatar katoliko kaizar sakratuan batzangotzeko asmatuta dagoan zorro orren bealdea, josi barik euki ebelako, areik eta Mundu guzti onen nortasunezko giza barruan sartu arte, Napoleonek, menperatzailletasunezko ateak zabalik aurkitu ebazan, eta bera be joan zan Europa ta ia mundu osoaren kaizar-batzango ori lortzen, borroka ori baiña, Jainko Legearen aurka dalako, betiko lez, azken gaiztotuta utsegille urten bear izan eban, ainbeste millakada erritar eta gudarien eriotzagaz.

Asmakizun orrek, buru gogorra dauka eta Hitlerrek be azkeneko saioa egin eban, 60milloi giza seme il da.

Noz arteraiño, burukaldi gogor⁽²⁾ orreik ?.

Gaur ez dira ausartzen beste bat egiten, Munduko bizitza berrogei bider aienatzeko atozko lerkaiak dagozelako.

Eta errigizartearen nortasun ta nortasunezko izkuntzak gaur zer ?.

Sumeriatik, Sargon menperatzaillearen asieran lez, Jaungoikuak Ludi au asieratik, Beren legeakaz bereztuta dauka beti, eta lege orreik ez dabe esaten beste gauzarik: bereztasunarekin, lotsa aundia euki bear dogula baiño. Gure arduraren kontu aundienetan artu bear doguzanak, or ulertzen diralako Izadi onen gai gizaren eskubideak, edo ta Jainkoak agindutako zeregiña.

Norkeriaren asmakizunezkoak, nai edesti guztian Berezko legearen aurka, gizartearen ordezkartzeko ardurak eten-gabe odoljariozko sarraski baten ekarri arren, orokorrezko bereztasuna, arnasaldi baten sartu ezker, eta daukagun Baita´ren aginduz, Beren legearen ezinbesteko ardurak, bete egin bear doguzelako, eurak daukiezan indarragaz, beti bideratuko dira Jainkoak Bere Legeagaz emon euskun ardurazko ordezkartzagaz, gai-giza-leku edo berezko legearen izatasunezko egokitasunera.

Orduan, Bigarren Munduko gudan zer gertatu zan ikusita, zergaitik barrero artu ez, bere ostean damu aundiz eta garraxika aldarrikatu zan: GIZA eta Berezko erri ta erritar ESKUBIDEAREN bideak artu bear doguzela ?.

Iñoz ! ez dogu igarriko, JAUNGOIKUAK ipinitako LEGEAREN aurka ezin dogula egin ezer ?.

(1)Antolabide=arbitraje. (2)Burukaldi gogor = cabezonadas.

3. EUSKEREAK, ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAUTSO EUSKALERRIARI ?.

Euskerea, sortzeko izkuntza izan da, ez da gure gogotik oldoztu egiten dan izkuntz bat bezela.

Edo eta edestian ikusi dogun lez, menperatzailleak euren sasi garaipenak lortzeko, erri ezberdiñeko gizarteak menperatasunezko bearkuntzaren naastekatutik urten leiken izkuntz baragarri baten antzera.

Erromatarren norkerizko mende bidetik sortu ziran ainbat latin kumeen antzera, berezko erriaren izatasunari beartasun bidetik, euki eben nortasunezko ospea kentzeko⁽¹⁾ alegiñean, naspillatu⁽²⁾ egin ebalazako.

Jainkoak Berezko bizitz oneitara ordearen arduradunezko eragille lez bialdu ginduzanean, gai oneri arrigarritasun aundiz, adierazpen bat emoten asi bear izan gendun, goseak, gure sabel zorri onein larritasunezko doñuak, jaiotzak, eriotzak, gaxo aldi, zauri eta bizitzari erantzuna emoteko, eta bidezko edo lijikazko arrazoiauren aurkako ekintzak ez ziralako egokienak, bai-ta beste aukerarik ez gendulako euki, itaun bitartetik, baietza emon geuntson bizitz òni maitasunean egokituta.

Maitasuna, nori baiña ?:

Leen JAUNGOIKOARI, laster konturatu giñelako bizitz au ez zala edozeiñiek egindakoa.

Bigarren SENDIARI, lagun bearrean babeserako, guregandik ugaritzen giñelako.

Eta irugarren GAI-BIZITZARI, berak, gu izateko emoten dauskulako aukerea.

Maitasunezko egarri⁽³⁾ orren bidez, laster konturatu giñan, gauza guztien ekintzarako alegiñean, txar eta onezko aldiak eukezala, eta egiten genduzan gauza guztietan, lotsasko neurriakaz arduratu bear giñela, oker edo utsaldian jausi ez gindezan.

Bai ta, ikasitakoak gure ezagueran era-bidez⁽⁴⁾ oitüratzeko, antolakuntzazko beste uler leku barri bat zabaldu bear gendula, eta ortik asi bear izan gendun abots edo itz otsai itxurazko eran amore emoten⁽⁵⁾.

Omo Sapiens, Afrikatik mugi aldiari asi eta Europa, Asia ta Indiatik leen Euskerazko itz ta ekanduaren oiturazko oiñarriekin zabaldu ziranean, zentzuzko oreka baten egokitu ziran, leiñuen bizitzazko antolakuntza, auzotasunezko lurraldeetan laterrituta.

Atlant-Itsasotik Indiaraiño dauan bitarte aundiaren eragozpenagaitik, ez eutsen itzi izkuntz bateko azturan egokitzea, eta or, leiñu bakotzak nai oiñarri batekoak izan, sortarazi⁽⁶⁾ eben bardiñantzeko izkuntzetan egokitu ziran.

EUSKEREAK ZELAKO IRUDIAGAZ ITXURATZEN DAUTSO EUSKALERRIARI ?.

Euskaldunak, JAINKOA ta gaiari begira milla urte askoren ikerpeneko atun bidean⁽⁷⁾, edo ta aztura bidetik⁽⁸⁾ ondo erindu eta biribildutako lanean, itzaren esan zentzuak euren

(1) Ospea kendu=desconcepar.(2)Naspillatu= des-concertar. (3) Maitasunezko egarri = amar, querer, aspirar en definitiva. (4) Ezagueran erabidez = metòdica u ordenadamente. (5) Amore-emoten = amoldar. (6)Sort-arazi=crear.(7)Atun bidean=procedimiento empiriko. (8) Aztura bidetik=crecimiento del conocimiento.

arremaneko kidesunean atondutako lekuetan ondo aokatuta eta bete-betean egokituta geratu zitezten, EUSKERAZKO gaztelu ederrena eraiki eben gure ARBASOAK, eta bera-gaz emon eutsoen bizitz oneri, adierazpen ederrena.

Ez ziran txantxetan ibili, laztasun⁽¹⁾ eta zorroztasun⁽²⁾ aundikoak izan ziralako.

Euskal itzazko esaerak, sorburuzko itzekin osotutako almenean⁽³⁾ eginda dagozelako, irudiz, euren esangurazko dan toki berberan kokatzen gaitu, ia izkuntz gitxi baiño ez dauki-enak.

Gaztelerazko PLAYA itza adibidez: zelango zentzuzko ulermenean irudimenduta koka-tzen gaitu ?.

Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz⁽⁴⁾ edo eta areatutako maskor onda-rrarekin ?.

Gure arbasoak: Euskalerrriaren lur onetan agertzen diran aize, zabaldegi, ur, itsaso ta mendiak daukiezan era guztiaren aldakuntzazko irudietan eta euren gai biziko izankizunak zentzu audienean izendu ebazan alde batetik.

Bestetik, leiñu edo erri maillan: Begirunezko Lots aundiz⁽⁵⁾, eta azturabideko itzekin geratu ziralako senditasunaren bizitzazko arremanak, adierazpendu edo ta euren argitasu-nerako azalkatuta.

Erri edo Leiñu arteko maillan: Lots aundiaren ordezeko arremanakaz egiten ziran eginbe-arrezko gauza guztiak, Sekula ez giñelako joan bestea menperatzera edo ta daukana kentze-
ra, paregabeko demokrazia baten bizi ziran, gure arteraiño etorri jakuzan euskal baitazko
LEGE ZAR oneikaz.

Eta baktzaren eginkizunetan ? : Jainkoari begira, egia gure bizitzako ardatz nagusi beti izan danagaz aurrera egin, gure Euskalerrri maite onek, beste ainbeste milla urte geiago ira-un dagian.

Gure arbasoak, zentzunezko demokrazi egian bizitzeagaz, eta gaur arte ezer galdu gabe ekarri euskulako, daukaguzan askatasunezko demokraziaren egarriak bizi bizirik eta lengo lez daukaguz.

Eta zentzunezko ekintza orreik izan ziran, baita orreik izan bear dira gaurko egunean eta beti, zentzun aundiko eginkizun orreik diralako EUSKALERRIARI ainbesteko milla urte-tan bizi bizirik agertuazoteko, mirari aundi orreik egiten dabezanak.

EUSKEREAK:

Euskalerrriak daukan NORTASUNEZKO irudi ederragaz itxuratzen gaitu Euskaldun guztiai.

Maitetasun guztiagaz erkidetzeko egin gendun tresneri eder au, ez dalako gatz-gabeko mezu gaillu uts bat, gure artu emonetan ibilteko bakarrik.

Bere barnean ikusten direnak:

Bere Euskal barnetik agertuta ikusten diran egipideak:

(1) Laztasun = severidad. (2) Zorroztasun = austeridad. (3) Osotutako al-menean = potencia, potestad. (4) Leguntasunagaz = lisura, tersura. (5) Begirunezko lots aundiz = con gran respeto y mucha delicadeza.

a).- Jainkoari begira, “Beren Legearekin euki gendun oarmeneko samurtasuna”(1).

b).- Senitarte ta erri maillan Maitasunezko ulermena.

d).- Gure BAITAREN bake edo orekagaitik, azturazko jakintzan egin bear ginduzenak, zentzunezko ta zeaztasunaren lotsa aundiekin egin genduzelako, ARDURA AUNDIKO ERANTZUNPIDETZA.

Euskal bizitzarako edo eta erriaren babeserako EUSKEREAK daukan indarragaz, berez agertzen jaku MAITETASUNEZKO GAITASUNA(2), bere barneak daukan indarragaz, egin bear doguzan gauza guztietarako, argitasuna emoten dauskuelako.

Gure arbasoak, arremanezko gauzak, zentzun aundiz eroanda egin ebalako, eta DEMOKRAZIAREN ulermen aundi batera elduta bizi ziralako, sendimendu ber-berori sartu eutsoen Euskerari, orregaitik Euskerea ez da edozelako tresneri uts bat.

Bera da gure AMA, Euskal izatasuna bear dan zentzunezko lekutik bideratzeko.

Etorkizunean be, Euskerearen maitasunezko zentzutik artzen doguz nortasunezko izatasunak, Mundu guztiko gizarteari erakutsiz, euskaldunen nortasunezko egi bidea.

Menperatzaillak, euren nagusitasuna erakusteko, bizitz au, xautzailletasunezko(3) argi bideakaz ganoragabetu gura ba dabe, gu ez gara jausi bear txebera orreitan, bestela gudakin ez ebena lortu, gure iñozokeriakaz lortuko dabe.

Geiago bear ete dogu ?.

Ba, kontuan euki, gure arbasoak Euskereakin egin eben lez, guk elikatu bear doguzela zentzu aundiz nortasunezko demokrazia ON BATEK bear dauazan eginkizunekaz, gure ordezkarietzako ardura dalako, euskal izatasunean iraun gura ba dogu.

Emen txantxaka ibilita, begitu zer esaten eban Orejatar Martzeliñok: ETA´tarren esanak edo eta mezuak sinismenean edo kontuan aundian artzeko: “Orreik ez diralako gai, GUZUR BAT esateko eta”.

Eta Munduko gizarte ezagunak, irudi orregaz ikusten ote gaitue Euskaldunai ?.

Lur eta gizarteko aunditasunean, Erri txiker baten neurrian geratu gara, menperatzaillatasunezko alegiñak edesti guztian, aundiak eta eten bakoak izan diralako, baiña gure nortasunezko demokraziak zabaltzen dauan dirdirazko argitasuna, Munduko edozein lekutik ikusi leikena da.

EUSKALERRIKO SEMEAREN EGIN BEARRA.

Edesti guztiko autueta edo kondaira onetan ikusi dogu, Munduko gizarte onen on ikuskizunerako, aldakuntza aundi baten bearrean dagoela, bestela gagozan lokatz artetik urtea, gatz egingo jaku.

Ikusten dogulako alde batetik: Bereztutako Mundu au Jainkoaren legeakaz bere izatasun fisikoan guztiz mugatuta egonda, norkeriaren asmakizunezkoak euren xautzailletasunezko aberastasunean bizitzeko, ainbeste lapurketa ta naaskerizko ekintzakin noraiño eldu geinkezan, eta geiago, gaur ikusten dogunean, Beren Legearen mugako deiadar guztiak biztuta dogozela, bizitza amaieraren amiltegiko ertzera ekarrita.

Bestetik: Alderdikeri orreik sortu ziranetik eta nortasunetan, bai ta jakintzan be, zentzu-

(1)Oarmeneko samurtasuna=atenciòn, sentido de la observa-ciòn.(2)Maitasunezko gaitasuna=buena dotes, talento.(3) Xautzailletasunezko = despilfarrador, aniquilador, expendedor, malgastador.

nezkoak ez diran naastukerizko gauzatan sartzen gaituelako, gure nortasunaren ardurazko denborak bizitz onetan, egiaren benetako adierazpen onak ikusi eziñik edo igarri barik igarotzen dirala, eta beren ondorioz, zentzun gabekerizko ulermenean irauten dogu aurrera.

Zer egin ?.

Gure Euskal gogoko-baitan zikinduta daukaguzan zentzunez irteteko argi-bideak garbitu, eta geiago arduratu, Euskalerrriaren-gizarteko Nortasunak ordezkartzarako, edo eragille izateko daukan eskubideekin.

Gai-mundu onetan egiten diran norkeriaren bear-kuntzazko alegiñetatik, ekintza on orreik bakarrik ekarri leukiezelako askatasunaren pakezko orekak.

A ta guzti, urrun joan dira oraingoan norkeriaren batzangotasunezko alegiñetan dabizenak, maltzuratasunezko edozein eratarata jabetu diralako danon ardurakin.

Norkeriz bizi gure dabenak, bizitzeko bear doguzan mozkin guztiaren kontrola bear dabelako, beti aurreratu dira oinkada bat, Munduko gizarte onek bere alkartasunerako emon bear dabezan aurrerako oinkadak emon orduko, eta orregaitik joan dira oraingoan ain urrun, LOTSA guztia galdu dabelako.

Nora joango ote da errigizarte bat bere aurrerakuntzazko bizitzari begira, lapurtzazko antolakuntzan egiten dabezan egitamuekin ez bada gai, bere seme-alabak euren ezkontzaren bizitzarako be ezin bada be etxe bat edo ta bizitzeko bear dabena lortu ?.

Eta ez da txarrena ori, txarrena: Neska mutil gazte guzti orreik jopuzko lanean ipinita, ordaintzen dautzien sariekin, iñora edo eurak bizitzeko bear dabezan gauzetara ez zitezen sekula elduko premiña orreitan ipintea baiño !!⁽¹⁾.

Nungo sasi-jainkoak ote dira orreik, gizaren iraunkortasuna zalantzan ipinteko ?.

Ori bai, gaia ta errigizartearen nortasunezko eskubidetik alde eginda, dan guztia esku bakarretan batzangotu gura dabe, goiko agintaritzatik asi eta danoen ardurak ezereztuta, eurak urre-gorritzko-txekorraren serbitzuan bizitzeko.

Al izango ete dabe..., Giza, euren oparotasunaren zerbitzura ipinteko alegiñean, klonetan astea ?.

Astakerizko ergelkeri oneik noiz arte ?.

EUSKALERRIKO SEMEAI.

Edestitik zear aurkeztu dodan egoera ondagarri-tik⁽²⁾ esan leike, ez dagoela urten biderik, eta ez da egia. Aukera guztiak gure eskuetan egonda, danok garalako arduradunak, ondameneko estutasun oneta-tik urteteko antzezlariak.

Askotan esan leike, ibiltzen ipinten diran asmakizun txarrak⁽³⁾, eta euren alegiñetan indar geiegi daukie-lako, ezin dirala geratu edo eta txarrak dirala adieraz-pendu, areik eta beren zentzun okerrak ormaren aurka burua apurtu arte.

Orain gagoz gure giza barne edo baitazko⁽⁴⁾ aukera orreitan, edesti guztitik etorri dan giza ta errigizartearen berezko eskubide guztiak zapalduta, bizi onek mugatuta daukazan Bereztasunezko Legeakaz topo egin dabelako.

(1) Premiñan = sueños y necesidades que están ahí, pero en ningún caso alcanzable para ellos. (2) Ondagarritik = catastrófico/a. (3) Asmakizun txarrak = eta onek, bimilla urte baiño geiago daukaz, nai ta gogortzen asi zanetik 1.683 urte euki. (4) Baitazko = conciencia.

Muga ontara elduta, Mundu onen goiko agintaritzazko ulermenekoari be, euren giza baitak txarto goazela esaten dautsielako, " USTE DOT, OLDOZTEN ASITA EGONGO DIRALA".

Jainkoaren Legeak egiten dauskun oarpidera⁽¹⁾ eldu gara, eta beragaz, gogarketaren aldira⁽²⁾.

Ze gogapenagaz baiña ?:

Edesti guztian meatxuzko indarrarekin etorri dan erromatar asmakizun ori, eskubide guztiak zapaldu eta daukagun Nortasunaren ardurazko giza legetik kanpo itzita, Munduko gizarte guztia garrasika ekarri ondoren, abarrakitu⁽³⁾ edo azken gaizto baten amaitzen dabil.

Eta beren aurka, beste ainbesteko indarrakin jantzi ziran komunismuaren burutapenak be, norkeri bidez euren beste ainbesteko kaizar zaleak biurtu ziran lez, oneik be uts galanta egin dabe.

Eta gaur, sasi asmakizunean datorzan diruaren batzangotasunezko burutapenai, norberkeria leku guztietatik sartzen jakolako, beste ainbesteko uts galanta egin dau.

EUSKALDUNAK ZER EGIN ?.

Gure giza barrenak edo baitak⁽⁴⁾ itzartu eta oartu, Euskalerrriak edesti guztian dakarren eten bako borroka onetatik, gure izatasunezko nortasunean apurtu edo murriztu jakuzan gauza guztiak, berrezkuratu egin bear doguz.

Eta ezinbesteko gogo alegiñean, gure erri miñan, ainbeste zor dautsagun maitasunezko euskerea NORTASUNDU!. Len berak, gugaz egin eban antzera.

Euskaldunak or daukagulako nortasunaren izatasunezko altxor aundiena.

Baiña, lerkai eta izkilluaren ILKETA BARIK !!.

Zorionez, denbora orreik joan dira, eta gauza orreikaz irauten ba dogu, gure buruetara lerkai orreik botatea bezala da, eurak norkeriz jokatzeko, guk baiño indar eta maisutasun aundiagoa daukielako.

Eta euren norkerizko lege-joko orretan, guk bardiñ erantzun ezkerro, Munduko gizarte aurrean, daukagun pakezko eta askatasunaren demokrazizko izaera, izutzailenagaitik⁽⁵⁾ aldatu edo itzuli egiten euslako.

Gure etsaiak, ori gure dabe ba !!

Gure babeserako ibiltan doguzan izkilluak, eurenak legeztu egiten dabelako.

Orregaitik, eurak gudaren indarragaz al ezin izan dabena, guk, gure iñozokeriakaz⁽⁶⁾ egin daigula gura dabe.

Guk, Jainkoak ipini euskun legeari begira eta egi osoan, nai ta nai ez jokatu bear dogu.

Mundu onetan, gure Euskal Askatasunezko Elburua lortzeko, Bera eta Beren legeak diralako ardatz nagusienak bizitz onetan.

Eta al doguzen alegiñak len bait-len egin: GAUR GAGOZAN MENPERATZAILLEZKO "NACIONAL KATOLICISMO" LATERRI LAPUR ONETATIK URTEN, GURE EUSKAL ORDEZKO ARDURAK JAUNGOIKUAREN LEGEZ BETE DAIGUZAN, BETI, MUNDU ONEN BESTE BEREZKO ERRI GUZTIEKAZ BATERA.

(1) Oarpidera = advertencia. (2) Gogarketaren aldira = al momento de reflexión. (3) Abarrikatu = estrellar, hacer trizas. (4) Baitak = conciencias. (5) Izutzaille = terrorista. (6) Iñozokeriakaz = ingenuidad, necedad, simpleza.

EUSKALERRIA, MUNDU TA EUROPA ONEN IZAR AUNDIENETARIKO BAT DA.

EZ DAU MEREZI BEREN SEME BATZUK ARROTASUNEZKO BEROTASUNEN, BERAGAITIK EGITEN DABENA EGITEKO, ETA GUTXIAGO BESTE ERBES-TEKO LATERRIAK, BERE EUSKAL-NORTASUNEAN BIZITZEKO IPINTEN DAUTSOEZAN ERAGOZPIDE EDO OZTOPO IPINI EUTSOEZAN.


DANOK LANPETU BEAR GARA, DAUKAGUZAN ORDEZKARITZAZKO ARDURAK BETE DAIGUZAN ZENTZUZKO BAKEAN.

ALDERDIKERIEN GAIÑETIK EDO NAI ETA ALDERDIETAN BATUTA EGON ARREN, ELBURU BAKAR-BAT BEAR DOGU, ETA ORREN ITZULPENA:

“EUSKALERRIA EDO ETA EUSKADI TA EUSKEREA DIRA !!”.

**“IZADIAK DAUKAN LEGEAGAZ BATERA”
“ZAINDU BEAR DOGUZENAK”**

Atutxa'tar Paul
Zornotza'n 2.013'an Urtarrilla'ren 15éan




*Egurrola ta Madariaga 'tar Iñaki
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren diru-zaiña.*



*Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren batzordekoa.*



*Alonso ta Iriondo'tar Margari
Euskerazaleak eta Alkartearen irakaslea.*



Santibañez'tar Bitor
Euskerazaleak Alkartearen ikaslea.
Atutxa eta Agirre'tar Paul
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren idazkaria.
Uriarte eta Agirre'tar Joxe Ramon
Euskerazaleak Alkartearen ikaslea



*Garay'tar Jorje
Euskerazaleak Alkartearen ikaslea*



*Barroeta ta Amorrortu'tar Klaudioi
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren lendakaria.*

*Larrea'tar Anjel
Euskerazko irakaslea.*



*Egurrola ta Madariaga'tar Iñaki
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren diru-zaiña.
Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele
Euskerazaleak eta Euskerazaintzaren batzordekoa.*